

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# **AUTOITZULPENAREN TEORIA ETA PRAKTIKA EUSKAL HERRIAN**

**GARAZI ARRULA RUIZ**

**Tesi zuzendaria: IBON URIBARRI ZENEKORTA**

Vitoria-Gasteizen, 2018ko udaberria







# 0 esker ona

---

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiot Iboni, konfiantzagatik eta inplikazioagatik. Jakintza akademikoaz gain, ardura gastronomikoa eta baratzezaintzaren gorabeherak nirekin konpartitzeagatik.

Eliri ere milaka esker, babesagatik eta hasieratik ondoan egoteagatik. Tesiaren aitzakiaz beste hamaika elkargune aurkitu ditugulako.

Naroari eta Zuriñeri, besteak beste, bazkalordua atseginagoa egiteagatik. Programako, jakintza arloko eta ITZULIK ikertaldeko kide guztiei ere nire esker ona, akademiaren argi-itzalak erakusteagatik. Estiri, paper kontu zoragarriak arintzeagatik. Aritz Irurtzuni, ikerketarako gosea eta jakinmina pizteagatik. Lau urteotan modu batean edo bestean laguntzaile izan zaituztedan guztiei ere, mila esker: Bego Montorio, Iratxe Retolaza, Isabel Etxeberria, Aiora Jaka, Amaia Apalauza, Ibai Iztueta, Miren Ibarluzea eta Iñigo Roque. EIZIE, EIE eta UEUko langileei eskerrik asko, galde-eskeei beti hain prestu erantzuteagatik.

Ottawako Unibertsitateko kideei ere eskerrak eman nahi dizkiet; bereziki, Rainier Grutman eta Trish Van Boldereni, hain ongi hartzeagatik. Eta Liliri, egonaldia alaitzeagatik.

Ikerlan honen harira harremana izan dudan kultur eragile, liburuzain, editore, idazle eta itzultzaileei ere, mila-mila esker, testuak bidali, galderei erantzun eta lana errazteagatik; batez ere, corpuseko autoitzultzaileei. Hein batean, zuena ere bada ikerlan hau.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet lanaren nondik norakoez interesa azaldu duten guztiei, laguntza materiala eta morala eskaini didatenei. Baita buru-dispersiorako aukera eman didaten horiei ere, bihotzez. Andoniri, urte hauetako babes poliedrikoagatik eta kontuak *erlatibizatzen* irakasteagatik. Etxekoei eta adiskideei; zuek gabe, inora ez.



# aurkibidea

SARRERA .....	XIII
<b>1. OINARRI TEORIKO-METODOLOGIKOA .....</b>	<b>1</b>
1.1. POLISISTEMEN TEORIA .....	1
1.2. ITZULPEN IKASKETA DESKRIBATZAILEAK (IID) .....	5
1.3. CORPUSEN ERABILERA .....	9
1.3.1. Corpusean oinarrituriko (auto)itzulpen ikerketak .....	10
<b>2. AUTOITZULPENAZ .....</b>	<b>15</b>
2.1. AUTOITZULPENA ITZULPENA DA .....	15
2.1.1. Autoitzulpenen tipologia baterantz .....	19
2.1.2. Autoitzulpenaren muga mugikorrak .....	24
2.2. AUTOITZULTZEKO ARRAZOIAK .....	30
2.2.1. Autorearen ikuspegitik .....	31
2.2.2. Sistema literarioaren ikuspegitik .....	34
2.2.3. Ez autoitzultzeko arrazoiak .....	37
2.3. JARDUNAREN HARRERA ETA EMAITZAREN AURKEZPENA .....	40
2.3.1. Prestigio kontuak eta jatorrizkotasuna .....	46
2.3.2. Bertsioak, berridazketak eta beste .....	53
2.4. AUTOITZULPENA ETA IDENTITATEA(K) .....	59
2.4.1. Autoitzulpena, identitate konplexuen adierazle .....	59
2.4.2. Autoitzultzailearen identitatea(k) .....	64
2.4.2.1. Kategorizazio sozialaren teoria .....	70
2.4.2.2. Errepresentazio sozialaren teoria .....	73
<b>3. KULTUR TESTUINGURUA .....</b>	<b>79</b>
3.1. EUSKAL HERRIKO SISTEMA LITERARIOA(K) .....	80
3.1.1. Zertaz ari garen euskal literatura sistemaz ari garenean .....	83
3.1.2. Erdaretako literatura-sistemak euskarazkoarekiko .....	96
3.2. EGOERA SOZIOLOGIKOA .....	102
3.2.1. Diglosia literaturan? .....	104
3.3. IPARRAREN ETA HEGOAREN ALDERAKETA .....	107
3.3.1. Ipar Euskal Herria .....	107
3.3.2. Hego Euskal Herria .....	111
3.4. ERDIGUNEAK ETA ERTZAK EUSKAL SISTEMAN .....	113
3.4.1. Itzulpena sistemaren periferian .....	116
<b>4. KATALOGOAREN AZTERKETA .....</b>	<b>123</b>
4.1. KATALOGOA SORTZEA .....	123
4.2. EUSAL KATALOGOAREN DESKRIBAPENA .....	134

4.2.1.	Xede-hizkuntzen araberako azterketa .....	135
4.2.2.	Azterketa kronologikoa .....	136
4.2.3.	Autoitzultzaile bakoitzaren lan kopurua.....	141
4.2.4.	Generoaren araberako azterketa .....	142
4.2.5.	Xede-testuaren argitalpen lekuak .....	144
4.2.6.	Gogoetarako datu bat .....	146
<b>5.</b>	<b>KATALOGOTIK CORPUSERA.....</b>	<b>151</b>
5.1.	AUKERAKETA BAT .....	151
5.2.	AZTERGAIEN AZALPEN LABURRA .....	155
5.3.	CORPUSAREN DESKRIBAPENA .....	162
5.3.1.	Corpusa sortzea .....	162
5.3.2.	Datu-basea elikatzea eta ustiatzea.....	170
<b>6.</b>	<b>TESTU AZTERKETA .....</b>	<b>175</b>
6.1.	MAKRO MAILAKO AZTERKETA .....	175
6.2.	MIKRO MAILAKO AZTERKETA .....	182
6.2.1.	Kultur erreferentzien azterketa.....	182
6.2.1.1.	Kulturemen sailkapena .....	187
6.2.1.2.	Kulturemen itzulpena .....	188
6.2.1.3.	Hautapen bat aztergai dugun corpuserako .....	195
6.2.1.3.1.	STn oinarrituriko bilaketa .....	195
6.2.1.3.2.	XTn oinarrituriko bilaketa .....	214
6.2.2.	Heterolinguisismoaren azterketa .....	220
6.2.2.1.	Heterolinguisismoaz bi hitz .....	222
6.2.2.2.	Heterolinguismoa itzulpengintzan.....	226
6.2.2.3.	Heterolinguismoa aztergai dugun corpusean .....	228
6.2.2.3.1.	Lagin adierazgarri bat .....	229
6.2.2.3.2.	Datu kuantitatiboak .....	231
6.2.2.3.3.	Heterolinguismoaren adierazpideak .....	234
6.2.2.3.4.	Itzulpen-teknikak hizkuntzaren arabera .....	255
6.2.2.3.5.	Xede-testutik abiatuta .....	258
6.2.2.4.	Beste aztergai batzuk.....	265
<b>7.</b>	<b>ONDORIOAK.....</b>	<b>271</b>
	<b>BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>287</b>
	<b>ERANSKINAK.....</b>	<b>305</b>







---

# irudien zerrenda

---

Irudia 1. Autoitzulpenak xede-hizkuntzaren arabera.....	136
Irudia 2. Autoitzulpen kopurua hamarkadaz hamarkada .....	139
Irudia 3. Autoitzulpenak generoen arabera .....	144
Irudia 4. Autoitzulpenak argitalpen lekuaren arabera .....	146
Irudia 5. TRACEaligner programaren interfacea.....	166
Irudia 6. ELO liburuaren .xml dokumentu etiketatua .....	167
Irudia 7. Testuak lerrokatzeko TRACEaligner programaren aukerak .....	170
Irudia 8. Corpusean bilaketak egiteko aukerak.....	171
Irudia 9. Bilaketaren emaitzak, adibide bat .....	172
Irudia 10. Kulturema hautatuen kopuru gordinak, STn .....	196
Irudia 11. Kulturema hautatuen kopuru gordinak, XTn .....	215
Irudia 12. Datu-bilketa excel dokumentuan .....	231
Irudia 13. Grutmanen 4. puntua: izen bereziak nagusi .....	234
Irudia 14. Itzulpen-teknikak eta hizkuntzak erkatzea.....	258



# taulen zerrenda

Taula 1. 1975era arteko autoitzulpenak.....	138
Taula 2. ST eta XT arteko urteak .....	140
Taula 3. Gehien autoitzuli duten autoreak .....	141
Taula 4. Aztergaiak.....	153
Taula 5. Aztergaiak eta kodeak .....	166
Taula 6. Hitz kopuruak, adibide bat.....	167
Taula 7. Hitz eta esaldi kopuruak.....	168
Taula 8. Kreditu orrietako datuak .....	176
Taula 9. Corpuseko liburuen tituluak .....	177
Taula 10. EPA-ren atalak .....	178
Taula 11. ARK-ren atalak.....	178
Taula 12. Sortze diskurtsiboaren adibide bat.....	180
Taula 13. Estilo aldaketaren adibide bat .....	181
Taula 14. "Euskal Herria" kulturemaren ordainak .....	198
Taula 15. "Euskaldun" eta horren aldaeren ordainak .....	200
Taula 16. "Euskal" adjektiboaren ordainak .....	205
Taula 17. Gainerako kulturemen ordainak .....	210
Taula 18. Corpusaren lagina, segmentuak .....	230
Taula 19. Grutmanen sailkapenaren arabeko kopuruak, STn.....	232
Taula 20. Grutmanen 1.puntuko adierazpideen hizkuntzak, STn .....	237
Taula 21. Izen berezien sailkapeneko kopuruak, STn .....	240
Taula 22. 4.puntuko (Grutman 2002) hizkuntzak, izen berezirik gabe.....	249
Taula 23. Frantsesa/gaztelania eta ingelesa kopuruak .....	255
Taula 24. Heterolinguismoa gorde eta egokitze adibide bat.....	259



# laburdurak

## CORPUSEKO TESTUAK

ARK EU	<i>Septentrio</i> (euskaraz)
ARK FR	<i>Septentrio</i> (frantsesez)
BOR EU	<i>%100 Basque</i>
BOR FR	<i>100 % basque</i>
CAN EU	<i>Belarraren aboa</i>
CAN ES	<i>El filo de la hierba</i> (ES1 eta ES2)
ELO EU	<i>SPrako tranbia</i>
ELO ES	<i>Un tranvía en SP</i>
EPA EU	<i>Tigre ebizan</i>
EPA ES	<i>Cazadores de tigres</i> (ES1 eta ES2)
JAI EU	<i>Amaren eskuak</i>
JAI ES	<i>Las manos de mi madre</i>
MEA EU	<i>Kristalezko begi bat</i>
MEA ES	<i>Un ojo de cristal</i>
ROD EU	<i>Eta handik gutxira gaur</i>
ROD ES	<i>Cuatro cicatrices</i> (ES1) / <i>Y poco después ahora</i> (ES2)
ROZ EU	<i>Negutegia</i>
ROZ ES	<i>Negutegia. Invernario</i> (ES1 eta ES2)
ZAL EU	<i>Euskaldun guztion aberria</i>
ZAL ES	<i>La patria de todos los vascos</i>

**BESTELAKO LABURDURAK**

IID	Itzulpen ikasketa deskribatzaileak
HGL	Haur eta gazte literatura
ST / SH	Sorburu-testua / Sorburu-hizkuntza
XT / XH	Xede-testua / Xede-hizkuntza
ELS	Euskal literatura sistema
ELI	Euskal literatura itzuliaren katalogoa
EUSAL	Euskaratik autoitzulitako literaturaren katalogoa



# S sarrera

---

Ikerketa-lan honek itzulpenarekiko eta literaturarekiko zaletasuna du abiapuntu. Era berean, nahitaez, konstante bat izan da gure herri honen egoera soziolinguistikoarekiko kezka, ikerlanaren prozesu osoan, baita sorburuan ere. Hiruko ekuazio horretatik sortu da lan hau, itzulpen ikasketen barruan kokatu dudana.<sup>1</sup> Maila metodologikoan bereziki, ikerlan hau Euskal Herriko Unibertsitatean euskara ardatz izan duten itzulpenari buruzko lanen jarraipena dela esan daiteke, aurrekari horiek gabe nekez sortuko bailitzateke hau.

Hizkuntza gutxituetan itzulpenak duen garrantziaz jakitun, eta orain baino lehen itzulpengintzak euskararekin egin duen ibilbide akademikoa laburra denez, jorrazteko hamaika arlo lituzke batek eskura. Autoitzulpenaren aukeraketak, ordea, aipatu hiruko ekuazioari ezin hobeki erantzuten diola iruditzen zait; izan ere, itzulpen ikasketetan geroz eta arreta handiagoa hartzen ari da, testuinguru soziolinguistikoaren adierazle nahiz ondorio izan zitekeela uste dut, eta bereziki ikusgarria da literaturan. Horretaz gainera, ikusiko dugun bezala, autoitzulpenaren hedapena handia da gurean: batetik, euskaldunok egunerokoan egiten dugun buru-ariketa dela esan daiteke; bestetik, literaturan, jardun sistematikoa da, ez autore gutxi batzuen apeta.

Manu Lopez Gasenik *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan* kaleratu zuen 2005ean, eta hori izan zen berriaz autoitzulpenari euskara tarteko begiratu zion lehen lana. Euskaraz idatzi eta gero beren lana itzultzen duten idazleei buruzko azterketa egiten du bertan, modu deskriptiboan. Bestalde, Elizabete Manterolak (2012) egin zituen helduentzako literatura autoitzulpenari buruzko lehen gogoetak, euskal literatura itzulua aztertu zuenean. Biak ala biak eredugarriak izan dira lan hau idazterakoan. Nolanahi den, gure mugatik kanpo ere izan dute euskara eta autoitzulpena aipagai, betiere testuinguru elebidun bateko hizkuntza gutxituaren ikuspegitik, hala nola, Julio César Santoyok (2002, 2005) eta Rainier Grutmanek (1998, 2009).

Lan horiek aintzat hartuta, autoitzulpenaren noranzkotasuna mugatzea eta ardatza euskaratik beste hizkuntzetara egiten den horretan jartzea erabaki nuen. Izan ere, ez dago erdaraz idatzi eta gero sistematikoki euskarara autoitzultzen duen idazlerik. Elizabete

---

<sup>1</sup> Sarrera izeneko atal honetan, singularreko lehen pertsona erabiliko dut, ondorioetan bezalaxe; 2. ataletik aurrera eta ikerlan osoan, ordea, gehienbat pluraleko lehen pertsona darabil, prozesua oro har eta lan hau zehazki ez baita jardun bakartua, ez hutsetik sortua. Nolabait, iturri edo lagun izan ditudan ikerlanei eta kolektiboari aitortza izanen da plural hori.

Manterolak (2012) egindako lanetik abiatuta, beste urrats bat egin nahi izan dut, berariaz autoitzulpenari begiratzeko, bai teorikoki, bai praktikoki. Zenbait galderari erantzuten saiatuko naiz, beraz: zer euskarazko testu autoitzuli dira? Zergatik itzultzen dute euskal idazleek beren lana? Zergatik ez dute hala egiten? Zer gertatzen da itzulpen-prozesu horretan? Zer leku dute autoitzulpenek literatura sisteman? Nola aurkezten da lan autoitzuli hori? Zer bide hartzen dute autoreek itzulpen prozesuan? Ezberdin jokutzen ote dute xede-testuaren argitalpen lekuaren arabera? Nola eragiten dute hizkuntza konbinazioak eta asimetria egoerek? Horri loturik, joera bera jarraitzen al diote Bidasoaren bi aldetako autoreek edo xede sistema literarioak autoitzulpen jardunean eragiten du? Autoitzulpenaren ikerketak zer ekarpen egin diezaioke euskal literatura sistemaren azterketari? Aurreko lanetan oinarriturik, hipotesi hauek ditut ikerlanari ekin aitzin: lehenik, autoitzulpena azken urteotan ugartu da, eta kopuruak goranzko joeran dira; bigarrenik, idazlea eta itzultzailea bat eta bakarra izanik, itzultzailetza autoretzaren itzalean geratzen da; azkenik, produktua neutralizatuko dela pentsa genezake, autoitzulpena hizkuntzen egoera asimetriko jakin batean gertatzen denez. Gainera, pentsa daiteke euskal idazleak elebidun/eleaniztunak izateak eta aipatu asimetria horrek (baita, ondorioz, autoitzulpenerako aukerak) ez dutela itzulpen jarduna soilik baldintzatzen, baizik eta euskarazko sorkuntzari ere eragin diezaioketela. Zuriñe Sanzek dioenez (2015: 4), itzulpenaren presentzia sorkuntza lanetan ere nabarmena da.

Azterlan honekin, aipatu galderari erantzuna emateaz gainera, ekarpena egin nahi diot bai autoitzulpenaren azterketari, oro har, bai euskal literaturan geroz eta zabaldutako dagoen praktika baten gogoetari, zehazki. Gainera, literatura sistemaren nolakotasunen berri emanen digulakoan nago. Betiere, helburu dudala euskal idazleek beren testuak itzultzean zer joera dituzten deskribatzea. Horretarako, corpusean oinarrituriko metodologia erabiliko dut; itzulpen-ikasketetan oraindik ere urria da corpusen erabilera, orain arte bereziki hizkuntzalaritzak erabili baitu tresna hori. Ikerlan honetan, corpora bitartekoa izanen da autoitzulpena modu sistematikoan aztertzeko. Zazpi ataletan banatu dut tesia, segidan azalduko dudanez.

Sarrerako lehen atal honen ondotik, marko teoriko-metodologikoa zehaztuko dut, 1. atalean. Esan bezala, azterlanaren oinarria itzulpen ikasketa deskribatzaileetan datza, eta hori labur azaltzen saiatuko naiz, honezkero ugariak baitira ikasketa horiei buruzko lanak. Hori dela eta, gurerak ekarriko eta autoitzulpenarekin lotuko dut, dela polisistemen teoriak mintzatzen naizenean, dela itzulpen ikasketa deskribatzaileak azaltzen ditudanean.

Bigarren atalean, hausnarketa teorikoa egingen dut, autoitzulpenaren fenomeno bere zabalean ardatz hartuta. Hau da, ez literaturaren ikuspegitik, baizik eta praktika hedatu eta ohiko modura. Orain arte jardunari buruz idatzi dena aurkeztu eta eztabaidatuko dut, lau azpiataletan banatuta: lehenik, autoitzulpena itzulpenaren barruan kokatuko eta orain arteko autoitzulpenaren tipologiak aurkeztuko ditut; bigarrenik, (ez) autoitzultzeko arrazoiak azalduko ditut, euskal autoreen testigantzekin loturak eginez, praktikara bultzatzen dituzten askotariko arrazoiak ezagutzeko; hirugarrenik, jardunaren harreraz eta xede-testuaren aurkezpenaz mintzatuko naiz, horrek eragina baitu euskal literaturaren nahiz autoreen proiektzioan; eta, laugarrenik, autoitzulpena eta identitateak uztartuko ditut, autoitzulpenaren arloan identitateak lantzeko proposamen teoriko bat egiteko.

Hirugarren atala kultur testuinguruari eskainiko diot. Izan ere, itzulpena gertakari soziala eta kulturala da, eta ezinbestekoa da euskal literatura sistemaz aritzea. Itzulpen ikasketa deskribatzaileek fokua xede-testuinguruan jartzen badute ere, azterlan honek sorburu-testuinguruari erreparatuko dio 3. atal honetan, maiz sorburu-erakundeek sustatzen baitute euskaratik beste hizkuntzetarako itzulpena. Gainera, aintzat hartu behar dugu sarritan sorburu-testuingurua eta xede-testuingurua bera dela, geografiari begiratzen badiogu, behintzat. Zenbaitetan, bada, ezin bereiz daiteke hain erraz sorburu/xede bikotea. Beraz, itzulpenak euskal literaturan zer leku duen ikustea ere garrantzitsua izanen da autoitzulpena ulertzeko.

Laugarren atalean, Euskaratik Autoitzulitako Literatura katalogoaz (EUSAL) mintzatuko naiz. Manterolak (2012) ELI katalogoan bildutako autoitzulpenak hartu, eta zerrenda eguneratu eta osatuko dut. Horrela, hainbat ikuspegitatik helduko diot katalogoaren azterketari; esate batera, argitalpen-lekuari, xede-hizkuntzari eta generoari begiratuko diet. Modu horretan, euskaratik egin den autoitzulpenen ikuspegi oso bat izanen dugu, azterlan honetarako ez ezik, hurrengoetarako ere oinarri izan daitekeena. Katalogoa osatzeko izandako zailtasunak eta trabak ere aipatuko ditut, emaitzekin batera prozesua jasotzeko.

Katalogo horretatik corpuserako jauzia egingen du bosgarren atalak. Katalogoan jasotako tituluetatik lagin bat hartuko dut, irizpide jakin batzuen arabera; zehazki, hamar sorburu-testu eta horien autoitzulpenak aukeratuko ditut, gero aztergai izanen ditudanak. Corpusa zertan datzan eta nola sortu dudana azalduko dut atal honetan; azterketa xehea egiteko tresna baliagarria da, eta merezi du baliabide metodologiko honi arreta eskaintzea.

Seigarren atala izanen da tesi honen ekarpen berritzaileena, bertan egingen baita corpusean bildutako testuen azterketa xehea. Behaketa enpirikoa da itzulpen ikasketa deskribatzaileen oinarri bat, eta horretarako, azterlan honetarako berariaz sorturiko corpusa baliatuko dut. Lehenik, makro mailari begiratuko diot: testuen egiturari, atalen ordenari eta hitz nahiz esaldi kopuruari. Bigarrenik, mikro mailako azterketa egingen dut, eta bi aztergai izanen ditut, testu masa handia izanik, aukeratu egin behar baita zeri erreparatu. Batetik, kultur erreferentziak aztertuko ditut, zehazki, toponimo eta horietatik eratorritako termino jakin batzuk; bestetik, heterolinguismoa izanen dut aztergai. Biak ala biak testuetan aztertu aurretik, horiei buruzko oinarri teoriko laburra jarriko dut, azken urteotan hazi egin baita bi arlo horiekiko interesa eta horien ikerketa. Iruditzen zait makro mailako azterketak nahiz testu azterketa xeheak autoitzulpen jorei buruzko argazki bat emanen digula.

Azken atalean, hasierako hipotesiak eta galderak alboz albo jarriko ditugu azterketatik lorturiko emaitzekin, ondorio orokor batzuk eman ahal izateko. Horrela, nahitaez, hipotesi nahiz galdera berriak sortuko dira, ibili beharreko ikerlerro gehiago, jarraituko dugun metodologiaren izaera zirkularraren adierazle.



1



# 1

# oinarri teoriko- metodologikoa

---

Ikergaiari heldu aurretik, azterketaren oinarri eta marko teoriko-metodologikoa jorratuko dugu labur.<sup>2</sup> Hasieratik esan behar da ikerlan hau itzulpen ikasketen barruan kokatzen dugula; oraindik ere ez dago diziplina guztiz finkatuta, eta bada berariazko ikasketak direla ukatzen duenik, literaturaren edo hizkuntzalaritzaren azpifenomenoa delakoan. Ikerlan honek, ordea, itzulpen ikasketak ditu marko, atal honetan azalduko dugunez. Lehenik, polisistemen teoriari buruz mintzatuko gara, baita hori garatu eta gaintitu duten proposamenei buruz ere. Jarraian, itzulpen ikasketa deskribatzaileak azalduko ditugu, ikerketa honek metodologia horri jarraituko baitio. Orobat aipatuko ditugu beste teoria postmoderno batzuk, nekez ulertuko baitugu azterlan hau ekarpen horiek aintzat hartu gabe, zuzenean edo zeharka elikatu baitute honen oinarria. Azkenik, corpusean oinarrituriko azterketei buruz mintzatuko gara, gure ikergaiarekin lotura eginez, orain arte metodologia horretan oinarrituriko autoitzulpenaren ikerlanek zer bide egin duten ikusteko.

## 1.1. POLISISTEMEN TEORIA

Itamar Even-Zoharrek 1970eko hamarkadan egindako hausnarketa batzuen ondorioz sortu zen Polisistemen teoria, eta gero beste hainbatek heldu diote, nork bere esparrutik; bereziki, geroago ikusiko dugunez, Gideon Touryk (1980). Sortzez, formalismo errusiarrean eta

---

<sup>2</sup> Bai polisistemen teoria, bai Itzulpen ikasketa deskribatzaileak (IID) luze eta zabal azaldu dituzte hainbat autorek, adituk eta akademikok; ez gara, beraz, atal honekin luzatuko. Gai horiei buruz gehiago jakin nahi duenak iturri hauetara jo dezake: Toury (1980, 1995), Holmes (1988), Even-Zohar (1990a, 2010), Iglesias Santos (1999), Gentzler (2001), Hurtado Albir (2001), Tymoczko (2007, 2013) eta Baker (2009, 2011). Euskaraz ere jorratu dira gaiok, besteak beste, Lopez Gaseni (2000), Jaka (2012), Zubillaga (2013) eta Sanzek (2015) doktore-tesietan. Atal hau osatzeko, iturri horiek eta atalean aipatzen diren beste erreferentziak izan ditugu oinarri.

Pragako Eskolako txekiar estrukturalismoan oinarrituriko teoria da (Hurtado Albir 2001: 562). Roman Jakobsonen hitzezko komunikazioaren eskema ezaguna literaturara egokitu zuen Even-Zoharrek (1990a: 31): ekoizlea [idazlea], kontsumitzailea [irakurlea], instituzioa [testuingurua], errepertorioa [kodea], merkatua [kanala] eta produktua [mezua]. Faktore horien arteko interdependentziek ahalbidetzen dute horiek guztiek jardun ahal izatea; hots, faktore horietako bat ere ezin da azaldu bakarrik badator, elkarren arteko lotura eta eraginik gabe. Elkarguneak eta gainezartzeak dituzten sistemen sistema dira, nolabait esatearren. Horri *relational thinking* deitzen dio Even-Zoharrek (2010: 38), etengabeko elkarreraginean dauden parametro sorta heterogeneoa osatuko baitute sistemek. Nabarmendu behar da polisistemen teoria literaturaren arloan sortu zuela Even-Zoharrek; nolana den, garai bertsuan itzulpenaren azterketak indarra hartu zuenez, ohartu zen bere eskema osatzeko itzulpengintza aberasgarria eta kontuan hartu beharrekoa zela.

Teoria sistemikoetan sakondu duten autoreek literatura-sistemaren barruko dinamikan eta antolamendu hierarkikoan *erdigunea* eta *periferia* bereizi dituzte, edota *kanonizatua* eta *ez-kanonizatua*.<sup>3</sup> Sisteman parte hartzen duten elementuak, bada, sistemako erdigunean edo periferian egon daitezke. Betetzen duten tokia, ordea, ez da hermetikoa, aldakorra baizik; horrela, batzuetan erdigunetik periferiara igarotzen dira eta alderantziz. Sistemen arteko transferentziak (Even-Zohar 2010: 44) ere gerta daitezke, elementuok ondoko sistemako erdigune/periferiara pasatzen badira. Beste sistema batek eragin dezake elementu baten periferiatik erdigunerako jauzia; kasurako, xede-merkatuan erdararako autoitzulpen batek arrakasta badu (dela saritzen dutelako, dela kritikak txalotzen duelako), sorburu-sisteman eragin lezake, euskarazko obra horren erdigunerako bidea lautuz. Teoria honek sistemen arteko elkarreraginaren ondorioztat aztertzen ditu transferentziak, ez halabeharrez gertaturiko fenomenotzat. Itzulpenaren mugak eta kokapena ere ez dira behin betikoak, kultur sistema jakin bateko harremanek baldintzaturiko jarduera baita, esan dugunez. Horrela, Aiora Jakak (2012: 68) dioenez, literatura sistemez osaturiko polisistema gisa deskribatuz gero, tradizionalki bazterrekotzat jo izan diren hainbat generok (hala nola haur literaturak eta itzulpengintzak) literatura kanonikoaren garrantzia bera har dezakete.

Literaturaren azterketa “goi-mailakotzat” jotzen ziren literatura-lanetara mugatzea leporatu zien Even-Zoharrek errusiar formalistei. Autoreak dio, arau modura, literaturen historiak erdiguneari erreparatu izan diola, eta itzulpenak aipatzen dituela soilik horiei itzuri egiteko modurik ez duenean. Aitzitik, teoriaren sortzailearen iritziz, literatura itzulia literatura-polisistema baten barruko sistemarik aktiboena izan daiteke baldintza jakin batzuetan, aipatu elkarreraginagatik, hain zuzen:

The normative repertoires of any activity would very likely stagnate after a certain time if not for competition from non-normative challengers. Under the pressures from the latter, the normative repertoires may not be able to remain unchanged. This

---

<sup>3</sup> Idurre Alonsok (2008) bi kategoria horiek bereizten ditu: kanona kontsagrazio-prozesu baten azken mailatzat du, urte askotako onespeneraren emaitzatzat; erdigunea, berriz, unean uneko arrakastaren ondorio da, egoera sinkroniko bati egiten baitio erreferentzia. Alonsoren ustez, bada, erdigunean egoteak ez du kanonizazioa ziurtatzen, horretara bideratzen badu ere. Euskal literatura gazteegi ikusten du kanonez hitz egiteko, «baldin eta kanona iragana irakurtzeko modu intentzional gisa (Sullá, 1998:32) hartzen badugu» (Alonso 2008: 226); beraz, Alonsok erdiguneak eta periferiak ditu hizpide.



guarantees the evolution of the “system,” which, paradoxical as it may sound, is the only means of its preservation (Even-Zohar 2010: 46).

Beraz, Even-Zoharren (1990b) arabera, itzulitako literaturaren posizio “ohikoa” periferikoa da; interferentzia handia dagoenean soilik har dezake erdigunea literatura iturri handienetik edo influentzia eta kopuru handienetik datorren literatura itzuliak. Adibide batzuk ere jartzen ditu: hebrear literatura polisisteman, bi mundu gerrak bitartean, errusieratik itzulitako literaturak erdigunea hartu zuen, eta beste hizkuntza batzuetatik (ingeleza, frantsesa, poloniera) itzulitakoak, berriz, periferia; molde eta arau berritzaileak errusieratik itzulitakoetan zeudenez, horiek hartu ziren eredutzat beste hizkuntzetatik ere itzultzeko (Even-Zohar 1990b: 49). Aldiz, frantses sistema kulturean, beste sistema batzuk baino zorrotzagoa izanik eta tradizioz European frantses literaturak posizio zentrala bete duenez, frantsesera itzulitako literatura izugarri posizio periferikoan geratu da, baita gaur egun ere. Argi dago, bada, aspektu soziologikoek eragin handia dutela itzulpenetan eta, oro har, literatura polisisteman. Kasurako, polisistemen teoriaren barruan, Covadonga Fouces-Gonzalezek (2011) gogorazten du mende bukaerako jendarte neoliberal eta kontsumistaren rol bereizgarriak nahitaez agertzen zaizkigula itzulpenean; haren arabera, idazlea ekoizle da, irakurlea kontsumitzaile, eta testua kontsumitzeko gai, eta xede-jendarteko arauak eta testuinguruak salgai horretan eta horren kontsumoan eragina izanen dute.

Polisistemen teoriari kritika eta zehaztapen bat baino gehiago egin zaizkio; esaterako, Paul Bandiak (2006b) polisistemen teoriari kritikatzan dio sorburu- eta xede-kulturen arteko oposizioak baldintzatzen duela eta balio hierarkikoak birstortzen dituela. Teoriak oinarrian duen eredu estrukturalistak ere kontrako iruzkinak jaso ditu. Edwin Gentzlerrek (1993), esaterako, teoriaren zenbait zutabe zalantzan jartzen ditu, eta eredu abstraktuetan oinarritu izana kritikatzan du (Gentzler 2001: 121). Traba hauek ere ikusten dizkio polisistemen teoriari: lekukotasun gutxitan oinarrituz lege unibertsal orokorrak ezarri nahi izana eta zientifikoa izan nahi duen eredia nahikoa objektibotasunarekin aurkeztu ez izana (Jaka 2012: 64).

Esan behar da egon dela beste proposamenik euskal literaturaren eremuan ere: Jon Kortazarrek (2016) editaturiko *Autonomía e ideología* bilduma literaturaren soziologian oinarritzen da, bai Even-Zoharren (1990a) bai Bourdieuren (1992) metodologiaren bidetik; horrela, artearen adierazpen askotarikoak aztergai hartuta, bildumako artikuluak autonomia artistikoari buruz gogoetatzen dute marko soziologiko horretatik. Bestalde, polisistemen teoria labur geratzen zela iritzita, Miren Ibarluzeak (2017) Bourdieuren eremuen teoria aplikatzen dio itzulpenaren azterketari; euskararako itzulpengintzak osatzen duen egituraren harremanak, tentsioak eta iruditeria deskribatzen ditu Bourdieuren eremua, habitusa eta kapitala kontzeptuen bidez.

Polisistemen teoria osatu nahi izan zuen Touryk bere lehen lanetan, eta gero, itzulpen-teoria deskribatzaile eta sistematiko baten beharri erantzun zion (Toury 1995), James Holmesen (1972) eskemaren bidetik. Touryren iritziz, itzulpen-lanak aztertzeko, lehenik itzulpena xede-kulturako sisteman kokatu behar da, onargarritasuna aztertzeko; bigarrenik, sorburu-testua eta xede-testua alderatu behar dira, harremanak aurkitzeko; eta, azkenik,

itzultzailearen jokabideari eta erabakiei buruzko ondorio orokorrak atera daitezke. Horrelako urrats-kate batek, Touryren (2000) ustez, itzulpen prozesu osoan indarrean dauden “arauak” berreraikitzeke balio dezake. Xede-sistemaren nagusitasun horren harira, lotura egin dezakegu funtzionalismotik iristen den Skopos teoriarekin, horrek helburuaren araberrako itzulpena aldarrikatzen baitu: itzultzaileek aukera dute testua nahieran berridazteko, zeren berkontestualizazio prozesuan, hots, itzulpen-prozesuan, aldatu egiten baita testuaren hizkuntza, hartzailea, garaia eta funtzioa. Izan ere, polisistemen teoriaren bultzatzaileen helburua ez da, ordura arteko itzulpen-ikasketetan bezala, testu bakar baten itzulpen-prozesua aztertzea, baizik eta literatura-sistema oso baten barruan gertatzen diren itzulpen-prozesu eta -aldaketak ikuspegi zabal batetik deskribatzea. Horrela, polisistemen teoriak itzulpen-prozesuak sinkronikoki eta diakronikoki ikertzearen beharra aldarrikatuko du (Gentzler 2001).

Gurera etorrita, orain arte esandakoari jarraikiz, euskal literaturaren moduko sistemak (ELS) makrosistema handiagoen parte dira. Sistema baten adina edo antzintasuna faktore erabakigarria izan daiteke beharrezko elaborazio, adopzio eta mailegu estrategiak aukeratzeko. Hots, sistema “gaztea” denean, gurea kasu, erreperitorioa mugatua izan daiteke, eta horrek erabilgarri dauden beste sistemak modu batera edo bestera erabiltzera darama (esaterako, beste hizkuntzak, kulturak, literaturak; gure kasuan, erdal sistema hegemonikoak).

Horrela, gurean, literatura sistema berreraikitzeke saiakerak ez dira gutxi izan, eta itzulpenek rol garrantzitsua bete dute, hizkuntzaren biziberritze ekintzak tarteko; horren adierazle, euskararako itzulpen kopuru handia. Even-Zoharrek dioenez (1990a: 62), «in the case of two communities either geographically contiguous or mixed, or otherwise linked, interference can take place on a variety of levels but not necessarily on the level of literature». Manu Lopez Gaseni (2009) euskaraz ekoizten den horrek osaturiko sistemaz mintzo da; beraz, ez hainbeste kulturatik abiatutako polisistemaz, baizik eta hizkuntzatik abiatutakoaz. Nolanahi den, esanen genuke gurean interferentzia nabarmenak egon badaudela, kultura hegemonikoen eragina eta estimulak ugariak direnez, hori testuetan islatzen den gorabehera. Horrela, Manterolak (2012) dio ezin garela bi literatura sistema hutsez mintzatu, polisistemen faktore bakar batek ere ez baitu modu autonomoan funtzionatzen; Ana Gandarak (2012: 10), berriz, galdera egiten du: «ELSn (bat bada, bederen) bida azpi-sistema aitortu beharko zaizkio?». Beste aukera batzuk badirela aitortuta, Gandarak (2012) aldarrikatzen du ELS euskara nahiz erdarazko jardueren azpi-sistemak barneratzen dituen makrosistema bat dela. Hizkuntza orotan idatzitakoak biltzen dituen sistemaren bidean koka dezakegu Joseba Gabilondoren proposamena ere: “euskal literatura postnazionala”. Gabilondoren hitzetan (2006: 14), «euskaldun edo basko guztiek beren hizkuntza guztietan idatzitako literatura(k)». Horren harira, Ana Toledok (2010: 774) honela dio:

Euskal Herria subjektu politiko izan ez den nazioa den aldetik entelekia hutsa baldin bada, entelekia hori hiztun-komunitate desberdinek osatu baldin badute eta hiztun-komunitate horietan euskalduna izan baldin bada botere politikorik izan ez duen bakarra, gainontzeko komunitateek aldamenen edo bertan (gaskoiaren kasua) botere politikoa izan dutenean, ez ote ondorioztatu behar sistema desberdinetan funtzionatu

duela hizkuntza bakoitzeko produkzio literarioak? Eta polisistema bezala azterketa planteatzen bada, (...) sistema Euskal Herrian egindako literaturetan jartzeak, markoa zabaltzea eska dezake, Espainia eta Frantziako literaturetan sistema kokatzeko; izan ere, batean, estatua, besteetan hizkuntza eta estatua partekatzeak eragingo zuen sistemen arteko interferentziarik.

Laburbilduz, edozein literatura-sistema bestelako sistema sozial, ekonomiko, kultural eta historikoekin elkarreragin etengabekoan badago, ezin zaie hizkuntza hegemonikoetako literatura sistemei ezikusia egin, sistema beraren parte diren ala hiru sistemen elkarreragina eta harremana nolakoa den gorabehera. Are nabarmenagoa da hori autoitzulpenaren kasuan, autoreak bi aldiz baita ekoizle, ustez bi literatura-sistematan, eta bi kontsumitzaile komunitateri eskaintzen dio bere lana (nahiz eta bi komunitate horiek hain bereizgarriak ez izan). Bestela esanda, ez da sistema berezian batuketa bat. Itzulpena sistema konplexu gehien oinarrian dago, nahiz eta beste sistemekiko interferentzia askotarikoa izan daitekeen: sistema batzuek maila handiagoan jokatu dute beregain, eta beste batzuek mendekotasun handiagoa izanen dute. Beti egonen da, hala ere, interkonexioa, hori aldakorra eta dinamikoa izanik ere. Sistema beraren baitan ere mailak egonen dira; hots, estratifikazioaz mintzo gaitezke, atal batzuetan modu batean jokatu baitu sistemak, eta beste batzuetan bestela. Esan dugunez, bada, literatura sistema ez da “existitzen” horretarako edo horren barruan lehiatzen diren harremanetatik kanpo.

## 1.2. ITZULPEN IKASKETA DESKRIBATZAILEAK (IID)

Israel, Herbehereak eta Belgikako ikertzaile batzuek garatu zituzten Itzulpen ikasketak deiturikoa, 1980aren inguruan. Zehazki, Hermansek dioenaren arabera, itzulpenaren ikuspegi deskribatzaile eta sistemikoa 1960ko hamarkadan sortu, 70ekoan garatu, 80koan zabandu eta 90eko urteetan egonkortu, berrikusi eta zorrotz zen (Hurtado Albir 2001: 559). Theo Hermansek *Translation in Systems. Descriptive and Systemic Approaches Explained* (1999) liburuan azaltzen ditu IIDek izandako bilakaera eta teoriari eman zaizkion definizioak.

Ordura arte banaturik ulertu ziren teoria eta praktika uztartuz, diziplina haren helburua itzulpengintzaren alor guztiak ikertzea zen; nolahi ere, emaitzarik esanguratsuenak segur aski literatura itzulpenetako azterketen baitatik etorri dira. 1970eko hamarkadan, bi ikerketa-ildo nagusi ziren itzulpengintzan, elkarrekiko eszeptiko: itzultzaile literarioena batetik, eta hizkuntzalariena bestetik. Itzulpena diziplinatzat hartu eta horren ikerketaren beharrei erantzuteko literaturaren nahiz hizkuntzalaritzaren tresneriak ez zirela aski ohartu ziren akademiko batzuk, Even-Zohar, Toury eta Popovič tartean. Haien eta beste zenbait ikertzaileen hausnarketetatik abiatuta, errusiar formalismoaren ideiak eta Herbehereetako mugimendu berria uztartzen ahalegindu ziren James Holmes eta Frans de Hann irakasleak (Jaka 2012: 60). Horrela, gatazka dialektikoari irtenbidea eman nahian, eta itzulpenaren “teoriak vs. zientziak” eta baliokidetasunaren kontzeptio tradizionalak alde batera utzita,

Holmesek *Translation Studies* terminoa proposatu zuen,<sup>4</sup> epistemologia modernoarekin bukatu nahi zuen itzulpengintzaren kontzeptualizazio molde berri hura izendatzeko (Jaka 2012: 60).

Nolanahi ere, Maria Tymoczko (2013) gogorarazten duenez, ezin dira bakarka ulertu 50eko urteetatik aurrera sortu ziren itzulpenari loturiko teoriak edo eskolak,<sup>5</sup> guztien artean jarri baitzuten itzulpenaren paradigma garaikidearen oinarria, guztien ekarpen eta eztabaidez.

Itzulpen ikasketen erroak errusiar formalismoan dautza, eta sortzaile eta garatzaile gehienak (hala nola Lefevere, Toury eta Lambert) konparatibismoaren eremutik zetozen. Holmesek itzulpenaren erreferentearen auziari beste ikuspegi batetik heldu nahi izan zion, eta *Translated! Papers on Literary Translation and Translation Studies* (1972) bilduman jaso zituen itzulpengintza aztertzeke proposamen horren bidetik egiten ari ziren gogoeta nagusiak. Teoria honen sortzaileen ekarpen handienen artean, hauek dira aipatzekoak: literatura sistema dinamikotzat ulertzea; mota guztietako testuak aztertzea, batez ere ordura arte baztertuta egondakoak; bereizketa dualistak alde batera uztea; ikerketa-objektutzat testu itzulia bera hartzea; itzulpenak ekoiztu diren testuingurua eta baldintzak aintzat hartzea; eta beste jakintza-arlo batzuekin harremanetan egoteko beharra azpimarratzea.

Holmesek hiru adarretan sailkatu zituen itzulpen ikasketak: teoria, deskribapena eta aplikazioa; etengabeko joan-etorriko bidaia bezala deskribatzen du, ordea, ez noranzko bakarreko segida modura. Hau da, Holmesek argi utzi zuen hiru adarrak elkarreaginean ari direla, eta batak bestea elikatzen duela: «the relation is a dialectical one, with each of the three branches supplying materials for the other two and making use of the findings which they in turn provide it» (Holmes 1972: 183). Ez dago, bada, teoriaren eta praktikaren artean bereizketa zurrunik, eta bere itzulpen ikasketen eskemako hiru adarrek harreman dialektikoa dute. Adar deskriptiboa, halaber, hiru ataletan banatu zuen Holmesek: *function-oriented*, *process-oriented* eta *product-oriented*. Lehenaren bidez, itzulpenek xede-hizkuntzako egoera soziokulturalean betetzen duten funtzioa eta lekua aztertzen da; bigarrenak, ordura arte joera nagusi zenak,<sup>6</sup> itzulpen-prozesuan egindako gogoetak eta harturiko erabakiak aztertzen ditu; hirugarrenak, azkenik, xede-testuetan oinarrituriko azterketa egitea eskatzen du, datu enpirikoetatik abiatzeko (Holmes 1972: 72-73).

Holmesek aurkezturiko eskemako adar deskribatzailean oinarriturik, Touryk (1980) hori garatu zuen *In Search of a Theory of Translation* idatzian, non itzulpengintzaren alorrean ikerketak egiteko aintzat hartu behar diren hainbat kontzeptu teoriko ezarri baitzituen.

<sup>4</sup> Zehazki, 1972an Kopenhagen egindako Hizkuntzalaritza Aplikatu III. Nazioarteko Kongresuan bataiatu zituen itzulpen ikasketak, *The Name and Nature of Translation Studies* ponentzian, eta geroago izen bereko artikuluan argitaratu zuen.

<sup>5</sup> *Schools of thought* deitzen die Tymoczko (2013) itzulpenari loturiko pentsamenduaren eskola horiei. Gehiago edo gutxiago, hauek dira itzulpengintzaren teorian arrastoa utzi duten ekarpen garrantzitsuenetarikoz: linguistikoa, funtzionalista, sistemikoa, kulturala eta internazionala. Hain zuzen, ikuspuntu funtzionalista eta linguistikoa izan ziren 1970eko hamarkadatik aurrera sorturiko Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileen oinarri.

<sup>6</sup> Ordura arte, nagusiki prozesuari jarri zitzaion arreta, eta ekarpen handia izan zen, beraz, produktuari begiratzea. Honela dio Tymoczko: «Holmes makes the distinction between process and product in translation, noting the distinct roles of description, theory, application, and practice. Whereas the functionalist and linguistic schools focus primarily on translation processes, descriptive translation studies constitute a set of postpositivist approaches to translation products» (Tymoczko 2007: 40).

Itzulpengintzari buruzko ordura arteko jokabide normatiboak kritikatu (hizkuntzalaritzatik zetozenak bereziki), eta itzulpenen azterketa deskribatzaile sistematikorako oinarriak jarri zituen, xede-testua abiapuntutzat hartuta. Horretarako, beste zientzia batzuetan ohikoa den metodologia proposatzen du Touryk: hipotesia, behaketa enpirikoa eta egiaztatzea. Zehazki, urrats hauek aipatzen ditu: datu enpirikoak bildu, horiek aztertu eta deskribatu, eta, azkenik, urrats horietan oinarrituriko “arau” orokorrak atera eta iragarpenak egin. Ez da noranzko bakarreko bidea, etengabeko joan-etorrian ari dena baizik, galdera berriak sortuko baitira behaketaren bidez, eta, ondorioek zabalduz ate bakoitzarekin, aztertzeo datu gehiago beharko dira.

Diziplina enpiriko gisa, bada, itzulpen ikasketek deskribapena eta, ondoren, iragartzea izan beharko lukete helburu, betiere itzulpen horiek ekoizten diren testuinguru linguistiko, soziokultural eta politikoa aintzat hartuz. Izan ere, hala Touryren ibilbidean nola itzulpen ikasketa deskribatzaileetan mugari izan den *Descriptive Translation Studies and Beyond* (1995) liburuan, Touryk azpimarratzen du itzulpen guztiak direla sortzen ikusi dituen kulturaren emaitza. Horregatik jotzen du xede-testuan arreta jartzera: «It was by virtue of such a methodological starting point that this approach to the study of translations and translating in their immediate context earned the nickname of ‘target-oriented’» (Toury 1995: 24). Itzulpenak xede-testuinguruko baldintza eta irizpide jakin batzuetan sortzen diren kulturagertaerak direnez, lehenik beharrezkoa da testuinguru horri begiratzea. Itzulpen ikasketen paradigmaman, xede-nagusitasun horri lotuta aipa dezakegu baliokidetzaren ideia. Izan ere, itzulpenak xede-kulturan duen eragina eta funtzioa aztertu behar da, eta horregatik birformulatzen du Touryk baliokidetzaren ideia, horri esanahi soziologikoa eta kulturala emateko. Proposatutako baliokidetzak ez du ordura arteko kontzepzio estatikoarekin zerikusirik, beraz, eta xede-kulturak zehaztuko du. Tymoczkoren (2007: 41) arabera, itzultzaileak eraikitako harremana da baliokidetzak; hots, «many translations are possible of any given text, and equivalence has an *a posteriori* nature, rather than a positivist or absolutist value» (ibid.). Horretarako, ondorio eta hipotesi balekoak eta sendoak ateratzeko, datuetan eta testuinguru kultural nahiz historiko jakin batean oinarritu behar zela diote bai Even-Zoharrek, bai Touryk.

Deskriptibotik landa, itzulpenerako “arauak” proposatu zituen Touryk, helburu zuenez azterketa enpirikoaren bidez erregulartasunak bilatzea. Arauek erregulatzen badute gizarte/kultura baten ekintza oro, itzulpena, kultur jarduera den heinean, arau jakinen bidez erregulatuko da. Horrela, itzultzaileek horien arabera egingen dute lan, eta, nahitaez, arauok beren jarduna baldintzatuko dute; nolahi den, ez dira itzultzaileek itzultzen hasi aurretik bete beharreko arauak, egindakotik ondorioztaturiko joera orokorrak baizik. Touryk hiru multzotan banatzen ditu: alde zuzeneko arauak (*preliminary norms*), jarduerazko arauak (*operational norms*) eta hasierako arauak (*initial norms*). Lehenak itzulpena egin aurretik egiten diren hautuak lirateke, une eta leku jakin batean zer eta nola itzuliko den zehazten dutenak, bi motatakoak: «those regarding the existence and actual nature of a definite translation policy, and those related to the directness of translation» (Toury 1995: 58). Jarduerazko arauak itzulpen prozesuari dagozkio, itzultzaileak hartzen dituen erabakiei, eta bi motatakoak izan daitezke: matritzialak eta linguistiko-testualak. Lehenek makro mailari egiten diote erreferentzia, testuaren egiturari eta antolaketari, alegia; bigarrenek, berriz, testu

mailako erabakiei. Biak ala biak izanen ditugu aztergai lan honetako 6. atalean. Azkenik, “hasierako arau” deitu ditugun horiek itzulpenaren joera orokorra zehazten dute, eta Touryk (1980: 55) proposaturiko beste bi terminotara garamatzate: egokitasuna (*adequation*) eta onargarritasuna (*acceptability*). Horrela, continuum modura ulerturik, itzulpenaren orientazioa zein den ikusi, eta hasierako araua ondorioztatzen ahalko da. Itzulpenak xede-sistemako arau eta harremanetara moldatzeko joera erakusten badu, onargarritasunaz hitz egin behar dugu; joerak sorburu-sistemari begirakoak badira, berriz, egokitasunaren alde egin duen seinale (Lopez Gaseni 2000: 48). Horrela, bada, errepikapenaren bidez identifikaturiko arauak izanen dira Touryren baliokidetzat baldintzatuko dutenak (Toury 1995: 61).

Behaketa enpirikoa egin eta aipatu arauak ondorioztatzeko, ez da aski testu bat aztertzearekin, ez kasu partikularrei begiratzearekin, baizik eta multzo batek izan behar du aztergai. Hots, nolabait, corpus esanguratsu bat erabiltzea aldarrikatzen du Touryk (1995: 38): «one assumed translation,<sup>7</sup> or even one pair of texts, would not constitute a proper corpus of study, if the intention is indeed to expose the culturally determined interdependencies of function, process and product, not even for that one translation». Tymoczko (1998) arabera, itzulpen ikasketetan corpusak erabiltzearen helburu nagusiak ez luke izan behar lege unibertsalen bilaketa hori, eta kezka adierazten du zorrotasun zientifikoa bere horretan helburutzat jotzen duten proposamenekin. Izan ere, corpusean oinarrituriko ikerlanak beharrezkotzat baditu ere itzulpen-ikasketen garapenerako, uste du horien ekarpen nagusia antzekotasuna eta diferentzia argitzeko ematen duten aukeran datzala (Tymoczko 1998: 6), betiere azterketa horretatik ateratako emaitzak corpusa osatzen duten testuen testuinguruarekin harremanetan badira. Tymoczko kritikak horrek bat egiten du Mona Bakerren kezkekin, corpusean oinarrituriko metodologia zehazten saiatzen baita, patroi linguistiko errepikakorren azterketatik harago (Laviosa 1998: 479). Beraz, elkarri egiten dizkieten ekarpen eta kritikak gorabehera, itzulpen ikasketen baitan corpusean erabilgarritasuna ez dute zalantzan jartzen. Gogoan hartu behar da Touryk proposatu zituenak xede-testuinguruaren araberrako arau soziologikoak direla, ez zientifiko-unibertsalak, eta, beraz, ez dutela asmo agindu-mailerik.

Gure azterketa honetan, berariaz sortu dugun corpusean oinarrituko gara, eta bai xede-testuei bai sorburu-testuei begiratuko diegu. Izan ere, xede-testua ekoitzi den testuinguru garrantzitsua bada ere, sorburukoak zeresana baduela ikusiko dugu: batetik, lehen esan bezala, kulturaren eta hizkuntzaren mugak ez datozelako bat, eta xede-kulturaz mintzatzean ñabardura anitz egin behar direlako; bestetik, geroago sakonduko dugun *patronage* (Lefevre 1992) kontzeptuaren bidetik, maiz sorburu-kulturak (sorburu-instituzioek, diru publikoz) baldintzatuko duelako xede-kulturako ekoizpenaren zati bat, erabakiko baitu zer itzulpen sustatu, gurean gertatu ohi denez<sup>8</sup> (Manterola 2012: 58). Hori dela eta, gure testuinguru eta

<sup>7</sup> *Assumed translation* (ustezko itzulpena) darabil Touryk xede-hizkuntzan itzulpen gisa aurkezten den oro izendatzeko. Honela definitzen du: «Any target-culture text for which there are reasons to tentatively posit the existence of another text, in another culture/language, from which it was presumably derived by transfer operations and to which it is now tied by a set of relationships based on shared features, some of which may be regarded – within the culture in question – as necessary and/or sufficient» (Toury 2012: 31).

<sup>8</sup> Euskal erakunde eta elkarteek diru-laguntzak ematen dituzte, esate batera, euskarazko literatura lanak erdaratzeko.

ikergaia kontuan izanda, xede-sisteman arreta osoa jartzeak eta sorburu-sistemari ez erreparatzeak gabeziak ekar ditzake.

Atal honekin bukatzeko, itzulpen ikasketetan egindako hausnarketak eta hemen ikusitako teoriaren garapenak aipatuko ditugu. IIDen ikuspegitik hurbil dago, esaterako, Manipulazioaren eskola deiturikoa. Manipulazioaren ideiarekin, itzulpena jardun sozial “bihurtu” zen, barne zein kanpo faktoreek baldintzatzen dutena; linguistikoaz gainera, translazio soziala, kulturala, ekonomikoa, politikoa, eta, finean, ideologikoa izatera pasatu zen. Polisistemen teoriaren erro estrukturalistetatik urrundu nahian, beste mugimendu bati heldu zioten Theo Hermans, Andre Lefevere, José Lambert, Susan Bassnett eta Lawrence Venutik. *Cultural turn* izenarekin ezagun egin zen, hain zuzen kultura jarri baitzuten itzulpen-unitatetzat (Jaka 2012: 66). Nolabait, Touryk aldarrikaturiko xede-orientazioaren indartze bat da; itzulpenak, hizkuntza-objektutzat baino gehiago, kultur fenomenotzat hartzen dituzte. Hortaz, zentzu oso positiboan zabaldu zuen ikuspegia *cultural turn* izenekoak; nolana den, ez da ahaztu behar itzulpenak hizkuntza fenomeno ere badirela. Bestalde, ikuspegi postkolonialek, feministek eta hermeneutikoen ideologia, boterea, kultura eta gisako kontzeptuak lehen mailako eztabaidagaitzat hartzen dituzte, besteak beste, Toury bera, Venuti, Van den Broeck, Bassnet eta Lefevere autoreen eskutik. Honela dio Amparo Hurtado Albirrek (2001: 569): «Estas reflexiones, que proceden de diversas perspectivas y tienen una óptica filosófica y hermenéutica, tienen un valor subversivo respecto a los valores tradicionales de la reflexión en torno a la traducción». Horietan sakonduko ez badugu ere, badira aipagarriak, garai bertsuetan edo hurrengo urteetan garatu ziren teoriaren, joeren eta eskolen elkarreragina eta dialogo adierazten dutelako.

Ikerketa hau polisistemen teoriaren eta itzulpen ikasketa deskribatzaileen barruan kokatzen badugu ere, horren bidetik etorri diren beste teoria eta hausnarketa gehienek arrastoa aurkituko du irakurleak nahitaez azterlan honetako oinarri teorikoan, pentsamendu-eskola eta joera horiek guztiek osatzen baitute itzulpen ikasketen paradigma garaikidea.

### 1.3. CORPUSEN ERABILERA

Esan bezala, Touryren IIDen baitan, marko metodologikoaren funtsa dira corpusak, beharrezkoak baitira berak deskribaturiko itzulpen arau soziologikoak aztertzeko. Beraz, teoriak arrazoitu nahiz moldatzeko eta ondorio orokorrak atera ahal izateko baliatu izan dira corpusak, tresna metodologiko modura, are gehiago teknologiak testu-masa handia digitalizatzea ahalbidetzen duenetik.

Euskal Herriko autoitzulpen praktikaren irudi zabala egitea da ikerlan honen helburua, eta helburu jakin horrekin erabaki dugu corpus bat sortu eta erabiltzea. Gure lanaren oinarri metodologikoa José Lambert eta Hendrik van Gorp-ek 1985. urtean proposaturiko eredua<sup>9</sup> izanen da, beraz. Itzulpenen azterketa sistemikoaren beharra azpimarraturik, Touryrenaren antzeko ikuspegi diakronikoa proposatzen dute Lambert eta van Gorpek (1985: 52),

---

<sup>9</sup> Itzulpenaren arloan ikerketa egiteko, marko metodologiko horri jarraitu diote, besteak beste, Merino (1994), Barambones (2009), Manterola (2012), Zubillaga (2013) eta Sanzek (2015).

itzulpen jakin baten azterketatik haragokoa. Sanzek (2015) unitate fraseologikoei buruzko corpusean oinarrituriko tesian dioenez, Lambert eta van Gorpen proposamenak bi berezitasun ditu: batetik, malgua eta irekia da, norberak nahieran molda dezan; eta, bestetik, itzulpen-analisia egitean, testuak sistema baten parte direla aintzat hartzen du (Sanz 2015: 85). Horrela, itzulpenen azterketarako programa zabala proposatzen dute, maila hauek dituen (ibid.):

1. Aurretiazko azterketa (*Preliminary data*)
2. Makro mailako azterketa (*Macro-level*)
3. Mikro mailako azterketa (*Micro-level*)
4. Azterketa sistemikoa (*Systemic context*)

Gure ikerketak lau urratsak segituko dituela ikusiko dugu, hausnarketa teoriko kontestualizatzailearen (2. eta 3. atalak) ondotik. Lehenengo puntuari dagokionez, euskaratik egindako autoitzulpen literarioak zenbat eta zeintzuk diren ikusiko dugu; horretarako, sarreran aipatu bezala, katalogo bat osatuko dugu, sorburu- nahiz xede-testuen hainbat datu jasoko dituen (4. atala). Jarraian, katalogo horretatik, irizpide jakin batzuei jarraikiz eta Sinclairren (2004) oharra aintzat hartuz, corpora osatuko duten testuak hautatu eta ikerlan honen aztergai izanen den corpus digital, paralelo eta eleaniztuna sortuko dugu (5. atala). Ondoren, makro mailaren azterketari helduko diogu, corpuseko testuen egiturari eta paratestuei erreparatuz (6.1 atala). Lambert eta van Gorpen programako hirugarren puntuari helduko diogu hurrena (6.2 atala), eta corpusean xeheki aztertuko ditugu kulturema jakin batzuk eta heterolinguismo kasuak, betiere autoitzulpen jardunaren joerak deskribatzea izanik azken helburua. Azkenik, azterketa sistemikoa egiten dugu (7. atala); horretarako, aurrez eztabaidaturiko kontzeptu teorikoak makro zein mikro mailako azterketa enpirikoan lorturiko emaitzekin gurutzatuko ditugu, metodologia honen izaera zirkularra agerian jarriko duena.

Corpusez ari garelarik, John Sinclair ikertzailea aipatu behar dugu, eta berak idatzitako *Developing Linguistic Corpora: a Guide to Good Practice* (2004) gida-liburu argigarria, ikerketa honetarako sarean kontsultatu duguna. Honela definitzen du corpora Sinclairrek (2004): «A corpus is a collection of pieces of language text in electronic form, selected according to external criteria to represent, as far as possible, a language variety as a source of data for linguistic research». Nolanahi den, esan behar dugu corpusak ez direla beti elektronikoak, edo ikertzaile batzuek ez dutela nahitaezkoztat jotzen ezaugarri hori (Sanz 2015: 90). Hurrengo atalak hizpide izanen ditu itzulpen ikasketak eta corpusen erabilera bateratzen dituzten azterlanak.

### 1.3.1. Corpusean oinarrituriko (auto)itzulpen ikerketak

Hizkuntzalaritza formalean eta hiztegi-gintzan erabili izan dira bereziki corpusak, eta ez zen izan 1990. hamarkadaren erdialdera arte horien erabilera itzulpen ikasketetara zabaldu zela (Sanz 2015: 107). Testu itzulien inguruko ikerketa deskribatzaileak egiteko erabiltzen hasi ziren orduan corpusak, bai xede-testuak aztertzeko, bai sorburu-testuak eta xede-testuak



alderatzeko, bai bestelako konbinazioetarako.<sup>10</sup> Mona Bakerrek nabarmendu du itzulpen ikasketa deskribatzaileetan corpusen erabilerak duen garrantzia, eta esan daiteke bera dela, lehenengoz, metodologia hori sistematikoki abian jarri zuena gure jakintza-arloan. Sara Laviosaren (2002: 18) hitzetan, «[i]f Gideon Toury can be rightly regarded the father of Descriptive Translation Studies, Mona Baker well deserves the affectionate title of mother of Corpus-based descriptive Translation Studies».

Izan ere, itzulpenean eta hizkuntzalaritzan corpusen erabilera ezin bera izan, helburua aldatzen denez: «The flexibility and adaptability of corpora, as well as the openness of the construction of corpora underlie the strength of the approach» (Tymoczko 1998: 2). Corpusek ematen dituzten datuak eta emaitzak abiapuntua baizik ez dira, ordea. Ondoren, ikuspegi kritiko batez aztertu beharko dira testuak, testuingurua aintzat hartuz, emaitzak azaltzeko; horrela, hizkuntzari loturiko mikro-ezaugarriak aztertzeko ez ezik, itzulpen lanaren testuinguruari buruz ikertzeko aukera ematen dute. Ikerlan honetan, xede-testuen nahiz sorburu-testuen arabera bilaketak eginen ditugu, baita alderaketak egin ere; produktua aztertuko dugu lehenik, eta saiaturako gara, ahal denean, prozesua azaltzen, itzulpen-tekniken bidez eta autoitzulpena sortzen deneko testuingurua aintzat hartuz.

Polisistemen teoriaren eta IIDen arabera ikerketak ugariak direla esan badugu ere, eta, alde horretatik, azterlan honek berrikuntza handirik ez badakar ere, esan dezakegu autoitzulpena eta copusgintza uztartzea badela arloari egiten zaion ekarpena. Izan ere, orain arte literatura teoriaren edo hizkuntzalaritzaren ikuspegitik aztertu izan da nagusiki itzulpena, eta ez dira anitz corpusean oinarrituriko itzulpen ikasketa deskribatzailetik heldu dioten azterketak. Kasurako, Eva Gentesek kudeatzen duen sareko bibliografiari begiratzen badiogu,<sup>11</sup> zeinak 150 orrialdetik gora dituen eta autoitzulpenari buruzko argitalpenak biltzen dituen, bost tituluk soilik jasotzen dute *corpus* hitza. Horietako lauk testu baten edo autore baten azterketa dute ardatz, eta bakar batek darabil corpora berariaz autoitzulpenari begiratzeko: Corinna Krauseren “Twins: Identical or not? The bilingual corpus of Scottish Gaelic Poetry” (2006) da hori, gerora ere aipagai izanen duguna. Bost horietatik, zaharrena 2005ekoa da, eta berrienak, berriz, 2015ekoak (bi dira). Ikus daitekeenez, aski jardun berria da autoitzulpenaren azterketa corpusean oinarrituriko metodologia erabiliz egitea. Jakin badakigu bilaketa horrek ez duela esan nahi corpusean oinarrituriko beste ikerlanik ez dagoenik bibliografia-zerrenda horretan, tituluak hitza agertu ez arren (ikerlan hau da horren adibide argi bat); hala ere, esanen genuke badela esanguratsua.

Gentesen bibliografian egindako bilaketan agertu ez zaigun lanetako bat da Manterolaren (2012) doktore tesia. Euskaratik itzulitako literatura obrak bildu zituen katalogo batean, eta gero Bernardo Atxagaren hainbat obrekin corpora sortu zuen; corpusean oinarrituriko azterketa egin zuen, beraz. Corpus hori heterogeneoa da itzulpenen egiletasunari dagokionez, autoitzulpenekin batera agertzen baitira itzulpen alografoak eta elkarlanean egindako itzulpenak ere. Beraz, esan dezakegu ez zuela corpora sortu berariaz autoitzulpena ikertzeko; lehen urrats hori osatzera dator gure ikerlan hau, ikuspegi xeheagoa emateko helburua baitu.

<sup>10</sup> Kasurako, Isabel Etxeberria Ramírez (2015) corpusak erabiltzen ari da euskararako literatura itzulpenak eta euskaraz sorturiko literatura lanak konparatzeko, tesi ikerketaren baitan.

<sup>11</sup> Azken kontsulta data: 2017ko ekainaren 1ean.

Laburbilduz, bada, ez dira anitz berariaz autoitzulpena ikertzeko corpus zabal bat darabilten azterlanak, eta doktore tesi honek ekarpen esanguratsua egin nahi dio hutsune horri. Batetik, itzulpen ikasketetatik helduko diogu autoitzulpenari; bestetik, banan banako azterketatik aldendu, eta, gaur egungo aukera teknologikoez baliatuz, testu multzo bat hartu eta corpusa sortuko dugu autoitzulpena berariaz ikertzeko.

Corpusari eta hori sortzeko darabilgun katalogoari heldu aitzin, hausnarketa teorikoa egingen dugu; horretarako, autoitzulpenari eta kultur testuinguruari buruzko azterketak eta eztabaidak aurkeztuko ditugu hurrengo ataletan.

**2**



# 2 autoitzulpenaz

---

Atal honetan autoitzulpenaren fenomenoari berari erreparatuko diogu, eta horretarako bai etxekoek bai kanpokoek diziplina horri buruz esandakoak eta egindako gogoetak bilduko ditugu. Atal teorikoa izanen da, beraz, ikerketa praktikoari ekin aurretik oinarria jarri asmoz. Lehenik, bada, autoitzulpenari itzulpenaren barruan begiratuko diogu; alegia, itzulpenaren adar edo molde bat dela argudiatuko dugu. Hurrena, autoreek zerk bultzatuta erabakitzen duten beren obra itzultzea izanen dugu hizpide eta, horretarako, ikertzaileen esanak ez ezik autoreen hitzak jasoko ditugu. Autoitzulpenak duen harrera eta aurkezpena aztertuko dugu jarraian, alegia, nola iragartzen duten argitaletxeek, autoreek edo prentsak. Atalari bukaera emateko, azkenik, autoitzulpen molde askotarikoak ikusiko ditugu, fenomeno zurrun eta itxi bat izatetik urrun, autoitzulpengintzak izaera eta ertz asko dituela erakusteko, eta fenomenoaren muga lausoez jabetzeko.

## 2.1. AUTOITZULPENA ITZULPENA DA

Literaturaren arloan, autoreak bere obra beste hizkuntza batera itzultzearen jardunari deitzen zaio autoitzulpengintza, eta horren emaitza izanen da autoitzulpena edo testu autoitzulia. Grutmanen hitzetan (1998: 17), «The terms auto-translation and self-translation refer to the act of translating one's own writings or the result of such an undertaking»<sup>12</sup>. Beraz, autoitzultzaileak bi hizkuntza (edo gehiago) erabiltzeko gai izan behar du; elebidun/eleaniztun izateaz gainera, ordea, autorea bi kulturetako partaide ere bada, eta zubi-lana barru-barrutik egiten du hizkuntzen eta kulturen arteko transferentzia horretan (Hokenson eta Munson 2007: 14). Hurrengo atalean sakonki ikusiko dugunez, autoreak hizkuntza bakoitzarekin duen harremanak, jarrerak eta gaitasunak baldintzatuko dituzte sorkuntza prozesua eta itzulpenaren noranzkoa. Nolanahi den, nabarmendu behar da ez dagoela, Tymoczkori (2003) jarraikiz, hizkuntzen arteko espazio bat: «one must

---

<sup>12</sup> Geroago ikusiko ditugun adibideak aintzat hartuz, beharbada 1998ko definizio hori labur geratzen da, idatzizko produkziara (*writings*) mugatzen baitu autoitzulpena (Uribarri 2015).

conceptualize the translator not as operating *between* languages, but as operating either in one language or another» (Tymoczko 2003: 196). Dikotomikoa irudi lezake jarrera horrek, maiz hizkuntzak nahastu egiten baitira eta batzuetan zaila baita guztiz bereiztea; alta, interesgarriena da tarteko espazio zehazgabe horren ukazioa. Identitatearen gaiaz aritzean helduko diogu berriz Tymoczkoren proposamenari.

Autoitzulpena ez da zeregin bakartu edo ezohiko bat, maiz esan izan denez. Salbuespen izatetik urrun, corpus handia da autoitzulpenek osatzen dutena, eta ez dio handitzeari uzten:

Lejos de ser un ‘caso marginal’ (border case, borderline case, *vide* Kálmán 1993), como también se le ha denominado, la traducción de autor cuenta con una larga historia y es hoy en día uno de los fenómenos culturales, lingüísticos y literarios más frecuentes e importantes en nuestra aldea global, y desde luego merecedora de mucha más atención de la que hasta ahora se le ha prestado (Santoyo 2005: 866).

Gainera, jarduna ez da azken urteetan sorturiko fenomeno, aspaldikoak dira bere obra itzultzen duen autorearen lekukotasunak. Besteak beste, antzinasun horren adibideak eman ditu Santoyok (2005) iberiar penintsula aztergai hartuz; haren esanetan, Flavius Josephus historialari juduaren garaitik behintzat egiten da autoitzulpena. Idazle hark ama-hizkuntzan, arameeran, idatzi zituen *La guerra de los judíos* lanaren lehen zazpi liburukiak, eta hainbat urte geroago, 75. urtearen inguruan, idazleak berak berrikusi eta grekora itzuli zuen, lehenengo testuan egindako akats batzuk zuzentzearekin batera (Santoyo 2005: 859). Ildo berean mintzo dira Jan Walsh Hokenson eta Marcella Munson idazle elebidunaren figuraz ari direnean:

Yet the tradition of the bilingual writer creating a single text in two languages, smoothly spanning different audiences, is a rich and venerable one, arising in Greco-Roman antiquity and thriving in the European Middle Ages and Renaissance. Self-translation was a common practice in the ambient translingual world of early modern Europe, when bilingualism was the norm, and writers increasingly translated between Latin and vernaculars (Hokenson eta Munson 2007: 1).

Jarduna aspaldikoa bada ere, ez da horren ikerketarekin berdín gertatzen. Grutmanek 80ko urteetan autoitzultzaile belgikarrei buruzko tesina idatzi zuenean, elebitasunari buruzko azterketa soziolinguistikoen eta literatura konparatuen markoak baino ez zituen izan eskura, eta bere ikerketa-arlorako egokiagoa zen marko bat sortu behar izan zuen (Tanqueiro 2013). Oraindik ere, kultura eta hizkuntza askotan ez da gehiegi aztertu, eta horretarako bi arrazoi aipatzen dituzte Hokenson eta Munsonek. Lehenengoa estatu literaturen ikuspuntuan oinarrituriko azalpenari dagokio. Kanpotik zetorren edozein eragin ukatzeak berekin zekarren idazleen lana mugatzea, eta kulturen arteko harremanak ikusezin egiten zituen. Bigarrenik, jatorrizkotasunari loturiko kontzeptua daukagu, zeren, testu elebiduna aldi berean bi hizkuntza sistematan dagoenez, nekez azaldu daiteke autorearen eta jatorrizkoaren kategoria elebakarrak. Honela diote: «Self-translation, the specific ways in which bilinguals rewrite a text in the second language and adapt it to a different sign system laden with its own literary and philosophical traditions, escapes the categories of text theory, for the text is twinned» (Hokenson eta Munson 2007: 2). Azken urteetan, ordea,

jardunari buruzko ikerketak eta mintegiak ugaritu dira; besteak beste, autoitzulpenaren fenomenoak kultura askotan eta hainbat modutara agertzen dela erakusten dute. Nazioarteko kongresu horien artean, Bologna (2011), Perpinyà (2011), Cork (2013) eta Vitoria-Gasteizen (2015) egindakoak aipa ditzakegu. Ikerketen ugaritasun horren beste adierazle da, esaterako, Eva Gentesek eguneratzen duen autoitzulpenari buruzko sareko bibliografia.<sup>13</sup> Autoitzulpenari buruzko hitzaldi argitaratuak, artikulak eta liburu osoen erreferentziak agertzen dira bertan, eta oso maiz eguneratzen du.

Diziplina askotatik begiratu izan zaio autoitzulpenari, hala nola, soziologiatik (Grutman 2013c, Lagarde 2013), hizkuntzalaritzatik (Oustinoff 2001, Poch Olivé & Harmegnies 2004), kulturatik (Parcerisas 2007, Pym 2003), antropologiatik (Gasparini 2010, Evangelista 2013), literatura konparatutik (Bandia 2006a, Cotoner Cerdó 2011) eta itzulpen ikasketetatik (Gao 2010, Tanqueiro 2009). Guk azken bideari helduko diogu, eta itzulpengintzaren barruan kokatuko dugu autoitzulpena, bere obra itzultzen duen autoreak itzultzailetzat baitugu. Era berean, hainbeste ikuspegitatik begiratu izanaren arrazoa ere bada diziplinaren zabala. Gure aztergaiak literaturaren eremura mugatuko bada ere, lehenengo atal honetan apur bat harago egin nahi dugu, autoitzulpena jardun ohikoa eta, kopurutan, bereziki ez-literarioa baita. Honela dio David Ar Rouzek (2015: 106):

Encore plus difficiles à identifier sont les autotraductions, innombrables sans doute, qui existent hors du champ de l'édition. Si l'on poursuit avec l'exemple du DVD, le dossier de presse qui accompagne sa diffusion est une autotraduction. En élargissant l'observation au cadre de l'association éditrice, on remarque la diversité des textes bilingues produits, le plus souvent par l'auteur lui-même : ils vont de textes très courts (actualités, affiches, dépliants d'information) à des textes assez longs (études, enquêtes, articles web), en passant par des documents internes de volume variable (courriels, ordres du jour, comptes rendus, etc.).

Horrela, bada, autoitzulpenaren eremu zabala aipatu arren, itzulpen literarioan jarriko dugu ardatza, eta itzulpenaren beraren markoan kokatuko. Helena Tanqueiroren (1999) hitzak baliatuz, autoitzultzailea itzultzaile pribilegiatua izan daiteke, baina itzultzaile nolana ere. Ildo horretatik, bada autoitzulpena berridazketatzat duenik eta, beraz, prozesuaren emaitza itzulpen bat dela esan baino, berridazketa hautatzen dute kontzeptu nagusitzat; horrek autoitzulitako testuen izaera eta horiek aztertzeke oinarria baldintza dezake. Ikuspegi hori nagusi da kultur ikasketetan, itzulpena bera berridazketatzat baitu (Bassnett-Lefevre 1990, Lefevre 1992, Bassnett 2013). Itzulpen oro nolabait berridazketa dela onartzen badugu ere, itzultzea obra bat berriz idaztea baita, "itzulpen" terminoa erabiliko dugu, "berridazketa" ez baitu hizkuntzen (edo hizkuntza aldaeren) arteko transferentzia aditzera ematen, eta ñabardura hori ezinbestekotzat dugu itzulpena aztertzean. Itzulpen oro berridazketa izan daiteke, baina berridazketa oro ez da itzulpen, ez baitu hizkuntza, aldaera edo dialekto bat baino gehiagoren artekoa zertan izan. *After Babel* liburuan, George Steiner ideia honekin tematzen da: «inside or between languages, human communication equals translation» (Steiner 1998: 49). Horrek, komunikazio molde orok itzulpena dakarrela aditzera emateaz gainera, hizkuntza(k) eta itzulpena lotura egiten du.

<sup>13</sup> Helbide honetan: <https://app.box.com/s/6hvhw59h7ghq7lms81x4>.

Hain zuzen, itzulpenarena bezala, autoitzulpenaren ezaugarri funtsezko bat da bi hizkuntzen arteko harreman soziala; horregatik ere, ez da gauza bera adibidez frantsesaren eta gaztelaniaren edo ingelesaren arteko autoitzulpena edo euskaratik gaztelaniarakoa. Areago, irudipena dugu ez dela gauza bera, halaber, frantsesaren eta ingelesaren arteko autoitzulpena Europan eta Quebecen. Ñabardura garrantzitsu horiek aintzat hartzen ez dituen terminologia erabiliz gero, herren eginen genuke. Pascale Casanovak (1999) hiru multzotan banatzen ditu hizkuntza-trukeen aukerak: lehena, sinbolikoki nagusia edo “zentrala” den hizkuntza batetik hizkuntza “periferiko” eta horrenbestez munduko hizkuntzen sisteman mendekoa den hizkuntza baterako itzulpena (infra-autoitzulpena), eta alderantzizkoa (supra-autoitzulpena); bigarrena, hizkuntza nagusi batetik beste hizkuntza nagusi baterako itzulpena; eta, hirugarrena, mendeko hizkuntza batetik beste mendeko baterako itzulpena (Manterola 2012: 75). Orain arteko ikerketetan nagusi izan da bigarren multzoaren azterketa, alegia, hizkuntza nagusi biren artean egindako autoitzulpenak; alta, geroz eta gehiago dira hizkuntza periferikoak eta diglosia egoerak aztergai dituzten lanak. Horren erakusle da, besteak beste, Grutmanen “Beckett and Beyond” (2013b) artikulua, non hizkuntzen errepertorio asimetrikoa duten autoitzultzaileak hiru kategoriatan bereizten dituen: бага, autore (post)kolonialak; biga, immigrante garaikideak; eta higa, «writers belonging to traditional linguistic minorities because of the multilingual make-up of the State of which they are citizens» (Grutman 2013b: 188). Euskaratik erdaretara egiten den autoitzulpena, noski, hirugarren kategoriako idazleak eginen luke, nahiz eta antzekotasunak dituen ere lehen kategoriarekin, kolonialitate kulturalaz ari bagara behintzat.

Tanqueirot (2009), alderaketa bidezko ikerketetan oinarrituta, ezaugarri hauek egozten dizkio autoitzulpenari, betiere literatura itzulpenaz<sup>14</sup> ari dela kontuan hartuta: a) bi hizkuntza eta bi kulturaren jabe den itzultzaile batek parte hartzen du; b) jatorrizko lan bat du oinarrian; c) hiru urratseko prozesua da: irakurketa, estrategiak hautatzea eta idazketa; d) idazle/irakurle lankidetzaz-estrategia birdefinitu behar da irakurle hartzaile berri bat dagoelako; eta e) testutik kanpoko faktore askok baldintzatzen dute. Bigarren urrats hori, “jatorrizko lan bat du oinarrian”, lausoa izan daiteke, beti ez baitago hain argi sorburu-testua zein den ere. Hain zuzen, Tanqueirotoren hiru urratseko prozesu horren aldean (c puntuan), Ana Guțuren ustez sorkuntza laukoitza da autoitzulpena: «a) texte initialement écrit dans la première langue, la langue A; b) la traduction desdits textes dans la langue seconde, la langue B; c) textes initialement écrit dans la langue B; d) la traduction des textes susdits en langue A» (Cuciuc 2012: 45). Lau etapa horietako bakoitzean, idazketa-berridazketa jardueratik eratortzen den autoitzulpenaren bidea ibili beharko du egileak, sorburu-testuaren egilea, horren itzultzailea eta itzulpenaren irakurlea den heinean (Cuciuc 2012: 46).

Tanqueirot zerrendaturiko ezaugarri horiek banan-banan aztertuz gero, ikusiko dugu horiek bai autoitzultzaileek bai itzultzaile alografoek betetzen dituztela, nahiz eta aldea egon daitekeen zer neurritan betetzen dituzten. Hain zuzen, sarri, autoitzulpenetan gertatzen diren aldaketa handiak direla medio hartzen dira berridazketatzat. Itzulpenaren adiera

<sup>14</sup> Literatura generoak daude autoitzulpenaren ikerketa gehien oinarrian, dela esplizituki dela inplizituki; alta, ikusiko dugunez, itzulpen literarioaz harago bada autoitzulpenik, akademikoa, ikus-entzunezkoa, iragarkietakoa eta abar, baina horietan ikerketa urriagoa izan da orain arte (Uribarri 2015).



mugatu eta hertsia bat izan daiteke, beharbada, horren arrazoia; hau da, itzulpena testuari estuki lotu behar zaion jarduntzat jotzen bada, hortik aldentzen dena ez da itzulpentzat joko. Alta, itzulpenaren eta autoitzulpenaren kontzeptuak zabaldu eta horien tipologia zehaztuz gero, ez dugu zertan beste terminoetara jo, eta hizkuntzen arteko transferentziaren ñabardura gorde dezakegu. Aurrerago (2.3 atala) hartuko ditugu autoitzulpenei buruz aritzeko erabiltzen diren terminoak eta horien nondik norakoak hizpide.

### 2.1.1. Autoitzulpenen tipologia baterantz

Ikerketak ugaritzearekin, autoitzulpenaren tipologia ere zabaldu eta aldi berean zehaztu egin da. Abiapuntutzat har daiteke Grutmanek idatzitako “Auto-translation” izeneko sarrera, *Routledge Encyclopedia of Translation Studies* (1998) delakoan, nahiz eta gaur egungo ikuspegitik aski mugatua iruditu.<sup>15</sup> Horrela, autoitzulpena jardun uniforme eta homoginoa ez dela erakusten duten sailkapenak proposatu izan ditu zenbait ikertzailek. Kasurako, María Recuenco Peñalverrek (2011) prozesuan eragiten duten aldaeren arabera egin diren tipologiak bildu ditu “Más allá de la traducción: la autotraducción” artikuluan orokorrean. Recuencok (2011) bildutako zenbaitzuei eta gerora egin direnei labur erreparatuko diegu jarraian, egon daitekeen aniztasuna agerian uzteko.

Alde batetik, Xesé Manuel Dasilvak (2011) autoitzulpenaren ikusgarritasuna edo, bestela esanda, autoitzulpen bat halakotzat aurkezten den edo ez hartu zuen irizpidetzat autoitzulpen gardenez edo opakuez mintzatzeko. Horren arabera, autoitzulpen gardena litzateke irakurleari informazio paratestualen bidez jakinarazten diona beste hizkuntza batean sorturiko testu batetik abiatuta autoreak berak itzulitako obraren aurrean dagoela. Informazio hori peritestueta, oin-oharretan, hitzaurrean, azalean, kreditu-orrian eta abarretan eman daiteke. Autoitzulpen opakua, berriz, inolako daturik agertzen ez duen lana litzateke; ondorioz, bigarren horren kasuan, irakurleak xede-testua bakartzat luke, jaso duen hizkuntzan, alegia, itzulpenaren hizkuntzan idatzitako obratzat hartuko luke. Dasilvak gogorarazten digu ez dugula autoitzulpen opakua autoitzulpen anonimoarekin nahastu behar; izan ere, anonimoaren kasuan, irakurleak zalantza egingen luke itzulpen alografoa edo idazlearen itzulpena ote den, baina jakin badaki itzulpena dela. Gainera, Dasilvak opakua barruan bi mota bereizten ditu: nahigabe egindakoa eta berariaz egindakoa. Izenek aditzera ematen dutenez, lehena ohartu gabe egindako zerbait litzateke, eta bigarrena, berriz, nahita egindako zerbait. Berariazkoaren barruan ere beste sailkapen bat egiten du, autoitzulpena opakutzat nahita aurkeztearen atzean zer arrazoi dagoen; horrela, beharturiko erabakia izan daiteke edo borondatezkoa. Santoyok (2014) autoitzulpenaren tipologiaren mapa marraztu zuenean azken mailan jarri zuen bereizketa hori, testuari berari zertan eragin ez badio ere, merkatuan baduelako eragina; Dasilvaren definizioekin ados egonda ere, Santoyok “esplizitua” deitu dio autoitzulpen gardenari, eta opakuari, berriz, “inplizitua”. Nolabait, Juliane Housek (1997) itzulpen alografoetarako egindako sailkapena ekar diezaguke gogora; Housek *overt* eta *covert* itzulpenak bereizten zituen, itzulpenak xede-kulturara egokitzen diren

<sup>15</sup> Hau idazten ari garela jakin dugu Routledge entziklopediak definizio eguneratu bat kaleratuko duela laster, Rainier Grutmanek idatzia.

(*covert*) ala ez diren egokitzen (*overt*). Itzulpena zer helbururekin egiten den, halakoa izanen da emaitza.

Autoitzulpena maiz agertzen da testuinguru elebidun edo diglosiko batean, non hizkuntza bat baino gehiago batera bizi diren. Askotan, hizkuntzen arteko harremana ez da ez orekatua ez simetrikoa, eta bi hizkuntzen prestigio maila ere ez. Itzulpena prestigio eta estatus aldakorreko literaturen arteko kontaktu-modu bat denez, harreman asimetrikoa sortzen du maiz. Casanovaren (2002) ustez, literatura batek duen posizio erlatiboa hori idatzita dagoen hizkuntzaren prestigioari lotuta dago, sozio-politiko izateaz gainera, literarioa ere badena. Horrela, hizkuntzen prestigioa edota estatusa asimetrikoa denean, hala nola jendarte diglosiko batean, hizkuntza gutxitutik nagusira autoitzultzeko joera dagoela erakusten dute ikerketek, eta ez alderantzizko noranzkoan. Hain zuzen, Grutmanek (2013a) gogorarazten digunez, asimetriaren beraren erakusle da autoitzulpenaren indar zentripeto hori, hots, hizkuntza gutxitutik edo prestigio gutxiagoa duenetik hizkuntza handiago edo zentroan dagoen horretara itzultzeko joera. Even-Zoharren (1990a) arabera, ez dago simetriarik literatura interferentzian; hau da, literatura sistemen arteko interferentziak aldebakarrekoak izan ohi dira eta, beraz, ezin da trukeez hitz egin, inportazioez baizik. Horren araberako sailkapenak, hau da, elebitasunaren eta diglosiaren ikuspegitik abiatutako autoitzulpenaren sailkapenak ere egin izan dira.

Itzulpenen eta bereziki autoitzulpenen ekoizpen testuinguruaren inguruko azterketa makrosoziolinguistikoko batean, Grutmanek (2011) hizkuntza trukeen izaera asimetrikoa agerian uzten du, eta horren araberako sailkapena egiten. Horrela, hizkuntzen estatusaren arabera, itzulpen modu “horizontala” eta modu “bertikala” genituzke; lehena maila berean edo bertsuan dauden hizkuntzen arteko transferentzia litzateke, oro har idazle erbesteratu eta migratzaileek egindakoak. Erdiguneko hizkuntza batetik beste baterako transferentziari “horizontal” deitu zion Calvetek (1999) ere. Bertikala, berriz, prestigio maila berean ez dauden hizkuntzen artean egindakoa da. Euskaratik frantsesera edo gaztelaniara edo alderantziz egindako itzulpenak modu bertikalean eginak leudeke, hizkuntzen estatusa ez baita parekoa. Itzulpen modu bertikalaren barruan, berriz, bi mota bereizten ditu Grutmanek transferentziaren noranzkoaren arabera: haren hitzak erabiliz, ibaian behera egiten duen itzulpenari, hots, estatus handiko hizkuntza batetik estatus baxuko beste batera egindakoari “infra-autoitzulpena” deitzen dio, eta alderantzizko noranzkoan egiten denari, alegia, ibaian gora egindakoari, “supra-autoitzulpena”. Gurean egiten diren itzulpen gehienak, literaturaren arloan betiere, modu bertikalean egin dira, eta autoitzulpen ia denak, orain arte bildutako datuen arabera, supra-autoitzulpenak izan dira; hots, euskaratik gaztelaniara edo frantsesera, ez kontrara.

Era berean, elebitasun motak ere bereizi ditu Grutmanek (2013a: 41), autoitzulpen bat zer testuingurutan egin daitekeen ikusteko. Zehazki, elebitasun exogenoa eta endogenoa bereizten ditu, autoreak hizkuntza aldatzeko migratu behar duen arabera. Izan ere, historian gehien ikerturiko autoitzultzaileak migratzaileak dira (Gentes 2015), hala nola, Nabokov, Huston eta Beckett. Globalizazioaren, migrazioaren eta harreman-bideak ugaltzearen ondorioz, gainera, literatura sistemen eleaniztasuna eta horren ikerketa ageriko egin da:

Monolingual cultures are increasingly recognized as idealized constructions and the ‘new’ nomadic citizens are characterized as polyglots travelling in between languages, in a permanent stage of (self-)translation. (...) [N]ew insights into the dynamics and continuous (re)definition of literatures in a globalised world have been gained (*PMLA* 2001, 2003, 2004; Sollors 1998). They challenge the national, temporal and language paradigms that traditionally organized and institutionalised the illusion of ‘unified national literary cultures’ within literary studies (Meylaerts 2006: 1-2).

Alta, ugari dira lurraldea edo herrialdea utzi gabe ere hizkuntza batetik bestera dabiltzan autore elebidunak; horien autoitzulpenek elebitasun endogeno, edo barne-elebitasun bat dute oinarrian, izan egiturazkoa izan sistemikoa (Grutman 2013a: 41), eta ez, migratzaileenek bezala, elebitasun exogeno bat. Gurean, beraz, elebitasun (edo diglosia, kultur testuinguruaren atalean ikusiko dugunez) endogenoa genuke, espazio geografiko berean bi hizkuntza edo gehiago mintzatzen baitira.

Elebitasunari lotuta, beste bereizketa bat darabil Dionýz Ďurišin konparatibista esloveniarrak, Dasilvak (2011: 62) aipatzen duenez; inguru batzuetan «komunitate interliterario berezia» izendaturikoa dagoela dio esloveniarrak, non “literatura nazional” eta “lurraldetasun” kontzeptuek parte hartzen baitute. Horrela, autoitzulpena itzulpenari loturiko prozesu interliterarioaren adierazpentzat du, eta “idazle biliterario” izena proposatzen du bi literaturentzat sortzen edo literatura bakar batentzat sortu eta bestearentzat itzultzen duen autoreari deitzeko. Berariaz literatura batekin baino gehiagorekin identifikatzeko asmoz autoitzultzen denean, *Ďurišinek* «idazle binazional» izendapena darabil. Grutmanen (2005) arabera, elebidun literario, edo, terminologia bera erabiliz, idazle biliterario izateko bi hizkuntzetan egin beharko ditu idazleak sormen-lanak. Gurean, Iban Zaldúa litzateke adibide bakantakoa, bi hizkuntzetan sortzen baitu.

Sorburu- eta xede-testuen alderaketatik abiatuta, Michael Oustinoffek (2001) hiru autoitzulpen maila bereizten ditu Julien Green, Samuel Beckett eta Vladimir Nabokoven autoitzulpen jarduna eta emaitza aztertzen dituenean. Lehen autoitzulpen maila *auto-translation naturalisante* litzateke, itzulpeneko hizkuntzako araei men egin eta sorburu-hizkuntzako interferentzia oro ezabatzen dituen; Touryk “egokitasuna” deitu zion horri, eta Casanovak, berriz, “asimilazioa”. Bigarren mailari *auto-translation décentrée* deitzen dio Oustinoffek, xede-sistemako arau eta harremanetara moldatzeko joera erakusten duen autoitzulpena denean; Touryk “onargarritasun” deitzen dio horri, eta Casanovak “disimilazioa”, hau da, diferentzia baten baieztapena egitea. Hirugarren eta azken maila da *auto-translation (re)créatrice*, hots, autoreak itzultzean aldaketa handiak sartzen dituenean sorturiko autoitzulpena. Hizkuntza subordinatu batetik egindako autorearen itzulpenek “autoitzulpen (bir)sortzaileak” izan nahi dute, hau da, produktuak non guztiz nabarmentzen baita autoreak bere testua beste hizkuntza batera eramatearen jarduna. Beti ez da hala gertatzen, zeren aldaketa handiak egiten badituzte ere, ezkutatu egiten baita itzulpena dela, eta *beste* testutzat aurkezten baita. Horrela, autoitzulpena baizik irakurtzen ez duen irakurleak, ez du aldaketa horien berri izanen, ez baitu sorburu-testuarekin alderatuko. Dasilvaren (2011) ustez, oso esanguratsua da xede-testuan aldaketa estetiko handiak dituen testu horietatik ez direla ia inoiz “atzeraitzulpenak” (*retrotraducciones*) egiten —hots, bertsiu berri bat sorburu-hizkuntzan—; horrek berretsi egiten du produktu autoitzuliak lehenengo

obraren aldean eskuratzen duen goragoko posizioa. Hala ere, aitortzen du zaila dela sorburu-testuaren eta xede-testuaren arteko distantzia handiaren eta autoitzulpenen izaera opakua artean lotura zuzenik egitea.

Itzulpen prozesuaren arabera sailkapen bat proposatu du Tanqueirok (2011, 2013). Haren arabera, autoitzulpen esplizitua eta “buruko autoitzulpena” (*autotraducción en mente*) genituzke; bigarren mota da proposamen berritzailea, eta autoreak horretan jartzen du bereziki arreta. Buruko autoitzulpena jatorrizko lanaren idazketa prozesu bitartean gertatzen dela dio Tanqueirok, eta, beraz, horrek bereizten du argitaratzen den autoitzulpenetik, buruko autoitzulpenean ez baitago sorburu-testurik. Orobat dio jardun hori gertatzen den kasu gehienetan, autoitzulpen opakua izaten direla, eta, beraz, sortzen den emaitza hori *assumed original* (Tourey 1995: 38) edo “ustezko jatorrizkoa” dela ondoriozta dezakegu. Hurrengo azpiatalean helduko diogu berriz Tanqueiroren (2011) proposamenari.

Gainontzean, oro har testu batetik beste baterako autoitzulpenak izaten dira ikergai; horrela, bi testu edo gehiago dira aztertzeak, sorburu-testua, kronologikoki lehenik idatzitako hori, eta horren itzulpena(k), autoreak beste hizkuntza batean edo batzuetan emandakoa(k). Testu berean autoitzulpena ere agertzen ahal zaigu, ordea, eta kasu horietan aztertu ditu Santoyok (2011). Horrela, testu batetik abiatuta beste bat sortzeari, “testu arteko autoitzulpena” (*intertextual*) deitu zion, eta testu berean gertatzen denari, berriz, “testu barruko autoitzulpena” (*intratextual*). Testu arteko autoitzulpenean ez bezala, testu barrukoan autoitzulpen prozesuak ez du sortzen *beste* testu bat, lehenengoaren bestelakoa hizkuntzari dagokionez bada ere, baizik eta testu *bakar* bat bi hizkuntzatan. Azken modu horretan testu bakarra dugu, beraz, non diskurtsoa bi hizkuntzatan agertzen den, bata bestearen itzulpen; hau da, «nos hallamos ante un extraño juego de espejos, sin que en ningún momento sepamos cual es el texto “original” y cual imagen reflejada, porque en estos casos el reflejo es parte consustancial del todo» (Santoyo 2011: 222). Sorburu-testuaren eta autoitzulpenaren arteko denbora tartea maiz xede-testuaren emaitzan eragiten duela irakurri izan dugu. Testu barruko autoitzulpenen kasuan, ordea, Santoyok ohartarazten du horrek ez duela axola, ez baitago denbora tartetik bataren eta bestearen artean. Testu barruko autoitzulpenak oso gutxi direla ere badiu eta, aurkiturikoaren arabera, diskurtso poetikoan baizik ez dela ageri. Antzeko zerbait esan dezakegu, beharbada, zenbait edizio elebiduni buruz, baldin eta aurretik bi hizkuntza horietako batean testua modu autonomoan agertu ez bada eta lehenik zein idatzi den esplizituki agertzen ez bada; aurrerago ikusiko ditugu edizio elebidunen nolakotasunak.

Testu arteko autoitzulpenen barruan bi mota bereizten ditu Santoyok (2014): hizkuntza batean idatzitako sorburu-testutik egiten dena (*TOL1*), ohikoena, eta testu (auto)itzuli batetik egiten den autoitzulpena (*TTL2*). Ohikoena ez dela onartzen badu ere, egon badagoela dio eta, beraz, bada bereizteko arrazoirik. Bistan denez, testu autoitzuli batetik autoitzultzeko eleaniztuna izan behar du autore-itzultzaileak. Era berean, Santoyok beste sailkapen bat egiten du ohikoagoa den sorburu-testutik egindako autoitzulpen horren barruan; autoitzulpen hori zuzena izan daiteke edo alderantzizkoa. Horrela, bigarren

hizkuntzara<sup>16</sup> egiten den autoitzulpena izanen da zuzena, eta ama-hizkuntzara egiten den hori, berriz, alderantzizkoa. Aintzat hartzeko bereizketa iruditzen zaio Santoyori (2014: 213), zeren Brian T. Fitchek (1988) zioen gisan, berridazten den hizkuntzarekin autoreak duen harreman motaren arabera baita xede-testua.

Badira ikerlan hau idatzi bitartean garatzen ari diren sailkapenak eta tipologia zehaztaperenak ere. Terminologia zabala dago, esate batera, autoreak maila batean edo bestean itzulpen-prozesuan parte hartzea izendatzeko. Santoyok (2012: 216) “banakako autoitzulpena” (*individual*) proposatu du “autoitzulpen konpartituarekin” (*compartida*) alderatuta, eta Josep Miquel Ramisek (2014: 103), berriz, “autoitzulpen zuzena” (*directa*) eta “zeharkako autoitzulpena” (*indirecta*) darabiltza kategoria berei erreferentzia egiteko. Ikerlan honetan ardatza jarriko dugu bakarkako autoitzulpenean edo autoitzulpen zuzenean, aurreko bi terminoak erabiltzearen; hots, autoitzulpen prozesuan *ustez* autoreak soilik parte hartu duenean, edo, bestela esanda, beste agente batekin edo batzuekin kolaborazioan egin ez duenean.

Azkenik, Elizabete Manterolak (2012, 2017) xeheki aztertu du lankidetzan egindako itzulpena, eta autoitzulpenarekin lotu zuen: «autoreak berak autoitzulpenean zein kolaborazioan bere lana itzuliko du; lehenengoan, bakarrik eta bigarrean beste norbaiten laguntzaz» (Manterola 2012: 83). Autorearen eta itzultzaile baten arteko elkarlana edo bi itzultzailearen artekoa izan daitekeela dio Manterolak (2012), eta agerian uzten du askotarikoak izan daitezkeela lankidetzaz moduak (Manterola 2017); horrek guztiak sorburu-testuari heltzeko modua baldintzatuko du. Ildo beretik, Dasilvak (2016) sailkapen zehatz bat proposatu du, autorearen parte-hartze mailaren arabera. Bereizketa egiten du “itzulpen alografoa autorearen lankidetzarekin” eta “autoitzulpena itzultzaile alografoaren lankidetzarekin” artean, eta azken horri semi-autoitzulpena (*semiautotraducción*) deitu dio. Gainera, semi-autoitzulpenaren barruan, bost mota biltzen ditu, elkarlan hori nolakoa den: i) autoitzulpena itzultzaile alografo batekin lankidetzan; ii) itzultzaile alografo batek berrikusitako autoitzulpena; iii) autoreak berrikusitako itzulpen alografoa; iv) autoitzulpena familia-kide batekin lankidetzan; eta v) autorearen familia-kide edo lagun baten itzulpen alografoa (Dasilva 2016: 26).

Aurreko kategoria horiek eta beste batzuk biltzen ditu Ramisek (2014: 125) eskema argigarri batean. Eskema horrek garai eta espazio guztietako autoitzulpen kasuak azaltzeko asmo duenez, kategoria guztiek ez dute adibiderik euskal sistemari dagokionez. Eskema bost adar nagusitan banatzen da, ardatza non jartzen den: i) autorearen inplikazio maila, ii) denbora, iii) egoera historikoa, iv) itzulpenaren ikuspegia, eta v) aurkezpena. Lehenengoan, banakako autoitzulpena edo zuzena eta lankidetzan egindakoa edo zeharkakoa leudeke; azken hori litzateke lehen aipaturiko semi-autoitzulpena. Denborari dagokiona bi adarretan banatuko litzateke, ekoizpen unea eta sistematikotasuna bereizten baititu Ramisek. Horrela, ekoizpen uneari begiratuz gero, aldi-berekoa eta kontsekutiboa genituzke. Ramisen eskeman agertzen ez bada ere, pentsa dezakegu bigarren talde hori mailakagarria dela. Izan ere, sorburu-testua idatzi ostekoa ala argitaratu ostekoa izan daiteke autoitzulpena, eta

<sup>16</sup> Bigarren hizkuntza horri “hizkuntza arrotz” (*extranjera*) deitzen dio Santoyok (2014); hala ere, ustez, autoreari ez zaio hain arrotz izanen liburu bat hizkuntza horretara aldatzeko gai bada.

zenbat denbora pasatzen den ere aintzat har genezake, ez baita gauza bera izanen sorburu-testua kaleratu eta bi urtera egin autoitzulpena edo hamar urtera. Sistematikotasunari dagokionez, bestalde, aldizkakoa eta sistematikoa bereizten ditu Ramisek. Hirugarren taldeak, esan bezala, egoera historikoa goiburua du, eta tipologia zabalena du. Hasteko, bi talde bereizten ditu: noranzkotasuna eta hizkuntzen/kulturen estatusa. Lehenengoan, noranzko bakarrekota eta askotakoa bereizten ditu batetik; euskara tarteko denean, esan bezala, ia beti egiten da noranzko bakarrean, izan gaztelaniara izan frantsesera. Bestetik, zuzena eta alderantzizkoa izan daiteke, ama-hizkuntzaren arabera; gurean biak gertatzen direla esan dezakegu, autorearen ama-hizkuntza gaztelania izan baitaiteke eta hala ere euskaraz idatzi. Hizkuntzen/kulturen estatusari edo posizioari dagokionean, hainbat multzo egiten ditu, tartean, aurrez ikusitako endogenoa vs exogenoa eta bertikala vs horizontala. Laugarren adarra produktuari dagokio, hitzez-hitzekoagoa edo sortzaileagoa ote den, kasurako. Azkenik, bosgarren adarrak autoitzulpenaren aurkezpenari erreparatzen dio, eta horren arabera produktua gardena/esplizitua edo opakua/inplizitua izan daiteke.

### 2.1.2. Autoitzulpenaren muga mugikorrak

Autoitzulpen prozesuaren emaitza modu askotara agertzen ahal zaigu, eta mugak ez dira beti hain garbi ikusten. Sailkapen zurrinak eta definizio hertsia kolokan jartzen dituzten adibide eta adierazpen zenbait ekarriko dugu hona.

Oro har, autoitzulpenaren jardunaz mintzatzean, testu bat oinarri eta beste testu bat emaitza duen prozesua datorkigu burura. Rainier Grutmanen hitzak berreskuratuz, «[t]he terms auto-translation and self-translation refer to the act of translating one's own writings or the result of such an undertaking» (Grutman 1998: 17). Idatziez mintzo da Grutman, nahiz eta orobat esan genezakeen ez dituela ahozko testuak ahanzten. Tipologiaren atalean aipatu dugunez, Autotrad ikerketa-taldekoek *autotraducción in mente* deiturikoa aztertu dute, hots, inongo testu idatzitik abiatu gabe, idazketa prozesu bitartean eta buruan egiten den itzulpen hori. Tanqueirok (2011) eman du horren berri literatura kolonial eta postkolonialetako obrak oinarri hartuta, “Sobre la autotraducción de referentes culturales en el texto original: la autotraducción explícita y la autotraducción *in mente*” artikuluan. Haren esanetan, eguneroko errealitate linguistikoa autoitzultzen dute idazle afrikar horiek portugesea, besteak beste, Mozambikeko hizkuntza aniztasuna. Tanqueirok dio autoitzulpen mota berezi hori hainbat modutara adierazten dela: batzuetan, testuan bertan esaten da autoitzulpena dela, pertsonaien ahoan, adibidez; beste kasu batzuetan, testuinguruan ulertzen delako, autoreek tokiko hizkuntzako hitzak edo esaldiak bere horretan ematen dituzte, eta beste batzuetan oin-oharra jartzen dute.<sup>17</sup> Autore afrikarren obra postkolonialetan gehien azaltzen den itzulpen baliabidea, ordea, tokiko kulturaz portugesez hitz egitean liburu bukaeran jartzen duten glosategia da. Horretan, hitzak autoitzultzeaz gainera, autoreek portugesea autoitzultzen dituzte beren tradizioei edo kultura afrikarretako mitoei dagozkien erreferente kulturalak. Era berean, pertsonaiek

<sup>17</sup> Gauza bera egiten dute beste kolonia ohietako afrikar idazle batzuek ere; besteak beste, frantsesez idazten duen Mariama Bâ senegaldarrak hitz zenbait (tokiko jaki, jantzi eta ohiturak, kasurako) bere ama-hizkuntzan (woloferaz) utzi eta oin-oharretan ematen du frantseseko azalpena.

portugesez existitzen ez diren errealitateak deskribatzeko ahozko hizkuntza itzultzen dute. Honela azaltzen du Tanqueirok (2011: 245): «el universo diegético se encuentra ambientado en una lengua y cultura que no es la lengua y cultura que el autor elige para describirlo y publicar, es decir, la lengua y cultura de los lectores a los que la obra va dirigida». Autoreak saiatzen dira errealitate linguistikoa adierazten, eta, horrekin, aditzera ematen dute askotan pertsonaiek erabiltzen duten/dituzten hizkuntza(k) ez d(ir)ela narrazioan erabiltzen den hori bera. Hala jokatzeko arrazoia da hizkuntza batzuek ez dutela idazketa finkatu bat, eta beste kasu batzuetan, liburuan agertzen den unibertso diegetiko horiek ez dutela irakurle nahikorik (Tanqueiro 2011: 254). Horregatik, autoreak jakitun dira kultura hori ezagutzen ez duen irakurlearentzat ari direla, eta autoitzultzeko beharra ikusten dute. Tanqueirok ondorioztatzen du, bada, idazketa postkolonialak hizkuntza baten baliabideak erabiltzen dituela beste baten esperientzia itzultzeko. Heterolinguisismoarekin egin dezakegu lotura, 6. atalean ikusiko dugunez; izan ere, burura dakiguke adierazpen heterolingue oro dela nolabaiteko buruko itzulpen bat, bai, bederen, errealitate soziolinguistikoa adieraztea denean asmo.

Tanqueiroren ikerketa literatura kolonial eta postkolonialetara mugatzen bada ere, autoreak dio oro har literatura osoan aurki daitezkeela adibideak. Esanen guke gurean ere gertatzen dela hori; kasurako, Baztanen giroturiko Dolores Redondoren gaztelaniazko trilogiak asko du euskal mitologia eta kondairetatik. Literatura frantsesean ere boladan omen dago Ipar Euskal Herria, bertan kokatzen diren hainbat lan kaleratu baitira azken urteotan (Etxeberria 2013). Buruko itzulpenaren<sup>18</sup> kontzeptua zedarritu beharko guke, akaso, hizkuntzaren filosofian sartu nahi ez badugu, behintzat. Izan ere, hizkuntza gutxitua ez dakien autore batek nekez egingen baitu autoitzulpenik; mundu diegetiko hori hizkuntza hegemonikoan jaso dezake idazleak, eta horretan bertan eman, nahiz eta aditzera eman periferikoan ari direla pertsonaiak. Kasurako, gurera ekarrita, Frantziatik ari den autore batek Ipar Euskal Herrian kokatuko balu bere obra, euskal erreferentziak eta kondairak frantsesez emanen balitu, buruko itzulpena egiten ariko litzateke? Horiek frantsesez jaso baditu, ez, nolabaiteko itzulpen semiotikoa egon daitekeen arren. Kontrara, euskaraz jaso baditu, beharbada bada buruko itzulpena, hor badelako diskurtso bat mentalki itzultzeko, eta hala ere liburua ez litzateke autoitzulpen izanen, pasarte batzuk soilik. Nolabait, nire irudiko, (ahozko nahiz idatzizko) diskurtso egituratu baten transferentzia oinarri luke autoitzulpenak, eta gauza bera buruko itzulpenak, autoitzulpenaren adar bat izan daitekeena.

Tanqueirok (2011) aipaturiko adierazmoldeak aintzat hartuta, ordea, antzekotasunak ikus ditzakegu euskaratik frantsesera autoitzulitako zenbait lanekin; bi aipatuko ditugu. Lehen, *La légende du Chêne Noir* (Maiatz, 2007) poema-liburua, non Francis Basterotek 130 olerki biltzen dituen frantsesez, itzulpenik gabe. Horietan, baina, testu barruan, euskarazko toki izenak eta elementu edo pertsonaia mitologikoak agertzen dira, baita zenbait izen arrunt ere euskaraz; horrela, liburuak bukaeran glosario bat dakar, euskarazko hitz horien frantsesezko ordain edo azalpenarekin. Frantsesezko olerkien ondoren eta glosarioa baino

<sup>18</sup> Tanqueiroren (2011) azterketari dagokionean izan ezik, “buruko itzulpen” erabiliko dut eta ez “buruko autoitzulpen”; bien artean nabarduraren bat egin badaiteke ere itzulgaia norbere buruan edo kanpoan dagoen, azterketa honen helburuetan ez da sartzen bereizketa horretan sakontzea.

lehen, hamaika poema agertzen dira, elebitan eta autoitzuliak, itxuraz, baina ez du noranzkoaren berri ematen. Glosarioa jartzeko arrazoia ez litzateke, kasu honetan, Tanqueirok emandako arrazoi horietako bat ere, euskarak idazketa finkatu bat izan baduelako eta, gutxi izanda ere, euskarak irakurleak izan badituelako; esanen genuke frantses elebakar eta kulturabakarra buruan duela Basterotek glosarioa jartzeko beharraren atzean. Izan ere, frantses hiztuna izan arren, euskal munduarekin harremana duen irakurleak ulertuko zituzkeen glosarioko hitzetako anitz. Bat gatoz Tanqueiroekin dioenean errealitate linguistiko bat adierazten duela; kasu honetan, frantsesezkoaz gainera euskal mundu bat badela adierazi nahiarekin.<sup>19</sup> Gehienbat euskaraz argitaratzen duen eta euskal irakurleei zuzendutako Baionako Maiatz argitaletxean kaleratu arren, aurretik Saint-Germain-des-Prés argitaletxe frantsesean atera zuen liburu horren bertsio laburrago bat. Beraz, lehenik frantsesez idazten zuela jakiteak azken poema elebidun horiek ere lehenik frantsesez idatzi eta gero euskarara itzuliko zituela pentsatzera garamatza; alta, irakurle frantses elebakarra buruan bazuen, ez du zentzurik euskarara autoitzultzeak (funtzio sinbolikoa kenduta), eta, beraz, prozesua kontrara izan zela pentsa dezakegu, alegia, lehenik euskaraz sortu eta gero frantseseratuko zituela. Batera zein bestera, argi dago ezin dugula deus zehatzik ondorioztatu, ezpada nolabaiteko autoitzulpena egon zela eta buruko itzulpenaren parametroen barruan sartuko genukeela.

Bigarren kasua Jean-Baptiste Dasconaguerreren *Les échos du pas de Roland* liburuan dugu, 1867an Parisen kaleraturikoa. “Pseudo-autotraducciones. Un caso en los orígenes de la literatura vasca” artikuluan, Ibon Uribarrik (2013) sasi-autoitzulpena izena jartzen dio kasu horri. Izan ere, azalean bertan «traduit du basque» dela jartzen du, baina Uribarrik erakusten duenez, 1880an Baionan aurkezturiko *Atheka gaitzeko oihartzunak* frantsesezkoaren itzulpena da, talde-lanean egindakoa. Autoitzulpen apokrifoa bat da euskarazkoa, beraz, sasi-itzulpen bat, zeren itzulpen alografo eta, hortaz, fikziozko autoitzulpen bat baita. Termino bat baino gehiago erabil daitezke Dasconaguerrek egindakoa izendatzeko, baita kategoria interesgarri hau ere: «autoitzulpen apokrifoa edo fikziozkoa» (Uribarri 2013: 237). Batzuetan, autoitzulpentzat aurkezten den testua kronologikoki lehenik idatzitako testua da, sorburu-testutzat jotzen den hori baino lehenagokoa, alegia; autoitzulpen baino, kasu horiek sasi-autoitzulpen dira, bestela aurkeztu arren, autoitzulpen izendaturikoa sorburu- edo lehen-testu baita. Uribarrik beste hipotesi bat ere ematen du: beharbada, Manex pertsonaiak euskaraz kontatu zion istorioa idazleari, eta idazleak istorio hori frantsesez ematen du liburuan (Uribarri 2013); ahozkotik idatzizkora pasatzean, beraz, hizkuntzaz ere aldatzen da kontakizuna. Nolabaiteko buruko itzulpena legoke, idazleak berak egindakoa, euskaraz entzunez bereganatu duen errealitate hori frantsesera bihurtzen baitu idatzizkoa sortzeko prozesuan.

Touryk (1995) esana da sasi-itzulpena literatura sistemaren periferian gertatu ohi dela, eta kultur aldaketak sartzeko estrategia bat izan daitekeela, sasi-itzulpen alografoek egiazko autoretza ezkututzen dutelako eta horrela xede-kulturan egon daitekeen zentsura gaindi daitekeelako. Dasilvak (2015) ohartarazten duenez, sasi-itzulpena ez da ustezko

<sup>19</sup> Lehenago aipatu dugun Ar Rouzen arrazoiketa egon daiteke autoitzultzeko eta euskarazko hitzak frantsesezkoan txertatzeko Basteroten hautuaren atzean: «une façon de tenir compte de leur environnement sociolinguistique dans leur production littéraire» (Ar Rouz 2015: 118).



autoitzulpenarekin nahastu behar, zeren ustezko autoitzulpena, hasiera batean autoreak berak egina dela dirudien arren, itzulpen alografoa baita, paratestuek erakusten dutenez. Sasi-itzulpenak itzulpen alografoak dira gehienetan, prestigio handiagoko hizkuntzetatik egiten direnak edo testuari balio gehigarri bat ematen diotenak. Uribarrik azaltzen duen kasuan, ordea, literatura tradizio eskaseko hizkuntza txikiago batetik egindako autoitzulpentzat saldu nahi izan zuen egileak; «anticipa desde el País Vasco francés de modo ficticio la realidad actual de las supraautotraducciones (Grutman 2011), realidad habitual en un entorno de bilingüismo diglósico como el vasco» (Uribarri 2013: 237-238). Testua Ipar Euskal Herrian sortu arren, gerora arrakasta eta estatusa Hego Euskal Herrian izan du, besteak beste hor berrargitaratu baita, beharbada euskal literatura sistema bertan finkatzearen ondorioz. Horrela, bada, kultura eleaniztun periferiko eta mugakide baten konplexutasunak aintzat hartu behar dira autoitzulpenak aztertzerakoan. Interesgarria litzateke hari horri tira egin eta bai mugak, sinbolikoak nahiz fisikoak, bai horien eragina xehekiago aztertzea.

Literarioak ez diren beste egoera-testuingurutan ere aurki dezakegu buruko itzulpena. Komunikazio mota askotan gertatzen da, askoz sozialagoa da, eta bereziki hizkuntza-ordezkapen testuinguru batean maiz egiten den ariketa dela iruditzen zaigu. Alta, gure mugetatik harago eta egoera diglosiko batean egon zein ez, buruko itzulpena ohikoa dela esanen genuke, globalizazioaren ondorioz sorturiko agente (derrigorrez) eleaniztunak aintzat hartuz. Ildo beretik mintzo da Reine Meylaerts (2006: 1): «‘new’ nomadic citizens are characterized as polyglots travelling in between languages, in a permanent stage of (self-) translation». Hala gertatzen da, nabarmen, lan akademikoen idazketa prozesuan. Oro har ingelesez idazten dira artikuluko zientifikoak,<sup>20</sup> nolahi ere hizkuntza hegemoniko eta nagusi batean, askorentzat bigarren edo hirugarren hizkuntza den horretan. Ikertzaileak halako lan bat idaztean, beraz, bere ohiko harreman-hizkuntzatik ingelesera autoitzultzen du; gerta daiteke aurrez bere hizkuntzan idatzitako zerbait ingelesera itzultzea, baina beste batzuetan zuzenean ingelesez emanen du, buruko itzulpena eginez. Hein batean, idazketa elebidun diglosikoaz ere mintzatu gaitezke, akademiako ingelesa baizik erabiltzen ez denean. Halaber, egunerokoa hizkuntza bat erabili behar duen eta une jakin batean beste hizkuntza batean idatzi bat egin behar duen horrek, ez al du bere burua itzultzen? Ez al ginateke orduan ere buruko itzulpenaz ariko? Itxaro Bordak dioen bezala, Euskal Herriko egoera linguistikoan, «itzulpen etengabeko buru-ariketa da gure ekintza intelektualik nagusia» (Borda 2013).

Orobat galde dezakegu elebitasun ez-pareko batean bizitzearen eta elebidun/eleaniztun izatearen ondorio diren kalkoei “buruko itzulpen” esan ote diezaiekegun. Izan ere, esanen genuke autoitzulpen ariketa horiek oharkabean egiten ditugula maiz, Cristina García de Torok dioenez: «En situaciones de convivencia territorial de lenguas, los actos de traducción pueden acompañar al ciudadano en su vida diaria sin ser éste consciente, en una especie de traducción natural, con todas las matizaciones que el término requiere» (Ar Rouz

<sup>20</sup> Adibidez, Agnes Pisanski esloveniarrak UPV/EHUko Letren fakultatean antolatutako autoitzulpenari buruzko mintegian (2015) esan zuenez, galdeketa oinarritutako ikerketa baten arabera, ikertzaile esloveniarrak ingelesez idazten dituzte oro har azterlan akademikoak, tradizio handiagoa dagoelako, eta gero esloveniara itzultzen dituzte; testutik testurako itzulpen horretan, itzuli ahala eslovenieraz terminologia sortu ere egin behar dutela nabarmendu zuen.

2015). Kalkoen Behatokia adibide garbia da, EHUko Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa sailak, EITBko Euskara Zerbitzuak eta Euskara Institutuak lankidetzan sortu baitzuten hedabideetako eta testuliburu-etako euskarari erabiltzen ziren kalkoak identifikatu, datutegian bildu eta horietaz ohartarazteko. Irene Arrarats *Berriako* euskara arduradunak dio egunkariko jardun handiena “itzulpen intrakraneala” dela: «Mundua euskarari eman nahi badiozu, gehiena itzulpena egin beharko duzu» (Arrarats 2017). Egoera soziolinguistikoa dela eta, euskaraz idazten dugunean, etengabe itzultzen ari garela dio Arraratsek, eta horregatik, besteak beste, erdaraz ez dauden euskal egiturak galtzen ari direla. Beraz, Juan Garziak proposaturiko “itzulpen intrakraneala” darabil Arraratsek (2017) hemen “buruko itzulpena” deitu duguna izendatzeko. Inondik ere gogoeta, azterketa eta zehaztasun handiagoa behar duen alorra da hau.

Badira autoitzulpenaren sailkapen zurrinak kolokan jartzen dituzten bestelako adibideak ere. Aspaldiko kasu ezaguna dugu Nikolas Ormaetxea “Orixe”k *Tormes'ko itsu-mutila* euskaratzean egindakoa. Izan ere, garaiko joera moralizatzaileak bultzatuta, *Orixek* testua euskaraz jantzi ez ezik, euskaldunen ustezko balio etiko eta moraletara egokitu zuen (Uribarri 2011: 252). Helburu bikoitza zuen: euskara bultzatu eta moralki zuzena izanen zen testua eskaini nahi zuen. Baina hori ez da guretzat jakingarriena, beste hau baizik: edizio elebiduna argitaratuko zuenez, hartzaile gehienak bai gaztelaniazkoa bai itzulpen egokitua irakurtzeko gai zirenez eta aldaketak nabarmenak zirenez, gaztelaniazkoa ere aldatu zuen euskarazkoarekin bat egin zezan. Ez ditu aldaketak ezkututzen, ordea, eta alde horretatik autoitzulitako zatietan, alegia, euskarazko itzulpenetik gaztelaniara egindako horietan, autoitzulpen gardena egon zela esan dezakegu. Honela azaltzen ditu itzulpen-irizpideak *Orixek* berak liburuko oharrean:

Erdel-yaubearen idazti yatorretik, yardun au (azken atala) osorik kendu dot eta neure buruz ordaindu, edonoren eskuetarako irudi etxatalako. Kendu dodaz ganera, esan zantar bat lelengo yardunean, amazortzi lerro irugarrenean, eta bi koma-tarte laugarrenean. Kritikuak begirapena zor i dautsoe yaubearen idazti jatorrari: nik osteraz zor deusot neure buruari ta irakurle euskaldunari (Ormaetxea 1929).

Atalak kendu eta gehitzeaz batera, beste zati anitz epelago bihurtzen ditu, biguntzen (Iturrioz 1985). Horrela, bada, testu-jardun zehatzen bidez, itzultzaileak mendeko posizio batean jartzen ditu bai jatorrizko testua, bai hori ekoiztu duen kultura. Esperimentaziorako eta garbizaletasunerako joera ezaguna da *Orixerengan*, eta testua irakurle guztiei irisgarri egiteko nahiak ere bultzatuko zituen aldaketok. Pedro Iturriozek, itzulpen hari egiten dion azterketa kritikoa, honela dio: «Orixerentzat, euskarak dohain bereziak zituen eta ez zuen hizkuntza teknikoaren eta arruntaren arteko diferentziarik ikusten edo gutxienez edozein etxeoandre edo artzaik ulertzekoa egin zitekeela uste zuen» (Iturrioz 1985: 113). Horrela, gaztelania teknikoa agertzen zen aldiro, hizkuntza arruntaz jantzten zuen euskarazkoa, hark asmatu-rikoko moldez.<sup>21</sup>

<sup>21</sup> Adibide anitz ematen ditu Iturriozek; hizkera teknikoa arrunt bihurtzeko asmoz egindako aldaketa horietako bat aipatzearen, gaztelaniaz *cultura concepto filosófico* dena euskaraz “buru-lan buruan ernea iakinzale” eman zuen *Orixek* (Iturrioz 1985).

Atal honekin bukatu aurretik, corpusean aztergai izanen dugun Aurelia Arkotxaren *Septentrio* lana aipatuko dugu. Izan ere, euskarazkoa narratiba testu bat da, prosan idatzia, nahiz eta oso estilo lirikoa izan eta azken atala poemaz osatua egon (“Mare magnum fine” izenekoa). Alberdania etxeak kaleratu zuen 2001ean, “Narrazioa” bildumaren baitan. Geroago, 2006an, Bruselako Atelier du Héron argitaletxeak plazaratu zuen frantsesezko autoitzulpena. Liburuan, ordea, sorburu-testuko atalik poetikoenak baizik ez dira itzuli eta, gainera, sorburu-testuan ez dagoen poema bat gehitu dio frantsesezkoari, “Ternua” izenekoa, lehenago euskaraz kaleratu zena *Maiatz* aldizkarian. Horrela, frantsesezkoa poesia-liburu bat da, eta hala aurkeztu zuen argitaletxeak poesia-bilduma baten barruan. Autoitzulpen-prozesuarekin, bada, testuaren beraren generoa (identitate) aldatzen dela esanen genuke, sorburu-testua narratiba baita eta xede-testua, berriz, poesia. Frantsesezkoa kaleratu eta urtebetera, 2007an, beraz, Alberdaniak gaztelaniarako itzulpena argitaratu zuen, Arantzazu Fernandezek eta Elisabete Tolaretxipik egindakoa. “Alga” bilduman kaleratu zuten, argitaletxeak gaztelaniazko liburuarekin zuen bakarrean. Euskarazkoari hurbilagotik jarraitzen diola esanen genuke, liburuaren atalak aintzat hartzen baditugu eta frantsesezkoarekin alderatuta, behintzat. Arkotxarekin izandako mezu-truke batean (2016/01/20), hala zioen frantsesezkoaren zati batzuk soilik itzultzeko hautuari buruz galdetuta: «Diakronia batean ikusi behar dituzu Septentrio 1 (2001eko euskarazkoa), Septentrio 2 (2006ko zati baten frantsesezko autoitzulpena) eta Septentrio 3 (2007an itzultzaileek enekin kontsultatuz gaztelaraz egin zutena)». Zerrendatzean ikusten denez, autoreak prozesu beraren ataltzat ditu hiru emaitzak, «autoitzultzea kreaioaren prozedura jarraikian» kokatzen baitu (mezu-trukea, 2016/01/20). Ez da hala egiten duen bakarra; ikusi dugu Ramisek (2014) motibazio pertsonaletako batean deskribatzen zuela idazle batzuek sormen prozesuaren ataltzat jotzen dutela autoitzulpena. Hala ere, honela ohartarazten du: «assimilar el cas de l'autotraducción consecutiva a una feina continuada d'criptor (...) és una opció molt vàlida, però sense perdre mai de vista la distància suplementària que hi afegeix un canvi de llengua» (Ramis 2014: 77).

Katixa Dolharé-Çaldumbidek (2008: 36) honela dio Arkotxaren itzulpen-hautuaz: «erran daiteke lehen liburua ez daitekeela osoa izaten ahal. Osotasun eskas horren froga da bigarren bertzio bat atera izana». Ustez, Dolharé-Çaldumbide kasu horretaz soilik ari da, ez literatura lan guztiez; izan ere, guztiez ariko balitz, ondorioztatu beharko genuke lehen liburu batek, euskarazkoak, kasu honetan, ezin duela oso izan beste “bertzio” edo itzulpenik gabe?

Nolanahi den, horrek guztiak autorearen idazle-izaera ere aldatuko du, irakurle elebakarraren ikuspegitik, behintzat; irakurle frankofonoentzat Aurelia Arkotxa poesia-idazlea izanen da, eta euskal/erdal irakurleentzat, berriz, autorea ezagutu ez eta liburu hori badute erreferentzia bakar, prosa (poetikoa) darabilen narratiba idazlea izanen da. Gehiengo ez diren arren, halako kasuak aipagarri dira, autoitzulpenaren identitatez ari garelarik ikusiko dugunez.

Ikusi dugunez, bada, autoitzulpena (eta horren aldaera eta mota oro) ezin da ekintza homogeen, zurrun eta bakartutzat hartu, aurpegi (identitate?) askotariko jardueratzat baizik. Autoitzulpenek horien sorburuan dauden errealitate soziokulturalak eta politikoak adierazten dituzte, eta errealitate horiek eragina izanen dute bai idazketa- nahiz itzulpen-

prozesuan, bai emaitzaren nolakotasunean. Orobat ikusi dugu adostasun osorik ez dela, eta, kasuak askotarikoak eta terminoak ugariak izanagatik ere, zehaztapen eta azterketa gehiago behar dela. Autoitzulpenaren ikerketa aski berantiarra dela ere esan dugu, eta segur gara, beraz, datozen urteotan zehaztapen saio interesgarriak proposatuko direla.

## 2.2. AUTOITZULTZEKO ARRAZOIAK

Idazle batek bere lana itzultzeko erabakia hartzen duenean, modu kontzientean hartuko du erabaki hori, eta hainbat arrazoik bultzatuta har dezake. Elizabeth Klosty Beaujourrek (1989) zioen autoitzulpena aukera bat zela beti, ez betebehar bat. Hori hala izanik ere, aukeraren atzean dauden arrazoiak askotarikoak izan daitezke, betebehar izaera ere har dezake batzuetan eta, beraz, Manterolaren (2012: 76) arabera, ezin dira halako baieztapenak hain erraz egin. Beste publiko zabalago batera iristeko edo norberaren lana beste hizkuntza batean lantzeko autorearen borondateaz gainera, badira literatura sistemaren nolakotasunari loturiko arrazoiak ere, eta horiek lirateke aukeratik gutxiago eta beharretik gehiago luketenak. Besteak beste, Gentsek (2009) faktore pertsonalak, literarioak, pragmatikoak, politikoak edota ekonomikoak aipatzen ditu autoitzulpenerako arrazoitzat, eta Simona Anselmik (2012), berriz, arrazoi editorialak, poetikoak, ideologikoak eta ekonomikoak/komertzialak bereizten ditu.

Autoitzultzen duten autoreek horri ekiteko arrazoiei heldu aurretik, baina, aipatu behar da guztiek ez dutela autoitzulpenarekiko jarrera bera erakusten; gainera, ezin da esan jarrera hori estatikoa denik, beren idazle ibilbidean alda baitaiteke, kanpo- edo barne-faktoreak aldatzen badira. Francesc Parcerisas (2002) idazle eta autoitzultzaileak lau idazle mota aipatzen ditu, autoitzulpenerako erakusten duten jarreraren arabera. Lehenik, beren lana itzuli nahi ez duten idazleak daude. Bigarrenik, autoitzuli bai eta jatorrizkoari ahalik eta hurbilen lotzen saiatzen diren idazleak leudeke. Hirugarren multzo batean kokatzen ditu jatorrizkoaren estatusa eta itzulpenarena pareko jartzen dituzten idazleak, “birsorkuntza lana” egiten dutenak, alegia. Multzo horretako idazleek kontzienteki edo inkontzienteki hartzen dute autoitzulpena birsorkuntzatzat. Azkenik, Parcerisaren sailkapenean, laugarren multzoan daude sorkuntza eta itzultze lanak aldi berean egiten dituzten idazleak. Ez dirudi, ordea, lau multzo horiek maila bereko jarrerak direnik, ezta eragin bera dutenik obra itzulian ere.

Elizabete Manterolak (2012) ere, euskarazko idazleengan oinarrituta, autoitzulpenaren hautuarekin loturiko idazleen kasuistika zabala erakutsi du. Batetik, noski, gaztelaniaz edo frantsesez bakarrik idazten duten autore elebakarrak<sup>22</sup> leudeke, eta, bestetik, euskararekin elebidun direnak. Bigarren multzo horretan bost kasu identifikatu ditu: lehenik, hizkuntza hegemonikoan soilik idazten dutenak; bigarren, euskaraz soilik idazten dutenak; hirugarren, euskaraz sortu eta gero beren lana edo besteren batena hizkuntza hegemonikora itzultzen duten autoreak; laugarren, euskaraz sortu eta gero beren lana eta ez besterik hizkuntza

<sup>22</sup> Manterolak berak geroago beste lanen batean esan izan duenez, ez-euskaldunei elebakar deitzea ez da, beharbada, zehatzena: «(...) no debemos olvidar que los hablantes también dominan otras lenguas como el inglés, *lingua franca* del actual mundo globalizado, por lo que no consideramos adecuado clasificar sistemáticamente a los no vascoparlantes como simples monolingües» (Manterola 2015: 76).

hegemonikora itzultzen duten autoreak; eta azkenik, bosgarren, bai euskaraz bai beste hizkuntza horretan sorkuntza lanak egiten dituzten autoreak. Gerta daiteke, bigarren kasuan, gero itzultzaile batek haien lanak beste hizkuntzara itzultzea. Nabarmentzekoa da, ordea, ez dugula aurkitu erdaraz idatzi eta gero sistematikoki euskarara autoitzultzen duen idazlerik. Halaber, hirugarrenaren kasuan, hizkuntza hegemonikorako itzultzaile alografo izateaz gainera, euskarara ere itzultzen duenik bada, Miren Agur Meabe eta Harkaitz Cano kasurako. Era berean, bosgarrenaren kasuan, baliteke euskaraz nahiz gaztelaniaz sortzen duten autoreak noizbait autoitzultzaile aritu izana. Kasu horiek guztiek «[autore]bakoitzak hizkuntzarekin, edo hizkuntzekin, duen harremana erakusten dute, eta eremu elebidunetako errealitatea nolakoa den azaleratzen dute» (Manterola 2012: 34). Izan ere, bi hizkuntzen arteko asimetria aintzat hartzekoa da, egoera soziolinguistikoaren isla ere baita, batzuetan, autoitzulpena. Horrela, testuinguruak determinatzen ez badu ere, erabakigarria da, eta ezin gara autorearen hautu pertsonalaz soilik mintzatu.

Jarraian aurkeztuko ditugu autoitzulpena sustatzen duten zenbait motibazio. Bi multzotan banatu ditugu, ardatza autorearengan eta literatura sisteman jarrita; jakin badakigu, ordea, bi multzoez elkar eragiten dutela eta ez direla guztiz bereizgarriak (Ramis 2014: 65). Bukaeran, ez autoitzultzeko zenbait arrazoi ere aletuko ditugu.

### 2.2.1. Autorearen ikuspegitik

Autoitzultzeko arrazoiak autorearen borondatearen arabekoak edo literatura sistemak eragindakoak izan daitezkeela esan dugu. Autorearen ikuspuntutik begiratuta, idazleak bere lana beste hizkuntza batean jar nahi lezake modu horretan irakurle gehiagorengana iritsiko delako, batez ere hizkuntza hegemoniko batera itzultzen badu. Argitaraturiko testua “hobetzeko” tresna modura ere erabil dezakete egileek itzulpena; Dasilvak honela esaten dio horri: «apetito [de los autores] de contrastar mediante la versión en castellano la calidad de sus originales» (Dasilva 2010: 270). Idazketan trebatzeko aukerarekin lotzen du Harkaitz Canok (2017) ere: «Nik pentsatu nahi dut neure burua irakurtzeko modurik onena neure burua itzultzea dela, eta, besteak beste, horregatik interesatzen zait neure burua itzultzea, neure burua irakurtzeko modurik onena delako akaso. Hor enfrontatzen naiz benetan nire mamuekin edo nire gabeziekin». Alta, iruditzen zaigu gehienetan *a posteriori* egiten den diskurtsoa dela hobetzearen/genesiaren hori. Bestela, horrek esan nahiko luke autoreek ez dutela lehen testua behin betikotzat edo osotzat hartzen, eta ez dugu uste hala denik, probokazioaz harago.

Nolanahi den, itzulpenaren bitartez nolabaiteko distantzia hartu, eta lehenengo idazketaren “hutsak” betetzeko erabil daiteke bigarren idazketa den autoitzulpena. Hori, betiere, aldi berean egiten ez bada, alegia, lehen testua argitaratua edo bukatuta badago eta aldatuko ez bada. Izan ere, bestelakoa da lehen zirriborroa idatzi eta hori bukatu edo argitaratu gabe, aldi berean, beste hizkuntzara itzultzen denean, itzulpen prozesuan sorturiko zalantzek lehen testuan eragin baitezakete, eta hori ere nolabaiteko itzulpena litzateke: itzulpenaren itzulpena, hain zuzen. Esaterako, Aurelia Arkotxak (2015) azaldu duenez, Joan Mari Lekuonaren *Mimodramak eta ikonoak* liburuaren sorkuntza prozesuan gaztelaniarako autoitzulpenak pisu handia izan zuen, olerkien euskarazko zirriborroa idatzi

eta gero gaztelaniara itzultzen baitzuen, «euskarazkoa lantzeko». Autoitzulpenak testutik aldentzeko distantzia ematen ziola esaten zuen Lekuonak, eta jatorrizkoa birpentsatzeko eta hobetzeko modua zela (Arkotxa 2015). Horrek pentsatzera garamatza obra horretako euskarazko olerkiak ez direla autonomoak, eta gaztelaniarako itzulpenekiko nolabaiteko “morrontza” dutela, itzulpen horiek euskarazkoak baldintzatzen dituzten heinean. Joantorri bat dago, beraz, kasu horretan, elkar elikatze bat gaztelaniazkoa argitaratuko ez bada ere.

Manu Lopez Gasenik 2005. urtean argitaraturiko *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan* lanean, bazterreko literaturen gutxiagotasun konplexuak eraginiko hiru arrazoi aipatzen ditu autoitzulpenerako. Literatura sistemaren nolakotasunean oinarritzen bada ere, horrek ez daramatza autore guztiak beren obra itzultzeraz, eta horregatik dira autorearen ikuspegiaren araberrako arrazoiak. Gainera, aparte aipatzen ditu hautu pertsonalaz haraindi literatura sistemari dagozkion arrazoiak. Beraz, autorearen ikuspegitik, arrazoietakoa lehena da idazlea euskaraz gain hizkuntza “nagusia” ongi erabiltzeko gai dela erakusteko behar sozial eta psikologikoa. Aldebikoa da arrazoi hori, ordea, zeren, Manterolak (2012: 79) dioen moduan, «[g]aitasun linguistikoa bi hizkuntzetan badutela erakutsi beharrak kultur sistemaren menpekotasuna erakusten du». Hain zuzen, Manterolak literaturaren nahiz hizkuntzaren egoera diglosikoari egotzen dio hizkuntza gutxituan gai izan arren hegemonikoan ere gai dela erakutsi beharra. Bigarrenik, Lopez Gasenik testura berriz bueltatu beharra aipatzen du, sistema berriaren mailara egokitzeko; haren hitzetan, «sorburu-hizkuntzako sistemaren gehiegizko erlaxazioak eta zorrotasun faltak, askotan, idazlea bertan goxo aritzera daramate, eta, testuak egokitzapen horiek egin gabe itzuliko balira, axolagabekeria batzuk nabarmenegi geratuko lirake» (Lopez Gasenik 2005: 45). Dirudenez, sistema hegemonikoaren mailari zorrotzagoa irizten dio euskarazkoari baino, ala, bestela, autoreek eurek halakotzat dutela ondoriozta dezakegu haren hitzetatik. Lopez Gasenik aipatzen duen azken arrazoiak da sorkuntza prozesua nolakoa izan den ezkutatzeko nahia, hots, «[b]atuetan, egileek berek ere ez dakite argitzen (edo ez dute argitu nahi) zein hizkuntza egon den autoitzulitako idazlan jakin baten sorreran» (Lopez Gasenik 2005: 46). Hori ere egoera soziolinguistikokoaren ondorio da, noski, hizkuntza eta literatura gutxituak duen prestigio eta estatusari lotua, eta egileek horrekiko izan dezaketen konplexua, hurrengo atalean ikusiko dugunez.

Bestalde, galdeketa oinarrituta, beren gaelikozko testuak ingelesera aldatzen dituzten autoreek jardun horretara jotzeko arrazoiak zerrendatzen ditu Corinna Krausek (2005): «it is indeed the concern to widen the audience for Gaelic texts, that primarily leads authors, editors and publishers of Gaelic poetry to provide English translations». Horixe da, esaterako, Dolharé-Çaldumbideren (2013) ustez Itxaro Bordaren lehen arrazoiak bere obrak frantsesera itzultzeko, hartzaile berri batengana iristea, alegia. Bordaren beraren hitzetan, autoitzulpenera jotzeko arrazoiak hauek dira: «Irakurle gehiago edukitzeko batetik, iparralde honetan bertan, eta bestetik, pretentsiorik gabe, Euskal Herriaren itxura ezberdin bat eskaintzeko gutaz interesatua den publikoari» (Arrula-Ruiz 2014). UEUK antolaturiko jardunaldi batuetan, itzultzen hasteko arrazoiak buruz beste hau dio Bordak: «Hirugarren milurtearen atarian hasi nintzen nire idatzi zenbait, bereziki olerkiak, frantsesera itzultzea onartzen. Beste hizkuntza batuetara pasatzeko zubi-lanaren aitzakiaz eta barne-krisia

politiko-kultural bortitz baten emaitza zela aitortzekoa dut» (Borda 2013). Beraz, esan liteke hainbat barne-arrazoik bultzatu zutela baionarra autoitzulpenera. Bestalde, Marianne Bessyk (2011) frantsesez idatzi eta nazionalitate frantsesa ez duten autoreak ditu aztergai, eta horiek ama-hizkuntza ez den beste hizkuntza hegemoniko bat hartzeko arrazoiak aipatzen ditu, autoreen beraien aipuetan oinarrituta. Besteak beste, ama-hizkuntzaren etxekotasunetik urrundu nahia eta iraganarekin moztu nahia aipatzen ditu beste hizkuntza hori idazketarako erabiltzeko arrazoi psikologikotzat.

Krauseren (2005) galdeketa, autoitzulpenei lotuta, idazle batzuek beren lanaren gaineko jabetza azpimarratzen dute jardunari ekiteko arrazoitzat, testu gaelikoak jatorrizkoak direla argi geratzeko nahiarekin batera. Obraren gaineko kontrol hori aipatzen du, halaber, Olga Castrok (2011) Galiziako idazle-itzultzaileez ari denean; haren ustez, obraren kontrol ilusioari eutsi nahi diote. Hau da, xede-hartzaileak egiten duen (dezakeen) esanahiaren berreraikitze horren partaide sentitu nahi du autoreak, Castrok *autoprotagonismo* deitzen duena (Castro 2011: 31). Hain zuzen, Ramisek (2014) bi multzotan banatzen ditu autoitzultzeko motibazio pertsonalak, eta horietako bat da autoritatea, kontrol nahiari eta testua zuzentzeko xedeari lotuta. Bigarren multzoa, Ramisen (2014) motibazio pertsonalen arabera, autoitzulpena sormen prozesuaren ataltzat jotzea litzateke.

Krausek galdekaturiko beste idazle batzuek diote interpretazio okerra eta, beraz, itzulpen okerra saihestu nahi dutela autoitzulpenaren bitartez. Erreparo hori euskarazko idazleengan ere suma dezakegu; Jon Alonsoren hitzetan, zenbaitetan idazleek beldurra senti dezakete beste batek bere lana itzultzean eta zer interpretazio mota egin duen ikustean (Montorio 2007: 72-73). Esan behar dugu Alonso beste idazle batzuek ari dela; berak, beste batzuen lanak itzuli dituen arren, ez baitu bererik erdaratu. Susmoa berresten du Unai Elorriagak, lehen pertsonan, oraingoan: «No dejaría a nadie que me hiciese la traducción al castellano, porque sé lo que es traducir: yo quiero mucho a mis libros» (Martínez-Lage 2003). Itzultzaileekiko mesfidantza arrazoi zabaldua dela dio Anselmik (2012: 35): «the lack of confidence in translators is a kind of *leitmotif* in the personal and critical writings of self-translators», baita autoitzultzeko arrazoi nagusia ez denean ere.

Idazle-itzultzaile eskoziarrek ematen duten beste arrazoi batek beren elebitasun izaerarekin du zerikusia, autoitzulpena izaera elebidun horren islatzat baitute, bai sormen lana bi hizkuntzatan emateko bai gaelikoa ulertzen ez duen komunitate hurbilarengana iristeko (Krause 2005). Ildo beretik mintzo da David Ar Rouz bretoieratik egindako autoitzulpenak aztertzean; haren esanetan, bretoiera ama-hizkuntza, «hizkuntza afektiboa» da batzuentzat, ekoizpenerako erabili ez arren, eta hizkuntza sustatzeko ez ezik, lotura afektibo hori bera dutenen artean zubiak eraikitze modua izan daiteke autoitzulpena. Horrela, besteak beste, helburu sozial baterako egiten lituzkete beren obren itzulpenak idazle bretoiek, eta autoitzulpenak gizartearen (parte baten) izaera horixe islatuko luke. Honela dio Ar Rouzek (2015: 118): «une façon de tenir compte de leur environnement sociolinguistique dans leur production littéraire». Aipatu behar dugu Ar Rouz (2015) edizio elebidunen balio pedagogikoaz mintzo dela; 3.3 atalean sakonduko dugu euskarazko edizio elebidunen inguruan.

Oro har, ikertzaile batek eta bestek ematen dituzten arrazoiak maiz errepikatzen direla ikusi dugu. Esaterako, Nina Cuciuc-ek (2012) autorearen elebitasun edo eleaniztasuna, beste publiko batera iristeko nahia, beste itzultzaile baten esku uzteko mesfidantza eta jatorrizkoaren eta itzulpenaren kontrol osoa izateko anbizioa aipatzen ditu, aurretik ere irakurri ditugun arrazoiak denak. Alta, bada beste bat ere, beharbada urriago azaltzen dena: autorearen banitatea. Cuciucek aipatzen duenez, horixe da, esaterako, Ana Guțu ikertzaile eta autoitzultzailearen ustez idazle batek bere obra itzultzeko lehen arrazoa.

### 2.2.2. Sistema literarioaren ikuspegitik

Literatura-sistemari loturiko arrazoiak ere ematen ditu zerrendan Krausek (2005), hala eskoziarren artean gaेलikoaren ezagutza urria nola itzulpeneko diru-laguntza falta. Lehenago ere aipatu dugunez, elebitasun linguistiko-literarioaren eta autoitzulpenaren fenomenoek sailkapen monolitiko ororen aurrean erresistentzia maila handia agertzen dute (Bessy 2011). Horrela, elebitasun literarioak, atzerriko hizkuntza bat idazketa hizkuntzatzat hartzeak eta bi sistema literarioaren parte izateak (izan nahiak) ondorio duen autoitzulpenak kategoriatan literarioen oinarrian dauden mugak lausotzen dituzte nahitaez. Honela dio Oustinoffek (2001: 277): «L'antinomie se laisse alors lire dans les termes mêmes: une traduction autoriale, à la fois traduction et écriture (puisque version émanant de l'auteur), constitue une anomalie au regard des classifications couramment admises». Elebitasun literarioa sarri aztertu da autore migratzaileengan, borondatez nahiz behartuta migratu dutenengan. Monique Viannayk eta Chantal Estranek diote autore elebidunak hiru kategoriatan bil daitezkeela: tradizioz kolonizaturiko herrietako autoreak; arrazoi historiko edo ekonomikoak tarteko herrialde frankofono batera erbesteratu behar izan duten autoreak; eta borondatez beste herrialde batera joateko hautu kontzientea egin duten autoreak. Euskarazko idazle-itzultzaileen egoerari gehien lotzen zaion aukera lehena da, kolonizazio kulturala eta linguistikoaz mintzo bagara, behintzat.<sup>23</sup> Hala ere, esan behar da aipatu azken autoreek, Parisetik begiratzen dutenek, idazle magrebtarrak dituztela gehienetan eredu, eta Ipar Euskal Herriko (edo Frantziako estatuko beste herri batzuetako)

<sup>23</sup> Halakotzat jotzen dute, besteak beste, Antton Lukuk eta Itxaro Bordak. Frantsesaren inposizioari dagokionez, Itxaro Bordak dio, ume garaia gogoan, ez zela hezkuntza arautuan bakarrik gertatzen, baizik eta «gerra egoera koloniala zen eta seipazazpi urteko haurrei jasanarazteko egiazki biolentoa»; joera orokorra bera ere halakoxea zela, «[frantsesak]historian zehar zapaltzaile eta kolonialista joera ukan duela» (Borda 2013). Lukuk, berriz, gaur egungo egoeraz honela mintzo da: «Hemen bizi diren horiek euskara hitz bat ere ez jakiteko eskubide osoa dute maila pertsonalean. Baina uste badute euskaraz diren gauzetan ere deus galdu gabe ulertuko dutela dena, bat laidoa da eta bigarrenik kolonialismo hutsa» (Luku 2008: 105-106). Eta hala ondorioztatzen du: «Frantziak guretzat duen egitasmoa kolonialismoarena da. Ez daki besterik egiten eta ikasteko gogorik ez» (ibid.: 85).

Akulturazio prozesuaren existentzian bat egin arren, horri aurre egiteko bidean ez datoz bat bi idazleak. Lukuk zalantzan jartzen du itzulpen sistematikoaren onura, nahiz eta literatura erdaratzea ontzat eman: «Nehork ez du arrotzaren aitzinean etxea zabal-zabala uzten. (...) Gure etxeetan ez zen jo egiten ezkaratzean sartzeko, baina ausarkeria handia izanen zen ganbaran zer zen ikustera joatea» (Luku 2008: 107). Eransten du euskal dramak (nola kulturak) bere zirkuituak behar dituela, «bere salak» (ibid.: 121). Bordarentzat, berriz, (auto)itzulpena kolonialismo horrek zekarrenarekin hausteko bidea izan daiteke: «Itzulpenari esker kolonialismoaren denborako unibertsaltasun zapaltzailearen irudia hausten da mintzairaren baitako harremana berdinduz eta neurri batean hedadura eta indarragatik erlatibizatuz» (Borda 2013). Hego Euskal Herrian orobat da eztabaida ezina gaztelaniaren nagusitasun behartua, frankismo garaian ez ezik, orduko politiken, dinamiken eta inkontzienteki barneratutako jarrearen hondarretan ere.



idazleak, aldiz, ez dituztela oro har kontuan hartzen, eta ez diete, noski, beren sailkapenean tokirik egiten.

Arianna Dagninok (2017) autoitzultzaileen taxonomia bat marraztu du haien xede, elebitasun maila eta autoitzultzeko arrazoiaren arabera. Horrela, aurreko atalean aipaturiko motibazio pertsonalez gainera, hizkuntza konbinazioari lotuago dauden bi arrazoi proposatu ditu: hizkuntza bat nagusitu edo deszentralizatu nahia. Batetik, *to majorize a language* esaten dio honi: «give relevance to a minor language by self-translating into that language»; bestetik, *to decentralize a language* litzateke «diminish the self-importance of two equally dominant languages by self-translating one into the other» (Dagnino 2017). Garatzen ari den taxonomia izanik, ezin sakondu dezakegu motibazioetan. Nolanahi den, esanen nuke ez bata ez bestea ez dela euskara tarteko duen autoitzulpenean gertatzen.

Hizkuntza pareaz ari garelarik, komeni da zehaztapena egitea. Kasurako, Grutmanek (2005: 29) honela dio: «[pour] pouvoir être dit bilingue, l'écrivain doit posséder non pas deux langues mais deux langues d'écriture, qu'il s'est choisies (ou que les circonstances lui ont imposées)». Definizio horren arabera, beraz, euskaraz edo erdaraz soilik idazten duen autoreak ez da idazle elebiduna izanen, linguistikoki elebiduna izanik ere. Dasilvak (2011) bestelako bereizketa bat egiten du, autorearen izaera elebidun edo migratzaileari lotuta; horrela, Espainiako estatuan bere obrak itzultzen dituen idazle periferikoa elebiduna dela dio, baina ez exofonoa, hots, bere ama-hizkuntza bitartekari sortzaile modura erabiltzeari utzi eta beste hizkuntza bat hartzen duen idazlea, migratzaileak izan daitezkeenez. Gauza bera esan dezakegu euskaratik frantsesera autoitzultzen duten autoreez.

Sistema literarioari loturik dauden arrazoiak ere aipatzen ditu Lopez Gasenik (2005) haur eta gazte literaturaren autoitzulpenaz mintzo denean:

Esanak esan, autoitzulpenaren ekintza ulertzen laguntzen duten beste arrazoi batzuk ere ezin dira bazter utzi. Lehenengo eta behin, arrazoi ekonomikoak direla medio oso zaila da egilea ez den beste itzultzaile bat inplikatzeko argitaratzaile zurririk ez duen itzulpen lan batean. Bigarren arrazoi bat tekniko da: tradizio falta dela eta, euskararako ditugun itzultzaile on ugariekin kontrastean, alderantzizko itzultzaile literario (on) gutxi daude (gaztelania eta frantsesera; beste erdara batzuetara itzultzeko gai direnak ia hutsaren hurrengo dira). Aipatutako bi arrazoiaren oinarrian alderantzizko itzulpen eta argitalpen politika falta dago, prozedura hori, egile jakin gutxirekin izan ezik, ez dago sistematizaturik. Arestian aipatutako bigarren arrazoiaren ondorioz, bestalde, gaztelaniara edo frantsesera egindako autoitzulpena gainontzeko erdaretako itzulpenetarako testu kanoniko bihurtzen da ia beti, jatorrizkoaren kaltetan (Lopez Gaseni 2005: 47).

Oro har ados egonda ere, bukaerako “jatorrizkoaren kaltetan” hori ez dela beti gertatzen uste dugu; batzuetan, autoitzulpenen bitartez lortu baitute autore batzuen lanek arrakasta sorburu-testuaren kulturean; batzuetan, atzera eragina dago, nolabait. Aproposagoa litzateke, beharbada, “jatorrizkotasunaren kaltetan” esatea, euskarazkoaren existentzia bera itzalean edo ezkutuan geratzen delako.

Beraz, euskarazko lanak itzultzeko eta argitaratzeko beharrezko dirua eta hizkuntza hegemonikora itzultzeko profesional kopuru txikia ere kontuan hartu beharreko eragileak

dira. Autoitzulpenen ekoizpenaren nondik norakoetan ezin bazter utzi merkatuaren legeak, baldintzatzaile garrantzitsu baitira. Izan ere, itzultzaile profesional batek liburu bat itzultzeko ordainsaria eskatuko badu ere, idazleak doan egin dezake, bestelako motibazio batzuek bultzatuta. Harkaitz Canok, esaterako, arrazoi ekonomikoa aipatzen du autoitzulpenari ekiteko arrazoitzat, lan hori egiteko epeekin batera: «neronek itzultzera eraman nauena izan da denbora gutxi zegoela edo dirurik ez zegoela. Horrela hasi nintzen ni itzultzen» (Montorio 2007). Horiez gainera, gaztelaniaz lan egiten duten eragileek gure hizkuntza eta literaturarekiko erakutsi duten interes falta ere aipatzen du Manterolak (2011); izan ere, idazlea bera mugitzen ez bada, nekez etorriko zaio inor erdal eremutik<sup>24</sup> haren obra eskatzera, interes literarioa urria baita oro har euskal produkzioarekiko.

David Ar Rouzek, autoitzultzeko arrazoiak ematerakoan, hizkuntza parearen araberako sailkapena egiten du, eta horregatik aurkeztuko ditugu atal honetan eta ez aurrekoan, arrazoiak askotarikoak izanagatik ere: «Je distinguerai donc ici, d'une part, les motivations des autotraducteurs travaillant entre des langues hypercentrale (anglais) et supercentrales (français, espagnol) ou centrales (comme l'allemand), et, d'autre part, celles des autotraducteurs utilisant une langue périphérique et une langue centrale (hypercentrale, supercentrale)» (Ar Rouz 2015: 107). Horrela, “erdiguneko hizkuntzen” arteko autoitzulpenak egiteko, egileek hiru motibazio nagusi dituztela dio: *défiance* (ez direla fio), *contrôle qualité* (aurrez aipaturiko kontrola) eta *fidélité (supposée)*. Azkenari buruz, ustezkoa da zeren «le travail des autotraducteurs nous montre que la fidélité qu'ils recherchent se mesure surtout à l'idée qu'ils se font de leur propre travail original» (Ar Rouz 2015: 111). Beraz, nolakoa obrari buruzko autorearen ustea, halakoa itzulpena. “Hizkuntza periferiko” eta “erdiguneko hizkuntzen” arteko autoitzulpenak egiteko, berriz, egileek beste arrazoi hauek dituztela uste du Ar Rouzek: *diffusion et statut* (kuantitatiboak nahiz geografikoak), *authenticité* eta *pédagogie*. Azkena izan ezik, badirudi aipatzen dituen arrazoi guztiak autoreari dagozkiola, hizkuntza-parearen araberako bereizketan oinarritzen bada ere. Ikusi dugu, gainera, gurean, hizkuntza periferikotik erdiguneko hizkuntza batera autoitzultzen den testuinguru batean, alegia, Ar Rouzek lehenengo taldeari (erdiguneko hizkuntzen artekoak) egotzitako arrazoiak ere egon badirela. Arrazoiak aurkezten dituen atalean, ordea, ez du aipatzen autoitzulpen literarioan beti egiten dela noranzko berean, periferikotik erdigunekora. Bretoieraren kasua du hizpide, eta ezezagun dugunez, ezin eginen diogu kontra; hala ere, ez genuke eredu hori –bere horretan, behintzat– gurera ekarriko.

Ez da beti zuri ala beltz, ordea; Iban Zalduak bai arrazoi pertsonalak bai sistemari loturikoak aipatzen ditu autoitzulpenera jotzeko oinarrian:

Arrazoi asko daude: alde batetik, gaztelania euskara bezain nirea da, gaztelania nire ama-hizkuntza da. Esperientzia izan dut beste norbaitek egin didanean itzulpena eta sufritu egiten dut ez dudalako bestearen itzulpenean nire ahotsa aurkitzen, zeren gaztelaniaz ere badaukat ahots bat. Ez da mesfidantza, egin dizkidate itzulpen onak (inoiz Angel Errok egin dizkidanak bezalakoak), baina zailagoa egiten zait neure ahots propioa aurkitzea bertan. Eta gero badago alde praktiko bat: batez ere espainiar merkaturako itzultzen duzunean, norberak itzultzea merkeago ateratzen zaio

<sup>24</sup> Kultur testuinguruaren harira (3. atala) ikusiko dugunez, ez da hain erraza erdal eremua eta euskal eremua bereiztea, mugarik ez baita zenbaitetan, literalki teilatu beraren pean ari baitira kasu batzuetan.

argitalexari itzultzaile bat kontratatzea baino. Alde horretatik, batzuetan ordaintzen dizute itzulpena, beste batzuetan, ez; beraz, badu ere alde praktikoa. Baina nik uste dut dela batez ere hizkuntza oso ondo ezagutzen duzulako; orduan, arazo hori ez dut ingelesarekin edo errumanierarekin, kasu horretan fidatu egiten zara eta kito, baina gaztelania nirea da (“Iban Zaldúa idazleari elkarrizketa [bideoa]” 2015).

Beraz, mesfidantza aipatzen badu ere (kausatzat har daitekeela adierazten duena, nolabait), ez du autoitzulpenerako arrazoitzat jotzen, eta hizkuntza-identitatea eta arrazoi praktikoa leudeke bere hautuaren atzean. Azkenik, eta gaur egungo kontua ez bada ere, zentsura aipatu beharko genuke, Espainiako diktadurapeko autoitzulpenen oinarrian horixe baitago. Ez da maiz aipatzen den arrazoia, eta hala ere idazle bati baino gehiagori eraginen zion; jakin badakigu, kasurako, Gabriel Arestik zentsura gainditzeko gaztelaniaratu zituela bere lanak. Horietako gehienak funtzio praktikoarekin baizik ez ziren egiten. Sakon aztertu beharreko garaia da; zalantzarik gabe, autoitzulpen gehiago aurkituko genituzke bilaketa xehe bat eginez gero. Argi dago, bada, egoera sozial eta historikoak baldintzatzen duela autoitzulpena.

Orain arte autoitzultzeko arrazoiez mintzatu bagara ere, badaude jardun hori baztertzeko beste horrenbeste argudio ere, berdin esanguratsuak iruditzen zaizkigunak.

### 2.2.3. Ez autoitzultzeko arrazoiak

Parcerisasek (2002) aipatzen zituen autoitzulpenarekiko lau jarrearen artean, lehena zen bere obra ez itzultzeko hautua egiten zuen idazlearena: «Prefieren no verse enzarzados en la valoración que esta actividad implica, en la necesaria relectura y apreciación crítica del original, y les resulta más satisfactorio dejar su traducción en manos de un buen profesional» (Parcerisas 2002: 13). Izan ere, nekeza<sup>25</sup> gerta daiteke norberaren idazmoldea beste hizkuntza batera eramateko jarduna. Hori da, besteak beste, Anjel Lertxundiren kasua: «Nire bizitza osoa eman baldin badut estilo jakin hori lantzen hizkuntza jakin batean, zertan hasi behar dut neure libururen bat itzultzen, aurrez baldin badakit guztiz neutralizatuta geldituko zaidala nik nahi nukeen estilo hori?» (Egia 1999: 120). Jakina denez, Jorge Gimenez Bech editoreak egin ditu Lertxundiren gaztelaniarako itzulpen ia guztiak; kasu hori semi-autoitzulpenetzat jotzen du Manterolak (2017), kreditu-orrietan itzulpen alografotzat aurkezten diren Lertxundiren gaztelaniazkoak autore-editore kolaborazioan eginak direlakoan.

Unai Elorriagak (2008) euskal idazleengan hiru arrazoi hauek ikusten ditu jatorrizko testura ez bueltatzeko: lehenik, oinarrizko itzulpen-erregelak ez ezagutzean, itzultzaile lanetan aritzeko bere burua gai ez ikustea edo horretarako konfiantza ez izatea. Halako zerbait gertatzen zaio Uxue Alberdiri; besteren testuak euskarara itzuli baditu ere, ez du

<sup>25</sup> Nekeza baino, “mingarria” iruditzen zaio Iban Zalduari itzulpena: «Niretzat nahiko prozesu mingarria izan da kasu batzuetan, nahiz eta onartu behar dudan azken aldia horri ekin diodala ez dudala horren gaizki pasatu, baina historikoki, nik uste, okerren gogoratzen dudan garaia hori da. Niretzako sormen-prozesuaren parte bat da hein batean itzulpena» “Iban Zaldúa idazleari elkarrizketa [bideoa]” 2015). Besteak beste, aspaldiko testu bat «zuk pentsatzen zenuena bezain ona» ez dela ohartzetik etor liteke mina, eta, halakoetan, «zuzentzeko gogoia sartzen zaizu».

bere burua gai ikusten gaztelaniara itzultzeko: «Nirea elebitasun praktikoa da, ez literarioa» (Sariugarte 2012). Elorriagaren (2008) ustez, «[g]aitasun hori eduki arren (...), euskaraz idazten duen idazle gutxik itzultzen ditu bere testuak». Katalogoko datuak aztertzen ditugunean ikusiko dugu kontrakoa gertatzen dela, hots, ugari direla euskaratik beren obra itzultzen duten egileak. Bigarrenik, denbora falta aipatzen du, euskal idazle gehientsuenak ez baitira idaztetik bizi, eta beste ofzioren batekin partekatu beharko lituzkete, beraz, itzulpen orduak. Hirugarrenik, obra berreraiki ez ezik beste obra bat osatuko luketen beldur direlako ez dute jotzen autoitzulpena. Itzulgai duten testua ez bezalako zerbait sortzeko tentazio hori aipatzen du Jon Alonso idazle eta itzultzaileak ere: «Liburua berriz idatziko nuke, eta ez dut nahi, planteamendua ez baita hori. Gaztelaniara itzultzen hasita, berria egin beharko nuke, birsortu egin beharko nuke, bertsio bat edo» (Montorio 2007). Ez du zehazten zein den planteamendua, baina ez da bertsio bat sortzea. Gogoan izan behar dugu Alonso itzultzaile dela ofizioz eta besteren literatura lanak ere itzuli dituela. Bi hizkuntzen egoera ez-parekoari egozten dio Alonsok berridazketarako arrazoia.

Autoitzulpenaren kontrako jarreradun autoreen artean, ezagun da Christopher Whyte-k (2000) idatzitako “Against Self-Translation” testua. Bere kasuan autoitzulpena ez zela aukera bat izan dio, inposizio bat baizik. Autoitzulpena jardun inozentea ez dela esateaz batera, hori erbeste edo mendekotasun handiko egoeratan gertatzen dela dio, non «hizkuntza batek beste baten lekua hartzeko asmoa» baitu. Eskoziaren egoeraz ari da autorea, eskoziar gaelikotik ingeleserako autoitzulpenaz, hain zuzen. Jardunak hizkuntza eta literatura hegemonikoarekiko morrontza sortzen duela salatzen du, batez ere edizio elebidunetan, gaelikoz argitaratzeko ingelesaren beharra dagoela baitirudi;<sup>26</sup> gainera, esplizitu jarri ezean, ezin da jakin zein hizkuntzatan idatzi duen autoreak lehenik. Lehen testuari sinesgarritasuna kentzen diola salatu du: «The practice of self-translation undermines the credibility of the original writing process» (Whyte 2000: 183). Horregatik guztiatik utzi zion Whytek bere lanak itzultzeari eta edizio elebidunetan argitaratzeari. Gentesek (2013) dio idazle elebidun batzuek zailtasunak dituztela literatura hizkuntza hautatzerakoan, bat hautatzean besteari traizio egiten diotelakoan, eta horregatik jotzen dutela batzuek autoitzulpena, modu ona izan daitekeelakoan traizioa saihestu eta autorearen idazketa elebiduna adierazteko, edizio elebidunen bidez maiz; gainera, hizkuntza gutxitu baten jabe diren idazleen kasuan, ikusezintasuna saihesteko modua ere izan daitezke edizio elebidunak. Alta, edizio elebidunak xehekiago aztertzerakoan, Gentesek (2013: 277) honela ondorioztatzen du: «[p]ublishing self-translations as bilingual editions does not, per se, render the translation process visible, as there is often no indication in the peritext that a translation has occurred». Beraz, ez da aski bi hizkuntzak egotearekin hizkuntza gutxituko testua eta testu hegemonikoa pareko maila batean egon daitezen.

Hortaz, ez autoitzultzeko arrazoietakoa batek hizkuntzen arteko harremanekin zerikusia du, egoera asimetrikoarekin, alegia. 2.3 atalean ikusiko dugunez, autoitzulpena gertatzen deneko hizkuntzen arteko harremanak baldintzatuko du autoitzulpenaren, eta, ondorioz, lehen testuaren prestigioa eta harrera. Ildo beretik, eta sorburu-testuaren ikusezintasuna kezka, Parcerisasek (2009) dio kasu batzuetan (auto)itzulpena mehatxu handia izan

<sup>26</sup> Gure katalogoa ikusita, orobat esan dezakegu Ipar Euskal Herrian gertatzen denari buruz, non euskarazko argitalpenak frantsesezkoa lagun izateko joera egonkortzen ari dela baitirudi.

daitekeela horren ahultasun muturrekoa bere osotasunean errespetatu ezean biziraun ezin duen hizkuntzarentzat. Halakoetan, hizkuntzen artean asimetria handia dagoenetan, itzulpenaren zero maila<sup>27</sup> hizkuntza babesteko saiakera izan daitekeela dio, alegia, leialtasun linguistiko modu bat. Bestela esanda, « [s]i quelqu'un veut nous lire, semblent-ils [hizkuntza gutxietan idazten duten eta autoitzulpena baztertu duten idazle elebidunak] nous dire, ce n'est pas nous qui allons traduire nos œuvres ; c'est le lecteur qui devra se traduire lui-même à notre culture, à notre champ littéraire » (Parcerisas 2009: 121). Nolabait, Joxe Azurmendiren jarrera ildo berekoa da, ez hizkuntza babestu nahi batetik, baina bai euskal mundua indartzeko nahitik. Azurmendi ez dago itzulpen ororen kontra, eta hala ere honela dio filosofoak Lorea Agirrek egindako elkarrizketa batean:

Une honetan ezinbestekoa da euskaldunok geurea eta geurea bakarrik izango den mundu espiritual bat sortzea: geure kontuekin, geure mitoekin, geure pentsamenduaren azterketarekin, filosofiako geure mitoekin... Geure eta geurea eskusiboa den barne mundu bat sortu. Nik uste dut oso inportantea dela. Eta hori ez diogu inori ematen. Ez ezkutatu nahi dugulako, baizik eta hori sendo barruan eduki arte ez dugulako geure burua osatuta izango. Barrutik puskatuta gaudenok, hori eduki behar dugu. Eta hori eginda daukagunean, erabakiko da zer itzuli eta zer ez (Agirre 2014).

Beraz, Azurmendik bere lan osoak itzultzeko (bai berak bai beste itzultzailearen batek egindakoa) aukera baztertzan du euskaldunok ez dugulako oraindik “geurea” den mundu sendo eta oso bat. Frantsesezko eta gaztelaniatzko munduekin nahasten da geurea, eta ez, preseski, parekidetasunean. Horrela, «euskaraz egiten dugun dena erdaraz ere jartzen badugu, euskararen beharrik ez du edukiko inoiz bilbotarrak» (Agirre 2014). Filosofoak ez dio kontra egiten pasarte edo artikuluren bat beste hizkuntza batera itzultzeari; berak ere badu liburu bat gaztelaniara itzulia (*Los españoles y los euskaldunes*, itz. Edorta Agirre), eta saio laburren bat alemanez eta ingelesez. Gainontzean, euskarazko hartzaileari eskaini dizkio kaleraturiko ehundik gora lan. Bere hitzen behin-behineko itxitasun hermetiko hori ulertzeko, kontuan hartu behar da nazio eraikuntza kulturari eta hizkuntzari loturik ulertzen duela Azurmendik, ez bestela; beraz, ez erdaratzeko erabakia bide horretan koka dezakegu.

Erreparoa sortzen dio Joseba Sarrionandiari gaztelaniarako (auto)itzulpenak, euskaratik beste hizkuntzetara itzultzea beharrezkoa dela ikusten badu ere:

(...)itzulpen gehienak espainolera egiten dira, eta ez dakit ez ote dugun morrontza bat hor Espainiarekiko, ez egiten diren itzulpenengatik, baina bai baldintza orokorrenengatik. [...]. Euskarazko kalitateko literatura guztia espainierara berehala itzultzen bada, azken urteotan egiten ari den bezala, euskal idazleak bitartekaritzat espainiera hartzen badu beti, euskal literatura espainolaren apendizetza izateko tendentzia indartuko dugula iruditzen zait, eta orduan ez dakit berez euskarazkoa den biblioteka horniduratarako edo zertarako geratuko den (Sarrionandia 2002: 333).

Arrisku bat ikusten du, beraz, Sarrionandiak sistematikoki gaztelaniara itzultze horretan. Hizkuntzen arteko harreman asimetrikoarekin lotu dezakegu idazlearen erreparoa,

<sup>27</sup> Itzulpenaren zero maila ez itzultzea litzateke.

euskarazko produkzioa morrontza egoera sakonagoan gera daitekeelako etengabe gaztelaniaratu gero.

Ikusi dugu, beraz, idazleak bere lana itzultzeko arrazoiak eta ez itzultzeko arrazoiak askotarikoak direla, baita beste literatura batzuetako autoitzultzaileek esandakoaren antzekoak ere; batzuk norberarengan izanen dute oinarri, eta beste batzuk, berriz, kanpo-faktoreek edo egoerak (hizkuntzen erabilera asimetrikoa, esaterako) baldintzatuko dituzte. Nolanahi den, eta Lopez Gasenik (2005) esandakoaren ildotik, autoitzulpenerako bultzatzaile nagusia kanpo-faktore bat edo batzuk izanagatik ere, egileak harturiko erabakia da azkenean autoitzulpena; horrela, egoera berberean dauden bi euskal idazlek hautu ezberdina egin dezakete, hots, batak autoitzulpena joko du eta besteak ez; halaber, idazle batek autoitzulpenari heltzen ahal dio eta gero bide hori baztertu, edo alderantziz. Autoitzulpena ez baita hautu betiereko eta aldaezina.

### 2.3. JARDUNAREN HARRERA ETA EMAITZAREN AURKEZPENA

Asko eztabaidatu izan da autoitzulitako testuak duen izaeraz eta izan beharko lukeen izendapenaz. Izan ere, eta bereziki mendekotasun handiko literatura sistema batean ari garenean, hizkuntza hegemonikora egindako autoitzulpenak jatorrizkotzat har ditzake xede-sistemak, eta beste hizkuntza baterako itzulpen alografoa egitean, autoitzulpena eta ez hizkuntza gutxituko testua har lezake itzultzaileak kanonikotzat eta, ondorioz, itzulgaitzat. Horrek guztiak zerikusia du lehen testuaren eta autoitzulpenaren prestigioarekin, itzulpena aurkezteko moduarekin eta sistemen arteko botere-harremanekin, atal honetan ikusiko dugunez.

2.1 atalean esan bezala, autoitzulpenaren ezaugarri funtsezko bat da horretan parte hartzen duten bi hizkuntzen, dialektoen edo aldaeren arteko harreman soziala; horregatik, ez da gauza bera adibidez frantsesaren eta gaztelaniaren arteko autoitzulpena edo euskaratik bi horietako hizkuntza hegemoniko batera egindakoa. Dasilvak (2009: 146) dioenez, Espainiako estatuaren erdiguneak ez du begi onez ikusten gaztelaniaz idatzitako testuak hizkuntza periferikoetara itzultzea, salbu eta, beharbada, haur eta gazte literatura, prestigioari dagokionez bazterreko generoa baita oraindik ere (Zubillaga 2013: 37; Sanz 2015: 253). Bestalde, bistan da Estatuak endozentrismoarako joera bizia duela, hizkuntza periferikoetan sorturiko testuak gaztelaniara itzultzeaz gainera, autoitzulpenen bidez jatorrizkotzat aurkeztea nahi izaten baitu, idazlea elebiduna den heinean eta ustez gaztelaniazko literatura sistemaren parte ere badelako. Frantziako estatuari dagokionez, esanen genuke lehenengoa betetzen bada ere, bigarrena, hots, endozentrismoaren ondorio diren supra-autoitzulpenak ez direla eskatzen, eta hizkuntza eta literatura periferikoekiko indiferentzia handiagoa dela.

Kontrako bi jarrera horien aurrean, Dasilvak (2009) bi mehatxu ikusten ditu autoitzulpen jardunean: lehenik, gaztelaniara autoitzulitako literatura periferikoetako obrak beretzat hartzeko joera du literatura espainolak, eta horrek bide ematen du idazle askoren identitate linguistikoa deuseztatzeko. Asimilazio kulturalaren arriskua handitu egiten da hizkuntza hegemonikoan dagoen bertsoia autoitzulpen bat dela (kontzienteki edo

inkontzienteki) ezkututzen denean (Castro 2011). Bereganatze nahi horren adibide bat ikus dezakegu Uxue Alberdiren *Aulki jokoa* eleberriaren gaztelaniaratze prozesua dela eta. Alfaguara argitaletxeak interesa azaldu zuen obra argitaratzeko, eta Miren Agur Meabek egin zuen itzulpena, nahiz eta azkenean Alberdianian kaleratu. Honela kontatzen du Alberdik elkarrizketa batean:

Alfaguarakoen jarrerak badauka mamia, izan ere, lehendabizi ontzat eman zuten itzulpena baina ondoren zenbait irakurleri pasa zieten eta haien ustez eleberria fragmentatuegia zen eta egun molde horretako literatura ez omen dago modan. Galdetu zidaten ea ez nituen pasarte batzuk luzatuko eta gehiago garatuko. Ezezkoa eman nien, noski, eleberria jada amaitutako zerbait zelako, jada jatorrizko hizkuntza batean argitaraturiko obra, nolabait esateko, haientzat artean enbrioia izan arren niretzat haur bat zena. Garbi ikusi nuen gainera jarrera hori agertu zutela euskarak bizi duen bazterketa egoeragatik, estatus faltagatik. Ziur naiz ez zirela horrelakorik esaten atrebitu ere egingo, adibidez, ingelesez idazten duen norbaiti (Sariugarte 2012).

Arestian aipatu ditugun gakoetako anitz biltzen ditu Alberdik: batetik, argitaletxe espainolak autoreari itzulpenean parte hartzeko eskatu zion. Hipotesi modura esanen genuke, autoreak esku-hartzea onartu izan balu, kolaborazioan egindako (auto)itzulpen modura aurkeztuko zutela obra, kasurik onenean. Bestetik, Alfaguarak autoreari eskatu zion obra molda zezan, xede-sistemarengana hurbil zedin, moda kontuak tarteko. Azkenean, etxeko argitaletxe batean kaleratu zen *El juego de las sillas*, eta Miren Agur Meabek sinatzen du itzulpena.

Dasilvak (2009) identifikaturiko bigarren mehatxuaren arabera, obra horiek beste hizkuntza batera itzultzean, gaztelaniazko bertsioa aurkezten da zubi-hizkuntzat, eta horrek hirugarren hizkuntza horretako hartzaileei pentsarazten die jatorrian gaztelaniaz dagoela idatzia liburua. Ondorioz, literatura sistema periferiko bateko lanak hizkuntza hegemonikora autoitzultzeak obra horretako jabetze eta asimilazio kulturalari loturiko arriskuak dakartza, ez soilik sistema menderatzailean (Casanova 2002), baita gerora beste hizkuntzetara egiten diren itzulpenetan ere, autoitzulitako testutik egiten baitira.<sup>28</sup> Hau da, gaztelania har daiteke jatorrizkotzat, jarrera neokolonial bat hartuz (Spivak 1993); horren bidez, obraren identitate kulturala guztiz neutralizatzen da, edo itzultzaileak hizkuntza minorizatua zertan ikasi ez duela ematen da aditzera, hizkuntza gutxietsiz. Gayatri Chakravorty Spivakek (1993) itzulpenak kolonizazio-prozesuan izan duen eragina salatzen du “The Politics of Translation” artikuluan, eta agerian jartzen du nola lagundu duen itzulpenak herri kolonizatuen irudi ideologikoki manipulatu eraikitzen. Euskaraz sorturiko testu bat gaztelaniazkotzat aurkeztea eta, ondorioz, halakotzat hartzea jarrera neokoloniala izatea litzateke, sorburuko hori isilarazi eta ezkutatu bailezake.

Bigarren mehatxu horren adibide bat ematen du Ur Apalategik:

<sup>28</sup> Kasurako, Manterolak (2012: 182) azaltzen duenez, Atxagaren *Zeru horiek* liburuaren kasuan, gaztelaniazko edizio ia guztietan ez da euskarazkoaren berri ematen. Ondorioz, gaztelania oinarri hartu duten itzulpenetan, gaztelaniazkoaren datuak ageri dira soilik; Katalanezkoan eta finlandierazkoan baino ez da ageri euskarazkoaren izenburua.

Neronek aurten bizitako gertaera bat datorkit burura, txit esanguratsua. Lapurdin, Euskal Herrian beraz, Angeluko liburutegi munizipalean nengoela bertako langile batekin hizketan hasi eta Atxagaren zenbait obra irakurriak dituela aitortzen dit (frantsesez, noski). Exegeta atxagarra naizen aldetik haren iritzia interesatzen zait eta galdera batzuk egiten dizkiot bere ‘rezeptzioaren’ nondik norakoak ezagutzeko asmotan. Orduan ohartzen naiz (zer harridura eta atsekabea nireak!) ez dakiela Atxagak euskaraz idazten dituela bere obrak... Atxaga ‘basque-espagnol’ zela jakinaren gainean, eta liburuan bertan ezerk ez baitzion adierazi obra jatorriz euskarazkoa zela, langile hark uste izan zuen Atxaga soilik espainolez idazten zuen idazlea zela (Apalategi 1998: 71-72).

Karlos Cid Abasolok (2015) nabarmentzen du gaur egun badirela euskaratik zuzenean gaztelania/frantsesa ez den beste hizkuntza batera itzuli dezaketen itzultzaileak. Iraganean gaztelania zubi-hizkuntzat hartzea logikoa ere bazela dio, hizkuntzaren ezagutza ezagatik, nahiz eta «había alguna que otra excepción» (Cid Abasolo 2015: 186); izan ere, kontatzen du Arantxa Urretabizkaiari *Zergatik Panpox?* (1979) liburua katalanez argitaratzea proposatu ziotela, eta editoreak izan bazuen arren euskaratik zuzenean itzuliko zuen itzultzaile bat, autoreari eskatu ziola liburua gaztelaniara autoitzultzeko, «para facilitar la labor del traductor» (Cid Abasolo 2015: 187). Katalanezkoa atera zen lehenik (1982), eta lau urte geroago atera zen gaztelaniazkoa. Kasu horretan, bada, ez zen izan autorearen erabakiz egindako autoitzulpena, edo, behintzat, kanpo-faktoreek (editorearen eskaerak, zehazki) argiki eragindakoa. Cid Abasolok, oraindik orain, gaztelania zubi-hizkuntzat erabil dadin nahiago duten autoreak badirela aipatzen du, eta Bernardo Atxaga jartzen du adibidetzat. Zenbait arrazoi ematen ditu Cid Abasolok (2015: 188) preferentzia horretarako:

- hay más traductores desde el español que desde el vasco a cualquier lengua. Hay, por tanto, más donde elegir;
- hay traductores a más lenguas desde el español que desde el vasco;
- existe la opinión de que resulta más fácil traducir a una lengua indoeuropea desde otra lengua indoeuropea que desde una lengua no indoeuropea (por ejemplo, el vasco).
- por lo general, los textos literarios en español presentan una mayor complejidad sintáctica que en vascuence, y por ello, una traducción literal de este a aquel podría tener una recepción poco favorable. Para evitar que eso también ocurra en la traducción a otros idiomas, una solución puede ser recurrir como texto de partida a la traducción al español.

Lehen hiru puntuekin ados egon bagaitezke ere, laugarrenak dakartzan auresuposizioekin ez gatoz bat. Izan ere, balirudike itzultzaile alografoak ez dakiela hizkuntza bakoitzaren berezitasunak zeintzuk diren, eta hitzez hitz itzuliko lukeela. Cid Abasolok (2015: 188) orobat aipatzen ditu arrazoitzat lexikoa eta sintaxia, Bernardo Atxagaren aipu bati erreferentzia eginez. Hain zuzen, esan bezala, Atxaga jartzen du gaztelaniazkoa sorburu-testutzat erabil dadin nahi duten egileen adibidetzat.

Beraz, gaztelaniazko literatura sistemak hizkuntza periferikoetan sorturiko obrak bereganatu nahi izateaz gainera, autoitzulpenaren bidez jatorrizkotzat aurkeztu nahi ditu, identitate linguistiko eta literarioa ezabatuz eta xede-irakurleari irudi okerra emanaz. Dasilva (2009: 147) harago doa: «un escritor periférico del Estado español para llegar hoy en día



más allá no solo debe ser traducido, sino que suele tener que pagar el tributo de la autotraducción, asumiendo de alguna manera la condición subalterna de su lengua original». Ondorioz, horren arabera, idazle batek bere burua itzuliko ez duela esaten badu, bere identitate kulturalaren aldarrikapentzat har daiteke. Hitz hauekin azaltzen du Iban Zalduak (2012: 106-107):

Pese a que la situación oficial del vascuence sea algo mejor por estos lares, a la hora de ser traducido la opción de «puentear» al español sigue siendo, seguramente, la más celebrada por parte de los vasquistas de pro, sobre todo por aquellos que profesan un nacionalismo más o menos acentuado. A fin de cuentas, no pasar por el castellano es una manera de desligarse del vínculo «colonial», una expresión de autonomía cultural y política.

Nolanahi den, orobat har daiteke aldarrikapentzat kontrakoa, hots, autoitzulpen lana halakotzat aurkezteko baldintza jartzen duen idazlearen kasua, demagun azalean bertan argi utziz lehenik euskaraz idatzitako obra dela. Horren harira, autoitzulpena ezkututzen edo, Dasilvaren (2011) izendapenean, modu opakuan autoitzultzen duen idazleak ez du nahi xede-kulturan bere testuak itzulpen *huts* modura funtzionatzerik, baizik eta “benetako” jatorrizko baten modura. Beraz, xede-sistema horren parte izan nahi du, baina sortzaile modura, ez bigarren mailan geratu ohi diren itzulpenen artean. Kontrara, modu gardenean autoitzultzen duen autoreak xede-kulturan obra itzulpentzat har dadin nahi du (Dasilva 2011). Ez dugu uste beti hala gertatzen denik; jasotako adierazpenetan eta beste azterlan batzuetan antzeman dugunez, zenbait idazlek beren autoitzulpenak xede-kulturan bide autonomoa izan dezan eta beste “jatorrizkotzat” har dadin nahi dute, kreditu-orrian euskarazko lan baten lekukotza ematen denean ere.

Hain zuzen, autoitzulpena zer modutan aurkezten den itzulpenaren motibazioa adieraz dezake. Olga Castrok dioenez, esportazioek, eta horien barruan autoitzulpenek literatura sistema periferikoa (galegoa, kasu honetan) indartzeko funtzioa lukete; haren hitzetan, «exportamos para dármonos a coñocer e reconecer no mundo, pero tamén para reconecernos a nós mesmos/as» (Castro 2011: 28-29). Beraz, autoestimuari loturiko arrazioa legoke esportatzean, irakurle galegoek beren lanak beste hizkuntzetara itzultzen direla ikustean sentitzen duten aitopenari loturikoa. Horrek iradoki lezake etxeko literaturari balioa emateko beharrezkoa dela esportazioa, hots, kanpo eragile baten oniritzia. Horrela, bada, autoestimua zalantzazko horrek sistema periferikoa indartu baino, izaera periferikoa berresten eta bazterrekotasun hori indartzen duela dirudi. Euskal literaturaren kanon eta kontrakanonei buruzko azterketa batean, Iratxe Retolazak itzulpen politikari buruz esandakoak ekar ditzakegu hona:

[Mari Jose]Olaziregi aboga por esta difusión internacional y por la búsqueda de legitimación externa: “Autonomización que pasa por las traducciones a otras lenguas más centrales pues son, precisamente, estas traducciones las que permiten obtener el certificado literario para una literatura minoritaria”.

Por lo tanto, Olaziregi considera que la única legitimación literaria posible es la externa, la generada por los procesos de canonización de “otras lenguas más centrales”. Desde esta perspectiva, toda literatura vasca debería de ser escrita para ser traducida (Retolaza 2011: 230).

Argi dago itzulpenak sorburu-sisteman legitimazioa dakarrela, eta horretara bideratuta daude politika ugari. Hori nola egiten den, hori izan daiteke eztabaidagai. Kultur testuinguruaren atalean izanen dugu itzulpenak euskal literatura sisteman duen tokiaz eta kanpo-legitimazioaz sakonkiago mintzatzeko aukera; nolana ere, gurean ere kanpo-legitimazio nahi horrek ekar lezake (auto)itzulpena, beste hizkuntzetara zabaltzeko eta profesionalizaziorako zubi baita; hala ere, horrek ez du beti bermatzen euskal literaturaren ikusgarritasuna, itzulpen opakuen kasuan ikusi dugunez.

Egoera diglosikoaren sintomak xehe-xehe azaltzen ditu Dasilvak (2009) testuinguru galegoan oinarrituta. Lehenengoa, autoitzulpenaren kredituetan ezkutatzea irakurleak esku artean duena beste hizkuntza betetik egindako bertsio bat dela. Ondorioz, idazlearen nazionalitate literarioa zuzenean lausotzen da, eta orobat gertatzen da identitate linguistikoarekin. Bigarren sintoma jatorrizkoa eta autoitzulpena ia aldi berean merkaturatzean datza. Grutmanek (1998) bereizketa garbia egin zuen “aldibereko itzulpenak” eta “osteko autoitzulpenak” direlakoan artean, itzulpena lehen testuaren idazketa prozesua bitartean egiten den edo behin lehen testua bukatuta dagoenean egiten den. Galegotik egindako asko lehenengoan multzoan daude, eta hori arriskutsua da jatorrizko edizioetarako, lehia sortzen delako (Miranda 2007). Horren harira, Parcerisasek (2009) dio jatorrizko gutxitua eta hizkuntza nagusiko autoitzulpena aldi berean argitaratzeko merkatuaren nahia ohiko jardun bihurtu dela, eta ordena kronologikoa lausotu egiten duela horrek, “itzulpena” eta “jatorrizkoa” etiketak ere lausotuz. Orobat dio autoitzulpena hor ere ez dela inozentea, eta bigarren “jatorrizko” bati nagusitasuna eman nahian ezkutatzen dela jatorrizko kronologikoa.

Gurean ere badago horretarako joera. Prentsa artikulua batean, joera horri buruz mintzo da Felix Ibargutxi (2011) kazetaria, eta Bernardo Atxaga, Mariasun Landa, Jon Arretxe eta Anjel Lertxundi aipatzen ditu sorburu-testua eta (auto)itzulpena aldi berean kaleratzeko hautuaren adibidetzat. Jorge Gimenez editore eta Lertxundiren itzultzailearen hitzak biltzen ditu: «Uste dut normaltasunaren seinale dela». Gimenezek dioenez, lehen uste zen, biak aldi berean ateratzekotan, euskaraz dakiten irakurle askok erdal bertsioaren aukera egingen zutela, baina Gimenez ez dator bat horrekin (ibid). Nolanahi den, ustezko jatorrizkotasuna lausotu egiten dela ezin ukatu, kronologian alde nabarmenik ez dagoenez. *Zazpi etxe Frantzian* (2009) liburuarekin, Atxagak ez zuen soilik gaztelaniazkoa aldi berean atera, baizik eta baita itzulpen katalana eta galegoa ere, gaztelaniaren eskutik. Horrela, hizkuntza gutxituetako irakurleek aukera izanen dute beren hizkuntzan ere irakurtzeko, gaztelaniazkoa jo beharrik gabe. Nolanahi ere, Atxagak ez du oroitzapen atseginiak hautu hari buruz:

'Zazpi etxe Frantzian' atera nuenean, ia-ia batera joan ziren euskal bertsioa eta gaztelaniazkoa. Astebete lehenago publikatu nuen euskarazkoa, halako lehenetsun sinboliko bat eman nahi niolako euskarari. Handik zortzi egunera gaztelaniazkoa eta katalanezkoa atera ziren, eta handik hamabost bat egunera ingelesezkoa. Berealdiko ahalegina izan zen, sekulako lana, itzulpen denak koordinatzea. Ez dut horrelako lanik atzera inoiz hartuko. Lehengora itzuliko naiz: aurrena, euskal bertsioa; eta handik hilabete batzuetara, lasai, beste bertsioak plazaratuko ditut (Ibargutxi 2011).

Antzeko zerbait egin zuten Hedoi Etxartek eta Alain Urrutiak *Ihes ederra* (Alberdania, 2009) komikiarekin: autoreek hala eskatuta, gaztelaniazko autoitzulpena eta katalanezko itzulpena aldi berean argitaratu zituzten, euskarazkoa baino urtebete geroago, guztiak Alberdania etxean. Kirmen Uriberen *Mussche* (Susa) 2012ko azaroan kaleratu zen euskaraz, eta 2013ko martxoan, berriz, katalan, galego eta gaztelaniazko itzulpenak argitaratu zituzten. Hala, azken bi kasu horietan, hilabete batzuetako tartea dago euskarazkoaren eta erdarazkoen artean. Uriberen azken eleberria, ordea, *Elkarrekin esnatzeko ordua* (Susa, 2016), euskaraz, gaztelaniaz, katalanez eta galegoz aldi berean kaleratzekoa bazen ere, azkenean gaztelaniazko itzulpena egun batzuk aurreratu zitzaion euskarazkoari, eta beste bi hizkuntzetakoak beranduago iritsi ziren. Gainera, gaztelaniazko itzulpena, Seix Barral etxean argitaratua, Madrilen aurkeztu zen euskarazkoa baino lehen; idazketa prozesuaren kronologiak ez du bat egiten, beraz, argitalpen kronologiarekin. Aurkezpen espazioa ere aipagarria da; Alberto Barandiaranen (2016: 72) hitzetan, «Gure esparruaren ukazioa iruditu zait. Espazio txikia, txikiegia agian, ados. Baina espazio bat, hain zuzen ere liburu hori eta beste asko posible egin duen espazio bat, jende bat, ahalegin bat, ukatu edo zalantzan jarri duena». *Berriako* kazetariak horri buruz galdetuta (Astiz 2017), Uribek esan zuen «asko sufritu» zuela gaztelaniazkoaren lehentasun horregatik; arriskuaz jabetuta ere, bere kasuan ez dela mendekotasun harremanik sortu dio, eta «datuetara joan» behar dela, kasuak banan-banan aztertu. Izan ere, Ramon Saizarbitoriaren hitzak dakartza elkarrizketatzaileak, Saizarbitoriak behin baino gehiagotan kezka azaldu izan baitu euskal autoreen lanak euskaraz eta gaztelaniaz ia aldi berean ateratzen direlako (ibid.). Uriberen esanetara itzulita, aipagarria da liburuari Alex Gurrutxagak egindako prentsako iruzkinean dioena: «harrigarria da ohar batzuen maila xumea —eta nahiko akritikoa—, iduri bailuke idazleak buruan daukan irakurleak ez dakiela deus ere, adibidez, Ez dok Amairuri edo Burgosko prozesuari buruz» (Gurrutxaga 2017). Ondorioz, galde dezakegu zer irakurle daukan idazleak buruan; pentsa daiteke, azken batean, itzulpen aldiberekoak (edo horren ideiak) idazketa prozesua baldintzatu duela, Euskal Herriko historia hurbilaren gertakari soziopolitikoei buruzko gain-azalpenik balego.

Beste kasu batzuetan, autoreak itzultzaile rol esplizitua hartzen du, eta horrek gaztelaniazko lan autoitzuliari balio erantsi bat ematen dio Parcerisasen (2009) ustez; Bernardo Atxaga bera jartzen du horren adibidetzat. Nolanahi ere, onartzen du hizkuntza nagusira autoitzultzeak, horren merkatu menderatzailearekin, lehen bertsioaren existentzia ezkututzen eta ezabatzen duela: «l'invisibilité de l'autotraduction dans des champs littéraires asymétriques peut servir à cacher non seulement l'ordre prioritaire de l'original mais aussi l'asymétrie des champs» (Parcerisas 2009: 120-121). Autoitzulpenaren ikusezintasunak ordezkapen linguistiko erabatekoa ere ekar lezakeela ohartarazten du.

Dasilyak azaltzen duen hirugarren sintoma noranzkotasuna da, hizkuntza gutxitu batetik hizkuntza normalizatu baterako autoitzulpenaren beste ezaugarri bat baita hori; izan ere, nekez autoitzultzen dira idazle galegoen gaztelaniazko obrak galegora; gauza bera esan dezakegu euskararekin. Laugarrenik, Dasilyak dio beren obrak itzultzen dituzten autoreek oso gutxitan izan dutela beste idazleak itzultzeko esperientziarik. Hori ez da euskararen kasuan gertatzen, asko baitira beraiena ez ezik beste idazleen testuak itzuli dituzten idazleak, izan obra askorekin izan bakar batekin; lehen multzoan leudeke, besteak beste, Itxaro

Borda eta Harkaitz Cano, eta itzultako obra bakarrarekin, berriz, Eider Rodriguez. Hala ere, kontrako noranzkoan aritzen dira horiek besteren obrak itzultzen; hots, euskaratik erdarara aritzen diren autoitzultzaileek erdaratik euskarara itzuli (ohi) dute. Miren Agur Meabe izanen da euskaratik erdarara autoitzuli eta noranzko berean itzultzen duen idazle-itzultzaile bakarrenetakoa.

Sintomen zerrendan bosgarren da gaztelaniarako autoitzulpenaren irakurketa maiz obra baten kalitatea erakutsiko duen froga izatea; alegia, hizkuntza hegemonikoan arrakasta edo onespena lortzeak emanen dio obra bati kalitatearen zigilua, ez lehen testuaren hartzaileek, baizik eta itzulpenarenak. Horixe bera litzateke Olga Castrok aipatzen zuen “autoestimua” eta Iratxe Retolazak azaldutako kanpo-legitimazioaren bilaketa. Profesionaltasunarekin ere lotu genezake, zeren sistemaren erdigunerantz egiteko bide emankor bat izan baitaiteke autoitzulpenarena. Azkenik, Dasilvak dio testuinguru diglosikoetan ohikoa dela autoitzultzailearen bi aurpegien arteko aldea autore eta itzultzaile bikotean, lehenengoaren aldekoa izaten baita gehienetan. Laugarren sintoma kenduta, Dasilvak (2009) azaldutako gainerako sintomak Euskal Herriko testuinguruan ere gertatzen direla esan dezakegu.

### 2.3.1. Prestigio kontuak eta jatorrizkotasuna

Lehenago ere esan dugu autoitzulpenak idazlearen nazionalitate literarioa eta identitate linguistikoa lausotzen dituela. Idazle batek egindako itzulpenean batzuetan ez da agertzen lehen testuaren inolako erreferentziarik, eta horrek pentsarazi dezake idazleak hizkuntza horretan idatzi duela testua, aurretik beste hizkuntza batean bazegoenik pentsatu gabe. Beraz, jatorrizkotasunaren ideia ere lausotu egiten dela esan dezakegu. Honela dio Anthony Cordingleyk (2013: 2): «self-translation typically produces another 'version' or a new 'original' of a text. What is being negotiated is therefore not only an 'original' text, and perhaps the self which wrote it, but the vexatious notion of 'originality' itself». Horrekin batera, kronologikoki lehen testua den horren estatusaren edo prestigioaren galera dator; autoitzulpenak besteren batek egindako itzulpenak baino gehiago ahultzen du jatorrizkoaren estatusa (Krause 2005).

Honela azaltzen du Fitchek (1985: 112):

[T]he writer-translator is felt to have been in a better position to recapture the intentions of the author of the original than any other ordinary translator for the very good reason that those intentions were, in fact, his [sic] own. If no distinction is made between the two versions of a given work, it is because they appear to share a common *authorial intentionality*.

Horregatik dio Fitchek (1985) zalantzak argitzeko bada ere xede- eta sorburu-testuaren arteko bereizketa egin behar dela. Dasilvak, ordea, hobeki irizten dio “jatorrizko testua” erabili baino “testu lehena” (*texto primigenio*) kontzeptuaz baliatzeari, jatorrizkotasunak izan ditzakeen ñabardura guztiez jakitun.

Nolanahi ere, autoitzulpenen estatusa du hizpide Fitchek berak, eta jatorrizkoaren eta itzulpenaren mugak lausotzen direla dio: «The distinction between original and (self-

)translation therefore collapses, giving place to a more flexible terminology in which both texts are referred to as ‘variants’ or ‘versions’ of equal status» (Fitch 1988: 132-133). Hain zuzen, autoitzulitako obraren estatusa da Irina Mavrodin itzultzailearen ustez autoitzulpena eta itzulpena bereizteko arrazoietakoa bat, eta horretarako, alegia, bi jardunak bereizteko, “simulakro” (*simulacre*) hitza darabil itzulpen alografoaz mintzatzean: «la traduction étant un *simulacre* en rapport avec l’oeuvre originale, à la différence de l’auto-traduction (...), qui a un statut similaire à celui de l’oeuvre originale, s’agissant d’un seul et même auteur» (Cuciuc 2012: 45). Beraz, horren arabera, itzultzailea autorea bera izateak emanen lioke xede-testuari oinarri izandako lehen testu horrek duen estatus bera. Iruditzen zaigu, ordea, ikuspegi hegemonikotik mintzo dela Cuciuc baieztapen horrekin, alegia, hizkuntzen arteko egoera asimetrikoa aintzat hartu ez eta parekotasun egoera ideal (bezain irreal) bat duela oinarrian. Ildo beretik, Manterolaren (2012: 102) hitzetan, bi hizkuntzek parez pareko estatusa badute, autoitzulpenak jatorrizkoaren estatusa izanen du, baina egoera asimetrikoan dauden hizkuntzen artean, demagun hizkuntza gutxitutik hegemonikora egindakoan, lehenengoak estatusa galduko du.

Haur eta gazte literaturaren kasuan, Lopez Gasenik esan du gaztelaniara edo frantsesera egindako autoitzulpena gainerako erdaretako itzulpenetarako testu kanoniko bihurtzen dela ia beti, jatorrizkoaren kaltetan (Lopez Gaseni 2005: 47). Are nabarmenago gertatzen da aldi berean kaleratzen direnean bi testuak. Kanonizatzen dena, beraz, hizkuntza hegemonikoan egiten den itzulpena izaten da, eta testu hori euskal literaturarekin lotzen duena, deus izatekotan, liburuen edukia izaten da (Manterola 2012: 79), eta ez testuaren jatorrizkotasun edo lehentasun kronologikoa. Hain zuzen, autoitzulpenak dikotomiak lausotuko lituzkeenez, itzulpena “jatorrizko” bihurtzen dela iradokitzen dute Hokensonnek eta Munsonek *The Bilingual Text. History and Theory of Literary Self-Translation* liburuan. Horren harira, Dasilvak (2011: 63) galdetzen du testu bat hirugarren hizkuntza batera itzultzerakoan itzultzaile alografoak lehen testua edo autoitzulpena hartu behar duen itzulgai, hots, zein den bietan kanonikoa. Birkreazio maila handia denean autoitzulitako obra batean, obra hori hirugarren hizkuntza batera itzultzerakoan onena, beharbada, itzulpen baldintzatua (*traducción supeditada*) dela dio; alegia, lehen testua nahiz autoitzulia kontuan hartuko duen itzulpena. Hori bai, autoitzulpen opaku bat itzuli nahi denean, nahitaez egingen da zeharkako itzulpen bat, zeren autoitzulitako testua jatorrizko testu bakartzat har baitaiteke (Dasilva 2011: 64).

Kritika genetikoa oinarri teoriko eta metodologikotzat hartuz, Mikel Ayerbek galdera egiten du kanonizatze horri buruz: «idazleak parte hartzen duen berridazketaren azken urratsa bada kanonikoena, autoitzulpenaren kasuan idazleak itzulitako edo gainbegiratutako testua izan beharko litzateke kanonikoena, ezta?» (Ayerbe 2016: 142). Zer pentsatua ematen du galderak, eta esanen genuke ezin zaiola erantzun absolutu bat eman, ez, kasurako, hizkuntza-konbinazioak kontuan hartu gabe. Atxagaren testuen genesisia aztertzean, Ayerbek ondorioztatzen du sorkuntza prozesuaren beste urrats bat bihurtzen dela xede-testua, «autoitzulpengintzaren bidez jatorrizko testutik eratorritako bestelako bertsio bat sortzen denean» (Ayerbe 2016: 223). Kontuan hartuta Atxagak aldibereko itzulpena egiten duela itzultzailearekin kolaborazioan, eta etengabeko joan-etorria dagoela testu batetik bestera, zaila da zehazten zein den sorburu- eta zein xede-testua. Gainera, sorkuntza prozesuaren

parte denik uko egin gabe, zehaztu beharrekoa da Ayerbek aipaturiko “bestelako” hori zer irizpideren arabera neurtzen den. Raymond Federman (1993: 81) ildo beretik mintzo da dioenean autoitzulpena ez dela «an approximation of the original, nor a duplication, nor a substitute, but truly a continuation of the work – of the working of the text». Prozesu baten kate-begi bat dela, alegia. Nolanahi den, hurbilpen horietan ez dira aintzat hartzen hizkuntzaz aldatzea eta horrek berekin dakartzan mugak eta erabaki multzoa. Simona Anselmik (2012: 26) dioenez,

[L]iterary approaches to self-translation, which tend to set self-translation apart from ordinary translation, do not take into sufficient account certain distinctive features that self-translation shares with ordinary translation, namely the fact that it is a mode of writing based on a pre-existing text, which is to be recontextualised for a new receptor-audience speaking a different language.

Era berean, lehenago hartu diren erabakien gainean hautatzen du autoitzultzaileak, itzultzaileak bezala. Aintzat hartu behar da Ayerbek autoitzulpenari ematen dion definizioak<sup>29</sup> (eta, beraz, abiapuntu izan daitekeenak) ez duela gurearekin bat egiten, eta ikuspegi horretatik erator daitekeela geroko arrazoibidea. Nolanahi den, Ayerbek (2016) erakusten du obra baten berrargitalpen modu orotan baliatzen direla autoreak testuari aldaketak egiteko aukeraz, autoitzulpena izanik horietako bat. Ondorioz, inondik ere ez da aski soilik ezaugarri horretan (aldaketak egitea) funtsatzea autoitzulpena eta itzulpenaren arteko bereizketa.<sup>30</sup>

Hiru liburu elebiduni buruzko saiakera batean, Wilson McLeod-ek dio ingelesezko testuak ez direla gaelikotik itzulitakotzat aurkezten, eta itzultzaileak ere ez dela agertzen (Whyte 2002). Beraz, irakurleak ondorioztatzen du autoreak berak bi hizkuntzetan idatzi zituela testuok, eta pentsa dezake garrantzia eta zilegitasun bereko “jatorrizko” beraren bi bertsio direla. Salatzen du, halaber, benetan gertatu dena ez dela interpretazio errealista bat; hau da, jatorrizkoak gaelikoko testu horiek direla ez du inork pentsatuko. Ildo berean mintzo da Tanqueiro, autoitzulpengintzak itzulpena xede-hizkuntzan jatorrizkotzat hartzea ahalbidetzen duela dioenean:

[O]riginal y autotraducción pueden considerarse originales desde el punto de vista de la pragmática de la recepción textual. De ahí que muchos editores aprovechen para omitir el hecho de que se trata de (auto)traducciones, aspecto relacionado con la ideología (del mercado) y la relación entre las lenguas y culturas implicadas (Tanqueiro 2013: 279).

Horrela, ez da harritzekoa autoreek eurek beren bigarren lan hori jatorrizkotzat hartzea, jatorrizko berri bat sortu dutelakoan. Esaterako, honela mintzo da elkarrizketa batean Sébastien Doubinsky, Parisen sortu eta Danimarkan bizi dena (frantsesa eta ingelesa darabiltza bai sorburu- bai xede-hizkuntzat, eta daniera xede-hizkuntzat).

<sup>29</sup> Honela dio: «jatorrizkoaren gainean egiten den berridazketa litzateke autoitzulpengintza ariketa edota idazleak gainbegiratu eta ontzat emandako beste inork eginiko itzulpena» (Ayerbe 2016: 211). Bereziki, eta labur esatearren, idazleak gainbegiratu eta ontzat emandako itzulpen alografoak ez genituzke, *per se*, autoitzulpentzat joko.

<sup>30</sup> Anselmik (2012: 14) beste honela dio: «Self-translations cannot be distinguished from normal translations on the sole assumption that they recreate the original texts, since this is what all translations do».

I have translated myself—and others—many times and know well that perfect translation doesn't exist. It can be seen as a tragedy, a communication failure, but actually I consider this a chance—a chance of freedom, of the irreconcilable space between cultures—and the mutual respect it implies. So if you read closely and compare the two versions of the same novel I've written, I think you might be shocked by the liberties I am taking with the original text! But that is because the second one becomes a new original, if you want, another text altogether (Harding 2015).

Parcerisasek (2011) autoitzultzeko arrazoiaren eta emaitzaren artean lotura egiten du, eta horren arabera hiru autoitzulpen mota bereizten: 1) bere lehen hizkuntzan autoreak sorturiko jatorrizko testuaren ezezagutzari berehalako irtenbide bat emateko sortzen du itzulpena; 2) beste itzultzaile baten larruan jarri eta hizkuntza eta literatur/kultur sistema batetik bestera pasatzen du testua bi horien ezagutza onari esker, jatorrizkoaren eta itzulpenaren kontrol osoa izan nahi baitu; eta 3) aurretik sorturiko testutik abiatuta, “itzulpena” baliatu nahi du jatorrizkotasun estatus bat izan den duen testu bat sortzeko. Asmo horien arabera izan dira autoitzulpenen emaitza eta prestigioa; lehen itzulpen praktikoko horiek, ugariak izan arren, identifikatzen zailenak dira, ulermen-arazo bat konpontzeko xede baitute, ez erreferente bihurtzekoak. Bigarrenak «itzulpen huts» lirerateke; hau da, itzultzailearen larruan jartzen da autorea eta, testuaren inguruko informazio guztia baduenez, autoretasun horrek interpretaziorako nahiz manipulaziorako boterea ematen dio (Parcerisas 2011: 169). Bi elementu ikusten ditu Parcerisasek botere kontzeptu horri loturik: autorea posizio hobe batean ote dagoen beste itzultzaile trebe bat baino, eta itzultzeak berarekin beti dakarren nahitaezko manipulazioaren aurrean harrokeria ez ote dagoen. Hirugarren jarrerari dagokionez, xede kultur sisteman autore jardun nahi du idazle-itzultzaileak, bertakotzat har dezaten eta lehenagoko testuarekiko mendekotasuna murrizteko. Jarrera «muturreko» horren bidez, autoitzulpenak xede-kulturan jatorrizkoaren maila eta estatus bera edo goragokoa izan dezan nahi du autoreak. Hau da, itzulpenak jatorrizko kanonikoaren izaera lor dezan xede-sisteman. Interesgarria da «de qué modo la autotraducción puede pretender ocupar por propio derecho un lugar de prestigio en la cultura de llegada» (Parcerisas 2011: 171). Guztien atzean jardunbide moral bat dakusa Parcerisasek (2011: 173), zer helbururekin egiten den.

Ildo beretik, Dasilvak (2011) dio garrantzitsua dela gogoraraztea non kokatzen duen autoitzultzaileak bere burua autore eta itzultzaile rolen artean. Liburua bigarren hizkuntza batean jar dezake, edo birkreazio bat egin dezake; lehenengoan autoitzulpen ekintzaren alde traduktologikoa agertuko da, eta bigarrenean, berriz, dimentsio estetiko hutsa. Tartean mailak leudeke, noski. Lehen aipatu bezala, bigarren aukera horren bidetik, oso esanguratsua da xede-testuan aldaketa estetiko handiak dituen testu horietatik ez direla ia inoiz atzeraitzulpenak egiten, eta horrek berretsi egiten du produktu autoitzuliak lehenengo obraren aldean eskuratzen duen goragoko posizioa (Dasilva 2011). Literatura sisteman autoitzultzaileak duen posizio bikoitz horretan, idazleak ikusezin bihurtzen den itzultzailea itzalean utziko du; Venutiren arabera, horrela sortuko da Mendebaldean “idealtzat” jotzen den itzulpena, jatorrizkoaren arrasto oro ezabatzen duen hori. Autoitzulpenak xede-hizkuntzako merkatuan jatorrizkotzat saltzen direnean, itzulpena ikusezin bihurtzen da; «[l]a traduction remplace *de facto* l'original» (López López-Gay 2009: 115).

Autoretasunari lotzen diote batzuetan jatorrizkotasuna: «the translator is the author, the translation is an original, the foreign is the domestic, and vice versa» (Hokenson eta Munson 2007: 161). Izan ere, testuaren egilea denez, badirudi autorea dela proposena testua interpretatzeko, eta hortik dator, hein batean, autorearen zilegitasuna. Alta, autorearen intenzioen eta idatzitakoaren artean alde egon daiteke. Bere ikuspuntua indartzeko, Paul Valeryren hitzak dakartza Whytek (berek dira letra etzanak):

*There is no such thing as 'the real meaning' of a text. The author has no special authority. Whatever he may have wanted to say, he has written what he has written. Once published, a text is, so to speak, a mechanism which everyone can use in his own way and as best he can: it is not certain that its constructor uses it better than the next man. Besides, if he really knows what he wanted to do, this knowledge always interferes with his perception of what he has done* (Whyte 2002: 68).

Harkaitz Canok bat egiten du, nolabait, baieztapen horrekin, idazleak dituen abantailez ari dela: «itzultzaileak dionenean “zuk hau esaten duzu”, bai, hala da, baina nik pentsatzen nuen beste gauza bat esan nahi nuela» (Montorio 2007). Canok dio itzultzaileak ezin duela jakin idazleak zer esan nahi zuen, eta alde horretatik izan daitekeela zehatzagoa autorearen itzulpena. Kasu jakin horietan, idazlea lehen testu argitaratua edo buruan zuen hori itzultzen ari den galdetu beharko genuke, beharbada. Ildo beretik, Parcerisasek zenbait galdera egiten ditu autoitzultzaile esperientziatik abiatuta: «Mi capacidad autotraductora, y el poder que ésta me otorga, ¿no se ve mermada, me pregunto, por los ecos del original, por todo lo que quise decir, aludir o sugerir en el texto original catalán?» (Parcerisas 2011: 169). Zalantzan jartzen du, halaber, autoitzultzaileak ziur jakitea ongi ezagutzen duela ez xede-hizkuntza bera, baizik eta xede-literatura sistema eta horren erreferente eta tradizioak. Azkenean, ondorioztatzen du autoitzultzaileak, bere botere-posizioa gorabehera, umiltasun apur batekin jokatu beharko lukeela, eta ahalik eta gehien itzultzaile izan eta ahalik eta gutxien autore; hots, «debería, sugiero, dejar de lado su “poder” —aunque este constituya, justamente, la marca de la autotraducción» (Parcerisas 2011: 170).

Izan ere, gehienetan, autoreak hartzen ahal dituen lizentziek eta aldaketek ematen diote beste edozein itzultzailek ez duen autoritatea, bai autoitzultzaileari, bai emaitzari. Uste zabaldua da testua hark sortu izanak testu horren itzulpenean hobeki barneratzeke aukera ematen diola idazle-itzultzaileari, eta horrek, hasierako testua aldatzeko ez ezik, beste edozein itzultzailek eginen lukeena baino emaitza “hobea” lortzeko zilegitasuna ematen diola.<sup>31</sup> Hain zuzen aldaketa handiak egiteko tentaldiagatik ez dio Jon Alonsok autoitzulpenari heltzen: «ondo dago zuk, idazleak, eskubide txiki bat gordetzea itzultzaileak egindakoaren gainean aldaketa batzuk egiteko, baina ñabardura kontuak direnean, ez bestela» (Montorio 2007). Lehen obra berridazteko tentaldi hori bera azpimarratzen du Lourdes Oñederrak *Intemperies* eleberriaren gaztelaniaratzearen harira egindako elkarrizketa batean: «Además durante el proceso he sentido ganas de reescribir algunas cosas, algo que no he hecho claro, pero sí he sacado notas que quizá utilice para otros proyectos con los mismos o con nuevos personajes» (Seisdedos 2015). Ondorioz, idazleak tentaldiari men egin diezaioke edo ez, hori ere aukera bat da. Horrela, bada, «[s]ince the writer himself is

<sup>31</sup> Esaterako, honela mintzo da Unai Elorriaga bere autoitzultzaile esperientziatik abiatuta: «argi baino argiago ikusi dut inork ezin duela itzulpena egileak berak bezain egoki egin» (Elorriaga 2008: 179).



the translator, he can allow himself bold shifts from the source text which, had it been done by another translator, probably would not have passed as an adequate translation» (Perry 1981: 181). Beraz, autoitzultzailearen aurpegi bikoitz horretan, Menakhem Perryk autorearen aldean jartzen du indarra, baina horren konplexutasuna agerian uzten du:

But in order to determine whether these shifts actually indicate differences between the two literary systems, one has to examine them not only in the light of original literary works, in the literature of the source text and in the literature of the target text, but also in the light of the continuation of the writer's work in the source language and in the light of his former work in the target language (Perry 1981: 181).

Merkatuak bezala, irakurleek ere jarrera bera lukete Kristine J. Andersonen arabera, hots, autoitzulpena hobesten dute itzulpen alografoaren aldean: «Readers paradoxically accept self-translations as more authoritative than those done by others, despite the above-noted tendency of authors to translate more freely and revise» (Anderson 2000: 1251). Beraz, lehen obraren bertsio bat edo jatorrizkoari hainbeste lotzen ez zaion itzulpen bat egiten badute ere, irakurleek bat egiten dute merkatuaren irizpideekin, eta autoritate handiagoa ematen diote autoitzulitako lanari besteren batek itzulitakoari baino. Horrek, nolabait, liburuaren harrera baldintza dezake.

Izan ere, pentsaera zabaldua da (Anselmi 2012: 21) itzultzaile alogrofoa ausartuko ez litzatekeen aldaketak egiten dizkiola obrari autoitzultzaileak. Azterketa enpirikoetan oinarriturik,<sup>32</sup> Simona Anselmik dio ez dela beti hala gertatzen: «It is not rare, however, that self-translations presented as translations by their authors have come to be described by critics as completely new re-creations of previous texts, while self-translations presented as rewritings have been found to be close renderings of their source texts» (Anselmi 2012: 13). Gure corpuseko testuekin ere hala gertatzen dela ikusiko dugu; kasurako, itzulpentzat aurkezten den Itxaro Bordaren xede-testuak aldaketa nabarmenagoak ditu, demagun, Harkaitz Canoren autoitzulpen ez hain aitortuak baino. Gainera, gogoan hartu behar da itzulpena=aldaketa-gutxi kontzeptzio hori ez dela *berex* horrela, eta, historikoki aztertzen badugu, kontrako joerak ere izan direla: «in certain cultures and historical periods translators have taken great liberties with the original texts – even if they were not the authors – and have made tremendous changes to them for a variety of cultural, ideological and poetic reasons» (Anselmi 2012: 21). Hori da, geroago ikusiko dugunez, Nikolas Ormaetxea *Orixek Tormes'ko itsu-mutila* euskaratzean egindakoa.

Beraz, kausa-ondorioen beste ordena bat aldarrika dezakegu: egileak ez du itzulpen berritzailea egiten egilea delako (eta horretarako zilegitasuna duelako), baizik eta itzulpen berritzailea egiten duelako da egilea. Hots, autoitzultzailea izan edo itzultzaile alogrofoa izan, itzulpenean modu sortzaileago batean jokatzuz gero, egiletasuna edo sortzaile izaera nabarmendu egiten da. Bestela, itzultzailea ez da sekula sortzailetzat hartuko. Hain zuzen, pragmatismo formaletik begiratuta, Pymek (2009) ukatu egiten dio itzultzaileari

---

<sup>32</sup> Besteak beste, Autotrad ikertaldeko azterketak aipatzen ditu Anselmik (2012: 29): «Thus, interestingly, the data collected and examined by the Autotrad group support the thesis that self-translations, rather than enjoying the same freedom as original writing, are subject to the same translatorial constraints as normal translations, that is, constraints imposed by the new communicative function of the translation, its changed target language and culture and the translation strategies demanded by the recontextualising process».

autoretasuna; erantzukizun etiko batetik egiten du, testuak dioen horren erantzulea itzultzailea ez delakoan, sorburu-testuaren egiazko errepresentazioaren erantzule soilik, eta hitzen bidez testuan agertuko den posizioa, “nia” hori autoreari dagokiolakoan, ez itzultzaileari. Alta, Pym enpirikoki ari da, ez dio horrela izan beharko lukeenik, eta ez du ukatzen itzultze-prozesuaren sorkuntza eta itzultzaileen subjektibotasuna (Pym 2009: 32). Beraz, jardute moduaren arabera jo genezake (auto)itzultzailea sortzailatzat. Badakigu baieztape hori eztabaidagarria dela, eta beste hamaika galdera sorrarazten dituela; hala nola, noiz da jarrera bat sortzaile, hots, zenbat aldaketa eta zer mailatakoak behar ditu itzulpen batek berritzaile izateko? Nolanahi den, itzulpenaren irudi zurruna apurtzeko ere balio lezake, aldaketa handiak egiteko aukera autoitzulpenari lotzen zaionean, inplizituki adierazten baita itzulpena=aldaketarik-apenas lotura.

Bestalde, jatorrizkoaren kontzeptua eta itzulpena bera are gehiago lausotzen da aldibereko autoitzulpenean, itzultze prozesuak idazketa eta lehen testu “jatorrizko” hori baldintza dezakeelako, eta alderantziz. Esaterako, Nabokovek haurtzaroko eta nerabezaroko memoriak ingelesez idatzi eta errusierara itzuli zituen; asko moldatu zuen testua, ingelesezkoarekin alderatuz gero alde handia izateraino, hainbeste non autoreak ingelesera itzuli zuen bere errusierazko “itzulpena”. Nancy Huston honela mintzo da aldiberekoaz bere esperientzian oinarrituta: «C’était fascinant, il y avait un aller et retour pendant plus d’un an entre les deux langues, parce que la “traduction”, ça oblige toujours à voir quelles sont les faiblesses du texte original. Donc, grâce au français, j’améliorais l’anglais et vice-versa» (Klein-Lataud 1993). Aldi berean argitaratzen diren liburuetan, bi hizkuntzetako testuen arteko lehia handiagoa da espazioa konpartitzen dutenean. Diglosia testuinguru batean, hizkuntza hegemonikoan irakurtzeko lehentasuna nagusituko litzateke “normaltasun” linguistikoko testuinguruetan gertatzen denaren aldean, non jatorrizkoa irakurtzea lehenesten baita (Castro 2011). Aldibereko itzulpen bikoitz horren harira – bikoitza atzera eta aurrera ibil daitekeelako autoreak, eta, beraz, itzulpenean egindako aldaketa batek lehen testu hori alda dezakeelako, nolabaiteko itzulpenaren itzulpenari bide emanek, Manterolak (2012: 74) dio autoitzulpenari buruz beharrean, agian, sorkuntza elebidunari buruz hitz egin beharko litzatekeela.

Gurean Bernardo Atxaga da aldibereko itzulpen horren adibiderik argiena. Manterolak bere tesian azaldu bezala, Atxagak denbora tarte ezberdinez argitaratu ditu bere itzulpen lanak: «lehenengo itzulpenetan, denbora tarte handiagoa zen; baina bere azken eleberriaren itzulpenean (*Zazpi etxe Frantziar*), argitaratu aurretik ekin dio aldibereko itzulpenari bere itzultzailearekin batera» (Manterola 2012: 74). Itzultzailearekin batera ari denez, kolaborazioaz mintzatu beharko genuke, baina oso presente dago autoreak kolaborazio delako horretan. Aipatu liburuari buruzko idazketa-itzulpen prozesuari buruz, honela dio Atxagak:

Nik aurrena bukatu egiten dut aurreneko zirriborroa. Orduan hori Garikanok irakurri egiten du euskaraz eta egiten ditu aurreneko apunteak, berak prestatu egin behar du itzultzeko materiala, ez itzultzeko akastuna. Orduan nik hori jasotzen dut, berriro idazten dut, eta orduan bera hasi egiten da jada itzultzen, baina itzultzen ari den bezala esaten dit “esaldi hau? Hemen? Inora ez doa hau”. Orduan hortik ni etortzen naiz berriro euskarazkora eta aldatu egiten dut, eta orduan sortzen da, nire ustez, ideala

dena gure kasuan; sortzen da halako zirkuitu bat bezala, etengabe dago korrante bat; itzulpenetik jatorrizko testura eta jatorrizko testutik itzulpenera (Manterola 2012: 88).

Manterolak kiribilaren irudia darabil Atxagak egindakoa definitzeko, moldaketa, itzulpena, zuzenketa eta berrikusketa lana egiten baitute idazlearen eta itzultzailearen artean, hizkuntza batetik besterako joan-etorrian (Manterola 2012: 88). Abiapuntua euskarazkoa izanik ere, ez dago jatorrizko huts bat, biak baitira, hein batean, elkarren mendeko, euskarazkoa ere baita gaztelaniazko itzulpen horren emaitza. Juan Luis Zabala kazetari eta idazlea bide hori erabiltzearen aldekoa da: «Berez, autoitzulpenaren egoera egoki bakarra argitaratu aurrekoa da. Hori planteatzen zuen Atxagak *Gizona bere bakardadean* liburuarekin, ez? Uste dut esaten zuela horrela lan egiteko asmoa zuela, hau da, euskaraz idatzi ahala itzultzea [...] Horrela eginda, autoitzulpenak zentzua izan dezake, baina bestela, nire ustez, ez» (Montorio 2007). Zabalak azaltzen du liburu argitaratu eta eskuetan hartzean, segituan ikusten zaizkiola akatsak edo zer aldatuak, eta denboraren faktoreak biziagotuko lukeela hori: «oso mentalizazio handia beharko nuke nik horretara bueltatzeko eta liburu horrekin orduak pasatzeko» (Montorio 2007). Autoitzultzeko arrazoien harira (2.2.1 atala) aipatu dugun Lekuonaren kasua aldibereko horren adibide litzateke; sormen mekanismotzat erabiltzen zuen gaztelaniarako autoitzulpena, nahiz eta, Atxagak ez bezala, ez zuen gaztelaniazkoa kaleratzeko inolako asmorik.

### 2.3.2. Bertsioak, berridazketak eta beste

Orain baino lehen esandakoaren ondorio da autoitzulpenak bertsioztat edo berridazketatzat jo izan direla maiz, batzuetan itzulpenaren izendapena ordezkatzera. «In terms of its production, an auto-translation also differs from a normal one, if only because it is more of a double writing process than a two-stage reading-writing activity» (Fitch 1988: 131). Beraz, baieztapen horretatik ondoriozta dezakegunez, autoitzulpen jarduna anormala da, batetik, eta, bestetik, berridazketa edo birsortze bat litzateke horren produkzioa. Bide beretik egiten du Andersonek ere, itzulpen normala autoitzulpenetik bereiztean: «Normal translation, however, is the result of a two-stage process of reading-writing, whereas self-translation is a re-enactment of the act of writing which produced the original text. In other words, ordinary translation is the reproduction of a product, whereas self-translation is the repetition of a process» (Anderson 2000: 1251). *Normal* terminoarekin *ohikoa* esan nahi bada, baieztapen okerra da, kopuruek erakusten dutenez; horregatik, eta normaltasunaren ideia alde guztietatik delako zalantzazkoa eta esanahiz hutsa, ikerlan honetan kontzeptu hori baztertuko dugu. Gainera, arretaz irakurri behar ditugu halako baieztapen hertsia, idazlearentzat ez baita prozesu bera izanen (ez “*repetition of a process*”) obra bat lehenengoz sortzearena eta beste hizkuntza batean ematearena, nahiz eta pertsona berak egin eta bi idazketen artean denbora tarte txikia egon.

Autoitzulpenarekin “lehian” ari den beste termino bat da “idazketa translinguistikoa” (*translingual writing*). Lyudmila Razumovak (2013), hizkuntza batean baino gehiagotan idatzi duten Nabokov, Beckett eta Hustonen lanetan oinarrituz, autoitzulpenaren balio anitzak aztertzen ditu “Self-translation in translingual writing” artikuluan. Itzulpena «a translinguistic activity, as is the very writing of a text (Meschonnic 1973)» dela abiapuntu

hartuta, Razumovak dio autoitzultzaileek ez dutela jatorrizko testu bat soilik itzultzen, baizik eta itzultze prozesuan sortzen diren hainbat testurekin jardun behar dutela: besteak beste, erreferentziak, testuen aldaerak eta komunikabideetako bertsioak (Razumova 2013: 185). Aztergai dituen autoreek, beste baliabide erretoriko batzuk erabiltzeaz gainera, testu barruko autoitzulpenera jotzen dute, baita beste hizkuntzako eta kulturako hitzak eta elementuak sartzeraz. Hori guztia litzateke idazketa translinguistikoa. Razumovak ingelesa, errusiera eta frantsesa darabilten autoreak ditu hizpide, hots, hizkuntza nagusietakoak; horregatik, gogorarazten du bi hizkuntza handiren arteko itzulpenak ez duela hizkuntza gutxitu batetik edo batera itzultzeak bezalako «inplikazio politikorik» (ibid.).

Hain zuzen, Nancy Huston izan da autoitzulpengintzan gehien aztertu den autoreetako bat (Gentes 2015). Frantsesez idatzi eta ama-hizkuntzara, ingelesera, itzultzen ditu bere lanak Kanadan sorturiko eta bere bizitzako bi herenak Parisen bizitako autoreak<sup>33</sup> (Van Bolderen 2014: 84). «Berridazketa» darabil beti bere bigarren lanez mintzatzeko, sekula ez “itzulpena”, nahiz eta<sup>34</sup> ikertzaile batek baino gehiagok erakutsi duen oso lizentzia gutxi hartzen dituela. Nolabait, autore estatusa nabarmentzen du. Christine Klein-Lataudek (1996) dioenez, berridazketaren aldarrikapen horretarako, besteak beste, arrazoi pragmatikoak daude, horrela izendatuta ingelesezko sorkuntza lanen sariketetan aurkez ditzakeelako Hustonek bere lan autoitzuliak (1996: 220). Euskarazko testuak autoitzuli dituzten idazle batzuek ere bide beretik jotzen dute, edo, behintzat, itzulpenaren eta berridazketaren arteko bereizketa egiten dute; Fermin Etxegoienek, kasurako, honela dio: «berridazketa egin barik, fidela izan natzaio testuari, lerro batzuetan libreago jokatu dudan arren» (“Autokarabana orain autocaravana da” 2012). Horren arabera, badirudi idazle-itzultzaile oñatiarrak berridazketa-libre jokatzeko eta itzulpena-leialtasuna loturak egiten dituela.

Gorago esan dugunez, gurean sistemak eta merkatuak nahiago izaten du hizkuntza periferikoetatik hegemonikora egiten diren itzulpenak autoreak berak egin ditzan, eta behin autoreak eginda, prozesu hori ezkututzen saiatzen dira. Hori hainbat modutara antzeman dezake irakurleak: batzuetan ez da liburuan erreferentziarik egiten aurrez beste hizkuntza batean zegoen horri, lehenengoz agertuko balitz bezala; bestetuetan, komunikabideek eta argitaletxeek askotariko terminoak darabiltzate “itzulpen” hitza ez aipatzeko.

Horren adibideei heldu aurretik, ordea, katalogoan bildu dugun autoitzulpen antzinakoetako bat hartuko dugu hizpide. Esteban Urkiaga “Lauaxeta”k *Arrats beran* poesia liburua kaleratu zuen 1935ean, Talleres Gráficos E. Verdes Achirica inprentan. Edizio elebiduna izan zen; euskarazkoa dator lehenik eta gaztelaniazkoa gero. Alta, gaztelaniazko parte prosan emana dago, eranskin gisara. Ohar bat jarri zion autoreak bigarren atal horri, azalpen modura. Honela dio:

<sup>33</sup> Trish Van Bolderen-ek (2014) zalantzan jartzen du Hustonen kanadartasun aski onartua, ikerketan halakotzat hartzeak arazo ugari sortzen baititu; izan ere, «nationality alone proves an arbitrary criterion for belonging» (Van Bolderen 2014: 92), eta egokiago ikusten du espazio geografiko bera eta errealitate linguistiko, politiko eta kultural bera konpartitzen dituzten autoreak biltzea. Honela ondorioztatzen du Van Bolderenek: «although she is indeed Canadian by virtue of citizenship and commonly held perception, and while she is also a self-translator, Nancy Huston is not a Canadian self-translator» (ibid.).

<sup>34</sup> Diskurto orokorrak lizentziak hartzea eta berridazketa berdintzen dituelako jarri dugu “nahiz eta” hori, ikerketa-lan hau sinatzen duena lotura horrekin bat etorri ez arren.

La traducción de estas poesías no puede, ni debe ser, guión para examinar el valor de Árats-beran. El secreto de la poesía se oculta en la gracia de la forma, en la pulcritud del buen decir.

Con esta hoja adicional no pretendemos más que ayudar a los poco versados en el idioma vasco. Para el crítico extraño nada dicen estas versiones, hechas sin cuidado. Mi idioma nacional es el euzkera. Bien se pueden perdonar las incorrecciones que en castellano se me escapen, puesto que no es pequeño mérito conocer medianamente una lengua extraña (Urkiaga “Lauaxeta” 1935).

Asmo didaktikoa zuten, bada, *Arrats beraren* gaztelaniazko “bertsioek”, autorearen beraren hitza erabiliz, eta euskaraz oso jantziak ez zirenei zuzentzen zitzaientzen, ez horrenbeste gaztelaniazko elebakarrei. Gaur egungo joeretatik begiratuta, harrigarria gertatzen da itzulpena arreta handirik gabe egindako lana izan zela irakurtzea, baita akatsak justifikatzeko duen modua ere. Horrela, badirudi “bertsio” izendapenari kutsu negatiboa ematen diola, jatorrizkoa goragoko maila batean jartzen baitu, eta bertsiook asmo didaktikoa soilik baitute, inondik inora ez estetikoa.

Arras bestelakoa da gaur egungo “bertsio” izendapenaren erabilera. Euskal Herrian kaleratzen diren gaztelaniazko komunikabide idatzietan ikusi dugunez, gehienek “versión en castellano”, “versión en español” eta “gaztelaniazko bertsioa” moduko esamoldeak darabiltzate.<sup>35</sup> Batzuetan, itzulpen alografoetan ere hobesten dute komunikabideek esamolde hori, eta halakotzat hartzen dituzte gaztelaniarako lanak; esaterako, Joseba Sarrionandiaren *¿Somos como moros en la niebla?* liburuaren harira *Noticias de Navarra*-k (2012/12/03) argitaraturiko elkarrizketan, ez da itzultzailearen berri ematen ez itzulpena denik esplizituki esaten, eta autoreak gehitu dituen pasarteez mintzo direnez, badirudi ez dela itzulpen prozesuan beste agenterik egon. Pamiela argitaletxearen webgunera jotzen badugu ere, ez dugu itzultzailearen izenik aurkituko (azken kontsulta-data: 2017/08/23). Beraz, badirudi autoreak berak egindako itzulpena dela; alta, bilaketa xeheago bat eginez gero, eta beste iturri batzuetara joz gero, *Gara* (2012/12/04) edo *Deia* (2012/12/05) egunkarietara esaterako, Javier Rodríguez Hidalgo itzultzaileak gaztelaniaratu duela ikusiko dugu, nahiz eta idazlearekin kolaborazioan izan.

Antzeko zerbait gertatzen da Ramon Saizarbitoriaren *Martutene* nobelarekin. *Noticias de Gipuzkoa*-n (2013/05/09) kaleraturiko albistean ez da itzulpenaren edo itzultzailearen berri ematen. Gainera, Erein etxeko editorearen hitzak jasotzen ditu, eta honela mintzo da Iñaki Aldekoa: «[es] otra versión, porque el autor ha corregido con total libertad muchas cosas del original en euskera y ha aportado otras que a su vez añadiremos a la próxima edición en euskera». Badirudi, beraz, bertsioa dela azpimarratzearekin batera, jatorrizkotasuna euskarazkoari ematen diola, nahiz eta gaztelaniazkoak euskarazkoa aldatuko lukeen hurrengo edizioan. Itzultzailearen berri ez du ematen, ordea; argitaletxearen webgunean eta

<sup>35</sup> Hala egiten du, besteak beste, *Diario Vasco*-k Jokin Muñozen *El camino de la oca* eleberriarekin (2009/02/05), eta Eider Rodriguezen *Y poco después ahora* ipuin-liburuarekin (2007/10/13); *Gara* egunkariak Jose Ignacio Ansorenaren *Cancionero popular vasco* bildumarekin (2007/05/22); *bilbaoenskaraz* atariak Aitor eta Pedro Zuberogoiariaren *Bertan Bilbo-La villa y el euskera: historia social del siglo XX* saiakerarekin (2012/06/22); *Noticias de Navarra*-k Bernardo Atxagaren *Días de Nevada* kronikarekin (2014/03/08); eta 111Akademia atariak Jon Arretxeren *Sombras de la nada* eleberriarekin (2014/07/09). Adibide batzuk baino ez dira joera orokorra adierazteko.

liburuaren paratestuetan begiratu gero, ikusiko dugu Madalen Saizarbitoriak itzulia eta autoreak berrikusia dela. Alaba-aitaren arteko elkarlan horri “itzulpena familiakide batekin lankidetzan” dei lekiok, Dasilvaren (2015) tipologiatik abiatuta, zeinak “autoitzulpena familiakide batekin lankidetzan” kategoria proposatzen baitzuen (*autotraducción con colaboración parental*) eta, betiere paratestuei sinestera, pisu handiagoa baitu kasu honetan itzultzailearen lanak. Nolanahi den, Manterolak (2017: 209) dioten moduan, «[t]he fact that there is a close relationship between them suggests that the joint work might go beyond an ordinary “allograph translation revised by the author».

Kolaborazio kasuetan, zaila da jakiten azken emaitzako zer dagokion itzultzaileari eta zer idazleari, hots, autoitzulpenak ala itzulpenak izan duen pisu handiagoa. Parte hartzaile bakoitza aurkezten den moduak adierazten digu, nolabait, itzulpena bera nola ulertzen den (Manterola 2017: 209).

Batera zein bestera, ikusi dugu itzultzailea eta, beraz, itzulpena ez direla agerian geratzen, nahiz eta euskarazko lehen testu bat badagoela aitortu. Saizarbitoriari berari egindako elkarrizketa berriago batean (Guenaga 2017), kazetariak honela dio *Lili eta biok* eleberraren gaztelaniazko argitalpena dela eta: «El autor de ‘Ehun metro’ (1974) y ‘Martutene’ (2013) acaba de traducir al castellano su novela ‘La Educación de Lili’, todas ellas editadas por Erein». Balirudike autoitzulpen baten aurrean gaudela, ez baita esaten paratestuetan datorrena: Helena Sotelo eta Fundación Eguía Careaga elkaralanari egozten zaio itzulpena. Hala, ez da harritzekoa gaztelaniazko liburuaren aurkezpenean (“Acto de presentación” 2016), kazetari batek autoreari galdetu izana berak itzuli ote zuen liburua. Argi erakusten du horrek ezkutuan geratzen dela berariaz bilatu ezean. Aurkezpen berean, non itzultzailea ez baitzegoen, Ramon Etxezarreta kazetariak parte hartu zuen, eta honela zioen:

Plantear la presentación de este libro como una traducción de una novela ya publicada, por tanto, vieja, creo que es un error; o sea, nadie hemos leído a Tolstoi, o nadie hemos leído a Roth pensando que es una traducción, o nadie hemos leído a Flaubert o a Victor Hugo pensando que leíamos una traducción. Todos la leíamos como si fuera un original. Aquí el hecho de las dos lenguas siempre nos hace flotar en esa tensión, y creo que tenemos que olvidarnos de que esto es una traducción. Es una novela que tiene entidad suficiente en la literatura y en la literatura en lengua castellana, y que como tal hay que abordarla.

Aipu horretatik ondorioztatzen da, beraz, itzulpenek ez dutela osotasun aski hizkuntza bateko literaturan sartzeko. Akatsa izan daiteke, hain zuzen, Etxezarretak aipatzen dituen autore horiek, gaztelaniaz edo euskaraz irakurtzean, ez ditugula itzulpentzat irakurri. Nolanahi ere, ez dugu horretan luzatu nahi.

Nabarmendu behar da aipatu dugun prentsa idatzi gehiena Euskal Herrian kaleratzen dela, eta, beraz, horien irakurleak aukera handiagoa duela jakiteko idazle horiek euskaraz sortzen dutela. Horrela, Espainiako komunikabideetara jotzen badugu, *El País* (2012/04/21) egunkariak, esaterako, ez du *Martutene* itzulpentzat jotzen, eta

Sarrionandiaren saiakera gaztelaniaratuaren berri ez du ematen,<sup>36</sup> bi urte lehenago, euskarazko liburuak Euskadi Saria jasoko zuela iragartzean sorturiko ika-mikari bi artikulu eskaini bazizkion ere (*El País*, 2011/10/03 eta 2011/10/04). Horren harira, Andersonek honela dio: «Monolingual critics generally write about the version in their own language as if it were the original, regardless of which language version appeared first» (Anderson 2000: 1251). Hortaz, autoitzulpen bat nola aurkezten den, irakurlearen harrera baldintza dezake.

Argitaletxe eta komunikabideak ez dira bakarrak, ordea, itzulpenaren etiketa saihesten. *Heridas crónicas* ipuin-bildumaren harira, honela bildu zituen *El Correo*-k (Artaza 2010) Karmele Jaioren hitzak, idazleak berak itzulitako ipuinak direla esan eta gero: «en realidad, sería más correcto decir que han sido reescritos, ya que algunos de ellos eran muy antiguos, y había algunos aspectos que he preferido modificar». Berridazketak dira, beraz, ez itzulpenak. Adierazpen horren arabera, badirudi itzulpen prozesuan moldaketak edo aldaketak eginez gero, itzulpena izateari uzten diola beste zerbait (bertsio, berridazketa, adaptazio) izateko. Antzeko zehaztasuna egiten du Marikita Tanburin antropologoak *Bi saiakera emazteen izenean / Deux essais aux noms des femmes* (Maiatz) liburu elebidunaren harira. Euskal Irratiak-ek egindako elkarrizketan (“Bi saiakera emazteen izenean” 2014), idazleak honela azaltzen du lana: «Frantseseko itzulpena neurek egina dut, eta itzulpena baino gehiago da adaptazio bat. Eta hola, bi mintzaira dakitenek, nahi badute biak irakurtzen ahal dituzte». Euskarazkoa osoagoa dela ere nabarmentzen du.

Ildo berean, Bernardo Atxagaren *Días de Nevada* kronika-liburu autoitzuliaren harira, honela dio Jon Kortazarrek: «El espíritu inconformista de Atxaga [...], se muestra aquí por medio de la autotraducción, lo que le permite cambios en las versiones: ha suprimido acciones y narraciones del original en euskera, y así las dos versiones son diferentes» (Castilla 2014). Autoitzulpena dela aipatzen du Kortazarrek, eta euskarazkoa jotzen du jatorrizkotzat, baina bi bertsio ezberdinez ari da. Ildo berean mintzo da Iban Zaldua (2015) ere itzulpen-bertsio bikote horri buruz, autoitzulpen prozesuan ipuinen baten bukaera aldatzeraino iritsi dela dioenean: «norberak itzultzen duenean ez du benetan itzulpen bat egiten (...). Bertsioak direla nik oso argi daukat, gainera potestate osoa daukazu horrela jokatzeko testua zeurea den neurrian» (“Iban Zaldua idazleari elkarrizketa [bideoa]” 2015). Itzultzaileentzat konpetentzia ez direla ere badio Zalduak, autoitzultzaileek sorturikoak ez baitira itzulpen, haren esanetan; alta, Euskal Herriko nahiz Espainiako merkatuetan, behin autoitzulpen bat kaleratzen bada, ez da beste batek egindako itzulpenik kaleratu ohi.

Liburua berregiteaz dihardu, berriz, Aurelia Arkotxa, *euskalkultura* atarian kaleraturiko artikuluak dioenez: «A la versión francesa del libro -'no es una traducción, sino que he vuelto a rehacer el libro en francés', aclara-, le seguirá pronto una edición en castellano, de la mano de la editorial Alberdania» (“Aurelia Arkotxa, nueva académica” 2007). Urtebete geroago kaleratu zen gaztelaniarako itzulpena, eta ez du autoreak sinatzen, Arantzazu Fernandezek eta Elisabete Tolaretxipik baizik.

Eider Rodriguezek nahiago du izenik ez jarri autoitzulpenaren emaitza horri. Honela azaltzen du autoitzulpen prozesu hori elkarrizketa batean:

<sup>36</sup> Itzulpenaren azterketan, interesgarria da itzultzen ez dena ikertzea, baita itzuli arren isiltzen dena ere; zorionez, geroz eta azterlan gehiago daude bide horri heltzen diotenak.

(...) *gutxitan* elkarbizi dira nire baitan euskara eta gaztelania hain modu goxoan: nik euskaraz idatzitako literatur testu bat gaztelaniara isurtzen dudanean nire bi erdiek oso bat osatzen dute, bi hizkuntzen arteko ohiko konbibilitate zibilizatua bakanal bilakatur. Ezin azalduzko sentimendua da, nire burua *itzultzen* dudanean soilik sentitzen dudanean sentimendua, baina ez nuke ez itzulpen ez bertsiotze gisa definituko, beste hitz bat eskatzen duen sentimendua baita (Arrula-Ruiz 2013a).

Norberarengan gertatzen den hizkuntzen arteko elkarbizitza hori aipatzen du Itxaro Bordak ere. Frantsesarekin baketzeko eta berradiskidetzeko modua izan da baionarraren ustez bere burua itzultzeko ariketa: «Itzulpena praktikatur, edonor, bera bezalakoa den etsai horrekin baketzen da» (Borda 2013). Itzulpena azpimarratzeaz gainera, beste autoreengan ikusi ez dugun aldarrikapena entzun diogu Bordari: «Idazleari gustatzen zaio “nire nobela itzuli didate” erratea pasibo moduan, horrela baita lan baten balioa azpimarratzen» (Arrula-Ruiz 2014). Haren hitzetan, bada, idazleak nahiagoko luke bere obra beste norbaitek itzultitakotzat har dadin, autoreak itzultitakoa dela esan baino, autorea ez den norbaitek horri heltzea obra bera balioesten duelakoan. Gainera, Bordaren ustez betiere, obra ez ezik autorea bera ere balioesteko modu bat da: «itzulpena, Euskal Herrian, bederen, idazle kontsekratuari zor zaion sari inplizitu bat da» (Urkiza 2006: 311). Alta, behintzat gaztelaniara itzultitako obretan ikusi dugunez, kontrakoa gertatu ohi da, alegia, autoitzulpenak lehenesten dira itzulpen alografoen aldean, eta bertsiotzat aurkezten. Horrela kanonizatzen dira, gainera. 3. atalean ikusiko dugu euskaratik frantseserako eta euskaratik gaztelaniarako itzulpenen artean alderik baden eta Bordak aipaturiko hori ote den ezberdintasunetako bat.

Dolharé-Çaldumbidek (2013) dio Bordaren autoitzulpenak sorkuntza lanak direla, «jatorrizko berriak» edo «jatorrizkoaren aldaerak». Halakotzat aurkezten dira, gainera, nahiz eta kronologikoki lehen euskarazko testu bat badela sekula ezkutatu gabe; frantseseko *100 % basque* liburuaren barneko azalak, esaterako, «traduit et adapté du basque par l'auteur» dio. Ana Urkizak egindako elkarrizketan, halaber, Bordak autoitzulpenaren berridazketa funtzioa nabarmentzen du: «Nire testu bat frantsesera pasatzen dudanean *rewriting* egin behar dut ondorioz» (Urkiza 2006: 284), hizkuntzaren nolakotasunei men egin eta horiek moldaketa bat eskatzen omen dutelako.<sup>37</sup>

Beraz, ikusi dugu ez dagoela ez adostasun ez sistematikotasun handirik idazle batek beraren lanen itzulpena egitearen ondorioz sorturiko emaitza izendatzeko terminoak erabiltzerakoan, eta gauza bera esan liteke itzulpen prozesuaz ere. “Bertsio”, “berridazketa” eta “aldaera” dira erabilitako batzuk, “berregin”, “berridatzi” eta “moldatu” aditzen kasuan, eta autoitzulpenak ez ezik, batzuetan itzulpen alografoak ere horrela izendatzen direla ikusi dugu, batez ere idazlearekin lankidetzan egina bada. Horrela, hizkuntza-trukea desagertu

<sup>37</sup> Esaterako, honela azaldu zuen Bordak *%100 Basque* liburuko itzulpen-prozesua UEUko jardunaldietako saio batean: «Euskarazko bertsiolari ahalik hurbilen geratzea neke zitzaidan, batzuetan perpausa emendatzeko gutizia nuelako, besteetan ideia laburtzekoa edo erabat kentzekoa, uste nuelako eleberria frantsesez irakurriko zuenak ez zuela berean utziz ezer ulertuko. Hitz jokoak halaber arazo suertatu zitzaizkidan. Lekuz aldatu nituen gehienetan eta bakarretan arras ezabatu. Euskarazkoak kapitulu bat eskas zuela iritziz berrogeigarren bat erantsi nion frantseseko alari. Bidenabar derradala Bego Montoriok gaztelarara plegatu zuenean kapitulu soberakina desagertu zela! Hondarrean itzulpen zuzen-zuzena baino naski itzulpen-egokitzapen moduko zerbait eskaini nion *Quai Rouge* argitaletxeko arduradunari» (Borda 2013).



egiten da. Batean zein bestean, itxuraz, “itzulpen” terminoa saihesteko ahalegina ikusi dugu. Oinarrian, arestian aipatu dugunez, oraindik orain itzulpena-fideltasuna bikotea dagoela esanen genuke, esplizitua ez izan arren, eta horrek sorburu-testuari hertsiki jarraitzen ez dion hori bestela izendatzeko beharra sortuko luke, bestelako arrazoiak ere egon daitezkeen arren (autoretasunaren pisua itzultzailetzaren aldean, itzulpenak izan dezakeen konnotazio negatiboa eta arrazoi komertzialak, esaterako). Itzulpenaren adiera zabalago bat edo kontzeptuaren berresanahitze bat beharko genuke, apika, non kodez aldatzarekin moldatzen diren testuek itzulpen izaten segituko luketen; hori, noski, ez dago huts-hutsik gure esku.

## 2.4. AUTOITZULPENA ETA IDENTITATEA(K)

Honezkero argi geratu da askotariko jarrerak daudela autoitzulpenaren inguruan, eta diziplina bera ez dela jardun homogeenoa bat. Lehenengo atalean ikusi dugu, gainera, jardunaren inguruan hainbat ikertzailek marraztu duten tipologia zabala. Bistan da, beraz, sailkapen ugari egiten ahal zaizkiola jardunari eta horren emaitzari, eta ertz askotatik begiratzen ahal zaiola.

Laugarren azpiatal honetan, autoitzultzailearen identitate(ar)i erreparatuko dio/egu, hots, ikertzaileek anitzetan arinki bezain lausoki hizpide izan duten beste eztabaidetako bati; horrela, autoitzulpen prozesu konplexu horretan identitateak zer paper duen erantzuten saiatuko gara, betiere jarduna deskribatzen lagunduko digulakoan.

### 2.4.1. Autoitzulpena, identitate konplexuen adierazle

Hizkuntzak berekin dakar erreferentzia-sare bat, eta berekin ekar lezake emozio jakin batzuk, zeinek arrazoitze-prozesuan eragin baitezakete. Hizkuntza besteengandik bereizteko propietate izan daiteke, identitate kolektiboa osatzeko, horretaz kontziente bagara; identitate bat osa dezake, bada, hizkuntza baten jabe eta horren hiztunen parte izateak. Baiezta dezakegu, ordea, hizkuntzaz aldatzen dugun bakoitzean, identitatez mudatzen garela? Testuinguru diglosiko eta mugakidean bizi diren elebidunen edo eleaniztunen kasuan, hizkuntza bakoitzari dagokion identitatea ez da kategoria zurruna; alegia, ezin bereiz dezakegu A hizkuntza-identitatea eta B hizkuntza-identitatea elkarrekintzarik edo puntu komunik ez balute bezala. Eta horretan eragina dute, noski, espazio geografiko-sinboliko bera konpartitzeak eta bi hizkuntzak pareko egoera batean ez egoteak.

Nolanahi den, eta gogoeta-hipotesi mailatik harago egin gabe, pentsa dezakegu identitatea moldatu, egokitu daitekeela autoitzulpen prozesuan, beste hiztun-komunitate bati zuzentzen zaionez. Literatura bera «es productora de muchos de aquellos significados que sirven de aportación a la identidad cultural de una comunidad o pueblo», Iratxe

Esparzak eta Manu Lopez Gasenik<sup>38</sup> diotenez (2015: 11). Galdera hauek etor dakizkiguke, beraz: idaztean, hizkuntzaren bitartez errepresentazio soziokultural sare oso bat adierazten bada, autoitzulpenean, sare horri eutsi egiten dio egileak ala beste sare batez ordeztu du, bigarren hizkuntza horri dagokiona? Edo batzuei eutsi egiten die, eta besteak ordeztu? Hala bada, zer irizpideren arabera aukeratuko du batzuk uztea eta beste batzuk aldatzea? Eta, beste maila batean, horretaz guztiaz kontziente al da autoitzultzailea? Hizkuntzaz bezala, identitatez mudatzen da?

Postestrukturalismoaren jarraitzaileak luze-sakon mintzatu izan dira bestetasunaz eta botere hegemonikoak Bestea ikusteko moduz. Aiora Jakak tesian gogorarazten duenez, «Foucault, Lacan, Deleuze eta Guattari irakasleek subjektuaren azterketaz idatzitako lanen haritik, objekturik eta testuingururik gabe subjekturik ez dagoela baieztatzen da, eta gizakiak diskurtsoz, hau da, hizkuntzaz osatuta daudela eta identitate finkorik ez dutela azpimarratzen da» (Jaka 2012: 45). Gaur egun aski onartuta dago identitatearen pluraltasuna eta aldakortasuna, eta beti dagoela testuinguru kultural, denborazko eta geografiko bati lotuta, ezin baitaiteke horietatik kanpo ulertu.

Europar mendebaldeko kulturari eta horren instituzio-egiturei eman izan zaien autoritatea krisian dagoela adierazten du postmodernismoak (Esparza eta Lopez Gaseni 2015: 8). Gaur egun itxuraz dugun aukera aniztasunarekin, “bestea” mehatxagarri bihur dakioke gure identitate kulturalari eta kultura batekiko gure atxikimenduari. Nolabait, identitatea konplexua eta dimentsio ugarikoa izanik, subjektu postmodernoa ez du munduaren esperientzia bateratua jasoko, eta kanpoko aniztasun hori beretzat hartzen du norbanakoak, haren barruko pluraltasuna sustatuz (Esparza eta Lopez Gaseni 2015). Identitatea etengabeko krisian dagoen kontzeptu bihurtu dela eta, Diego Bermejok identitateari ikuspegi postmodernotik begiratzen dio, eta “zeharkako identitatea” kontzeptu interesgarria proposatzen du.

Mediante el término de *transversalidad* se responde positivamente «al reto de pensar la paradoja de la identidad concebida y experimentada en condiciones de movilidad, complejidad y pluralidad radicalizadas. Se tratará propiamente de una *identidad en tránsito* y de una *identidad como tránsito*, transitiva, transida, atravesada, transversal» (ibid<sup>39</sup>: 57) (Esparza eta Lopez Gaseni 2015: 20).

Mugikortasuna, dinamikotasuna eta aldakortasuna egozten zaizkio, bada, gaur egungo gizarte konplexuetako identitateei.

Postmodernismoaren barruan, betiere, ikasketa postkolonialek ere arreta berezia jarri dute identitatearen eta bestetasunaren eraikuntzaren azterketa horretan. Frantsesez idazten duten autoreak hizpide dituela, Bessyk (2011) dio “literatura frantsesa” kategoria geroz eta

<sup>38</sup> Esparzak eta Lopez Gasenik apailaturiko *La identidad en la literatura vasca contemporánea* bildumako ikerlanek hainbat euskal literatura lanetan identitatea nola islatzen den aztertzen dute. Sarreran, editoreek literatura testuetako pertsonaien identitate-gatazketan jartzen dute arreta. Izan ere, fikziozko pertsonaia diskurtso ekoizle ere bada, eta literatura lanean balio semiotiko bat lortzen du (Esparza eta Lopez Gaseni 2015: 25). Literatura testuetako subjektuen identitate eraikuntzari begiratuko ez badiogu ere, aipagarria da identitatearen azterketak hartzen dituen ertz askotarikoak berresteko.

<sup>39</sup> Iturri hau ematen dute aipuko autoreek: Bermejo, Diego (2011): *La identidad en sociedades plurales*. Barcelona: Anthropos.

gehiago jartzen dela zalantzan hamaika nazionalitatetako autoreek hizkuntzaren «apropiazioa» egin dutelako. Idazle horiek guztiek pluraltasun identitario bat ematen diotenez, gainera, horrek ahuldu egiten ditu literatura kategoriak, bai irizpide nazional baten arabera ezarritakoak (literatura frantsesa), bai linguistiko baten arabera (mundu-literatura frantsesez), bai historiko baten arabera (literatura frankofonoa). Autoitzulpen jardunak arrotasun eta ez-kidetasun ukitu bat izan nahia islatzen du, beraz, Bessyren ustez. Obra bikoitz horiek, testu beraren bi “bertsioren” artean joan-etorrian dabilen oihartzun horrek ezegonkortasun identitarioa adieraziko lukeela dio. Norberaren identitatean bestetasunak dakartzan onurak azpimarratzeko, Darwiche Jabbour-en hitzak dakartza: «L’expérience de l’altérité vécue par l’écrivain dans son commerce avec la langue de l’autre, favorise une révélation à soi-même» (Bessy 2011: 49); identitate horren osakeran, beraz, idazketa elebidunak ia balio terapeutikoa izanen luke. Zalantzagarrria da, ordea, *la langue de l’autre* hori, hein batean euren ere badela iruditzen baitzaigu. Dena den, ikuspuntu hegemonikotik mintzo dira, hizkuntzen arteko parekidetasun egoera bat oinarrian dutela, Frantzia elebakar eta linguistikoki homogeen batetik ariko balira bezala.

Balio terapeutiko bera nabarmentzen du Itxaro Bordak ere autoitzulpenean: «gure kasuan itzulpena psikoterapia modu bat liteke frantsesarekin bake-eremu baten finkatzeko» (Borda 2013). Izan ere, baionarrak dio Ipar EHko idazleek maiz ez dutela beren lanak frantsesera itzultzerik nahi, inposizioaren ikur eta umiliazio iturri izan baita hizkuntza belaunaldi anitzentzat. Ondorioz, ez itzultzeak identitate baten ukazioa oinarrian duela pentsa daiteke. Baina, harentzat, (auto)itzulpena «etsaia izan eta deitu daitekeen bestearenganako bidea da» (Borda 2013). On egiten dio bere testuak frantsesez irakurtzeak, eta bere izaera (identitatea?) «berreskuratzen» zuela iruditzen zitzaion frantsesera itzultzen hasi zenean. Haren hitzetan, bada, ulertzen da badela norbera/gu-beste bitasun eta alderaketa hori, eta autore baionesari, itxuraz, bestearengana hurbiltzeko balio dio autoitzulpen-ariaketak.

Bizikidetzarako saiakera bat dela uler dezakegu; izan ere, alde bikotzat du Bordak hurbilpen hori, bestearengana hurbiltzeaz gainera, beste hori guregana gonbidatzeko modua ere delakoan: «euskara ardatz jendartearen zati erdaldunak kanporatzeko eta baztertzeko partez, gure kulturaren zurrumbilietan integratzera gonbidatzen dira» (Borda 2013). Horri loturik, Manterolak (2015) autoitzulpenaren funtzio integratzaileari buruz esandakoak ekar ditzakegu hona:

La traducción de la lengua minoritaria a la lengua hegemónica, sea el francés o el castellano, le brinda la oportunidad a un autor (...) de acercarse a sus vecinos, aquellos que viviendo en su mismo entorno y compartiendo en cierto modo su propia cultura no son capaces de leer en euskera. La (auto)traducción en este caso cumpliría con una función integradora y contribuiría a la cohesión social dentro de nuestro territorio (Manterola 2015: 85).

Zalantza sortzen zaigu, ordea, nor den kasu horietan “integratzen” dena: irakurlea, bere hizkuntzan “euskal” testu bat irakurriz, ala autorea bera, euskarazko testua “beste” irakurle horientzat itzuliz. Izan ere, zubiak eraikitzea dakarren heinean, baliteke itzulpena kohesioa edo komunikazioa sustatzeko modu bat izatea; alta, gure testuinguruan, integrazioa

dakarrela esatea arantzatsuagoa da, berriz ere hizkuntzen, eta, beraz, hiztun-komunitate horien eskubide linguistikoen ez-parekidetasun egoera batean (eta, partez, horren ondorioz) sortzen delako itzulpena.

Ildo beretik, Dolharé-Çaldumbidek (2013) bestetasunaren estetika bat dakusa Itxaro Bordaren autoitzulpen lanean. Are gehiago, norberaren eta bestearen arteko mugaren dialogoaz mintzo da, Bordaren lanetan agertzen den niaren eta ez-niaren arteko mugaren gaia autoitzulpen jardunean islatzeaz. Honela dio:

C'est dans cette perspective qu'il faut comprendre l'apparition nécessaire de l'autotraduction dans le travail d'Itxaro Borda : il ne faut pas la considérer comme un cheminement vers une langue idéale qui serait constituée de l'addition de langues déjà existantes, mais comme un désir d'ouverture sur l'interrogation profonde de cette œuvre, qui concerne la question des rapports entre soi et autrui, sans lesquels il n'est pas d'identité (Dolharé-Çaldumbide 2013: 98).

Beraz, norberaren eta bestearen arteko dialogo horrek, bien arteko joan-etorriak egiten du identitatea ikertzailearen ustez. Hain zuzen, Paul Ricoeur-ek (2004) autoitzulpena hizpide zuela proposaturiko distantziaren hermeneutika aintzat har daitekeela dio Dolharé-Çaldumbidek; norbere obra itzultzeko, autoreak idatziz emandako testuaz desjabetu behar du, bestetasunaz ohartuz, gero presente berri batean berriz horretaz jabetzeko, hizkuntza berri baten «abegia» (*hospitalité*) eskainiz. Ondorioz, Itxaro Bordak bere lanak itzultzea erabakitzen du bere idazketa landu ez ezik obra osoko gaian sakondu nahi duelako, « celle de la singularité profonde de toute identité (identité du moi, d'une langue, d'une culture, d'un peuple), qui n'existe paradoxalement que dans le choc de la rencontre superficielle avec l'altérité » (Dolharé-Çaldumbide 2013: 99). Alegia, identitate ororen berezkitasuna izanen luke Bordak ardatz, existitzeko bestetasunarekin talka egin behar duen hori bera. Esanen genuke beti gertatzen dela talka/gatazka bat norbera/gu-bestearen harremanean. Izatekotan, bada, gatazka ikusgarri(ago) eginen da autoitzulpenean, eta, ondorioz, Bordaren kasuan.

Hizkuntza izaterako edo identitaterako sarbidea bada, hizkuntzaz aldatzeak beste identitate batera sartzeko bidea emanen duela pentsa daiteke. Elin-Maria Evangelistak bigarren hizkuntzan idaztean identitate berri bat sortzen ote den du hizpide “Writing in translation: A new self in a second language” (2013) artikuluan. Zehazki, aztergai ditu «[t]he consequences to language, identity and voice when a writer 'translates' him/herself by writing in a second language, in the presence of this sense of continuous duality» (Evangelista 2013: 178). “Bigarren hizkuntzan idaztea” darabil autoitzulpenaz mintzatzeko, hasieran zehazten duenez. Horrela, idazle elebidunaren baitan bi identitate ote dauden aztertzen du, eta autoitzulpen prozesuan batz gabetzen ote garen, “galera” ba ote dagoen, alegia. Izan ere, gehienetan autoitzulpena izatearen galeratzat hartzen baita, eta lehen hizkuntzari egindako traiziotzat. Bigarren hizkuntza hautatzea halaberharrez edo aukeraz egiten den bereizten du, bigarren hizkuntzarekin izandako esperientziak idazketa bera baldintzatzen duelakoan. Hain zuzen, izatearen eta hizkuntzaren elkarreaginari buruz, Mary Besemeres ikertzailea aipatzen du: «Besemeres believes bilinguals live inside conflicting versions of selves and that a choice seems necessary between these two

selves/languages» (Evangelista 2013: 179). Beraz, berriz ere, uste horren arabera badirudi izatea bat eta bakarra dela eta horrek elkarren kontrako bi bertsio dituela elebidunen kasuan. Artikuluak ez du argi uzten izatea zer den eta elebidunen dualtasuna zertan datzan. Azkenik, Evangelistak ondorioztatzen du identitatearen galera edo jatorrizkoari traizioa egitetik urrun, “irabazi” modura uler daitekeela autoitzulpen prozesu hori, eta beste ikertzaile edo idazle batzuen aipuetan oinarrituz, irabazi horiek zerrendatzen ditu; besteak beste, lehen hizkuntzarekiko loturetatik aske aritzeko aukera eta ikuspegi bikoitzaren jabe izatea aipatzen ditu. Ondorioz, horretan oinarrituta, esan daiteke izatearen beste aspektu batzuk arakatzeko aukera ematen duela autoitzulpengintzak. Konparazio batera, Sara Kippur-ek (2015) Federmanen obra autobiografikoa eta horren autoitzulpen ugariak alderatzen ditu, eta ondorioztatzen du Federmanek kolokan jartzen duela “autorea”ren irudi estatikoa, itzulpenaren bidez bere buruaren errepresentazio askotarikoak egiten dituen (Kippur 2015: 66). Ez dago, bada, testu finkorik, bizitza edo istorio beraren hainbat aldaera baizik, baita edizio elebidunetan ere. Kippurren (2015: 60) hitzetan, «the discrepancy across versions of this life story suggests a willingness to accept the lack of a dominant or authoritative narrative». Alta, autoretasunaz baliatuta egiten duela esanen genuke, hots, jolas horretan ibil daitekeela, istorio beraren hamaika aldaera sor ditzakeela oinarri duen lehen idatzia bere obra delako. Nolanahi den, ikertzaileak nabarmentzen duenez, «the dynamic textual mobility of self-translation affords the perpetual mouvance of the author» (Kippur 2015: 68). Autoitzulpenak *mouvance* hori ahalbidetzeak ez du esan nahi, ordea, beti betetzen denik (Arrula-Ruiz 2017).

Honezkero behin baino gehiagotan esan dugu gurean ofiziala ez den beste hizkuntza batera iristeko euskal literaturak autoitzulpenaren bidea hartu ohi duela. Horren ondorioz, «en cierto modo, se ha ofrecido una imagen de la cultura vasca como parte integrante del sistema español y, por consiguiente, los autores vascos se catalogan como periféricos dentro del sistema central español» (Manterola 2015: 85). Hasieratik bertatik egotziko dio beste hizkuntza horretako irakurleak espainol identitatea egileari euskal autore baten liburua hartzean. Espainolaren<sup>40</sup> mende geratzen den azpi-identitate bat litzateke euskaldunarena, bada, edo «mendeko diferentzia bihurturik», Apodakaren (2015: 246) hitzetan.

Zokoratze edo periferiko bihurtze horren ondorioak azaleratzen ditu Manterolak (2015: 85-86): «De esa manera, la imagen que se ha difundido en el exterior es de una cultura minoritaria, rural y tradicional, eliminando o ignorando los matices que pueda haber al no mostrar la complejidad que existe en su interior». Identitatearen logika hierarkia-zale horretan, identitateen asimetria eta funtzio-banaketa zurrana egiten da, eta identitate eskubide-emailea zein den argi uzten. Manterolak aipaturiko kanpo sailkapen horrek, ordea, testuan bertan zer-nolako eragina duen edo testua baldintzatzen ote duen ez dezakegu esan. Elkar eragiten duten hainbat maila ditugu: gutxienez, autorearen jarrera bere identitateekiko, autorearen jarrera itzulpen-arietarekiko, testua bera eta kanpo faktoreak liratekeen horiek (merkatua, sistema eta irakurlea).

---

<sup>40</sup> Frantsesarekin ere orobat gertatuko dela esanen genuke.

Ildo beretik, Antón Figueruok (2004) ohartarazten du kultur produktuak esportatu eta inportatzeko politikak sustatzean (hala nola itzulpen-politikak sustatzean) kultur truke horri ematen zaion funtzioari kasu egin behar zaiola:

Por esta tendencia a la ficcionalización de los productos importados, artísticos o no, cuando una cultura es poco conocida, surge la tendencia a la interpretación exótica del producto y, en función de los intereses del campo, a la importación (o exportación) exótica. Creo que se podría decir que el exotismo es un modo de interpretación ficcional de lo pragmático de la cultura ajena. Por esta razón, creo que se hace necesario tratar de verificar si un producto se importa o exporta como producto literario o artístico, es decir como producto de una dinámica histórica, o si, por el contrario, se importa lo pragmático como producto exótico y, mediante el procedimiento ordinario de la ficcionalización automática, se lo convierte en espectáculo (Figueroa 2004: 533).

Aipuz baliatuta, Iratxe Retolazak euskal literaturaren egoerarekin lotzen du hori: «En los mecanismos y políticas de traducción y de exportación de la literatura vasca cada vez se aprecian más políticas culturales que fomentan la exotización del producto cultural» (Retolaza 2011: 231). Esan dezakegu, bada, produktuaren exotikotasuna sustatzen delarik, euskal identitatearen exotikotasuna eratortzen dela; 3. atalean ikusiko dugunez, barne-mekanismo bat ere bada hori, euskararen muga geografikoen barruko kultur politikek sustatzen baitute maiz autoitzulpena.

Autoitzulpenek horien sorburuan dauden errealitate soziokulturalak eta politikoak adierazten dituzte, eta errealitate horiek eragina izanen dute bai idazketa- eta itzulpen-prozesuan bai emaitzaren nolakotasunean. Azpiatal honetan esandakoak erakusten du tresna teorikoak behar ditugula autoitzulpenaren azterketan identitateari begiratzeko. Horregatik, hurrengo azpiatalean, identitateari buruzko teorizazioa egin eta autoitzulpenaren ikerketari ekarpena egin diezaioketen bi teoria ekarriko ditugu.

#### 2.4.2. Autoitzultzailearen identitatea(k)

«Pentsatzen dut nire izena / nire izana dela, / eta ez naizela ezer ezpada / nire izena.»

Gabriel Aresti (1982: 30)

Autoitzulpenari buruzko gogoetatan, jarraian ikusiko dugunez, ohikoa da “identitate bikoitz”, “erdibitu” eta gisakoak irakurtzea, sekula horren argibide teorikorik egin gabe. Gaiari argi eman nahian, autoitzultzailearen identitate konplexua izanen dugu azpiatal honetan hizpide, teoria psikosozialen bidetik. Horri heldu aitzin, ordea, identitatearen definizio bat emanen dugu, Ibai Iztueta Azurmendiren *Cultura vasca vs Euskal kultura* ikerlanetik (2015) hartua:

Identitatea defini liteke esanez norbanako baten edo talde baten “nitasun” sentimendua dela. Horrela, bada, identitatea norbanakoen nahiz taldeen propietate bat

izango da, hots, gu besteengandik bereizten gaituzten ezaugarrien jabe izatearen *kontzientzia*.

Kontzientzia berezia da, horratik. Izan ere, antzeko izan arren, nahastu behar ez diren bi aurpegi ageri baititu: izena eta izana. Hala, identitatea zedarrizten da izanari – *zerbaiti*– izena ematen zaionean. Baina baita bestela ere: izena ematea nahikoa izan daiteke, handik izana eta identitatea eratortzeko. Identitatea, hortaz, izanaren gaineko kontzientzia bezala, izenetik edo izendapenetik eratorritakoa izan liteke (Iztueta 2015: 217).

Beraz, identitateak bereizgarritasun bat(zuk) dakar(tza), eta horretaz kontziente izatea nahitaezkoa litzateke identitateaz mintzatzeko, zeren identitatea bi aldetatik, izana eta izenetik, erator daitekeen kontzientzia baita, Iztuetaren (2015) arabera. Hain zuzen, zehazki pertsona-izenei buruz ari dela, Eduardo Apodakak izendatze jardunaren bidez normaldutako bereizte bat gertatu dela dio: «izendatze-praktikak *euskal diferentzia* eraikitze bide ugarien katalogoan sar ditzakegun jarduerak dira, beste kasu askotan bezala berreskuratze gisa kontatu eta legitimatu diren jarduerak» (Apodaka 2015: 35). Bestalde, baina ildo beretik, bereizgarritasunez eta diferentziaz mintzo bagara, zerbaitengandik bereiziko gaituen zer bat behar dugu, *beste* bat, alegia.

Horrela, identitateak bereizgarri bat behar du halakorik egonen bada. Iztuetaren (2015: 222) hitzetan, «[e]zberdintzea beharrezkoa da, identitaterik eraikiko bada. Identitatearen edozein bertsioaren eraikuntzan, “bestearekiko” alderaketa eta “bestearekiko” ezberdintasun mekanismoek oinarrizko zeregina dute». Alderaketa hori, ordea, ez du norberak soilik egiten: «Jorge Larrainek (2001: 28) dioen legez, geure buruaren definizioa eraikitzen dugu besteek geure buruaz duten ikuspegiaren arabera. Eta “bestea” delako hori askotarikoa izan liteke» (Iztueta 2015: 223). Beraz, esan dezakegu joan-etorriko bidaia bat dela hori ere, aldebikoa, harremanean egiten den eraikuntza sozial, aldakor, ideologiko eta historikoa.

Identitate kolektiboaz ari garelarik, horri ematen zaion diskurtsoa nolakoa, halakoak izanen dira eraikitzen diren harremanak, eta, ondorioz, eragina:

Hala, Euskal Herrian jatorri eta esperientzia ezberdinetatik iritsitako jendea bizi gara eta ez dago argi “gu” delakoa zein konstantek definitzen duen. Bakoitzak baditu jatorri eta esperientzia horri atxikitako emozioak eta, ondorioz, nortasuna eta kultura definitzeko behar jakinak eta premisak.

Gaur egun, kultura terminoa da “gu”az, hau da, nortasun kolektiboaz aritzeko erabiltzen dena. Apodakak (2007: 95, 96) adierazten duen gisan, kulturari buruzko diskurtsoen zeregin modernoa bereizketaren legitimazioa izan da, bi ardatz edo dimentsiotan. Lehenengoak gizartearen baitako ezberdintasunei egiten die erreferentzia eta bigarrenak, berriz, herrien arteko ezberdintasunei. Baina, subordinazio egoeran izanik, euskal kultura delakoarekin gertatzen dena da auzitan jartzen dela bi ardatz hauetako zeinetan kokatu behar den. Izan ere, “euskal kultura” izendapena bi dimentsio hauetan naturaltasun handiz uler baitaiteke (Iztueta 2015: 342).

Herri azpiratuen edota estatus gabekoen kasuan, identitate kolektiboa edo “gu” delakoa definitzea arazotsua gertatzen da, zeren «estatu-nazioan “gutasuna” berez bezala zehazten laguntzen duten konstante horiek guztiak –hizkuntza, erakundeak, lurraldetasuna, jatorri

bateratzaileari buruz ofizializaturiko historia– desitxuraturik ageri baitira» (Iztueta 2015: 343). Problematikoa gerta daiteke identitatearen eraikuntza, izan gu-norbera izan Bestea eraikitzerakoan, eta horrek ondorioak izanen ditu, bada, bien arteko harremanetan edo harreman ezan. Nolanahi den, identitate kolektiboa banakoek konpartitzen duten «bereizgarri biltzailea» (Apodaka 2015: 253) izanen da; biltzeko ahalmena unekoa da eta diskurtso nahiz praktiketan oinarritzen da, eta identitate kolektiboa praktika komunen ondorioz etorriko da. Horrela, gizarteak, historiak eta identitatearen narrazioan eta interpretazioan parte hartu duten taldeek zuzenean baldintzatzen dute identitatea ulertzeko dugun modua.<sup>41</sup> Zentzu horretan, Michael Croninek (2006: 50) dio itzulpenak lagun dezakeela identitatea “dialogical self” batean kokatzen, eta hori etengabeko elkartzeen eta harremanen ondorioz garatuko litzateke. Ikuspegi horren arabera, diferentziak lotura funtzioa izanen luke, banatzekoa baino gehiago.

Hain zuzen, Croninek (2006) egin du ideologiatik identitaterako beharrezko jauzia itzulpen ikasketetan. Itzulpena erdigunean jartzen du mundu garaikideko (ekonomia eta gizarte industrial eta postindustrialetako) identitateari eta botereari buruzko eztabaidak ulertzeko. Croninek (2006) erakusten du itzulpenak rol esanguratsua izan duela diskurtso soziopolitikoak egituratzeko orduan, eta aztertzen du itzulpena zer modutan agertzen den identitate askotarikoen eraikuntzan. Eredu “mikro kosmopolita” aurkezten du, maila lokalean eragin duena; horrela, arrotasun kultural eta linguistikoa, diferentzia eta hartumana maila lokalean kokatzen ditu (Cronin 2006: 16-17), eta kulturarteko dialogoa sustatzeko nahiz dibertsitatea babesteko itzulpenak duen garrantzia nabarmentzen du. Ekarpen handia da Croninena (2006), gure aztergaia gainditzen badu ere.

Autoitzulpenari buruzko teorizazioan, berriz, irudipena dugu errazegi datorrela idazlearen identitatea hizpidera, aipatu hizkuntza eta kultura bitasunari lotuta. Esaterako, Paschalis Nikolaouk (2005) dio transposizio linguistikoarekin hasten den autoidentitate ariketa bat dagoela norbere obra itzultzearen jardunean. Identitate bikoitz bat, beraz, konplexua, zeinaren bidez sortzaileak bere partaidetza eta erreferentzia markoei loturiko diferentziak ezagutzen baititu (Lagarde 2013). Hain zuzen, Eva Gentesek honela dio: «Self-translation is considered to be a way of balancing both of the self-translator's identities, since the preference given to one language is only temporary» (Gentes 2013: 268). Norbere identitatea bilatzeko eta definitzeko bidetzat ere aurkeztu da autoitzulpena (Flores Silva 2017: 176 eta 181). Identitate bikoitz batez mintzo dira denak; are gehiago, bada tarteko identitate bat (*in between*) hizpide duenik ere (Cocco 2009: 111). Idazle elebidunak erreferentzia sare bat eta iruditeria oso bana lotuko dizkie hizkuntza bakoitzari, bai erreferentzia pertsonalak (jarrera, sentimenduak...) bai kolektiboak. Izan ere, Iztuetak (2015) berak dioskunez, hizkuntza bat hautatzeak bestelako hautu batzuk ekar ditzake berekin; hori ilustratzeko, dilema ezagun batez baliatzen da:

“Bidezkoa al da pertsona bat sakrifikatzea, hori eginez bost salbatzerik badugu?”  
galderak planteatzen duen dilemaren aurrean, beraz, dilema pentsatzen deneko hizkuntzak hartuko den erabakia eragingo du. Emaitzen arabera, jendeak maizago

<sup>41</sup> Esate batera, Chantal Gagnon-ek honela dio: «ideological shifts in Canadian translated political speeches are closely related to different identity redefinitions as they have occurred in the course of Canadian history» (Gagnon 2006: 217).



aukeratu ohi du pertsona bakar horren sakrifizioa dilema bigarren edo atzerriko hizkuntza batean planteatzen denean, norbere hizkuntzan galdetzen zaionean baino. Era berean, esperimentuek agerian utzi dutenez, hiztunak bigarren hizkuntza horretan duen konpetentzia zenbat eta handiagoa izan, dilemaren aurrean osagai emozional edo intuitiboak hartuko duen pisua ere handiagoa izango da, pragmatiko edota arrazionalaren kaltetan (Iztueta 2015: 337).

Horrela, bada, emozioek zer esana izan dezakete arrazoitze-prozesuan; gogoan har ditzakegu Evangelistaren hitzak (2013), bigarren hizkuntzarekin izandako esperientziak idazketa bera baldintzatzen duela baitzioen. Ondorioz, gurera ekarrita, hizkuntzaz aldatzean, horietako bakoitzarekiko jarrerak, lotura afektiboak eta abarrek eragin lezakete itzulpen-prozesuan hartuko ditugun erabaki eta baliatuko ditugun estrategietan.

Itzulpen ikasketetan identitateari eman zaion erabilerara itzulita, Cuciucen (2012) ustez, idazle-itzulzaile bitasunak antonimo bikote hauek txertatzen ditu autoitzulpen literarioan: a) ego/alterego eta b) identitatea/bestetasuna. Beharbada kategoria zurruneziak dira horiek; izan ere, ez da itzulzaile-idazle jardun behar identitate-sare konplexua izateko. Urrun joan beharrik gabe, hor dugu Pessoren kasua, hamaika heteronimo sortu baitzituen. Esan dezakegu, baina, heteronimo bakoitzarekin poetak bere burua itzultzen zuela? Ahots edo identitate horietako zein zen Pessoa? Guztien batasun bat? Ez diegu galdera horiei zehazki erantzunen, eta zuzenean saiaturiko gara traduktologiatik begiratzen identitatearen eraikuntzari, orain arte gurean ez beste giza zientzietan egin denez.

Zientzia sozialetan, identitatea pertsona (identitate indibiduala) edo taldea (talde sozial jakin bat) egiten duten ikusmolde, nolakotasun, sinesmen, praktika diskurtsibo multzoak dira. «Identitatea eguneroko praktiketan nahiz erritual edo jazoera berezietan, berariaz edo oharkabean, sortu eta negoziatu, landu eta bizitzen den kode berezi bat» dela dio Apodakak (2015: 31); praktika sozialen efektu, beraz.

Filosofiak logikaren ikuspegitik begiratu izan dio bereziki identitate indibidualari eta horren eraikuntzari. Izate indibidualaren galderari, hots, “zerk egiten du egia pertsona bat gauza bera izatea bi denboratan?” galderari, identitate numerikoaren bidez eman izan diote erantzun eztabaidagarria: X eta Y numerikoki identikoak direla esateak esan nahi du X eta Y gauza bera direla (Noonan eta Curtis 2017). Bestalde, Lockek zioen identitatea (izatea, *self*) kontzientzian zetzala, ez ariman edo gorputzean, beste garaiko teoriariek aldarrikatzen zuten bezala. Filosofiatik joko ez dugun arren, aipagarri dira “kontzientzia” eta “berberatasun” (*sameness*) kontzeptuak, identitateari beste alorretatik begiratzen diogunean ere aterako baitzaizkigu. Izan ere, aurrerago aipaturiko dugunez, identitatea ustez berdinak (identikoak) ditugun praktikak izendatzeko modua da, eta «praktika horiek berdin(tzat) hartzetik sortzen da identitatea» (Apodaka 2015: 61); hots, praktikei emandako interpretazioa da.

Psikologiak ere identitate indibidualari egiten dio gehienetan erreferentzia, pertsona bat bakan egiten duten ezaugarri idiosinkrasikoei begiratzeko; bi teoria nagusitu dira arlo horretan, ikuspegi biologista, batetik, eta psikoanaliaren teoria, bestetik. Bi horiek identitate sozialaren eta indibidualaren arteko bereizketan sakondu eta bigarrenaren alde egin dute (Pujal 2004: 101). Soziologia, aldiz, identitate sozialaz jarduten da norbanakoa definitzen duten talde-kidetasun multzoak deskribatzeko. Besteak beste, “identitate

negoziazioa” kontzeptuaz mintzo dira soziologoak; esperientzia pertsonalaren bidez rol sozialak ikastetik sortzen da negoziazio hori, norbanakoak gizartearekiko egiten duen prozesua litzatekeena. Bereizketa dikotomiko hori (identitate indibiduala eta identitate soziala) arras erroturik dago Mendebaldeko kulturaren, nahiz eta behin baino gehiagotan kontra egin dioten (Pujal 2004, Cronin 2006). Psikologia sozialak ere dikotomia hori apurtu eta, besteak beste, izate indibiduala ingurumen sozialarekin nola harremantzen den aztertu du. Elkar elikatze hori honela azaltzen du Margot Pujal i Llobart-ek (2004: 101): «la identidad social y la identidad individual no son realidades separables, sino que se constituyen mutuamente; y lo hacen por medio de lo social, cultural e ideológico que es inherente al lenguaje que utilizamos cuando narramos cualquier aspecto relacionado con el yo». Bestela esanda, norbanakoak praktika diskurtsiboaren bitartez egiten duen eraikuntza soziala da identitatea. Errepresentazio sozialei loturik landuko dugu hizkuntzaren gaiak identitatean duen eragina.

Erik Eriksonen lan handia egin du arlo honetan; teoria psikosozialetik begiratu dio identitateari, eta hiru multzo bereizten ditu: izatea (*ego-identity* ere deitzen zion), identitate indibiduala eta identitate sozial edo kolektiboa. Lehenak jarraitutasunaren zentzu psikologikoa luke, bigarrena ezaugarri idiosinkrasikoen multzoa litzateke, eta hirugarrenak rol sozialen bildumari egiten lioke erreferentzia. Eriksonen norbanakoaren bizitza osoan aztertu zuen identitatearen eraikuntza. Teoria psikosozialaren jarraitzaileek autoestimua eta diskriminazioa ere hizpide dute identitateaz hitz egitean; izan ere, batetik, norbanakoek autoestimu positiboa lortzen dute beren identitate-taldeengandik eta, bestetik, talde barruko pertsonak lehenesteko joera dago “kanpotar” (norbera parte den talde jakin horrekiko) diren horien kaltetan: «La consecuencia de esta división entre nosotros/ellos es el etnocentrismo, es decir, el *favoritismo* hacia el propio grupo y el desprecio, la *discriminación* y, eventualmente, la agresión hacia el grupo contrario» (Pujal 2004: 119). Estrukturalistek dioten bezala, erlazioan datza diferentzia, eta elementuak elkarrekin erlazioan jartzetik, hots, oposizio batetik eratortzen da zentzua. “Diferentziazio” prozesua ere erlazio horretan ikus dezakegu, esperientzia sozial eta indibidualen hautatzeari bide ematen diona:

El proceso de diferenciación<sup>42</sup> se produce cuando los ámbitos de las experiencias individuales y sociales se multiplican, y cada uno de esos espacios se organiza dependiendo de lógicas, formas de relaciones, culturas y reglas diferentes una de otras; por tanto, es imposible moverse de un ámbito a otro transfiriendo los mismos modelos de acción, es decir, cada vez que se opera un cambio de espacio deben adoptarse las reglas, códigos y lenguajes que lo conforman (Esparza eta Lopez Gaseni 2015: 16).

“Espazio” batetik bestera aldatzean, bada, espazio berriaren joko-arau guztiak bereganatu beharko dira, praktikek arauturiko sistema bera. Praktika horiek mugalde bat zedarritzen dutela dio Apodakak (2015: 80):

<sup>42</sup> Hautatzeko esperientzia sozial eta indibidual ugari dagoen gizarte konplexuetan hiru oinarritzko prozesu sozial daudela proposatu du Alberto Melucci antropologoak. Horietako bat da diferentziazioa, aipuko autoreek hizpide dutena; beste biak aldagarritasuna eta kultur gehiegizkoa dira (ikus Esparza eta Lopez Gaseni 2015).

Arau gisa jokatu ahal izateko, Identitateak [sic] barne-diferentziak salatzeaz gain, haiek antolatu behar ditu sistemak ezinbesteko dituen osagarri eta bereizgarriak izan daitezten. Horrela, praktika bat komun eta identikoa dela ulertzen dugunean salatzten dugu zein den partikularra eta diferentea. Egitura, identitatez bezainbeste, diferentziaz eraikitzen da, ez dago egituratzerik diferentzia barik.

Honaino iritsita, komeni da bereizketa egitea identitatearen eta identifikazioaren artean; “identitatea” etiketa bat da, eta “identifikazioa”, berriz, «hainbat konturen (gauzen, pertsonen, praktiken...) artikulazio-prozesu berezi bat da, beti gehiegi edo gutxiegi izatera jotzen duena» (Apodaka 2015: 37). Horrela, identitate indibidualaren eraikuntza gertatzen da ingurukoekiko harremanean norberaren identifikazio prozesuan (Weinreich 2003). Hurrengo azpiatalean ikusiko dugunez, Henri Tajfel eta John C. Turnerren (1979) arabera, identifikazioa da pertsonen arteko harremanetik sortzen den prozesu psikosozialetako bat; beste biak dira kategorizazioa (besteak nahiz gu geu kategoriatan sailkatzea) eta konparazioa (taldeen arteko alderaketa). Hain zuzen, identitate pertsonaletik harago, guk teoria psikosozialen bidetik egiten dugu; zehazki, kategorizazio eta errepresentazio sozialean jarriko dugu arreta, itzulpenean (baita ikerlan honetan aztergai izanen ditugun kultur erreferentzien auzian ere) zeresan handiagoa dutelakoan.

Antropologia sozialean ere, identifikazio horren bidez norbanakoek komunitate bateko partaidetza nola eraikitzen duten aztertu izan da. Soziologian bezala, “prozesua”ren kontzeptua identitateari lotzen diote antropologian, esperientzia sozial aldakor eta askotarikoa aintzat hartu behar baita. Besteak beste, Stuart Hallek (1996) artikulazio-prozesu berezitzat du identifikazioa:

In common sense language, identification is constructed on the back of a recognition of some common origin or shared characteristics with another person or group, or with an ideal, and with the natural closure of solidarity and allegiance established on this foundation. In contrast with the ‘naturalism’ of this definition, the discursive approach sees identification as a construction, a process never completed – always ‘in process’ (Hall 1996: 2).

Bi joera horiek, nolabait, bat egiten dute identitate-kontuetan, eta identitate kultural eta sozialetan nagusi diren bi fronteekin. Apodakaren (2015) bereizketa eta terminologia erabiliz, batetik, *primordialistak* leudeke eta, bestetik, *konstruksionistak*. Lehenengo joeraren arabera, «jendeek horren gaineko inongo kontzientzia hartu barik ere, egiturek joko sozialaren hasieratik eragiten diete jendeei, zer eta nor diren zehazten, mugatzen eta gauzatzen» (Apodaka 2015: 38). Primordialistetako zenbaitek sistema soziala esentzializatzeraren errotak jotzen dute eta, berezko entitatea delakoan, berezko existentzia eta esentzia dituela uste dute. Beste muturrean daude konstruksionistak, zeinek «erabaki omen dute ez dela identitatetik, askoz jota, identitate-eraikuntzako prozesuak direla onartuko digute» (Apodaka 2015: 39). Nolakoa pentsabidea, halakoa ondorioa, ez baita berdin jokatuko bide bati edo besteari jarraituta. Horri tiraka konstruksio sozialaren mugez mintzo gaitzke, naturala-eraikuntza dikotomiaz, eta horiei lotzen zaizkien balio eta ezaugarriez (besteak beste, naturala-erreal-egia eta eraikuntza-asmazioa-gezurra lotura okerrak). Gai zabalegia

da, ordea, azpiatal honetan lantzeko, eta itzulpengintzari aplikatzeko moduko teoriei helduko diegu jarraian.<sup>43</sup>

Orain, ordea, hurrengo atalarekin lotura egiteko, komeni da gogoraraztea kodetzat, interpretaziotzat<sup>44</sup> duela Apodakak identitatea eta, ondorioz, baita euskal identitatea ere, «edo hobe esan, hainbat kode, beti euskal horren inguruko gatazka eta antagonismoan, zein nagusituko borrokan» (Apodaka 2015: 32). Horrela, euskal identitateak «euskal Zera kodifikatzeko praktikak dira», eta kodea definizio eta kategorizazio-praktikak lirateke, zeinen bidez ebatzen baitugu «zer dagokion eta zer ez euskal Zerari» (Apodaka 2015: 51-52). Kategorizazio sozialaren teoria aztertuko dugu jarraian, beraz, betiere gure azterketari ekarpen bat egin nahian.

#### 2.4.2.1. Kategorizazio sozialaren teoria

Kultur identitatea kultur edo talde baten identitatea da (sentimendua, lehen aipaturiko kontzientzia), eta identitate politikoarekin antzekotasunak ditu, eraikuntza soziala eta politikoa den heinean. Geure buruari buruz egiten ditugun deskribapenak, diskurtsoak dira, zeinekin identifikatuta sentitzen baikara (Barker 2003). Niaren narratiban darabiltzagan kontzeptu eta hitzek konnotazio eta balorazio sozialak lotuta dituzte intrintsekoki, komunitate edo gizarte bateko ideologia nagusi baten ondorio direnak, oro har, eta neutrotik gutxi dutenak, positiboak izan ala negatiboak izan. Balio horiek identitate batzuk hobestera garamatzate; esaterako, gaurko European, jende-multzo handi batentzat “bertako” izateak konnotazio positiboak ditu, “etorkin” kategoriak balio negatiboak dituen bitartean.

Teoria psiko-sozialaren barruan, kategorizazio soziala da jendeak bere burua eta besteak nola ikusten dituen gizartean. Prozesu psikologikoen multzoa da, ingurua kategoriatan ordenatzera garamatzatena. Kategorizazioa sinplifikaziorako tresna praktikoa da, baina ez horregatik onbera, gizarteko talde boteredunek beren interes eta balioen arabera kontrol sozialerako erabiltzen duten tresna ere badelako.

Kategorizazio sozialaren teoriak norbanakoak jende-multzoak (bere burua barne) taldetzat jotzeko egoerak deskribatzen ditu, baita jendea talde-terminoetan hautematearen ondorioak ere. Henri Tajfel izan zen identitate sozialaren teoriaren aitzindaria, eta John Turnerrek eman zion segida.<sup>45</sup> Jendea nola hautematen dugun eta pertzepzioek gure izate sozialean zer eragin duten aztertu dute. Inguru soziala sailkatzeko, kategorizatze eta ordenatzeko tresna kognitiboak dira kategorizazioak, beraz, eta prozesu horrek ondorio du

<sup>43</sup> Ondorioetan eta bi joera horietan sakondu nahi duenak jo dezala Apodakaren *Identitatea eta anomalia* liburura.

<sup>44</sup> Interpretatzea, berriz, jardunean egiten dugu, eta «signifikatze-praktiken funtzio bat baino ez da, praktiken gainean egiten dugun praktika mota bat» (Apodaka 2015: 26).

<sup>45</sup> Zehazki, Tajfelek talde arteko harremanetako prozesuak funtsezkotzat zituen bere teorian, baina Turnerrek horiek baztertu eta kategorizazioan jarri zuen arreta. Horrela, Turnerrek (1999) proposatutako autokategorizazio prozesu kognitiboan, jendeak bere burua hiru mailako kategoriatan sailkatzen du: pertsona artekoa, talde artekoa eta espezie artekoa. Apodakak dioen bezala, ariketa horrek ondorioak ditu, noski: «Adibidez, maila bateko kategoria bat aktibatuz gero beste mailakoak gutxitzen direnez, talde arteko mailan *norberatasuna* galtzen omen da, edo talde-identitate homogeneizatzeraz jotzen da eta prototipo baten inguruan trinkotu» (Apodaka 2015: 57).

norbanakoaren ekintza sozial askotarikoa; ez du soilik mundua sistematizatzeko balio, ordea, norberak inguru horretan bere lekua identifikatzeko (egiteko) ere balio du. Harremanean egiten den prozesu kognitiboa dela esan dezakegu, ondorio sozialak dituen. Arestian aipatu bezala, Tajfel eta Turnerrek (1979) hiru prozesu psikosozial bereizten zituzten, oro har ordena honetan gertatzen direnak: kategorizazioa, identifikazio soziala eta konparazioa; pertsonak taldeetako kide direla oinarri hartuta, hiru horiek besteak eta geure burua nola hautematen ditugun adierazten dute. Norbanakoa talde jakinetako kide izateko sentimenduak eragina du besteen hautemate eta errepresentazio horietan, bada. Honela dio Pujalek (2004: 117): «*La categoría grupal*, pues, proporciona una *identidad* o posición social y, al mismo tiempo, funciona como *prisma de lectura y percepción de la realidad social* que nos rodea». Horrela, inguruak kategoriatan sailkatzeak talde horretako kideei buruzko informazioa ematen digu; era berean, gure burua talde bateko kide izateko hartzean, kontzienteki hala egitean, beraz, talde horretako arau ustezkoen arabera jardutera garamatza. Tajfel eta Turnerrek (1979) proposaturikoaren arabera, kategorizazio hori egiten denean dator identifikazioa; bere burua partetzat duen taldearen identitatea bereganatzen du norbanakoak, eta identifikazio-prozesu horretan norberarekiko estimua talde-partaidetzari lotzen zaio. Azkenik, konparazioa egiten du norbera parte den taldearen eta beste taldeen artean; aipatu autoestimua gordeko bada, konparazio horretatik “garaile” atera behar du norbere taldeak.

There have been a number of studies (...), all showing that the mere perception of belonging to two distinct groups—that is, social categorization per se—is sufficient to trigger intergroup discrimination favoring the in-group. In other words, the mere awareness of the presence of an out-group is sufficient to provoke intergroup competitive or discriminatory responses on the part of the in-group (Tajfel eta Turner 1979: 38).

Jendeak bere burua talde jakin baten partaidetzat eta ez beste baten partetzat hartzeak alderaketa eta bazterketa dakartza. Norbera emakumea, euskalduna, agnostikoa eta klase ertain-baxukoa dela esateak, adibidez, talde sozialetako pertenezia eta gizartean norberak duen posizioa adierazten du, baina baita horiekiko atxikimendu sentimendu bat ere, beste kategoria batzuk erabiliko baitzituen besteren batek egoera berean (esaterako, heterosexuala, zuria eta tabernaria). Kategoria bakoitzak rol, errepresentazio eta ezaugarri sozial jakin batzuk izanen ditu, kategoria bereko kideek konpartituko dutena, eta norberaren ideologiaren arabera izan dena.

Hain zuzen, kategorizazio sozialaren teorian, “ideologia” erabiltzen da taldekotzat jotzen den jokabideari buruz gizarteak ematen dituen azalpenei erreferentzia egiteko (Pujal 2004: 116). Kategoria sozialak huts-hutsean existitzen direla pentsatzea, bada, okerra da, atzean duten karga handia baita. Horren adierazle bat da kategoria sozial guztiak ez direla modu berean ikusgarri: talde gutxituei, azpiratuei edo botererik ez dutenei erreferentzia egiten dieten kategoriak erabiliagoak eta ikusgarriagoak izan ohi dira besteak baino; kasurako, homosexual, beltz eta euskaldun kategoriak, heterosexual, zuri eta espainol kategorien aldean. Eskura ditugun kategoriak ere aldatu egingen dira denborarekin; kasurako, garai batean “emo” kategoria ez zen existitzen eta, gaur egun, Euskal Herrian, egon, bada. Laburbilduz, beraz, gizarte edo herri bakoitzak bere egitura sozialen, balio soziokulturalen,

historiaren eta garaiaren arabeko kategoriak izanen ditu eskura,<sup>46</sup> eta horiek baldintzatuko dituzte identitate sozialak. Hain zuzen, horiek bigarren mailan uztea egozten dio Apodakak (2015: 57) teoriari:

Egia da, bai Tajfelek eta bai Turnerek kontuan hartu zutela kategoriek ez dutela balio bera eta talde-kidetzekin batera, talde arteko hierarkiak bereganatzen dituela jendeak. Horregatik azaldu nahi izan zuten talde kaltetutako kideek nola egiten zioten aurre halako galera bati; baina ez zuten ikertu hierarkia eta galera/onura banaketaren nondikoa. Eta aintzat hartu behar da, ezinbestez, kategoriek badutela testuinguru sozial, kultural eta historikoaren arabera izaera eta ondorio desberdinik. Eta kategoriak ez direla behin betiko eta berez sortu diren “marko kognitiboak”, kategoriak etengabe sortu, negoziatu eta eraiki behar diren “marko sinbolikoak” dira. Marko horiek, bistan da, praktiketan egikaritu behar dira.

Horregatik dakartza Apodakak (2015: 57-58) hizpidera Sheldon Stryker-en eta Peter J. Burke-ren lanak, identitate teoria integratzaileago bat eskaini dutelakoan. Rolak (posizio sozialak) negoziatu behar direla eta negoziazio horiek egitura sozialetan egiten direla nabarmentzen dute biek, eta negoziazio horiek taldekideekin ez ezik beste taldeetako kideekin ere egiten dira. «Social roles are expectations attached to positions occupied in networks of relationships; identities are internalized role expectations» (Stryker eta Burke 2000: 286). Hortaz, barneraturiko rolak bete behar dituen aldetik edo taldekidea den aldetik, identitateak zentzu multzoak sortzeko praktikak dira; Apodakak (2015: 58) berak egiten duen lotura<sup>47</sup> berretsiz, horrek zuzenean garamatza atal honetako bigarren aztergaira, Errepresentazio Sozialen Teoriara, berehala ikusiko dugunez.

Hiztun-komunitateek ere kategoriak osatzen dituzte, zeinak diskurtsoaren, atxikimendu emozionalaren eta prozesu sozio-kognitibo baten bidez osatzen baitira. Susmoa dugu testuinguru diglosiko batean, hiztun-komunitateetako pertenezak ez direla maila berean eta gatazkarik gabe gertatzen. Hots, norbanako batek bi hiztun-komunitateko kide delako kontzientzia izan dezake, bi hizkuntzetako hiztuna baita, eta hala ere, kategoria horietako baten parte aktibo izanen da. Plano orokorrago batean, hitz-hartze orok, hizketa ekintza orok norbera eta solaskidea harreman sozial batean jartzen ditu, kategorizazioa dakarrena, izan talde berekotzat izan beste kategoriakotzat. Kategorizazio sozialari hizkuntzalaritzatik begiratu dion ikertzaile urrietako bat da Paul Wald (Véronique 2012), zehazki, Afrikako kolonia frantses izandakoetan. Egindako azterketetan ikusi du erabiltzen den inguru sozialaren arabera, frantses hizkuntza norbera eta bestea kategorizatzeke ezaugarri izan

<sup>46</sup> Kasurako, autorearen eta itzultzailearen arteko bereizketa ez du garai orotan patroiz berak moldatu (Recuenco 2011: 199); gaurkoaren bestelakoa zen, demagun, *belles infidèles* itzulpenen garaian, baita lehen ikusi dugun Orixeren kasuan ere.

<sup>47</sup> Honela azaltzen du Apodakak (2015: 63-64): «Kodetzea, beraz, zeinua egitea da: adierazlea eta adierazia elkarrekin jostea. Baina signifikatze-praktikak ez dira “zeinugintza” horretara mugatzen; haien gainetik edo, artikulazioak ditugu. Kodetzearen emaitza praktikaren esanahia zehaztea bada ere, artikulazioak harago jotzen du. Artikulazioek zentzua eta balioa argitu behar dizkigute. Esan liteke kodetzean denotazio-puntua zehazten dugula, esan nahi duguna zehazten dugulako, eta artikulazioaren bidez, berriz, esanahi hori beste askorekin lotuz konnotazio-sarea zabaltzen dugula. Artikulazioa da, hortaz, praktikak, eta haiek gauzatzeko bideak zein materialak (gauzak, sinboloak, instituzioak...) bereiztea, desberdintzea, kokatzea, sailkatzea, mugatzea, batzea, uztartzea... Artikulazioa “zentzugintza” da eta hura oso kontuan hartu beharko dugu identitate-aferrak argituko baditugu».

daitekeela. Azterketarik egin gabe, esanen genuke hala gertatzen dela beste hizkuntzekin ere. Honela dio maila orokorrago batean Waldek:

[T]out acte de parole est trace de catégorisation sociale et tout effet de discours passe par son interprétation [...] Tout acte langagier comporte, ne serait-ce que par défaut, un acte de mise en place des rapports à autrui dans l'interaction – qui peut être elle-même « effective, imaginaire ou inféré » – et tout acte langagier entraîne l'imputation, au sujet de l'acte, de la mise en place de quelque dispositif dialogique de ces rapports (Véronique 2012: 15).

Igorle-hartzaile elkarrekintza linguistiko orotan legoke, bada, kategorizazio sozial bat, bai igorlearen, bai hartzailearen aldetik. Gainera, testuinguru elebidun edo eleaniztunetan, hizkuntza batetik bestera egitean hizlaria beti ari da bere irudi bat sortzen (Suchet 2014: 274). Hizkuntzaren bidez, bada, posizionatu egiten ditugu norbera eta bestea, solaskideen eta norberaren irudiak sortzen. Honela azaltzen du Linda Alcoffek (1991-92: 10):

in speaking for myself, I am also representing myself in a certain way, as occupying a specific subject-position, having certain characteristics and not others, and so on. In speaking for myself, I (momentarily) create my self – just as much as when I speak for others I create their selves – in the sense that I create a public, discursive self, which will in most cases have an effect on the self experienced as interiority. [...] The point is that a kind of representation occurs in all cases of speaking for, whether I am speaking for myself or for others, that this representation is never a simple act of discovery, and that it will most likely have an impact on the individual so represented.

Gure ikergaira ekarrita, galde dezakegu bere burua itzultzen duen idazleak, itzulpen-prozesu horretan, zein gizartekotzat dituen bai bere burua bai irakurleak; hots, nola posizionatzen den, zer kategoriaren barruan. Baliteke, ondoren, hartzen duen posizioaren araberako itzulpen-hautuak egitea. Azterketa xehea egitean (6. atala), hemen esandakoak berreskuratuko ditugu autoitzulpenaren azterketari aplikatzeko.

#### 2.4.2.2. Errepresentazio sozialaren teoria

Serge Moscovicik jorratu zuen lehenengoz irudikapen edo errepresentazio soziala 1961ean, psikoanalisia aztertzen ari zela. Emile Durkheimen “errepresentazio kolektiboak” kontzeptua hartu zuen abiapuntutzat, zeinak errealitate soziala hautemateko, ebaluatzeko eta hortaz pentsatzeko modu konpartituei erreferentzia egiten baitie. Soziologiatik baino, psikologia sozialetik begiratzen die Moscovicik. Bere arabera (2000: 30-31), Durkheimen kontzeptu hori heterogeneoegia zen, jakintza eta sinesmen oro barnebiltzen baitzituen, baita estatikoegia ere gizarte garaikidea ulertzeko, besteak beste, ez duelako aldakortasuna eta dinamikotasuna aintzat hartzen. Huts horiek gainditzeko asmoz sortu zuen Moscovicik “errepresentazio soziala” kontzeptua. Orduetik, hainbat arlotako ikertzaileak batu dira teoriaren garapenera, eta ez ditu kritika gutxi izan.<sup>48</sup>

<sup>48</sup> Kritika horietako zenbait biltzen ditu, esaterako, Howarthek (2006).

Errepresentazio soziala balio, ideia, metafora, sinesmen eta praktika *stock* bat da, talde edo komunitate bereko kideek konpartitzen dutena. Itzulpengintzan eta identitateari loturik, bada, ez da soberan galdetzea hizkuntza komunitate batek darabilen hitz stockarekin eta beste hizkuntza komunitate batek darabilen hitz stockarekin irudikapen sozial bera (zentzu komun bera) eraikitzen ote den. Mikro azterketa egin ondotik, teoria hau autoitzulpenaren azterketari zer-nolako ekarpena egiten dion ikusiko dugu.

Hitzek ideiak eta konnotazioak dakartzate; teoria pragmatikoez aspaldi erakutsi zuten hitzen balio performatiboa. Hortaz, errepresentazio sozialak eraikitzeke, horiek elikatzeke edo berrinterpretatzeko aukera dago hitzen-adieren bitartez. Esanahiak egunero lehiatzen dira, are gehiago botere-guneetan. Honela dio Justin Lewisek (1994: 25[Howarth 2006: 71]):

Meanings becomes a battleground between and among folk cultures, class subcultures, ethnic cultures, and national cultures; different communications media, the home, and the school; churches and advertising agencies; and different versions of history and political ideologies. The sign is no longer inscribed within a fixed cultural order. The meaning of things seems less predictable and less certain.

Talde bateko kideek elkar komunikatzeko (bai hitzez, bai jokamoldez) ulermen sistema komun bat behar dute, talde horrentzako esanahi espezifikoak duten ideia eta kontzeptu multzoa. Teoriak zekarren berritasunetako bat da esanahia negoziazio sozial baten ondoko eraikuntza delako ideia, hots, ez gauza absolutu, finko eta aldagaitz bat, eta esanahiaren interpretazioak ingurumen sozialaren beste alderdi batzuen ulermen edo ezagutza eska dezakeela. Moscovicik honela definitzen zuen 1976an errepresentazio soziala:

[S]ystem of values, ideas and practices with a twofold function; first, to establish an order which will enable individuals to orient themselves in their material and social world and to master it; and secondly to enable communication to take place among the members of a community by providing them with a code for social exchange and a code for naming and classifying unambiguously the various aspects of their world and their individual and group history (Moscovici 2000: 12).

Izaera konstruktibista du, bada, errepresentazio sozialaren teoria honek; alegia, norbanakoa (eta, beraz, taldea) ez da mundu objektibo batekin zuzenean harremantzen, ezpada horren errepresentazio sozialekin, komunitate bat etengabe interpretatzen eta berresanahitzen ari den errepresentazioekin. Alor honetan lan egin duten autore gehienek bat egiten dute errepresentazio sozialak ezagutza-elementu dinamikoak direla esatean; hau da, «representations have to be seen as alive and dynamic - existing *only* in the relational encounter, in the inbetween space we create in dialogue and negotiation with others» (Howarth 2006: 68). Berriz ere gogora ekarri behar da itzultzailearen posizio linguistikoa ez dela bitarteko espazio lauso batean gertatzen (Tymoczko 2003). Howarthen aipuari jarraikiz, bada, errepresentazio ezberdinak lehiatzen dira errealitatea aldarrikatzeko, eta beste errealitate batzuk defendatu, mugatu eta baztertzen dituzte. Hain zuzen, hala ezagutza-elementu dinamikoen sorreran nola errepresentazio praktikan gatazka soziala,



kritika eta erresistentzia<sup>49</sup> leudeke. Errealak zer den, bada, diskurtso sozial eraikiaren araberakoa izanen da: «Thus the problem of defining what is real relates to our ongoing and contested identities, interests and hopes» (Godelier, 1986[Howarth 2006: 70-71]). Errepresentazio sozialek errealitatea egin egiten dutela dio Moscovici (1988: 245): «shared representations, their language, penetrate so profoundly into all the interstices of what we call reality, that we can say that they constitute it». Orobat dio horrek etengabeko negoziazio bat dakarrela, une jakin batean errealitatetzat zer hartzen den; askotariko botere-harremanak direla medio, gatazka negoziatio horretatik sortzen da. Botere-diskurtsoak iraunarazteko ere erabiltzen dira errepresentazio sozialak: «the reproduction of power relations depends on the continuous and creative (ab)use of representations that mystify, naturalise and legitimate access to power» (Howarth 2006: 79). Esan daiteke, bada, errepresentazioek eragina izan dezaketela ez soilik guk mundua egituratzeko eta horri zentzua emateko moduan, baizik eta munduak gu “egiteko” moduan.

Sistema kognitiboan gertatuta ere,<sup>50</sup> errepresentazio soziala eraikuntza sozialaren ondorio da eta nagusiki halakotzat hartu izan da. Munduarekin ditugun harremanak egiteko modua da. Izan ere, elkarrekintzan eraikitako kontzeptu, baieztapen eta azalpenak dira, komunitate jakin bateko kideen hartu-emanen oinarriturikoak eta esplizituki nahiz inplizituki adostuak, eta, gainera, eragin “ikusgarria” dute: «Social representations do influence our actions, particularly how we may explain our actions or the actions of others, but they are also contained within and developed through our social actions (Moscovici, 1988), or more properly our social practices (Marková, 2000)» (Howarth 2006: 72). Beraz, errepresentazioak historia eta errealitatea eraikitzeke osagai aldagarri dira, eta errealitatean eraikuntza ideologikoak beharrezko ditu errepresentazio askotarikoen eztabaida eta erresistentzia; horrek esan nahi du aukera dagoela bai errepresentazio sozialak, bai, ondorioz, errealitatea(ren hautemate kolektiboa) aldatzeko.

Errepresentazio sozialaren teoriari ikuspegi kritiko batetik begiratuta, Caroline Howarthe (2006) erakusten du errepresentazioak darabilzkigula gure burua posizionatzeko, identitate komunak aldarrikatzeko eta praktika estigmatizatzaileei aurre egiteko. Hain zuzen, errepresentazio sozialak identitatearekin lotzen ditu, eta beharrezkotzat jotzen du identitatea ulertzea errepresentazioak helburu ezberdinekin (negoziatorako, eraldaketarako, legitimaziorako, eta abar) zergatik eta nola erabiltzen diren azaldu ahal izateko (Howarth 2006: 78). Errepresentazio sozialen teoriaren barruan, tentsio eta gatazka horretan sakontzea proposatzen du Howarthe:

<sup>49</sup> Erresistentziaren aukera oraindik ere zehaztu gabe dagoela uste du Howarthe (2006), eta horretarako bidea marrazten du ideologiarekin lotura eginez: «social representations theory provides the tools with which to broach the possibilities of resistance, particularly in the context of the co-construction of self-identity. However, I would agree with Billig, Moloney and Walker in so far as the conditions of resistance within social re-presentation need to be further articulated. In order to do this, we need to turn to the role of social representations in the *ideological* construction of social realities for we cannot present a comprehensive understanding of social reality without the recognition of the political» (Howarth 2006: 79).

<sup>50</sup> Hain zuzen, maila kognitiboaren pisu nabarmenean datza teoriari egin zaion kritiketako bat: «hay que decir que las representaciones sociales todavía están ancladas en el sistema cognitivo del individuo, debido a que se refieren aún a un conjunto de conceptos, afirmaciones y explicaciones» (Pallí eta Martínez 2004: 197). Nolanahi den, uste dut kritika horiek ez diote teoriari baliorik kentzen; hemen, ordea, aukerarik ez dugu horretan sakontzeko.

I would suggest that we explore the ambiguity, tension and dispute within both salient social representations in specific encounters and relationships as well as within the general practice of social re-presentation itself. (...) This type of analysis would promote study into the role of conflict and dispute in social re-presentation, the social and political consequences of different representations and the relationship between representation and the social order (Howarth 2006: 80).

Itzulpen praktikaren oihartzuna egiten duen beste adibide bat hauxe da: Moscovici ezagunaz (*familiar*, ingelesezkoan) eta ezezagunaz (*unfamiliar*) mintzo da. Errepresentazioek ezezaguna ezagun egiten lagunduko lukete; ezezaguna mehatxagarri baitzaigu izendatzen dugun arte. Moscovicik bi prozesu sozio-kognitibo nagusi deskribatu zituen ezezaguna ezagun bihurtzeko: ainguratzea (*anchoring*) eta objektutzea (*objectification*). Batetik, ainguratzeak gertaera berriei, hala nola objektu, harreman, praktika eta jarrera berriei esanahia egotea dakar, gertaera hori dagoeneko badauden ikuspegietan txertatzearen bidez, horrela ezezaguna aurrezagutza horiekin alderatu eta interpretatu ahalko baita. Ezezaguna harremanean jarriko da beti, beraz, aurrez eskura ditugun paradigmeekin, eta ezaguna etengabe egonen da berrinterpretazio prozesu/bilakaera batean. Sailkatzeak, izendatzeak eta kategorizazioak ainguratzen ditu errepresentazioak: «To master a strange idea or perception one begins by anchoring it (Doise, 1992) in existing social representations, and it is in the course of this anchoring that it becomes modified» (Moscovici 2000: 150). Izendatzeak errealitatea sortzen duela-eta, nabarmendu dezakegu honezkero maiz atera dela hizkuntzaren eta identitatearen arteko harremana, bigarren hori norbanakoak praktika diskurtsiboen bidez etengabe egiten duen eraikuntza soziala denez. Bestetik, objektutzea deitu dugun horrek ezezaguna ezagun egiten du zentzumeneren bidez hauteman edo espermentatu dezakegun gauza zehatz bihurtuz. Ideia abstraktuak materializatzean datza, nolabait; Moscoviciren (2000: 51) hitzetan, «[w]hat is perceived replaces what is conceived». Autoreak orobat dio objektutzea prozesu aktiboagoa dela ainguratzea baino, gertaera berriei aurre egin behar diegun bakoitzean gertatzen baita ia automatikoki.

Itzulpenaren bidez errepresentazio sozialak eraikitzen, elikatzen, disputatzen direla uste dugu, eta Moscovicik proposaturiko bi prozesu sozio-kognitibo horiek itzulpengintzan etengabe egiten direla, hainbat estrategia eta itzulpen-teknikaren bidez. Marko teoriko hau gogoan eta oinarri izanik, mikro mailako azterketan ikuspegi osagarria eman dezakeelakoan gaude.

Ezbairik gabe, labur geratzen da atal hau. Beste giza zientzietan ez bezala, itzulpen ikasketetan eskas da identitatearen inguruko gogoeta, sarri aipagai bada ere. Aipamen horiek gehienetan oinarri eta marko teorikorik gabe egiten direlako eta (auto)itzulpenean zeresan handia izan dezakeela uste dugulako erabaki dugu, bada, hurbilpen teoriko hau egitea, hurrengo azterketetarako abiapuntu. Kategorizazio eta errepresentazio sozialen teoriak psikosozologiaren eremuan kokatzen badira ere, zein bere bidetik sortu dira; nolahi ere, autoitzulpen ikasketei biek ekarpen esanguratsua egin diezaioketela iruditzen zaigulako lotu ditugu hemen. Mikro mailako azterketan eta ondorioetan ikusiko dugu nola aplikatzen ahal zaizkion autoitzulpenaren azterketari.

**3**



# 3 kultur testuingurua

Marko teoriko-metodologikoa zehaztu eta autoitzulpenaren inguruko teorizazioa egin eta gero, atal honetan kultur testuinguruari erreparatuko diogu. Gure aztergaia ez baita hutsean gertatzen, testuinguru jakin batean baizik, denbora eta espazio batean, eta ezinbestekoa zaigu horren aurkezpen bat egitea autoitzulpena ikertzeko, baldintzagarri izan baitaiteke. Itzulpenak euskal literatura sistemaren sorreratik bertatik ditugu (agerikoena aipatzearren, Leizarragak *Itun Berria* euskaratu zuen 1571n). Honengatik guztiagatik, ezinezkoa litzateke sistemaren azterketa ikerlan honetatik kanpo uztea.

Lehenik, bada, Euskal Herriko literatura sistema(k) izanen d(it)ugu aztergai, sistema batez eta bakarraz hitz egin dezakegun edo bat baino gehiago hartu behar ditugun kontuan. Euskal literatura sistemak autonomoki jarduten ote duen eta sistema beregain eta independentea ote den eztabaidatuko dugu. Bigarrenik, testuinguru diglosiko batean egiten den literatura ere halakoa ote den ikusiko dugu, alegia, diglosikoa.<sup>51</sup> Hirugarrenik,

<sup>51</sup> Hiztun komunitate baten hizkuntzen erabilera-banaketa soziofuntzionala adierazteko erabiliko dugu *diglosia* terminoa, jendarte, testuinguru edo adierazpen bati loturik. Jakin badakigu diglosiari buruz luze eta zabal idatzi dela, bai arlo soziolinguistiko-akademikoan bai hizkuntza-politikaren eskutik. Terminoaz ari garelarik, Fergusonen 1959ko artikulua da aurreko eta ondoko fasealdiak markatzen dituen unea (Zalbide 2011: 33), baita kontzeptuaren mugak zabaldu eta terminoari heterogeneotasuna ekarri ziona ere (Fernandez 1995: 187). Geroago, Fishmanek (1967) heldu zion diglosia definitzeko lanari; elebitasunetik bereizi zuen, eta hizkuntza-harreman ezberdinak azaldu zituen diglosiaren bitartez. Gurera Sánchez Carrión “Txepetz”ek (1974) eta Mitxelenak (1978) ekarri zituzten diglosiari buruzko lehen gogoeta zorrotzak, eta ordutik ikertzaile anitzek jorratu dute. Esate batera, Garatek (2000) dio Euskal Herrikoa ez dela gehiago egoera diglosikoa; konpartimentazio soziala nabarmen galdu dela eta diglosia-hondarrak baizik ez direla geratzen. Antzera dio Zalbidek (2011), soziolinguistikatik egindako azken azterketa mamitsuenetako bat egin baitu. Diglosiaren bilakabide semantikoa aztertu eta gero, Zalbidek ondorioztatzen du gaur egungo egoerari ezin zaiola diglosia iritzi. Haren hitzetan, gaurkoa honela defini liteke: «behinolako diglosia betearen azken arrastoak baizik gelditzen ez zaizkion elebitasun partzialeko egoera mugikorra» (Zalbide 2011: 99). Gainera, salatzen du diglosiaren kaltegarritzko irudia azpimarratu dela maiz, abantaila-onurez ahaztuta (Zalbide 2011: 73); hala, orain eta hemen, euskarak nolabaiteko diglosia behar duela aldarrikatzen du, hizkuntzak bizirik iraunen badu. Zalbidek proposatzen duen diglosia moldearekin ados egon arren, diglosia ez beste formulazio batzuetan sakontzea iradokitzen du Kasaresek (2011: 204). Honenbestez, badakigu *diglosia* ez dela terminorik egokiena euskal testuinguruaz aritzeko; alta, ez dugu hoberik aurkitu hemen erabiltzeko, eta berria proposatzea ikerlan

nolabaiteko alderaketa bat eginen dugu Ipar eta Hego Euskal Herriaren artean, zeren, aurretik esandakoan oinarrituta, bietan ekoizten den literaturan aldea baitago, kopurutik bertatik hasita. Azkenik, laugarren azpiatalean, gure merkatu literarioan itzulpenak duen lekua eta pisua aztertuko dugu, horren barruan ulertzen baitugu autoitzulpena.

### 3.1. EUSKAL HERRIKO SISTEMA LITERARIOA(K)

Ikergai dugun autoitzulpena testuinguru jakin batean gertatzen da, eta hori zedarritzen saiatuko gara atal honetan. Literatura sistema bat zerk egiten duen eta horren mugak non dauden eztabaida ugariren iturri izan da. Gurera ekarrita, besteak beste, Elizabete Manterolak *Euskal literatura beste hizkuntzetara itzulia* ikerketan adierazi zuen kezka hori: «Azken batean, zer da euskal literatura? Euskaraz soilik idatzita dagoena? Euskal gaiez hitz egiten duen liburu oro? Euskal herritarrek idatziriko literatura? Euskal jatorriko idazleek idazten duten oro?» (Manterola 2012: 32). Kontzeptu konplexua dela dio Manterolak, eta nekez eman daitekeela erantzun bakar eta erabateko bat. Izan ere, galderak egitearen arrazoietako bat da sistemen ikuspegia aldatu egiten dela eta sistema bera dinamikoa dela; beraz, zer den esan baino gehiago, horren dinamikak definitzen ahal ditugu. Nolanahi den, esanen genuke gehienetan erdaraz mintzatzen den unean jartzen dugula auzitan euskal literatura zer den; hau da, Iztuetak (2015) eta Retolazak (2009) esan izan dutenaren ildotik, trantsizio egoeratan sortzen dira galdera horiek, hizkuntza-ordezkapen bidean dauden herri subordinatuetan, esaterako.

Oro har, literatura sistemaz hitz egiten denean, literatura sare jakin bat osatzen duten elementu multzoaz ari gara, hala nola, irakurleak, idazleak, instituzioak, editoreak eta merkatua. Batzuetan, agente horiek guztiak hizkuntza berean ari dira, eta ezaugarri horrek biltzen ditu sistema beraren bueltan. Gurean, ordea, sistema baten mugak lausotzen dituzten askotariko ertzak ditugu; esaterako, argialetxe batzuek erdaraz eta euskaraz kaleratzen dituzte liburuak, baita edizio elebidunak ere, eta euskarazko irakurle gehien-gehienak frantsesezko edo gaztelaniazko merkatuaren kontsumitzaile ere badira. Halaber, autoitzulpenak berak dakarren ondorio bat da autore bat bi hizkuntzatan jardun daitekeela idazle, eta, hala, bi merkatutan mugi liteke, bi sistemek bere eginen balute. Beraz, hizkuntzaren arabera banaturiko literatura sistemak ñabardura anitz ditu.

Beste aukera bat da literatura nazionala kontzeptuari jarraitzea, hots, sistema zedarritzeko hizkuntza bat=herrialde bat eskema erabiltzea. Honela azaltzen du Antón Figueroa galegoak literatura nazionalaren kontzeptua:

Hablar de una literatura nacional implica designar todo un proceso: la constitución histórica de un imaginario social, de un sentido común cultural con fronteras “naturalizadas”, con repertorios diferentes y “difirientes”, con un sistema de hábitos incorporados socialmente y entrelazados en una tradición genérica y con un origen considerado específico y, en muchos casos, con una lengua socializada como propia (Figueroa 2004: 526).

---

honen jakintza eremutik eta helburuetatik kanpo dago. Izan bedi oin-ohar hau zehaztapena terminoaren zalantzakotasuna adierazteko.

Izendapen horrek itzal luzea duen arren, baditu zenbait *baina*, gurean nabarmenak. Esaterako, “*literatura española*” edo “espainiar literatura” erabiltzen denean, batzuetan espainolez egindako ekoizpena hartzen da soilik kontuan; bestetuetan, ordea, Estatuan egiten den literatura oro hartzen da kontuan definizioa egiteko, nahiz eta gero arretarik jartzen ez zaion espainolez ez den literaturari. Beraz, ñabardurak ugariagoak dira muga linguistikoak muga nazionalarekin bat egiten ez badu, Figuroak azaleratzen duenez: «No todas las naciones poseen una literatura o una lengua homónima, ni todas las literaturas corresponden a una o a una sola nación reconocida» (Figuroa 2004: 526-7). Literatura sistemak definizioz nazionalak direla dio Apalategik (2005: 1), «esparru politiko nazionalaren sorrerarekin zerikusia duelako beti literatur tradizio nazional baten sorrerak». Ikuspegi horren arabera, nazio bat existitzen hasten da tradizio literario propioa aldarrikatzen hasten denean; hala, literatura baliatuz sortu edo egonkortu dira hamaika nazio (Even-Zohar 1994). Autoitzulpenera etorrira, Kanadako kasurako, nazionalitatea beharrean bizitokia aintzat hartzea proposatzen du Trish Van Bolderen-ek (2014), Kanadako autoitzultzaileen ezaugarriak aztertu eta gero: «Canadian self-translation refers to any instance in which a writer translates his or her own writing into another language while residing in Canada» (Van Bolderen 2014: 92). Literatura sistemarako, beharbada, ez da aplikagarria, baina ohartarazpen gisa balio du; komeni da definizio edo sailkapen generikoak eman aurretik kasuan kasuko testuinguruari begiratzea.

Zalantza handia sortzen da, beraz, literatura sistema osatzen duten elementuak zehaztera jartzen garenean. Gurean, euskal literatura sistemak zer barnebiltzen du? Toledok dioenez (2010: 769), «Aro Modernoaz gero behintzat, historia politiko baten subjektu izan ez den nazio bateko literatura litzateke euskal literatura». “Euskal” adjektiboari ere adiera bat baino gehiago ematen zaizkio: etimologikoki hizkuntzari erreferentzia egiten badio ere, maiz maila nazionalen aritzeko erabiltzen da, hots, geografikoki aritzeko.<sup>52</sup> Aurretik ere esana zuen Gabilondok (2006) europarrek lau haizetara zabaldu zuten «eredu nazional» hura desagertzeaz zela (lau haizetara zabaldu zuten unibertsala bera). Gabilondok (2006) dionez, Euskal Herrian osoki eraiki aurretik ere sartu zen eredu hori krisian; euskal literatura postnazionala proposatzen zuen orduan. Honela definitzen du hori: «Euskaldun edo basko guztiek beren hizkuntza guztietan idatzitako literatura(k)» (Gabilondo 2006: 14). Beraz, J. M. Lasagabasterrek egin bezala,<sup>53</sup> irizpide linguistikoak beharrean, soziologikoak hartzen ditu oinarritzat. Hain zuzen, proposamen horren helburua da «heterogeneotasun

<sup>52</sup> Adibide bat jartzearen, Etxepare institutuaren “XX. mendeko euskal literatura” liburuxkan, honela jartzen du sarreran: «Euskal Herriko [oin-oharrean: "Testuan penintsulako Euskal Herria edo Euskal Herri penintsularra izendapena erabili dugu Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Komunitate Forala izendapenen ordez, eta kontinenteko Euskal Herria edo Euskal Herri kontinentala Akitania eskualdeko euskal probintzien kasuan"] zein euskal jatorriko idazleek beren hizkuntzetan, euskara, gaztelera, frantsesa eta ingelesa, ekoizturiko literaturari deritzogu Euskal Herriko literatura». Kontuan hartu behar da kanporako idatzitako liburuxka dela, baina aski argigarria iruditzen zaigu ikusteko terminologia zehaztu beharra noraino irits daitekeen. Horren kasuan, beraz, geografia eta jatorriz geografia horretakoa izatea dira irizpide. Orobat da aipagarria sarreran edo izenburuan hala adierazi ez arren helduentzako literatura baizik ez duela liburuxkak hizpide, eta, beraz, helduei zuzendutako liburuak egiten dituzten idazleak baizik ez direla agertzen (Juan Kruz Igerabide litzateke salbuespen, segur aski helduentzako poesia ere idatzi duelako).

<sup>53</sup> Gabilondok J. M. Lasagabasterren “Euskalerriko giro literarioa”ren proposamena aipatzen du bere pentsamendu kritikoaren oinarritzat. Lasagabasterrek zioen beste hizkuntzetan idatzitakoak ere kontuan hartu behar zirela literatura sistema aztertzean, Euskal Herrian euskaraz soilik ez delako idazten; haren ustez, modu horretan lortuko genuke Euskal Herriko benetako errealitate kulturalaren irudia.

linguistiko eta nazionala tresna edo zuzentzaile kritiko bezala erabiltzea nazio-estatu inperialistaren krisia eta historia berpentsatzeko» (Gabilondo 2006: 15). Lan berriago batean, Gabilondok (2016) dio “herri bat-hizkuntza bat-subjektu bat” eskemari jarraitzen dion eredu nazionalistak ez diola euskarari laguntzen: «Euskal literaturarena gutxienez bi literaturen historia da, eta, beraz, diglosia baten eta zapalkuntza baten historia» (Perez 2016). Horrela, ingelesez idatzitako *Before Babel. A history of Basque Literatures* saioan literatura horien errepasoa egiten du proposamen berritzaile batekin, bai euskaraz egindako ahozko eta idatzizko literatura, bai erdaraz egindakoa aintzat hartuz. Izan ere, Gabilondoren esanetan,

Eta zer da literatura? Teknikoki literaturaren zentzu murrizta erabiltzen badugu, alegia, literatura gehiengoek zentzu murriztean erabili dutena, euskal literaturarik ez dago 1932ra arte, Lizardiren *Bibotz-begietan* arte. Izan ere, XVI. mendetik aurrera, popularitatearen —Cervantes, Shakespeare—, estetikaren —Kant— eta kalitatearen —modernismoa— irizpideak sartzen dira literatura zer den erabakitze orduan. Irizpide hegemoniko horiei nolabait erantzuten dien euskal obrarik lehenetako Lizardirena genuke. Horren arabera, beraz, hori baino lehenago ez dago euskal literaturarik; orduan, akabo! Galderaren arazoa galdera bera da, hain zuzen ere, definizio horrek ez digulako laguntzen. Literatura herri edo komunitate batek bere burua imajinatze erabiltzen duen diskurtsoa da, eta, gutxiengo kasuan, hori oso testu murriz batzuek eta ahozko tradizio batzuek markatzen dute. Beraz, ezin dugu erabili definizio hegemonikoa. Guri dagokigun definizio bat erabili behar dugu (Perez 2016).

Gabilondoren hitzetatik honi begiratu nahi diogu: «Literatura herri edo komunitate batek bere burua imajinatze erabiltzen duen diskurtsoa da» (ibid.). Diskurtsoa sortzearekin, hitzetan jartzearekin, sortzen dugu errealitatea. Iztuetak (2015) hari horri tira egiten dio eta hiru multzo hauek bereizten ditu:

1) *Cultura vasca* asimilatua: erdararen erabilera normaldua duen euskal hiritarraren jarduna; kasurako, Unamuno eta Baroja.

2) *Cultura vasca* erresistentea: erdaraz garatzen den diskurtsoa, Euskal Herri euskaldun bat helburu duena eta eskuarki abertzalea dena; kasurako, Aita Barandiaran.

3) Euskal kultura: euskaraz egiten den hori, berdín dio zer eta nork.

Geografia berean bizi dira multzo guztiak, eta horrek hainbat «ondoez» sortzen ditu (Iztueta 2015). Gure azterketan hirugarren multzoari baizik ez diogu helduko, atal honetan beste biak ere mintzagai izanen baditugu ere.

Izan ere, beste testuinguru elebidun edo eleaniztunetan bezala, askotariko idazleak ditugu Euskal Herrian; Manterolak (2012) hauek identifikatu ditu: «hizkuntza bakarrean idatzi eta beste hizkuntzan autoitzultzaile soil direnak; idazteaz eta autoitzultzeaz gain, besteen lanen itzultzaile ere badirenak; bi hizkuntzatan sortzaile eta bi norabidetan autoitzultzen dutenak; autoitzulpenak norabide bakarrean egiten dituztenak beti, etab.» (Manterola 2012: 66). Horrela, tipologia zabaleko idazle horiek guztiak literatura sistema beraren parte ote diren zalantza egin dezakegu. Esaterako, gaztelaniaz idazten duen eta lan



gehien-gehienak jarraian euskarara itzultzen dizkioten Toti Martinez de Lezea gasteiztarra euskal literatura sistemaren barruan kokatuko genuke? Eta frantsesez idazten duen Marie Darrieussecq baionarra, bere lanak hain sistematikoki euskaratzen ez badizkiote ere, euskal idazlea al da? Nevadan sortu eta aita euskalduna zuen Robert Laxalten edo diasporako beste idazleen lanak euskal sistemaren barruan sartuko genituzke? Euskal Herria hizpide behar du horretarako? Euskal gaiak? Eta zer dira, bestalde, “euskal gaiak”? Aspaldiko eztabaida amaigabea<sup>54</sup> da hau, eta ikerketa honen asmoa ez da halako galderari erantzun xehe eta absoluturik ematea, baizik eta galderak azaleratzea. Nolanahi den, autoitzulpenaren azterketak ekarpena egin diezaioke eztabaidari. Gainera, autoitzulpenaren gaia ikertzeko ezinbesteko zalantza da, sistema bat baino gehiagoren artean baikbiltza, bai, behintzat, hizkuntzaren araberrako sailkapena egiten bada. Ana Gandarak honela dio:

Literatur sistemak, polisistema ororen gisan, konplexuak dira eta, noski, gureak halakoa izateko aukera guztiak gertu zituen: bida estatutan banatutako herria, hizkuntza gutxituduna, euskalki desberdinen jabe, batasun linguistiko-estandarizatu berankorra, elebitasunaren gailentze guztizkoa eta bertze (Gandara 2012: 10).

Horrela, bada, testuinguru horretan sorturiko literatura sistemak konplexua izan behar du nahitaez. Beste aukera batzuk badirela onartuta, euskal literatura sistema euskara nahiz erdarazko jardueren azpi-sistemak barnebiltzen dituen makrosistema dela proposatzen du Gandarak (2012).

Iritziak iritzi, badirudi orain arte inork ez duela zalantzan jarri “euskal literatura” etiketaren barruan euskaraz sorturiko ekoizpena sartu behar denik, izan azpisistema baten gisan izan sistema propio modura. Beraz, ikerketa honek irizpide horri helduko dio: aurrerantzean, euskal literatura sistemaz dihardugunean, euskaraz sorturiko literaturaz ariko gara (eta horrekin uler bedi ekoizleak, merkatua, kontsumitzaileak eta beste agente eta bitartekariak); berdin euskal idazleek eta irakurleek ari garenean. Beste kontu bat da sistema hori zenbateraino den autonomoa edo independentea.<sup>55</sup> Izan ere, geografikoki eta hizkuntzaren araberrako sailkapena eginez, Euskal Herrian ez dago literatura sistema bat bakarrik; hori harremanetan dago nahitaez gaztelaniazko eta frantsesezko sistemekin, eta elkarreragina agerikoa izanen da. Ana Toledok dioten bezala, «Euskara adierazpen-hizkuntza erabili duen literaturak sistema bat osatzen du, nahiz eta bistakoa den sistema hori harremanetan dagoela beste sistemekin. Beste sistemekin orokorrean eta, hainbat garaitan bederen, bereziki “vascos” horien beste literaturen sistemekin» (Toledo 2010: 772).

### 3.1.1. Zertaz ari garen euskal literatura sistemaz ari garenean

Begiratu labur bat egingen diogu atal honetan euskaraz argitaratzen den literatura horri, ikergai nagusi izanen duguna; hain zuzen, erreperitorioa. Aurretik, ordea, beste ñabardura bat egingen dugu: euskal literatura sistema diogunean, euskaraz sorturikoa eta euskarara

<sup>54</sup> Besteak beste, aurretik aipaturiko Iztueta (2015) eta Gabilondo (2006).

<sup>55</sup> “Zenbateraino” jarri dugu, zeren ez baitago sistema beregainik, eta, beraz, kasuan-kasuan sistema horrek duen autonomia mailari edo graduari buruz mintzatu beharko ginateke; horrela, barne-logikek ala kanpo-logikek, zerik eragiten duen gehiago azter dezakegu.

ekarritakoa izanen ditugu hizpide. Zehaztapen hori esplizitu egiteko arrazoia da sarri bigarren multzoa kanpoan uzten dela, hizkuntzaren arabera euskal literatura sistemari beste galbahe edo baldintza bat gehiago jarritz. Atal honetan, ordea, itzulpenak ere aintzat hartuko ditugu; izan ere, euskarazko literaturaren bilakaera ezin da ulertu itzulpengintza aintzat hartu gabe.<sup>56</sup> Bien historiak oso lotuta egon dira aspalditik, hainbatek erakutsi dutenez (hala nola, Sarasola 1982, Zabaleta 1984, Mendiguren 1995). Bestela ere, iruditzen zaigu ez dagoela sistema bat ulertzerik kanpo erreferentziek sistema horretan izandako eraginak aintzat hartu gabe. Figueroren (2004: 527) hitzetan, «[a] lo largo de su historia, el campo literario se identifica mediante la referencia implícita o explícita al “otro”, a otras naciones, a las otras literaturas».

Euskal literatura sistemaz mintzatzen hasi aurretik, kontuan izan behar dugu literaturaren kontzeptua bera aldakorra izan dela historian, eta literaturaren kontzeptu autonomoa XIX. mende amaieran sortu zela (horren azterketa autonomoa are berantiarra da). Hitzarmen soziala da: literaturaren etiketaren pean zer sartzen den eta zer ez garaiaren arabera da, ez estatikoa, horretarako irizpideak bezalaxe; garai bakoitzean literariotzat jotzen den hori, besteak beste, sistema literarioaren eragileek adosturikoaren eta arau estetikoaren mende egonen da. Lopez Gasenik (2000) dakartza Hunten azalpenak:

“Literary texts are not defined as those of a certain shape or structure, but as those pieces of language used in a certain way by the community”. This use is that *the text is not taken as specifically relevant to the immediate context of its origin*. That is, the text is used aesthetically, not practically. Therefore, text may *become* literature, may be used in different ways. Diaries and letters, for example, become literature by virtue of being read by an audience for whom they were not intended and for a different purpose (Lopez Gaseni 2000: 15).

Gauza bera zioen Even-Zoharrek (1990a) literatura sistema definitzerakoan; literatura kontzeptua hutsa dela berez, ezaugarri jakinik gabea, eta garai bakoitzean literariotzat jotzen diren harreman-sareek eta jarduerak erabakiko dutela literatura kontzeptuak zer hartuko duen eta zer kanpoan utziko.

Euskaraz idatzitako lehen liburu inprimatua XVI. mendean idatzi zela kontuan hartuta, euskal literaturak bost mende dituela esan daiteke. Bernart Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* izan zen lehen liburu hori, Bordelen argitaratua, 1545ean. Urte gutxi batzuk besterik ez ziren behar izan lehen itzulpenak agertzeko. Atalaren hasieran esan bezala, Joanes Leizarragaren eskutik iritsi ziren, La Rochellen, 1571n: *Iesus Christ Gure Iaunaren Testament Berria*, Joana Albrotekoa Nafarroako Erreginaren aginduz euskaraturiko testamentu kalbinista, eta *ABC* eta *Kalendrer*a opuskuluak (Manterola 2012). Itzulpen ez hain agerikoak ere aipa genitzake garai haietan, hala Gidor Bilbaok (1991) nola Aurelia Arkotxak (2016) egindako ikerketen harira.<sup>57</sup> Badirudi XVI. mendean literatura konposizio

<sup>56</sup> Alta, zenbaitetan halaberrez egin beharko dugu sorturikoaren eta itzuliaren artean bereizketa, maiz hala aurkitu baititugu datuak, zein bere aldetik.

<sup>57</sup> Arkotxak (2016), esaterako, 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* liburuan bertan itzulpena badagoela gogorarazten du, Hamar Manamentuak eta Salmoetatik etorritako zenbait marka agertzen baitira euskaraz; kasurako, «testuinguruan jarri» ezean eta erreferentzia horren berri izan ezean antzematen ez direnak.

gehiago ere izan zirela Ipar EHn beste hainbat idazleren eskutik, baina ez da gorde haien testigantzarik. Lehen mendeetako literatura oso urria izan zen, eta eliza gaiei hertsiki lotua. Oro har, euskarazko literatura idatziaren garapena ez da jarraitua izan, eta sortu zenetik gaur egunera arte gorabehera handiak izan ditu. Bilakaera zatikatu horren arrazoia, bestek beste, lurraldearen banaketa politiko-administratiboari, hizkuntzaren estandarizazio berantiarrari, gatazka sozio-politiko eta erlijiosoei eta hizkuntza subordinazio egoeratik aterata nahiari egozten ahal zaie. Lasagabasterren hitzetan, «XX. mendera arte ia, euskal literaturaren historia euskaraz idatzita zegoenaren historia da. Eta garai hartan, euskaraz idatzita zegoena ezin izango litzateke “literaturatzat” hartzen den horretan sailkatu, hitzaren ohiko zentzuan behintzat» (Lasagabaster 2011). Horrek, lehen mendeetako eskasiaz ohartarazteaz gainera, gorago aipaturiko literatura kontzeptuaren eta irizpideen aldakortasuna erakusten du. Bestalde, ekoizpen ahula eta berantiarra izanik, itzulpenek berebiziko garrantzia izan dute literatura (eta, ondorioz, hizkuntza literarioa) garatzen.

Ekoizpen datuei erreparatuz gero, euskaraz sorturikoen eta itzulpenen kopuruaren artean lotura egin daitekeela ikusiko dugu: lehenaren garairik onenetan egin dira itzulpen gehien, eta garairik ilunenetan, berriz, gutxien. XX. mendetik aurrerako datuak izanen ditugu nagusiki aztergai, baina labur begiratuko diegu lehenagokoei ere. Ibon Sarasolak *Historia social de la literatura vasca* liburuan<sup>58</sup> azaltzen duenez (1982: 182-183), 1879ra arte 587 liburu argitaratu ziren euskaraz; horietako 393 berrargitalpenak ziren, eta, beraz, guztira 194 titulu izan ziren argitaraturikoak. Horietako 101 dira euskaraz sortuak eta gainerako 93ak, ia erdiak, euskarara itzultitakoak. Euskaraz sorturiko horien artean, erlijiosoak ez diren lanak 12 baizik ez dira. Horrek argi erakusten du 1879ra arte euskarazko idazketa testu erlijiosoetara mugatzen zela ia. Gainontzean, Iñaki Aldekoaren (2008: 9) hitzetan, «XIX. mendea arte euskaraz idatzitako ia literatura guztiak helburu pastoralala zuen».

Joan Mari Torrealdai euskal liburugintzaren bilakaeraren datuak aurkezten ditu *Euskal kultura gaur* (1997) lan mardulean. Liburu ekoizpena 1545etik 1995era arte aztertzen du, epez epe;<sup>59</sup> horrela, bost urtealdi bereizten ditu. Banan-banan ekarriko ditugu hona, historiari errepasso bat ematea jakingarri baita gaur egungo ekoizpena eta nolakotasuna ulertzeko eta baloratzeko:

---

Bestalde, Bilbaok (1991, 2015) Joanes Etxeberri Sarakoaren lana ikertu du; eduki bila beste hizkuntza batzuetara jotzen zuela eta horiek «eskuarara ganbiatu» ohi zituela, ez beti modu aitortuan. Halako itzulpenak, bada, ez aitortuak eta egun “itzulpen” hitzaren adieraz bestelakoak, aspalditik ditugu gurean. Segur aski aztertuak baino gehiago dira, eta itzulpengintzaren historian aintzat hartzekoak direla iruditzen zaigu.

<sup>58</sup> “Euskal literaturaren historia. Eredu berrituaren aurkezpen historiografikoa” artikuluan, Jon Casenavek (2010) diosku Mitxelena 1960an *Historia de la literatura vasca* liburuarekin finkatu zuela hurrengo berrogei urteetan ontzat emanen zen «kontaketa nagusi» bat, eta Ibon Sarasolak eta Joan Mari Torrealdai ere ere hori garaiko metodologia soziologikoekin berriztatu zutela 70-80ko urteetan. Halaber, azken urteetan euskal literaturaren historiak eguneratu dituzten arren, ez da, Casenaveren ustez, eredu finkatu hori iraultzeko ahotsik heldu, nahiz eta badiren bestelako historiografiak dakartzaten proposamenak (adibidetzat jartzen du Joseba Gabilondoren *Nazioaren bondarrak*).

<sup>59</sup> Hain zuzen, Casenavek 80ko urteetatik gaur egun arteko eredu berrituei ikusten dien ahultasunetako bat da «periodizazio maila»ren aniztasuna (Casenave 2010: 810); alegia, historiografia bakoitzak bere aldien banaketa proposatzen du, eta ez dago batasunik. Are nabarmenagoa dela dio Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren kontakteten arteko aldea XIX. mendearen tratamenduari dagokionez, nork “bere” gertakizun historikoen arabera banatzen baitu denbora-lerroa. Nolabait, bi azpistemaren adierazle da.

- 1) 1545-1699 urte artean, 52 liburu argitaratu ziren, hots, ia hiru urtetik behin liburu bat; horietako 6 besterik ez ziren itzulpenak. Sarako eskola tarteko, Ipar EHan euskarazko produkzioak lortu zuen kantitate eta kalitateak ez zuen Hego EHn parekorik. Gainera, Hego EHn argitalpen elebidunak nagusi baziren, ez zen hala gertatzen mugaz bestaldean, euskara hutsean baitziren argitalpenak. Gaiari begiratuta, euskaraz lehen garai honetan sorturiko lanen %83,3 erlijioari dagozkio. Argitaratze lekuari ere erreparatzen dio autoreak, eta ondorioztatzen duenez, Euskal Herrian bertan lau liburutik bat ere ez zen kaleratzen. Frantzian argitaratzen zituzten euskarazko liburu gehienak: Bordeleko eskualdean, Parisen eta Pauen.
- 2) 1700-1875 urtealdian, argitalpen tokia aldatu egiten da, atzerritik Euskal Herrira igaroz. Bidasoaren bi aldeetako inprimategietan kaleratzen badira ere, Hegoak aurrea hartzen dio Iparrari, Lapurdiren kultur beheraldiaren ondorioz, besteak beste; nabarmen Gipuzkoan inprimatzen da, Hego EHn ateratzen diren hamar liburutik sei, zehazki. Kopuruari dagokionez, guztira 671 liburu ekoiztu ziren, eta azken 25 urteetan dago jauzirik handiena, urtealdiko produkzioaren ia erdira hurbiltzen baita. Nabarmenezkoa da berrargitalpenen kopurua nobedadeena baino altuagoa izan zela urtealdi honetan, eta oro har lautik bat zela itzulitakoa (452atik, 219). Titulu berriei erreparatuta, erlijio eta teologia gaiak ziren oraindik nagusi.
- 3) 1876-1935 arteko urtealdian, berriz, 1.422 lanetatik 230 baizik ez ziren itzulpenak. Neoforalismoak eta abertzaletasunak jatorrizko liburua indartu zuten. Garai horretakoak dira ere euskal eskolaren hastapenak eta aldizkarien ugaritzea. Modernizazio garaian, Hego EHn industriagintza eta migrazioa kezka baziren, Ipar EHan borroka politiko-erlijiosoa zen eztabaiden erdigune. Nolanahi ere, erlijio-gaiak nabarmen gutxitu ziren, eta giza eta gizarteko arazoak zabaldu ziren, baita irakaskuntza eta haurrentzako liburuak ere. Literaturgintzaren barruan, antzerkiaren lehentasuna bistakoa zen gainerako generoen aldean.
- 4) 1936-1975 urtealdian, gerra zibil garaian eta frankismoko lehenengo hamarkadetan, liburugintza ahuldu egin zen, eta itzulpenak ere oso urriak izan ziren. 60ko urteetatik aurrera, produkzioak gora egitearekin, itzulpen kopurua hazi egin zen. 1975. urtean, adibidez, 202 argitalpenetatik 64 itzulpen izan ziren. Esan daiteke 1950eko hamarkadan instituzionalizatu zela euskarazko literatura jarduera autonomoa. Euskara hutsean kaleratzen zuten hainbat argitaletxe sortu ziren, bereziki 70az gerostik. Hego EHk jarraitu zuen argitalpen toki nagusi izaten; aipagarria da atzerriko produkzioa ere, euskal diasporaren ondorio. Urtealdi honetan lehen aldiz dira literatura lanak bestelako liburuak baino ugariagoak, nahiz eta erlijio-liburuek hurbil segitu. Literaturaren barruan, olerkia da lehena, eta narratiba bigarren.
- 5) 1975-1995 artean, liburugintza indartuz joan zen, eta, horrekin batera, itzulpen kopurua. Aipatu behar dugu 80ko urteetan sortu zirela sortzaile eskubideen aldeko zenbait elkarte, hala nola, EIE eta EIZIE. 1976tik 1994ra arteko tartean,

berrargitalpenak alde batera utzita, argitaraturiko 10.248 liburutatik 3.771 dira itzulpen; hots, heren bat baino gehiago. Urtealdi honetan irakaskuntzarako eta haur eta gazteentzako liburuak izan ziren nagusi, atzetik zituztela giza zientzien arlokoak eta literatura. Jatorrizko liburuaren eta itzulitakoaren arloei begiratu gero, euskaraz sorturikoa nagusi da arlo guztietan, salbu eta HGLn, non itzulpena gailentzen den. Gainerako herriekin (Frantzia, Alemania, Italia, Espainia, Katalunia eta Galiza) alderaketa bat egin, eta itzulpen produkzioan gorenena Euskal Herria dela dio Torrealdaik, 1994. urteko datuak lagin modura hartuta.

Torrealdairen (1997) azterketari begirata, euskarazko liburugintzaren bilakaera ikusi ahal izan dugu, horren sorreratik eta 1995. urtera arte. Hurrengo ataletan, azken urteotako euskarazko literatura testuen produkzioari, bitartekaritzari eta harrerari begiratu diegu.

### Ekoizpena

Euskarazko literatura jarduera autonomoa 60ko urteetan instituzionalizatu zen, eta Autonomia Estatutuaren (1979) ondoren onarturiko Elebitasun Dekretuak (1982) bultzada berria eman zion Euskal Autonomia Erkidegoan. Gainera, Euskadi Sariak, Espainiako Literatura Sari Nazionala eta zenbait Udalek, argitaletzek eta elkartek sorturiko sariketak ere aintzat hartu behar dira bai jatorrizko lanen bai itzulitakoen ekoizpenean. Horri sortzaileen eskubideak babesteko elkarteak, irakaskuntzaren euskalduntzea eta normalizazio planak gehitu behar zaizkio azken urteotako produkzio hazkundea azaltzeko.

Bien arteko lotura ukaezina bada ere, erakunde literarioak eta erakunde politikoak bereiziko ditugu, jardueraren autonomotasunaz mintzo garelarik. Izan ere, lehenengo mendekotasunezko egoera batean egon daiteke bigarrenarekiko, eta, beraz, horrek sistemaren izaera autonomoa gutxituko du. Hala dio Iratxe Retolazak: «El ámbito literario vasco ha vivido una rápida y vertiginosa transformación en las últimas décadas del siglo XX. De ser una literatura que sobrevivía y subsistía por sus políticas, prácticas y discursos de resistencia, ha pasado a ser una literatura dominada por prácticas y discursos de poder» (Retolaza 2011: 226). Gainera, horri EAEren monopolioa gehitu behar zaio, bai Ipar Euskal Herrikoa bai Nafarroakoa azpisistema gisara geratzen baitira: «al describir y contextualizar la producción poética en euskara se obvia toda situación cultural, social y política de los territorios que no se articulan bajo dominio administrativo del Gobierno Vasco» (Retolaza 2011: 228). Poesian jartzen du fokua Retolazak; alta, baieztapena genero orotara zabaltzen ahal dela esanen genuke.

Zenbakietara etorrira, Joan Mari Torrealdaik urtero kaleratzen duen liburugintzari buruzko azterketa soziologikoan argi ikus daiteke itzulpenen kopuruaren bilakaera: urtetik urtera handitu egiten da. Esaterako, 2013ko liburugintzari dagokion azterketan, honela dio autoreak: «Literatur liburu berrietan, lautik bat da itzulitakoa: %25,5, iaz baino puntu eta erdi gehiago; duela bost urte baino 10 puntu altuago dago aurten itzulpena» (Torrealdai 2014: 112). Helduentzako literatura liburuez ari bada ere, HGLn ere gorako joera izan du

itzulpenak.<sup>60</sup> Izan ere, 2008tik 2013ra arteko urteak aintzat hartuz gero, titulu berri gutxiago izan diren urteetan ere, itzulpenak gora egin du. Azken bi urteetan, esaterako, ekoizpen osoaren kopurua jaitsi egin da, bai nobedadeetan bai berrargitalpenetan.<sup>61</sup> 2014ko produkzio osoaren (2.110 titulu) %75 nobedadeek osatzen dute, 2013an baino 6 puntu gehiago, izan euskaraz sorturiko izan itzulpen (Torrealdai 2015: 66). Berrargitalpenei buruz honela dio Torrealdai (2014: 107): «kultura baten egonkortasuna, trinkotasuna, birprodukzio gaitasuna adierazten du. Berrargitalpen gabeko edizio politika askoren azpian *fuite en avant* delakoa ezkuta daiteke, *best seller*-aren mirakuluaren peskiza, edo subentzioekiko morrontza». Atal labor honetan agertzen zaigun hirugarren morrontza.

Argitaraturiko liburuen arloari erreparatuz gero, 2010-2015 urtealdian, irakaskuntzarako liburuak eta HGL dira ugariak, ekoizpen osoaren erdia baino gehiago (Torrealdai 2015). Helduen literaturan, ikusi dugu narratiba izan dela nagusi azken 30 urteetan, eleberria zehazki; 2014an, esaterako, %74,3 zor zaio narratibari, eta oso atzetik du olerkia, %15,3 (Torrealdai 2015: 82). Gainerako generoak oso atzean geratzen dira. Egoera hori ez da soilik bost urtekoa; 2000. urtean ere, Mari Jose Olaziregik azpimarratzen zuen «narraziogintzak edo narraziozko generoek duten lehentasun eta gailentasuna» (Olaziregi 2000: 89). Alta, kopuru osoaren gehiengoa Hego EHko datuek osatzen dutenez, beti egingen du bat bertako egoerarekin, nahiz eta Ipar EHkoa bestelakoa den. Honela dio Lucien Etxezaharretak (2002: 663):

Bistan da, lehen oharpena, gure eskualdeko ekoizpenen murriztasuna da: Euskal Herrian azken urte hauetan urtero argitaratu milako titulueterik ez baitira hemen hamar ere agertzen!

Ekoizleak aztertzerakoan, idazleak eta itzultzaileak bereiziko ditugu. 1995ean kaleraturiko lanean, Torrealdai zioen idazleen profil nagusia hau zela: gizona, 45-49 urte ingurukoa, gipuzkoarra, ikasketak egindakoa eta ofizioz irakaslea. Idazleen ezaugarriak aztertuta, horiek ziren gehien errepikatzen zirenak. Olaziregiren arabera, 2000. urtean euskarazko 300 egile inguru zeuden; horietatik, %90 gizonetzkoak ziren, 49 urte zituzten batez beste, %60k unibertsitate-ikasketak zituen, %6 soilik bizi zen literaturatik eta gehiengoak irakasleak ziren (Olaziregi 2000: 89). Era berean, honela baieztatzen du Olaziregik (2000: 90): «Even-Zohar-ek darabilen kontzeptuaz baliatuz, itzulpenek, haur eta gazte literaturak, edo emakumezkoek idatzitako literaturak euskal literatur sisteman gune guttiz marginala, periferikoa, dutela esango genuke». Zehaztu beharko litzateke gune periferiko hori zeri dagokion, harrerari ala kopuruari; izan ere, itzulpenak eta HGL erdigunetik hurbil egonen lirateke kopuru aldetik (ez, ordea, emakume idazleak),<sup>62</sup> eta bestela gertatzen da itzulpenek eta HGLk duten harrerari edo prestigioari dagokionean.

<sup>60</sup> HGLko itzulpenen kantitate handia hezkuntzan D ereduaren ezartzearekin ere lotu daiteke. 80ko urteetatik aurrera, hezkuntza sistemak behar zuen testu masa ezin zion etxeko ekoizpenak eman, eta itzulpenak bete zuen gabezia hori. Horrela, Lopez Gasenik (2000: 89-90) dioenez, 1980 eta 1990 inguruko urteetan euskaratutako literatura guztiaren %72,1 haur eta gazteentzako literatura izan zen.

<sup>61</sup> Urtetik urtera aldea dago, ordea, 2012ko produkzioan nobedadeetan izan baitzen beherapen handiena, eta ia ez berrargitalpenetan; 2013koan, ordea, berdin antzean jaitsi ziren biak. Alta, urte batean zein bestean, nobedadeetan gora egin zuten itzulpen lanek.

<sup>62</sup> Literaturari dagokionez, emakume kopuruaren portzentajea azken urteotan igo egin bada ere, oraindik %15 eta %20 artean dabil.

Ezaugarri horiek guztiak biltzen dituzten datu gaurkotuak ez ditugun arren, irudipena dugu egoera orokorra ez dela anitz aldatu, nahiz eta kopuruetan aldea egonen den, noski. EIE eta Galtzagorri elkarteetan idazle kopuruaz galdetu dugu; EIE elkarteak 379 idazle bazkide ditu, eta Galtzagorrik, berriz, 36 baino ez. Kontuan hartu behar dugu datu horiek oso gutxi gorabeherakoak direla: gerta daiteke idazle bera bi elkarteko bazkide izatea helduentzat nahiz haurrentzat idazten duelako; gerta daiteke, halaber, bazkide diren idazleetako batzuek aspaldi argitaratu izana azken lana, nahiz eta elkartean segitu; eta aintzat hartu behar dugu idazle guztiak ez direla elkarte horietako bazkide izanen.<sup>63</sup> Autore kopurua eta obra kopurua lotzen dituen daturik ez badugu ere, Kortazarrek (2002: 75) zantzuren bat ematen zuen 2002an: «egia da baita ere, obra bakarreko idazle askorekin dugula betea euskal literatura. Sistemaren ahuleziarekin egiten dugunean topo, normalagoa da obra bakarreko idazleak aurkitzea».

Aipagai izan ditugun ikerketetan agertu ez bada ere, gogoan hartu behar dugu gaur egun euskaraz idazten duten idazle guztiak elebidunak direla. Horrek esan nahi du idazleak hautu bat egin behar duela hizkuntza batean edo bestean idazteko. Hautu horietan barne faktoreek eta kanpo faktoreek eragin dezakete, 2. atalean ikusi dugunez. Retolazaren (2011: 229) esanetan, euskara literatura hizkuntzatzat erabiltzeari balioa kendu zaio. Euskararen erabilera deslegitimatzeke, besteak beste, itzulpena sustatzen duen diskurtso bat sortu dela dio Retolazak: «No es preocupante que se fomente la traducción y se difunda. Sí lo son los discursos y mecanismos de difusión promovidos» (2011: 229). Izan ere, itzulpen politikak maiz ez dira oinarritzen barne ikuspegi batetik diseinaturiko programetan, baizik eta kanpo logika batetik diseinaturikoetan (Retolaza 2011: 229).

Literatura itzultzaileen profila aztertzea zailagoa da, ez baitago, guk dakigula, aipaturiko idazleen moduko azterlanik. EIZIE elkarteko NorDaNor atariak<sup>64</sup> literatura itzultzen duten 94 itzultzaile biltzen ditu (kontsulta data: 2016/09/28). Hori, aurrekoen antzera, gutxi gorabeherako kopurua da, literatura itzultzen dabiltzan anitz ez baitira elkarteko kide (idazleak, tartean).

## Bitartekariak

Multzo zabal horretan sar genitzake Even-Zoharren eskemako instituzioa, erreperitorioa eta merkatua. Horren barruan, zehazki, argitaratzaileei, kritikari eta irakaskuntzari begiratuko diegu.

Joan Mari Torrealdaik, urteroko liburugintzari buruzko azterketan, edizio pribatuaren datuak ematen ditu. 2013ko ekoizpenari buruzko azterketan, titulu gehien eman zituzten lehen hamar argitaletxetako seik egoitza nagusia Euskal Herritik kanpo dute, Espainiako estatuan, betiere. Ekoizpenaren kopuruan bertokoen gainetik kanpoko agertzea ez da datu kuantitatibo soila, Torrealdairen (2014: 99) ustez: «nagusitasun hori non mamitzen den

<sup>63</sup> Irudipen hori dugu batez ere HGLko idazleekin, genero nagusia izanik ere oso gutxi baitira elkarteko kideak.

<sup>64</sup> Euskaratik eta euskarara egindako itzulpengintza, interpretazioa eta zuzenketa kontuan harturik, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak sorturiko euskal itzulpengintzaren datu-basea da nordanor.eus ataria.

kontuan hartuta, non eta euskalgintzaren birprodukzioan halako eragina eta pisua duten alorretan gertatzen baita: ikasmaterialetan eta gazteen liburuetan». Datuak ere ematen ditu: HGLn, %54 ekoitzi dute kanpokoek eta %46 bertokoek. Ehunekoen arteko aldea handiagoa da oraindik irakaskuntza liburuetan. Egiaz, kanpoko ekoizpenean bi arlo horien nagusitasuna hain da handia, honela ondorioztatzen baitu: «kanpoko argitaletxeek euskaraz argitaratzen duten guzti-guztiaren %94,7 haur eta gazteentzako idatzitakoa da, ikasmaterial gisa edo literatura gisa» (Torrealdai 2014: 103). Urtez urte errepikatzen da nagusitasun hori; kasurako, 2014ko liburugintzan, %96,7koa zen kopurua (Torrealdai 2015: 73). Euskal lurretatik kanpo egiteak esan nahi du han daudela erabakiguneak; ondorioz, ez zaio zuzenean Euskal Herriko errealitateari lotuko. Kanpo-irizpideen arabera harturiko erabakiak ez dira euskal sisteman independenteki hartuak izanen. Halakoetan, Espainiako estatuan egiten badira, pentsatzekoa da gaztelaniaz idatziko direla liburuok eta ondoren euskaratu. Hori salatzen du Torrealdai (2014: 104):

Bada salagarria den jarrera bat, maltzurra, engainagarria: bertokotzat agertzearen edo, egiletzak ezkutatu egin ohi dira sarri; euskal sorkuntzako liburu bailiran agertzearen, mozorroketa teknika erabiltzen da: itzultzaileak moldatzaile edo egokitzaile gisa ager daitezke; eta, deskuidatuz gero, autore gisa ere bai, jatorrizkoei erantsiz. Trikimailu horiei esker (eta berariaz erantsitako zati berriei ere), kanpoko hezkuntza liburuetan %32,8 bakarrik litzateke itzulitako liburua, baina egiaz eta benetan itzulpenaren indarra hagitz handiagoa da.

Beraz, itzulpena ezkutatu egiten da, eta egokitzapen modura aurkezten, “bertokoago” egite aldera, apika. Torrealdai kezka azaltzen du, batez ere hartzailea nor den kontuan hartuz: «Amore emanda ote gaude? Ala enteratu ere egin gabe? Edota ez ikusiarena egiten dugu? Ez dakit zer den larriago. Kontua da ikuspegi ez-abertzale-ez-euskaltzalea dela nagusi gure haur eta gazteen hezkuntzako liburu askotan, gehienetan» (Torrealdai 2015: 74). Kanpoko argitaletxeen presentzia handiari gehitu beharko genioke tokiko argitaletxe gehienek euskaraz gain gaztelaniaz edo frantsesez ere argitaratzen dutela.

Helduentzako literatura argitaratzaileei dagokienez, aipatzekoa da azken urteotan gurean sortu diren argitaletxeak. Euskara hutsean kaleratzen duten hiru argitaletxe sortu dira: Edo!, Pasazaite eta Denonartean. Azken hori Cenlit etxe nafarraren argitalpen-zigilu bat da, 2010ean sortua; formatu laburreko eta oihartzun handiko liburuen aldeko hautua egin dute. Pasazaite 2012an sortu zuen Xabier Queirugak, eta urtean bizpahiru liburu kaleratzen ditu, guztiak itzulpenak eta autore garaikideenak. Urte berean sortu zuten Edo! argitaletxea, borondatezko lanean oinarritzen zena. Ez dira guztiak sorrerak izan, ordea; Alberdania etxeak titulu berriak argitaratzeari utzi dio, baina badirudi ez dutela itxi, zaharrak berrargitaratzen segitzen baitute. Zailtasun ekonomikoei egotzi diete Alberdaniaren itzalaldia.<sup>65</sup>

Kritikari<sup>66</sup> dagokionean, Armiarma atariak duen hemerrotekaren arabera, bederatzi argitalpenetan<sup>67</sup> egiten dituzte euskarazko liburuen kritikak gaur egun (2015ean). 1975etik

<sup>65</sup> 2017an, Edo! argitaletxeak bere bidea bukatutzat eman du, eta Alberdaniak iragarri du berriz ekinen diola argitaratzeari.

<sup>66</sup> Kritika publikoaz bakarrik mintzatuko gara hemen, ez kritika akademikoaz, are eta urriagoa baita. Bereizketa horri buruz honela zioen Olaziregik (2000: 95): «egun kritika akademikoaren eta publikoaren artean



2005erako epealdian Euskal Herrian egindako 2.300 kritika aztertu ditu Ibon Egañak, eta *Izán gabe denaz. Hogeita hamar urte euskal hedabideetako literatur kritikan* (Utriusque Vasconiae, 2015) liburuan eman du tesi laburtua. Atera duen ondorio nagusietako bat da positiboa edo oso positiboa dela kritika baloratzailen %84; iruzkinak nagusiki dira baikorrak 1990eko hamarkadatik aurrera. Balorazio positibo horien atzean, kritika legitimatzeko arazoak eta protekzionismoa ikusten ditu Egañak:

Aipatzekoa da kritika ezkorak egiteko legitimitaterik ez zaiola aitortzen kritikoari, hainbat faktore direla medio: kritikaren profesionalizazio eza, idazle eta kritikoaren arteko distantzia urria, euskal literaturarekiko protekzionismoa edo gustu indibidualak irizpide gisa lehentasuna eskuratu izana (Larrañaga 2015).

Kritikari berriz helduz, aipagarria da euskaraz egiten diren iruzkinen gehiengoa euskaraz sorturiko liburuei egiten zaiela,<sup>68</sup> nahiz eta egoera hori aldatzen ari den. *Literatur itzulpenaren kritika. Lehen pausoak: dibulgazio-kritikaren azterketa* (2011) ikerketan, Miren Ibarluzeak egunkaritako 511 kritika aztertu zituen, eta ondorio hauek atera: itzulpenak iruzkintzen ditu gainerako lanak iruzkintzen dituen pertsona berak eta irizpide bereberekin. Horri lotuta, ez daude finkatuta itzulpenak zer irizpideren arabera iruzkindu behar diren, eta nork bere intuizioen arabera jokatzeko du. Halaber, ez dira bereizten lan unibertsalen edo klasikoen itzulpenen kritikak eta lan komertzialagoen kritikak, eta guztiak iruzkintzen dira liburua argitaratu eta gutxira. Gabeziak gabezi, goranzko joera bat ikusten du Ibarluzeak (2011) literatura itzulpenen iruzkin kopuruan. EIZIEk bultzaturiko “Literatur itzulpena hedabideetan” programa dugu goranzko joera horren adierazleetako bat; euskaraturiko literatura lanei, eta, zehazki, Literatura Unibertsala bildumako liburuei hedabideetan lekua eta ikusgarritasuna egitea zuen helburu, eta kritika edo liburu-iruzkinen bidez egiten zen hori. 1991n ekin zioten programari; urtez urte literatura itzulpenen presentzia handitzen zela ikusita, kritika kopurua gutxitu zuten, harik eta 2013. urtean programa bertan behera utzi zuten arte. *Patronage* (Lefevre 1992) kontzeptuarekin lotu dezakegu hori: euskal literaturaren aktibotzat hartzen dira itzulpenak, eta horregatik bultzatu zituen EIZIE elkarteak horien iruzkina.

Kritikei ez ezik, hedabideetan agertzeari garrantzia ematen dio Olaziregik: «Gaur egungo euskal literatur merkatuan, sari bat irabazteak baino garrantzi edo eraginkortasun handiagoa izan dezake komunikabideetan etengabe iragarritako lan batek» (Olaziregi 2000: 91). Autonomiari eta ideologiari buruzko artikuluko batean, honela dio Figuerok:

---

dagoen etena apurtu behar dugu. Unibertsitateko irakasleok inplikatu egin behar genuke komunikabide eta aldizkarietan gure irakurketa eta interpretazioak eskaintzeko». Bien arteko etena laburtzeko modu bat izan daiteke hedabideetan unibertsitate ikerketen berri ematea, edo, Utriusque Vasconiae egiten duen gisan, tesiak hizkera ez akademikoan liburu modura argitaratzea.

<sup>67</sup> Hauek dira: *Argia*, *El Diario Vasco*, *Berria*, *El Correo*, *Gara*, *Deia*, *Aizu*, *Hegats* eta Besterik; azken horrek sarean edo nagusi ez diren argitalpenetan kaleratzen dituztenak eta kritikak oso noizbehinka zabaltzen dituztenak biltzen ditu. Sarean egin dugu kontsulta, helbide honetan: <http://kritikak.armiarma.eus/>.

<sup>68</sup> Hori mundu mailako fenomeno da: Fouces Gonzalezek (2011) dioenez, kritika literarioak, historikoki, ezikusia egin ohi die itzulpenari, maiz ezjakintasunagatik; datu esanguratsu bat ere ematen du: kritika osoaren %1,5ek baizik ez diote aipamenik egiten itzulpenari edo itzultzaileari. Gurean kopuru hori nabarmen handiagoa delakoan gaude, eta itzulpenak halakotzat ez aurkeztea baino, aldea euskaraz idatzitakoan eta itzulpenen arteko kopuruan dagoela esanzen genuke, hipotesia baizik ez den arren.

Cada posición se consigue, se mantiene, se defiende no solo con argumentos literarios sino en muchos casos con medios de otro tipo: económicos, políticos o de otros campos externos. La consideración social de “escritor”, “gran escritor”, “poeta” no se obtiene solo mediante razones literarias, sino también mediante actividades como, por ejemplo, la presencia en los medios, la publicación en determinadas editoriales, o el apoyo a partidos o grupos, etcétera, factores todos ellos condicionados por poderes externos. Junto pues con el principio de autonomía, también se puede hablar de principio (exterior) muy variable de heteronomía (Figuroa 2016: 26).

Hainbat aldagaik baldintzatzen dute idazle baten eta bere obraren proiektzioa, beraz. Ikusgarritasunari begiratuta, sari bat irabazteak gehienetan hedabideetan agertzea esan nahi badu ere, baliteke onargarritasun aldetik gauza bera ez izatea. Harkaitz Canok dio sariketak beti izan direla erreparo-eragile: «Sortzailea mesfidatia da berez boterearekiko. Sariak eta euren erabilpen politikoa betidanik izan dira tentsio horren erakusgarri» (Cano 2014: 20-21). Sortzaileei ez ezik, mesfidantza irakurleei ere eragin diezaioke, instituzio batek emandako sariak erakutsi baitezake instituzio horrek liburua legitimatu egiten duela; sari hori onartzeak, berriz, autoreak instituzioa legitimatzen duela. Horrela, sariarekin batera beti dator balioztatzea, eta, horrekin, lehenestea. Elkarrizketa batean, Ibon Egañak sariketekin lotzen du, besteak beste, kritika positiboen gorakada: «1990eko hamarkadatik aurrera badirudi kanpoko sariak indar handiagoa dutela barrukoek baino, eta ematen du instantzia gorena ez direla ez euskal kritika ez euskal irakurlea, baizik eta hortik kanpo dagoen zerbait» (Astiz 2015). Beraz, kanpoko sariketek etxeko kritika baldintzatzeko boterea lukete; hots, kanpoko instituzioei zilegitasuna ematen diegu etxeko ekoizpena neurtu eta balioztatzeko.

Autoitzulpenaren atalean aipatu dugunez, kanpo-legitimazioaren bilaketaren salaketa egiten zuen Retolazak (2011). Ildo beretik mintzo da Antton Luku *Euskal kultura?* (Pamiela, 2008) saiakera laburrean, non Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako kultur egoera zorrotz aztertzen baitu. Lukuren ustez, kultura baten mailaketarako kontzeptuak irizpiderik gabe erabiltzen eta esportatzen dira euskal kulturaren, eta «[e]paitzeko orenean, “graduaren” emateko hiztegia eta ebaluatzeko kontzeptuak Frantziatik heldu dira eta ez dira beti pertinentek gurean» (Luku 2008: 46). Dela kalitatea neurtzeko, dela finantzazioa lortzeko, dela gure buruan sinesteko, euskararen espazio geografiko eta sinbolikotik kanpora jotzen du euskal sortzaileak.

[E]z d[e]la sinesten gure sortzeko ahalean, ondorioz antzeztea (...) eta zuzendaritza erosten dira. Ez da historian biziki jantzia izan behar jakiteko kolonialismoaren definizioa dela. Brevetak, patenteak, metropolian egoten dira eta koloniak lehengai eta besoak ditu segurtatzen, non ez den salbidea, izorraldiaren alde guztiak dituen tratu batean (Luku 2008: 60).

Beste morrontza batez ari da Luku, galbidera baizik eraman ez dezakeena: «Kanpoan saldu ala hil. Baina substituzioa heriotza da edozein gisaz» (Luku 2008: 60-61). Zer baldintzatan eta zer irizpideren arabera saldu, hor dateke gakoa. Kanporatze hori beharrezkotzat du Jon Alonsok (2001), nahiz eta horrek dakartzan morrontzez jakitun izan:

Kanpora joateak, edozein etorkinek dakien bezala, morrontza handiak dauzka. Badaude, batetik, egiturazko arazoak: itzulpenak egin eta ordaindu behar dira, agente

literarioak behar dira, saltoki eta ferietara joan behar da... Baina horiek, txikiak ez izanik ere, gutxieneoak dira. Gero beste hiru arazo-klase dago (Alonso 2001: 52-53).

Alonsok aipatzen dituen hiru arazoak dira: lehenik, politikoa, «[n]ekez salduko dugu ezer Europan biolento eta fazista famatzen gaituzten artean»; bigarrenik, Eusko Jaurlaritzako «ohiko kudeatzaileek» ez dute sinesten euskal liburua estrategikoa denik; eta, hirugarrenik, zenbaitek literaturaren bidez ere ukatu nahi du euskal izaera nazionala, «eta, hortaz, gure literatura ez da sekula, edo oso gutxitan, irizpide literario soilekin epaitzen» (Alonso 2001: 53).

Irakaskuntza da literatura sistemaren barruko beste instituzio bat. “Euskal hizkuntza eta literatura” ikasgaiaren barnean irakasten da gaur egun euskal literatura. Alegia, curriculum legeak hala aginduta, hizkuntzaren eta literaturaren edukiak modu berezitan lantzen dira beste behin, eta horrela, sarritan, irakasleek garrantzi handiagoa ematen diote ikasleen hizkuntza maila hobetzeari literatura irakasteari baino. Irakaskuntza sisteman zer sartzen den, eragina izan dezake merkatuan eta literatura sistemaren egitura hierarkikoetan. Idurre Alonso Amezuak (2008) ikuspegi soziologikotik aztertu du euskal literatura Hego Euskal Herriko batxilergoan zer, nola eta zer helbururekin irakasten den. Ikastetxeetan literaturari ematen zaion garrantzia gainbehera doala dio Alonso Amezuak, nahiz eta horrek eragin zuzena duen literatura sistema osoaren osasunarekin: historiako idazle eta testuak aurkeztean, idazle batzuen lanak betikotu egiten dira; aukeraketaren ondorioz erdigunera ekartzen dira eta beste batzuk baztertzen. Bestalde, ikasleei irakurrarazten zaizkien liburuek eragin zuzena dute merkatuan, errentagarritasun ekonomikoa ekartzen baitie argialetxei autore eta genero batzuen alde (Alonso Amezuak 2008: 304). Historiaren irakaskuntza eta irakurgaiak bereizten ditu ikertzaileak azterketa egiterakoan, baina badute lotura; izan ere, testuliburuetakoa erdiguneak ikasgelakoa baldintzatzen du eta literaturaren historiako erdiguneak ere irakurgaien erdigunean eragina du. Horretaz gainera, zenbait sariketarako irakurgaien hautaketan eragina duela ondorioztatzen du Alonso Amezuak, Espainiako Kritika Sariak eta Espainiako Sari Nazionalak kasu; beste behin ere, argi geratzen da kanpoko balioztatzaileek etxeko irizpideak baldintza ditzaketela. Alonso Amezuak (2012: 57) dio «literaturaren irakaskuntzan kalitate- eta merkatu-irizpideak nahastu egiten direla, bakoitza bestearekiko indar-harremanean nagusitu nahian». Indar korrelazio horretan, merkatu-irizpideak ariko liriateke nagusitzen.

### Kontsumoa

Aurretik esan bezala, atal honetan euskarazkoen harrerari begiratuko diogu soilik, ez xedetestuen harrerari; izan ere, irakurle erreala zein den aztertuko dugu, geroko utziko dugularik zer irakurle inplizitu aurreikusten duten autoitzultzaileek.

Olaziregiren (2000) azterketaren arabera, harrerarena da literatura sistemaren alderdirik ahulena. Aurretik egindako ikerketetan oinarrituz, bi datu nabarmentzen ditu: batetik, irakurzaletasuna jaitsi egiten da adinarekin, eta irakurzaletasun horrek irakaskuntza zirkuituarekin harreman hertsiegia du; bestetik, 20 eta 39 urte bitarteko euskal hiztun alfabetatuek irakurzaletasun eskasa dute (Olaziregi 2000: 91). Euskal gazteen

irakurzaletasuna aztertzean, zehazki, Olaziregik (1998) ondorio hauek jaso zituen, besteak beste: adinean gora egin ahala gutxiago irakurtzen dela, emakumezkoak direla irakurzaleenak, etxeko en eragina nabarmena dela, eta euskaldun-zaharrek gainerakoek baino gehiago irakurtzen dutela euskaraz. Nabarmendu zuen, oro har, emakumezkoek eta 35 urtetik beherakoek joera handiagoa dutela literatura irakurtzeko, baina egunean aisialdirako ordubete baino gutxiago dutela gizonezkoen %36k eta emakumezkoen %64k. Orobat zioen ikuspegi geografikotik, populazio handiena duten probintziek dutela balizko irakurle gehien. Harkaitz Zubiri Esnaolaren (2013) esanetan, ordea, hori ez da guztiz betetzen, Gipuzkoaren pisua Bizkaikoa baino handiagoa baita; «[f]enomeno hori, ezpairik gabe, elebidunen herrialdekako banaketari zor zaio» (Zubiri 2013: 61).

Hartzaileen kopuruaz kezka bera azaltzen du Xabier Olarra editore eta itzultzaileak, euskarazko irakurleei buruz galdetzen diotenean:

Termino absolutuetan esanda, orain adina irakurle ez ditu sekula izan euskarak, orain adina ez da sekula argitaratu euskaraz, orain adina aukera ez ditu sekula izan irakurleak euskaraz, baina horrekin batera dator irakurleak geroz eta gutxiago direla dirudenez, eta liburuaren etorkizuna alde horretatik geroz eta beltzagoa dela. Hor bilatu behar dira irtenbideak (Tubia 2013).

Beraz, kopuru potentziala inoiz baino handiagoa izan arren, kopuru errealekin ez da berdin gertatzen. Antzeko iritzia azaltzen du Iban Zalduak: «la oferta literaria en nuestro idioma ha mejorado ostensiblemente con respecto a la de los anteriores cuatrocientos años», eta, hala ere, «la tragedia sea en este preciso instante cuando nos vayamos a quedar quizá sin lectores, a causa de la pérdida que el estatus de la literatura está sufriendo, sin remedio, en la sociedad actual» (Zaldua 2012: 183). Ekoizpenaren eta harreraren arteko desoreka hori aipatzen du Harkaitz Canok *Beti oportetan* ipuin-liburuaren harira Maddalen Iriartek egindako elkarrizketan: «inoiz ez da idatzi orain adina. Humanidade osoa idazten ari da etengabe. Orain, zer? Zertarako? (...) Gaurko joera da jende guztiak idazle izan nahi duela, baina inork ez du irakurle izan nahi. Eta hori tragikoa da, ez? Zuk ezin duzu idazle izan ez bazara irakurle» (Iriarte 2016). Baina ez da horren berria ere, Alonsok 2001ean hala idatzi baitzuen *Agur, Darwin* liburuan, euskarari eskainitako atalean: «Euskal literaturaren ahulezia ez dago, edo ez hainbeste, idazleen kopuruan eta kalitate edo kalitate ezean, irakurleen kopuruan eta kalitatean baizik. Irakurle gutxi eta maila apalekoak ditugu, gara» (Alonso 2001: 94). Eta aurreikusten zuen luzaroan iraunen zuela joerak.

Harkaitz Zubiri Esnaola (2013) ikerketa soziolinguistikoetatik abiatu da euskal literaturaren irakurleak zenbat eta nolakoak diren aztertzeko; besteak beste, kopuru potentzial eta errealak ditu hizpide. Autoreak dioenez, erdal kulturaren kontsumoa potentzialki ia bost aldiz handiagoa da euskal kulturarena baino, eta kontsumitzaile potentzialen kopuruak eragina du kontsumo errealean. Asimetria hori euskararen kalterako da, ekoizpena ere baldintzatuko duelako; hau da, erdaretako eskaintzaren aldean, euskarazkoa urriagoa izanen da, hartzaile kopurua txikiagoa baita, eta orduan euskarazko irakurleek erdaretako ekoizpena joko dute. Sorgin gurpil bat dela esan daiteke.

Ondorioei begiratuta, Zubiri Esnaolak ematen dituen kopuruak hauek dira, hiru taldetan banatuta: lehenik, ohiko irakurle sutsuen taldea 15.000-20.000 pertsonakoa

litzateke; bigarrenik, ohiko irakurle moderatuen taldean 40.000 pertsona leudeke; eta, azkenik, tartekako irakurleen taldean 100.000-150.000 pertsona (Zubiri Esnaola 2013: 64). Balizko datuak direla ohartarazten du ikertzaileak, bigarren mailako datuetatik abiatu eta ikerketan azaltzen dituen zenbait irizpidetan oinarrituta lortu baititu. Ezkorragoa da Bernardo Atxaga, *Erlea* literatura aldizkariari “1700en aldizkaria” azpiztitulua jarri baitzion, horixe delakoan euskarazko irakurleen benetako kopurua. Etxezaharretak, zehazki Ipar Euskal Herriko irakurle kopuruari buruz, honela dio: «Herria euskarazko astekariak 3000 harpide izanez, hainbat irakurle bederen konda daitezke. Errealitatea, liburuen irakurketari dagokienez, zorrotzagoa da: 300 bat liburu erosle daitezke» (Etxezaharreta 2002: 663). Halaber, Etxezaharretak dio liburu salduen kopuruak nabarmen egiten duela gora pastoralen kasuan, salbuespen gisara: «urtean zehar gehienik saltzen eta zabaltzen den liburua Pastoralen testu bilduma dugu, bost mila aletan bederen» (Etxezaharreta 2002: 664). Hori da, beraz, euskarazko arlorik zabalduena Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan, nahiz eta Etxezaharretak (2002: 663) ohartarazten duen «erdarazko itzulpenarentzat erosten direla gehienbat». Beraz, ezin kopuru hori aintzat hartu Ipar EHko irakurle euskaldunak zenbatzeko.

Elkar fundazioak oraintsu (2018ko martxoaren 14an) argitaratu ditu euskaldunen kultur kontsumoari buruzko datuak, Siadeco Ikerketa Elkarteak enkarguz egindako azterketaren emaitza. Horien arabera, euskaldunen %23k daukate ohitura<sup>69</sup> euskarazko liburuak irakurtzeko (hots, 172.000 herritar); erdaraz irakurtzeko ohitura, berriz, euskaldunen %56k (kopurutan, 402.000). Euskal herritarrei eta ez soilik euskaldunei egindako galdeketa oinarritzen dela kontuan izanik, euskal herritarren %6 dira euskarazko liburuen ohiko irakurleak, eta kopuru horrek bat egiten du euskarazko prentsaren irakurle kopuruarekin. Elkar fundazioko Joxemari Sorsek ondorioztatzen du, beraz, «euskarazko idatzizko ekoizpenaren inguruan dagoen merkatua 150.000 lagun ingurukoa dela, eta horrek ematen duen neurria mugatua da» (Elkar fundazioa 2018: 6).

Irakurleen profilari dagokionez, Zubiri Esnaolak (2013) dio gehiengo zabala Gipuzkoan eta Bizkaian bizi dela, gehiengoak emakumeak direla, 25-54 urte artekoetan kopurua handiagoa dela, baita, agian, unibertsitate-ikasketak dituztenen artean ere. Elkar fundazioaren (2018: 2) ikerketaren arabera, 16-25 urteko irakurleek dute ohitura handiena euskaraz irakurtzeko, hain juxtu eskolatze garaian dauden horiek. Era berean, ohitura edo erraztasun falta da euskaldunek euskaraz ez irakurtzeko arrazoirik handiena, bereziki 65 urtetik gorakoengan (2018: 4). Hizkuntza edozein delarik ere, Ipar Euskal Herrian herritar gehiagok dute irakurtzeko ohitura, datu orokorrekin alderatuta.

Izan ere, ez dugu ahaztu behar Euskal Herrian bertan badela euskal literaturaren (auto)itzulpenen hartzaile potentzial handi bat ere: erdal irakurleak. Kasurako, 4. atalean ikusiko dugunez, euskaratik egindako autoitzulpen gehienak euskal lurraldeetan argitaratzen dira, argitaletxea gorabehera. Datu zehatzik ez izan arren, ez dugu euskal literaturaren irakurle multzo hori ahaztu behar.

<sup>69</sup> Azken hilabeteen libururen bat irakurriz gero, ohituratzat dutela ondorioztatzen da ikerketan.

### 3.1.2. Erdaretako literatura-sistemak euskarazkoarekiko

Ikusi dugunez, euskaraz idazten den literaturak ez du sistema guztiz autonomo eta osoa osatzen, eta mendeko da frantses, eta, bereziki, espainiar sistemekiko. Aipatu dugun bezala, ez-parekotasun hori alde bikoa da, Euskal Herrian gertatzen baita Espainian eta Frantzia bezainbeste.<sup>70</sup> Elizabete Manterolak dioen moduan, «erreferentziatzko liburu horien hautua gaztelaniazko literatur sistemaren harreraren eta kritikaren arabera egiten dela esan nahi du» (Manterola 2012: 18). Ez hori bakarrik: batzuetan gaztelaniazko bertsioa erabiltzen da lan bat euskaraz jartzeko, hainbat ikertzailek erakutsi bezala (besteak beste, Sanz 2015, Zubillaga 2013 eta Manterola 2012). Ildo beretik, Apalategik dio «gaztelerazko bertsioaren bitartekaritza ezinbestekoa zaiola, momentuz, euskal idazle bati mugak eta merkatuak zeharkatzeko» (Apalategi 1998: 80). Lagungarri izateaz harago, bada, nahitaezko baldintza litzateke. Aipatu asimetriaren inguruan honela dio José Lambertek (1999: 68):

(...)en el interior de las literaturas, como en las actividades cotidianas, sus miembros combinan los diferentes sistemas y sub-sistemas entre sí. Esto explica que tantas literaturas en las sociedades multilingües sean en realidad sistemas incompletos (estén, por ejemplo, desprovistos de redes de distribución, de manuales de poética, de enseñanza literaria, etc.).

Autonomia falta hori agerikoa da, baita ere, espainiar eta frantses literaturaren sistemaren ikuspegitik. Jarraian ikusiko dugu nola definitzen dituzten zenbait iturrik Espainiako eta Frantziako literatura sistemak, eta euskaldunarekin zer-nolako harremana irudikatzen duten.

Larousse etxearen 2001eko *Dictionnaire mondial des littératures* delakoan,<sup>71</sup> Euskal Herria eta bertako literatura ez da inon agertzen; alegia, “Pays Basque” edo “Basque” begiratuta, ez da ezein sarrerarik agertzen. Ez da soilik sarrera modura agertzen ez dela, baizik eta erreferentziarik ere ez zaiola egiten. Hasieran bada “Table d'orientation” bat, non batez ere herrialdeak agertzen baitira ondoan hiztegi sarrerak dituztela, herrialde jakin bat edo horri loturikoak zer sarreratan ageri diren jakiteko. Zerrenda horretan “Pays Basque” begiratuta, «synthèse seule» agertzen da. Beste hamaika herrialdek dute hiztegi sarrera bat, baita frantsesez hitz egiten ez duten lurraldeek ere; hala nola, Bulgaria eta Birmania. Frantziako estatuko beste herri batzuek, Alsaziak eta Bretainiak esaterako, ez dute sarrerarik, baina “Table d'orientation” horretan agertzen dira, zenbait sarrerari lotuta. Egiaz, ez dakigu «synthèse seule» horrekin zer esan nahi den, ez hasieran ez bukaeran ez baitu horren berri ematen. Esanguratsua da, ordea, tamaina horretako frantses hiztegi entziklopediko batean euskal literaturak lekurik ez izatea.

<sup>70</sup> Kolonizazioaz mintzo zen Luku (2008), argi utziz autokolonizazioa ere badela.

<sup>71</sup> Sarean egin dugu kontsulta, helbide honetan: <http://www.larousse.fr/archives/litterature>.

Akademiaz haragoko eztabaida bat da, ordea, literatura sistematik kanpoko eragileak ere blaitzen dituen. Wikipediako<sup>72</sup> frantseseko bertsioak literatura frantsesa eta literatura frankofonoa bereizten ditu:

La littérature française comprend l'ensemble des œuvres écrites par des auteurs de nationalité française ou de langue française, elle peut également se référer à la littérature écrite par des citoyens français qui écrivent dans des langues de France telles que le basque, le breton, etc.

La littérature écrite en langue française par les personnes d'autres pays tels que la Belgique, la Suisse, le Canada, le Sénégal, l'Algérie, le Maroc, etc. se réfère à la littérature francophone (Wikipédia, Littérature française).

Beraz, eremu geografikoaren arabeko sailkapenari “française” adjektiboa dagokio, hizkuntza edozein dela ere, eta hor sartuko lirateke euskaraz idazten duten eta legalki frantsesak diren euskal idazleak. Estatua beste bat izan arren idazketarako tokian tokiko frantsesa darabilten idazleak, berriz, “francophone” horren barruan sartuko lirateke. Iturri beraren arabera, Itxaro Borda «une écrivaine de langue basque» da, Ur Apalategi, «écrivain basque français de langue basque», eta Aurelia Arkotxa, berriz, «auteur et académicienne basque française de langue basque et française», hiru adibide baizik ez emateagatik. Deus erakustekotan, batasunik ez dagoela erakusten du horrek.

Egiaz, eztabaida handia dago “frantses literatura” eta “literatura frankofonoa” terminoekin, eta ez dago batasunik bata edo bestea erabiltzerakoan. Batzuek “frankofono” kategoria darabilte frantsesez idazten duten autore ez frantsesen literatura ekoizpenari erreferentzia egiteko. Beste batzuek frantses inperialismo kulturalaren arrastoa ikusten dute termino horretan; “frankofono” kontzeptuaren bidez idazle guztiak bilduz eta ezberdintasun hori markatuz, kolonia zahar horien literatura ekoizpenak beretzat hartu nahi dituelakoan. Horrela, bada, 2007an sinaturiko manifestu baten bidez, “mundu-literatura frantsesez” etiketa aldarrikatu zuten 44 idazlek (Bessy 2011). Termino hori ere aski eztabaidagarria gerta daiteke, ordea, eta zehaztasun gutxikoa betiere. Nolanahi den, eztabaida handiena Frantziako estatutik kanpoko frantses hiztunen artekoa izan da; alegia, hizkuntza nagusi berekoen artekoa, ez espazio geografiko berean ari diren beste hizkuntza gutxituagoen literatura terminologiarekin.

Ipar Euskal Herriko ez-euskaldunek onartu egiten dute eremu geografiko berean badela beste hizkuntza bat, nahiz eta ez duten onartzen hizkuntza horretan egin behar denik, Ixabel Etxeberriaren ustez.

Euskara ulertzen ez dutenentzat eta bereziko podere dutenentzat, Euskaraz [sic] idazten dutenak lumak dira, bazterreko lumak, ez da zalantzan jartzen onak direnik, ez dakite, ez dute ulertzen, euskaraz bizi den mundua kuriositatea da, utzi behar dira, baina gauza serio sak, benetan garrantzia dutenak, horiek frantsesez egiten dira (Etxeberria 2013: 56).

<sup>72</sup> Wikipedia iturri komunitarioa izanda, pertinentea iruditu zaigu dibulgaziozko erreferentzia bati erreparatzea. Horixe aukeratu dugu hedaduragatik; beste iturri espezializatuak baino kontsultatuagoa denez, horren edukiek eragin zabalagoa izan dezake batez besteko irakurlearengan.

Beraz, bitxikeria modura bizitzen uzten bazaio ere, ez dirudi serio hartzen denik euskaraz egiten den literatura. Marie Darrieussecq<sup>73</sup> idazle baionarrak hizkuntzarekin eta balio errepublikanoekin lotzen du euskal kulturarekiko interes falta:

Pour le dire vite, disons qu'en Pays Basque français, il y a une adhésion aux valeurs des Lumières, aux valeurs républicaines, qui sont contre le maintien des langues qu'on appelle "régionales". C'est affreux, j'ai horreur du mot région. Il y a des gens qui se sentent personnellement menacés par l'existence de la langue basque. Je pense que c'est de l'ordre de la menace. De l'ordre de la peur (Pierre 2010).

Frantsesez idazten du Darrieussecqek; ama euskalduna izan arren, txikitik frantsesa gailendu zen etxean, aitaren, telebistako eta eskolako hizkuntza zelako. Elkarrizketa berean dio ahalegin handia ikusten duela «littérature basque» bat eratzeko, euskaraz idazle onak daudelako eta bi noranzkoetako itzulpenean indarra jartzen delako. Halaber, euskaraz idazten duten intelektualek beren buruari galdera anitz egin behar dietela dio: «faut-il écrire en espagnol pour parler du Pays Basque, pour espérer élargir le public? Doit-on obligatoirement parler de la cause basque dans les romans basques, ou peut-on se permettre de parler de toute autre chose, peut-on s'autoriser d'une visée universelle, comme dans les cultures plus mondialisées?» (Pierre 2010). Beraz, badirudi euskal idazleak beti izanen duela buru-neke bat idaztearekin zerikusirik ez duena, baizik eta hizkuntzaren erabilerarekin.

Gaztelaniazko entziklopedietara jotzen badugu, bestalde, batasun handiagoa ikus dezakegu, euskal literaturaz oro har ari garenean. 1996ko *Enciclopedia Espasa*-k "España" sarreran egiten dio tokia euskarazko literaturari; izan ere, "Literatura" sarreran begiratu gero, literatura unibertsalaz mintzo da, terminoaren etimologiaz eta abarrez. "España" sarreran, bada, "Literatura" izeneko atalean, euskal literatura aipatu ez arren, gaztelaniaz idazten zuten eta euskal herritarrek ziren autore batzuk ditu hizpide; hala nola, Miguel Unamuno eta Pio Baroja. Iztuetak (2015) *Cultura vasca asimilada* taldearen adibidetzat jotzen zituen bi idazle horiek, alegia. "Otras literaturas hispánicas" atalean, ordea, literatura katalanaren eta galegoaren ondoren dator "literatura vasca". Bereizketa bera agertzen da 1991ko *Enciclopedia universal ilustrada* delakoan, Espasa etxekoa hori ere. "España" sarreran, "Cultura" atalean dator "Literatura" azpiatala, eta horren barruan "Literatura en general", zeinak lau azpiatal hauek dituen: "Literatura castellana", "literatura vascongada", "literatura gallega" eta "literatura catalana (con la valenciana y mallorquina)". Bietan, 1996koan batez ere, labur-labur aipatzen dituzte euskarazko literatura lan, genero eta data batzuk, nabarmen zabalago lehen mendeak eta oso gaineratik 1960tik aurrerako urteak (instituzionalizazioa, lehen esan bezala, hamarkada horretan hasi arren). Beraz, gaztelaniazko iturri horiek ez dute ukatzen badagoela Estatuaren barruan gaztelaniazkoa ez den beste literatura batzuk, eta, geografian oinarrituriko irizpidearen arabera Espainiako literaturan sartzen bada ere, leku berezia eta txikia dute euskaraz idazten dutenek. Ez da hala gertatzen, ondorioz, gaztelaniaz idazten duten euskal herritarrekin, zuzenean sartuko baitira adjektiborik (hots, diferentziaziorik) gabeko "Literatura" atalean.

<sup>73</sup> Joseba Gabilondok hala aipatzen du: «Basque writers in French who have gained state-wide variety have begun to re-think their position in the Basque Country, notably Jean Echenoz and Maria Darrieussecq» (Gabilondo 2016: 279). Ez dakigu, ordea, zehazki zertan datzan posizio-aldaketa hori.



Iturri espezializatuagoetara joanda, Planeta argitaletxearen 2003ko *Historia de la literatura universal* entziklopedian, “De las vanguardias a nuestros días II” liburukian agertzen da euskarazko literatura, “El caso de la literatura vasca” tituluko azpiatalean. Bi orrialdetan azaltzen ditu euskaraz idatzitako literatura historiaren datu nagusiak. Historia horretan ere, gaztelaniaz idazten duten Euskal Herriko autoreak ez dituzte “literatura vasca” etiketarean sartzen, eta literatura espainolaren barruan agertzen dira literatura unibertsalaren historian.

Hizkuntzaren araberako idazleen bereizketa aipagarria iruditzen zaigu; izan ere, Euskal Herriko euskarazko sortzaileen eta erdaretako sortzaileen artean banaketa handia dago, batez ere erdaretako lan horiek euskaratu eta euskal merkatuan sona hartzen ez badute. Are gehiago euskarazkoak erdaratzen ez badira, euskal irakurlea gaztelaniaz edo/eta frantsesez irakurtzeko gai izanen baita. Orain arteko entziklopedietan ez bezala, “literatura vasca” eta “autora vasca” izendapenak aldarrikatzen dituzte zenbait erdal idazlek, hizkuntza edozein dela ere, eremu geografikoaren arabera. Esaterako, Bilboko *Pergola* 185 aldizkarian, «escritores vascos en castellano» izendapena darabilte gaztelaniazko idazleei buruzko erreportaje batean; honela dio Alex Oviedo erreportajearen egileak:

Aunque en muchas ocasiones los medios de comunicación definan como escritor vasco a quien plasma en papel sus historias en euskera y cuya producción sobrepasa sus fronteras gracias a las pertinentes traducciones (lo que vendría a ser un autor *euskaldun*), lo cierto es que una pléyade de autores buscan desarrollar su carrera literaria desde la perspectiva del idioma mayoritario en Euskadi (Oviedo 2008: 12).

Beraz, artikulugileak beste sailkapen bat egiten du; EAEn sorturiko idazle guztiak lirateke haren arabera “escritor vasco”,<sup>74</sup> eta, horien barruan, euskaraz idazten dutenak idazle “euskaldun” lirateke. Lurraldearen araberako irizpidea lehenetsi zuten Euskadiko Idazleen Elkartearen sortzeko, 2010ean. Elkartearen atariak dioenez, «Euskadin edota Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren idazleak elkartzeko helburuarekin, euren lanetan erabili ohi duten hizkuntza kontuan hartu gabe. (...)helburu du ere Elkartearen euskal kulturaren aktibitatearen parte gisa irudika dadila». Bazkide guztiek gaztelaniaz soilik ekoizten dute, bizpahiruk izan ezik.

*Pergola* aldizkariaren erreportaje berean, hainbat idazleren adierazpenak jasotzen dira; honela dio, esaterako, Javier Maura idazle bilbotarrak:

Escribir en castellano en Euskadi no comporta más limitaciones que el talento y la creatividad del autor. Otra cosa es publicar: a la concurrencia habitual de escritores en castellano y de traducciones procedentes de potentes grupos editoriales, se añade aquí la concurrencia, fuertemente subvencionada desde las instituciones, de la literatura vasca en euskera (Oviedo 2008: 13).

<sup>74</sup> Beste eztabaida bat litzateke “euskal literatura” eta “literatura vasca” baliokideak ote diren; esaterako, bere garaian Koldo Mitxelenak argi adierazi zuenez, «euskal literatura izan daiteke euskaldunek euskaldunentzat egin dutena besterik» (1981[2001: 54]). Alta, bi terminoak maiz jo izan dira sinonimotzat, helburuen araberako diskurtsoa nolakoa den.

Idazle bilbotarra kexu da, beraz, euskarazko argitalpenek jasotzen dituzten dirulaguntzez. Ez da, ordea, kexu den bakarra; Antonio Altarriba komikilariak, 2003ko Euskadi saria jaso zuenean, Eusko Jaurlaritzari kritika egin zion EAEn gaztelaniaz idatzitako literatura sustatzeko agertzen zuen utzikeriagatik. Itxuraz, euskarazkoaren mesedetan. Geroko elkarrizketa batean, Altarribak zioen beharbada bere hitzen zentzua ez zela behar bezala ulertu: «Empecé reclamando que la otra lengua oficial de la Comunidad que es el castellano también contara con apoyo institucional» (Díaz de Mendibil 2005). Iban Zalduak hau dio kexa horien inguruan:

Parecería pues, que el problema de muchos escritores vascos en castellano es el de una especie de complejo de provincianismo. Porque la literatura vasca en euskera, por muy raquítica que sea, siempre será una literatura nacional, mientras que la literatura vasca en castellano es, hoy por hoy, una literatura regional o provincial (Zaldua 2012: 126).

Zalduak zehazten du ez duela “regional” gutxiespenez erabiltzen, ez “nacional” harrotasunez ere. Jesus Maria Lasagabasterrek, berriz, frantsesez edo gaztelaniaz euskal literaturarik ba ote den galderari honela erantzuten dio: «La respuesta, evidentemente, es negativa. Y ciñéndome ahora al caso español, (...) hay escritores vascos que escriben en castellano, pero estos escritores no constituyen una literatura, ni en el plano sincrónico, ni, menos todavía, en el diacrónico» (Lasagabaster 2002: 650). Artikulu berean gaztelaniaz idazten duten eta sortzez euskal herritarrek diren sei autore<sup>75</sup> aztertzen ditu, eta ondorioztatzen du gaztelaniazko literatura sistemaren parte direla, irizpide hauetan oinarrituta: «movimiento editorial en el que funciona la obra, naturaleza de la recepción crítica, al menos en la gran mayoría de los casos, referencias intertextuales, etc.» (Lasagabaster 2002: 659).

Babes instituzionala ez da, ordea, gaztelaniaz idazten duten euskal herritarren kexa bakarra. Bazterketaz ere mintzo da zenbait; Iñaki Ezkerra idazle bilbotarrak, esaterako, honela erantzuten dio Selena Nobilek (2005: 52) egindako galderari:

Quien escribe en euskera hace una elección política, pero quien lo hace en castellano no. El que lo hace en castellano lo hace de manera natural. Los demás, por el contrario, tienen que convencernos de la necesidad de que haya atentados. Claro que no hay un estudio orgánico para los que escriben en castellano, ellos están incluidos en el círculo de España. Si el nacionalismo fuera inteligente incluiría también en su círculo a quien escribe en castellano, como no son inteligentes dan espacio sólo al euskera y de esta manera lo aíslan.

Hala ohartarazten zuen Alonsok (2001: 98):

Halako aurreiritzi moduko bat aski zabalduta dago euskaraz idazten dugunon aurka. Aurreiritzi (bon, “aurreiritzi” esaten dugu, baina askotan benetako “epaia” ez ezik “kondena” ere izaten da). Aurreiritzi edo iritzi horren arabera, gure jardunaren oinarria, funtsa, arrazoia, politikoa da. Epaia negatibo hau gogorragoa ohi da euskara idazlearen bigarren hizkuntza denean.

<sup>75</sup> Hauek dira: Miguel Sanchez Ostiz, Álvaro Bermejo, Fernando Aramburu, Juan Manuel de Prada, Lucía Etxebarria eta Espido Freire.

Ezkerraren aipuak bi gauza inplikatzan ditu. Alde batetik, gaztelaniaz idaztea erabakitzen duen idazleak ez omen du aukeraketa politikorik egiten, naturalki egiten du. Izan daiteke, besteak beste, gaztelaniaz idaztea erabakitzen duten idazleetako asko ez direla elebidunak, ez literatura idazteko behar den mailan, behintzat. Euskara hautatzen duten idazle batzuek esplizituki adierazi dute haien hautua naturalizat. Esaterako, Nagore Irazustabarrenak (2000) lau idazleri egindako elkarrizketa batean, Arantxa Iturbek zioen hizkuntzaren militante direla euskal idazleak; Harkaitz Canok honela erantzun zion:

Baina hori, seguruenik, garai batean nabarmenagoa zen. Igorrek [Estankona] eta nik ez dugu egundoko operazio mentala egin behar izan gazteleraz edo euskaraz idaztea erabakitzeko orduan. Modu naturalean gertatu da. Ramon Saizarbitoriak-eta esaten dutenez, haiek euskararengatik eta inork egiten ez zuelako hasi ziren idazten (Irazustabarrena 2000).

Beraz, badirudi belaunaldi kontua dela, eta gazteenek, egun 40 urte inguru eta gutxiago dituztenek, ez dutela modu gatazkatsuan bizi izan aukeratu beharra.

Beste aldetik, azken esaldiarekin, badirudi Ezkerra kexu dela nazionalismoak (euskaldunak, dirudienek) gaztelaniazko ekoizpena ez duelako euskal sisteman sartzen. Even-Zoharrek hizkuntza eta literatura lotzen dizkio, nolabait, nazio eraikuntzari: «El establecimiento de una lengua nacional y una literatura nacional es equivalente al hecho de adquirir bienes para la propia construcción. (...) Cada miembro de este cuerpo, sólo por su participación en “la nación”, ha ganado el derecho a compartir los bienes adquiridos» (Even-Zohar 1994: 370). Beraz, kohesio soziokultural horren parte izan nahiko dute herritarrek, horrek talde bateratuaren parte eta ondasun batzuen jabe bihurtzen dituelako. Identitate kolektiboa zerbait konpartitzearen pertzeptzioak ematen baitu; gaur egun, kulturari buruz hitz egiten dugunean, identitateari buruz hitz egiten dugu (Iztueta 2015).

Ikusi dugunez, gaztelaniazko sailkapenetan bederen, bada euskaraz egiten den literaturaren aitortpen bat, termino-saltsa gorabehera (“literatura vasca”, “vascongada”, “euskérika” eta abar). Ezein argitalpenek ez du ukatzen badagoela: nolabaiteko bereizketa bat bada, beraz, gaztelaniaz egiten den horrekiko. Entziklopedietan, Espainiako literaturaren barruan betiere, hizkuntzaren araberrako bereizketa egiten dute. Hori bai, etiketa horrek biltzen duen edukia urria eta mugatua da, ia anekdotikoa, esanen genuke. Frantseseko argitalpenen kasuan, egoera are eta okerragoa dela esan dezakegu; iruditzen zaigu euskararen harrerarekin eta horrekiko jarrerarekin oso lotuta dagoela literaturaren ikusgarritasun urria. Horrela, esan daiteke Frantzian ez dela euskal literatura existitzen; Espainian, berriz, Hego Euskal Herrian egindakoa existitzen da (Ipar Euskal Herrikoa ez); alta, horren existentzia ez ukatzeaz harago, euskal literatura asimilatu nahi duela ondoriozta daiteke.

Casanovaren (2002) harira, bada, literatura batek duen posizio erlatiboa hori idatzita dagoen hizkuntzaren prestigioari lotuta dago, eta prestigio hori sozio-politiko izateaz gainera, literarioa ere bada. Horretan sakontzeko, Bidasoaren bi aldeetan euskararen egoera sozial eta administratiboa zein den ikusiko dugu hurrengo atalean.

### 3.2. EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

Euskara hizkuntza gutxitua<sup>76</sup> da, eta eremu geografiko berean bizi da bi hizkuntza nagusirekin: gaztelaniarekin Hego EHN eta frantsesarekin Ipar EHN. Esan dugu euskal hiztun ia denak, gaur-gaurkoz, elebidun diglosikoak direla: euskaraz gain, bi hizkuntza hegemonikoetako baten jabe dira, eta, gainera, ingelesaren indarra geroz eta handiagoa da bai instituzioetan (eskolan, esaterako), bai egunerokoan eta ekoizpen kulturallean (publizitatean eta musikan, besteak beste).

Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa konplexua da, eta euskaraz mintzatzen den lurraldeen antolaketa administratiboak eta politikoak konplexutasun hori nabarmentzen duela esan dezakegu. Euskarak ez du inoiz inguruko hizkuntzen estatus eta errekonozimendu bera izan; horren hedadura geografikoa eta ezagutza maila, gainera, aldatu egin da mendetan, gaur egungo egoerara iritsi arte: administratiboki, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa, Herri Elkargoaren barruan. Hiru eremuetako biztanle kopurua hiru milioitik gorakoa da, eta horietatik 800.000 dira euskal hiztunak, hots, %26,6. Alta, hiztun horien banaketa geografikoa ez da inondik inora uniforme; hiru eremu administratibotan politika linguistikoak homogeneousak ez diren gisan, euskararen ezagutza eta erabilera ez dira bera. Batasun administratibo ezak eta egungo hizkuntza politikek eragin zuzena dute garapen soziolinguistikoan eta hizkuntzaren aurrerabidean.

Euskararen ofizialtasuna oso gauza berria da. Lehen saiakerak 1936an egin ziren, Eusko Jaurlaritza sortu berriak euskara hizkuntza ofizialtzat jo zuenean. Hala ere, Espainiako gerra zibilak berehala itxi zion atea ofizialtasun hari. Jakina denez, hurrengo urteetan, Francoren diktadurapeko lehen hamarkadetan, galarazita egon ziren euskara bera eta euskararekin lotura zuen edozein jarduera. Alta, 1960ko hamarkadan, euskara eta euskal kultura loratzen hasi ziren gutxika-gutxika; besteak beste, Ikastolak ugaritu ziren sasoi hartan, eta helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko mugimendua sortu zen. Horrez gain, Euskaltzaindiak euskara batua sortzeko lanari ekin zion, 1968an Arantzazun egindako biltzarrean harturiko erabakiari jarraiki: euskaltzainak hizkuntza idatzia arautzen hasi ziren euskararen batasuna lortzeko, gipuzkeratik eta nafar-lapurteratik abiatuta. Gaur egun, oro har euskara batua erabiltzen bada ere hedabideetan, administrazioan, literaturan eta hezkuntzan, euskalkien presentzia eremu horietan nabaria da.

Euskararen ofizialtasuna aipatu dugu, baina ofizialtasun partziala edo zatikatua esan beharko genuke. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) ofiziala da euskara, eta, ondorioz,

---

<sup>76</sup> Euskara hizkuntza *gutxitua* dela diogu zentzu honetan: toki jakin batean herritarren gutxiengoak hitz egiten duen hizkuntza. Horrek argi uzten du, bada, harreman batean ulertu behar dela terminoa; Croninen (2003: 144) hitzetan, «Minority is the expression of a relation, not an essence». Nagusi(ar)ekiko harremanetan definitzen da gutxitua; egoera erlatiboa eta dinamikoa da. Halaber, hizkuntzaren estatus soziala ere egoera historiko jakin baten arabera izan da (Cronin 2003: 165). Azterlan honetan, gutxiengo ez ezik, “mendeko” eta “subordinatu” adjektiboak lotu zaizkio inoiz hizkuntzari. Krausek (2007: 40) gaelikoari buruz diotenaren bidetik, beste izendapen horiek agerian uzten dituzte hizkuntza minorizatu bat posizio horretara eramanez duten prozesu historikoak.

hor dituzte hiztunek hizkuntza eskubide gehien, nahiz eta ez den erabat betetzen, Hizkuntza eskubideen Behatokiak behin baino gehiagotan salatu duenez.

Nafarroako Foru Erkidegoa hiru eremu linguistikotan banatuta dago, eta horren arabera da euskararen ofizialtasun maila: Nafarroa iparraldean, eremu euskaldunean, euskara koofiziala da gaztelaniarekin batera; erdialdean, eremu mistoan, euskara ez da koofiziala, baina hori sustatzeko baldintza legalak ezarri behar dituzte; eta, azkenik, hegoaldean, eremu ez-euskalduna, non euskarak ez baitu ofizialtasunik. 2015eko otsailaren 20an, Euskararen Legea aldatu zuen Nafarroako Parlamentuak, historian bigarren bezala. 2010ean egin zuen aurrenekoz, eta, orduko aldatzearen ondorioz, eremu mistora sartu ziren eremu ez-euskalduneko hainbat herri. Bigarren aldatzeak, berriz, euskaraz ikasteko aukera Nafarroako ikastetxe guztietara zabaltzeko erabaki zuen, eta, beraz, eremu ez-euskalduneko eskola publikoetara eraman du D eredu. Horrek, ordea, ez du zonifikazioaren arazoa konpontzen, eta, oraindik, euskara ez da ofiziala izaten Nafarroa osoan. Berriz, 2018ko otsailean, euskararen legea aldatzeko batzorde bat sortu dute Parlamentuan, adostasun erabatekoaz ez bada ere. Esan daiteke Nafarroa eta nafartasuna (*navarrismoa*, zehatzago) euskarari aktiboki kontra eginez eraiki direla hainbat urtez, UPN Gobernuan eta boterean jaun eta jabe egon den garaian, behintzat.

Azkenik, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan, euskarak ez du inolako ofizialtasunik; Frantziako Konstituzioaren 2. artikulua dioenez, frantsesa da Errepublikako hizkuntza ofizial bakarra. 1999an, Hizkuntza Gutxituen Europako Gutunaren zenbait artikulua sinatu zituen Frantziak, baina ez zuen berretsi, Konstituzioaren 2. artikulua erekin batera ez zela argudiatuta. 2008an, Konstituzioa berrikusi, eta 75.1 artikulua erantsi zitzaion, non eskualdeetako hizkuntzak Frantziako ondare direla aitortzen baita. Konstituzioan hizkuntza erregionalen aitortza egiteko proposamenak berak eztabaida handia piztu zuen, eta Académie Française-k adierazpen bat idatzi zuen tankerako aitortza oro errefusatzeko, identitate nazionalaren kontra zihoalakoan. 2014ko urtarrilean, Euro-ituna berrestea onartu zuen Frantziako Parlamentuak; hain zuzen, Konstituzioari 53.3 artikulua gehitzean datza proposamena. Artikulu horren arabera, Frantziak Ituna berrets dezake, ez badiu kontra egiten 2. artikuluari, «en application duquel l'usage du français s'impose aux personnes morales de droit public et aux personnes de droit privé dans l'exercice d'une mission de service public, ainsi qu'aux usagers dans leurs relations avec les administrations et services publics» (Frantziako Asanblada Nazionala 2014). Beraz, muga horiekin, Gutuna berretsita ere ez dirudi hizkuntza gutxituen erabilera-eremuak handituko direnik, zerbitzu publikoetan ezin baidiriteke erabili. Nolanahi den, prozedura arruntari jarraiki, hurrengo urratsa Gutuna Senatua berrestea litzateke, eta, azkenik, erreferenduma egitea. Bestela, bada beste bide bat: gobernuak proposamena bere egin eta Kongresuan aurkez dezake lege-proiektua. Urratsak egin dituen arren, gaur-gaurkoz, Frantziak ez dio Gutunari berrespenik eman.

Aipatu behar da berriz (2017ko uztailaren 3an) Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak lankidetzaren itun bat izenpetu dutela, hizkuntza politikaren esparruan urratsak egin eta elkarlanean aritzeko. Goiz da oraindik horren fruituak ikusteko; hala ere, normalizazioaren bidean aurrerapausotzat jo dezakegu.

Esan dugun bezala, euskararen ezagutza eta erabilera ez da homoginoa Euskal Herri osoan, nagusiki hizkuntza politikak eta ofizialtasun falta tarteko. Herritarren erdia baino gehiago gaztelania edo frantses elebakarra<sup>77</sup> da, eta elebidunak direnen artean ere, badira ulertu arren egiten ez dutenak. Hain zuzen, V. Inkesta Soziolinguistikoaren (Eusko Jaurlaritza, 2011) arabera, Euskal Herrian geroz eta elebidun gehiago dagoen arren, erabilerak ez du neurri berean gora egiten. Horrela, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %27 elebiduna da (714.000 biztanle inguru), %14,7 elebidun hartzailea eta %58,3 erdalduna. Bi hamarkada lehenago, 1991n, biztanleen %22,3 ziren elebidunak (529.000 inguru), %7,7 ziren elebidun hartzaileak eta %70 erdaldunak. Hizkuntza-gaitasunari edo ezagutzari dagokionez, beraz, begi bistakoa da geroz eta elebidun gehiago dagoela. Elebiduna izateak, ordea, ez dakar euskararen erabilera handitzea. Horrela, 2011ko datuen arabera, Euskal Herriko biztanleen %70,8k beti erabiltzen du erdara. Euskara erdara baino gehiago edo erdara bezainbeste erabiltzen dutenak, berriz, %16 dira. Datuetan, alde nabarmena dago lurraldetik lurraldera: euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenak %20 dira EAEn, %9,6 Ipar EHN eta %5,5 Nafarroan. Erabilerari dagokionez datu kezagarriak badira ere, etorkizunari begira itxaropentsu egoteko bada arrazoirik: gazteen artean, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak gora egin du lurraldearen banaketa administratibo guztietan. Badakigu, noski, jarrera zuhaitz osoaren adar bat baizik ez dela.

Erabilera eta ezagutzaren kopuruak, instituzionalizazio eta ofizialtasun maila eta hiru hizkuntzek dituzten baliabideak eta hedadura-eremuak ikusita, bada, elebitasun desorekatu eta hierarkikoaz mintzo gaitezke. Even-Zoharren arabera, euskara berrabiarazteko prozesua beste leku batzuetan egindakoaren parekoa da, Islandia kasurako; hala ere, beste leku horietan ez bezala, bada arrisku bat euskararen kasuan: «el trabajo ideacional no ha generado aún un éxito político, y, como en casos como el gallego o el feroés, el futuro de toda la acción para contruir una entidad vasca –cultural y/o política– no está garantizado» (Even-Zohar 2016: 380). Testuinguru horrek, jakina, eragin zuzena izanen du euskal kulturaren, eta, ondorioz, literaturaren.

### 3.2.1. Diglosia literaturan?

Bi hizkuntza hegemonikoen ondoan euskara hizkuntza gutxitua dela esan dugu, eta asimetria linguistikoko testuinguruan egiten eta jasotzen dugun kultur adierazpen oro baldintzatuko du desoreka horrek. Egoera soziolinguistiko horretan sorturiko literatura, orduan, diglosikotzat har dezakegu? Izan ere, ikusi bezala, euskaraz ekoizten duten agente guztiak elebidunak dira, baita hartzaileak ere; biek ala biek ez dute euskarazko literatura sistematik soilik edaten, erdarazko sistema esku-eskura dagoenez. Sistemako bitartekari gehienak ere (argialetxeak, irakaskuntza eta kritika, kasu) ez dira osoki elebakarrak, eta sistema hegemonikoa oso presente dute. Beraz, Even-Zoharrek (1990a) proposaturiko literatura sistemaren eskema kontuan hartuta, eta literatura (poli)sisteman eragina duten faktoreak banan-banan aztertu eta gero, esan daiteke elementu bakar batek ere ez duela modu autonomoan funtzionatzen euskaraz. Horregatik ondorioztatu dugu ezin dugula bi

<sup>77</sup> Esan nahi da ez dakiela euskaraz, nahiz eta beste hizkuntzaren bat jakin dezakeen, eta, beraz, ez den oso zuzena elebakar deitzea. Argi gera dadila, bada, euskararekin ari garela.

(edo hiru) literatura sistema hutsez mintzatu, eta literatura sistemek harreman asimetriko bat badutela. Euskarazko literatura horrek beste batekin izanen duen harremana, bada, ez da literatura elebkarrek elkarren artean izan dezaketenen parekoa.

Hain zuzen, hizkuntza hautuari loturiko premisa batekin hasten du Jon Kortazarrek *Diglosia eta euskal literatura* saiakera laburra: hautaturiko hizkuntzak artistaren lana baldintzatzen du, eta horrek esan nahi du «hizkuntzak norberaren idazkera aldatzen duela» (Kortazar 2002: 14). Joskera, tradizioa eta generoen tratamendua aipatzen ditu Kortazarrek hizkuntza eta literatura instituzio batetik bestera argiki aldatzen diren elementutzat. Antón Figueroaren *Diglosia e texto* (1988) azterketan oinarritzen da Kortazar, eta euskal literaturari aplikatzen dio puntuz puntu. Egoera diglosiko batean bizi den mendeko hizkuntzan sorturiko literaturak agertzen dituen bederatzi ezaugarri zerrendatu eta azaldu zituen Figueroak, testuinguru galegoan egindako ikerketan; euskaraz eman zituen Kortazarrek (2002):

- I. Literaturaren eta testuaren arteko nahasketa.
- II. Testua literaturaren historian.
- III. Espazio eta denboraren forma tipologikoen desoreka.
- IV. Elementu folkloriko, etnografiko eta mitikoen garrantzia.
- V. Filologizaziorako joera.
- VI. Hizkerarekiko ardura neurotikoa.
- VII. Igurikimen ortze mugaren falta.
- VIII. Idazleen traiektoria falta.
- IX. Zentzu ludikoa eta zentzu epikoa aurrez aurre.

Ez ditugu hemen horiek guztiak azalduko, baina aipagarri dira diglosia literarioaz ari garelarik.<sup>78</sup> Kortazarrek argitzen duenez, «[J]ehen eta bigarren ezaugarriak literatura diglosiko baten barnean kokatzen direnak dira, eta literatura hori ulertzeko moduei dagozkie, beste zazpiak idazlearen lana moldatzen dutenak dira» (Kortazar 2002: 34). Orobat esan behar da literatura diglosiko bateko idazleak ezaugarri horiek erabiltzeko joera duela, baina ez hizkuntza hautatuak horretara daramalako, «baizik diglosia egoera historikoa izaki, ezaugarri balorazioa egitearen alde jokatzen duelako» (ibid.). Bi ohar egiten dizkio Kortazarrek Figueroaren teoriari: batetik, zalantza du ezaugarri batzuk diglosiaren ondorio diren ala, modu batean edo bestean, prozesu estetiko eta historiko orotan ematen diren: «zein neurritan hemen aipaturiko zenbait ezaugarri ez ote diren literatura batek jarraitu dituen bide estetiko batzuen ezaugarri, eta ez, nahi eta nahi ez, prozesu diglosikoarenak?» (Kortazar 2002: 92). Bestalde, mendeko hizkuntzan idatzitako literaturari gertatzen zaizkion

<sup>78</sup> Hain zuzen, Jon Casenavek halako ikuspegiak biltzen dituen lanen urritasuna eta beharra aipatzen du: «Euskal literaturaren historia» sailean, Txuma Lasagabasterri iduritzen zitzaion, euskal kontestu soziolinguistikoa kontutan hartu behar zela euskal literaturaren ikertzeko, batez ere hemengo egoera diglosikoak sorkuntza mailan zuen eragina. Puntu horrek eskatzen zuen gogoeta ez da geroztik asko aurreratu, Jon Kortazar-en liburu bat (*Diglosia eta euskal literatura*, Utriusque Vasconiae 2002) kentzen bada» (Casenave 2010: 805).

gauzetako batzuk hizkuntza nagusiaren periferiari ere gertatzen zaizkiola dio Kortazarrek (2002: 95). Alegia, Euskal Herrian erdaraz sortzen duten idazleei.

Ikuspuntu soziolinguistiko batetik, Christian Lagardek (2015) dio diglosiaren ondorioetako bat generoaren arabera bereizketa hau dela autore batzuegan: saiakeretan, idatzi zientifiko edo akademikoetan (hots, teorizazioan), “arrazoiaren hizkuntza” da nagusi, sozialki pisu eta hedadura handiagoa duena; literatura adierazpena, berriz, “bihotzaren hizkuntza” ematen da, ama-hizkuntza izan zein hautaturikoa izan. Leialtasun linguistikoak helburu du, beraz, beste edozein hizkuntzak bezainbesteko balioko edo gehiagoko sorkuntza-tresna dela frogatzea; era berean, literatura tradizio batean txertatzera dator, eta ondorioz, hori sendotzera edo hori sortzen laguntzera, tradiziorik ez den edo eskasa den kasuetan (euskaraz, kasurako). Susmoa dugu generoaren arabera hizkuntza hautuaren bereizketa gurean ez dela hain zurruna, diglosia arrastoak egon badauden arren.

Euskal Herriko egoera soziolinguistiko konplexuan idazle elebakarrak ditugu batetik, gaztelaniaz edo frantsesez idazten dutenak, eta idazle elebidunak bestetik, printzipioz, hizkuntza batean edo bestean edo bietan idazteko aukera dutenak. Alta, nahiz eta badiren euskal autore batzuk bi hizkuntzetan idazten dutenak (Iban Zaldia, kasurako), euskal literaturan ez da hori araua; are gehiago, salbuespen da. Elebitasun literarioa ohikoagoa da autore katalan eta galegoen artean (Manterola 2012). Gainera, Iban Zalduak euskarazko zenbait lan gaztelaniara itzuli ditu; ez alderantziz, ordea. Infra-autoitzulpena ez egiteak argi erakusten du sistemaren desoreka. Ur Apalategiren (2015) esanetan, Zalduak espainolezko publiko bat lortu du, eta ez du inolako asmorik harentzat kaleratu dituen lanak euskaraz emateko. Esan daiteke, beraz, Zalduak paraleloan egiten dituela bi ibilbideak, eta euskaratik gaztelaniarako autoitzulpenak liriteke bidegurutzak. Horrela, euskaratik autoitzulitako obrak eta gaztelaniaz idazten dituenak estilistikoki diferenteak direla dio Apalategik (2015). Zalduaren ama-hizkuntza gaztelania da, eta gaztelaniaz ekin zion idazteari, nahiz eta berehala “pasatu” zen euskarara. Horrela, Zalduak oso natural hartzen du bai noiz edo noiz gaztelaniaz idaztea (ekoizpen handiena euskaraz du), bai autoitzultzea. Bigarrenari buruz, honela dio: «incluso en el caso de que un escritor, joven o no tan joven, haya desarrollado desde el principio su carrera literaria en euskera, siempre le rondará, aunque sea de manera marginal, la posibilidad de *pasarse* a la otra lengua que domina» (Zaldia 2012: 20). Lagardek egiten duen generoen arabera bereizketa, beraz, ez dugu ikusten Zalduaren kasuan ere, saiakerak eta ipuinak bi hizkuntzetan sortu baititu.

Etxean bertan dauden erdaren nagusitasunari (linguistikoa eta komertziala) globalizazioa gehitu behar zaio; aukera ugaritasuna tarteko, ikusezin gera daiteke euskaraz egindako literatura. Horri aurrea hartzeko, Anjel Lertxundik salmentaren alde egiten du; idazleari ez zaio aski ongi idaztearekin, bere lana ongi saltzen ere jakin behar du. Ikusgarritasunaren mesedetan, bada, egitura sendo bat behar dela dio idazleak: argitaletxe, kritikari, agente, liburu-dendari, prentsa eta zabalkunde, publizitate eta abar: «Txikiak izateari atera behar dizkiogu etekinak, ez handiak imitatu nahiaren ezinari» (Etxebeste 2013: 105). Esaterako, Harkaitz Canok argitaletxeen jardunean ikusten du merkatu txikia izatearen abantaila:



Euskal Herrian txikiak izatearen abantaila badugu. Egia da negozioak direla, baina hemengo argitaletxe handienaren pentsatzeko eta funtzionatzeko modua ezin daiteke Frantzia eta Espainiako argitaletxeek dutenarekin konparatu. Hemen, liburu batek merkatuan funtzionatuko ez duela jakin arren, lanak merezi duela pentsatuz gero, argitaratu egiten dute. Gaztelerazko liburuak askoz neurri handiagoan tratatzen dira arkume txuletak bezala euskarazkoak baino (Irazustabarrena 2000).

Euskal letrak kanporatzea onargarri eta beharrezkoa da, baina hori nola egiten den, horra gakoa. Izan ere, Lertxundik ez du uste nazioarterako estrategiarik badagoenik, urratsak badiren arren: «Gorputz sozial ahula da gurea, eta komunikazio gutxi duena. Prentsaren bidez dugu bestearen berri, ez harreman pertsonalen bidez» (Etxebeste 2013: 107). Hala ere, deus izatekotan, uste du kultura dela kanpoan ikusgarri egin gaitzakeena. Iritzi berekoa da Etxezaharreta ere, eta euskal literaturaren etorkizuna Europan kokatzen du; hizkuntza txikien arteko harremanak jorratu eta literatura lanak itzulpenaren bidez zabaldu beharko lirakeela uste du, literatura topaketen bidez, esaterako (Butron 2000).

### 3.3. IPARRAREN ETA HEGOAREN ALDERAKETA

Autoitzultzean, Bidasoaren bi aldeetan errealitatea diferentea da: Ipar Euskal Herrian frantsesera autoitzultzen da, eta ez gaztelaniara; Hego Euskal Herrian, berriz, alderantziz. Horregatik aztertuko ditugu bereizirik. Gainera, Ipar Euskal Herrian berriaz fokua jartzen ez badugu, bertako errealitatea beti geratuko da itzalean, idazleez, generoez eta abarrez mintzo garelarik beti nabarmenduko baita Hego Euskal Herriko egoera, kopuruan ugariagoa baita. Hipotesi modura, esanen genuke Euskal Herria bere osotasunean hartuz gero lortuko genituzkeen datuek ez dutela bat egiten Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoarekin, edo ez dutela bertako egoera adierazten. Bi egoerak banaka aztertuko ditugu, beraz (eta ez diferentzia markatzeko edo euskal literatura sistema bitan bereizteko). Hori egitean ondorioztatuko dugu bata eta besteak eragin- edo arreta-gune berak behar dituzten ala ez; izan ere, halako bereizketa bat egin ezean, datu lausoegiak eta iruzurtiak genituzke, eta ezin izanen genituzke beharrei egokituriko etorkizunerako erronkak zehaztu.<sup>79</sup>

#### 3.3.1. Ipar Euskal Herria

Lapurdik, Baxenabarrek eta Zuberoak osaturiko lurraldea euskal literaturaren habia izan zen XVI. eta XVII. mendeetan; hurrengoetan, ordea, behera egin zuen. Iraultza frantsesak bateratze politika sustatu zuen, “hizkuntza arrotzak” zeritzona hezkuntzan erabiltzea debekatzeraino. Garai berean, modernizazioak eta euskal kostara trena eta turismoa iristek eta barnealdeko herritarrak Ameriketara migratzeak transformazio kulturala ekarri zuten, euskal elebakartasunetik frantsesa/euskara elebitasun diglosikora (Uribarri 2013). Transformazio horrek eragina izan zuen, nola ez, kulturean, eta euskaraz sorturikoaren artean, poesia izan zen nagusi; bultzada handia izan zuen, besteak beste, Abbadien

<sup>79</sup> Administratiboki eta ofizialki bi erkidego direnez, Nafarroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean ere bereizketa egin genezakeen, baina hizkuntzaren araberakoa soilik egitea hobetsi dugu, ikerlan honetako ardatza autoitzulpena denez.

antolaturiko lore-jokoei esker. Prosan, berriz, testu erlijiosoak ziren jaun eta jabe. Bonapartek, bere ikerketa linguistikoen barruan, Bibliaren pasarte batzuk hainbat euskalkitara itzultzeko eskatu zuen. Hori izan zen euskarara ekarritakoen lehen itzulpen-proiektu handia; hain zuzen, Bonaparteren kolaboratzailerik hurbilena Duvoisin izan zen, 1865ean Biblia osoa euskaratu zuena.

XIX. mendearen bigarren erdian, Ipar EHn euskaraz idatzitako kultura berpiztu egin zen; Ur Apalategiren esanetan, «[g]ure kasuan, garbi dago kontzientzia literarioa (eta ez linguistikoa) XIX. mendearen hondarrean hasten dela garatzen, Pizkundearekin, Lore-jokoekin etabar, nahiz eta gerraurreko urrezko hamarkada (...) izango den benetako protosistema baten kimatze aroa» (Apalategi 2005: 2-3). Bereziki ahozkoa zen euskal kultura hartatik idatzizko kultura sortu zen urte gutxian hizkuntza literario bakar bat sortzearekin. Kultur berreskurapen hark hainbat lehentasun izan zituen, hala nola, euskal ohiturak, euskaldun onaren balio moralak eta erlijiosoak goraiatzea eta hizkuntzaren ikerketa zientifikoa sustatzea. 1960ko hamarkadatik aurrera, Elizak indarra galdu zuen, tartean, 68ko pentsamolde berriaren bidetik; Etzeharretak (2002: 662) dioenez, «euskal literaturak jasan zuen txoke handia etorri zen ere abertzaletasun berriaren haritik». 1980ko hamarkadan etorri zen bigarren berritasun uholdea literaturan, partez, Bidasoaz bestaldekoen eraginez; orduan pil-pilean zeuden, esaterako, Pott bandaren eta izen bereko aldizkariaren bueltan bildutako idazleak eta horien molde berriak. Garai hartan bazen «idazteko gogo azkar bat» Ipar EHn, nahiz eta «gaztez hustua zen» eta euskara abiadura handian ari zen galtzen (Butron 2000). Gogo hari erantzuteko, 1982an lehen alea kaleratu zuen *Maiatz* aldizkariak, Ipar Euskal Herriko idazle askoren parte hartzearekin.

Gaur egun, Ipar EHko biztanleetatik %22 da euskal hiztuna, eta azken hamar urteetan behera egin du kopuru horrek (Dolharé-Çaldumbide 2015). Gainbehera hori, besteak beste, euskararen babes instituzional eta ofizial faltari eta hirigintza eta turismo ereduiegi egotzi dakieke. Hala ere, hainbat egitasmo sortu dira hizkuntza gutxitua babesteko; kasurako, 2002an Batera plataforma sortu zen, zeinaren adierazpena 110 elkartek, sindikatuk eta mugimenduk sinatu baizuten, eta helburu baitu euskara hizkuntza koofiziala izatea. Euskal Herriko Lurralde Elkargoa 2017ko urtarrilean sortu zen, eta baliteke hortik etortzea euskarak urratsak egiteko babes instituzionala; oraingoz, ordea, ez da aurrerapausorik izan.

Literaturari dagokionez, aurretik ere esan dugu kopurutan oso gutxi kaleratzen dela euskaraz Ipar Euskal Herrian. Gaur egun, argitalpen gehienak Baionako *Maiatz* eta *Gatuzain* argitaletxeen eskutik egiten dira. Biek ala biek euskaraz argitaratzen dute, eta baita, neurri txikiagoan, erdaraz ere. *Maiatzek* poesia kaleratzen du nagusiki, aldizkarian nabarmen; *Gatuzainek*, berriz, helduentzako saiakera du euskarazko generorik ugariena, haurrentzako liburuekin batera. Bi argitaletxe horiez gainera, han-hemenka kaleratzen dira euskarazko literatura lanak, *Elkar* eta *Astobelarra* etxetan kasurako. Lehenak Baionan du egoitza, nahiz eta, jakina denez, Donostia duen gune nagusia; bigarrena, berriz, *Mauleko* argitaletxea da, eta xiberotarrez kaleratu ditu euskarazko lan urriak; liburu elebidunak ere kaleratu dituzte, horiek ere euskalkian. Horrek ez du lan horien zabalkundea errazten, baina segur aski ez dute hori helburu. Hala, ildo beretik, *Etzeberriaren* (2013: 53) ustez, «ekintza kulturek Xiberoko hizkuntza biziarazten dute gaur egun».

Euskaraz kaleratzen duten beste argitaratzaile asko ez dago, beraz; alta, joera bat aipatu behar dugu: ugari dira edizio elebidunak. Peñalosaren (2004) arabera, edizio elebidunek, batetik, autoreek beren hizkuntza gutxituan idatz dezaketela erakusten dute; bestetik, hizkuntza gutxituan idaztera bultzatzen dute; eta, azkenik, hizkuntza gutxituko hiztunen irakurketa gaitasuna hobetuz irakurle kopurua handitzen dute (Gentes 2013). Alabaina, iruditzen zaigu edizio elebidunek, hizkuntza-ordezkapen prozesu batean eta produkzio osoaren zati esanguratsua izanez gero, hizkuntza hegemonikoarekiko beharra ere iradokitzen dutela; hots, hizkuntza gutxituko testuak ondoan hegemonikoa behar duela argitara atera nahi badu. Gainera, hizkuntza gutxituan ez du modu autonomoan biderik eginen, eta beti egonen da, nolabait, nagusiari lotuta. Eva Gentesek (2013) erakusten du hizkuntza gutxituen ikusgarritasuna bermatzeko ez dela aski bi hizkuntzak egotearekin, beste ahalegin bat behar dela horretarako; hala nola, peritestueta hizkuntza gutxitua agertzea eta arrotasuna gordetzeko itzulpen estrategiak erabiltzea (Gentes 2013: 272).

Ipar Euskal Herrian edizio elebidunen produkzioaren ugaritasuna nabarmentzen zuen Nora Alberbide kazetariak (2015), Sarako Idazleen Biltzarraren biharamunean. Besteak beste, bi liburu ateratzeko kostu ekonomikoa eta liburu elebidunak plazaratzeko dirulaguntzak aipatzen ditu Alberbidek<sup>80</sup> edizio elebidunetarako arrazoitzat. Alabaina, kontrako jarrerak ere badira, Astobelarrako Laurent Caudineren hitzek erakusten dutenez: «Euskaraz sortua bada, lehenik euskaraz behar du bizi. Eta berantago agian frantsesez. Bestela, badirudi euskarak beti tutore bat behar duela: ‘Kasu! Zaintzen zaituztegu!’» (Alberbide 2015). Beraz, euskarazko liburuek beren autonomia behar dutela uste du Caudinek.

Etxeberriaren arabera, Ipar Euskal Herrian gaur egun «genero guztiak segurtatuak dira eta ahantzitako batzuk ere biderkatzen ari dira» (Etxeberria 2013: 51). Ezkorragoa da Apalategi; belaunaldi berrien aldetik eta ikuspegi literario huts batetik, kalitatean atzerapausoa ikusten du: «Biziraupenerako borroka testuinguru honetan inor gutxi ausartzen da, gaurko Iparraldeko idazle gazteen artean euskal literatur sistemako gunera hurbiltzen» (Apalategi 2005: 12). Idazle gazteek Ipar EHko azpi-sistemarentzat idazten dute, bada, «xumeki edo etsipenez» (Apalategi 2005: 13), eta ez omen dute anbiziorik ez gunera hurbiltzeko ez hura arbuiatzeko. Denboran atzera jotzen du Dolharé-Çaldumbidek, bere ustez ez baita berritasun handirik gertatu azken hamarkadetako Ipar EHko literaturan:

En effet, la plupart des ouvrages publiés ces dernières années (tous genres confondus), s'inscrivent dans la continuité de ce qui s'écrivait déjà dans les années 60 et 70 : ils sont teintés de la même idée romantique du nationalisme et de l'action militante, ou se tournent vers des sujets de types régionaliste et rural (Dolharé-Çaldumbide 2015: 90).

Joera zaharkitu horren aurrean, Itxaro Bordaren lana abangoardian kokatzen du Dolharé-Çaldumbidek, erregionalismo horretatik atera eta unibertsalizaziora jotzen jakin duela. Azken hamarkadotako lan gehienak 60ko abertzaletasunean iltzatuta daudela esatea gehiegitxo esatea da beharbada, nahiz eta ez dugun azterketa sakonik egin horren inguruan. Alta, egia da tradizioari estuki lotzen zaiola Ipar Euskal Herriko literatura

<sup>80</sup> Aipatu behar da ez dela Alberbideren ustea, baizik eta Sarako biltzarrean elkarrizketatutako editoreen esanetatik bildutakoak.

adierazpena; horren adierazlerik handiena izan daiteke literaturan ahozkoatasunak duen pisua.

Izan ere, argi dago Ipar Euskal Herriko sorkuntzaren zatirik handiena ahozko generoei lotua dela, ezagutza edo zabaltze mailari dagokionez, behintzat. Indar ezohiko horri bi irakurketa egiten dizkio Apalategik<sup>81</sup>(2005: 10):

Batetik, sistemaren azpi-garapena salatzen du, sistemak ez duelako bermerik aurkitzen hezkuntza egituretan maila oneko irakurleria zabal eta egonkor bat eskuratzeko. Kontestu agoniko horretan, normala da ahozkoatasunera jotzea, bai antzertia bai olerti errezitatu edo kantatua autoafirmazio ekintza performatiboak direlako, patu kolektiboarekin eta biziraupenarekin zerikusi zuzena dutenak. Bestalde (eta hori litzateke bigarren irakurketa) eleberrigintza, hiritartutako eta egonkortutako gizarte bati dagokio, genero dominantea izanki klase sozial dominante baten adierazmoldea delako. Iparraldeak, hain zuzen, ez dauka ezagupen ofizialik, ez da ezin botere politikoren gune, eta zaila da baldintza horietan eleberrigintza bertan garatzea (frantsesez ere ez da euskaraz baino gehiago egiten).

Beraz, Apalategiren (2005) ustez, ahozko genero horien gailentasunak ez luke deus onik adieraziko. Ahozkoatasun horren barruan sar genitzake bertsoaritza, kantagintza eta herri antzerkia (toberak, pastoralak, libertimenduak eta maskaradak). Horien artean, adierazpen arrakastatsuenak pastoralena da, euskal hiztunengana ez ezik erdaldunengana ere ailegatzen baita. Pastoral testuak biltzen dituen liburuxka da guztietan salduena, baina oro har erdal itzulpenarekin kaleratzen da, edizio elebidun edo eleaniztunean. 3.1 atalean esan dugu hartzaile kopurua dela euskal sistemak duen alderdirik ahulena, eta hori bete egiten da Ipar Euskal Herrian ere. Ixabel Etxeberriaren (2013: 55) ustez, gainera, «gaur egun proportzionalki idazle asko daude irakurle gutxiagorentzat». Ahozkoatasunari lotua den sorkuntza da Etkezaharretaren ustez osasun onean dagoen Ipar EHko literatura genero bakarra; horrela, poesia eta narrazioa ez da behar beste zabaldu, eta «ez dute orainokoa segurik merezi duten arrakasta bildu irakurlekoaren aldetik, nahiz, frangotan, hegoaldean hartze edo harrera guztiz ona ukan duten» (Etkezaharreta 2002: 665). Izan ere, Bidasoaren bi aldean artean bada hartu-emanik, Etkezaharretaren ustez:

Gaur egungo Iparraldeko literatura oso lotua da Hegoaldeari. Gaur egun ez da erraten ahal Ipar Euskal Herriko literatura, baizik eta “euskal literatura” bere orokortasunean. Ipar Euskal Herriko nortasuna, gaur egun euskalkien influentzian bermatzen da. Gaurko Ipar Euskal Herriko idazle batzuetan Hegoaldeko influentzia argia nabaritzen zaie eta horrek erakusten ditu loturak. Iparraldeko idazleek, Hegoaldeko idazleak irakurtzen dituzte. Gainera hogeitaz beti kolaboratu dugu Hego Euskal Herriarekin, zubia beti izan dugu eta influentzia azaldu da. Zer nahi gisaz, literatura gauza oso pertsonala da ere eta idazle bakoitzak bere influentziak jasaten eta paperean ematen ditu. Euskal Herriko literatura bat errateaz gain, aipatzekoa da geroz eta gehiago kultura unibertsal batean sartzen garela eta Ipar edo Hegoaldeko idazleek informazio berdina dituztela gaur egun. Beraz, gero eta gehiago Ipar eta Hego Euskal Herriko literaturak hurbilduko direla uste dut (Butron 2000).

<sup>81</sup> Antzerkiaren eta olerkigintza kantatuaren presentzia sozialaz ari da zehazki, ez du beste ahozko generorik aipatzen.

Irakurketa eta erreferentzia berak aipatzen ditu Maiatzeko zuzendariak, beraz, Euskal Herri osoko idazleen elkargune. Ipar EHko idazleek maiz jotzen dute, halaber, Hego EHko etxeetan argitaratzera; besteak beste, Ur Apalategik Susa, Elkar eta Utriusque Vasconiae argitaletxe gipuzkoarretan kaleratu ditu eleberriak, eta Itxaro Borda Susan argitaratu ditu itzulpen ez diren sorkuntza-lan gehienak. Hego EHko idazleek ere eman dute literatura lanen bat *Maiatz* aldizkarian, gutxi izan arren bai idazleak bai lanak. Izan ere, Bidasoaren bi aldeetako harremana ez da, beharbada, hain estua ere. Anjel Lertxundiren ustez, euskal literaturaren ikusezintasuna ez dator kanpotik soilik; *Hegatsen* egindako elkarrizketa batean, Lertxundik salatzen du ikusezintasunaz hitz egiten dugunean beti ari garela ikusezintasun exogenoaz, sekula ez endogenoaz, eta etxean bertan askok ez dutela ekoizten den horren berri. Ez da, ordea, hizkuntza komunitateen arteko idazleen ezagutza falta soilik; komunitate berekoen artean ere ikusten du Lertxundik, hain zuzen muga administratibo eta politikoa tarteko: «Hegoaldekoontzat ikusezintasuna da nagusi iparraldearekin (ez) dugun harreman kulturean ere. Hegoaldeko zenbatak ezagutzen du, idazleengandik hasita, Maiatz egiten ari den lana, Maiatzen produkzioa? Beste adibide bat da. Zerrenda asko luza daiteke» (Etxebeste 2013: 100). Beraz, ondoriozta dezakegu idazleengan (ere) badela muga sinboliko bat; Ipar Euskal Herriko idazleek maizago gurutzatzen dute muga hori Hego Euskal Herrikoekin baino.

### 3.3.2. Hego Euskal Herria

Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa hartzen dituen lurraldeaz laburrago mintzatuko gara, ustez gehiago idatzi eta aztertu delako, maiz euskal literaturaren baliokidetzat, lehen aipatu dugunez. Hala ere, Ipar Euskal Herriarekin dituen antzekotasun batzuk nabarmenduko ditugu; hala nola, gaur hegemonikoa den hizkuntzaren nagusitasun behartua.<sup>82</sup> Literaturak Europako nazioen sorreran izandako garrantziari buruzko artikulua batean, Even-Zoharrek (1994: 367) honela dio: «No necesito extenderme aquí en las razones por las que Alfonso X “el Sabio” decidió imponer el castellano por decreto». Gaztelania hizkuntzarik gabe, eta guztiek konpartitu beharreko sinesmen-sustatzaile ziren testuen bidez transmitituriko kohesio soziokulturalik gabe, ez zen nazio bateratu bat sortu izanen. Kohesio prozesua azkartzeko, Estatuko agintariek identitate berrian txertatu ezin zituzten herritarren segmentu horiek guztiak kanporatu zituzten. Mende batzuk geroago, Estatuaren egonkortasuna helburu, euskararen bazterketak beste forma batzuk hartzen ditu.

Francoren erregimenaren lehen hamarkadetan, euskara eta horrekin loturiko adierazpen oro debekatuta egon ziren eremu pribatua ez zen beste edozein tokitan. Nolanahi ere, Bigarren Mundu Gerra pasata eta diktadura bitartean, hainbat literatura aldizkari sortu ziren; besteak beste, *Gernika* (1945), *Egan* (1948), *Euzko Gogoia* (1950), *Jakin* (1956) eta *Oleri* (1959). Beñat Sarasolaren (2015) arabera, XX. mendean, eta batez ere 36ko gerraren ondoren, literatura aldizkariak funtsezko garrantzia izan zuten euskal sistema

<sup>82</sup> Hezkuntzak Ipar Euskal Herrian egindakoari buruz, honela mintzo da Itxaro Borda: «Eskolako hormetan *il est interdit de cracher par terre et de parler en basque* irakurtzen genuen begiak ireki orduko. Harrigarria da ohartzea frantses hezkuntza egiturak gure funtsezko elebitasuna medikalizatu eta gaixotasun psikologiko larri baten moduan aurkezten zigula, gaztiguak, umiliazioak eta bazterketak erabiliz sendatzen zutena» (Borda 2013).

literario modernoa osatzeko zereginean; gainera, gaur egun gure literaturaren erdigune den belaunaldiarentzat (40ko eta 50eko hamarkadetan jaioak) ezinbesteko bitarteko eta heziketa literarioa izan ziren (Sarasola 2015). Hurrengo urteetan, frankismoaren azken urteetan, bereziki, pentsamendu nazionalista tradizionalaren oinarri izandako zutabe moralek indarra galdu zuten bestelako proposamenen aurrean, eta, Aldekoaren (2004: 150-151) hitzetan, «el *euskaldun fededun*, como concepto del hombre vasco y del mundo tradicional, le cede paso al *euskaldun* laico y moderno». Garai berean, Espainiako landa-eremutik zetorren migrazio handia jaso zuten bereiziki Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak. Garai horretan jarriko dira, bada, literatura modernoaren oinarriak.

Gaur egun, Ipar Euskal Herriaz esandakoarekin alderaketa bat eginez, genero nagusia Hego Euskal Herrian eleberria da. Nagusia diogunean, sistemaren erdigunea betetzen duen horretaz ari gara, ez ekoizpen kopuruaz; izan ere, lehen esan bezala, HGL da kopuruan nagusi. *Historia de la literatura vasca* saiakeran, Aldekoak honela dio eleberriaren nagusitasunaz:

El cambio de siglo no ha hecho sino confirmar las tendencias que veníamos apuntando respecto al desarrollo de la literatura vasca desde la década de los ochenta hasta nuestros días. Tanto si se mira desde los comportamientos lectores como si se presta atención a su presencia social, no nos resta más que repetir lo que se anunciaba páginas atrás a propósito de los distintos géneros literarios: la novela sigue extendiendo su dominio sobre el resto de los géneros, incluida la narrativa breve (Aldekoa 2004: 287).

Esan dugunez, ordea, nobelaren nagusitasuna Hego Euskal Herrian gertatzen da, ez mugaz bestaldean. Aldekoa (2004) euskal literaturaz ari da, eta, kopuru orokorrak harturik, hala izanen da nobela garaile, Ipar EHko literatura periferikoa baita ekoizpenari nahiz harrerari dagokionean. Uste dugu, ordea, aipatu beharrekoa dela sistema literarioaren nolakotasunen ondoriozko nagusitasuna dela nobelarena, ez baita leku guztietan modu homogeneoan gertatzen. Generoei buruz, Harkaitz Canok merkatuarekin lotzen du narratibaren nagusitasuna: «Narratiba da nagusi, narratibak ziurtatzen dizulako gastuak beteko dituzula. Argitaletxeek iturria itxi diote poesiari» (Irazustabarrena 2000).

80ko urteen ondoko autoreez mintzo delarik, bereziki Hego Euskal Herriko autoreak aipatzen ditu Aldekoak (2004); Itxaro Borda da salbuespen bakarrenetakoa. Poesia idazleei eskainitako atalean ere, nahiz eta Ipar Euskal Herrian genero nagusietako bat izan, Aurelia Arkotxa baizik ez zaio gehitzen Ipar EHko idazleen zerrendari. Ondorioetan, honela dio Aldekoak euskal idazle garaikideei buruz:

Los grandes nombres de la literatura vasca –Atxaga, Saizarbitoria, Lertxundi, Sarrionandia– siguen despertando interés entre muchos lectores, quienes, junto a sus predilectos, van creciendo y haciéndose mayores. A éstos les sucede un lector más joven que creció ajeno a las vanguardias y a las utopías literarias de los años sesenta y setenta: son hijos de la televisión y optan sin complejos por una literatura que no necesariamente ha de ser seria y profunda. De ahí la irrupción de autores más jóvenes que producen literatura fácil de digerir para lectores de su mismo gusto (Aldekoa 2004: 287).

Duela hamar urte baino gehiagoko analisia da hizpide dugun hori, eta gaur egun segur aski beste batzuk gehituko litzaizkieke literaturaren erreferente horiei. Azterketa honetan ez dagokigu euskal literaturaren azterketa xehe bat egitea, baizik eta egoera orokorra agerraraztea. Irudipena dugu “euskal literatura”z mintzatzean Hego EHko egoera dugula gehienbat mintzagai, kopuruek eta erdiguneak horretara garamatzatelako, baina baita, beharbada, ez dugulako kanpo- zein barne-faktoreen ondorioz periferia den hori begiratzeko ahalegin handiagorik egiten ere. Hori dela eta, hurrengo atalean sistemaren erdiguneez eta periferieiz jandunen gara, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoaren ikusezintasun endogeno (Lertxundiren hitzak berreskuratuz) horren arrazoiak agerrarazi asmoz.

### 3.4. ERDIGUNEAK ETA ERTZAK EUSKAL SISTEMAN

Sistema orok bezala, euskal literatura sistemak baditu bere erdiguneak eta bere periferiak, ez osoa eta subordinatua izanagatik ere. Gerora aztertuko ditugun autoreen artean ere bada alderik, ez daude denak posizio berean; horregatik jorratuko dugu atal honetan erdiguneez eta ertzen auzia.

Casnovaren (2002) arabera, nazioarteko espazio literarioa oposizio baten arabera antolatuta dago: batetik, mutur autonomoa, kapital gehien duten sistema literarioak; eta, bestetik, sistema nazional baliabide gutxikoa edo sortzen ari dena, zeina gehienetan erakundeen mende baitago. Munduko egituraren espazio nazional bakoitzak duen posizioa bi muturren artean duen kokapenaren arabera izanen da, zer muturretik dagoen hurbilago. Hizkuntza bakoitzari lotzen zaion prestigioak zerikusia du ez bakarrik kapital linguistikoarekin, baizik eta kapital literarioarekin; bestalde, hizkuntza bati lotzen zaion sinesmen literarioak ere ematen du prestigioa. Kapital horren tamaina zehatza neurtzeko, Casnovak (2002) proposatzen du soziologia politikoan erabiltzen diren irizpideak unibertso literarioa ekartzea, eta, horrela, “erdigunea/periferia” termino kontrajarrien ordez, “menderatzaile/mendeko” oposizioa erabiltzea. Horrek azterketaren ikuspegia eta tresna teorikoak aldatuko ditu, nahiz eta termino kontrajarriak diren horiek ere.

Horrela, bada, kapital linguistiko-literarioaren distribuzio ezberdinak edo asimetrikoak (*inégal*, Casnovaren hitzetan) sistema linguistiko-literarioa egituratuko du, oposizio honen bidez: batetik, hizkuntza literario menderatuak, berriki “nazionalizatuak”, kapital literario txikia dutenak, nazioartean aitortza gutxi eta itzultzaile kopuru txikia edo itzalean ibilitakoak; eta, bestetik, hizkuntza menderatzaileak, zeinek kapital literario handia duten beren prestigioari, antzinatasunari, unibertsaltzat jotzen diren testuei eta abarrei esker. Casnovaren (2002) esanetan, hizkuntza menderatuek ez dute multzo homogeneoa osatzen, eta hala ere lau taldetan banatzen ditu: 1) ahozko hizkuntzak, idazketa berriki ezarri dutenak, nazioartean ezezagunak eta itzulpenik gabeak; 2) berriki sortu edo “birsortu” diren hizkuntzak, independentzia prozesu baten ondorioz hizkuntza nazional bihurtuak (katalana, gaelikoa...). Horiek poliki-poliki lortu beharko dute lekua nazioartean, itzulpenen bidez; 3) antzinako kultura edo tradizioko hizkuntzak, herrialde “txikiei” lotuak (nederlandera edo greziera kasu). Horiek ez dute balio handirik munduko literatura merkatuan; eta 4) hedadura handiko hizkuntzak (arabiera, txinera, india), tradizio literario handia eta hiztun

kopuru handia duten arren, ez direnak hain ezagunak edo aitortuak nazioarteko literatura merkatuan, eta, ondorioz, literarioki menderatuak direnak. Casanovak ematen dituen adibideen artean euskara ez dagoen arren, beharbada bigarren multzoan sar genezake, katalanarekin eta gaelikoarekin; nolana ere, azpimarratu behar da alde handia dagoela multzo bereko hizkuntza horien egoera soziologikoan.

Botere-harremanen araberrako menderatzaile-menderatu egituraketa hori ez da munduko literaturen artean soilik gertatzen, sistema beraren barruan ere hala gertatzen baita. Apalategiren (2005) ustez, egituraketa asimetriko hori botere-harreman baten irudia da: «batzuk nagusi eta legitimo dira besteak menperatuak diren bitartean» (Apalategi 2005: 2). Horrela, Ipar EH litzateke Apalategiren esanetan euskal literatura sistemaren periferia, eta azpi-sistema bat osatuko luke literatura sistemaren barruan. Pizkundean eta gero gerraurrean sortzen hasi zen sisteman, Ipar EHk ez zuen eskaintzen hiriburu literario izateko azpiegitura aski sendorik, arrazoi demografiko eta ekonomikoengatik, «nahiz eta literatur testuei zegokienean eskualderik aberatsena izan zen azken mendearen erdira arte» (Apalategi 2005: 3). Horrela, bada, euskal literatura sisteman Ipar Euskal Herria periferia litzateke, sistema ahularen zutaberik ahulena. Itxaro Bordari maiz entzun diogu esaten,<sup>83</sup> adibidez, literatura periferiko baten periferiatik idazten duela, eta hamaika ertzetatik dela periferiko: Ipar EHkoa delako, poesia idazten delako, emakumea delako, euskalkia darabilelako eta lesbiana delako. Alta, Apalategik (2005) Ipar EHko azpi-sistemako idazleen artean ere egiten du bereizketarik (orobat egiten du guneko idazleen artean): «periferia jomuga bakartzat daukatenak (periferiako irakurlego naturalarentzat idazten dutenak, beste anbizioz gabe) eta periferiatik alde egitea nahi ez duten arren guneko irakurlegoa ere bereganatzeko asmoa dutenak» (Apalategi 2005: 4). Horrela, Borda bigarren multzo horretakoa litzake Apalategiren ustez; periferikoa bada ere, guneaz kezkatzen den Ipar EHko idazlea da (Apalategi 2005: 9). Nolanahi den, gaur eguneko euskal sistema orain dela urte batzuetakoa baino egituratuagoa dela dio, eta geroz eta zailagoa dela, beraz, gunera hurbiltzea (2005: 13). Nafar-lapurtera Ipar EHko azpi-sistemaren gunea dela dio Apalategik, eta «jatorrizkoak» nahiz «asimilatuak» azpi-sistema horretan ere aurkituko ditugula. Halaber, euskal sistemaren guneko jatorrizkoen artean Ipar EHko idazlerik ez dugula aurkituko ere esaten du Apalategik, «definizioz» (2005: 4).

Hipotesi modura, esanen genuke Nafarroak berak ere beste azpi-sistema bat osatzen duela euskal literaturan.<sup>84</sup> Sistemaren erdigunean, zalantzarik gabe, Gipuzkoa genuke, eta zehazki, Donostia eta ingurua; zentroa, definizioz, erabakigune baita. Gorago ikusi dugunez, bertan dira argitaletxe eta elkarte gehienak, irakurle gehienak eta idazle gehienak. Beraz, hizkuntza literario erabiliena ere bertakoa izanen da, nahiz eta aurki daitezkeen mendebaldeko eta ekialdeko kutsua duten literatura lanak ere, bai euskaraz sortuak bai itzuliak, betiere euskara batuaren barruan.

<sup>83</sup> Besteak beste, honela zioen Bordak elkarrizketa batean: «periferia horretarik idazten dut, idazleetan ere periferikoa naizelako. Baina hori da neure nahia» (Hernández 2007).

<sup>84</sup> Horren adibidetzat har daiteke berriki kaleraturiko *39 idazle nafar* (Pamiela, 2017), non 39 idazleren narrazio bana biltzen baitira. Nago azpiratua agerrarazteko helburua duela argitalpen horrek, hain ikusgarri ez den errealitate bati fokua jartzekoa. Izan ere, nekez irudikatuko genuke *39 idazle gipuzkoar* izeneko libururik.



Ana Gandarak (2012), gune/periferia bikoteaz harago, muga/periferia bikoizketa proposatzen du. Epaltza eta Sarrionandia idazleen azterketan oinarrituta, Gandarak dio ELSren zentroarekiko erlazioak hagitz desberdinak direla euskal idazleen artean. Muga terminoa proposatzen du «hainbat egoeraren bateratzea adierazteko» (Gandara 2012: 15) erabilgarri izanen delakoan. Honela dio: «gunetik idazten ez duten idazle birekin egiten dugu topo [Epaltza eta Sarrionandia], baina ez dira biak –perspektiba bera izanik ere– distantzia mota berean gunearekiko eta, distantzia ez fisiko hori guneak ematen duen onspenaren arabera izanen dugu» (Gandara 2012: 15). Hierarkizazio bat marrazten du, bada: batetik, idazle-gune arteko distantzia fisikoa; bigarrenik, guneak ekoizpenerako duen onspen(ez)ak gunearekiko sortzen duen distantzia abstraktua. «Beraz, biak dira gunearekiko distantzia neurtzeak, baina batean lanaren sorlekutik abiatzen gara, eta, bertzean, onspenetik» (ibid.). Guneko instituzio eta merkatuek zeresan handia izanen dute literatura lanek gunearekiko duten distantzia sinboliko horretan. Horrela, sorreran periferiko, gunean aritu eta kanonizazioa lortzen ez duten obra zein idazleak mugako lirake Gandararen arabera (2012: 16). Gandarak aipatzen duen kanona eta horren erlazio moduak ez ditugu aipatu gabe utzi nahi, labur bada ere.

Kanonizazio prozesu batean, «ideologia nazionalistak» agintzen du Kortazarren (2002: 28) ustez; halaber, kanonaren irizpideen aldakortasuna nabarmentzen du:

Ez da zalantzarik, beste aldetik, literaturaren kanonaren irizpidea estutzen joan dela. Ez dugula berdin epaitzen literatura den esateko orduan XVI. mendeko kristau ikasbide bat edo gaurkoa. Hain urria izaki idatzizko produkzioa XIX. mende arte ontzat ematen ditugu idatzizkoaren garau horiek, edo ontzat emateko joera zabalagoa izan da, horretan ere desberdintasunak baitaude (Kortazar 2002: 28).

Garai klasikoetan, urritasuna nagusi zela eta, testu gehiago onartzen ziren kanonaren barruan, gaur egun onartuko ez genituzkeenak. Irizpideak gutxiago aldatu dira, apika, azken mendean; ez literatura zer den eta zer ez den esaterakoan, baina bai kanona zer izenekin beteko den erabakitzerakoan. Jon Casenavek (2010: 813) dioenez, «[e]uskal literaturaren historian, azken 30 urte hauetan egin diren aukera historiografikoengatik, garbiki ikusten da 1950-eko aurreko kanon-a abantxu hunkitu gabe berresten dela liburuz liburu». Idazleak ugaritu, sistema nolabait garatu eta garaia aldatu arren, bada, badirudi kanonak gutxi gorabehera bere horretan jarraitzen duela azken hamarkadetan. Horren adibide, aurreko atalean aipatu dugun Aldekoaren (2004) aipua. Kanona prozesu sozial baten ondorio da, balio literario eta kulturek baldintzatzen dute, baina ez horiek bakarrik. Iratxe Retolazak dionez, kanonizazio prozesuetan kultura batean nagusi izanen diren legitimazio eta deslegitimazio bideak ere erabakitzen dira (Retolaza 2011: 225). Gaur egun instituzioekiko morrontza handia dela eta kanpo legitimazioa bilatzen dela dio Retolazak, horrek dituen arriskuak azaleratzeaz batera:

Toda esta situación plantea una cuestión inquietante: ¿qué sucede cuando una literatura en búsqueda de legitimación identitaria confunde la legitimación dada por instituciones ajenas [oin oharra: ajenas en términos lingüísticos, por lo menos] y por el mercado internacional como la vía de legitimación de la identidad literaria y cultural? Este predominio de la legitimación externa es una de las grandes cuestiones que se deben tratar en el caso de las literaturas sin Estado. Con la obsesión por homologar

estas literaturas, y con la correlativa de localizar una legitimación, se han olvidado los riesgos de homologar las propias vías de legitimación y procesos de canonización. La homologación, en efecto, puede implicar asimilación (Retolaza 2011: 233-4).

Horrela, botere-diskurtsoak saiatu dira kontra-kanona sortzen duten bestelako prozesu sozialak neutralizatzen eta deslegitimatzen (Retolaza 2011: 241).

### 3.4.1. Itzulpena sistemaren periferian

Literatura itzulpenak eragin handia du munduko literatura sistemen egituraketan, baita tokian tokiko literatura nazionaletan ere. Lehenago ere esan dugu egonkortze bidean diren literaturek beharrezkoa dutela itzulpen bidezko inportazioa, kanpoko joerak bereganatzeko ez ezik literatura oinarria eta hizkuntza literario bat indartzeko. Itzulpena gakoa baita Europako nazioen bilakaera historikoan, eta trantsizio egoeran dagoen literatura orok aukera handitzat du itzulpena. Aldiz, kultura bat eroso eta errotuta dagoenean menderatzaile dei genezakeen egoera batean, itzulpenak ez du ia harengan eraginik. Bestela esanda, Figueroaren (2004: 532) hitzetan, «no traduce lo mismo quien, en el campo lingüístico o literario de recepción, ocupa una posición dominada, que quien ocupa una posición dominante. (...) Existe en la traducción un discurso implícito que delata la dominación y el poder de cada uno».

Fouces Gonzalezek *La traducción literaria y la globalización de los mercados culturales* (2011) saiakeran dioenez, kultura mundu-mailako bihurtzearekin sorturiko XX. mende bukaerako industriak eszena berri bat sortu du (mapa literarioa), agerian uzten duena boterearen mendeko zirkulazio manipulatzailea. Izan ere, indar gutxi batzuek dute kontrola argitalpenen sektorean: merkataritza-gune nagusiak, edizioaren ekitaldi handiak (hala nola mundu mailako liburu azokak), enpresa talde batzuen zerbitzura dauden kritika eta iruzkin literarioak... Zirkulazio horretan, itzulpena tresna baino zerbait gehiago izanen da Fouces Gonzalezen (2011) ustez: xede-kulturan joko-arau berriak ezartzeko espazio sortzailea da. Argi dago, beraz, itzulpenak zeresan handia duela migrazioak eta globalizazioak ezaugarrituriko mundu arrakalatu honetan (Cronin 2006: 5).

Hizkuntzaren araberrako geopolitikari begiratzen badiogu, zenbait datu ematen ditu Fouces Gonzalezek (2011): munduko itzulpenen erdia baino gehiagok ingelesa dute sorburu-hizkuntza; gero dator alemana, eta atzetik frantsesa. Horiek hiru laurden osatzen dute, eta munduko gainerako hizkuntza guztiek, berriz, %25. Ingelesa da tranpolin nagusia, eta ingeles hizkuntza duen merkatuan egotea bakarrik irizpide sendo izaten da eskubideak erosi eta hirugarren merkatuetan itzulpena sartzeko. Ez da harritzekoa ingelesaren erakarpen-indarra literatura hizkuntza modura. Bigarren Mundu Gerratik du erdi-erdiguneko posizio bat hizkuntzen galaxia deitzen zaion horretan (Grutman 2009). Izan ere, zenbait ikertzailek esan bezala (Calvet 1999 eta Heilbron 1999), hizkuntza baten pisua neurtzeko modurik onena hori darabilten hiztun elebidunen kopurua neurtzea da. Kontrara, Ingalaterrak edo AEBk %3 baizik ez dute inportatzen. Itzulpena inportazio eta esportazio kulturalaren salerosketa-fenomeno bat bada, honako paradoxa hau adierazten du Fouces Gonzalezek (2011): geroz eta inportazio kultural gehiago, orduan eta desoreka

handiagoa (gehiegi itzultzen duten kultura eta hizkuntza gutxituek subiranotasun identitarioa galtzen omen dute); geroz eta gehiago esportatu, berriz, are eta indar handiagoa (nazioartean nagusitzeko gaitasun handiagoa).

Apalategiren hitzetan, itzulpenen bidezko esportazioak espazio sinboliko berriak eskaini zizkion 90eko urteetan euskal idazleari eta «unibertsalizazio potentzialerako bidea irekitzen dio» (Apalategi 2013: 70). Haren esanetan, euskal literaturaren nazioarteratzea etorri da bereziki esparru literario espainolaren bitartekaritzak «baldintzatua edo mediatizatua (hitzen honen zentzu guztietan)» (Apalategi 2013: 70). Horrek zuzen-zuzenean erantzuten dio autoitzulpenari, bereziki gaztelaniaren kasuan, maiz autoitzulpena tranpolintzat hartzen baita beste hizkuntza batera itzultzeko.

Nolanahi den, Iban Zalduak uste du ez direla anitz mundu mailara atera daitezkeen euskal idazleak: «(...)el espacio que la Republica Mundial de las Letras asigna a los escritores vascos es muy estrecho y no parece que pueda admitir más allá de tres o cuatro figuras exportables a un nivel global» (Zaldua 2012: 165). Edorta Jimenezek txikien arteko batasuna proposatzen du merkatuen monopolioari aurre egiteko:

Literatura itzulia, munduan, egun, monopolioen esku dago. Literatura hizkuntzatik hizkuntzara itzultzen da argialetxe handien interesen arabera. Horregatik gure estrategiak aramuarena izan behar du, hau da, besteekin lan egitearen aldeko estrategia egin behar dugu. (...) Argialetxeek itunak egiten dituzte. Egile eskubideak hainbat hizkuntzatarako erosten dituzte, eta horietatik izaten dira itzultzen diren liburuak. Guk bestelako bidea egin behar dugu (Berro 2007).

Goiago esan dugunez (3.2.1 azpiatalean), Etxezaharretak ere bide beretik jotzen du, hizkuntza gutxituen trukea abiapuntu hartuta: «harremanak antolatuz Bretania, Okzitania, Korsikarrekin badugu asko egiteko bai itzulpen mailan eta bai trukaketa mailan ere» (Butron 2000). Alta, oso urria da hizkuntza gutxituen arteko itzulpena, ezpada hizkuntza nagusi baten zubi-lanaz. Grutmanen arabera, oso gutxi itzultzen da Espainiako estatuko hizkuntza gutxituen artean, gaztelania zubi hizkuntza modura erabiltzen ez bada. Honela dio: «[La traducción de un idioma dominado a otro idioma dominado] no se da con tanta frecuencia, a causa precisamente de las relaciones de poder asimétricas en la galaxia de las lenguas, que canalizan el tráfico interlingüístico y lo hacen pasar por los varios centros» (Grutman 2009: 128). Frantziako estatuko hizkuntzen artean are urriagoa dela esan dezakegu, baita frantsesa zubi-hizkuntzatzat erabilia ere.

Fouces Gonzalezen (2011) arabera, frantses ereduak da hispanoamerikar literaturarentzako erreferentzia; izan ere, hizkuntza horretan itzulpena lortuz gero, Europako beste kultura/hizkuntza batzuetan sartuko da zuzenean. Alta, beste merkatuentzako erreferentzia izan badaiteke ere, irakurle frantsesentzat ez du, beharbada, eragin bera. Izan ere, frantses sistema kulturalan, beste sistema batzuk baino zorrotzagoa izanik eta tradizioz European frantses literaturak posizio zentrala bete duenez, frantsesera itzulitako literatura izugarri posizio periferikoan geratu da (Even-Zohar 1990b). Adierazgarria da, esate batera, frantsesek euskal literaturak duen presentzia urria: ELI katalogoaren arabera (azken kontsulta data: 2018/03/02), euskal literatura lan gehiago daude ingelesez (126) frantsesek baino (107). Euskarazko lanak kanporatzean ere, ez dugu

frantsesaren erreferentzialtasunik ikusi. Horren adierazpen bakarretako bat izan daiteke Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* liburua. Espainiako estatuko hizkuntza ofizialetara itzuli zuten, 2009an Espainiako Narratiba Saria jaso ondoren; 2012an, Gersende Camenen itzultzaileak gaztelaniatik frantsesera itzuli zuen Gallimard etxerako, eta orduan etorri dira Europako beste hizkuntza batzuetarako itzulpenak; hala nola, bulgariara, serbiera, albaniera, georgiera eta errusierara. Kasu hori salbuespen dela esan daiteke, beraz.

Euskarara itzuliriko literaturak euskaraz sorturikoarekin alderatuta duen harrera eskasa ere aipagarria da. Kasurako, irakurle klubetako irakurgai-zerrendetan, gehiengoak dira euskaraz sorturiko tituluak; zehazki, bi urteko hamar irakurle klubetako programazioan, irakurgaien %70,7 eta tituluen %66 jatorriz euskaraz sorturikoak dira, itzulitakoen aldean (Arrula-Ruiz 2013b). Bide beretik, batxilergoko irakaskuntzan ere urria da literatura itzulpenen presentzia ikasleek irakurri beharreko liburuetan: «esanguratsua da 2004-2005 ikasturtean gehien irakurritako hogeitaz hamar liburuetan bakarria izatea itzulpena ikastetxe publikoetan (*Koaderno handia*), eta pribatuetan itzulpen bakarria ere ez agertzea» (Alonso Amezua 2008: 206). Hego Euskal Herriko ikastetxeak ditu aztergai Alonsok, baina susmoa dugu Ipar Euskal Herrian den euskarazko lizeo bakarrean ere (Baionako Bernat Etxepare) antzekoa izanen dela eskaintza. Azkenik, Olaziregik (2000: 90) aipatzen du Lopez Gasenik (2000) aurkezturiko doktore-tesiaz gainera, euskarara itzulitako «ondare unibertsal honek» ez duela euskal kritikagintzaren arretarik jaso. Gauzak aldatu egin dira azken hamarkadan, baina esanen genuke oraindik ere, euskaraz sorturikoaren aldean, euskarara ekarritako literaturak leku periferikoa duela harrerari dagokionez.

Euskaraz sortzen denerako ere garrantzia handia dute euskarara egiten diren itzulpenek. Hasteko, autoreak ere irakurle direlako, eta hainbat iturritatik edaten dutelako. Badirudi euskal sistemak inportatzeko joera handiagoa duela kultura menderatzaile batzuek baino; alta, Italia, Grezia edo Suitzaren antzekoa da kopurua (Torrealdai 1997), eta hiztun gutxiago dituzten beste batzuekin alderatuz gero ere alde txikia da (Uribarri 2011: 249). Gaur egun, Pentsamenduaren Klasikoak eta Literatura Unibertsala bildumei esker, eta kasuan kasuko argitaletxeek egindako lan andanari esker, badugu oinarri bat euskarara ekarritako literaturan.

Corpus literarioa handitu ahala, euskal sortzaileen erreferentziak ere ugartuko dira. Alonsok dioenez, bere belaunaldiko sortzaileek gaztelaniara itzulitakotik edan izan dute gaztelaniaz egiten den literaturatik baino gehiago (Irazustabarrena 2000); Cano iritzi berekoa da: «eredu anglosaxoiertara edo Europa ekialdekoetara begiratzeko joera dago eta ez hainbeste Espainiako ereduertara. Gehiena gaztelera irakurtzen dugu (Iparraldekoek frantsesez). Baina itzulpenak dira» (ibid.). Beraz, hori ere hizkuntzen egoera ez-parekoaren adierazle eta ondorio genuke, euskal ekoizleek hizkuntza hegemonikoen filtrok kontsumitzen baitute literatura (geroz eta gutxiago, euskal itzulpenen ekoizpena handitu ahala). Horretarako arrazoiak alde bikoak direla uste du Xabier Olarrak, “Euskal literatura eta itzulpengintza” izeneko mahai-inguruan esan zuenez: «Irakurleen jarreraz harago, datu objektiboak ere badaude» (Olarra 2017). Bistan denez, euskal irakurleak esku-eskura ditu munduko nobedadeak erdaraz; ez, ordea, euskaraz.

Honenbestez, itzulitako literaturaren posizio “ohikoa” periferikoa dela esan dezakegu, nahiz eta rol funtsezkoa izan literatura baten sortzean eta egonkortzean; hala ere, batzuetan, interferentzia handia dagoenean, literatura iturri handienetik edo influentzia eta kopuru handienetik datorren literatura itzuliak erdigunea har dezake (Even-Zohar 1990b). Hala gertatzen da, hein batean, euskaraturiko HGLrekin: praktika kulturalean duen presentzian, behintzat, nagusi da. Ondorioz, itzulpenaren izaera eta merkatu literarioan duen posizioa ez dira behin betikoak eta aldaezinak, itzulpena kultur sistema jakin bateko harremanek baldintzaturiko jarduera denez.



**4**





# 4 katalogoaren azterketa

Atal honetan euskaratik beste hizkuntzetara egindako autoitzulpenen katalogoaz mintzatuko gara. Lehenik, katalogo hori osatzeko prozesuaren kontaketa egingen dugu. Izan ere, ez gara hutsetik hasi, aurretik zegoen hori aipatu eta nola osatu eta zehaztu dugun azalduko dugu; zer iturri erabili ditugun eta katalogoan bildu ditugun datuak zeintzuk diren. Ondoren, katalogoaren, deskribapen bat egingen dugu, lehendik zegoenari guk aurkiturikoa gehituta. Horrela, euskaratik beste hizkuntzetara egindako autoitzulpenen ikuspegi oso bat izanen dugu, aztergai izanen den corpusa aukeratu aurretik.

## 4.1.KATALOGOA SORTZEA

Euskal literatura autoitzuliaren katalogo hau 2012an Elizabete Manterolak aurkezturikoaren bidetik dator. ELI katalogoa sarera eraman zuen, <<http://www.ehu.es/ehg/eli>> orrialdean, eta etengabe eguneratzen ari bada ere, 2010. urtera artekoak bildu zituen Manterolak *Euskal literatura beste hizkuntzeta batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa* lanean. Guztira, urte horretara arte, 1176 sarrera bildu zituen (berrargitalpenak kontuan izan gabe, 935 sarrera dira). 480 sorburu-izenburu dira katalogo osatzen dutenak, 161 idazleren lanak; horrek esan nahi du idazle batzuen hainbat lan erdaratu direla eta, kasu batzuetan, hainbat hizkuntzatarata. Gehien erdaraturiko bi autoreak Juan Kruz Igerabide eta Bernardo Atxaga dira, 44 eta 35 lanekin, hurrenez hurren (Manterola 2014: 93). Katalogo berean bildutako datuen arabera, orotara 390 itzultzailek itzuli dute libururen bat euskaratik; 126 liburutan ez da itzultzailearen izena azaltzen. Generoari begiratuta, HGL izan da gehien erdaraturikoa, 446 izan baitira euskaratik kanporaturiko xede-lanak. Jarraian eleberriak azaltzen dira, 197 argitalpenekin. Hizkuntzei dagokienez, 38 erdaretan argitaratu dituzte euskaratik itzulitako lanak, eta gehien gaztelaniara itzuli da: 436 liburu gaztelaniaratu dira, horietako 77 edizio elebidunetan, hots, euskaraz eta gaztelaniaz. Bigarren postuan katalana legoke, eta bosgarrenean, berriz, frantsesa, 50 titulurekin.

Katalogo hori izan dugu eredu, beraz, eta bertan autoitzulpenaz etiketaturiko sarrera guztiak oinarri hartu ditugu. Esan bezala, Manterolak ondorioztaturiko datuen arabera, gaztelaniarako itzulpenak euskaratik egindako itzulpen guztien %46,68 dira, eta frantseserakoak, berriz, %5,35. Nabarmena da bien arteko aldea, nahiz eta biak izan euskararen bizikide. Euskaratik gaztelaniaturiko 436 titulu horietatik, autoitzulpenak %39,67 lirateke eta atzetik baino oso hurbil leudeke autoreak ez den itzultzaile batek egindako itzulpenak: %38,53. Autorearen eta itzultzailearen artean egindako kolaborazio lanak urriak dira besteen aldean, %4,12 soilik. Badira sailkatu ezinik geratu diren zalantzazko kasuak, gaztelaniaturiko liburuen %14,67, alegia (Manterola 2014: 109). Gaztelaniaren kasuan, behintzat, argi dago autoreak berak egindako itzulpenak ugariak direla. Manterolaren (2014: 109-110) esanetan, «hizkuntza horretan topatu baitugu autoitzulpen gehien. Horiez gain, ordea, frantsesera eginiko autoitzulpen gutxi batzuk ere topatu ditugu». Lau izenburu aipatzen ditu, oso gutxi, beraz, gaztelaniaturiko kopuruarekin alderatuta.

Autoitzulpena itzulpen mota berezitat dugunez, eta ez aparteko fenomenotzat, gure katalogo proposamena ELI katalogoa osatzera datorrela esan dezakegu; ikergaia zehatzagoa denez, sakonago egin ahal izan dugu autoitzulpenen bilaketa hori, beste itzulpen moduak bazter utzita, eta bereziki frantsesera egindako autoitzulpenetan jarri dugu arreta. Gainera, Manterolak liburu formatuan kaleratu zirenak baizik ez zituen aintzat hartu; azterketa honetan, berriz, frantseserako autoitzulpenen kasuan, aldizkaritara ere jo dugu. Gaztelaniatzkoen kasuan, berriz, liburuen kopurua handiagoa denez, kanpoan utzi ditugu liburu formatuan kaleratu ez diren argitalpenak. Datu bilketa hori nola egin dugun azalduko dugu segidan.

Hainbat iturritatik harturiko datuak dira, eta horietara askotariko bidetatik ailegatu gara. Batetik, liburutegi eta datu-baseetan begiratu dugu, bai bertara joanda, euskal liburutegien kasuan, bai interneten bidez gure mugetatik kanpoko kasuan; hala nola, Bibliothèque Nationale de France, Agencia Española ISBN, Biblioteca Nacional de España, Biblioteca de Catalunya, Biblioteca da traducción galega (BITRAGA), Catalogue SUDOC, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea, Nafarroako Liburutegi Publikoak, Koldo Mitxelena Kulturunea eta Baionako mediateka. Bigarrenik, Euskal Herriko elkarte eta erakundeetan begiratu dugu, besteak beste, Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta Interpreteen ataria, NorDaNor plataforma, Euskal Idazleen Elkartearen webgunea, Euskaltzaindiaren Azkue liburutegia eta Sancho el Sabio fundazioa. Hirugarrenik, egunkari, aldizkari eta argitaletxeetako webguneetan bilatu dugu; kasurako, *Berria*, *Gara* eta *Diario de Noticias* egunkariak eta Alberdania, Txertoa eta Atenea argitaletxeak, baita zenbait euskal idazleren webgune eta blogak ere, Kirmen Uriberena eta Harkaitz Canorena, adibidez. Laugarrenik, katalogoa osatzeko zenbait liburu eta artikulu ere kontsultatu ditugu: Elizabete Manterolaren tesia (2012) ez ezik, Jose Manuel Lopez Gaseniren *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*, Xabier Irujoren *Itzulpena erbestean* eta Joan Mari Torrealdairen *Euskal kultura gaur*. Azkenik, datuen inguruko zalantzak argitzeko eta hutsuneak betetzeko oso modu eraginkorra izan da zuzeneko komunikazioa; hots, hala idazleei nola editoreei mezu elektronikoko bidez galdetzea. Lehenik, Euskal Idazleen Elkartera mezu bat bidali genuen ikergaia azaldu eta laguntza eskatzeko, mezua bera bazkideei bidal diezaieten edo

elkartekoen datuen bat izanez gero helarazteko eskatuz. Elkartek bazkide guztiei birbidali zien mezua, eta hamasei idazlek erantzun zuten. Guztiak ez ziren erantzun baliagarriak izan, beste norbaitek idatzitako lanen itzulpenak edo beren obren itzulpen alografoak aipatzen baitzituzten; nolana ere, hamalau sarrera lortu genituen zuzeneko komunikazio horren bidez. Bereziki Aitor Aranaren erantzunari esker lortu genituen sarrera berri horiek, hamaika titulu izan baitziren hark bidalitakoak. Gerora, editoreren batekin eta elkartearen bidez iritsi ez ginen beste idazleren batekin ere egin dugu harremana; oro har bide emankorra izan da, batez ere liburu-formatuan kaleraturikoari dagokionez (gehienek ez baitzuten gogoan aldizkarietan plazaraturikoen zerrenda). Esaterako, ELI katalogoan autoitzulpen zalantzazko bezala agertzen ziren Patxi Zubizarretaren hiru haurrentzako liburu beste itzultzaile batek erdaratu zituela baieztatu zigun autoreak beraren autoitzulpeni buruz galdetzeko idatzi genionean. Beraz, esan daiteke modu batean ELI katalogoa osatu eta eguneratu dugula.

Bide beretik, alegia, zuzeneko komunikazioari esker, sarrera kopuru gehien Piedad Atekak eman zigun. Datu-base eta sareko katalogoetan egindako bilaketetan behin baino gehiagotan atera zitzaigun haren izena, eta inon ez zen aipatzen bestelako autorerik, ez sareko iturrietan ez kontsultatu genituen liburuetan. Kosta egin zitzaigun autorearekin harremanetan jartzea, berak idatzi eta ustez itzulitako liburu gehien argialetxea, Izar Argitalpenak, itxi egin baitzuten eta ez baitzegoen sarean inolako kontaktu biderik. Gainera, 90eko urteetan kaleraturiko liburuak direnez, liburutegi gutxitan aurki ditzakegu, eta agortuta daude tituluak anitz. Alta, azkenean Atekarekin mintzatzea lortu, eta baieztatu zigun haurrentzako bi bilduma oso (Txirleta eta Pinpilinpaua sortak) berak euskaraz idatzi, marraztu eta gaztelaniara itzuli zituela. Horrela gehitu genizkion 33 titulu katalogoari.

Hainbat zailtasun izan ditugu katalogoa osatzerakoan. Sorburu-hizkuntza euskara da eta xede-hizkuntzan ez dugu mugarik jarri, nahiz eta, gure testuinguruaren egoera linguistikoa kontuan hartuta, eta autoitzulpen jardunak bi hizkuntzaren eta kulturaren jabe izatea dakarrenez, xede-hizkuntzak nagusiki gaztelania eta frantsesa izanen zirela aurreikusi genuen, beste hizkuntzen aukera itxi ez arren. Liburutegi edo datu-base gehienek ez dute sorburu-hizkuntzaren arabera bilaketa egiteko aukerarik, beraz, oro har, xede-hizkuntzaren arabera egin behar izan ditugu, edo gaiaren arabera. Esaterako, SUDOC katalogoan *Basque* idatzi dugu bilaketa egiterakoan, eta euskaratik egindako frantses itzulpenak ez ezik, “euskal gaiak” buruzko frantsesezko liburuak ere agertu zaizkigu; txalapartari edo eskupilotari buruzkoak, adibidez. Horrek bazterketa automatikoaren orde banan banako hautaketa eskatu du. Gainera, autorea, argitaratze data eta lekua edo generoa zehaztu behar horrek tituluren bat kanpoan uzteko aukerak handitzen ditu.

Itzulpenaren noranzkoaren inguruan ere zenbait arazo eta zalantza izan ditugu. Euskarazkoa eta erdarazkoa aldi bertsuan argitaratzen direnean, are gehiago argialetxe berak egiten duenean, zaila da esaten zer hizkuntzatan idatzi den lehenik, egilea itzultzaile denez eta datu hori ezkutatu ohi denez. Kasurako, Amaia Fernández Zubeldiak idatzi eta ustez itzulitako *Haritz magikoa* eta *El roble mágico* 2010ean kaleratu zituzten, eta itzulpenaren erreferentziarik agertzen ez denez, datu-baseak emandako informazioarekin ezin jakin zein idatzi zuen lehenago; gauza bera gertatzen da José Antonio Pagolaren *Jesús eta emakumea* eta

*Jesús y la mujer* parearekin, biak ala biak 2007an Joseba Berriotxoan – Erroteta etxeak kaleratuak. Dena dela, azken horren kasuan, esaterako, pixka bat arakatu ondoren susma dezakegu gaztelaniazkoa idatzi zuela lehenik, bibliografia gehien-gehiena gaztelaniaz soilik baitu; orobat susma dezakegu euskararako itzulpena beste norbaitek egin zuela, autore beraren *Jesus, hurbilketa historikoa* liburu sonatuarekin gertatu bezala, non Mikel Atxaga azaltzen baita itzultzaile. Editoreak geroago baieztatu zigun itzulpen alografoa zela. Alta, galdetu ezean eta datu espliziturik gabe, ezin erabat ziur jakin.

Zehaztasun falta eta informazio kontrajarria ere ez da gutxi izan. Adibidez, sorburu-hizkuntzaren arabera bilatu zitekeen datu-baseetan, ISBN atarian esaterako, sorburu-hizkuntzaren eremuan “euskara” jarrita baizik ez dugu mugatu bilaketa; horrela, batzuetan, euskaratik egindako itzulpenak ez ezik, euskarara egindako itzulpenak ere agertu zaizkigu emaitzen artean. Esaterako, *Argjjauna* ipuina Francisco Manuel Fernández Santanak idatzi eta itzuli zuela esaten digute ISBNko datuek, eta horren gaztelaniazko baliokidea bilatzean, urte berean kaleraturiko *El monstruo tragaluza* ematen digu, non ez den esaten euskarazko bertsioa badagoenik. Beraz, pentsatzekoa da gaztelaniaz sortu zuela lehenik, eta gero berak edo aitortu gabeko itzultzaile batek euskaratu zuela. Alta, BNE katalogoan begiratzen badugu, *Argjjauna* ez, baizik eta *Argjiale* ematen digu euskarazkoaren izenburutzat, eta Andrea Fernández Asensio ere agertzen da “beste autore” modura, sailkapen batzuek itzultzailearen izena jartzeko duten atalean. Gaztelaniazko titulua bilatuta, berdin agertzen da bigarren autorearen izena; beraz, horrek ez digu itzulpenaren noranzkoa argitzen. Euskarazkoaren sarreran, ordea, «Título original: *El monstruo tragaluza*» ageri da; horren arabera, ondoriozta daiteke gaztelaniatik euskarara egindako itzulpena dela. Horrekin ere, ezin jakin itzulpen alografoa edo autoitzulpena ote den.

Kontsultaturiko hainbat iturritan, sarritan aurkitu dugu informazio kontrajarria. ISBN atariak autoitzulpenetzat aurkezten du Asun Balzolaren *Indiana Jones en zamarra* gaztelaniazkoa; itzulpena zer noranzkotan egin zuen jakiteko bilaketa sakonagoa egitean, konturatu ginen marratxoa falta zitzaiola izenburuari: *Indiana Jones-en zamarra* euskarazko titulua da, ez gaztelaniazkoa. Halaber, Donostiako udal liburutegien sareko webgunean aurkitu genuen ez zela euskaratik erdarara egindako autoitzulpena, Anjel Lertxundi agertzen baitzen “Beste egile batzuk” eremuan; pixka bat gehiago bilatuta, jakin genuen erdaraz idatzitako ipuina dela (autorearen beste batzuk bezala), eta gerora Lertxundik euskaraz eman zuela.

Gerard Genette izan dugu erreferentzia nagusi paratestuen azterketarako. Itzulpengintza ikasketetan azkenaldian egindako ikerketek argi erakutsi dutenez, paratestuen azterketa ondorio esanguratsuen iturri da (Manterola 2012; Zubillaga 2013; Sanz 2015). Genetteren arabera, testu batek bere periferian dauden beste testu batzuekin duen harremana da paratestualitatea; zehazki, «le paratexte est donc pour nous ce par quoi un texte se fait livre et se propose comme tel à ses lecteurs, et plus généralement au public» (Genette 1987: 7). Definizio hori oinarri hartuta, paratestuak aztertu ditugu, bai liburuan bertan agertzen diren elementuak, Genetteren sailkapenaren arabera peritestu direnak, bai liburutik kanpo dauden bestelako iturrietatik jasotakoak, epitestuak, alegia. Mezu horiei begiratuta jasoko dugun informazioa esanguratsua izanen da; hala nola, zer datu ematen diren eta zeintzuk ez eta nola aurkezten den informazioa. Honela azaltzen du Genettek:

[...] il existe des livres sans préface, des auteurs réfractaires aux interviews, et l'on a connu des époques où l'inscription d'un nom d'auteur, voire d'un titre, n'était pas obligatoire. Les voies et moyens du paratexte se modifient sans cesse selon les époques, les cultures, les genres, les auteurs, les œuvres, les éditions d'une même œuvre, avec des différences de pression parfois considérables (Genette 1987: 9).

Hasteko eta behin, autoitzulpenak halakotzat jotzeko erabili ditugun irizpideak aipatu nahi ditugu, sailkapena nolakoa izan den zehaztu aurretik. Oro har, hauek izan dira obra bat autoitzulpenen katalogoan sartzeko erabilitako irizpideak:

- peritestueta halakotzat garbi aurkeztea (horiek dira, noski, sailkatzen errazena);
- peritestueta informaziorik ageri ez den edo dudazko kasuetan, epitestueta bilaketa xehe batek autoreak itzulitakoak direla salatzea, izan datu-base, izan liburutegietako fitxetan (batean baino gehiagotan kontrastatu dugu beti informazioa);
- epitestueta bilaketan informazio kontraesankorra agertuz gero, autorearen edo editorearen aipuez fidatu gara, liburuari buruzko elkarrizketak irakurri, eta, zenbaitetan, zuzenean galdetu diegu mezu elektronikoa edo telefono bidez;
- azkenik, itzulpenaren egilezari buruz inon daturik aurkitu ez dugun kasu urrietan, autoitzulpena jo ditugu autoreak bere beste obra batzuk itzuli dituela argi genekien kasuak.

Nolanahi den, irizpideotan bada ñabardurarik egiteko: esaterako, kredituetan itzulpen alografoa dela ager daiteke, baina horrek ez du esan nahi autoreak ez duela, modu batean edo bestean, itzulpen-prozesuan parte hartu. Izan ere, kolaborazio kasu horiek ere ohikoak dira, eta arraz lausoa da maiz autoitzulpenaren eta kolaborazioaren arteko muga (Manterola 2012). Kanpoan utzi ditugu besteren batek itzuli eta idazleek proposamen, gehitze eta zuzenketak baizik egin ez dituzten obra itzuliak, itzulpen prozesua besteren batek egin delakoan. Katalogatu baino lehen, kasu guztiekin bide oro urratu dugu, eta banan banako bilaketa horren emaitza da katalogoan sartu ala ez erabakitzea. Esanak esan, bada azpimarratu beharreko zerbait: suposizio anitz egin behar dira autoitzulpenen katalogazio garbi bat egin nahi izatera, eta, hala ere, zalantza ttipiren batekin geratu gara.

Irizpideak zehaztuta, bilaketa eta katalogazioa azalduko dugu jarraian. Peritestueta eta epitestueta ematen ahal den informazioa hainbeste denez, itzulpenaren inguruko datuetara mugatu dugu aztergaia. Alegia, itzulpenari erreferentzia egiten dioten eta autoreak egin dela jartzen duen edo ez, eta, jartzekotan, zer modutara adierazten den begiratu dugu.

Izan ere, bada itzulpenaren autoretza argi adierazten duen peritestueta. Kredituetan agertzen da, esaterako, Alberto Ladrón Aranaren *Las manos del carpintero* eleberriaren itzulzailea autorea bera dela; orobat gertatzen da Xabier Mendiguren Elizegiren *Super guay* ipuinarekin, Edorta Agirreren *Cómo perder 100 apuestas* saiakerarekin eta Jean-Louis Davanten *Antso Handia trajeria* pastoralarekin, besteak beste. Gauza bera aurkitu dugu

batzuetan itzulpen alografo batzuetako kredituetan, autoitzulpena ote zen jakin nahian liburua eskuartean hartu dugunean; Andoni Egañaren *No me gusta el fútbol* (Juan Kruz Igerabide itzultzaile) eta Arantxa Iturberen *Yo lo hago sentado* (Jorge Jimenez itzultzaile), biak ala biak lehenik euskaraz Elkarreko *Eta zer?* bilduman argitaratuak. Halaber, batez ere helduentzako liburuetan datorren autorearen biografia laburrak itzulpenaren zenbait datu emateko balio du. Mikel Hoyos Seinen *Nombres vascos* bilduman, honela dio autorearen biografiak: «Este trabajo -"Nombres vascos"- es asimismo la traducción del libro "Euskal izenak" realizado por el mismo autor». Orobat dio Jasone Osororen biografiak, gaztelaniazko *Jara* (Alfaguara, 2009) lehenik euskaraz argitaratu zuela adierazten baita bukaeran.

Lehen aipatu bezala, epitestuen barruan sartuko genituzkeen mezu-truke bidezko komunikazioa jakingarri izan zaigu katalogoa osatzeko ez ezik autoretzaz galdetzeko ere. Esaterako, haurrentzako *Ipurtargien festa* eta *La fiesta de las luciérnagas* liburuetan ez dugu itzulpenari buruzko inolako informaziorik aurkitu; gaztelaniazkoaren kredituek ez dute euskarazkoaren berri ematen, ezta alderantziz ere. Cénlit argitaletxeak kaleratu zituen biak urte berean; beraz, kronologian oinarrituta ere ezin ondoriozta dezakegu. Argitaletxekoei galdetuta jakin dugu lehenik euskarazkoa idatzi zuela Iñaki Zubeldiak, eta gero autoreak berak gaztelaniaratu zuela. Orobat gertatu da Roman Berriozabal Azpitarteren *Aberri Eguna. 1934*, *Gasteiz* eta *Aberri Eguna (Gasteiz, 1934): Euskadi entera está con Araba* liburuekin; aldi berean kaleratu zituztenez eta peritestueta itzulpenari aipamenik egiten ez zaionez, Arabera argitaletxekoei galdetu arte ezin izan dugu jakin euskaraz idatzi eta autoreak berak gaztelaniaratu zuela. Halako kasuetan (lehenik euskaraz idatzia dela eta erdarazkoa autoitzulpena dela paratestuetan agertzen ez denean), erdarazkoak hartzen du jatorrizkoaren tokia. Maila sozial eta politiko berean ez dauden hizkuntzez ari garenez, autoitzulpenaren arriskueta bat da hizkuntza nagusiaren itzalean geratzea euskarazkoa.

Era berean, autoreekin eta editoreekin izandako mezu-truke horiek baliagarri izan zaizkigu ustezko autoitzulpen bat itzulpen alografoa dela jakiteko. Kasurako, Aritz Bergararen *Mitología del pueblo vasco: tras las huellas de los gentiles* liburua *Euskal Herriko mitologia: jentilen aztarnen atzetik* liburuaren itzulpena zela uste genuen, euskarazkoa 2010ean kaleratu baitzuten eta gaztelaniazkoa, berriz, 2012an. Bestalde, liburu biak aztertzean autoitzulpena zela pentsatu genuen, zeren itzulpenari aipamenik egiten ez bazaio ere, gaztelaniazkoan «Maquetación en castellano» agertzen baita kredituetan; horrela, nabarmendu behar horrek eta itzulpenari erreferentziarik ez egiteak pentsarazi zigun autoitzulpena izanen zela. Alta, autoreari mezu bidez hipotesia berresteko eskatuta, zera erantzun zigun: «Liburua [*Mitología del pueblo vasco: tras las huellas de los gentiles*] gazteleraz idatzi nuen, zoritxarrez euskara ez dut hain ondo menperatzen horretarako, eta gero, euskaraz argitaratzeko Nora Azkoain-ek egin zuen itzulpen lana». Paratestuei begira ondorioztatu genuenaren eta argitalpenen ordena kronologikoaren kontra, beraz, lehenik gaztelaniaz sortu zuen, eta euskarazkoa itzulpen alografoa da. Mezu berean jakin genuen, ordea, liburuan ageri diren olerkiak zuzenean euskaraz sortu zituela autoreak, eta gaztelaniazko argitalpenerako berak itzuli zituela. Esanguratsua gerta daiteke hautu hori; alegia, saiakera idazteko hizkuntza ongi menperatu ez arren, olerkiak idazteko gai sentitzea. Beharbada egilea ohituago dago euskarazko kantuetara eta ahozko tradizioa, eta, beraz, arrotz egin dakioke horiek gaztelaniaz sortzea;

edo, izan daiteke, baita ere, olerkiak ahozko tradizioari lotzen zazkionez, eta pieza laburrak direnez, horiek idazteko gaitasun maila txikiagoa behar dela uste izatea. Bestelako arrazoiren batengatik ere izan daiteke hautu hori. Batera edo bestera, argitalpena lehenik euskaraz izan zedin lehenetsi zuten, eta gaztelaniazkoa, partez, bada autoitzulpena.

Komunikabideen bidez ere izan dugu autoitzulpenen berri. Hitzen Uberan sareko atarian, *Barreras* poesia-liburu kaleratu berriaren harira egindako elkarrizketan, Hasier Larretxea autoreak zera zioen: «Nik egin dut euskaratik gaztelaniazko itzulpena. Gero, Zuri Negrínek gaztelaniazko egokitzapenean zuzentzaile gisa laguntza handia eskaini dit» («*Atakak* aurkeztuko dute gaur gazteleraz» 2013). Izan ere, *Atakak* izenarekin kaleratu zuen bi urte lehenago liburu euskaraz, Alberdania etxean. Beste komunikabide batzuetara jotzen badugu, ordea, bestelako informazioa jasoko dugu. *Noticias de Navarra* egunkarian bi artikulua agertzen dira gaztelaniazko liburuaren inguruan: lehena, aurkezpenaren berri emateko (Oliveira 2013); bigarrena, liburuaren pasarteren bat eman eta iruzkintzeko («Alambradas y fronteras» 2013); biak ala biak gaztelaniaz. Lehenengoak ez du euskarazkoaren inolako aipamenik egiten, are gehiago, halakorik ez dagoela ematen du aditzera: «El poeta navarro Hasier Larretxea (Arraioz, 1982) tiene nuevo libro, *Barreras*», eta aurkezpenaren egun-orduaz eta liburuaren edukiaz hizketan segitzen du. Bigarrenak, berriz, honela dio: «Barreras es, en realidad, el viaje en castellano de la obra de Larretxea según la traducción de Zuri Negrín y el propio autor del texto original en euskera, (*Atakak*, Alberdania)»; beraz, bigarren horrek itzulpena dela esaten du. Itzulpen-prozesua kolaborazio lana izan dela pentsa genezakeen, Hitzen Uberaneko elkarrizketan autoreak esandakoak irakurri ez bagenitu. Sarritan aditzen dugu nolabaiteko “laguntza” autoitzulpenetan, aitortua izan zein ez; beste kontu bat da hori nola jasotzen duten bai liburuak berak paratestuetan, bai kazetariak prentsan. Larretxearen kasuarekin jarraituz, ISBN ataria begiratuta, gaztelaniazko liburu eza da agertzen, eta Sancho el Sabioko webgunean bilatuta, berriz, Zuri Negrín agertzen da itzultzaile. Hori askotariko iturrien informazio kontraesankorraren adibide bat besterik ez da.

Halakoetan, zaila da ontzat zer iturri hartzen den erabakitzea; Hasier Larretxearen poesia-liburuaren kasuan, autorearen hitzei egin diegu jaramon, ustez hark baitaki nolakoa izan den itzulpen-prozesua eta ez baitu informazio faltsurik emateko arrazoirik. Halakoetan, bada, autoreak esandakoa ontzat hartzera jo dugu. Alta, badakigu batzuetan autoreak itzulpenaren egiletza bereganatu nahi duela askotariko arrazoiengatik.<sup>85</sup> Bestela ere gerta daiteke, idazleak nolabait itzulpen-prozesuan parte hartu baina horren berri inon ez agertzea. Horrela, bada, zenbaitetan peritestueta agertzen den informazioa ez da zuzena, eta beste bide batzuk urratu behar dira sakonago iristeko. Oro har, peritestueta itzulpenaren egilea agertzen bada, autoitzulpena izan edo itzulpen alografoa izan, ontzat jo dugu bertan esaten dena; hots, ez ditugu horien epitetuak banan-banan aztertu,

<sup>85</sup> Horren adibide da arestian aipaturiko Dasconaguerreren kasua. 1867an Parisen argitaratutako *Les échos du pas de Roland* testuaren azalean “traduit du basque” jartzen badu ere, Uribarrik (2013) erakusten du sasi-itzulpen baten aurrean gaudela, ez baitago azalean jasotako sorburu-testurik eta beste batzuen laguntzaz idatzi baitzuen frantsesez Dasconaguerekin; euskarazko testua, berriz, jatorrizkotzat aurkezten da eta Dasconaguerekin idatzia dela dirudi, baina sasi-jatorrizko bat da, frantsesezkoaren itzulpena, talde-lanaren ondorio.

peritestueta ematen diren datuak zuzenak ez diren kasuak urriak direlakoan; eta gehiago jotzen delakoan datuok omisioz isilaraztera oker ematera baino.

Beste batzuetan, omisioagatik pentsa daiteke itzultzailea idazlea bera dela, batez ere edizio eleaniztunen kasuan, non hizkuntza baterako itzultzailearen aipamena egiten den eta ez beste hizkuntz(ar)en itzultzaile(ar)ena. Kasurako, Juan Mari Beltráñen *Txalaparta eta beste aldaera zaharrak* liburua lau hizkuntzatan dago, ordena honetan: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Azken bi hizkuntzetako testuetan, izenburuaren azpian itzultzailearen izena agertzen da; ez, ordea, gaztelaniazkoaren azpian. Hori dela eta, ondoriozta dezakegu autorearen izenarekin bat egiten duelako ez duela ikusi gaztelaniazkoaren itzultzailearen izena jartzeko beharra. Orobat gertatzen da Pier Paul Berzaitzen *Beretretx* eta *Ramuntxo* eta Junes Casenave-Harigileren *Santa Engrazi* eta *Eñant d'Elizagarai* pastoralekin, guztietan agertzen baita gaztelaniarako itzultzailea kredituetan, eta ez frantseserakoa. Pentsatzekoa da, bada, autoreek eurek itzuli zituztela frantsesera; bestela, gaztelaniazkoarekin egin bezala, frantseserako aitortpena ere egingen baitzuten. Halakoei ustezko autoitzulpenak deituko diegu, Touryren *assumed translation* terminoari Zubillagak (2013) eta Sanzek (2015) jarritako euskarapenari jarraikiz. Antzinagokoa (1991koa) delako beharbada, Pier Paul Berzaitzen *Harizpe* pastoralean ez da kreditu-orririk azaltzen; hurrengo argitalpenetan autoitzulpenaren bidetik jo duela egiaztatu dugunez, horretan ere frantseserako itzulpena berea dela pentsatu dugu, zalantza handiagoekin bada ere. Zailagoa da Marzelin Heguiaphalen *Santa Jenebieba* trajeria autoitzulpentzat sailkatzea; antzezlanaxiberera hutsean dago, eta bukaeran laburpena dakar gaztelaniaz eta ingelesez, baita xiberera-euskara batua "hiztegitxo" ere. Zati batean izan daiteke autoitzulpena, bukaerako hiztegitxo horretan, esaterako, edo laburpenen batean. Katalogoan sartu dugu, bada, nahiz eta galdera ikurrarekin markatu.

Xabier Lizardiren *Biotz-Begietan* (1932) testuaz ere antzeko zerbait esan dezakegu. Liburu barruan, izenburu azpian eta parentesi artean, «poesías vascas, con traducción castellana» jartzen du, baina itzultzailearen izenik ez du ematen. Ezkerreko orrialdean euskarazkoa eta eskuinekoan gaztelaniazkoa ageri dira liburu osoan, baita Orixeren hitzaurrean ere; hitzaurre horretan banan-banan iruzkintzen ditu Lizardiren poemak, eta batzuetan erreferentzia ere egiten dio gaztelaniazko testuari. Hala ere, ez digu esplizituki esaten Lizardik berak itzuli zituen poemok gaztelaniara, ezta hitzaurrea Orixek berak gaztelaniaratu ote zuen ere. Lizardiren lehen poeman, berriz, honela jartzen du euskarazkoan: «Gaztelaratik itzulia» (1932: 2), eta gaztelaniazkoan, berriz, «Original del autor» (1932: 3). Hortaz, noranzko horretan autoitzuli bazuen ere, pentsa daiteke kontrakoan ere berdín egin zuela, esan ez arren. Zalantza argitzeko, epitetuetara jo dugu. Lizardiren *Olerkiak* (Erein, 1983) lanari Xabier Letek (1983: 9) jarritako aitzin-solasean honela zioen *Biotz-Begietan* liburuari buruz:

Lehen argitalpena egin zitzaizolarik, Lizardik horrela nahi izan zuen: gaztelan itzulpenez argitaratzea. Joka-bide berdiña Orixerena bere 'Barne-muinetan' argitaratu ziotenean. Beraz, haiek horrela nahi izan bazuten, beren arrazoiak izango zituzten: beren garaieko euskaldunen jakite-mailaz (euskara aldetik, alegia) ez ziren agian asko fidatuko; edo, behar bada, eta hau litzateke agian arrazoin funtsezkoa, batez ere Lizardiren kasoan, erdal itzulpenak beren euskal poesia zentzuz eta tajuz osatu eta borobildu egiten zuela



irudituko zitzaien (Juan Mari Lekuonak ironikoki azken hilabete hauetan hainbestetan aipatu digun «plusbalia» horren bilaketa, alegia).

Nikolas Ormaetxea “Orixe”k (1933) idatzitako liburu-iruzkin batean, berriz, zera zioen “Eguzkitara” poemari buruz: «“Ondar-gorri” deritzaionean nik esan nion “Lur andrea” ordez “Andre lurra” yartzeko, bestela bitara artu zitekela. Nere esana egin zun gizagajoak. Beste inoiz ere nik esanda zenbait bertso kendu ere egin zitun, argitara baino len. [...] Liburuan nere erdera yarri ere egin zun, berak baino obeki asmatu niola esanez» (Ormaetxea “Orixe” 1933). Uler daiteke, beraz, Lizardiri olerki baten Orixeren erdarazko itzulpena hobea irudituz itzaiola berea baino; alegia, Lizardik berak erdarazko itzulpena egin zuela uler liteke, eta poema hori kenduta, bestelako aipamenik ezean, gaztelaniazkoa Lizardiren itzulpena dela. Iritzi berekoa da Cid Abasolo (2007: 271): «...en ocasiones obliga al lector *euskaldun* a recurrir a la traducción castellana que le proporciona el propio Lizardi». Azkenik, euskaratik eta euskarara egindako itzulpenen zerrenda batean, Xabier Mendiguren Bereziartuk Lizardiren *Biotz-Begietan* jaso, eta honela iruzkindu zuen: «Autoreak egin zuen gaztelaniazko itzulpena ohargarria da» (Mendiguren 1980: 959). Beraz, peritestueta hutsuneak ez ezik, epitestueta adierazpen horiek guztiek Lizardiren testua autoitzulpena dela pentsatzera garamatzate.

Gorago aipatu bezala, autoitzulpen jardunaren ezaugarri bistakoena da egilea eta itzultzailea bat bera dela; horregatik, batzuetan itzulpena ezkutatu egiten da edo ez da hori zehazteko beharrik ikusten. Horrek, jakina, bilaketa erruz oztopatzen du, datu-base edo katalogotan jatorrizkotzat sailkatuta baitaude maiz autoitzulitako bertsoak. Elizabete Manterolak ere aipatzen zuen arazo hori: «Gure literaturaren esportatzaile nagusi den Bernardo Atxaga gaztelaniazko idazle modura klasifikaturik zuten bertan [Library of Congressen]» (Manterola 2012: 127). Ondorioz, eta beren obrak itzultzen dituzten autoreen kasuan bereziki, hirugarren literatura batek arazoak izan ditzake literatura sistema batean baino gehiagotan bere lekua egin nahi duen autorearen lanak sailkatzerakoan, jatorrizko hizkuntza zehazteko, batez ere. Gehienetan HGL liburuekin gertatzen da itzulpenaren berri ez emate hori; Uxue Alberdik idatzitako *Txikitzen zaretenean* gaztelaniaz eta galegoz ere atera du Kalandraka argitaletxeak. Alberdik euskaraz idazten duela kontuan hartuta, ipuin hori ere lehenik euskaraz idatziko zuela pentsa dezakegu, eta gero erdaraz eman zuela, datu-baseetan informazio hori agertzen ez bada ere eta biak aldi berean argitaratu baziren ere. Argitaletzeko webgunean, galegozko bertsoaren itzultzailea M. Rodriguez dela jartzen du, baina ez du deus esaten gaztelaniazko edo euskarazko bertsoei buruz, ezta itzulpen zuzena ala zeharkakoa den ere. Liburua eskuartean izan arte, epitestueta begiratu arte, beraz, ezin ziur egon usteak betetzen diren. Idazlearen ohiko hizkuntza-hautuen berri aurrez izatea ezinbestekoa izan da maiz itzulpenaren noranzkoa ondorioztatzeko.

Sarritan, ordea, liburua eskuartean izanda ere, datu faltan geratu gara. Besteak beste, hala gertatu zaigu pastoralekin. Urtero, Zuberoako herri bati egokitzen zaio pastoralak prestatu eta udan antzeztea; horren liburuxka eleaniztuna argitaratu ohi dute emanaldirako. Tradizio luzeko jarduna da; lehenagoko aipamenak badiren arren, dataturiko pastoral testurik zaharrena 1750ekoa da (Davant 2010). Horrela, bada, ahozko literaturaren adierazpiderik garrantzitsuenetako bat da gaur egun, ez soilik Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan, baizik eta Euskal Herri osoan. Idatziz jasotako pastoralak aztertu genituen

Koldo Mitxelena Kulturunean, bertan baitute antzezlan zuberotar horien gordailurik handiena. Fondo gordeetan dituzte asko, eta horiek bertatik bertara baino ezin dira begiratu; hala ere, hiruzpalau digitalizatuta dituzte eta sarean kontsulta daitezke. Begiraturiko 45 argitalpenetatik, idatzizko testuak, kaseteak eta DVDak barne, 18 elebakarrak dira, xibereraz idatzitakoak, nahiz eta hitzaurrea, zenbaitetan, frantsesez bakarrik egon. Elebidunen (euskara-frantsesa) edo eleaniztunen kasuan (bai hizkuntzen artekoak, euskara-frantsesa-gaztelania, bai hizkuntza beraren barrukoak eta artekoak, xiberera-batua-frantsesa), 5 dira autoitzulpen aitortuak, betiere frantsesera (supra-autoitzulpenak, beraz). 13 kasutan ez da itzultzailearen izena agertzen, ezta itzulpenari erreferentziarik egiten ere. Nolanahi ere, 13 horietako 5en frantseserako itzulpena autoreak berak egin duela pentsa dezakegu, gaztelaniarako itzultzailearen izena agertzen baita; beraz, autoreak ez den beste norbaitek egin izan balu frantseserako itzulpena, horren izena ere agertuko zatekeela pentsa dezakegu. Zailagoa gertatzen da hala ondorioztatzea ez gaztelaniarako ez frantseserako itzulpenaren egilea jartzen ez duen obratan, edo kreditu-orririk ere ez duten obraren kasuan.

Orain arte gaztelaniara eta frantsesera egindako autoitzulpenez soilik jardun gara, nahiz eta esan dugun ez dugula bilaketa bi horietara mugatu. Horrela, bakantasunagatik bitxikeriaz har daitekeen zerbait aurkitu dugu: esperantora autoitzulitako liburu bat. Aitor Aranek *Klanda kaj la rivera sekreto* haurrentzako liburua kaleratu zuen Haranaga-Erroteta etxearekin, 2013an. Esperantorako beste itzulpen batzuk eginak ditu Aranek, baina hori du, orain arte, hizkuntza horretara egindako autoitzulpen bakarra. Era berean, Ainara Maia Urrozek *Europaren bibotzean* izeneko poesia-liburua du sarean, 2008 eta 2012 artean idatzitako poemekin. Edizio eleaniztuna da, euskarazko poemez gain horien itzulpenak ematen baititu sei hizkuntza hauetan: katalana, gaztelania, frantsesa, txekiera, ingelesa eta alemana. Horietako poema bat (“Udaberriaren ahotsa”) *Maiatz* aldizkarian kaleratu zuen 2008an, aipatu zazpi hizkuntzetan ere, eta hori baizik ez dugu kontuan hartuko datuak ematean, zeren, ustez, sarean dagoen hori ez baita paperean kaleratu.

Liburu formatuan kaleraturiko autoitzulpenen bilaketan hainbat zailtasunekin eta datu faltarekin topo egin badugu, zer esanik ez aldizkaritan kaleraturikoa bilatzen jarri garenean. Ez daude liburuentzako bezainbesteko datu-baserik. Aldizkari jakin bakoitzeko webgunean sistematikoki begiratzea ia ezinezko izateaz gainera (erraza baita aldizkariren bat kanpoan uztea), bilaketa asko luzatzen ahal da. Autoreei galdetuta ere, gehienek ez dute zerrenda gogoan. Zailtasun horretaz jakitun eta ikergaia nahiz bilaketa-iturriak nabarmen zabalduko lirakeela ikusita, alde batera utzi ditugu gaztelaniazko aldizkariak edo gaztelania-euskara elebidunen azterketa, beste tesi baterako lain ematen baitu. Horrela, frantseseko aldizkarietan edo euskara-frantsesa argitalpen elebidunetan baizik ez dugu bilatu, jakinik hizkuntza horretara egiten diren itzulpenak eta oro har Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako autoreen ekoizpena ez dela hain handia. Gainera, hain zuzen Ipar Euskal Herriko idazleek beren lanak zabaltzeko dituzten zailtasunak direla medio, pentsa liteke liburu formatutik urrundu eta bestelako bideak gehiago jorratuko zituztela. Hori dela eta, frantsesez (ere) kaleratzen diren aldizkarietan begiratu dugu, Ipar Euskal Herrian sorturikoetatik hasita.

Maiatz argitaletxean arreta berezia jarri dugu, hori baita nagusiki euskaraz argitaratzen duen Ipar Euskal Herriko argitaletxe bakarra; izen bereko aldizkaria kaleratzen dute 1982ko otsailetik, hasierako urteetan egun baino maiztasun handiagoz. *Maiatz* aldizkarian poesia da nagusi, ez soilik euskaraz sorturikoa, baita euskarara itzulia ere, eta frantsesez nahiz gaztelaniaz ere badira testuak. Sorreratik gaur egunera arteko ale guztiak banan-banan begiratu ditugu Koldo Mitxelena Kulturunean, autoitzulpen bila. Testu batzuk, poemak batik bat, gaztelaniaz eta euskaraz eta, batez ere, frantsesez eta euskaraz agertzen dira, itzulpenaren erreferentziarik gabe maiz. Aldizkariaren izen bereko argitaletxeak webgunerik ez duenez, nekez aurkituko dugu daturik sarean. Autoreen sorlekuari begiratuta, eta kasu batzuetan itzultzailearen izena edo inisialak agertzen direla kontuan hartuta, poemen itzulpena idazleek eurek egin dutela pentsa daiteke. Noranzkoari dagokionez, hori ere gutxitan agertzen baita, testuen letra tamainaren, orriaren kokapenaren edo idazleari buruzko ezagutzaren arabera ondoriozta dezakegu zer hizkuntzatan idatzi den eta zer hizkuntzara itzuli, guztiz ziur egon ez arren. Adibidez, oro har, testu elebidunetan, ezkerrean edo goialdean edo letra tamaina handiagoan dauden testuak hartu ditugu sorburu-testutzat, eta baliokidearekiko eskuinaldean, behealdean edo letra tamaina txikiagoan dagoena, berriz, itzulpentzat. Horrela, hamalau autoitzulpen identifikatu ditugu. Alta, Etxezaharreta aldizkariaren egungo zuzendariarekin hitz egin ondoren, ustez autoitzulpenak izan zitezkeen hamalau poema-sortako bost baino ez direla jakin dugu: hiru euskaratik frantsesera (Jose Anton Artzeren izengabeko bat, Aurelia Arkotxaren “Ternua” eta Ainara Maiaren “Udaberriaren ahotsa”) eta bi gaztelaniatik euskarara (Txaro Etxebarriaren “Bilakaera” eta “Lainoaren blues”). Gainerako itzulpenak aldizkarian engaiaturiko norbaitek eginak direla esan digu Etxezaharretak. Bost autoitzulpen horietan, lau autoitzultzaile baino ez ditugu, gaztelaniatik euskararako itzulpen biak autore berak idatziak baitira. Beraz, testuen aurkezpena eta itzulpenekiko jokamoldea sistematikoa ez denez, nekez ondorioztatuko ditugu itzulpen-noranzkoa eta itzulpen-modua aldizkarian aurkituriko datuen bidez.

Aldizkarian agerturikoez gainera, Maiatz argitaletxeko liburuen artean beste hiru autoitzulpen aurkitu ditugu, euskaratik frantsesera: Itxaro Bordaren *Le réveil de Médée et autres poèmes* (2012) eta *Entre les loups cruels* (2001), eta Francis Basteroten *La légende du Chêne Noir* (2007). Hirurak edizio elebidunean kaleratu dira; euskarazko eta frantsesezko izenburuak agertzen dira azalean. Badirudi hori dela frantseserako autoitzulpenek duten joera, edizio elebidunetan agertzekoa. Izan ere, frantseserako gainerako autoitzulpenak, folklorearekin eta tradizioekin loturikoak, gehienak, edizio elebidunak dira: euskaraz (batuan edo ekialdeko euskalkiren batean) eta frantsesez. Gainera, guztietan ez da testu zati bera bi hizkuntzetan ematen, eta kasu batzuetan laburtua agertzen da frantsesez. Hori gertatzen da, esaterako, *Euskal pilotaren gogoa eta artzain jokoak = Mémoire de la pelote basque et des jeux de bergers* liburuan (Elkarlanean, 2003): Jakes Casaubonek eta Pierre Sabalok idatzitako saioan, guzti-guztia ez dago elebitan, zati batzuk bakarrik, ustez autoreek libreki emanak. Autoitzulpen opakua da hori, ez baita inolako daturik zehazten. Joera ikusita, esan daiteke, bada, edizio elebidunetan agertzen diren testuak ez direla itzulpenarekiko independenteak, ez direla beste hizkuntzan emanen den horrekiko askeak, ez testu aparteko eta beregain bat ere. Ez da berdin gertatzen gaztelaniaturiko autoitzulpenekin, non gutxiengoak baitira elebidunak, geroago ikusiko dugunez.

Horrela bada, zailtasunak zailtasun, ahal bezain katalogo osoena eta zehatzena egiten saiatu gara, nahiz eta batzuetan datuak falta zaizkigun. Izan ere, argitalpen bakoitzaren datu guztiak biltzea zaila izan da eta, horregatik, azterketa hau ez da izanen guk nahi bezain osoa. Segur aski itzulpentzat sailkatu edo aurkeztu ez den lanen batek ihes egingen zigun, eta beharbada daturen bat ez dugu zuzen jaso. Ustezko autoitzulpen batzuk ere sartu ditugu katalogoan, betiere ziurtasun falta hori aipatuz. Hurrengo azterketetan osatu beharreko zerbait izanen da, katalogoa etengabe handitzen ari baita autoitzulpenak egin ahala. Nolanahi ere, hemen bildutakoekin nahiko irudi erreala lor dezakegula iruditzen zaigu.

## 4.2.EUSAL KATALOGOAREN DESKRIAPENA

ELI katalogoko (Manterola 2012) autoitzulpenen azpikatalogoari gure bilaketan lorturiko datuak gehituta, Euskaratik Autoitzulitako Literatura (EUSAL) deituriko katalogoa sortu dugu. ELI katalogoan 196 titulu autoitzuli zenbatu ditugu, berrargitalpenak baztertuta. Berrargitalpen horietako gehienak Atxagaren lanei dagozkie, eta horiek izan ziren, hain zuzen, Elizabete Manterolak aztertu zituenak. Argitalpen bat baino gehiago izan dute ere Mariasun Landaren eta Juan Kruz Igerabideren lan gehienek; biek ala biek haur eta gazteentzako literatura idazten eta itzultzen dute. Gainontzean, oso urriak dira berrargitarapenak, eta oro har haur eta gazteentzako liburuei dagozkie.

Hizkuntzen artean tarte handiagoa dago; «frantsesezkoak oso kasu bakanak dira gaztelaniazkoekin alderatuta» (Manterola 2012: 151). Gaztelaniara itzulitakoei dagokienez, honela azaltzen du Manterolak (ibid.) katalogotik ondorioztaturiko datuak:

Hizkuntza horretara [gaztelaniara] eginiko itzulpenak hiru mota ezberdinetan sailkatu ditugu: batetik, autoitzulpenak; bestetik, autorea ez den itzultzaile batek eginiko itzulpenak, eta, hirugarrenik, autoreak itzultzailearekin elkarlanean eginiko itzulpenak. Datuak aztertuz gero, lehenengo postuan autoitzulpenak kokatzen direla ikusiko dugu, %39,67rekin. Bigarren postuan, oso hurbiletik jarraitzen diote egilea ez den itzultzaile batek eginiko itzulpenek, %38,53rekin. Hirugarren postuan autorearen eta itzultzailearen artean eginiko kolaborazio lanak kokatzen dira, %4,12rekin.

Gaztelaniarako itzulpenen artean, beraz, itzulpen mota erabiliena autoitzulpena litzateke, nahiz eta oso hurbiletik segitzen dioten itzulpen alografoek. Ikerlan honetan, autoitzulpentzat sailkaturiko horiei baizik ez diegu erreparatu, bai gaztelaniazkoek, bai, noski, beste hizkuntzetara egindakoei. Horietako batzuk galdera ikurraz daude markatuta, baina autoitzulpentzat hartu ditu Manterolak; horiek ere aintzat hartu ditugu, eta baztertu egin ditugu, berriz, galdera ikur hutsez agertzen direnak, autoitzulpena izateko aukerari inolako aipamenik egiten ez diotenak.

Halaber, aurretik esan bezala, Patxi Zubizarretak mezu bidez jakinarazi zigun katalogo horretan zeuden hiru itzulpen ez zituela berak egin: zehazki, *Bakarrik eta buztangabe*, *Orroa uraren galerian* eta *Paularen zazpi gauak* izan ziren berak autoitzuli ez zituenak. Orobat jakin dugu Eider Rodriguezen *Haragia* ipuin-liburuaren gaztelaniarako itzulpena Zigor

Garrokekin lankidetzan egin zuela. Beraz, lau horiek ere baztertu ditugu ELI katalogoko autoitzulpenen zerrendatik.

Gainera, orain arte,<sup>86</sup> 133 autoitzulpen gehitu dizkiogu ELI katalogoari. Bi katalogoak gehituta, bada, 325 sorburu-testu eta 331 xede-testu bildu ditugu, edizio eleaniztunak direla eta. Ezin esan dezakegu guzti-guztiak autoitzulpenak direnik, horietako batzuk galdera ikurrarekin jaso baititugu katalogoan; zantzu guztiek hala direla badiote ere, ziur jakiterik ez dugu izan. Nolanahi ere, gutxi gorabeherako kopuru hori hartuko dugu oinarritzat, eta argitalpen urteen, generoaren, autorearen eta beste irizpide batzuen arabera aztertuko ditugu datuok jarraian.

#### 4.2.1. Xede-hizkuntzen araberako azterketa

Egoera soziolinguistikoa dela eta, espero izatekoa zen xede-hizkuntza nagusiak gaztelania, lehenik, eta frantsesa, neurri txikiagoan, izatea; hala berretsi dute katalogoko datuek. Bi hizkuntza horien arteko aldea ELI katalogokoa baino pixka bat txikiagoa den arren, katalogo orokorreko datuek erakusten dute gaztelania dela xede-hizkuntza nagusi autoitzulpenei dagokienez; hori ez da harrizkekoa, euskarazko ekoizpen literarioa handiagoa baita gaztelaniaz ere mintzo den lurraldean, frantsesez mintzo den horretan baino.

EUSAL katalogoan bildutako autoitzulpenen xede-hizkuntzak hauek dira: gaztelania, frantsesa, esperantoa, ingelesa, katalana, txekiera eta alemana. Hala ere, azkeneko laurak edizio eleaniztun batean agertzen zaizkigu soilik: Ainara Maiak itzulitako eta *Maiatz* aldizkarian kaleraturiko poesia. Esperantora, berriz, liburu bakarra dago autoitzulita, Aitor Aranek haurrentzako emana. Ingelesa beste argitalpen batean ere agertzen zaigu, baina ezin dugu ziur esan autorearen itzulpena denik, ez baitu halakorik inon jartzen, eta egindako bilaketek ez digute zalantza argitu. Argitalpen hori *Santa Jenebieba* pastorala da, Marzelin Heguiaphalek moldatu eta 1984an Antzertin kaleraturikoa. Antzezlanaren xibereraz dago, eta, bukaeran, gaztelaniaz eta ingelesez obraren laburpen bana ematen du, baita xiberera-batua hiztegitxo bat ere. Beraz, egiaz, ezin esan dezakegu laburpenok Heguiaphalek berak idatzi dituenik; hala balitz, autoitzulpen mota berezi baten aurrean geundeke, xibererazko obra baten laburpena baita ustezko autoitzulpen hori. Izan daiteke autoreak gaztelaniara autoitzuli izana, eta beste norbaitek ingelesez eman izana. Baliteke, ordea, beste norbaitek egin izana bi itzulpenok. Nolanahi den, xibererazko hitzen batuarako itzulpena egileak berak egindakoa izan daiteke, eta beste ustezko autoitzulpen baten aurrean geundeke orduan. Hori ere aintzat hartzekoa baita, alegia, hizkuntza baten aldaeren arteko autoitzulpenak. Behin baino gehiagotan aurkitu ditugu halakoak, pastoraletan, betiere; bai antzezlan osoa batuaz, bai hitz batzuk hiztegi modura.

Kopuruetera bagatoz, xede-testuen hizkuntzei begiratuta, 331 xede-testu zenbatu ditugu, edizio eleaniztun batzuetan autoreak berak xede-testu bat baino gehiago sortu duenez. Horrela, gaztelaniara kopuru osoaren [331] %86,4 testu autoitzuli dira [286],

<sup>86</sup> Katalogoaren azken eguneratzea 2015eko irailaren 7koa da, eta egun horretara arte bildutako datuak izanen ditugu hizpide eta aztergai. Behin ikerketa bukatuta, katalogoa eguneratzen segituko dugu.

frantsesera %11,8 [39] eta beste hizkuntzetara %1,8 [6]; argi ikusten denez, gaztelania da nagusi autoitzulpenen xede-hizkuntzari dagokionez.

Alta, edizio elebidun edo eleaniztunei erreparatzen badiegu, kopuruak aldatu egiten dira. 325 sorburu-testuetako 64 dira edizio elebidunak, eta eleaniztunak, berriz, 21. Gainerako 240 titulu, beraz, edizio elebakarrean kaleratu dira. Horrek ez du esan nahi, ordea, edizio eleaniztunen itzulpen guztiak autorearenak direnik. Izan ere, aurretik ere esan dugunez, edizio eleaniztunetan autoreak hizkuntza bakar batera egin du autoitzulpena, eta beste hizkuntzetako testuak beste itzultzaile batek emanak dira. Salbuespen pare bat dago: Ainara Maiaren poesia hainbat hizkuntzatarara autoitzulia eta Marzelin Heguiaphalen ustezko autoitzulpena; kasu horietan, xede-hizkuntza bakoitzeko autoitzulpena zenbatu dugu, horrela, 85 beharrean, 92 xede-testu daudelarik. Edizio eleaniztunetako gehienak pastoralak dira, eta, horietan, frantsesera da autoitzulpena. Hizkuntzaren arabera eginez gero, bada, edizio eleaniztun<sup>87</sup> eta elebidunetan kaleraturiko 92 testu autoitzuli horietako %55,4 gaztelaniara egindakoak dira [51], %39,1 frantsesera [36], eta %5,4 beste hizkuntzetara [5]. Beraz, edizio elebidun eta eleaniztunen kasuan, gaztelaniaren eta frantsesaren arteko aldea ez da kopuru orokorrean bezain handia, azpiko grafikoek erakusten duenez. Horrek esan nahi du, proportzioan, edizio elebidun edo eleaniztunetan agertzen diren autoitzulpenak askoz ugariagoak direla frantsesera egiten direnean.



Irudia 1. Autoitzulpenak xede-hizkuntzaren arabera

#### 4.2.2. Azterketa kronologikoa

Sorburu-testuen eta, batez ere, itzulpenen argitalpen urteari begiratuko diogu atal honetan. Lehenengo begiratuan, ikus dezakegu sorburu-testu gehienak azken hiru hamarkadetakoak direla. Gainontzean, 43 sorburu-testu ditugu 1990 baino lehenagokoak, eta 34 titulu dira garai horretako autoitzulpenak.

Aurkituriko lehenengo autoitzulpena<sup>88</sup> 1657koa da, nahiz eta horren faksimile bat gorde den, 1936koa.<sup>89</sup> Arnaut Oihenart mauletar legegizon, historialari eta poetak sinatzen

<sup>87</sup> Eleaniztunen kasuan, autoreak egindako itzulpenaren hizkuntza soilik hartuko dugu kontuan datu hau ematerakoan.

<sup>88</sup> Zehazki, hori da autoitzulpentzat jotzen dugun lehenena. Izan ere, norbaitek pentsa lezake badirela XVI. mendearen bigarren erdialdean autoitzulpentzat har daitezkeen argitalpen gehiago, dela eskuizkribu dela inprimatu, erretrau-biltzea literatura molde lehendabizikoena baitugu. Horietako bat da *Refranes y sentencias* bilduma anonimoa, 1596an Iruñean kaleratua. Julio Urquijok (1911) bilduma jakin horren azterketa konparatiboa egin zuen, kontestualizatuz eta iturriak bilatzen saiatuz; horrela, Garibairen egiletasunaren alde

du *Les Proverbes basques recueillis par le Sr. D'Oihenart, plus les poesies basques du mesme auteur* atsotitz eta poesia bilduma. Zubereraz, nafar lapurteraz eta frantsesez idatzitako obra da; lehenik, hitzaurrea egiten du frantsesez; gero, 537 atsotitz zerrendatzen ditu alfabetikoki euskaraz; hurrengo atalean, euskarazko atsotitzen interpretazio bat ematen du frantsesez, zerrendan, hori ere, baina letra txikiagoan. Honela dio atal horren hasieran: «Ce qui se trouvera en cette interpretation, escrit en lettre Italique, sont des adjoustemens faits au texte Basque, pour une plus ample explication diceluy» (Oihenart 1657 [1936]: 47). Ondoren, eranskin moduko bat dakar (autorearen hitzetan, “Atsotitzen urrhinquina”), beste 168 atsotitzeko zerrendarekin, eta, jarraian, horien frantsesezko itzulpenak, zerrendan, berriz ere. Azkenik, poesiaren atala dator; frantsesezko hitzaurre labur baten ostean, Oihenartek gaztetako garaiak dakartza neurtitzetan. Poesia autobiografikoak dira, eta metrika zehatza eta errima darabil. Horiek ez daude frantsesera itzuliak, baina bukaeran, halako hiztegi moduko bat dakar, «Neurtiz hautaco hiz bakanen adigarria / Explication des mots rares qui se rencontrent parmy ces vers». Autoreak hiztegi horren hasieran dioenez, Ipar Euskal Herriko probintzien artean komunikazio urria dagoenez eta administrazio ezberdinen pean daudenez, batean erabiltzen diren euskarazko hitz batzuk ez dira ezagunak bestean, eta horregatik bildu ditu autoreak poesietan agertzen diren horiek. Frantseserako hiztegi txiki horretan, bada, zer euskalkitakoak diren ere adierazita dago: lapurtera, mendebaldeko lapurtera, baxenafarrera, xiberera, mendebaldeko xiberera eta goi nafarrera. Asmo didaktikoa izan arren, iruditzen zaigu hori ere autoitzulpena dela, atsotitzen interpretazio literarioa, batetik, eta lexikoaren azalpena, bestetik. Horregatik sartu dugu autoitzulpenen katalogoan, fenomenoaren lehen lekukotza delakoan, edo, behintzat, orain arte aurkituriko lehena.

Oihenartenaz aparte, katalogoan bildutako autoitzulpen antzinakoena pastoral bat da, *Maitena: pastorale lyrique en deux parties* izenekoak. Etienne Decreptek idatzi eta 1910. urtean argitaratu zuen Baionan, edizio elebidunean, alegia, euskaraz eta frantsesez.<sup>90</sup> Hasierako oharrengatik,<sup>91</sup> ondoriozta dezakegu itzulpena autorearena dela, nahiz eta ez duen

---

egin zuen, eta gehienbat Hernán Núñez-en bildumatik itzuliak zirela ondorioztatu. Nolanahi ere, *Refranes y sentencias*en edizio kritikoa, Joseba Lakarrak (1996) bertan behera uzten du Urquijoren tesia, aski argudiatua ez delakoan; azterketa linguistikoa xehe baten bitartez, Lakarrak (1996: 75) ondorioztatzen du soilik %10 inguru izan daitekeela Hernán Núñez-en bildumetatik mailegatuak. Egiletasunik ez du obrak, eta ezin jakin pertsona bakarrak egin zuen ala talde-lana izan zen; batek zerrenda osatu eta beste batek egin ote zuen hitzez-hitzeko itzulpen zenbakitua, esaterako. Hori guztia kontuan hartuz, Oihenartena jo dugu lehen autoitzulpentzat, hitzez-hitzeko itzulpen filologikotik aldentzen den eta kutsu literarioa duen lehen bilduma izenpetua delakoan.

<sup>89</sup> Hori da guk sarean kontsultatu duguna, Biblioteca Virtual del Patrimonio Bibliográfico atarian, hemen: <http://bvpb.mcu.es/es/consulta/registro.cmd?id=404606>.

<sup>90</sup> Gaztelaniara itzuli zuen Alfredo Etxabe antzerkigile bilbotarrak, eta euskara-frantsesa elebiduna baino urtebete lehenago kaleratu zen itzulpen hori Bilboko Sociedad Coral izenekoari esker (Morel Borotra 1993: 69). Opera antzeztu zuten Bilbon; pasarte kantatuak euskaraz utzi zituzten, itzuli gabe, eta esateko direnak eman zituzten gaztelaniaz. Honela zioen Etiennek hautu elebidun hari buruz: «Cette solution bilingue fut imposée par l'impossibilité de découvrir un nombre suffisant d'artistes sachant le basque et aussi — il faut l'avouer — par celle d'attirer un public nombreux susceptible de le comprendre» (Decrept 1910b: 151).

<sup>91</sup> Honela dio autoreak frantsesezko antzezlanaren eman aurreko oharrean: «NOTA. — L'obligation où j'ai été de suivre exactement la musique écrite sur la prosodie originale basque qui se différencie beaucoup de la française, ne serait-ce que par l'inexistence de l'e muet et, en conséquence, de toute rime féminine, m'a souvent imposé des vers incorrects ou masculins suivis. Je n'ai pu revenir à la forme classique qu'en fragmentant les vers écrits sur des rythmes anciens possédant jusqu'à 19 syllabes et deux fois césurés» (Decrept 1910a: 66).

esplizituki esaten. Hirugarren autoitzulpen antzinakoena ere autore berarena dugu; beste pastoral bat, *Semetchia* izeneko. Baionan agertu zen hori ere, 1924an, eta, aurrekoan ez bezala, oraingoan berari dio autoitzulpen bat dela, azken orriko peritestueta honela jasoa baita: «Traduit en Avril 1919 par l'auteur».

Lehenengo autoitzultzaile horien artean, beste hauek agertzen zaizkigu 1970eko hamarkada baino lehen: Lauaxeta, Azkue, Lizardi, Aresti eta Bordazarre. Badakigu horietako batzuek zentsurari aurre egiteko erdaratu behar izan zituztela beren lanak. Lehen autoitzulpen horietako gehien-gehienak euskarazko edizio elebidunak dira, izan gaztelaniaz izan frantsesez. Gainera, esan dezakegu ahozko literaturatik hurbil daudela guztiak, ikusi bezala, pastoral, olerki eta atsotitz liburuak baitira, eta, bestela, asmo didaktikotik, Azkueren *Euskaleriaren Yakintza* bilduma, kasurako. Azpiko taulan bildu ditugu 1975. urtera arteko autoitzulpenak.


Urtea	Autore-itzultzailea	Obra
1657 [1936]	Arnaut Oihenart	<i>Les Proverbes basques recueillis par le Sr. D'Oihenart, plus les poesies basques du mesme auteur</i>
1910	Etienne Decrept	<i>Maitena: pastorale lyrique en deux parties</i>
1924	Etienne Decrept	<i>Semetchia: pièce contemporaine avec chants en 1 acte</i>
1931	Esteban Urkiaga "Lauaxeta"	<i>Bide barridak / Nuevos rumbos</i>
1932	Xabier Lizardi	<i>Biotz-Begietan Olerkiak: poesías vascas con traducción castellana</i>
1935	Esteban Urkiaga "Lauaxeta"	<i>Arrats beran / A la caída de la tarde</i>
1935- 1947	Resurrección María de Azkue	<i>Euskaleriaren Yakintza I / Literatura popular del País Vasco I</i>
1935- 1948	Resurrección María de Azkue	<i>Euskaleriaren Yakintza II / Literatura popular del País Vasco II</i>
1935- 1949	Resurrección María de Azkue	<i>Euskaleriaren Yakintza III / Literatura popular del País Vasco III</i>
1935- 1950	Resurrección María de Azkue	<i>Euskaleriaren Yakintza IV / Literatura popular del País Vasco IV</i>
1948	Jorge Riezu (ed.)	<i>Flor de canciones populares vascas</i>
1965	Luis Maria Mujika	<i>Azul e hierro: la estética en las energías de la redención</i>
1969	Gabriel Aresti	<i>Harri eta herri / Piedra y pueblo</i>
1973	Pierre Bordazarre	<i>Zantxo azkarra: pastoral</i>
1973	Pierre Bordazarre	<i>Pette Beretter</i>

**Taula 1. 1975era arteko autoitzulpenak**

Hurrengo urteetan, eta 2000. urtera arte, autoitzulpen kopurua anitz handitzen da, batez ere haur eta gazte literaturan egindakoari esker. Geroz eta handiagoa da eskola euskaldunetarako material beharra, eta literatura liburu horiek ugaritu ahala, gaztelaniara itzultzeko aukera ere handitu zen. Gogoan hartu behar dugu Estatuko argitaletxeen zirkuitua, maiz hizkuntza ofizial batean baino gehiagotan argitaratzeko bidea baita elkarlan hori. Nolanahi den, hamarkada horietako autoitzulpen gehienak haur eta gazte



literaturakoak dira, euskarazko sorkuntza ekoizpen osoaren gisan, nahiz eta beste genero autoitzuliak ere agertzen zaizkigun: saiakera, eleberria, poesia, pastorala eta ipuinak, esaterako. Hurrengo urteetan, 2000tik 2015era bitartean, alegia, oreka handiagoa dago generoen artean, edo, behintzat, haur eta gazte literaturaren nagusitasuna ez da hain nabarmena. Azpiko grafikoa hamarkadaz hamarkada ikus daiteke autoitzulpenen kopurua.



### Irudia 2. Autoitzulpen kopurua hamarkadaz hamarkada

Grafikoak erakusten duenez, 90eko urteetan autoitzulpen kopurua izugarri handitu zen; zehazki, 85 titulu jaso ditugu denbora-tarte horretan, berrargitalpenak aintzat hartu gabe. Joera horri eutsi dio hurrengo urteetan ere: 2000ko hamarkadan 139 titulu zenbatu ditugu, eta 2010ekoan, berriz, 67. Kontuan hartu behar dugu azken puntua bost urteko tarteari dagokiola, eta horregatik dela urriagoa aurrekoa baino. Izan ere, joera ikusita, litekeena da 2000ko urteetako kopurura iristea 2010. hamarkada honetan ere.

Aurretik esan bezala, katalogoan guztira 325 sorburu-titulu bildu baditugu ere, horietako 85 edizio elebidun edo eleaniztunean kaleratu dira; beraz, edizio elebarkar kaleraturiko 240 titulu ditugu. Edizio elebarkar horietako sorburu- eta xede-testuen arteko denbora tarteari erreparatuko diogu jarraian. Horrela ikusiko dugu zenbat denbora igarotzen den, gutxi gorabehera, euskarazkoa atera eta itzulpena egin bitarte. Taula batean bildu ditugu datuok; ezkerreko zutabean sorburu-testuaren eta xede-testuaren arteko urte kopurua agertzen da, eta, eskuinekoan, berriz, zenbat obra dagozkien urte-tarte horiei.

ST eta XT arteko urteak	Titulu kop.
urte berean	80
urte 1	39
2 urte	30
3 urte	22
4 urte	11
5 urte	8
6 urte	2
7 urte	9
8 urte	4
9 urte	2
10 urte	6
12 urte	2
13 urte	2
14 urte	1
15 urte	3
18 urte	1
?? urte	18
<b>guztira</b>	<b>240</b>

**Taula 2. ST eta XT arteko urteak**

Lehenengo begiratuan, argi ikusiko dugu oro har denbora gutxi pasatzen dela euskarazkoa kaleratu eta erdarazkoa atera bitartean. Hain zuzen, autoitzulpen gehienak, guztien %62,1, hain zuzen, euskarazkoa kaleratu eta, asko jota, hurrengo bi urteetan publikatu ziren. Eta gogoan izan behar dugu horiek edizio elebakarrak direla eta kanpoan utzi ditugula edizio elebidun edo eleaniztunetan kaleraturiko 85 obra. Horrek tarte gutxi ematen dio euskarazkoari bere bidea egin dezan, berehala kaleratzen baita erdaraz.

Taula amaieran, 18 obra jarri ditugu galdera ikurrez. Horiek hainbat arrazoigatik sailkatu ditugu horrela; hala nola, izan daiteke euskarazko obra bat baino gehiagotatik ateratako testuz osatuta dagoela erdarazkoa, eta, beraz, hainbat urtetakoak lirateke sorburu-testuak; horien artean, adibidez, Mariasun Landaren *Los secretos de Iholdi*, euskarazko hiru ipuin autoitzuliren bilduma genuke; baita hainbat autoreren poesiak biltzen dituen *Once (poetas) para trescientos (lectores)* antologia ere. Izan daiteke sorburu-testuaren daturik lortu ez izana ere, Karlos Santistebanen *Letras de espuma* haurrentzako liburuaren kasuan gertatu bezala. Esan daiteke, bada, autore gutxik itzultzen dutela bere obra urte askoren ondoren. Ez da harritzekoa, ordea; sorburu-testuaren eta xede-testuaren arteko denbora tarte zabala bada, autoreari idatzi zuen garaira itzultzea zailagoa egingen zaio, demagun, bukatu berri duen lanari heltzea baino. Esate baterako, Bernardo Atxagak 1985ean argitaratu zuen *Bi anai* euskaraz, eta hamar urte geroago berak gaztelaniaraturiko *Dos hermanos*. Liburuaren epilogoan nahiko argi azaltzen du denbora tarte zabalak zer eragin duen bigarren testua sortzerakoan:

Al fin, el momento de recuperar el relato llegó. Bastaron un par de consejos y la invitación a publicarlo para que me pusiera a escribirlo de nuevo, afrontando así, una vez más, la realidad del escritor bilingüe: una clase de escritor que —con cierta ingenuidad al principio, con algo de amargura después— suele querer escribir lo

mismo dos veces. Pero lograr dicha ingenuidad es imposible, sobre todo cuando entre esas dos veces han pasado once años y la lengua de la segunda vez no se parece mucho a la de la primera: imposible volver a ser lo que fuimos antes, imposible escribir como entonces, imposible encontrar la palabra exacta sin traicionar el original (Atxaga 1995: 155).

Argi dago, beraz, jatorrizko testu hari eusteko zailtasunak<sup>92</sup> handiagoak direla bien artean denbora tarte handia igarotzen denean, autore baten idazkerak ere bilakaera bat izan baitu. Interesgarria izanen da, bada, corpora osatzerakoan, sorburu-testuen eta xede-testuen arteko denbora tarteari erreparatzea, eta, ahal dela, horretan ere aniztasuna bilatzea.

#### 4.2.3. Autoitzultzaile bakoitzaren lan kopurua

Autoreei eta, beraz, autoitzultzaileei euri begiratuko diegu orain. 325 sorburu-testu ditugun arren, 125 autoitzultzaile zenbatu ditugu katalogoan. Beraz, bistan denez, autore batzuek beren obra bat baino gehiago itzuli dute. Hauek dira titulu gehien autoitzuli dituzten hamar idazleak:

Autorea	Titulu kop.
Piedad Ateka	33
Juan Kruz Igerabide	26
Mariasun Landa	20
Bernardo Atxaga	17
Aitor Arana	10
Harkaitz Cano	9
Miren Agur Meabe	8
Patxi Zubizarreta	8
Itxaro Borda	6
Unai Elorriaga	6

**Taula 3. Gehien autoitzuli duten autoreak**

Autore horietako gehienek haur eta gazte literatura idazten dute. Esaterako, Atekaren 33 titulu autoitzuli horiek HGL dira; Igerabideren 26 liburu autoitzulietatik, berriz, 23 dira haurrentzako liburuak, eta Landaren liburu autoitzuli guztiak dagozkie HGLri. Atxagaren liburuetatik, berriz, 9 dira HGL, eta Aranaren titulu autoitzulien kasuan, 10etik 8. Meabek ere helduentzako autoitzulpen bakarra du, hain zuzen guk corpusean aztergai izanen duguna; gainerako autoitzulpenak haurrentzako liburuak dira. Antzeko zerbait gertatzen da Zubizarretaren liburuekin, taulan bildu ditugun 8ak baitagozkio HGLri. Ez da berdin gertatzen, ordea, Canoren, Elorriagaren eta Bordaren liburuekin. Hiru horien liburu autoitzuli gehienak edo denak, Bordaren kasuan, helduentzako literatura lanak dira. Nolanahi den, argi ikus daiteke HGLren nagusitasuna autore horien autoitzulpenetan, eta hori bat dator, noski, titulu autoitzulien datu orokorrekin, generoen araberrako azterketa egitean ikusiko dugunez.

<sup>92</sup> Atxagaren kasuan, zailtasun mikrotestualez mintzo gara, zeren urte horretan autoitzultzea bera erraza izan baitzen. Hots, segur aski, Espainiako Sari Nazionalaren ondorio da itzulpen hori, eta horren ondorioz jasoko zuen gaztelaniaz liburu hori ateratzeko eskaria. Beraz, bere kasuan, denbora tarteak autoitzulpen praktika testuala zailduko badu ere, autoitzulpena sortzea erraztu zuela esan daiteke.

Kopuru handi horiek gorabehera, gehiago dira beren obra bakar bat autoitzuli duten idazleak obra bat baino gehiago autoitzuli dutenak baino. Zehazki, 80 idazle ditugu obra autoitzuli bakarrarekin, hau da, guztien %64. Horietaz eta taulan ageri direnez gainera, honela banatzen dira beste kopuruak: 15 autore dira bi obra autoitzuli dituztenak; 11, berriz, 3 obra autoitzuli dituztenak; 6 dira beren 4 obraren itzulpena egin dutenak; eta, bukatzeko, 2 baino ez dira 5 obra autoitzulitakoak.

Datu horiek adierazten dute idazle gehienentzat zerbait ezohikoa dela autoitzulpena, nahiz eta autoitzultzaile kopurua handia, eta, beraz, jardun zabaldua izan. Gerta daiteke, noski, obra bakar bat autoitzuli duten autoreek beste libururik idatzi ez izana ere; alegia, autoitzulitako liburu horixe izatea euskaraz idatzi duten bakarra. Hala ere, azterketa honetan ez gara hori aztertzeraz sartuko, eta aukera modura baizik ez dugu aipatuko.

#### 4.2.4. Generoaren arabeko azterketa

Lehenago ere hainbat aldiz aipatu dugunez, haur eta gazteentzako liburuen autoitzulpena nagusi da beste generoekin konparatuta. Aldea nabarmena da, gainera. Sorburu-testu guztietatik, alegia, 325 titulutatik, 146 dagozkie HGLri; ia erdia, beraz. Esperantorako itzulpena salbu, guzti-guztiak dira gaztelaniarako autoitzulpenak; ondorioz, ez dugu aurkitu frantsesera autoitzulitako HGLko libururik. Datu esanguratsua iruditzen zaigu hori, izan ere, horrek esan nahi du gaztelaniara autoitzulitako liburu guztien erdia baino gehiago direla HGL. Gehien-gehienak edizio elebakarrean argitaratu dira, gaztelania hutsean, esan nahi baita, eta 146 horietako 4 baizik ez dira euskara-gaztelania edizio elebidunak izan. Aurreko sailkapenean ikusi bezala, titulu gehien autoitzuli duten idazleen obra gehienak genero honi dagozkio, eta, beraz, sistematikotasun bat ikus dezakegu HGLren gaztelaniarako autoitzulpenean. Nagusitasun horretarako bada arrazoi argi bat: euskarazko eta gaztelaniazko sistemen eta merkatuen arteko elkarlana. Hau da, euskaraz lehenik eta gaztelaniaz gero kaleratu diren argitaletxeetako batzuk (besteak beste, Gero-Mensajero, Giltza-Edebé, Alfaguara-Zubia) espainiar estatuko argitaletxeen euskal adar edo ordezkariak dira; horrela, hizkuntza gutxitu batean argitaratzean, aukera handia dago argitaletxe berak lan hori hizkuntza nagusian ere eskatzeko. Tratu hori beste ikertzaile batzuek ere izan dute hizpide, hala nola, Lopez Gasenik (2000) eta Zubillagak (2013). HGLren nagusitasunerako beste arrazoiren bat ere bururatzen ahal zaigu: haurrentzako liburuak laburragoak izatea eta, genero gutxietsia izanik, lan horri heltzeko idazleek erreparatu gutxiago izatea.

Kopuru aldetik hurrengo genero ugariena eleberriarena da. Jauzi handia dago aurrekoaren aldean, baina hala ere 45 eleberri autoitzuli zenbatu ditugu. Horietako gehienak gaztelaniara itzulitakoak dira; bi eleberri baino ez ditugu jaso frantsesera autoitzuliak, Itxaro Bordaren *100 % basque* eta Aurelia Arkotxaren *Septentrio*. Edizio elebakarrak dira bi horiek. Gaztelaniazkoen artean ere, edizio elebakarrak dira nagusi, eta lau titulu baizik ez dira edizio elebidunean atera; laurak, ordea, Centro Atenea de Lingüística Aplicada etxeak kaleratu ditu, eta, beraz, esan daiteke helburu didaktikoa dutela.


Hirugarren genero autoitzuliena poesia da, idazleak itzulitako 39 poesia-sorta argitaratu direnez. Hala ere, zehaztu behar dugu ez direla 39 liburu, horietako batzuk *Maiatz*

aldizkarian kaleraturiko poesiak baitira. Horregatik diogu poesia-sorta. Aurrekoekin gertatu ez bezala, poesiaren kasuan autoitzulpen gehienak edizio elebidunean kaleratu dira, bai gurean argitaraturikoak, bai Euskal Herritik kanpoko argitaletxeek kaleraturikoak. Zehazki, zortzi baizik ez dira edizio elebarkarrean argitaratu, zortziak gaztelaniara egindakoak. Hori ez da gurean bakarrik gertatzen; esaterako, Krausek (2005) ondorioztatu du batez ere poesia liburuetan gertatzen dela edizio elebidunen ugaritasuna, Eskoziako gaelikoaren kasuan.

Gure katalogoaren arabera, hurrengo genero autoitzuliena saiakera da, 28 titulurekin, eta oso hurbiletik segitzen dio ipuingintzak, 26rekin. Saiakeraren kasuan, bost dira frantsesera autoitzulitakoak, eta gainerakoak, berriz, gaztelaniara. Edizio elebidunak ere badira, hain zuzen, frantseseko bostak eta gaztelaniazko zazpi. Hala ere, aipatu behar dugu zazpi horietako lau Azkueren herri-literaturari buruzko bildumari dagozkiola, eta bi, berriz, Etxepare institutuak argitaratuak direla. Narrazioa edo narratiba generoaren barruan sartu ditugu hala ipuin-bildumak nola narrazioak. Guztiak (26ak, alegia) dira gaztelaniara egindako autoitzulpenak, eta horietako sei edizio elebidun edo eleaniztunean kaleratu zituzten. Ipuin-liburuekin maiz gertatzen denez, batzuek hainbat liburutan euskaraz kaleraturiko hautaketa bat egin dute gaztelaniazkoa osatzeko; esaterako, Karmele Jaioren *Heridas crónicas* (Tarttalo, 2010). Beste zenbait, berriz, euskarazko liburu berekoak izanik ere, ez dituzte kontakizun guztiak eman erdarazkoan, Harkaitz Canoren *Circo de invierno* (Pamiela - Diario de Noticias, 2013) kasurako.

Gainerako generoen autoitzulpen kopurua urriagoa da. Narrazio beste antzezlan ditugu, 26, baina bitan banatu dugu kopuru hori: batetik, pastoralak, eta, bestetik, beste antzezlan guztiak. Izan ere, pastorek genero beregain bat osatzen dutelakoan gaude, bai, behintzat, gure aztergaiari dagokionez. 21 pastoral jaso ditugu katalogoan, eta guzti-guztiak edizio elebidun edo eleaniztunean argitaratu dira. Alta, pentsa zitekeenaren kontra, ez dira guztiak frantseserako autoitzulpen; bada bat gaztelaniarako eta ingeleserako testu itzuliek. Nolanahi den, frantseserako autoitzulpenak dira nagusi, nahiz eta liburuki berean gaztelaniarako itzulpen alografoa ere agertu maiz. Horrek adierazten du emanaldietako publikoan badirela gaztelania hiztunak, edo argitalpenak helburu nazionala duela, Euskal Herriko hiru hizkuntza ofizialetan emanez gero. Horrek erakusten du euskal literatura sisteman gaztelania faktoretzat onartzen dugula. Beste bost antzezlanak, berriz, gaztelaniara autoitzuliak dira, eta horietako hiru edizio elebidunean argitaratu dituzte, bai etxeko argitaletxeek kaleraturikoak (adibidez, Ixiar Rozasen *Gau bakar bat / Una sola noche*, Hondarribian), bai Euskal Herritik kanpokoetan argitaraturikoak (Unai Elorriagaren *Doministiku egin dute arrainek / Y los peces estornudaron*, Buenos Airesen). Antzerkian bakarrik gaituzten dituzte frantseserako autoitzulpenek gaztelaniarako autoitzulpenak.

Katalogoan jaso ditugun beste generoak, hagitzez urriagoak, hauek dira: komikia (5), biografia (2), abestiak (1), bidaia kronika (1) eta *besteak* deitu duguna (6). Azken horren barruan sailkatu ditugu, besteak beste, argazki liburu bat eta euskarazko pertsona-izenei buruzko liburu-hiztegi iruzkindu bat. Azpiko grafikoan ikus daiteke autoitzulpenen generoen sailkapena.



Irudia 3. Autoitzulpenak generoen arabera

#### 4.2.5. Xede-testuaren argitalpen lekuak

Lehenengo begiratuan, argi ikusten dugu proportzioan autoitzulpen gehienak Euskal Herrian bertan argitaratu direla. Datu esanguratsua iruditzen zaigu; horrela, hipotesi modura, esan dezakegu euskaraz irakurtzen ez duten (bai ez dakitelako, bai hizkuntza nagusian irakurtzeko ohitura dutelako) euskal herritar horiei zuzentzen zaizkiela, oro har, euskaratik autoitzulitako liburuak. Hori litzateke, beraz, itzulpenak asmo duen lehen hartzaile potentziala, eta ez gure mugetatik kanpo bizi dena.

Zehazki, 183 autoitzulpen kaleratu dira Euskal Herrian, kopuru guztiaren erdia baino gehiago. Probintziaz probintzia aztertuz gero, ikusiko dugu Gipuzkoan kaleratu direla gehienak (73 titulu), eta hurrenez hurren ditugu Bizkaia (60), Lapurdi (15), Nafarroa (14), Zuberoa (13) Araba (7) eta Baxenabarre (1). Zuberoan kaleraturiko guztiak pastoralak dira; tokiko ekoizpenak tokiko antzezpena du helburu, bada. Lapurdin kaleraturikoen kasuan, badira pastoralak baina baita Maiatzen kaleraturiko lanak ere, bertan baitu argitaletxeak egoitza. Bizkaian kaleraturiko guztien zatirik handiena (57, zehazki) Bilboko argitaletxeek kaleratu dituzte, izan bertako argitaletxeek, izan bertan euskal adarra duten espainiar argitaletxeek. Eta, nahiz eta kopurutan banatuago, antzeko zerbait gertatzen da Gipuzkoaren kasuan ere, 50 baitira Donostian kaleraturikoak. Hortaz, Euskal Herrian argitaratzen bada ere gehien, kontuan hartu behar da gurean kaleratzen diren HGL aunitz Euskal Herrian egoitza duten argitaletxeek atera dituztela. Beraz, ezin esan daiteke euskal ekoizpen direnik.


Gainontzean, Espainiako estatuan ateratako liburuak ez dira gutxi; 134 zenbatu ditugu. Alde handia dago, ordea, kopurutan: gehienak Madrilgo Erkidegoan kaleratu dira; 60, zehazki. Ez da harritzekoa, argitalpen ekoizpen handiena bertan baitago. Euskaratik

itzulitako liburu guztiak eta ez soilik autoitzulpenak aintzat hartuz, Bartzelona dago Madrilen aurretik argitalpen kopuruari dagokionez (ELI katalogoa). Ez da hala gertatzen autoitzulpenen kasuan, ordea: Katalunian, 53 liburu kaleratu dira; denak Bartzelonan, bat izan ezik. Beraz, autoitzulpenak gehiago dira Madrilen, eta itzulpenak, berriz, Bartzelonan. Estatuko gainerako argitalpen lekuak hauek dira, autoitzulpen kopurua parentesi artean dutela: Leon (6), Valentzia (6), Malaga (2), Pontevedra (2), Zaragoza (2), Almeria (1), Salamanca (1) eta Valladolid (1). Ikusten dugunez, horien ekoizpena aski urria da, eta ezin da, beraz, euskarazko testuen autoitzulpen-politika sistematiko batez hitz egin.

Bestela, autoitzulpenen argitalpen-lekuak ez dira asko. Frantziako estatuan autoreak itzulitako lau liburu baizik ez dira atera, eta, beraz, esan dezakegu edizio elebidunak izanagatik ere, Ipar Euskal Herriko autoreek lurraldeko argitaletxeetan kaleratzen dituztela autoitzulpenak. Horrek adieraz lezake frantses argitaletxeek ez diotela euskarazko ekoizpenari kasu handirik egiten, edo, bestela, eginda ere, autoreek eurek ez dutela zeregin hori bere gain hartzen. Hipotesi modura, eta sakonki aztertu gabe, lehenengoaren alde eginen genuke. Horrela, bada, Ipar Euskal Herriko mugez gaindi Frantzia kaleraturiko lau liburuak hauek dira: Itxaro Bordaren *À n(ous) mêmes étrange(r)s = Gu(baur) arrotz(ak)* (Le Castor Astral, 2013) eta *Ogella line* (La Malle d'Aurore, 2009) edizio elebidunak; Pierre Bordazarreren *Pette Beretter* pastoralara (Imp. Moderne, 1973); eta Arnaut Oihenarten *Les Proverbes basques recueillis par le Sr. D'Oihenart* (leku ezezaguna, 1657); hurrenez hurren, Pantine, Tarbes, Pau eta Parisen argitaratuak.

Gainerakoan, Mexiko DFn kaleratu da Ixiar Rozasen *Negutegia. Invernario* (Itaca, 2010) eta Bruselan argitaratu zen Aurelia Arkotxaren *Septentrion* (Atelier du Héron, 2007), biak ala biak edizio elebarkarreen; Buenos Airesen argitaratu dira, edizio elebidunean, Jorge Riezuren (editore) *Flor de canciones populares vascas* bilduma (Ekin, 1948) eta Unai Elorriagaren *Doministiku egin dute arrainek / Y los peces estornudaron* antzezlan (Letranómada, 2008).

Garrantzitsua iruditu zaigu xede-testuaren argitalpen lekuaren araberako azterketa egitea, hein batean horrek adierazten ahal duelako nori, zer hartzailei zuzentzen zaion autoitzulpena. Izan ere, gero corpusaren azterketan aintzat hartuko dugu autoitzulpena non kaleratu den, hartzailea alda baitaiteke, eta, horrekin, itzulpen-hautuak. Esanguratsua da, bada, itzulpen gehienak Euskal Herrian bertan egin direla ikustea. Azpiko grafikoan ageri dira autoitzulpenen argitalpen leku nagusien banaketa.



Irudia 4. Autoitzulpenak argitalpen lekuaren arabera

#### 4.2.6. Gogoetarako datu bat

Ikusi dugunez, katalogoan bildu ditugun frantseserako autoitzulpen ia guztiak edizio elebidun edo eleaniztunetan kaleratu dira sorburu-testuarekin, hots, euskarazkoarekin batera. Hori ez genuke kezka garrantzatsua joko baldin eta, aurretik, euskarazko testuak bere bidea egin izan balu; alegia, aurretik edizio elebarkar batean atera, eta handik urte batzuetara frantsesera itzuli nahi eta edizio elebidunean argitaratuko balitz. Alta, ez da hori aurkitu duguna, kontrakoa baizik.

Aurelia Arkotxaren *Septentrio* eta Itxaro Bordaren *100 % basque* dira frantsesezko edizio elebarkarrean kaleratu diren autoitzulpen bakarrak; hain zuzen, (katalogoan bildutako) frantsesera autoitzulitako eleberrak ere badira. Gainerakoak pastoralak, poesiasortak edo bestetzat jotako obrak dira. Esanguratsua iruditzen zaigu, gainera, bi obra horiek, euskaraz, Hegoaldeko argitaletxe banatan plazaratu izana; *Septentrio*, Alberdanian, eta *%100 Basque*, Susan. Gainerako liburuen kasuan, guk dakigula, ez da euskarazko testu autonomorik egon, eta aldi berean, liburu berean argitaratu dira sorburu-testua eta xedetestua. Ez hori bakarrik, batzuetan, espazioa ere konpartitzen dute bi hizkuntzek; esaterako, Itxaro Bordak Maiatz argitaletxean atera duen azken liburuak *Ultimes déchéts* frantsesezko izenburua du. Euskaraz sortua eta bi hizkuntzetan emana da; argitalpenaren eskuineko orrialdean euskaraz, eta frantsesezko autoitzulpena ezkerrekoan. Zer esana eman du hautu horrek eta behin baino gehiagotan galdetu diote idazleari horri buruz; esaterako, *Garak* argitaraturiko elkarrizketan, Bordak honela arrazoitzen du edizio elebidunean kaleratzeko erabakia: «Batzuetan behar da, nik behar dut, beste hizkuntzetan mintzo diren eta euskara ulertzen ez duten balizko irakurleengana joan. Askotan gurutzatzen ditut ene bizitza normalean edo idazle bizitzan, batzuetan uste dut orokorki zor diegula elebitasuna» (Eraso 2016). Orobat dio euskara-gaztelania elebitasuna onartzen dugula, euskara-frantsesa ez bezala. Guk, orain arte aztertutakoan, ez dugu pertzepzio diferente horren zantzurik, ezta hala denik adierazten digun azterketa edo erreferenterik ere.

Nolanahi den, frantsesezko irakurleak, edo euskal hiztuna izanagatik ere frantsesez irakurtzeko ohitura duenak, ez du frantsesezko itzulpena noiz atera zain egon beharko, eta beharrik ere ez du izanen euskaraz saiatzeko. Beti jasoko du frantsesezkoa



euskarazkoarekin batera, aldi eta euskarri fisiko berean, autorearen sinadurarekin. Euskarazkoak, bizitzeko, ondoan frantsesezkoa beharko balu bezala. Susmo hori indartu egiten du Hego Euskal Herriko argitaletxeren batean kaleratu izanak katalogoan bildutako euskarazko bi liburu elebakarrak. Horri gehitu behar zaio Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako autore batzuek Bidasoaz bestaldeko argitaletxeetan kaleratzen dituztela obrak, 3. atalean aipatu bezala.

Jakina, Ipar Euskal Herrian euskara hutsean kaleratzen diren liburu kopurua jakin beharko genuke alderaketa egin eta mendekotasuna zenbaterainokoa den ondorioztatzeko. Alta, saiatu arren, ez dugu datu hori lortzerik izan, ez berariaz lurralde jakin horretako ekoizpen daturik. Nolanahi den, esanen genuke ez dela handia izanen, jakin baitakigu horretan jarduten duten argitaletxeak urriak direla. Hipotesi kezkaigarria iruditzen zaigu, beraz, euskararen normalizazio prozesuari laguntzen ez diolako, batez ere, eta, horrekin batera, literatura sistema bera ahultzen eta, tamalez, euskal sistemaren erdigunearen eta Frantziaren mendeko egiten duelako.



**5**



# 5 katalogotik corpusera

Autoitzulpenaren jarduna xeheki aztertu eta prozesuan autoreek darabiltzaten estrategiak deskribatu ahal izateko, aztergaia mugatu behar dugu. Katalogazioak datu eta ikuspegi orokorra marrazteko aukera ematen badigu ere, ez ditu itzulpen-prozesuan harturiko bideak eta emaitza bera adierazten, pistak eman arren. Ikerlan honen helburua da autoitzulpenaz oro har eta, zehazki, euskaratik egiten diren autoitzulpenez gogoeta egitea, jardun eta testuinguru jakin horretan dauden joerak eta ertzak zeintzuk diren ondorioztatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da testuei eurei begiratzea; testu guztiakin hala jokatzeko ezinezkoa denez (ez, behintzat, aurreko atalean aipaturiko kopurua izanda eta doktoretzatesi honen mugen barruan), lagin bat hartuko dugu.

Horrela, aztergaien aukeraketa eta nondik norakoak labur azalduko ditugu atal honetan. Katalogoa generoei, garaiei eta abarri dagokionez hain zabala izanik, irizpide batzuk zehaztu ditugu aztergai izanen ditugun testuak aukeratzeko. Hautaketa arrazoitu ondoren, banan-banan azalduko ditugu, labur, autore eta aztergai bakoitzaren datu orokorrak. Azkenik, corpusa osatzeko urratsen deskribapena egingen dugu; horretako, osatzeko egindako urratsak eta corpusaren ustiaketa azalduko dugu.

## 5.1. AUKERAKETA BAT

Azterketa xehea egiteko, bada, lagin bat aukeratzeko erabaki dugu: hamar sorburu-testu eta horien autoitzulpenak. Horiek guztiak autoreak egindako itzulpenak dira; ez, aurreko atalean aipatu dugunez, ustezko autoitzulpenak edo dudazkoak. Era berean, autoitzulpen guztiak dira sorburu-testua argitaratu eta gero egindakoak, ez aldiberekoak. Hamar eta ez gehiago edo gutxiago aukeratzeko arrazoi pragmatikoa dela esan daiteke: ikerketa honen ahalein barruan dago; alderaketarako aukera ematen du eta, xeheki landu nahi ditugunez, komeni da gehiegi ez izatea.

Ahalik eta errepresentazio anitzena hautatzea izan dugu asmo, gero gurutzaketak egin ahal izateko; betiere jakinda lagin txiki bat baizik ez dugula izanen, eta ondorio orohartzaile edo erabatekorik ezin izanen dugula atera.

Aipatu irizpide horiek azalduko ditugu jarraian. Lehenengo irizpide orokorra hartzaileari dagokio: helduentzako literatura hautatu dugu. Haur literatura kopuruz ugariagoa bada ere, helduentzako literaturara mugatu dugu ikergaia. Ez ditugu biak nahastu nahi izan, hartzaileak nabarmen baldintza ditzakeelakoan itzulpen-hautuak eta, beraz, nekez eman genezakeelako ondorio orokorrik. Ezbairik gabe, haur literaturan aztergai emankorra da autoitzulpena, Lopez Gaseniren lanak (2005) erakutsi bezala. Prestigioari eta estatusari dagokionez, helduen literatura erdigunean dagoela esan dugu, eta mikro mailan hori aztertu nahi izan dugu.

Bigarren irizpidea, berriz, autoreari dagokio: aniztasunaren mesedetan eta oreka egon dadin, autore bakoitzaren lan bakarra hautatu dugu. Gainera, aukeraturiko autore guztiek beren obra bat baino gehiago itzuli dute. Ez da jardun bakartua izan haien ibilbidean, beraz; gerora jarraipena izan duen edo aurrez hasitako bidearen jarraipena izan da. Eider Rodriguezen kasuan, beste autoitzulpenik ez duen arren, bere beste bi liburu itzuli ditu kolaborazioan. Miren Agur Meaberen kasuan, berriz, beste autoitzulpen guztiak haur eta gazte literatura dira, eta aukeraturiko testua da helduentzako lehen liburu autoitzulia. Nolanahi ere, horrek ez du irizpidearen kontra egiten, autoitzulpen jardunean aritua baita HGL itzultzen. Aurreko atalean aipatu dugunez, katalogoan gehiago dira obra bakar bat autoitzuli duten idazleak obra bat baino gehiago autoitzuli dituztenak baino. Bigarren irizpide honekin, bada, anitz mugatu dugu hautagai kopurua, jarduna gehiago landu duten horien lanei baizik ez baitiegu erreparatu.

Hirugarrenik, hurrengo irizpide orokorra testu motari dagokio: prosazko fikziozko testuak baizik ez ditugu hautatu. Gehienak eleberriak dira eta bat ipuin-liburua; idazkera poetikoa du zenbaitetik (Aurelia Arkotxaren *Septentrio*, kasurako), baina guztiak dira narratiba, eta ez dago saiakera edo antzerki testurik. Genero bakar batera mugatzean, generoaren beraren berezitasunek baldintzaturiko itzulpen-hauturik ez dugula aurkituko pentsa dezakegu. Bestalde, 1990etik aurrera itzulitako testuak baizik ez dira aukeratu, helburua autoitzulpen joera garaikideak deskribatzea baita.

Azkenik, irizpide orokor gisara ere, saiatu gara aniztasuna bilatzen autoreen sorterriari dagokionez, ahal izan dugun neurrian. Izan ere, aurrez esan dugunez, egoera soziolinguistikoa askotarikoa da gurean, eta horrek, nolabait, itzulpen-hautuak baldintza ditzake. Testuen azterketan gurutzaketak egiten ditugunean horri begiratuko diogu, sorterria baldintzatzaile ote den ikusteko.

Aurrekoari oso lotuta dago argitaratze lekuaren hautaketa. Saiatu gara bai Euskal Herriko argitaletxeetan bai kanpokoetan plazaraturiko autoitzulpenak hautatzen; izan ere, leku geografikoaren arabera alda baitaiteke hartzailea, eta horrek autorearen itzulpen-hautuak baldintza ditzake. Sorburu-testuen argitalpen-lekuari dagokionez, berriz, ezin izan dugu oreka bilatu Hego eta Ipar Euskal Herriko argitaletxeen artean; izan ere, aurretik ere esan bezala, narratiba libururik ez dugu aurkitu Lapurdi, Baxenabarren edo Zuberoan argitaratu eta gero (nonahi dela ere) autoitzuli denik. Beste behin ere, hori azpizistemaren

adierazle dela esan daiteke. Era berean, ahal zen neurrian, saiatu gara guztiak autoreak egiten zuen lehen autoitzulpena ez izaten, erdarazkoetan, ezta plazaraturiko lehen liburua ere, euskarazkoetan. Beraz, batzuetan, autore beraren aztergai posible bat baino gehiago genituenean, aniztasun nahi horrek erabaki du, azkenean.

Azpiko taulan bildu ditugu, bada, idazleak, euskarazko lanak eta erdarazko autoitzulpenak. Jarraian ikusiko dugu aipatu irizpideak betetzen dituzten idazle/obra guztien artetik zergatik aukeratu ditugun hamar hauek.

<b>Autorea</b>	<b>Izenburuak (eus-er)</b>	<b>Argitaletxea</b>	<b>Urtea</b>
Aurelia	<i>Septentrio</i>	Alberdania (Irun)	2001
Arkotxa	<i>Septentrio</i>	Atelier du Heron (Brusela)	2006
Itxaro	<i>%100 Basque</i>	Susa (Zarautz)	2001
Borda	<i>100 % basque</i>	Les éditions du Quai Rouge (Baiona)	2003
Harkaitz	<i>Belarraren aboa</i>	Alberdania (Irun)	2005
Cano	<i>El filo de la hierba</i>	Alberdania (Irun)	2006
		Roca (Bartzelona)	2007
Unai	<i>SPrako tranbia</i>	Elkar (Donostia)	2001
Elorriaga	<i>Un tranvía en SP</i>	Alfaguara (Madril)	2002
Aingeru	<i>Tigre ebizan</i>	Elkar (Donostia)	1996
Epaltza	<i>Cazadores de tigres</i>	Xordica (Zaragoza)	1999
		Pamiela (Iruñea)	2013
Karmele	<i>Amaren eskuak</i>	Elkar (Donostia)	2006
Jaio	<i>Las manos de mi madre</i>	Ttarttalo (Donostia)	2008
Miren	<i>Kristalezko begi bat</i>	Susa (Zarautz)	2013
Agur	<i>Un ojo de cristal</i>	Pamiela (Iruñea)	2014
Meabe			
Eider	<i>Eta handik gutxira gaur</i>	Susa (Zarautz)	2004
Rodriguez	<i>Eta handik gutxira gaur.</i>	Centro de Lingüística	
	<i>Cuatro cicatrices</i>	Aplicada Atenea (Madril)	2006
	<i>Y poco después ahora</i>	Ttarttalo (Donostia)	2007
Ixiar Rozas	<i>Negutegia</i>	Pamiela (Iruñea)	2006
	<i>Negutegia. Invernario</i>	Itaca (Mexico DF)	2010
		Pamiela-Diario de Noticias (Iruñea)	2014
Iban	<i>Euskaldun guztion aberria</i>	Alberdania (Irun)	2008
Zaldua	<i>La patria de todos los vascos</i>	Lengua de trapo (Madril)	2009

**Taula 4. Aztergaiak**

Hamar sorburu-testu horiek, lau kasutan, bina argitalpen dituzte, bat Euskal Herritik kanpo eta beste bat gurean; beraz, hartzaile posiblea aldatu egiten denez, kasu horietan bi itzulpenak kontuan hartzea erabaki dugu. Horrela, guztira, 24 argitalpen bildu ditugu corpusean.

Taulan ikus dezakegunez, obra garaikideak dira guztiak: zaharrena 1996koa da, eta berriena, aldiz, 2013koa. Sorburu-testuaren eta xede-testuaren argitalpenen arteko denbora askotarikoa da; hamazazpi urteko aldea dago gehienez (bigarren xede-testu baten kasuan),

eta urte batekoa gutxienez. Batez besteko urte kopurua, ordea, 3,8koa da; beraz, esan dezakegu katalogo osoari dagokion batez bestekoa (2 urte) baino handiagoa dela. Argitaletxei dagokienez, itzulpena kaleratu den argitaletxeen erdia Euskal Herrian kokatuta dago, eta beste erdia, berriz, hortik kanpo, Espainiako estatuan (5), Mexikon (1) eta Belgikan (1), zehazki. Hipotesi modura, esan dezakegu ez duela proiektzio edo helburu bera izanen erdararako itzulpena Euskal Herriko argitaletxe batean kaleratzen duen euskal idazleak eta Euskal Herriko kanpoko argitaletxe batean kaleratzen duenak; alde hori itzulpenean bertan adierazi daiteke, beharbada. Lehen esan bezala, nahita jo dugu aniztasunaren bila, eta hori irizpide bat izan da liburu bat baino gehiago aukeran genituenen. Cano eta Rozasen kasuetan, argitaletxe berak kaleratu ditu euskarazkoa eta gaztelaniazkoa bat; hori ere aintzat hartzekoa izanen da azterketa xehea egitean.

Autoreei dagokienez, aurretik esan bezala, euskaraz egiten den lurralde guztietako autore bana behintzat hautatu dugu. Zuberoa da salbuespen, ez baitugu euskaraz idatzita eta erdarara autoitzulita dagoen prosazko testurik aurkitu. Baxenabarren sortu zen Aurelia Arkotxa, nahiz Hendaian bizi aspalditik; lapurterra dugu Itxaro Borda; nafarra da Aingeru Epaltza; gipuzkoarrak dira Ixiar Rozas, Harkaitz Cano eta Eider Rodriguez, azken hori Hendaian bizi bada ere; Gipuzkoan sortu arren, arabartua da Iban Zaldua, eta bertakoa da Karmele Jaio; eta, azkenik, bizkaitarrak dira Miren Agur Meabe eta Unai Elorriaga. Idazle gipuzkoarren nagusitasuna sistemaren eta produkzioaren adierazle da. Egoera soziolinguistikoa askotarikoa denez, sorterriaren arabera joeraren bat antzeman ote daitekeen ikusiko dugu, lagin txiki honekin ondorio erabatekoak ateratzea ezinezkoa bada ere. Autoreen arteko adin tartea ere ez da oso desorekatua, helduenaren (Aurelia Arkotxa) eta gazteenaren (Eider Rodriguez) artean 25 urteko alde baitago. Katalogoan jasotakoaren adierazgarri ez bada ere, gure corpusean gehiago dira idazle emakumeak gizonak baino, hautu kontzientea hori.

Itzulpenen bi hizkuntzen obra kopurua ez da orekatua (gaztelaniaz 12 eta frantsesez 2), zeren ez baitugu prosa autoitzuli gehiagorik aurkitu Ipar Euskal Herrian. Beraz, esan dezakegu ekoizpenaren adierazle dela desoreka hori. Horrela, ez dugu izan non aukeratu Ipar Euskal Herriko autoreei dagokienez, esan nahi baita, dauden horiek hartu ditugula aztergai. Alta, irizpide orokortzat jo dezakegu, baita ere, aztergai hartu ditugun obren inpaktua, oro har harrera beroa izan baitute, izan euskarazkoek, izan itzulpenek. Harrera beroarena zaila da neurtzen; berrargitalpenei, kritikari eta prentsako aipamenei begiratu diegu horretarako. Azkenik, sorburu-testuen luze-laburra antzekoa da: 110 orrialde ditu laburrenak (*Tigre ebiñan*) eta 225, berriz, luzeenak (*%100 Basque*). Aniztasuna eta oreka bilatu nahi izan dugu, beraz, eta horren arabera hautuak egin ditugu.

Horiek izan dira, bada, katalogo zabaletik aztergaiak aukeratzeko irizpideak. Jakin badakigu irizpide horietako batzuei edo guztiei hertsiki jarraituta ere, beste titulu batzuk zerrendatu zitezkeela. Saiatu gara ikerketa honetarako adierazgarri gerta daitezkeen irizpideak zehazten eta horien arabera modu arrazoituan aztergaiak aukeratzeko. Liburuak berrirakurri ditugu hautaketa eta azterketarako, irudi osoago bat izateko.



## 5.2. AZTERGAIEN AZALPEN LABURRA

Jarraian, banan-banan aztertuko ditugu autore eta obra bakoitza, datu bibliografiko eta biografiko zenbait emanez, horien testuingurua lagungarri izanen zaigulakoan. Abizenaren arabera aurkeztuko ditugu, ordena alfabetikoan.

### Aurelia Arkotxaren *Septentrio*

Literaturaren Zubitegia sareko gunearen arabera, Aurelia Arkotxa 1953an sortu zen Baigorriin, Nafarroa Beherean. Haurtzarotik Hendaian bizi da, ordea, eta, gaur egun, Bordeleko eta Baionako unibertsitateetan irakasten du.

Pamiela argialetxearekin poesia liburu bat kaleratu zuen lehenik, 1993an. Urte batzuk geroago, 2001ean, *Septentrio* atera zuen, Alberdania etxean, eta, 2009an, kronika bilduma kaleratu zuen Utriusque Vasconiae etxearekin (*Berria* egunkariko artikuluek osatua). Ikus dezakegu, bada, kasu guztietan Hegoaldean egoitza duten argialetxeetan publikatu dituela liburuak. Nolanahi den, olerkiak hainbat argitalpenetan atera ditu, hala Ipar nola Hego Euskal Herrian; besteak beste, *Maiatz*, *Zurgai* eta *Hegats* aldizkarietan. Ikerketa-lanak ere kaleratu ditu.

*Septentrio* da bere liburu autoitzuli lehen eta bakarra. Hala ere, baditu beste autoitzulpen argitaratu batzuk; esaterako, *Maiatz* 36 aldizkarian (2002), “Ternua” izeneko poema, eta, bestalde, lan akademiko zenbait. 2006. urtean kaleratu zuen Bruselako Atelier du Héron etxeak frantsesezko autoitzulpena, edo, autorearen hitzetan, «berridatzia eta bermoldakuntza frantsesez» (“Aurelia Arkotxa euskaltzain oso” 2007). Ez da liburu osoaren autoitzulpena, zati batena soilik; era berean, aipatu “Ternua” poema *Septentrio* frantsesezkoan agertzen da, euskarazkoan ez badator ere. Euskarazkoaren argialetxe berean kaleratu zen gaztelaniazko *Septentrio* (Alberdania, 2006), Arantzazu Fernandezek eta Elisabete Tolaretxipik itzulia. Kritikari erreparatzen badiogu, euskarazkoak harrera ona izan zuen, eta zazpi iruzkin egin zizkioten liburuari (armiarma atariko kritiken hemeroteka). Gehien-gehienek azpimarratzen dute, liburuaren hitzaurrean bertan Kenneth Whitek dioen bezala, geopoetikaren moldeak baliatzen dituela; hots, geografia eta poesia uztartzen dituela, narratibazko lana izan arren.

### Itxaro Bordaren *%100 Basque*

Baionan sortu zen Itxaro Borda, 1959an, eta Lapurdiko hiriburuan bizi da gaur egun. Postari erretiratua da ofizioz, eta idazle eta itzultzaile oparoa bokazioz.

Poesian, narratiban eta saiakeran ibilia da, eta, orotara, hogeitaz liburutik gora argitaratu ditu, bai Ipar Euskal Herriko argialetxeetan, bai, eta batez ere, Hegoaldekoetan. Berriz ere ikusten dugu, literatura argitalpenerako, Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko mugaren lausoak; betiere Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako autoreak Hegoaldeko argialetxeetan kaleratzeaz ari garelarik, oso urria baita kontrako noranzkoa. Katalogoan bildu dugunez, sei obra ditu autoitzuliak, eta horietako hirugarrena da *%100 basque*; literatura sisteman

periferiatik gunera aldatzeko nahi bizia dakusa Ur Apalategik (2005) Bordaren autoitzulpenerako hautuaren atzean. Horietaz gainera, ordea, egin du beste itzulpenik. *Maiatz* aldizkarian ezin konta ahal poesia euskaratu du, eta liburu formatuan autore hauek ekarri ditu gurera, besteak beste: Maria Merce Marçal, Bertolt Brecht eta Marc Legasse. Frantsesez ere idatzi du poesia. Frantsesera autoitzuli duten idazleen artetik, obra gehien itzuli dituen da Borda. Itzulpenari eta autoitzulpenari gogoeta anitz eskainia da.

Aztergai dugun frantsesezko *100 % basque* 2003an kaleratu zuen Baionako Les editions du Quai Rouge argitaletxean; 2006an itxi zuten. Frantsesezko liburuak, sarreran, «traduit et adapté du basque par l'auteur» dio. 2001ean argitaratu zuen Susak euskarazkoa, eta 2002ko Euskadi literatura saria jaso zuen. Pentsa daiteke sari horrek sustatu zuela frantsesezko argitalpena; izan ere, 2002ko Euskadi Literatura Sarietako ebazpenean, sarituriko lana itzultzeko 3.005 euroko sari osagarri baten berri ematen da:<sup>93</sup> «Saritutako lana beste hizkuntza batean argitaratu ahal izatea bideratuko duen hitzarmena sinatu ostean». Argitaletxe batekin hitzarmena eginez gero, beraz, itzultzaileak, kasu honetan egileak, dirukopuru osagarri hori jasoko luke ordainetan. Azkenik, 2012an gaztelaniazko itzulpena kaleratu zuen Donostiako Meettok etxeak, Bego Montoriok itzulia.

*%100 Basque* liburua euskalduntasunari buruzko hausnarketa parodikoa da. Euskalduntasun hori euskaldunak ez diren irakurleei nola azaltzen zaien ikusiko dugu testuaren azterketa xehean.

### Harkaitz Canoren *Belarraren ahoa*

Lasarte-Orian sortu zen Harkaitz Cano, 1975ean. Zuzenbidean lizentziatua bada ere, idaztea bizibide duen Euskal Herriko autore bakarrenetako bat da.

Lau poesia-liburu kaleratu ditu, beste horrenbeste nobela eta bost ipuin-liburu; saiakerak, komikiak, haur eta gazteentzako liburuak, hitzaurreak eta gidoiak ere idatzi ditu. Horietaz gain, literatura itzulpen lanak egin ditu; besteak beste, Anne Sexton, Hanif Kureishi eta Paul Auster euskaratu ditu. Autoitzulpenei dagokienez, hamar autoitzulpen eta kolaborazio lan bat kontatu dizkiogu, gehienak helduentzako literatura. Esan dezakegu, bada, itzulpengintzan eta, zehazki, autoitzulpengintzan aritua dela. Horren inguruko gogoetak ere egin ditu; esaterako, behin baino gehiagotan alderatu du autoitzulpengintza ebakuntza batekin, eta, autoitzultzailea, ondorioz, zirujauarekin. Hirutan jaso du Euskadi literatura saria: 2005ean, *Belarraren ahoa* narrazioagatik; 2012an, *Twist* eleberriatatik; eta, 2014an, *Orkestra lurtarra* haurrentzako liburuagatik. Bitan irabazi du Espainiako Kritika saria: 2005ean, *Neguko zirkua* eleberriatatik, eta, 2011n, *Twist*engatik. Gaztelaniaz ere idazten du, enkarguzko lanak batez ere; horren adibide da Huacanamo argitaletxe katalanek 2011n kaleraturiko *Compro oro* poesia bilduma laburra.

Alberdania etxeak kaleratu zuen *Belarraren ahoa* 2004an. Nobela laburra edo ipuin luze bat dela esan daiteke; idazkera dotorearekin batera, horixe aipatzen dute liburuari egindako

<sup>93</sup> Sarean aurkitu dugu ebazpena, helbide honetan: [http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-715/eu/contenidos/informacion/euskadisaria/eu\\_1388/literatura41\\_e.html](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-715/eu/contenidos/informacion/euskadisaria/eu_1388/literatura41_e.html)

iruzkin ugariak (hamarretik gora). Handik bi urtera, eta Euskadi saria jaso eta urtebetera, *El filo de la hierba* kaleratu zuen argitaletxe berak egilearen itzulpenean. Hemen ere, Itxaro Bordaren kasuan bezala, kontuan hartu behar dugu obra saritua erdaratzeko Euskadi Sariak duten ordainsari osagarria. 2007an, berriz, Bartzelonako Roca etxeak argitaratu zuen gaztelaniaz, autorearen itzulpenean, hori ere. Pentsatzekoa da bertsiio bera erabiliko zutela bi argitaletxeek, baina interesgarria izanen da ikustea bien artean alderik ba ote den; argitaletxeen geografia aldatzen den bezala, hartzailea beste bat izan baitaiteke. Beste hizkuntza hauetara ere itzuli dute: grekoz, *Στην κόψη του χορταριού* (Konidaris, 2009. Itzultzailearen berririk ez); ingelesez, *Blade of light* (University of Nevada, 2010. Itz. Amaia Gabantxo); eta italieraz, *Filo d'erba* (Chambra D'oc, 2012. Itz. Maria Teresa Atorino eta Roberta Gozzi).

### Unai Elorriagaren *SPrako tranbia*

Bilbon sortu zen Unai Elorriaga, 1973an, eta aspalditik bizi da Algortan. Filologia ikasi zuen eta testuak sortzen, itzultzen eta zuzentzen jardun du hainbat urtetan.

Bost eleberri idatzi ditu, antzerki-lan eta saiakera bana eta haurrentzako hiru liburu. Itzulpenak ere egin ditu; sei autoitzulpen zenbatu dizkiogu, eta horietako batzuek edizio bat baino gehiago izan dituzte. Nolanahi den, itzulpen guztiak Euskal Herritik kanpoko argitaletxeek kaleratu dituzte. Autoitzulpenez gainera, beste autoreen literatura lanak ere euskaratu ditu, hala nola, Marila Aleixandre galegoaren haurrentzako liburu bat eta Adam Bodor hungariarraren narrazio bat.

*SPrako tranbia* izan zen bere lehen eleberria, eta Espainiako Narratiba Sari Nazionala jaso zuen 2002an. Bigarren euskal autorea izan zen sari hori lortzen, Bernardo Atxagaren ondoren. Sariaren ondorioz, itzulpena euskarazkoa baino urtebete geroago argitaratu zuen Madrileko Alfaguara etxeak, eta horren ondoren beste hiru argitalpen izan dira: Círculo de Lectores-ek, 2003an; Suma de Letras-ek, 2004an; eta Punto de Lectura-k, azkenik, poltsiko edizioan, 2008an. Berrargitalpen horiek guztiek argi uzten dute gaztelaniazkoaren arrakasta eta Espainiako argitaletxeen interes ezohikoa; hala ere, euskarazkoak ere arrakasta handia izan zuen, eta oraindik ere badu, besteak beste, ikastetxeetako irakurgaien zirkuituan sartuta dagoelako (Alonso Amezua 2012: 203). Aitzol Aramaiok eleberria zinemara eraman zuen 2008an, *Un poco de chocolate* izenarekin. Bestalde, hamaika hizkuntzatara itzuli dute: galegoz, *Un tranvia cara a SP* (Galaxia, 2003. Itz. Ramón Loureiro); katalanez, *Un trambia a SP* (Proa, 2003. Itz. Pau Joan Hernández); estonieraz, *Tramm Sisa Pangmale* (Loomingu Raamatukogu, 2005. Itz. Triin Lõbus); serbieraz, *Tramvaj za S.P.* (Samizdat B-92, 2005. Itz. Nada Djermanovic); alemanez, *Der Traum vom Himmel über Nepal* (Piper, 2006. Itz. Karl A. Klewer); eta, italieraz, *Un tram a S.P.* (Gran Vía, 2007. Itz. Lara Cuti).

Behin baino gehiagotan egin du Unai Elorriagak autoitzulpenaren aldarri esplizitua, itzulpen alografoaren kaltetan, betiere: «No dejaría a nadie que me hiciese la traducción al castellano, porque sé lo que es traducir: yo quiero mucho a mis libros» (Martínez-Lage 2003).

## Aingeru Epaltzaren *Tigre ehizan*

Iruñean sortu zen Aingeru Epaltza, 1960an. Kazetaritza ikasketak egin zituen, eta horretan jardun zuen zenbait denboran. Egun, itzultzaile dabil Nafarroako Gobernuan.

Saiakera, narrazioa eta nobelak idatzi ditu helduentzat, baita haur eta gazteentzako zenbait liburu ere; hiru argitaletxetan kaleratu ditu guztiak: Elkar, Alberdania eta Pamiela. Nobelen artean, aipagarria da Epaltzaren *Erresuma eta fedea* izeneko trilogia mardula; Nafarroako Erresumaren konkistaren ondoko urteetan kokaturiko fikziozko saga da. *Ur uberrak* (Pamiela, 1991) nobelaren idazkerari kutsu “lokalista” eta “nafarkeria” egotzi zizkioten (*Nafarkaria*, 1993/10/08); euskara batuaren eta euskalkien arteko eztabaidari lotuak dira kritika horiek.<sup>94</sup> Hala ere, kontuan hartzekoa izanen da, apika, azterketa xehea egitean. Itzulpenei dagokienez, haur eta gazteentzako liburu bat euskaratu zuen Ikastolen elkarterako, baina horretaz gainera, egin dituen beste literatura itzulpenak bere bi nobelenak izan dira: *Caçadores de tigres* eta *Rock'n'roll*. Lehena Euskal Herritik kanpoko argitaletxe batean kaleratu zuen lehenik; bigarrena, berriz, Donostian egoitza duen Tarttalon.

Euskadi literatura saria jaso zuen 1997an *Tigre ehizan* lanagatik. Urtebete lehenago kaleratu zuen Elkarrek, eta euskarazko argitalpena baino bi urte geroagokoa da gaztelaniarako autoitzulpena. Armiarma atariaren arabera, euskarazkoak sei iruzkin jaso ditu, gutxi gorabehera autorearen beste liburuek adina. Lehenengo liburu autoitzulia du hori Epaltzak; bigarrena, *Rock'n'roll*, 2003an argitaratu zen gaztelaniaz, euskarazkoa baino hiru urte geroago, alegia. *Caçadores de tigres* Zaragozan egoitza duen Xordica argitaletxeak kaleratu zuen. Etxe horrek ekoizpen gehiena gaztelaniaz badu ere, bilduma batzuk aragoieraz kaleratzen dituzte. Pentsa daiteke, bada, badutela hizkuntza gutxituekiko nolabaiteko ulerkortasuna. Oihartzuna izan zuen gaztelaniazko edizio hark, eta *El País* (1999/12/14) eta *El Mundo* (2000/05/31) egunkarietan ere eman zuten haren berri. 2013an berriz argitaratu zuen *Caçadores de tigres*, orduko hartan Pamiela etxearen eskutik; Epaltzak berak esan bezala (mezu trukea), «bertze gainbegiratu» bat eman zion orduan itzulpenari. Frantsesez atera zen liburua *À la chasse au tigre* (Aubéron, 1999) izenarekin, Elena Touyarou-Phagabururen itzulpenean, baita katalanez ere, Josep Palomerok *Caçadors de tigres* (Tabarca

<sup>94</sup> Aspalditik dator batuaren eta euskalkien erabileraren arteko eztabaida, eta gaur egun ere berpizten da noiz edo noiz. Jon Kortazarrek honela zioen *Diglosia eta euskal literatura* saioan: «Euskalkietako lexikoarekin dugun arazoa ere ez da bat-batean desagertuko. Batua berez ez da sistema aske bat, ezin du bizi euskalkiak ez baditu kontuan hartzen, eta garbiagoa da arazoa lexiko mailan (...) Koldo Izagirrek, adibidez, orain gutxi, batuaren –edo agian gaurko idazleen– sei mila hitzekin ez dagoela literatura handirik egiterik defendatu du, eta zentzu horretan, bizkaieraren lexikoaren alde agertu da noizbait, estiloa aberastu nahian» (Kortazar 2002: 59).

Epaltzari egindako kritika horiek bloke (batua-euskalki) bakoitzari lotutako espazioekin dute zerikusia. Garai batean euskalkien kontrako gurutzada hain izan zen handia, non «il est arrivé à certains bascophones de penser que les dialectes parlés étaient du mauvais basque et que tout le monde devait parler la langue standard quel que soit le contexte» (Jarillot eta Uribarri 2011: 194). Ez da, ordea, Epaltzaren kasua, beti defendatu izan baitu bere hautua ekialdeko nafarrera estandar bat sortzeko saiakera izan zela: «Pentsatzen diat nafarrerak ez duela lekurik izan euskal literaturan, eta hori nik uste diat tragedia izan dela, uste baitut baduela horrek zerikusirik egun Nafarroan euskarak bizi duen egoerarekin, eta horregatik nik nafarreraren alde egiten diat apustu, Euskaltzaindiak gaurdaino araudikatutakotik atera gabe noski. Ortografia, morfologia e.a. batua da noski. Hiztegia, esamoldeak e.a. Nafarroako edozein eremutakoak» («Aingeru Epaltza: ‘Abentura nobela bat egin nahi izan diat’» 1987). Nafarrera bai, baina estandarra, nolana ere.

Llibres, 1998) izenaz emana; ELI katalogoaren arabera (azken kontsulta data: 2017/03/06), katalanezkoa gaztelaniatik egindako zehar-itzulpena da.

### **Karmele Jaioren *Amaren eskuak***

Gasteizen sortu zen Karmele Jaio, 1970ean, eta Gasteizen bizi da. Informazio zientziak ikasi zituen, eta Emakundeko Komunikazio arduraduna da gaur egun.

Hiru ipuin-liburu, bi nobela eta poesia liburu bat plazaratu ditu, guzti-guztiak Elkar etxearekin. Bi eleberririk gaztelaniara autoitzuli zituen, eta ipuin-liburu bat ere kaleratu du gaztelaniaz, *Heridas crónicas* izenburupean; euskarazko bi ipuin-liburutako hautaketa bat egin eta gaztelaniaratzearen emaitza da hori. Hiru autoitzulpen horiek Tarttalo etxeak kaleratu ditu.

*Amaren eskuak* Elkar etxeak eta Beasaingo Udalak ematen duten Igartza sariaren ondorio da. Haren bigarren liburua eta lehenengo eleberria izan zen; 2006an argitaratu zuen, eta, berehala, hainbat sari jaso zituen: Zilarrezko Euskadi saria, Zazpi Kale saria eta Beterriko Liburua saria. Lehenengoz kaleratu zenetik, hainbat edizio izan ditu; 2014ko azaroan, esaterako, 21. edizioa atera zuten. Ez dakigu, ordea, zenbat ale kaleratzen dituzten bakoitzean; nolahi den, liburuaren arrakastaren isla da, tirada txikiak izanik ere, 21 edizio ezohikoa baita. Eleberrian oinarrituta, Mireia Gabilondok izen bereko filma zuzendu zuen 2013an. Lehenago, liburua alemanera eraman zuen Gabriele Schwab itzultzaileak, *Mutters Hände* (Pahl-Rugenstein, 2009) izenburupean; ELI katalogoaren arabera, itzulpen zuzena da. Autoitzulpena 2008an kaleratu zuen Jaiok, *Las manos de mi madre* izenburuarekin. Honela dio gasteiztarrak itzulpen prozesuaz galdetuta: «Estoy reescribiendo la novela en castellano, intentando mejorarla» (Larrauri 2007). Artikulu berean esaten denez, autoreak aldaketa batzuk egin zituen itzultzean, batzuk irakurleek eurek proposaturikoak. “Hobekuntza” horiek zertan datzaten ikustea jakingarria izan daiteke, bada.

### **Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat***

Lekeition sortu zen Miren Agur Meabe, 1962an, eta bertan bizi da. Euskal Filologia ikasi zuen, eta irakaskuntzan aritu bazen ere, gaur egun literatura sorkuntzan (eta itzulpenean) ari da buru-belarri.

Poesiak eta haur eta gazte literaturak hartzen dute bere ekoizpenaren zati nagusia. Horietaz gainera, eleberririk eta narrazioak ere idatzi ditu. NorDaNor atarian hogei itzulpenetik gora egin dituela ageri da, bai bere liburuek bai besteenak zenbatuta; horietako gehienak haur eta gazte literatura dira. Gure katalogoan hamalau autoitzulpen kontatu dizkiogu. Kolaborazio-lan bat ere badu, azken hori *El código de la piel* poesia-liburua (*Azalaren kodearen* itzulpena), eta Kepa Muruarekin batera egin zuen. Hamalau autoitzulpenetatik, berriz, hamahiru haur eta gazte literaturari dagozkio. Helduentzako

autoitzuli duen liburu bakarra<sup>95</sup> argitaraturiko azken nobela da, *Kristalezko begi bat*. Meabek sari ugari jaso ditu; besteak beste, bitan eman diote Espainiako Kritika Saria, poesia-liburuengatik, eta hirutan jaso du Euskarazko Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria.

Harrerari begiratzen badiogu, arrakasta handia izan zuen *Kristalezko begi bat* narrazioak. Susak argitaratu zuen 2013an, eta hurrengo hilabeteetan hamabost iruzkin eta kritikarik gora izan zituen. 111 Akademiaren saria eman zioten urte horretan bertan; akademiako kide diren irakurleek ematen dute bozketa bidez sari hori. 2014an agertu zen gaztelaniaz, *Un ojo de cristal*, Pamiela argitaletxean. Aski obra berria izan arren, egin dizkiote zenbait itzulpen: katalanez, *Un ull de vidre* (Pol·len-Pamiela, 2016. Itz. Jon Elordi eta Laia Noguera); eta, ingelesez, *A Glass Eye* (Parthian Books, 2016. Itz. Amaia Gabantxo). Nobelaren ezaugarri nagusiak lirikotasuna eta autofikziozkoa izatea lirateke.

### Eider Rodriguezen *Eta handik gutxira gaur*

Hendaian bizi da Eider Rodriguez, eta Oretan sortu zen, 1978an. Editore eta gidolari ibili zen, eta egun unibertsitateko irakaslea da.

Lau ipuin-liburu, gutun-truke bat, komiki bat eta saiakera bat argitaratu ditu liburu formatuan, esan nahi baita, aldizkarietako narrazioez aparte. Hiru ipuin-liburu horiek gaztelaniaratu ditu, bi Zigor Garrorekin kolaborazioan eta autoitzulpen bat. Kolaborazioan egindako biak (*Carne* eta *Un montón de gatos*) Madrileko bi argitaletxetan kaleratu ditu, eta lehena, *Y poco después ahora*, Euskal Herrian. Hainbat autoreren gaztelaniazko antologia batean baino gehiagotan jaso dituzte haren ipuinak. Autoitzulpenez gainera, Irene Nemirovskiren *Le Bal* euskaratu zuen, *Dantzaldia* (Txalaparta, 2006); hala ere, ez zen esperientzia gozoa izan: «Uste dut *Dantzaldia* itzuliz ikasi nuela itzultzailearen lana zinez estimatzen. (...) itzultzailearena ez da niretzat eginiko ofizioa» (Arrula-Ruiz 2013a). Horrela, ez du berea ez den beste literatura lanik itzuli.

Aztergai dugun *Eta handik gutxira gaur* argitaraturiko lehen liburua da. Susak kaleratu zuen 2004an, eta, hurrengoek bezala, kritika positiboak jaso zituen. Hamasei ipuin ditu euskarazkoak, eta horietako lau kaleratu zituen gaztelaniaz Madrileko Centro de Lingüística Aplicada Ateneak, *Eta handik gutxira gaur = Cuatro cicatrices* izeneko edizio elebidunean, 2006an. Urtebete geroago, jatorrizkoa bere osotasunean kaleratu zuen Tarttlok, egilearen itzulpenean eta *Y poco después ahora* izenarekin. Autoreari berari galdetuta jakin dugu aldaketak egin zituela gaztelaniazko lehen argitalpenaren eta bigarrenaren artean, lau ipuin horiei dagokienez, esan nahi baita. Beraz, corpusean bi argitalpenak biltzea erabaki dugu, zer mailako aldaketak diren ikusteko; izan ere, bien artean urtebeteko aldea bakarrik egonda, pentsa dezakegu hautu gramatikalez haragoko aldaketak izanen zirela, eta, agian, hartzaileari auresuposaturiko ezagutzarekin zerikusia dutela (bata Madrilan kaleratu baitzen eta bestea Euskal Herrian).

<sup>95</sup> Helduentzako beste autoitzulpen bat ere badu Miren Agur Meabek, *Espuma en las manos* (Trea, 2017) poesia-bilduma, Etxepare institutuaren laguntzaz ateratakoa. Gorago esan bezala, ordea, 2015era arteko autoitzulpenak bildu ditugu katalogoan.

Rodriguezen lehen liburua eta lehen autoitzulpena izan ziren, beraz, aztergai ditugun obrak, nahiz eta gerora jardunarekin segitu duen, kolaborazioan, hori bai. Hurrengo ikerketa baterako, interesgarria litzateke autore honen itzulpen ibilbideari erreparatzea; esaterako, berak bakarrik eta kolaborazioan egindako lanak alderatzea, baita itzulpen alografoa ere.

### Ixiar Rozasen *Negutegia*

Lasarte-Orian sortu zen Ixiar Rozas, 1972an. Arte ederretan doktore da eta arte eszenikoaren munduan dabil lanean; hainbat ikerketa eta sorkuntza lan egin ditu eremu horretan.

Idazletzan, 2000. urtean agertu zen lehen aldiz plazara, *Edo zu edo ni* eleberriarekin (Erein). Gero, narraziogintza, antzerkia, poesia eta haurrentzako literatura landu zituen, eta 2006an kaleratu zuen bigarren eleberria, *Negutegia*. Azkenekoa 2014an argitaratu zuen, *Beltzuria*, Erein etxearekin hori ere; kritikak eta autoreak berak diotenez, azken horri ezin zaio eleberria deitu, genero nahasketa bat baita. Esan daiteke, bada, kultur sortzailea dela Rozas, liburu formatutik harago egiten duena.

Pamiela argitaletxeak kaleratu zuen *Negutegia* 2006an. Bi urte geroago italieraz kaleratu zuen Erromako Le Nubi argitaletxeak, Roberta Gozziren itzulpenean; *Negutegia (Fortunale)* titulua jarri zioten. Gaztelaniarako autoitzulpenak ere euskarazko izenburuari eutsi zion, eta *Negutegia*. *Invernario* izenarekin kaleratu zuen Mexiko DFko Itaca argitaletxeak 2010ean. Ramón Vera editoreak garrantzia eman zion liburuan euskarazko ahotsak gordetzeari, jatorrizko bertsiotik hurbilago egoteko modua delakoan.<sup>96</sup> “Traizioa bikaintzen (itzulpengintzaz-autoitzulpengintzaz)” solasaldian,<sup>97</sup> Rozasek (2017) zioen gaztelaniarako itzulpena egiteko ia ez ziola euskarazko testuari begiratu eta ariketa sortzailea izan zela. 2014an, berriz kaleratu zuten liburua gaztelaniaz, oraingoan Pamielak eta *Diario de Noticias*ek elkarlanean. Harkaitz Cano, Aingeru Epaltza eta Eider Rodriguezen testuekin gertatu bezala, bi argitalpenak aintzat hartzea jakingarria gerta daiteke, espazio geografiko bereko hartzaileak helburu ez dituztenez. Testu lirikoa da *Negutegia*, eta, autorearen ibilbide profesionala aintzat hartuz, begiratzekoa izanen da zenbaterainoko “ariketa sortzailea” izan den eta editore mexikarrak aipaturiko “euskarazko ahotsak” nola ematen diren.

### Iban Zalduaren *Euskaldun guztion aberria*

Donostian sortu zen Iban Zaldua, 1966an, eta Gasteizen bizi da aspalditik. Historialaria da, eta irakasle dabil unibertsitatean.

Saiakera, haur eta gazteentzako literatura eta beste generoren bat landu badu ere, ipuingilea da bereziki Zaldua. Hamabi ipuin-liburu kaleratu ditu, azkena 2014an. Horietatik

<sup>96</sup> Pamielak gaztelaniarako itzulpenaren harira kaleratutako albistean irakur daiteke hori: <http://www.pamiela.com/es/inicio/42-prensa/noticias/219-ixiar-rozasen-lnegutegiargaztelaraz-argitaratute-mexikon>

<sup>97</sup> Koldo Mitxelena Kulturuneak antolatutako “KMko solasak” zikloaren barruan egin zuten, 2017ko maiatzaren 22an. Iñigo Astiz aritu zen gidari lanetan, eta Ixiar Rozas eta Danele Sarriugarte, berriz, hizlari.

hiru, gaztelaniaz. Izan ere, gure ikerketari dagokionez, hori du berezitasunik aipagarriena: euskaraz eta gaztelaniaz idazten du. Zehazki, gaztelaniaz hasi zen idazten eta argitaratzen, eta berehala bihurtu zuen euskara sormen hizkuntza; ez dio utzi, ordea, gaztelaniaz idazteari, nahiz eta ekoizpena, kopurutan, txikiagoa den euskarazkoaren aldean. Horretaz gainera, bere lanak gaztelaniaratzten ditu. Gure katalogoko datuen arabera, hiru autoitzulpen egin ditu, eta hirurak Madrileko Lengua de Trapo etxeak argitaratu. Ez du, ordea, kontrako noranzkoan itzultzen. Autoitzulpengintzari buruzko ipuin bat ere badu *Idazten ari dela idazten duen idazlea* bilduman (Elkar, 2012). Lau aldiz jaso du Euskadi Literatura saria, bai gaztelaniaz idatzitako lan batengatik, bai euskaraz idatzitako hirurengatik. Beraz, esan daiteke idazle elebiduna dela.

*Euskaldun guztion aberria* 2008an kaleratu zuen Alberdaniak, eta urtebete geroago atera zen gaztelaniaz, *La patria de todos los vascos* izenburuarekin. Horren aurretik, beste bi ipuin-libururen autoitzulpenak eginak zituen Zalduak, argitaletxe madrildar berarekin. Bere lehen liburua kenduta, *Veinte cuentos cortitos* (Gipuzkoako Foru Aldundia, 1989), hala gaztelaniaz sorturiko gainerako liburuak nola autoitzulpenak Lengua de Trapo kaleratu ditu. Ikustekoa izanen da, bada, hasieratik gaztelaniaz ibilbide autonomo bat egiten ari den idazlearen autoitzulpenak ezaugarri berezkoak ba ote dituen.

### 5.3. CORPUSAREN DESKRIBAPENA

Atal honetan, hautaturiko hamar testuek eta horien autoitzulpenek osatzen duten corpusaren deskribapena egingen dugu. Lehenik, corpora nola osatu dugun azalduko dugu labur, testuak lortzetik corpus digital paraleloa garatu arteko urratsak zeintzuk izan diren, alegia; bigarrenik, horren ustiaketa nola egin dugun izanen dugu hizpide, eta ikerketaren fase honekin zer hipotesi atera ditugun ere aipatuko dugu atalaren bukaeran.

#### 5.3.1. Corpora sortzea

Laburbilduz, esan daiteke hauek direla corpus digital paralelo eleaniztuna sortzeko egin ditugun lau urratsak: testuak formatu digitalean lortu edo digitalizatu; testu horiek formatu egokira aldatu eta garbitu; testuak TRACEaligner programarekin lerrokatu; eta corpora sortu. Banan-banan azalduko ditugu lau urratsok.

Aurreko atalean aipatu irizpideen arabera aztergai izanen ditugun testuak behin aukeratuta, testu horiek lortzeari lotu gatzazkio. Digitalean lortzea aukera onena dela iritzita, argitaletxeekin jarri gara harremanetan, bai euskarazko testuena bai erdarazkoena. Uste bezala, erantzun gehien euskal argitaletxeen aldetik jaso dugu, baina oro har aski erantzun zabala izan da; esaterako, Mexikoko Itaca eta Bruselako Atelier du Héron argitaletxeek berehala erantzun digute, eta, baldintzarik gabe, testuak bidali. Eskakizun-emailean adierazten genien doktoregai honek helburu akademikoetarako soilik eskatzen zituela testuok, eta, beraz, prest zegoela adierazpen bat izenpetzeko helburu jakin horretarako direla adieraziz. Argitaletxe bakarrak eskatu du, nolana ere, adierazpen izenpetu hori, Ttarrtalo argitaletxe donostiarrak, «idazleekiko nolabaiteko protokoloagatik»



(2015/09/01, mezu bidezko komunikazioa). Esan behar dugu, beraz, oso eskertuta gaudela argialetxe zein autoreei, bidea nabarmen erraztu baitigute.

Aurreikusi bezala, bada, zenbait argialetxek ez dute erantzun; hauek, zehazki: Madrilgo Lengua de Trapo eta Alfaguara, Bartzelonako Roca eta Zaragozako Xordica. Argialetxe horien erantzun ezaren aurrean, hortaz, testuak lortzeko autoreengana jo dugu zuzenean. Horrela, Iban Zalduak esanda, jakin dugu Lengua de Trapo aldaketa-garai batean dagoela, eta nekez erantzunen ziola gure eskakizunei; beraz, Zalduak berak bidali digu erdarazko testua. Unai Elorriagak ere igorri digu berea, esanez berak zuen azken bertsioa zela, eta Alfaguarak oso-oso aldaketa gutxi egin zizkiola. Dirudienez, autoreek eurek azken aurreko bertsioa izan ohi dute, nahiz eta oso aldaketa gutxi egon gerora. Harkaitz Canok, berriz, Roca argialetxekoei behin betiko testua eskatu zien, eta hori guri bidali. Azkenik, Aingeru Epaltzak ordenagailuan zuen bertsioa zeini zegokion ez zekiela-eta, beste bide batetik jo dugu, geroago azalduko dugunez. Madrilgo Centro de Lingüística Aplicada Ateneak PDFa sarean erosteko esteka bidali zigun, baina ez genuen halakorik egin behar izan, zuzenean bidali baitzigun testu hori Eider Rodriguez idazleak.

Esan behar da autoreekin izandako hartu-eman horietan, gehienetan, bestelako informazioa ere eman digutela; itzulpenari buruzkoa, zenbaitetan, eta guztietan gure ikerketarako jakingarri dena. Horrela jakin dugu, besteak beste, Aingeru Epaltzaren *Cazadores de tigres* liburua bi argialetxek kaleratu zutela, ordura arte bakarraren berri baikenuen. Hari esker gehitu dizkiogu bi testuak corpusari. Honela zioen Epaltzak mezuan:

Ordenagailuan dudan testu hau ez da Xordicak 1999an atera zuen bera. Testu hori gutxienez ere bi aldiz ukitu dut. 2010ean argialetxe eusko-argentinar batek eskatu zidan, han liburuaren edizio bat ateratzeko, eta horren kariaz goitik beheiti berrikusi nuen itzulpena. Gero kontua ez dakit zertan bukatu zen, testu zuzendua bidalita ez bainuen haien berri gehiagorik izan. 2013an, berriz, Pamielak liburua berrargitaratzeko interesa agertu zuen eta bertze gainbegiratu bat eman nion. Oraingoan, bederen, *Cazadores de tigres* atera zen, berriz, urte hartan berean. Laburbilduz, 1999an agertu zen testuak euskarazkoa zuen abiapuntua. Haren itzulpena da, libre samarra izanik ere. Hau da, zerbait zuzendu, edertu edo hobetu nahi izan nuelarik, gupidarik gabe egin nuen, testuaren jabe nintzenez. Bai 2010ean bai 2013an egindako aldaketek, berriz, erdal testutik abiatuak dira, testu hori hobetzeko asmoz, eta ez jatorrizkoari fidelago izateko asmoz. Ez dut gogoan zenbat aldaketa izanen ziren. Seguru aski ez anitz, baina denek zerbait urrunduko zuten testua jatorrizkotik. Lehen testu hura, bertzalde, ez dut gordetzen, azkenekoa baizik. Bertzalde, jatorrizko euskarazko testuak ere izan du aldaketarik. Bortz edo sei edizio atera dira eta, oroimenak huts egiten ez badit, 3.erako zuzenketa andana sartu nizkion. Ordenagailuan dudan testua, ordea, ez dakit zeri dagokion, uste baitut aldaketak paper gainean sartu nituela (2015/10/08, mezu bidezko komunikazioa).

Autorearen hitzetatik ondorioztatzen denez, testua bizia da eta batzuetan ez da lehen publikazioarekin bukatzen, baizik eta aldaketak izan ditzake gerora ere; prozesu modura ikus dezakegu, bada. Berridazketa edo orrazketa ez da sekula amaitzen, eta, autoreak hurrengo edizio bat aterako badu, berridazketa hori egiteko aukera handiagoa da bestela baino. Gauza bera esan daiteke autoitzulpenaren kasuan. Horrela, bada, Epaltzak

erdarazkoetan aldaketak egin zituela jakinda, Xordicak argitaratu zuen liburua eskaneatu egin dugu, eta autoreak berak Pamielakoa bidali digu. Euskarazkoan ere edizio batetik bestera aldaketak egin zituela aintzat hartzekoa da, gogoeta mailan ez ezik, aztergai dugun edizioari erreparatzeko.

Era berean, Unai Elorriagak *Un tranvía en SP* bidaltzearekin, honela ohartarazi zigun: «Dena den, zoratu zaitezke itzulpen honetatik ondorioak atera nahi badituzu; erabat bertsio anarkikoa da, mila gauza dauzka aldatuta, metaforak barne. Ahalegindu ziren Deustuko unibertsitatean ikerketa bat egiten<sup>98</sup> eta bertan behera utzi zuten bigarren kapituluaren ez zekitelako nondik jo...» (2015/10/01, mezu bidezko komunikazioa). Eta, hurrengo mezu batean, berriz, «eskarmentuak tenple asko ematen du eta uste dut gero eta hobeto eta naturalago egin ditudala itzulpenak. Kasualitatea, oraintxe bertan ari naiz azken liburuarena egiten, *Iazko bezurrak*, eta askozaz gozoago ateratzen zaidala sentitzen dut» (ibid.). Gogoan hartu behar dugu Elorriagaren euskarazko lehen nobela izan zela *SPrako tranbia*, baita lehen autoitzulpena ere gatzelaniazkoa. Horrela, bada, beren aipuekin, autoreek testuak aztertzean aurki dezakegunari buruzko pistak eman dizkigute. Nolanahi den, esanguratsuak izanik ere, ezin haien hitzekin geratu, gerta bailiteke susmo edo sentsazioek bat ez egitea testu azterketan aterako ditugun ondorioekin.

Bestalde, Itxaro Bordak berak jakinarazi zigunez, Les éditions du Quai Rouge argitaletxe baionarra 2006an itxi zuten; horren arduraduna Mexikon bizi da, eta ez genuen harekin kontaktuan jartzeko modurik izan. Gainera, Bordak frantseseko testua ez zuen inon aurkitzen, hala esan zigun, eta liburua agortua da; azkenean, ate zenbait jo ondoren, Susako Josu Landari esker lortu genuen testu digitalizatua.

Testuen formatuari dagokionez, denetarik jaso genuen. Gehienak PDFn edo Word formatuetan iritsi zitzaizkigun, eta, hala, erraza izan zen horiek .txt formatura pasatzea; Worden berak dokumentua gordetzean aukera hori ematen du eta Adobe Acrobat XI Pro programarekin PDFak .doc formatura pasa daitezke, eta hortik, berriz .txt formatura. Izan ere, beherago ikusiko dugunez, TRACEaligner programan testuak lerrokatzeko, horiek .txt formatuan egon behar dute. Beraz, oro har ez genuen arazo handirik izan formatu kontuekin, nahiz eta gero garbiketa lan handia egin behar izan, PDFtik bihurturiko testuetan, batez ere. Formatu arazo bakarra Elkar etxeak bidalitako *Tigre ebizan* eta *SPrako tranbia* lanek eman ziguten; izan ere, aspaldikoenak izanda, oraindik ere ez ziren Indesign programarekin maketatzen, Quark-ekin baizik. Horrela, azkenean, unibertsitateko CAU zerbitzuko informatikariak egin zuen bi testu horien konbertsioa .txt formatura, fakultateko multimedia teknikarien laguntzaz.

Formatuz aldatzean, baina, arazoak sor daitezke: batzuetan, formatu berriak ez ditu karaktereak behar bezala irakurtzen. Beste batzuetan, bestela interpretatzen ditu edo

<sup>98</sup> Amorrortuk eta lankideek (2006) egindako azterketaz ari da, “Autoitzulpenaren zenbait aspektu Unai Elorriagaren *SP-rako tranbia – Un tranvía en SP* lanean: XML azterketa literarioari aplikatuta” izenekoa. Bertan, autoreek eleberriko lehen eta bigarren atalak aztertu eta autoitzulpenarekin alderatu zituzten informatika-baliabideen bidez, bereziki aspektu linguistikoei erreparatuz. Horrela, 972 aldaketa topatu dituzte bi ataletan, etiketen bidez identifikatuak; kopuru handi horren azterketak adieraziko luke, autoreen esanetan, «erdarazko testuan beste eleberririk bat dagoela, eta ez itzulpena» (Amorrortu et al. 2006: 121). Azken baieztapen horrekin bat egin ez arren, azterlan jakingarria da oso, metodologikoki batez ere.

jatorrizkoan ez dagoen hizki edo zeinu bat gehitzen dio, edo badagoen bat kentzen; halakoetan, zuzendu egin behar dira akats horiek. Testuak .txt formatura pasatu ahala, beraz, garbitu egin ditugu; aukera izan dugunean, worden bertan ahalik eta garbien utzi ditugu, hala irudiak, gehiegizko espazio edo koskak eta zeinuak ezabatuta, nola konbertsioan programak irakurtzen jakin ez duen orban eta abarrak zuzenduta. Batzuetan, testuek garbiketa handia behar zuten, batez ere .doc formatua ez den beste batean ailegatu zaizkigunean; formatuz aldatzean,  $m$  beharrean  $m$  agertu da maiz,  $I$  ordez  $t$  edo  $]$ ,  $\tilde{n}$  beharrean  $\tilde{i}$ , eta  $\tilde{j}$  beharrean  $?$ , besteak beste. Puntua  $o$  hizkitzat ere hartu du, eta puntu batzuk agertu dira ez zeuden tokian. Orobat kendu behar izan ditugu gehiegizko espazio eta lerro saltoak. Wordeko zuzentzaile automatikoa lagungarri izan zaigun arren, eskuz egin beharreko prozesua da, eta, beraz, ez dugu %100 garbitzea lortu; geroko urratsetan (lerrokatzean, kasurako) aurkitu dugu akatsen bat. Nolanahi den, aurrez nahiz gerora egindako aldaketa/garbiketa horiek guztiak guri iritsitako bertsioarekin alderatuta egin ditugu, behar ez zenik ez ezabatzeko eta geuretik deus ez eransteke.

Testu guztiak ahalik eta garbien izandakoan, kode batez izendatu ditugu, corpusean bilaketak egiteko hala eskatzen baitu TRACEaligner programak. Honela sortu ditugu kodeak: autorearen abizenaren lehen hiru hizkiak eta hizkuntzaren lehen bi hizkiak, guztia letra larriz; esaterako, Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* testuak MEA EU izanen du kode, Iban Zalduaren *La patria de todos los vascos*-ek, berriz, ZAL ES, eta Itxaro Bordaren *100 % basquek*, BOR FR. Autoitzulpen bat baino gehiago genituen lau kasuetan, argitalpen-urtearen arabera jarri diegu hizkuntzaren bi hizkien atzean zenbakia. Horrela, Ixiar Rozasen *Negutegia. Invernario* gaztelaniazkoetan, 2010ean kaleraturikoari ROZ ES1 deitu diegu, eta 2014koari, berriz, ROZ ES2. Kode horiek agertuko zaizkigu gero corpusean, bilaketak modu sistematikoan egin eta emaitzak zer testuri dagozkion adierazteko. Azpiko taulan jarri ditugu guztiak.

Autorea	Izenburuak (eus-er)	Kodea	Lekua, urtea
Aurelia Arkotxa	<i>Septentrio</i>	ARK EU	Irun, 2001
	<i>Septentrio</i>	ARK FR	Brusela, 2007
Itxaro Borda	<i>%100 Basque</i>	BOR EU	Zarautz, 2001
	<i>100 % basque</i>	BOR FR	Baiona, 2003
Harkaitz Cano	<i>Belarraren aboa</i>	CAN EU	Irun, 2005
	<i>El filo de la hierba</i>	CAN ES1	Irun, 2006
	<i>El filo de la hierba</i>	CAN ES2	Bartzelona, 2007
Unai Elorriaga	<i>SPrako tranbia</i>	ELO EU	Donostia, 2001
	<i>Un tranvia en SP</i>	ELO ES	Madril, 2002
Aingeru Epaltza	<i>Tigre ebizan</i>	EPA EU	Donostia, 1996
	<i>Cazadores de tigres</i>	EPA ES1	Zaragoza, 1999
	<i>Cazadores de tigres</i>	EPA ES2	Iruñea, 2013
Karmele Jaio	<i>Amaren eskuak</i>	JAI EU	Donostia, 2006
	<i>Las manos de mi madre</i>	JAI ES	Donostia, 2008
Miren Agur Meabe	<i>Kristalezko begi bat</i>	MEA EU	Zarautz, 2013
	<i>Un ojo de cristal</i>	MEA ES	Iruñea, 2014

Eider Rodriguez	<i>Eta handik gutxira gaur</i>	ROD EU	Zarautz, 2004
	<i>Eta handik gutxira gaur=Cuatro cicatrices</i>	ROD ES1	Madril, 2006
	<i>Y poco después ahora</i>	ROD ES2	Donostia, 2007
Ixiar Rozas	<i>Negutegia</i>	ROZ EU	Iruñea, 2006
	<i>Negutegia. invernario</i>	ROZ ES1	Mexico DF, 2010
	<i>Negutegia Invernario</i>	ROZ ES2	Iruñea, 2014
Iban Zaldúa	<i>Euskaldun guztion aberria</i>	ZAL EU	Irun, 2008
	<i>La patria de todos los vascos</i>	ZAL ES	Madril, 2009

**Taula 5. Aztergaiak eta kodeak**


Hurrengo urratsa TRACEaligner programa erabiltzea izan da. Programa hori Leongo unibertsitateko eta Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaileek osatzen duten TRACE ikerketa proiektuen barruan sortu zen; azken urteotan, UPV/EHUK kontrataturiko Iñaki Albisua informatikariak garatu du. Ikerketa honetarako 3.0 bertsioa erabili dugu, orain arteko azkena, eta ezinbestekoa izan da talde horietako ikertzaileon eta informatikariaren arteko lankidetzaren programa hobetzeko eta horri ahalik eta etekin akademikorik handiena ateratzeko. Programa horri esker, bada, testuak beste behin garbitu, etiketatu eta lerrokatu ahal izan ditugu, datu-basea edo corpusa sortu aitzin.

TRACEaligner programaren interfazea ikus daiteke azpiko irudian. Ezkerreko zutabeetan testu mota aukeratu daiteke (goitik behera: ikus-entzunezkoa/antzerkia, narratiba eta poesia); gure aztergaiak eleberriak eta ipuinak direnez, Narratiba aukerarekin egin dugu lan hasieratik. Goiko errenkadan, berriz, programaren aukerak agertzen dira, besteak beste: testuak garbitu, etiketatu, lerrokatu eta corpusean bilaketak egin.



**Irudia 5. TRACEaligner programaren interfazea**

Aurrez eskuz egindako garbiketa modu sistematikoan (nahiz eta mugatua) egiteko, alegia, formatu-erroreak “garbitu” ahal izateko, .txt fitxategiak igo behar dira, eta errenkadako lehen aukerari sakatu. Ondoren, fitxategi garbi horietatik abiatuta, programaren bigarren aukerarekin testuak etiketatu ditugu, hots, paragrafo eta esaldiak etiketatuz (*tag*) markatu ditugu eta testuak metainformazioz bete. Prozesu horrek .xml fitxategiak izanen ditu ondorio. Horiek, beraz, bi atal nagusitan banatzen dira: batetik, metadatuak dituzte, hots, testuaren inguruko informazioa (itzultzailea, generoa, arestian aipatu kodea...); eta, bestetik, testua bera, esaldi eta paragrafotan banatua, etiketa edo *tag* bidez. Azpiko irudia, esaterako, Unai Elorriagaren *SPrako tranbia* liburuaren .xml dokumentu etiketatuari dagokio.



**Irudia 6. ELO liburuaren .xml dokumentu etiketatua**

Etiketatu ondoren, TRACEaligner programaren goiko errenkadako bosgarren botoiari sakatuta, aukera izan dugu fitxategietako datu gordinak kontsultatzeko; horrek testu bakoitzarekin Excel taula bat sortzen du, zeinak datu hauek ematen baitizkigu: testuaren hitz kopuru gordina (*token*), alegia, hitz errepikatuak barne; hitz kopurua (*type*), alegia, errepikapenik gabe; eta hitzen agerpen batez bestekoa. Esaterako, Karmele Jaioren *Amaren eskuak* hartuz gero, datu hauek ditugu:

Hitz kopuru gordina ( <i>token</i> )	28697
Hitz kopurua ( <i>type</i> )	5397
Hitzen agerpen batez bestekoa	5

**Taula 6. Hitz kopuruak, adibide bat**

Jakin badakigu errore-tasa minimo bat kontuan hartu behar dela datu horiek aztertzerakoan. Izan ere, lehen esan bezala, zuzendu gabeko akatsen bat egon baitaiteke testuan; esaterako, Aingeru Epaltzarenean, “airekoekhegazkin” hitz bakartzat kontatu du, espaziorik ez zegoenez bien artean. Halakoek eragina izanen dute kopuru osoan, baina oso eragin txikia izanen delakoan gaude, zeren testu gehienak formatu elektronikokoan jaso ditugu eta garbiketa bikoitza egin diegu guztiei. Prozesua ez da hor amaitzen, zeren lerrokatze prozesua bera hirugarren garbiketa bat bailitzateke; lerrokatu ahala ikusitako akatsak zuzendu ditugu.

Esaldiei buruz gauza bera esan daiteke: mende, urte edo inisial bat puntuaz agertzen den guztietan (“M.” edo “1945.ean”, esaterako), programak bitan mozten du esaldia. Nolanahi den, akats horiek gutxienekoak izanik, emaitza adierazgarria izanen dela uste dugu. Kasurako, ustez esaldietan aldaketa gehien izan duen euskarazko testua hartu eta hasierako esaldi kopuruari eta lerrokatu ondorengo esaldi kopuruari erreparatu nahi izan diegu, aldea handia den ikusi eta errore-tasa esanguratsua den ondorioztatzeko; horrela, bada, Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* lanak hasieran 2496 esaldi ditu, azpiko taulan

jarri dugunez, eta, bukaeran, lerrokatu eta M. agertzen den bakoitzean beste esaldi bat sortzen duela-eta segmentu zenbait batu eta gero, 2381 esaldi zenbatu ditu programak. Hori da, nabarmen, gehien aldatzen den kopurua (aintzat hartu behar dugu xede-testuan ere bestelako zuzenketaxoak egin ahal izan ditugula egitura mailan). Hirugarren garbiketa horrek, lerrokatze prozesuak, eragina du makro datuetan, eta horregatik da garrantzitsua.

Azpian alfabetikoki daude, bada, autore bakoitzaren testuen hitz kopuru gordina eta esaldi kopurua.<sup>99</sup>

	hitzak				esaldiak			
	EU	ES1/FR	ES2	aldea	EU	ES1/FR	ES2	aldea
ARK	19225	5060		-14165	1820	536		-1284
BOR	40077	73390		+33313	3262	4419		+1157
CAN	12786	18448	18553	+5662 /+5767	1498	1549	1573	+51 / +75
ELO	21449	31189		+9740	2698	2892		+194
EPA	18650	29875	29513	+11225 /+10863	1703	1782	1787	+79 / +84
JAI	28697	38214		+9517	3121	2873		-248
MEA	21512	30127		+8615	2496	2485		-11
ROD	25766	11838 <sup>100</sup>	32475	-13928 /+6709	2517	866	2469	-1651 / -48
ROZ	22987	29964	29962	+6977 /+6975	2320	2074	2070	-246 / -250
ZAL	14332	23274		+8942	1471	1592		+121
<b>Oro</b>	225481	291379	311757 <sup>101</sup>	b.b., +10358,75 <sup>102</sup>	22906	21068	22696	b.b., +79,83

**Taula 7. Hitz eta esaldi kopuruak**

Guztira, beraz, 627.363 hitz ditu corpusak. Ondorio orokor gisara, esan dezakegu erdarazko testu autoitzulian (baita bi itzulpen dituztenetan ere) hitz gehiago dagoela euskarazkoan baino; salbuespen dira, noski, Aurelia Arkotxaren frantsesezkoa eta Eider Rodriguezen lehen itzulpena, ez baitira liburu osoaren itzulpen, atal batzuenak baizik. Beraz, zifra huts izanik ere, bada esanguratsua euskarazko liburu osoen autoitzulpen guztiek hitz kopuru gehiago izatea. Arrazoietakoa bat, noski, euskararen izaera eranskaria da, izen-sintagmari dagokionez, postposizioak itsatsiz sortzen baititu sintagma batzuk. Frantsesez nahiz gaztelaniaz, berriz, preposizioak ditugu, programak hitz soltetzat kontatzen dituenak.

Nolanahi den, kopuruei begiratuta, aldea handiegia da postposizio kontua soilik dela pentsatzeko. Esaldi kopuruei dagokienez, askotariko emaitzak ditugu; batzuetan,

<sup>99</sup> Lerrokatu aurreko esaldi kopuruen datuak ematen ditugu; izan ere, ondoren kopuruak zertxobait aldatuta ere, lerrokatzean xede-testua sorburu-testuaren pareko jartzean berdindu egiten baitira bien kopuruak, eta orduan esanguratsua izateari uzten dio.

<sup>100</sup> Itzulpen partziala izateak eragina du, noski, ES1 eta ES2 arteko kopuru orokorren arteko aldean.


<sup>101</sup> Emaitza hori lortzeko, “ES2 hitz” zutabeak hutsik dauden gelaxketan, “ES1 / FR hitz” zutabeak gelaxketako kopuruak erabili ditugu, hau da, bi itzulpen zituztenen kasuan, bigarren horiek gehitu dizkiegu itzulpen bakarreko testuen kopuruei; horrela, lau testu berrituz horiek kopuru orokorra zenbat baldintzatzen duten ikus dezakegu “ES1 / FR hitz” eta “ES2 hitz” zutabeetako kopuru osoari begiratuta. Ariketa bera egin dugu “ES2 esaldi” zutabeak kopuru osoa kalkulatzeko.

<sup>102</sup> Batez bestekoa egiteko, bai hitzenez bai esaldienez, liburu osoen itzulpenak baizik ez ditugu aintzat hartu; kanpoan utzi ditugu, beraz, Arkotxaren itzulpenaren eta Rodriguezen lehen itzulpenaren datuak.

erdarazkoan esaldi gehiago daude (Zaldua, Cano, Borda); beste batzuetan, gutxiago (Rozas, Rodriguez, Jaio); eta besteren batean, oso antzeko (Meabe). Bi autoitzulpen oso dituzten hiru testuen kasuan, xede-testuei erreparatuta, alde txikia dela ikus dezakegu Rozasen itzulpenetan, bai esaldi bai hitz kopuruei dagokienez, eta zertxobait handiagoa Epaltzaren eta Canoren testu itzulietan, bereziki hitz kopuruaz ari bagara. Datu orokorrak dira, kontu handiz hartzekoak, baina joera bat adierazten dute, autoitzulpenean hitz gehiago erabiltzen direla ondoriozta baitezakegu.

Hurrengo urratsa euskarazko eta itzulitako testuak lerrokatzea izan da, hau da, euskarazko esaldi bakoitzaren alboan jarri behar da dagokion erdarazko segmentua, itzulpen-memoriek egiten duten gisan. Esan behar da programak berak, etiketatzean, esaldiak automatikoki mozten dituela puntua, puntu eta koma edo bi puntu dagoen bakoitzean; gero norberari dagokio automatikoki egindako hori berrikusi eta sorburu-testua oinarri hartuta segmentuak parekatzea. Batzuetan, noski, erdarazkoan ez da euskarazkoari dagokion esaldirik egonen, edo baita alderantziz ere, euskarazkoan baliokiderik ez duen esaldi bat (edo gehiago) izanen dugu erdarazkoan. TRACEaligner 3.0 bertsioarekin, nahi beste testu lerroka ditzakegu bata bestearen ondoan, eta, beraz, autoitzulpen bat baino gehiago zuten testuen kasuan, hirurak aldi berean lerrokatzeko aukera izan dugu. Hori aldatu egin da programaren lehen bertsioetik; izan ere, erabili ahala, beharren arabera garatuz joan da programa. Arestian esan bezala, Iñaki Albisua teknikariaren laguntzaz eta, besteak beste, Zubillagak (2013) eta Sanzek (2015) programarekin egindako tesiei esker, hasierako bertsioetik aldaketa handiak egin zaizkio; hutsak zein hobetzekoak identifikatu ahala, hobekuntza gehiago eginen zaizkio.

Testuak lerrokatzeko, hainbat aukera ematen ditu programak: gelaxkak batu, gelaxka zuriak gehitu, gelaxka bat bitan banatu, gelaxka bateko testua editatu eta gelaxka ezabatu. Nahi beste gelaxka batu daitezke, aski da batu nahi diren horiek hautatzearekin; gelaxka zuriak, ordea, banan-banan baizik ezin dira gehitu. Arkotxaren eta Rodriguezen testuak lerrokatzean, bereziki, gelaxka zuriak banan-banan gehitu beharra nekeza izan da, itzulpen partzialak baitira xede-testuak. Lehen esandakoaren haritik, bada, aukera hori programaren hurrengo bertsioetarako molda daitekeen aztertu beharko dugu teknikariarekin, nahi adina gelaxka zuri aldi batean gehitzeko.



**Irudia 7. Testuak lerrokatzeko TRACEaligner programaren aukerak**

Lerrokatzeko aukera horiek guztiak saguaren eskuin botoiari sakatuta agertzen dira. Lerro hauen gainean jarri dugun irudian ikusten dira bi testu lerrokatu; gelaxka baten gainean saguaren eskuin botoiari sakatuta agertzen zaizkigu aukerak.

Behin testuak lerrokatuta ditugunean, .xml bakoitza bere aldetik gordetzeaz gainera, lerrokatze osoa bera .taf formatuan gorde dugu, gero bere horretan kargatu ahal izateko. Alegia, sorburu-testua eta xede-testua(k) lerrokatuta agertuko zaizkigu .taf dokumentu hori kargatzen badugu, testuak banan-banan zabaldu beharrik gabe. Horrela, datu-base moduko bat sortuko dugu, bilaketak egin ahal izateko.

Halaber, lerrokatze prozesu bitartean, aldaketa agerikoenen oharrak hartu ditugu, hurrengo urratsetan baliagarri izanen zitzaizgulakoan. Izan ere, lerrokatze prozesuan bertan izan dezakegu autoreak gehien baliaturiko zenbait itzulpen-estrategien berri, testuak lerrokatzeko erabiltzen ditugun programa-aukerak zeintzuk diren ikusita. Kasurako, xede-testuan behin eta berriz gelaxkak batzeko aukera erabili behar badugu euskarazkoarekin lerrokatzeko, horrek esan nahiko du euskaraz esaldi bakarrean ematen duen hori erdarazkoan esaldi askotan ematen duela, bai esaldia mozten duelako, bai esaldiak gehitzen dituelako. Kontrara, gelaxkak banatzeko aukerari maiz sakatuz gero, euskaraz esaldi askoren bidez ematen duen hori erdarazkoan esaldi bakarrean ematen duen seinale izanen da. Gelaxka zuri asko sartzen baditugu, berriz, pentsa dezakegu pasarteak kendu dituela itzultzean. Lerrokatze prozesuan egindako eragiketek, bereziki eragiketa jakin bat sarritan errepikatzen bada, itzultzaileak baliaturiko estrategien irudi bat eman diezagukete. Hurrengo atalean testu-azterketa egitean ikusi beharko dugu irudi hori zuzena edo okerra ote den.

### 5.3.2. Datu-basea elikatzea eta ustiatzea

Aurreko atalean labur azaldu nahi izan dugun arren, denbora nahikotxo eskaini diogu corpus digital paralelo eleaniztuna sortzeari; aurrelanari batez ere, testuak lortu, garbitu eta prestatzeko hartu baitugu denbora handiena. Alta, hain astuna ere ez da izan, testuak ez



baitziren gehiegi eta bakarra eskaneatu behar izan baitugu. Hurrengo urratsa datu-basea sortzea da, aukeraturiko testuetan bilaketak egin ahal izateko.

Horretarako, TRACEaligner programak berak ematen dizkigun aukerak erabiliko ditugu. Corpusa konfiguratzeko, metadatuak berrikusi ditugu, eta programari esan diogu zein testu den sorburu-testua eta zein xede-testua; horien arteko lotura ere egin dugu. Banan-banan egin dugu hori testu guztiakin, eta, horrela, corpusa prest dugu bilaketak egiteko. Azpiko irudian argiago ikus daiteke metadatuaren funtzioa, eta, ondorioz, horiek zuzen sartzearen garrantzia.



**Irudia 8. Corpusean bilaketak egiteko aukerak**

Irudian ikus ditzakegu programaren bilatzaileak ematen dituen aukerak, kasu honetan, “Euskal” hitza euskarazko testuetan bilatuta. Horrela, bada, bilaketak egile baten testuetan egin daitezke, edo corpusean sarturiko egile-itzultzaile guztien testuetan. Gure kasuan bera da idazlea eta itzultzailea, autoitzulpenaz ari garenez; nolana den, itzulpen alografoez osatu izan bagenu corpusa, itzultzailearen araberrako bilaketa ere egin genezakeen. Gauza bera esan dezakegu izenburu, itzulpen-modu eta generoarekin, horien araberrako bilaketak egin baitaitezke, guk halakorik egin ez badugu ere. Hizkuntzaren araberrako bilaketak egin daitezke, eta hori baliagarria da corpus eleaniztunetan, gurean kasu. Hiru hitz ere bilatu ditugu, horien arteko distantzia zehaztuz; hitz konbinazioak bila ditzakegu horrela. Horretaz gain, “Modo de búsqueda” dioten horretan, hitzak bilatzeko hainbat aukera ematen ditu: “exacto”, “empieza con” eta “contiene”; horrek aukera ematen digu hitz bakoitza bere horretan, horren zati bat edo hasiera bilatzeko. Itzulpenetan ere bilatzeko eta letra larri eta xehearen artean bereizketa egiteko aukera ematen du; azterlan honetan, esaterako, beti bilatu dugu itzulpenetan ere, eta ez dugu bereizketarik egin letra xehe nahiz larriaren artean.

Bilaketen emaitzak kodeaz batera datoz, eta horrek testuen identifikazioan lagunduko digu. Gainera, programak aukera ematen du bilaturiko hitza agertzen den testu-segmentua ez ezik aurreko nahiz hurrengo esaldi bat edo bi erakusteko. Horrela, testuingurua ere ikus dezakegu; batzuetan, esaldi bat gorago edo beherago ematen da itzulpenean edukia sorburu-testuarekin alderatuta, lerrokatzean ikusi dugunez. Testuingurua ematea garrantzitsua izanen da halakoetan, beraz; bestela, iruditzen ahal baitaigu eduki hori ezabatu egin duela itzulpenean, beste esaldi batean eman duenean.

Azpian bilaketaren irudi bat jarri dugu, kontsulta-tresnaren emaitzak hobeki ikusteko.

Code	Text	Code	Text
ZAL ES (937)	Fue excomulgado en dos ocasiones, y tomó parte activa en la Revolución de 1791, como diputado de la Asamblea Constituyente.	ZAL EU: (937)	Bi aldiz izan zen eskumikatua eta 1791ko Iraultzan parte hartu zuen, Asanblada Legegileko diputatu gisa.
ZAL ES (938)	Segun algunos expertos, los trazos de su estilo son reconocibles en la redacción de muchos de los artículos de la primera constitución de la República de Euskal Herria.	ZAL EU: (938)	ikerlari batzuen arabera, bere luma suma daiteke nafarroako Errepublikaren lehen konstituzioaren erredakzioan.
ZAL ES (939)	Recopiló cientos de canciones y cuentos populares, mucho antes de que lo hicieran los hermanos Grimm.	ZAL EU: (939)	kanta eta ipuin herrikoak bildu zituen, Grimm anaiak baino dezentere aurretik.
ZAL ES (1190)	Como rezaba aquella vieja campaña publicitaria: "Ven y cuéntalo".	ZAL EU: (1190)	Etorri eta konta ezazu.
ZAL ES (1191)	Finalmente, a modo de ejemplo, les hago una somera descripción de Pamplona Distrito Federal, nuestra capital, sin olvidarme, claro está, de Hemingway y de las fiestas de San Fermín. Además, como les suele gustar a los norteamericanos, les ofrezco algunos retazos de mi vida cotidiana allí, en esa Euskal Herria independiente y solidaria: les hablo de Arantza, mi mujer; de nuestra casa en el cinturón verde de la capital; de las esperanzas que tenemos depositadas en el futuro de nuestros hijos Maddi y Oier, etcétera.	ZAL EU: (1191)	Gero, adibide gisa, Iruñeko hiriburu metropolitanoa deskribatu diet, Hemingway eta San Fermínekoko jaiek ahaztu gabe, noski, eta, amerikarrei gustatzen zaien bezala, nire bizitzaren zantzu pertsonalak eskaini dizkiet, Euskal Herri aske hartan Arantzak eta biok kompartitzen genuen bizitzaren inguruokak, Iruñean bertan daukagun etxea, Maddi eta Oier gure bi seme-alaben etorkizunerako ditugun esperantzak, eta abar.
ZAL ES (1192)	Mientras cuento todo esto trato por todos los medios de evitar la mirada burlona de Ellen, y casi lo consigo, pero lo que no me espero de ningún modo es la pregunta de la chica que se susele sentar junto a ella, Mary Jane, que de repente levanta la mano y pone sobre la mesa la cuestión del terrorismo vasco.	ZAL EU: (1192)	Hori guztia esaten ari nintzen bitartean saiatu naiz Ellenen irribarre burliatari jaramonik ez egiten, baina gehiago harritu nau haren ondoan eseri ohi den neskak, Mary Janek, euskal terrorismoari buruz egin didan galderak.

### Irudia 9. Bilaketaren emaitzak, adibide bat

Irudian, autore guztien gaztelaniazko testuetan egin dugu bilaketa (horrek esan nahi du Bordaren eta Arkotxaren testurik ez zaigula agertuko): xede-testuetan oinarriturik, alegia. Bilaturiko konbinazioa *Euskal Herri* izan da, aztergai izanen dugun kulturema bat, hain zuzen. Batetik, *Euskal* “exacto” modura markatu dugu, eta *Herri*, berriz, “empieza con” aukerarekin, deklinabideak emaitza ez mugatzeko; bestetik, bien arteko tartea 1 jarri dugu, elkarren segidan agertzen direnak interesatzen baitzaizkigu. Azkenik, goian-behean segmentu bana emateko eskatu diogu tresnari. Sei emaitza eman dizkigu programak, goiko irudian bi agertzen badira ere, adibide modura. Lehen eta hirugarren zutabeetan kodeak agertzeaz gainera, kolorearen arabera bereizten dira segmentuak eta testuak. Bigarren eta laugarren zutabeetan, berriz, testu-zatia dugu, nabarmendurik agertzen delarik bilatu ditugun hitzak.

Hurrengo atalean, bilaketa eta alderaketa bidez aztertuko ditugu testuok. Lehenik, egitura mailan xede-testuetan egindako aldaketa nagusiak azalduko ditugu, eta, ondoren, mikro mailan egindako moldaketak eta erabilitako itzulpen-estrategiak xeheki ikusiko ditugu, atal honetan azalduko bilaketaren bidez. Azterketa horien guztien helburua, betiere, autoitzulpen jardunaren jokamoldeak deskribatu eta joerak ondorioztatzea izanen da.

6



# testu azterketa

---

Ikerketaren azken atal honetan, lehenik, makro mailako datuak aterako ditugu, itzultzean gertatu diren egiturazko aldaketa nabarmenenak aipatzeko; bigarrenik, eta nagusiki, mikro mailako azterketari helduko diogu, eta bi alderdiren analisi xehea egingen dugu: batetik, kultur erreferentzia jakin batzuk aztertuko ditugu, eta, bestetik, heterolinguismoa. Horretarako, corpusean bilaketak egingen ditugu bai euskarazko testuetan bai erdarazkoetan, emaitza osoago bat lortzeko.

## 6.1. MAKRO MAILAKO AZTERKETA

Makro mailaz ari garelarik, corpuseko testuen informazio peritestuala eta egitura aztertu nahi ditugu bereziki, hala nola, atalen izen eta ordena, testu-masa eta hitz edo esaldi kopurua. Sorburu- eta xede-testuen egitura orokorrari begiratuko diegu, beraz, datu orokor batzuk ateratzeko eta azterketa xeheari heldu aitzin. Horrela, lerrotze-prozesuan egin bezala, itzulpen-joerak iragartzen has gaitezke, oraingoz hipotesiak besterik ez badira ere, azken helburua horiek determinatzea izanen baita.

Kreditu-orrietako informazioari dagokienez, lau aukera ikusi ditugu: baga, euskarazkoaren berri eta itzultzailearen berri ematea; biga, euskarazkoaren berri ematea baina ez itzultzailearena; higa, kontrakoa, itzultzailearen berri ematea baina ez sorburu-testuarena; eta, laga, ez bati ez besteari erreferentziarik ez egitea. Oro har, lehenengo eta bigarren aukerari jarraitzen diotenek “Título original:” dute aurretik, nahiz eta badiren bestelako moduak ere. Bere horretan ekarri ditugu azpiko taulara.

	Zer agertu?	Kreditu-orrialdeko informazioa
ARK	Markarik ez	
BOR	Itzultzailea	Traduit et adapté du basque par l'auteur
CAN ES1	ST	TÍTULO ORIGINAL: <i>Belarraren aboa</i>
ES2	ST	Primera edición en lengua euskera por Alberdania, 2004
ELO	ST+itzultzailea	Título original: <i>SPrako tranbia</i> De la traducción del euskera: Unai Elorriaga López de Letona
EPA ES1	ST	Edición original en euskera publicada por ELKARLANEAN, <i>Tigre ebizan</i> , 1996.
ES2	ST+itzultzailea	Traducción: Aingeru Epaltza Edición original: <i>Tigre ebizan</i> (Elkar, 1996) 1ª edición en castellano: <i>Cazadores de tigres</i> (Xordica, 1999)
JAI	ST+itzultzailea	Título original: <i>Amaren eskuak</i> (Elkar 2006) Traducción: Karmele Jaio Eiguren
MEA	ST+itzultzailea	Edición original: <i>Kristalezko begi bat</i> (Susa, 2013) Traducción de la autora
ROD ES1	ST+itzultzailea	Traducción de la autora Relatos extraídos de la edición en euskera <i>Eta handik gutxira gaur</i> . Susa-Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa, 2004
ES2	ST+itzultzailea	Título original: <i>Eta handik gutxira gaur</i> (Susa, 2004) Traducción: Eider Rodríguez
ROZ ES1	ST+itzultzailea	Traducción al castellano: Ixiar Rozas Título original: <i>Negutegia</i> (Pamiela 2006)
ES2	ST+itzultzailea	Edición original: <i>Negutegia</i> (Pamiela, 2006) Primera edición en castellano: <i>Negutegia / Invernario</i> (Editorial Itaca –México–, 2010) Traducción: Ixiar Rozas
ZAL	ST+itzultzailea	Título original: <i>Euskaldun guztion aberria</i> De la traducción del euskera: Iban Zaldúa González

Taula 8. Kreditu orrietako datuak

Ikusten dugunez, gehien-gehienak itzulpen gardenak dira. BOR FRn, taulako aipamena ez da kreditu-orrian agertzen, baizik eta lehen orrialdean, tituluaren azpian, eta, beraz, esan daiteke ikusgarriagoa dela; orobat gertatzen da ROZ ES1 eta ROZ ES2 testuen kasuan, aparteko orrialde batean agertzen baita itzultzailearen aipamena eta ez soilik kreditu-orrian, ikusgarriagoa eginez. Gainerako itzulpen gardenetan, irakurleak berariaz jo beharko luke kredituetara itzulpen baten aurrean dagoela jakiteko. Aipatu behar da horietako batzuetan itzulpenaren diru-iturria zehazten dela; esaterako, Eusko Jaurlaritzaren kultura sailak diruz lagundu ditu CAN ES1, JAI ES, ROD ES1 eta ES2 eta ROZ ES1, eta Etxepareren diru-laguntza jaso du, berriz, MEA ESEk. Gogora ekar dezakegu Lefevereren *patronage* kontzeptua (1992) eta horren osagai ekonomikoa (*economic component*), kasu honetan euskal

instituzioek sustatu baitituzte erdararako itzulpen horiek. Badakigu, azkenik, Elorriagaren itzulpena Espainiako Sari Nazionalaren ondorio dela. Azken hori kenduta, ezin esan diru-laguntzak itzulpena egiteko ote diren, edo behin itzulpena eginda horren sustapenerako ematen diren (bigarren kasu horretan, jasotzeko baldintza izan daiteke diru-emaileari aipua egitea, euskarazko liburugintza sustatzeko Eusko Jaurlaritzak 1997tik 2009ra egindako politiken bidetik).<sup>103</sup>

Liburuen izenburuei erreparatuz gero, corpusean bildu ditugun autoitzultzaileek oro har hitzez-hitzezko itzulpenera jotzen dutela ikusi dugu, nahiz eta badiren aldaketa batzuk, azpiko taulan ikus daitekeenez.

	ST	XT
ARK	Septentrio	Septentrio
BOR	%100 Basque	100 % basque
CAN	Belarraren ahoa	El filo de la hierba (ES1)
		El filo de la hierba (ES2)
ELO	SPrako tranbia	Un tranvía en SP
EPA	Tigre ehizan	Cazadores de tigres (ES1)
		Cazadores de tigres (ES2)
JAI	Amaren eskuak	Las manos de mi madre
MEA	Kristalezko begi bat	Un ojo de cristal
ROD	Eta handik gutxira gaur	Eta handik gutxira gaur. Cuatro cicatrices (ES1)
		Y poco después ahora (ES2)
ROZ	Negutegia	Negutegia. invernario (ES1)
		Negutegia. Invernario (ES2)
ZAL	Euskaldun guztion aberria	La patria de todos los vascos

**Taula 9. Corpuseko liburuen tituluak**

Arkotxaren testuak latinezko hitza darabil bai STn bai XTn. Bordak chunekoaren ikurra lekuz aldatu egiten du, kasuan kasuko hizkuntzaren arauekin bat eginez. Elorriagak zertxobait aldatzen du ikuspegia, euskarazkoak mugimendua, noranzkoa adierazten baitu, eta gaztelaniazkoak, berriz, gelditasuna. Antzeko zerbait gertatzen da Epaltzaren izenburuekin: euskarazkoak ekintza adierazten du, eta gaztelaniazko izenburuak subjektuak dakartza hizpidera, ekintzailtza ezabatzen ez bada ere. Rozasen xede-testuan euskarazko izenburuari eustea bada itzulpena ikusgarri egiteko modu bat, sorburu-hizkuntza adierazteko modua; gainera, bi autoitzulpenetan egiten du, geroago ikusiko dugunez; horrek bat egiten du beste itzulpen-hautuekin, biak ala biak oso-oso antzekoak baitira. Rodriguezen lehen autoitzulpenean ere, Madrilgo Centro de Lingüística Aplicada Atenea etxeak edizio elebidunean eta asmo didaktikoarekin kaleratua denez, elebitan agertzen da izenburua: *Eta handik gutxira gaur. Cuatro cicatrices* (2006). Alta, bigarren itzulpenean euskarazko izenburutik hurbilago dagoen erdarazko izena baizik ez da ematen, eta kredituetan argi geratzen da sorburu-testua zein den eta autoreak itzulitako liburua dela.

<sup>103</sup> Horren arabera, euskaraz publikatutako liburu guztien 300 ale erosten zituen Eusko Jaurlaritzak, eta liburutegi publikoak horiez hornitzen. Trukean, urte tarte horietan argitaratutakoek esaldi hau izanen zuten soinean: «Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du», Amagoia Ibanek (2017) gogorazten duenez.

Azkenik, Zalduaren gaztelaniazkoan galdu egiten da lehen pertsonaren adierazpena, euskarazkoaren forma hori nekez ematen ahal baitzuen posesiborik sartu gabe. Gainerakoek hitzez-hitzezkoa darabilte erdarazko izenburua emateko. Beraz, hainbat teknika ikusi ditugu hamalauko laginean; jarraian ikusiko dugu askotariko hautuak testuan ere azaltzen ote diren.

Atalen edo ipuinen izenburuak aztertuz gero, alde txikiagoak ikusiko ditugu sorburu-testuaren eta xede-testuen artean. Oro har, esan dezakegu liburuen izenburuek aldaketa handirik ez dutela izan, beharbada sorburu-testuarekin lotura gordetzeko. Kasurako, Rozasen eta Meaberen eleberriko atalek eta Rodriguezen ipuinek sorburu-testuko izenei hurbiletik segitzen diete, eta hitzez-hitzezko itzulpenak izaten dira gehienbat. Alderik handiena, apika, Epaltzaren testuan ikus daiteke, non aldatu egiten baititu atalen izenburuak; ametsaren elementua txertatzen du erdarazkoetan, eta horri lotzen zaizkio tigrearenak, azpiko taulan agertzen denez.

EU	ES1/ES2
Tigrea	El sueño
Tigre nabarra	El sueño del tigre
Tigre nabarraren beltza	El sueño del tigre negro
Hondarreko	Despertar

**Taula 10. EPA-ren atalak**

Bestela, aurretik ere esan bezala, Arkotxaren itzulpenak ez du sorburu-testu osoa jasotzen, ezpada horren zati batzuk:

EU	FR
Kenneth Whiteren hitzaurrea euskaraz	“Ternua”
Hitzaurre bera frantsesez	
“Oriens”	
“Marko Poloren ametsak”	
“Sine Nomine”	
“Iohan Mendabillaren bidaia benturosak”	
“Peregrinatio”	“Peregrinatio” (zati bat)
“Mare Magnum Fine”	“Mare Magnum Fine” (osoa)

**Taula 11. ARK-ren atalak**

Arras esanguratsuak dira Arkotxaren testuak. Sorburu-testuan, hitzaurrea nork euskaratu duen ez du jartzen, eta, beraz, pentsa dezakegu autore bera izan dela, ziur ezin esan arren. Frantsesezkoak hitzaurrerik ez du, eta “Ternua” izeneko poemarekin hasten da liburua. “Ternua” hori *Maiatz* 36 aldizkarian (2002) kaleratu zuen lehenengoz euskaraz, frantseserako autoitzulpenarekin; beraz, beste iturri batetik harturiko pasartea gehitu dio erdarazkoari, euskarazkoan ez dagoena, eleberria baino urtebete geroago argitaratua denez. Esan behar dugu bai “Ternua” bera, bai “Mare Magnum Fine” poemak direla, eta erdaraz eman duen “Peregrinatio”ko zatia ere atal osoko lirikoena dela. Ondorioz, erdarazkoa poesia-liburutzat har daiteke (*«recueil poétique»* izendatu du Billé-k 2007), euskarazkoa



narraziotzat hartzen bada ere (Alberdania argialetxeak halakotzat aurkezten du). Horrek erakusten du, beraz, obra baten autoitzulpenaren nolakotasunak, egitura mailan izanik ere, obraren aurkezpena (genero izendapena), eta, ondorioz, harrera bera baldintza ditzakeela.

Testuen egiturarekin jarraituz, aurreko atalean sorburu- eta xede-testuen hitz eta esaldi kopuruekin taula bat egin dugu. Hitz-kopurua, hein batean, egiturari lotuta dago, zeren, aipatu dugunez, euskararen izaera eranskariaren ondorioz postposizioak itsatsiz sortzen baititu sintagma batzuk, frantsesez eta gaztelaniaz ez bezala, zeinetan preposizio beregainak baititugu. Esaldi-kopuruaren arteko aldeak, ordea, zerikusi handiagoa du itzulpen-hautuekin; hots, hizkuntzen egituraren eskakizuna baino, esan daiteke estilo, idazkera nahiz tradizio baten ondorio dela itzulpenean esaldi kopurua euskarazkoaren bera ez izatea. Hizkuntza batetik bestera puntuazioaren erabilera-arauak eta -ohiturak aldatu egiten dira; horrek guztiak ere eragina izanen du egiturari. Susmoa dugu euskarak esaldi laburragoak egiteko joera duela erdarek baino; hala ere, esaldi-kopuruen alderaketan, askotariko joerak ikusi ditugu.

Aurreko atalean esan bezala, bada, hitz kopurua handiagoa izan da erdarazkoan euskarazkoan baino, salbuespenik gabe (betiere liburu osoaren itzulpena egin denean). Banan-banan jo beharko genuke horren arrazoiak zeintzuk diren jakiteko, baina atal honetan irudi orokorrari begiratuko diogunez, soilik kasu agerikoenak izanen ditugu aipagai.

Izan ere, badira zenbait autoitzulpen nabarmen luzeagoak. Itxaro Bordarena da, ezbairik gabe, kasurik esanguratsuenak: frantsesezkoan han-hemenka testu-zati anitz gehitzeaz gainera, atal oso bat eransten dio, hasiera aldera. Horrek, noski, eragin zuzena du datuetan. Kopuru gordinei begiratuta, 40077 hitz ditu euskarazkoak, eta 73390 frantsesezkoak; ia bikoitza da xede-testua, beraz. Esaldi kopurua ere nabarmen handitzen da, halako testu-masa gehituta uler daitekeenez, eta sorburu-testuan 3262 segmentu baditugu ere, xede-testuan 4419 zenbatu ditu programak. Azpiko taulan ikus dezakegu gehitze horren adibide bat (874#),<sup>104</sup> ausaz aukeratua, halako hamarnaka daudenez.

<b>%100 Basque – BOR EU</b>	<b>100 % basque – BOR FR</b>
Azken urteotan, hiri goraiatuak ez zukeen sosik ekartzen eta hirira orduko edozeinen ametsa baserrira bizitzera joatea zenez, Euskal Herriak moderno itxura ezabatzen zuen kultura alorrean, laborari eta artzainen ikurrak erabiliz, hobetsiz eta kanpoan zein barnean kulturaren gailurtzat joz.	Ni symboliquement, dans l'inconscient collectif nationaliste, ni objectivement puisque celui qui arrivait en ville pour un travail obtenu dans le monde associatif bascophone cherchait à tout prix après quelque temps de vie en plein ghetto, à acheter une maison à la campagne, pas trop loin de la ville bien sûr, dans une campagne proche, méticuleusement urbanisée. Ainsi le système culturel basque, qui à dire vrai l'avait toujours refusé, effaçait toute trace de (post)modernisme dans le domaine de la pensée en (sur)utilisant les signes positifs et sains du monde pastoral, en les valorisant de telle sorte que tant à l'intérieur qu'à

<sup>104</sup> Hitz-multzo zenbakia adierazten du, TRACEaligner programak berak ematen duena.

	l'extérieur, on finissait par les considérer comme des traits culturels inévitables et réels - si singuliers de particularisme, soulignerait dans un discours-fleuve n'importe quel ministre de la Culture passant par Bayonne.
--	---

**Taula 12. Sortze diskurtsiboaren adibide bat**

Ez da xede-testuan masa gehien gehitu duen segmentua, baina bada esanguratsua, bataz beste, halakoa delako oro har gehituriko kopurua. Argi erakusten du, besteak beste, zabaltzearen eta sormen diskurtsiboaren itzulpen-teknikez baliatu dela pasarte hori itzultzeko, Lucía Molina Martinezen (2001) sailkapena aintzat hartuz gero.

Nabarmenena Bordarena izanagatik ere, ez da testu-zati luzeak gehitu dituen autore bakarra. Besteak beste, Iban Zalduaren testuan, irakasle-protagonistak euskara eta literaturaren inguruan prestaturiko irakas-programari buruzko atalean, pasarte luze bat gehitu dio erdarazkoari. Kultur erreferentziekin lotura izan dezake luzatze horrek, mikro mailako azterketan ikusiko dugunez, eta, itzulpen-teknikez ari garelarik, esplizitazioaz baliatu dela aurreikus daiteke.

Testu-zatiak edota atalak gehitzeaz aparte, bada atalen ordena moldatu duenik ere. Pentsa dezakegu ipuin-bildumetan errazago alda daitekeela ipuinen ordena, bereziki elkarren artean loturarik ez badago. Aitzitik, badirudi nobela bateko atalen ordena aldatzeak ez duela hain erraza izan behar, erreferentziak aldatzen baitira eta, horrekin, irakurketa. Nolanahi dirudien, gertatu gertatzen da, eta Karmele Jaiok atal oso bat lekuz aldatu du eleberriaren autoitzulpenean; euskarazkoan bigarren atala zena gaztelaniazkoan laugarren da. Orobat gertatzen da Eider Rodriguezen ipuin-liburuaren itzulpen osoan (ROD ES2) ere: euskarazkoan, “Bellevue” ipuina laugarren da, eta jarraian dator (bosgarren, beraz) “Puntu suspentsiboak”; gaztelaniazkoan, berriz, “Puntos suspensivos”en atzetik dator “Bellevue”. Era berean, Unai Elorriagaren *SPrako tranbian* “Lucasen ariketa” eta “Mariaren ipuina” izeneko zenbait pasarte daude narrazioan txertatuta. Euskarazkoan, bata bestearen atzetik agertzen dira gehienetan (ez beti), “Mariaren ipuina” dator lehenik eta “Lucasen ariketa” gero; erdarazkoan, ordea, alderantzikatu egiten da ordena hori, sistematikoa ez bada ere. Elorriagak esandakoarekin lotu dezakegu aldaketa hori, alegia, lehen autoitzulpena izanik aski modu «anarkikoan» jardun zuela (2015/10/01, mezu bidezko komunikazioa). Atal edo ipuinen ordena aldatzea ez da itzulpen alografoan ohikoa, eta ia seguru esan dezakegu autorearen ez den beste itzultzaile batek itzuliz gero, egilearen (edo, apika, editorearen) eskaeragatik ez balitz, ez zukeela horrela jokatu izanen.

Esaldi mailan, askotariko emaitzak eman dizkigu programak. Hasierako esaldi kopurua alderatuta, eta lerrokatze-prozesuan harturiko oharretan jaso dugunez, autoitzultzailearen joera aurreikus dezakegu. Badira egitura mailan oso aldaketa gutxi izan dituzten testuak. Horren adibiderik garbiena Miren Agur Meaberen parean litzateke, erdarazkoak hitz gehiago baditu ere, esaldi kopurua arras antzekoa baita sorburu- eta xede-testuetan.

Beste testu batzuen alderaketan distantzia handiagoa ikusi dugu; konparazio batera, Elorriagaren testuen azterketari dagokionez, euskaraz koma bat edo bi puntu agertzen diren

askotan gaztelaniazkoan puntua agertzen da; ondorioz, taulan adierazi bezala, segmentu gehiago agertzen zaizkigu gaztelaniazkoan euskarazkoan baino, eta, lerrokatzean, erdarazkoan bi gelaxka batzeko ariketa maiz egin behar izan dugu. Kontrakoa gertatzen da Ixiar Rozasen testu-alderaketan; hots, euskarazkoan esaldi bi edo gehiago diren horiek bakarria osatzen dute gaztelaniazko bi testuetan. Lerrokatze-prozesuko ariketa, beraz, kontrakoa izan da, gelaxketan bereizi behar izan ditugu erdarazkoak. Adibidez, azpiko taulan ikus daitekeenez, euskarazkoan bost esaldik osatzen duten hori bakarrean eman du bi erdarazkoetan, puntuen tokian komak jarritz.

<i>Negutegia</i> – ROZ EU	<i>Negutegia. Invernario</i> – ROZ ES1/ES2
Egunak goizarekin hasiko ez balira bezala.	Como si los días no empezaran con las mañanas, como si tras la noche no hubiera otro día, nada tiene continuidad, todo es una pausa de cinco años, un entretanto.
Gauen ostean egunik ez balego bezala.	
Ezerk ez du jarraipenik.	
Dena bost urteko eten bat da.	
Bitartean bat.	

**Taula 13. Estilo aldaketaren adibide bat**

Puntuazioa soilik aldatu arren, erritmoa, estiloa bera aldatzen dela pentsa dezakegu, estrategia hori sarritan erabiltzen bada, behintzat. Adibidean, euskarazkoak hizkuntza parataktikoa darabil, eta gaztelaniazkoek, berriz, sintagmatikoa. Laburbilduz, Rodriguezen aztergaiekin gertatu bezala, esaldi gutxiago dituzte Rozasen itzulpenek sorburu-testuak baino (bien arteko aldea handiagoa da Rozasenean Rodriguezen baino). Taulan erdarazko bakarria jarri dugu, zeren bi itzulpen egon arren, testu-zati jakin hori berdina baita bi erdarazkoetan; oro har, azterketa xehea egiten dugunean ikusiko dugunez, ia ez dago alderik Rozasen bi xede-testuen artean. Gauza bera gertatzen da, egitura mailan, Aingeru Epaltzaren bi itzulpenekin, eta zerbait handiagoa da esaldi kopuruaren aldea Harkaitz Canoren bi gaztelaniazkoen artean. Ondorioz, badirudi egitura mailan, behintzat, askotariko joerak daudela itzultzaile batzuen eta besteen artean, betiere corpus hau osatzen duten testuak aintzat hartuta. Hain zuzen, hurrengo atalean azterketa xehea egiten dugunean ikusiko dugu mikro mailan joera hori berresten den ala beste bide batetik jotzen duten.

Laburbilduz, sorburu-testuen eta xede-testuen artean egitura mailan gertatu diren aldaketa esanguratsuenak ikusi ditugu atal honetan. Esan dugu alde handia dagoela batzuen eta besteen artean; hitz-kopuruari dagokionez, bada, Borda, Jaio eta Epaltza sar genitzake hitz gehien gehitu dituzten autoreen artean, eta Cano eta Rodriguez, berriz, gutxien. Ez dute izen guztiek bat egiten esaldi-kopuruari begiratzen badiogu, Borda eta Jaio esaldi-kopurua gehien aldatu (ugaritu) dutenen artean badaude ere, Rozas ere aipatu behar baitugu (kasu honetan, gutxitu); kontrara, esaldi-kopurua ia aldatu ez dutenen artean, Meabe dago alde handiz.

Horrela, bada, autore guztiek ez diote joera berari segitzen hitz- eta esaldi-kopuruari dagokionez; esaterako, batzuek hitz-kopuru gutxi gehituz esaldi kopurua anitz aldatzen baitute. Egiturari eragindako hautuek mikro mailan jarraipenik ba ote duten aztertuko dugu orain, bi mailen artean loturarik baden ikusi eta joera nagusiak ondorioztatu ahal izateko.

## 6.2. MIKRO MAILAKO AZTERKETA

Atal honetan, testu-azterketa xehea egingen dugu. Esan dezakegu hau dela ikerlan osoaren ekarpen handiena, eta honekin emanen diogu amaiera lanari. Azken helburua den autoitzulpen-joerak identifikatu eta deskribatzeko, ezinbestekoa da testu-azterketa egitea, horrela ikusiko baititugu kasuan kasuko hauturako autoreek darabilten itzulpen-teknika edo estrategia. Mikro mailako azterketa egiteko, itzulpengintzaren teorian zein jardunean zeresan handia ematen duten bi alderdiri erreparatu diegu: batetik, kultur erreferentzien itzulpena izanen dugu aztergai; bestetik, sorburu-testuan agertzen den hizkuntza-aniztasuna itzulpenean islatzen ote den eta, hala bada, zer modutan agertzen den aztertuko dugu, hots, heterolinguismoa eta horren itzulpena. Hirugarren atalean deskribaturiko testuinguru kultural eta sozialean bai kultur erreferentzien itzulpena bai heterolinguismoa ikertzea esanguratsua izan daitekeela uste dugu, sorburu-testuak nahiz autoitzulpen-lanak aztertu eta alderatzerakoan.

Lehenik, biak ala biak deskribatuko ditugu, orain arte egindako teorizazioak oinarri modura hona labur ekarriz, eta ondoren corpusean bi horiek nola itzuli diren ikusiko dugu. Azkenik, azterketa honetan oinarrituriko ondorioak aterako ditugu. Horrela, lehen aldia izanen da euskaratik egindako autoitzulpenetan bi eremu zabal horiek ikertzen dela; gainera, esanen genuke, oro har, heterolinguismoa eta kultur erreferentzien itzulpena ez dela orain arte tamaina honetako corpus batean aztertu.

### 6.2.1. Kultur erreferentzien azterketa

Kulturaren eta itzulpenaren arteko lotura egin aurretik, kulturaren teorizazioari begiratuko diogu labur, horren interpretazioak baldintzatuko baitu itzulpena. Even-Zoharrek kultura ekintza-sortatzat definitu zuenetik (1990a, besteak beste) –polisistematizat eta ez produktizat, alegia–, teoria horretan oinarritu dira hurrengo ikertzaile asko:

The definition of culture proposed here is in terms of a shared mental model or map of the world. This includes Culture – though it is not the main focus. Instead, the main focus here lies in ‘what goes without being said’ and the ‘normal’. This ‘normal’ model of the world is a system of congruent and interrelated beliefs, values, strategies and cognitive environments which guide the shared basis of behaviour. Each aspect of culture is linked in a system to form a unifying context of culture, which then identifies a person and his or her culture (Katan 1999: 26).

David Katanen (1999) arabera, bada, kulturaren kontzeptua komunitate batek konpartitzen duen eredu edo mapa mentaletan oinarritzen da. Eredu horietako bakoitza balio, estrategia eta sinesmen sistema oso bat da. Horrela esanda, badirudi jardun mental hutsa dela, baina kulturaren atzean praktika, ekintza dagoela azpimarratu behar dugu. Itzulpenarekin lotu dezakegu hori, itzulpena ere praktika baita, zeinaren bidez kultura transmititzen den. Beraz, Katanekin (1999) jarraituz, kultura beraren kideen artean nolabaiteko adostasun bat dago kultura jakin horren ezaugarri bereizgarrien inguruan, eta horrek ahalbidetuko du elkar-ulertzea. Edward Saidek (1993) ere adostasun horrekin bat egiten du, baina modu zabalagoan ulertzen du kontzeptua. Izan ere, Saidek (1993) “nazioa”

eta "identitatea" kontzeptuekin lotzen du kultura. Gainera, kultur gatazkaren ideia plazaratu zuen palestinarrak:

As I use the word, "culture" means two things in particular. First of all it means all those practices, like the arts of description, communication, and representation, that have relative autonomy from the economic, social, and political realms and that often exist in aesthetic forms, one of whose principal aims is pleasure. Included, of course, are both the popular stock of lore about distant parts of the world and specialized knowledge available in such learned disciplines as ethnography, historiography, philology, sociology, and literary history. [...] Second, and almost imperceptibly, culture is a concept that includes a refining and elevating element, each society's reservoir of the best that has been known and thought, [...] In time, culture comes to be associated, often aggressively, with the nation or the state; this differentiates "us" from "them," almost always with some degree of xenophobia. Culture in this sense is a source of identity, and a rather combative one at that, as we see in recent "returns" to culture and tradition. [...] In this second sense culture is a sort of theater where various political and ideological causes engage one another. Far from being a placid realm of Apollonian gentility, culture can even be a battleground on which causes expose themselves to the light of day and contend with one another (Said 1993: xii-xiii).

Kultura dinamikotzat hartzen da, bada, ez emaitzat. Dialektika horretan, interes batzuk daude, eta horrek gatazka sortzen du. Kulturen arteko gatazkaren ideia esanguratsua izan daiteke itzulpena aztertzerakoan, eta horrela erabili dute zenbait autorek (Molina Martinez 2001). Azterketa honetan ere aintzat hartuko dugu hori, euskal kultura harreman asimetrikoan dagoelako erdal kulturekiko, eta botere-harremanek zeresana izan dezaketelako kultur erreferentzien itzulpenean.

Traduktologiaren teorizazio guztietan, are gehiago Itzulpen Ikasketetan, kultura aipagai izaten da; hain zuzen, itzulpena bi kode linguistikoren arteko transferentzia ez ezik, kulturaren transferentzia ere badela esateko. Sendoago esaten zuen Christiane Nordek, baieztatzen baitzuen «translating means comparing cultures» (Nord 1997: 34). Itzulpenaren eta kulturen arteko lotura ikus dezakegu Saiden (1993: 217) hitz hauetan ere:

But the history of all cultures is the history of cultural borrowings. Cultures are not impermeable; just as Western science borrowed from Arabs, they had borrowed from India and Greece. Culture is never just a matter of ownership, of borrowing and lending with absolute debtors and creditors, but rather of appropriations, common experiences, and interdependencies of all kinds among different cultures. This is a universal norm.

Nolabait, kulturak apropiazioen bidez sortzen edo eraikitzen dira, eta hein handi batean apropiazioa da itzulpena bera. Era berean, kulturaren definizio anitzek lotura egiten dute kulturaren eta hizkuntzaren artean, eta horien elkarguneak dituzte hizpide; hala egin dute, besteak beste, Steiner (1975), Tylor (1977), Newmark (1988), Said (1993), Mangiron (2006) eta Azurmendik (2007). Hizkuntzaren eta kulturaren elkargunearen inguruko ideia-sorta horren adibide garbientakoa, agian, Sapir-Whorf hipotesia da, zeinaren arabera hizkuntzak

baldintzatuko<sup>105</sup> baitu komunitate batek pentsatzeko eta errealitatea hautemateko duen modua. Peter Newmarken (1988) arabera, ezin da hizkuntzaren eta kulturaren artean lerro zuzen bakar bat marraztu, komunitate linguistiko beraren barruan hainbat kultur talde egon baitaitezke; gauza bera esanen genuke alderantziz, komunitate linguistiko diferenteko partaideek kultura konpartitu baitezakete. Bien arteko harreman estua, ordea, ezin da ukatu.

Zentzu zabalean, testu bat, bere osotasunean da kultura-adierazpena. Ikerlan honetan, kulturaren zentzu hertsiago bati erreparatuko diegu, kultur erreferentzien bidez testuan adierazten direnak kulturaren ezaugarri jakin batzuk izanen baitira. Horrela, bada, ezaugarri jakin horien autoitzulpena aztertzeke, kultura baten adierazle diren hitz, esamolde eta markei erreparatuko diegu.

Termino ugari jaso dituzte marka horiek,<sup>106</sup> eta hurrengo lerroetan bakar batzuei begiratuko diegu, horien definizioarekin batera, halakorik ematen den kasuetan. Izan ere, Javier Franco Aixeláren (1996b) arabera, kultur erreferentziei edo termino soziokulturalari buruz hitz egitean, autoreek oro har ez dute definiziorik ematen, «attributing the meaning of the notion to a sort of collective intuition» (Franco Aixelá 1996b: 57). Horrek, ordea, bi arrisku dakartzala ohartarazten du: «its excessive arbitrariness and, more importantly, its static character, parallel with the idea that there are permanent CSIs [Culture-Specific Items], no matter which pair of cultures is involved and no matter what the textual function (in one text or the other) of the item under study is» (ibid.).

Horrela, itzulpengintza ardatz duela, Franco Aixelák (1996b) *Culture-Specific Items* (CSI) deitzen die kultur markei, eta honela definitzen ditu: «Those textually actualized items whose function and connotations in a source text involve a translation problem in their transference to a target text, whenever this problem is a product of the nonexistence of the referred item or of its different intertextual status in the cultural system of the readers of the target text» (1996b: 58). Autoreak berak ohartarazten du definizioa malgua dela,

<sup>105</sup> Bertsio malguagoak ere badira, “baldintzatu” baino, “eragin” aditza darabiltenak.

<sup>106</sup> Hurtado Albir (2001) eta Mangiron (2006) ikertzaileek jasotzen dituztenen arabera, hauek dira traduktologo eta teoriariek erabilitako izendatzaileetako batzuk, terminologia-aniztasunaren adierazle:

- kulturema: Hans Vermeer (1983), Christiane Nord (1994, 1997), Amparo Hurtado (2001) eta Lucía Molina (2001);
- kultur hitzak (cultural words): Peter Newmark (1988);
- kultur terminoa (cultural term): Peter Newmark (1988);
- kulturari lotutako elementua (culture-bound elements): Christiane Nord (1994) eta Birgit Nedergaard-Larsen (1993);
- kultur markatzailea (cultural markers): Christiane Nord (1994) eta Roberto Mayoral (1994);
- kultur fenomeno bereizgarria: Christiane Nord (1994);
- kultur elementu bereizgarria (culture-specific item [CSI]): Javier Franco (1996);
- kultur marka: Assumpta Forteza (2005), kultur erreferente eta erreferentziaren sinonimotzat hartu da;
- kultur erreferentea: Santamaria (1999, 2001), Lucía Molina (2001), Marco (2002, 2004);
- kultur erreferentzia: Roberto Mayoral (1994) eta Mangiron (2006).

Bestalde, kultur erreferentziei buruzko euskarazko azterketak bakanak dira, eta gehienetan ez dute hori ardatz; esaterako, bertsolaritza-saioetako interpretazioari buruzko artikululu batean, Xabier Payak (2006) “kulturemak” eta “erreferentzia soziokulturalak” bereizten zituen. Adibide bana ematen du, talde bakoitzaren definizioan sakondu gabe.

kontzeptuari izaera dinamikoa eta aldakorra emanez. Honela arrazoitzen du definizioaren zabala:

This definition leaves the door open for any linguistic item to be a CSI depending not just on itself, but also on its function in the text, as it is perceived in the receiving culture, i.e. insofar as it poses a problem of ideological or cultural opacity, or acceptability, for the average reader or for any agent with power in the target culture. This fact certainly implies a flexibility which is not just avoidable but desirable, if we wish to keep the notion of CSI open to intercultural evolution among linguistic communities. Thus, a third component in the nature of CSI is the course of time and the obvious possibility that objects, habits or values once restricted to one community come to be shared by others (Franco Aixelá 1996b: 58).

Interesgarria da xede-kulturako irakurle batezbestekoaz gainera, “edozein eragile boteredun” baldintzagarritzat hartzea. Izan ere, itzultzaileak ez ezik, editoreak eta bestelako eragileek zuzenean eragin dezakete itzulpen-hautuetan. Horrela, itzulpen-estrategien atzean egon daitezkeen arrazoiak azaltzean, motibazioen kausa izan daitezkeen horien artean “itzultzaileei” buruz mintzo da (Franco Aixelá 1996b: 65); alegia, pluralean, editorea edota beste eragile batzuk egon baitaitezke hautu baten sorburuan. Testuan duen funtzioak eta garaiak ere eragina izanen dute CSI bat halakotzat hartzeko, bada, Franco Aixeláren (1996b) ustez.<sup>107</sup>

Ana Fernandez Guerrak (2012: 2) dioenez, Vlahov eta Florin lehenak izan ziren *realia* terminoa kultur elementuei lotzen, «and the term has now been generalized and is frequently used to refer to objects, customs, habits, and other cultural and material aspects that have an impact in shaping a certain language». Helena Tanqueirok (2002) kultur marken bere definizioa emateko irizpideen zerrendan zioen mugatzailea dela *realia* terminoa. Itzulpenaren ikuspegitik aztertu ditu kultur erreferentziak Tanqueirok (2002), eta *realiari* emandako definizioek<sup>108</sup> hizkuntzalaritza jartzen zuten erdigunean. Ordura arteko izendapenak baztertu, beraz, eta *marca cultural* terminoa erabili zuen autoitzulpenari buruzko doktore-tesian. Honela definitzen du Tanqueirok (2002: 127):

sob o conceito de “marca cultural” (mc) entendemos todas as denominações ou expressões ou referências presentes num texto literário a analisar cujo valor conotativo e/ou carga afectiva (no macro-contexto da obra literária e no micro-contexto do segmento em que aparecem) são entendidas e partilhadas, de forma implícita, pelo autor apenas com os integrantes da área cultural a que se dirige a obra e que estão vetadas ou provocam associações diferentes aos integrantes da área cultural a que vai dirigida a tradução.

<sup>107</sup> Gainera, kultur erreferentziak gatazka baten ondorio direla adierazi zuen Franco Aixelák (1996b), kultur erreferentzien existentziarako baldintzez eta dinamikotasunaz ari zela: «in translation a CSI does not exist of itself, but as the result of a conflict arising from any linguistically represented reference in a source text which, when transferred to a target language, poses a translation problem due to the nonexistence or to the different value (whether determined by ideology, usage, frequency, etc.) of the given item in the target language culture» (Franco Aixelá 1996b: 57).

<sup>108</sup> Koller (1992), Bödeker eta Freeser (1987) eta Vienako eskolako Elisabeth Markstein (erref. gabe) aipatzen eta horien definizioak ematen ditu Tanqueirok (2002: 111).

Beraz, autorearen arabera, idazleak eta irakurleak aurrezagutza komun batzuk dituzte testu batez jabetzeko beharrezkoak diren konnotazio-maila edo karga afektibo handiko erreferentziak ulertzeko. Gisako erreferentziak dituen testua itzultzean, xede-kulturako irakurleak ez lituzke aurrezagutza berak, eta horrek sortuko luke itzultzeko zailtasuna. Marka horiek identifikatu ezean, “azpitzulpena” (*infra-tradução*) gerta litekeela dio Tanqueirok (2002: 118), hots, testua ulertzeko beharrezko eduki semantikodun unitateak xede-testuan ez ematea. Era berean ohartarazten du badirela marka kultural diruditen beste zenbait elementu, eta horiek sorburu-kulturari egindako erreferentziek, egiaz, ez dutela inolako balio konnotatiborik, ez karga afektiborik; horiei *pseudo-marca cultural* deitzen die. Biak nahastu eta azken horiek kultur markatzat hartuz gero, “gainitzulpen” (*sobretradução*) deiturikoa gertatuko litzateke, alegia, gehiegizko informazioa ematea; horrela, itzultzaileak sorburu-testuan ez duen balioa emanen lioke marka jakin horri. Bere hitzetan, «dar ao leitor informações sobre esses “Unika”<sup>109</sup> que vão além da sua função concreta num texto concreto» (Tanqueiro 2002: 119).

Bestalde, Tanqueiroren (2002) “marka kultural” terminoan bezala, kultur erreferentziak itzulpengintzarekin harremanetan ageri dira *culturema* kontzeptuan, teoriarari funtzionalista zenbaitak erabilia. Molina Martinezek (2001: 77) dioenez, «Vermeer lo define como “un fenómeno social de una cultura X que es entendido como relevante por los miembros de esa cultura, y que comparado con un fenómeno correspondiente de una cultura Y, resulta ser percibido como específico de la cultura X” (Nord 1997: 34)». Nordek adiera zabalagoa ematen dio kontzeptuari, kulturematzat jotzen baititu, halaber, elementu komunikatiboak ez ezik jarrerari edo keinuei dagozkienak ere, agurrak kasurako (Molina Martínez 2001). Azterlan honetan, ordea, elementu linguistikoei baizik ez diegu erreparatuko. Kulturema kontzeptuari dinamikotasunaren ideia gehitu zion Molina Martinezek (2001), ordura arteko definizio gehienek estatikotzat jotzen baitzuten. Horrela, dinamikotasun hori bi premisetan oinarritzen dela zioen: batetik, kulturemak bi kultura jakinen arteko transferentzia kulturalean sortzen dira, eta ez dira, beraz, testuingurutik kanpo existitzen. Bestetik, kulturema bat halakotzat hartuko da agertzen den testuinguruaren arabera; hortaz, testuinguru batean hitz bat kulturematzat har daiteke eta beste testuinguru batean hitz bera halakotzat ez hartu (Molina Martínez 2001: 90-91).

Termino bera darabil Virginia Mattiolik (2014: 29-30) corpusean oinarrituriko azterketan, eta hautua honela arrazoitzen du:

De hecho esta palabra, así como la han definido los estudiosos, destaca con especial vehemencia la centralidad del factor cultural en la traducción, enfatiza la relación existente entre dos culturas y la comparación de los elementos entre culturas diferentes y finalmente, como subraya Molina Martínez (2001: 91), hace un especial hincapié en el contexto de la traducción ya que los culturemas existen solo en relación con su transferencia de una cultura a otra.

<sup>109</sup> Tanqueirok (2002) azaltzen duenez, *Strategie der Übersetzung* (1982) lanean Hönlök eta Kussmaulök erabiltzen duten terminoa da “Unika”, eta “realia” izendatzeko darabilte.



Horregatik guztiagatik, itzulpenaz ari garelarik azterketa honetan ere “kulturema” terminoaz baliatuko gara,<sup>110</sup> orain arte emandako bere adierarik zabalenean. Hots, aipatu ikertzaileek emandako balioak laburki berreskuratuz, ezaugarri hauek barnebiltzen ditu kontzeptuak:

- kulturen arteko alderaketa nabarmentzen du;
- itzulpenean kulturek duten indarra biltzen du;
- elementu linguistikoez gainera, estralinguistikoak ere hartzen ditu, keinuak eta jarrerak kasurako;
- izaera dinamikoa eta aldakorra dute, eta testuinguruak baldintzatzen ditu.

### 6.2.1.1. Kulturemen sailkapena

Hamaika ikertzailek aztertu dituzte kultur erreferentziak, baita, geroago ikusiko dugunez, horiek sor ditzaketan itzulpen-arazoak ere, eta ez dira gutxi izan bateko zein besteko sailkapenak proposatu dituztenak; besteak beste, Nida (1945), Newmark (1988), Mayoral Asensio (1994), Nord (1997), Katan (1999), Molina Martinez (2001), Mangiron (2006) eta Fernandez Guerra (2012) aipa ditzakegu. Orokorri esateko, Nordek zioen «everything we observe as being different from our own culture is, for us, specific to the other culture» (Nord 1997: 34). Zaku zabala eta zehaztugabea da hori, ordea, batez ere autoitzultzaileak bi kulturaren jabe direla eta gurean interferentziak aski nabarmenak direla esan eta gero; horregatik, sailkapen bat ekarriko dugu hona.

Berrienetako bat hautatzearen, Mattiolik (2014) egindako sailkapena aurkeztuko dugu, aurretik egindako hainbat proposamenetan<sup>111</sup> oinarritzen baita sailkapen oso eta zabal bat eskaini eta gero itzulpen-azterketan aplikatzeko. Orotara zazpi kategoria bereizten ditu, eta horien barruan azpikategoriak zehazten; adibide bana ere ematen die. Euskarara ekarri dugu hark proposaturiko sailkapena (Mattioli 2014):

1. Kultura geografiko eta naturala
  - a. Flora eta fauna
  - b. Toponimoak eta toki espezifikoek erreferentziak
  - c. Etnia edo tribuei erreferentziak
2. Kultura materiala
3. Kultura soziala, historikoa eta folklorikoa
  - a. Pertsonaia historiko, politiko eta kulturalen, artelanen eta garrantzia historikodun gertakarien erreferentziak
  - b. Familia
  - c. Laguntasuna
  - d. Erakundeak eta titulu sozialak
  - e. Eguneroko bizitzako ekintzak
4. Kultura erlijiosoa

<sup>110</sup> Oro har ari garelarik eta ez soilik itzulpenari dagokionez, berriz, “kultur erreferentzia” deituko diegu.

<sup>111</sup> Zehazki, Mattiolik (2014) autore hauen sailkapenak ditu aztergai eta abiapuntu: Nida (1945), Newmark (1988), Mayoral Asensio (1994), Vlahov eta Florin (1985), Vermeer (cfr. Nord 1997), Nord (1997), Luque Nadal (1999), Santamaria (2001), Molina Martinez (2001) eta Mangiron (2006).

5. Kultura kontzeptuala
6. Kultura linguistikoa
  - a. Hitz-jolasak, atsotitzak, eta abar
  - b. Formalitate-mailak
  - c. Tabuak
7. Kultura interferentziak
  - a. Baliokidetasun ezak
  - b. Lagun aizunak
  - c. Kultur injerentziak

Autoreak bereizketarik egiten ez duen arren, badirudi bi kategoria daudela sailkapen horretan; irudi luke, batetik, 1-6 puntuak sorburu-testuari dagozkiola, eta, bestetik, 7.a betebetan itzulpenari zuzentzen zaiola. Hipotesi modura esanen genuke bi kulturen artean ez direla beti kategoria guztiak betetzen; esaterako, Euskal Herrian eta gaur-gaurkoz, espazio geografiko berean, elkarbizitzan, bi kultura nahasten direla onartzen badugu,<sup>112</sup> beste kultura batzuen arteko transferentzietan ager daitezkeen kategoriak hutsak leudeke gurean (kasurako, nahiz eta bilaketa sistematikorik ez dugun egin, ez zaigu euskara-gaztelania edo euskara-frantsesa itzulpenean kulturematzat har daitezkeen kultura erlijiosoko adibiderik bururatzen).<sup>113</sup>

Hala, itzulpenean kulturak duen nagusitasunaz hizketan, Nordek (1997) dio hain zuzen gatazka-puntuek bereizten dituztela kulturak, zeren kulturak ezin baitira zedarritu, hizkuntza batek baino gehiagok kultura bera konpartitu dezaketelako eta hizkuntza bera darabilten herriak kultura baten baino gehiagoren jabe izan daitezkeelako. Gurean ere hala gertatzen da, hots, kultur erreferentzia batzuek bat egingen dute hizkuntza batean eta bestean. Nolanahi den, sailkapen horrek oinarri teoriko-metodologiko modura balio dezake, eta kultur erreferentzien (eta kulturematzat har daitezkeen horien) zabaltasuna agerian uzten du.

#### 6.2.1.2. Kulturemen itzulpena

Aspaldi ohartarazi zuen Nidak itzulpen-arazoak aztertzean: «differences between cultures may cause more severe complications for the translator than do differences in language structure» (Nida 1964: 130). Hori hala dela jakinda, Leipzigezko eskolako teorialarien gogoetatik tiraka eta Fernandez Guerraren (2012: 4) hitzak baliatuz, «all languages can say (or are capable of saying) the same things; but, as a rule, all of them say it in a different way». Hortaz, esateko modu ezberdin horiek zertan dautzan eta bestela esateko zer bide hartzen diren ikusi beharko dugu.

Itzulpen hautuetan eragina duten faktoreei helduko diegu hautuei berari begiratu aurretik. Doktoretza-lanean, Franco Aixelák (1996a) CSIak edo guk kulturema deitu ditugunen itzulpena baldintzatzen duten faktoreak aztertu zituen. Itzulpen-hautuen atzean

<sup>112</sup> Euskal kultura eta kultura espainola Hego Euskal Herrian eta euskal kultura eta kultura frantsesa Ipar Euskal Herrian, behintzat; anglofonia ere gehitu beharko genuke, apika, mundu mailan gertatzen denez. Mugako herrietan, hirurak: euskal, espainol eta frantsesa.

<sup>113</sup> Diskurtsiboki, Olentzero eta Bizar-zuri genituzke, apika; uste dugu, ordea, praktikan ez dela hala gertatzen.

egon daitezkeen arrazoiak aztertzen ditu (Franco Aixelá 1996b), beraz, eta honela zerrendatu daiteke haren proposamena:

- a. Testu kanpoko parametroa:
  - Xede-hizkuntzaren preskriptibismo maila
  - Irakurle posibleen nolakotasuna
  - Abiarazleen<sup>114</sup> nolakotasunak eta helburuak
  - Itzultzailearen lan-baldintzak, prestakuntza eta estatus soziala
- b. Testu-parametroa:
  - Testuaren muga materialak
  - Aurreko itzulpenak
  - Kanonizazioa
- c. CSIaren nolakotasuna:
  - Aurrez ezarritako itzulpena
  - CSIaren gardentasuna
  - Auzi ideologikoak
  - Hirugarren bati erreferentzia
- d. Testu barruko parametroa:
  - Kultur markak sorburu-testuan
  - Garrantzia
  - Errepikapena
  - Xede-testuaren koherentzia

Argi dago, bada, askotarikoak eta ugariak direla CSIak itzultzeko estrategiak hautatzeko arrazoiak, betiere Franco Aixelàren (1996b) arabera. Osoenetako bat izanagatik, ez da kulturemak itzultzeko baliabideak hautatzerakoan eragiten duten faktore-zerrenda bakarra. Esaterako, Mattiolik (2014) beste hiru<sup>115</sup> sailkapen biltzen ditu bere lanean, bakoitza sei-zazpi baldintzatzailerekin; hala ere, gehienak Franco Aixelàren (1996b) sailkapen-ereduan biltzen dira.

Horrela, *The Maltese Falcon* obraren itzulpen-azterketa oinarri hartuta, Franco Aixelák (1996b: 76-77) honela ondorioztatzen du:

[T]his analysis seems to agree with observations made by other translation scholars like Lefevre, Toury or Even-Zohar, who suggest that the central or peripheral position of a work in the receiving corpus is a crucial factor in translation. [...] translation norms are, at least in Spain and in a few other countries, currently very intense and conservative for canonical works, and that the field of common expressions is much more amenable to cultural domestication. In any case, it should be clear by now that it is the receiving pole that decides in each historical period whether, and to what extent, to accept the restrictions that in principle are contained in any source text.

<sup>114</sup> Javier Franco Aixelák honela definitzen du *iniciador* deitzen duen hori: «Por iniciador se entiende en traducción el agente físico o jurídico que en persona o mediante agentes encarga, abona y sanciona en primera instancia la viabilidad de la traducción» (Franco Aixelá 1996a: 142). Prozesua abiarazteaz gainera (hortik datorkio izena), azken produktua balioztatzeaz arduratzen da abiarazlea.

<sup>115</sup> Zehazki, Newmark (1988), Florin (1993) eta Hurtado Albirren (2001) sailkapenak aurkezten ditu Mattiolik (2014: 40-41).

Beraz, obra bat kanonikoa izateak eta xede-kulturan duen lekuak ere baldintzatuko lituzkete itzulpen-hautuak.

Christian Olalla-Soler eta Amparo Hurtado-Albirrek (2014) bat egiten dute testuaren beraren prestigioak edo testuaz kanpoko baldintzatzaileek hautuan izan dezaketzen eragina nabarmentzean; hala, alemana-gaztelania konbinazioan ikasle talde batek egindako itzulpenetan oinarrituriko azterketan, honela diote:

[S]e observa una tendencia a usar técnicas de traducción que se alejan del texto original, como es el caso de generalizaciones, particularizaciones o ampliaciones, [...] a medida que aumenta el grado de adquisición de competencia traductora, más se percibe la necesidad de adecuar las técnicas al encargo y al destinatario.

Sin embargo, cuantos más conocimientos de la cultura alemana tienen los sujetos, más frecuente es el uso de técnicas cercanas al texto. Tal vez se deba a que, al considerar la cultura extranjera como más propia (formando parte ya de su sistema bicultural), los estudiantes no perciben la necesidad de acercar el culturema al lector» (Olalla-Soler eta Hurtado-Albir 2014: 19).

Ikerketa horren emaitzek erakusten dutenez, beraz, itzulpen-gaitasun mailak eta sorburu-hizkuntzaren ezagutza mailak eragina dute kulturemen itzulpenaren onargarritasunean (Olalla-Soler eta Hurtado-Albir 2014: 19). Horrek lotura estua du autoitzulpenarekin, autoitzultzaileak bereak baititu bai sorburu-hizkuntza bai xede-hizkuntza; aipatu ikerketaren arabera, autoitzultzaileek ez lukete beharrik ikusiko kulturema irakurleari hurbiltzeko, nahiz eta, gure kasuan, irakurleak ez duen zertan idazlearen espazio geografiko berekoa izan ezta, beraz, kultura/hizkuntza-bikotearen jabe ere.

Labur, bada, kasuan kasu kultur erreferentzia baten itzulpenari zer irtenbide eman erabakitzeko, kulturemaren beraren ezaugarriak, testuingurua, sorburu-kulturaren eta xede-kulturaren arteko harremana, itzulpenaren helburua eta hartzailearen ezaugarriak aintzat hartzekoak dira.

Itzulpen-hautuei dagokienez, itzultzaileak, bitartekari izanik, bi bide har ditzakeela esan genezake: irakurlea autorearen errealitatera hurbiltzea, edo autorea irakurlearen errealitatera hurbiltzea. 1813an ere hala zioen Friedrich Schleiermacher filosofoak *Über die verschiedenen Methoden des Übersetzens* lan entzutetsuan. Giza zientziak itzultzeko modu bakarra, haren ustez, sorburu-testuaren idazlea eta xede-testuaren irakurlea hurbiltzean zetzan, eta hurbilpen horretarako bi aukera zeuden. Honela dio Susan Bernofskyren itzulpenean: «Either the translator leaves the writer in peace as much as possible and moves the reader toward him; or he leaves the reader in peace as much as possible and moves the writer toward him» (Schleiermacher 2012: 49). Horrela, hurrenez hurren, Venutik (1995) itzulpen-ikasketetarako lehenengoz proposaturiko “arrotasuna” eta “etxekotzea” genituzke. Schleiermacherrek, grekotik alemanerako itzulpen-esperientzian, lehen bidea hobetsi zuen; alemana, orduan prestigio gabea, grekora hurbiltzea hobetsi zuen, hizkuntza bera goratu eta aberastu nahian (Lefevere 1992).

Itzulpenaren teorian, oposizio horrek Nidak (1964) formulaturiko baliokidetzaren formalaren eta baliokidetzaren dinamikoaren arteko dikotomia erakusten du; Venutik (1995)

proposatu eta beste teoriarari askok erabilitako kontzeptuak baliatuz, beraz, itzultzaileak testua etxekotzera ala atzerriratzen jo dezake. Franco Aixelá (1996b: 54) honela mintzo da bi bide horiez:

Thus, faced with the difference implied by the other, with a whole series of cultural signs capable of denying and/or questioning our own way of life, translation provides the receiving society with a wide range of strategies, ranging from conservation (acceptance of the difference by means of the production of the cultural signs in the source text), to naturalization (transformation of the other into a cultural replica). The choice between these strategies will show, among other factors, the degree of tolerance of the receiving society and its own solidity.

Aukeraturiko bideak eta horretarako erabilitako estrategiek, beraz, xede-kulturaren tolerantzia- eta sendotasun-maila erakutsiko lukete Franco Aixeláren (1996b) arabera. Izan ere, Even-Zoharrek lehenik eta Gideon Touryk ondoren proposaturiko lehen bi itzulgarritasun irizpideek hala ezartzen dute: batetik, «[t]ranslatability is high when the textual traditions involved are parallel», eta, bestetik, «there has been contact between the two traditions», «understanding the term ‘high’ as the existence in the receiving pole of a repertoire of solutions previously accepted and expected by the target text readers» (Franco Aixelá 1996b: 54-55). Euskara-gaztelania eta euskara-frantsesa konbinazioan, bigarren irizpidea beteko litzateke, ez, ordea, lehenengoa.

Kulturemen azterketan, Mangironek (2006: 110), bi bide baino gehiago, lau jarrera orokor ikusten ditu itzultzailearengan:

1. Sorburu-kulturako erreferentziari eustea (adibidez, katalanezko sorburu-testuan *pa amb tomàquet* > ogia tomatearekin, euskarazko xede-testuan);
2. Sorburu-kulturako erreferentzia neutralizatzea (*pa amb tomàquet* > ogia);
3. Sorburu-kulturako erreferentziari ezikusia egitea (*pa amb tomàquet* > Ø);
4. Erreferentzia xede-kulturara egokitzea (*pa amb tomàquet* > ogi xigortua/tostadak).

Ekintza horiek hainbat itzulpen-estrategien bidez egin daitezkeela azaltzen du Mangironek (2006), sailkapenei buruz mintzatzean ikusiko dugunez; hala ere, lau horiek dira finean joerak.

Itzulpen-hautuak aztertzen jarri aurretik, zehaztapen terminologiko bat egingen dugu. Itzulpen “prozedurak”, “metodoak”, “teknikak” eta “estrategiak”, laurak erabili izan dira Itzulpen Ikasketetan itzulpen-hautuei erreferentzia egiteko eta horien sailkapenak proposatzeko. Fernandez Guerraren (2012: 6) arabera, ordea, «the procedures or strategies that are usually mentioned in academic publications serve both to analyse and catalogue translation equivalence and to improve the acquisition of translation competence»; izan ere, horien berri izatea eta horiek konparatzea beharrezkoa da itzulpen «egoki» bat lortzeko (ibid.). Badirudi bi ikuspegi ez-baztertzaila daudela hor, *and* juntagailuak bereizita: batetik, batzuetan balio arau-emaile edo dogmatikoarekin erabiltzen dira, “to improve the

acquisition of translation competence” perpausak adierazten duenez; bestetik, “analyse and catalogue” horrek iradoki bezala, kategoriak deskripziorako erabil daitezke. Azterlan honek bigarren bideari baino ez dio helduko, ikerketa honen asmoa deskriptiboa baita. Azkenik, “itzulpen egoki” (bere hitzetan, *adequate translation*) horrekin zer esan nahi duen ez dakigu. Badirudi, itzulpenari dagokionez, helburu berarekin erabili izan direla izendapen batzuk eta besteak; ez da soberan, beraz, zehaztea.

Termino-saltsa horrek ekar ditzakeen gaizki-ulertuak saihestu nahian, Hurtado Albirrek (2001) honakoak definitzen ditu bereizketa argia eginez:

**Estrategia traductora:** procedimientos, conscientes e inconscientes, verbales y no verbales, internos (cognitivos) y externos, utilizados por el traductor para resolver los problemas encontrados en el desarrollo del proceso traductor y para mejorar su eficacia en función de sus necesidades específicas. (2001: 637)

**Método traductor:** desarrollo de un proceso traductor determinado regulado por unos principios en función del objetivo del traductor, respondiendo a una opción global que recorre todo el texto. Existen cuatro métodos básicos de traducción: interpretativo-comunicativo, literal, libre y filológico. Los métodos cambian en función del contexto y de la finalidad de la traducción. (2001: 639)

**Técnica de traducción:** procedimiento, visible en el resultado de la traducción, que se utiliza para conseguir la equivalencia traductora a microunidades textuales; las técnicas se catalogan en comparación con el original. La pertinencia del uso de una técnica u otra es siempre funcional, según el tipo textual, la modalidad de traducción, la finalidad de la traducción y el método elegido. (2001: 642)

Beraz, bereizketa horren arabera, itzulpen-metodoa ez litzateke xede-testuaren eta sorburu-testuaren arteko alderaketa bidez identifikatuko, baizik eta izandako itzulpen-prozesua aintzat hartuz. Prozesu horiek itzulpenaren helburuen arabekoak izanen dira, eta ez dira elkarren kontrako (Hurtado Albir 2001: 54). Estrategiei dagokienez, arazoei irtenbidea emateko prozeduretara mugatuz, beste diziplinetan (psikologian eta pedagogian, kasurako) ematen zaion adiera bera darabil. Ez da erraza, ordea, horiek identifikatzea, itzulpen-prozesuan hartzen diren erabakiak baitira, batzuetan oharkabean, eta ez dute xede-testuan adierazle argirik. Azkenik, itzulpen-teknikak dira mikro mailako azterketa deskriptiboetan identifikatzen ahal diren horiek; hots, prozesuan egindako itzulpen-hautuen ondorioz eta sorburu-testuarekin alderaketan xede-testuan ikusgarri diren horiek. Izan ere, itzulpen-tekniken azterketa sistematikoa eginez irits gaitezke estrategia/joerei buruz mintzatzera. Horrela, bada, hurrengo atalean, mikro mailako azterketa kontrastibo eta deskriptiboan, “itzulpen-teknika” terminoaz baliatuko gara kulturemak xede-testuan emateko erabilitako baliabideez aritzeko.

Hamaika<sup>116</sup> dira itzulpen-tekniken sailkapenak, baita kultur erreferentzien itzulpenera mugatzen direnak ere. Sailkapen orokorreari buruz ari garelarik, Vinay eta Dalbernetek (Künzli 2003: 10) zazpi itzulpen-teknika zerrendatu zituzten, bi multzotan banatuta: itzulpen zuzena, batetik (mailegua, kalkoa eta hitzez-hitzezko itzulpena), eta zeharkako itzulpena, bestetik (transposizioa, egokitzapena, modulazioa eta baliokidetzak). Orobat egiten ditu bi multzo horiek Vázquez Ayorak (Fernandez Guerra 2012: 6), nahiz eta teknikei bestelako izendapena eman: zeharkako itzulpen-prozedurak, batetik (egokitzapena, zabaltzea, konpentsazioa, baliokidetasuna, esplizitazioa, modulazioa, omisioa eta transposizioa); eta, bestetik, “metodo zuzenak” deitzen dituenak (kalkoa, mailegua eta hitzez-hitzezko itzulpena). Gutxi-asko, horiek dira sailkapen batzuetan eta besteetan aipatzen direnak, nahiz eta kopuruan aldea egon daitekeen. Adibidez, Hurtado Albirrek (2001) izaera dinamikoa eta funtzionala ematen die itzulpen-teknikei, eta hemezortzi hauek hartzen ditu teknika nagusitzat: «adaptación, ampliación lingüística, ampliación, calco, compensación, comprensión lingüística, creación discursiva, descripción, elisión, equivalente acuñado, generalización, modulación, particularización, préstamo, sustitución, traducción literal, transposición y variación» (Hurtado Albir 2001: 642). Nolanahi den, jarraian kulturemak ardatz dituzten sailkapenei baizik ez diegu begiratuko, eta, zehazki, osoen iruditzen zaizkigun proposamenei.

Horrela, bada, aurrez egin diren proposamenak aztertu, eta hamabost kategoria hauetan multzokatzen ditu Fernandez Guerrak (2012: 7-12): egokitzapena, mailegua, kalkoa, konpentsazioa, laburtzea/omisioa, deskribapena, baliokidetzak, zehaztea/zabaltzea, orokortzea, hitzez-hitzezko itzulpena, modulazioa, partikularizazioa, ordezkapena, transposizioa eta aldaera. Autoreak dioenez, badira tekniken sailkapenekin ados ez dauden teorialari batzuk ere: «Some authors [...] criticise the nature of these procedures, indicating that borrowings and calques, for instance, are not really translation procedures, while others (especially adaptation) are beyond the limits of translation» (Fernandez Guerra 2012: 22). Hain zuzen, honela definitzen du Fernandez Guerrak (2012: 7) adaptazioa: «It actually refers to a SL cultural element that is replaced by another term in the TC. [...] The basic goal of the translator when trying to ‘adapt’ the translation is to have a similar effect on the TL readers, ‘domesticating’, in a way, the cultural terms». Adaptazioa itzulpen-tekniketarik kanpo uzten badugu, itzulpenaren adiera mugatuko genuke eta, 2.3 atalean ikusi bezala, beste termino batzuk erabiltzera jo beharko genuke, berridazketa, esaterako. Aitzitik, uste dugu adaptazioa ere baliabide bat dela itzulpen-prozesuan, itzultzaileak aukeran duena, eta hori erabiltzeak ez duela emaitza itzulpen izatetik aldentzen. Azterketa deskriptibo baterako, gainera, kategoria baliagarria da; are gehiago, esanen genuke autoitzulpenaren azterketarako. Baliagarritasun horren erakusle da Fernandez Guerrak (2012) egindako ikerlan enpirikoa: ingelesetik gaztelaniara eta alderantzizko noranzkoan kultur erreferentziak itzultzean unibertitate ikasleek erabilitako «estrategiak» aztertu, eta honela aurkeztu dituen emaitzak: «results show a clear preference for borrowings, descriptions and adaptations» (Fernandez Guerra 2012: 23).

<sup>116</sup> Besteak beste, Nida (1964), Vázquez Ayora (1977), Newmark (1988), Hewson eta Martin (1991), Hervey eta Higgings (1992), Vinay eta Darbernet (1995), Franco Aixelá (1996), Hurtado Albir (2001), Molina Martínez (2001) eta Mangiron (2006).

Mattiolik (2014) ere gauza bera egiten du literatura-corpus batean oinarrituriko azterlanean; alegia, aurretik beste ikertzaileek egindako sailkapenak aurkezten ditu, eta horietatik abiatuta, berea proposatzen du. Hamahiru teknika zerrendatzen ditu ordenan, arrotzasuna gehien gordetzen duenetik etxekotzerako joera handiena duenera mailakatuz: «transposición, préstamo, naturalización, traducción literal, neutralización, hiperónimo, doblote, traducción estándar aceptada, paráfrasis explicativa, notas a pié de página, supresión de informaciones, omisión, equivalente cultural o funcional, creación autónoma» (Mattioli 2014: 52-54). Antzeko mailaketa bat egin zuen Franco Aixelák (1996b) hainbat urte lehenago, non itzulpen-teknikak bi multzotan banatu zituen, kulturema sorburu-kulturatik ala xede-kulturatik hurbilago ote zegoen: «The scale, from a lesser to a greater degree of intercultural manipulation, is divided in two major groups separated by their conservative or substitutive nature» (Franco Aixelá 1996b: 61). Eskema hau egin dezakegu Franco Aixelák (1996b) proposaturiko kategoriekin:

- I. Kontserbazioa
  - Errepikapena
  - Moldaketa ortografikoa
  - Itzulpen linguistikoa (ez-kulturala)
  - Testu kanpoko glosa
  - Testu barruko glosa
- II. Ordezkatzea
  - Sinonimia
  - Unibertsalizazio mugatua
  - Unibertsalizazio erabatekoa
  - Naturalizazioa
  - Ezabatzea
  - Sorkuntza autonomoa

Sailkapen horretan teknika batzuk kanpoan geratzen direla ohartarazten du Franco Aixelák (1996b: 64), ordura arte egindako azterketa enpirikoan oinarrituriko sailkapena baita proposaturiko hori. Hain zuzen, *The Maltese Falcon* obraren itzulpenetan ditu aztergai CSiak, eta azterketa horretatik hala ondorioztatzen du: «‘Common expressions’ (as opposed to proper nouns) are much more liable to substitution strategies, i.e. to cultural domestication» (Franco Aixelá 1996b: 75). Hala ere, esaten du 1950. urtearen inguruan Espainian joera zabaldu zela izen bereziak ere naturalizatzeko (Franco Aixelá 1996b: 74); azken urteotan joera hori desagertu eta izen bereziak bere horretan ematera jotzen bada ere, oraindik ere etxekotzeko hautuari eusten diote haur literaturako itzulpen askok.

Honenbestez, kulturema kontzeptua zehaztu eta itzulpen prozesuan itzultzaileak aukeran zer teknika dituen ikusi dugu. Hurrengo atalean, erreferentzia jakin batzuk hautatu eta corpusean aztergai izanen ditugu, kulturema horiek zer teknikaren bidez eman diren ikusteko. Izan ere, kulturemen azterketa (nola heterolinguisismoaren azterketa) bide baliagarri bat baizik ez da irudi orokorrari buruzko zertzeladak emateko; alegia, euskaratik erdarara egiten diren autoitzulpenetako joerak identifikatzeko.



### 6.2.1.3. Hautapen bat aztergai dugun corpuserako

Aztergai dugun corpusean, kultura geografikoari dagozkion toponimo jakin batzuk izan ditugu abiapuntu; zehazki, euskarazko testuak sortu diren testuinguru geografikoari dagozkion toponimo zenbaiten itzulpena aztertu dugu, baita horietatik eratorritako beste termino batzuk ere, ikuspegia osatzeko. Esan daiteke identitate nazionalari lotzen zaizkiola guztiak. Orobat egin dugu bilaketa xede-testuetan, emaitza zabalago bat lortzeko asmoz. Kontaketa argia egin nahian, sorburu-testuetan oinarrituriko bilaketa azalduko dugu lehenik, eta, ondoren, xede-testuan oinarriturikoaz mintzatuko gara.

#### 6.2.1.3.1. STn oinarrituriko bilaketa

Kulturema guztien artean toponimoak aukeratzea eta azpiko zerrenda osatzea erabaki dugu, testuak irakurtzean maiz agertzen zirela iruditu zaigulako. Hots, nahiko aldiz zehar-azterketa bat egin ahal izateko, betiere autoitzulpenaren joerak deskribatzea izanik ikerlanaren azken helburua. Hauek dira sorburu-testuan bilatu eta xede-testuekin alderaturiko terminoak:


1. Euskal Herria
2. Euskadi / Euzkadi
3. Iparralde / Ipar (EH)
4. Hegoalde / Hego (EH)
5. Nafarroa
6. EAE / Euskal Autonomia Erkidego
7. Vasconia / Baskonia
8. Euskaldun / euskaldundu / euskalduntasun / euskaldunki / euskaltzale
9. Euskal (jatorriari zein hizkuntzari)
10. Nazio / nazional
11. Aberri / abertzale / abertzaletasun
12. Vasc@ / basque / basc@ / basko

Zerrenda ahalik eta zabalena egin dugu, eta, hala, horietako batzuen sarrera esanguratsurik ez dugu lortu; zehazki, 7. puntuko adierazpiderik ez dugu aurkitu, eta, jarraian ikusiko dugunez, puntu batzuetako adierazpenak urriak izan dira. Bestalde, esan behar da 10. eta 11. puntuari dagokienez, euskal nazioari edo aberriari erreferentzia egiten dieten kasuei begiratu diegula soilik, eta, beraz, gainerako adierazpideak, halakorik egon bazenean, baztertu egin ditugula. Azkenik, geroago ere aipatuko dugunez, zaila izan da batzuetan 9. puntuari dagozkionak sailkatzen, batzuetan ez baita argi testua hizkuntzaz edo jatorri geografikoaz ari ote den; biak ala biak jaso ditugu.

Bilaketari ekin aurretik ere susma zitekeenez, hamar sorburu-testuetako zazpitan baizik ez ditugu aipaturiko kulturemak aurkitu. Izan ere, gainerako hirurak edo ez dira Euskal

Herrian gertatzen eta ez dute pertsonaia euskaldunik (CAN eta ROZ), edo ez dago erreferentzia geografiko identifikagarririk (ELO). Beraz, aurrerantzean ematen diren datu guztiak gainerako zazpi testuei dagozkie.

Sarrera kopuru gordinei begiratuta, azpiko irudia osatu dugu. Ez dira bilaketan izen osoak (goian zerrendaturikoak) grafikoa agertzen, espazio faltagatik, eta adierazgarriena baizik ez dugu jarri. Kopuru horiek gutxi gorabeherakoak dira, eta kopuru gordinak direla esan behar da, kasu batzuk ez baitira adierazgarriak izanen. Nolanahi ere, corpuseko agerpenen irudi bat ematen dutelakoan gaude.



**Irudia 10. Kulturema hautatuen kopuru gordinak, STn**

Lehen begi kolpean, argi dago, bada, hiru direla gailentzen diren sarrerak: 1. puntuari dagokion *Euskal Herria*, 8. puntuari dagozkion *euskaldun* eta horren aldaerak edo eratorriak (euskaldundu / euskalduntasun / euskaldunki / euskaltzale) eta 9.ari dagokion *euskal* adjektiboa, erreferentzia egiten diona izan hizkuntzari, izan jatorriari. Era berean ikusten dugu Vasconia/Baskonia ez dela behin ere agertzen, eta oso urriak direla beste batzuk, hala nola EAE (1), Hegoalde (4) eta Euskadi (5). Bilaketak deklinatu gabe egin ditugu kasu guztietan, eta programak ematen dizkigun aukera guztien arabera bilatu dugu,<sup>117</sup> ahalik eta emaitza zehatzena lortu asmoz.

Horien itzulpena banan-banan aztertzen hasi aitzin, azpimarratu behar dugu agerpen antz direla. Egia da BOR EU eta ZAL EU testuetan, batez ere, espero izatekoa zela kopuru handia, lehenak euskalduntasuna hizpide duelako, eta, bigarrenean, protagonistak

<sup>117</sup> Esaterako, corpusean bilaketak egiteko, programak hitz bat “Exacto”, “Empieza con” edo “Contiene” zehazteko aukera ematen du, hitza bere horretan bilatu nahi den edo bestela. Halakoetan, azkeneko bi aukerak hobestu ditugu, eta hitzen erroak jarri ditugu oro har bilatzailean; kasurako, “Aberri” bilatzeko, “Aber” sartu dugu, “Empieza con” aukeraren bidez, horrela “abertzale” modukoak ere lortzeko, nahiz eta gero, “abertzale” ere bilatu dugun, zenbakiek bat egiten zutelaz ziurtatzeko.

atzerrian euskara eta euskal kultura irakasten duelako; nolanahi den, corpuseko hamar testuetako zazpitan gehiago-gutxiago agertzea esanguratsua da.

**Euskal Herria** hartuko dugu lehenik. Goiko irudian ikusi bezala, agerpen gehien dituen toponimoa da. Lau testu hauetan agertzen da: BOR, JAI, ROD eta ZAL, eta batez ere lehenengoan eta azkenekoan. Sorburu-testuetan, gehienbat bere horretan agertzen da, espazio geografikotzat, baina batzuetan erakunde-izen baten parte da, eta besteren batean beste toponimo bati dagokio; behin baizik ez da adiera hauetan agertzen:

### 1. adibidea

[BOR EU] 1952#: Mintzaldi zenbait hauteman ziren oraino, apezak zuloa erramuz benedikatu zuen amultsuki, kontseilu orokorraren lehendakariak palatara bat lur bota zion hobian emeki sartzen ari zen kuxtari, **Euskal Herri Kultur Erakundeko** presidentek, ahots dardaratiaz Gure Aita sentitu bat eskaini zuen eta **Euskal Herri Konfederazioan** bildu elkarte arduradun bakoitzak, CRSen artetik bidea irekiz, arrosa soila aurtiki zuen aditzaren hutsa markatzen zuen gunera.

[ROD EU] 833#: Baina ez da eguzki errainurik sartzen estoreen zirrikituetatik, zu ez zauden sofa granatean, eta ez dago ez atzapar gihartsurik, ez tripa puztu iletsu eta zain lodiz betetakorik, ez lan osteko zirrikik bere emazteak ezagutzen ez duen **Euskal Herria kaleko** apartamentuan, ez sudur zabaleko gazterik Kubako hondartza batean, ez saunarik, ez ordu txikietako eskusartze alkoholiko eta anonimorik modaz haratagoko diskoteketan, ez ezer.

[ZAL EU] 1214#: Nik, bitartean, erruduntasun sentimendu handiaz, aspalditik geroraturtako betebeharrari ekin diot: ordenagailua piztu, **Euskal Herriko Unibertsitateko** web-posta zerbitzua aktibatu, eta nire mezu elektronikoen kutxa birtualean arakatzen hasi naiz.

Adibideotan ikusten dugunez, lehenak eta hirugarrenak erakunde-izen fikziozko zein ez-fikziozkoei egiten diete erreferentzia, eta bigarrenak kale izen bati. Horrela, hirugarrenak gaztelaniazko ordain ofiziala eman du xede-testuan, eta lehenak asmatu egin du erdarazko ordaina. Rodriguezek, berriz, bere horretan utzi du izena: «calle Euskal Herria» eman du ROD ES2 testuan. Bere horretan uztea ez da, ordea, baliabiderik ohikoena, segidan ikusiko dugunez.

Hainbat modutara ematen dute sorburu-testuko *Euskal Herria*. Azpian zerrendatu dugu ordain oro.

XT	Ordaina	Kop.
BOR FR	Pays basque	23
	ce pays	4
	basque	3
	Ø	7
	les Basques	1
JAI ES	Euskadi	1
	Ø	2
	aquí	3
ROD ES1/ES2	Euskal Herria (kalea)	1
	País Vasco	1
	Ø	1
	aquí	1
ZAL ES	País Vasco	34
	Pueblo vasco	1
	Ø	4
	Euskadi, Euskal Herria, Vasconia o como quiera que se denomine el pedazo de tierra del que provengo	1
	vasca	3
	Euskal Herria	2
	Vasconia	3

Taula 14. "Euskal Herria" kulturemaren ordainak

Taulak argi erakusten du zeintzuk diren joerak. Agerpen gehien dituzten testuetan – BOR eta ZAL–, baliokidetasuna da gehien erabilitako itzulpen-teknika. BOR FR kasuan, ezabapenak bi motatakoak dira: batzuetan, esaldi osoa ezabatu du, eta horregatik ez da kulturema agertzen frantsesezkoan; beste batzuetan, ordea, esaldia birformulatu egin du. Ordezkapen bidez, toponimoaren lekuan hizkuntza agertzen zaigu zenbaitetan:

## 2. adibidea

[BOR EU] 2300#: Jakintsuak ausarki frogatzen zuen famaren edukitzeko **Euskal Herrian** ez duela mensa bezala fantasia eta funtsik gabeko testu “kometitzen” tematzeak balio! Joanesen lehen liburuak halaz, euskal adiztegi osoaren oinarri eta paradigma gisa kontsideratu Iditegiko aditza zuen aztergai.

[BOR FR] 2300#: Le savant prouvait par a + b qu’il n’était pas nécessaire de s’acharner comme un dératé à rédiger des textes fantaisistes et infondés pour obtenir une solide réputation d’écrivain en **langue basque** !

[BOR EU] 2941#: Egia erran, **Euskal Herriak** eskaintzen zizkidan jantziez salbu, apaindura gutxi neukan lau haizeetara barreiatzeko.

[BOR FR] 2941#: A dire vrai, à part des vêtements achetés au profit de **la langue basque**, je n’avais pas beaucoup de fringues à prêter.

Ezabatzea guztiek darabilten baliabide bat da, gehiago-gutxiago, izan hautu estilistikoengatik, izan bestelako arrazoiengatik:

### 3. adibidea

[JAI EU] 1457#: Karlosek **Euskal Herritik** alde egin zuenetik ezin du horrelako notiziarik entzun.

[JAI ES] 1457#: Desde que Carlos desapareció no puedo escuchar estas noticias.

[ROD EU] 2021#: Alemaniatik **Euskal Herrira** bueltan zetorren, han hiru urte eta erdi ikasten pasa ondoren.

[ROD ES] 2021#: Martín volvía de Alemania tras tres años y medio.

[ZAL EU] 491#: nire asmoa **Euskal Herritik** ahalik eta gehien urruntzea den heinean, libratua nintzen behintzat *gure gauzez* hitz egiteko betebeharrak Anchoren horrelakorik gutxiengo taxu batez egin zezakeen pertsona bakarrarekin.

[ZAL ES] 491#: al menos me he librado de la obligación de hablar del *tema vasco* con la única persona —que yo sepa— que podía hacerlo con una mínima base académica —y sentimental— en Anchorage.

Esanguratsua da ere balio erakuslea duen *aquí* adberbioaren erabilera; ordain hori darabil Jaiok gehien, eta Rodriguezek behin. Hurbiltasuna adierazten badu ere, euskarazkoa baino zehaztugabeagoa da. 3. adibideko elipsiek ere zehazgabetasun hori adierazten dutela esanen genuke, irakurleari interpretaziorako aukera zabalduz. Taulan ikusi dugunez, batzuetan Bordak eta Zalduek *euskal* adjektiboaren baliokidea litzatekeena erabili dute xedetestuan, euskarazkoan toponimoa agertzen zen tokian:

### 4. adibidea

[BOR EU] 2846#: Joanesen trakako jendeak gure sentimendu euskaldunetz baliatzen zirela erran nuen neurekiko bidean zehar, haize farfailen antzera erabiltzen gintuzten, batean borroka armatua eta bestean, argumentu berez justifikatua, **Euskal Herri departamenduaren** itsuki sostengatzea eskatuz.

[BOR FR] 2846#: Les gens du genre de Joanes s’amusaient avec nos sentiments basques, ils les secouaient comme des épouvantails pour justifier un temps la lutte armée, une autre fois le **département basque**, avec toujours les mêmes phrases, tablant sur notre énorme faculté d’oubli qui les rassurait.

[ZAL EU] 1187#: **Euskal Herriko errepublikak** bat egin zuen, 1949an, NATOrekin, eta, 1957an, Europako Elkarte Ekonomikoarekin.

[ZAL ES] 1187#: La **república vasca** se integró en la OTAN en 1949, y en 1957 en la Comunidad Económica Europea.

Esanguratsua da hainbeste ordain erabiltzea euskarazko termino bakarrarentzako. Gutxitan agertzen den testuetan ere, Jaiorenean eta Rodriguezenean, alegia, ez dute bide bakarra erabiltzen, eta askotara ematen dute. Zalduek kasuan da bereziki askotarikoa ordaina; besteak beste, protagonistak asmatzen duen historia eta kulturari egiten dizkion erreferentziei egozten ahal diegu agerpen kopuru handia, nahiz eta horrek ez duen azaltzen gaztelaniaren ordain hautaketa askotarikoa.

**Euskaldun** izena hartuz gero, agerpen kopuruan bigarren dena, ikusiko dugu ordainak ere askotarikoak direla, eta testu gehiagotan agertzen dela; zehazki, seitan: BOR, JAI, ROD, ARK, ZAL eta EPA. Arestian esan bezala, zaku honetan sartu ditugu *euskaldun* horretatik eratortzen ahal direnak: euskaldundu, euskalduntasun eta euskaldunki, baita, antzekotasun semantikoagatik, euskaltzale ere. Azpiko taulan bildu ditugu horien agerpenak.

Forma	XT	Ordaina	Kop.
Euskaldun / Eskualdun	BOR FR	(les) Basque(s)	27
		nous	4
		bascophone	3
		Ø	4
		(les) abertzale	1
	JAI ES	nosotras	1
		nuestro país	1
		amiga	1
	ROD ES1/ES2	vasco(s)	4
		Ø	1
	ARK FR	Ø	7
	EPA ES1/ES2	Ø	4
		vasco	16
		Martín	3
	ZAL ES	vasco/a(s)	15
		nuestra tierra	1
		euskaldun	1
euskaldún		1	
estos-nosotros		1	
vascones		1	
Euskaldundu	BOR FR	basquiser	1
		(me sentir) basque	1
Euskalduntasun / Euskaldun nortasun	BOR FR	Ø	2
		basquitude	1
		identité basque	1
		peuple basque	1
Euskaldunki	BOR FR	Ø	1
		basquaise	1
Euskaltzale	BOR FR	basquisant	5
		Basque(s)	1
		nationaliste	1
		Ø	1
		(chercheurs) basque(s)	1

**Taula 15. "Euskaldun" eta horren aldaeren ordainak**

Bordaren kasuan, xede-testuko (*les*) *Basques* hori batzuetan letra xehez agertzen da, eta, beste batzuetan, larriz. Era berean, *euskaldun* eta *basque* horiek batzuetan adjektibo funtzioa dute, eta beste batzuetan jentilizioari dagozkio, azpiko adibideek erakusten dutenez. Nolanahi den, esan behar da ez dagoela baliokidetasuna egiterik idazketaren (xehez-larriz) eta funtzioaren (izena-adjektiboa) artean.

## 5. adibidea

[BOR EU] 2035#: Gerotik gerora zebilen **euskaldun** bakoitzaren antzera, Sarako teologo mediatikoa argia zen.

[BOR FR] 2035#: Comme celle des **Basques** qui voguent d'avenir en avenir sans jamais s'arrêter au présent, la réponse du théologien insomniaque de Sare jaillissait, claire : le présent était un péché, véniel, mais péché quand même.

[BOR EU] 1741#: **Euskaldun** artzainei beste dohainik ere ukatea eskatzen zitzaien garai haietan arras tipiko, autentiko eta sinesgarri izateko.

[BOR FR] 1741#: La société civile exigeait des bergers **basques** des qualités supplémentaires pour être totalement crédibles, authentiques et typiques.

[BOR EU] 1670#: Badakit errealitatea den bezain hotz eta monolitiko kontsideratzea hobe dela, baina egunerokotasun dorpearen ñabardura zenbait, zorigaitzez, izugarri gustukoak ditut, errealitatearen aldatzeko jaidura daukan **euskaldun** gisa are maiteago naski.

[BOR FR] 1670#: Il faut considérer le réel monolithique avec froideur, me répètent-ils, il y va de ma propre santé mentale. Toutefois, j'apprécie en silence les quelques déformations que me propose le quotidien, plus encore en tant que **basque** qui aime à transformer la réalité à son profit.

Batzuetan, Bordaren testuan, zehaztu egiten da *euskaldun* horrek hizkuntzari eta ez jatorriari egiten diola erreferentzia, *bascophone* horren bidez, esaterako. Bakarra da bereizketa hori argi uzten *euskaldun* erreferentziaren kasuan. Kontrara, jatorriaz eta ez hizkuntzaz ari direla zehazten dute erdarazkoan autore batzuek, eta, zenbaitetan, beste adiera batzuek ordezten dute *euskaldun* hori:

## 6. adibidea

[JAI EU] 223#: Maite saiatu zen Lewisi azaltzen neska **euskaldunak** hangoak baino trebatuago zeudela, txosna askotan ibilitakoak zirela, Lewisek txosnak zer ziren jakin balu bezala.

[JAI ES] 223#: Mientras yo intentaba digerir el estereotipo de mujer que aquel chico rubio tenía grabado en su mente, Maite intentó explicar a Lewis que **nosotras** estábamos más entrenadas que las chicas de allí, que nosotras habíamos visitado mucha *txosna*, como si Lewis supiera lo que era una *txosna*.

[JAI EU] 259#: Exotikoa iruditu zitzaion orduan Lewisi **euskaldunei** buruz kontatu zioten guztia.

[JAI ES] 259#: Aquel chico delgaducho y rubio al que le pareció muy exótico todo lo que le contamos sobre **nuestro país** era Lewis.

[JAI EU] 1596#: Eskerrak **euskaldun** batekin batera dagoela han, esaten zuen zure amak, hain dira tristeak Ingalaterrako neguak.

[JAI ES] 1596#: Tu madre decía: “Menos mal que ha ido con una **amiga**, son tan tristes los inviernos de Inglaterra...”

[ZAL EU] 567#: Lehenengo egunak pixka bat urduri igaro ditut, downtowneko izkinaren baten bueltan euskal etxe edo jatetxeren bat topatuko nuelako beldurrez, Anderson irakaslea ezagutzera heldu ez zen txokoren bat alegia, edo **bidaiari euskaldunen** bat, goitik behera Ternua materialez hornituta.

[ZAL ES] 567#: De hecho, he pasado los primeros días algo nervioso, con miedo a doblar una esquina en el downtown y toparme con una Casa Vasca llena de ikurriñas y lauburus grabados en madera, o con un asador de nombre Orió —o Gernika, o Akelarre—: algún local que, por una remota casualidad, hubiera escapado a las pesquisas del profesor Anderson. O a darme de bruces con algún **turista de nuestra tierra**, equipado de pies a cabeza con ropa de montaña de la marca Ternua —aunque bien es cierto que dicha indumentaria tendría aquí más sentido que por ejemplo en el paseo de la Concha, donde suele ser habitual—.

[BOR EU] 2324#: **Euskaldun** horiek aditza hurrupatzen duten bitartean, guk ricard honi tinkaldi bat eman diezaiogun arraiki.

[BOR FR] 2324#: Tandis que tous ces **pseudo-savants** goûtent à petites gorgées le nectar du verbe basque, allons boire ce Ricard qui nous attend avec une impatience jaune.

Argi ikusten denez, Jaiok ordezkapena darabil *euskaldun* hitzaren agerpen guztietako itzulpenean, baina kasu bakoitzean modu batera ematen du. Gainera, ez da hizki lodiz jarri dugun hitza soilik aldatzen; lehenengoan testua gehitzen du erdarazkoan, eta ikuspegia aldatu egiten da bigarren kasuan. Era berean, aipatzekoa da Jaiok *txosna* hitza uzten duela erdarazkoan, letra etzanez. Bordaren testuan, *basque* adjektiboa “verbe” izenari jartzen dio. Batean zein bestean, beraz, konpentsazioa gertatzen dela esan daiteke.

Ezabatzea ere gertatzen dela jaso dugu taulan, kopuruz gutxitan izan arren. Nabarmena da, hala ere, Arkotxaren testuan gertatzen dena; 14 aldiz agertzen da sorburu-testuan *euskaldun*, baina 7 dira frantsesera itzulitako pasarteetan agertzen diren aldiak, eta horiek dira taulan jasotakoak. Pasarte itzulietako 7 horietako batzuetan, esaldi osoa kentzearen ondorioz gertatzen da ezabatzea, eta, beste batzuetan, hitza bera da ezabatua. Hauek dira oro har bildu ditugun ezabatze kasu batzuk:

## 7. adibidea

[ROD EU] 2397#: Txiki-txikia sentitu zen, akordatu zenean, **gurasoak euskaldunak ez izateaz gain**, aita beti mozkor egoten zela eta ama beti haserre, negarrez edo telebista ikusten.

[ROD ES2] 2397#: Se sintió muy pequeña al recordar que su padre siempre estaba borracho y, la madre, enfadada, llorando o viendo el televisor.

[ARK EU] 1502#: Norris Pointen den hersturaren gibelean, Baya Ederra zabalduz doa, lehen **Euskaldunek** Granbaya zeritzaten San Laurendiko ur-golko handian sartu arte.

[ARK FR] 1502#: Une fois dépassé l'étranglement de Norris Point, Baya Ederra s'élargit ensuite de plus en plus jusqu'à atteindre l'actuelle Baie du Saint-Laurent, anciennement Grand Baya.

[EPA EU] 915#: Bota egin dut, bota egin dut! —*remingtonaren* kainoi-zulotik irteten zen kearen artetik, Davidsonen deiadarrak tiroaren hotsak baino gehiago sorgortu zuen **euskalduna**.

[EPA ES1/ES2] 915#: ¡Le he dado, le he dado! Entre el humo que salía del cañón del Remington, el aullido de victoria de Davidson le resultó mas ensordecedor, si cabe, que el ruido del disparo.



Epaltzarenean, *euskaldun* hitzak Ameriketara dagoen Martin izeneko pertsonaia bati egiten dio erreferentzia, eta, beraz, *vasco* agertzen den guztietan, artikulua determinatzaileaz lagunduta dator; era berean, hitza ezabatzen duen 4 kasuetan, hautu estilistiko garbia dela esan genuke, errepikapenak gutxitzeko akaso, elipsiak euskaldunari erreferentzia egiten baitio guztietan. Hautu estilistiko hori ere esanguratsua da, erdarazkoan errepikapenak gutxitzera jotzen baitute autoitzultzaileek. Ezin gauza bera esan 7. adibideko beste bi kasuez, non ezabatze horrek *euskaldunak* dakarren edukia desagerrarazten duela esan baitaiteke.

Kopuruz gehiagotan Bordarenean agertzen bada ere, Zalduak ematen ditu ordain gehiago, nagusia *vasco/a* izan arren. Guztiak aintzat hartuta, ordain ugaritasun horren arazoia identitatearekin lotzen ahal dugu, edo identitate gatazkarekin; taulan eman dugu, esaterako, *Euskal Herria* izen bereziaren ordainetako bat «Euskadi, Euskal Herria, Vasconia o como quiera que se denomine el pedazo de tierra del que provengo» (566#) dela ZAL ESn. Labur esanda, *aleman* agertuko balitz, segur aski ez genituzke hainbeste ordain izanen.<sup>118</sup> “Gatazka” horren adierazle, bi adibide hauek emanen ditugu *euskaldun* hitzarekin bukatu aitzin:

## 8. adibidea

[ROD EU] 464#: Hemen ere latza duk egoera, faxistek inguraturik gaitiztek, eta ez zigutek **euskaldun bizitzen** uzten.

[ROD ES1] 464#: La situación aquí también está jodida, los fascistas nos tienen rodeados, y no nos dejan **ser vascos**.

[ROD ES2] 464#: La situación aquí también está jodida, los fascistas nos tienen rodeados, y no nos dejan **vivir como vascos**.

[ZAL EU] 998#: Erromatarrak ez ziren ausartu euskal lur sakratuan sartzen, eta halakorik egin zutenean –Veleia, Pompaelo edo Oiasso bezalako hiri guztiz indigenetan bizitzeko–, euskaldunen baimenarekin izan zen, eta **haiek –guk– ezarritako baldintzen** pean.

[ZAL ES] 998#: Los romanos apenas se atrevieron a pisar el sagrado suelo vasco, y cuando lo hicieron —para convivir con los antiguos éuscaros en ciudades *plenamente* indígenas como Veleia, Oiasso o Pompaelo—, fue con el permiso expreso y bajo las condiciones impuestas **por estos —es decir, por nosotros—**.

Lehenengoan, autoitzulpen batetik bestera aldatzen da aditza, eta ROD EUn eta ROD ES2n *izan* dena *bizi* da ROD ES1n. Bigarren kasuak, bai sorburu-testuan bai xede-testuan, 3. pertsona darabil euskaldunei erreferentzia egiteko, eta gero, jarraian, 1. pertsona zehaztaperen modura (erdarazkoan argiago). Biek ala biek agerian uzten dute identitatearekin lotzen ahal dugun gatazka, 2. atalean hizpide izan dugun norbera/gu vs. bestea horren bidetik.

*Euskaldun* hitzetik eratorritakoei dagokienez, Bordaren testuetan baizik ez ditugula aurkitu jaso dugu taulan. Horiek banaka hartuta kopuruz asko ez badira ere, guztiak batera

<sup>118</sup> Hipotesiekin jarraituz, esan genuke ezaugarri bereko alemanezko corpus batean, ez litzatekeela hainbeste aldiz *aleman* agertuko.

aztertuta, berriz ere esanguratsua da harturiko bideen ugaritasuna. Azpian jarri ditugu adibide batzuk.

## 9. adibidea

[BOR EU] 2113#: **Euskaldun nortasunak** ilunpe etengabeak zedarritzen du?  
 [BOR FR] 2113#: La pénombre continue fixe-t-elle **l'identité singulière du peuple basque**?

[BOR EU] 530#: Egia bere latzean pairatu eta “Euskara etxean baino auzoan” erabiltzera deitzen zuten **euskaltzale** belaunaldiak madarikatu zituen.

[BOR FR] 530#: Il finissait par apercevoir enfin la vérité et il se mit à maudire toute une génération de **basquistes** qui se contentaient de glousser «apprendre le basque, quelle calamité, ça n'arrive qu'aux autres ».

[BOR EU] 1631#: Aileza euskarak aski luzaz iraun, ikus dezagun, **hautetsi euskaltzale** baten mintzairarekiko politika!

[BOR FR] 1631#: Paradoxalement, les moins intéressés par ce prétexte linguistique semblaient être les **élus nationalistes**, tous obnubilés par la construction nationale en vue de l'indépendance méritée de notre territoire déchiré entre la France et l'Espagne.

Adibideotan ikusten dugunez, sormen diskurtsiboa erabiltzen du hiru kasuetan, ezpada aztergai dugun kultur erreferentziari ordaina emateko, lehenengoan bezala, bada esaldia bera itzultzeko, bigarren eta hirugarren kasuetan. Taulan ageri denez, batzuetan, autoreak ezabatzeraz jo du:

## 10. adibidea

[BOR EU] 314#: Euskal Herri osoa Gasna Bideaz zeharkatua zen garai haietan biderik hoberena zen etxeratzeko, botere publikoek **euskalduntasunaren** zigilua zekarren urrakoa erabilgarri eta egoki izateko gisan bereziki zaintzen zutelako.

[BOR FR] 314#: Le meilleur moyen pour rentrer à la maison restait la Route du fromage qui traversait le Pays basque d'est en ouest, coulée de macadam particulièrement soignée par les pouvoirs publics.

[BOR EU] 2361#: Euskaltzainburuak taula gainera Ohoratua iragarri bezain laster, paralitiko aulkian lau gizon azkarrek garraiatua eta erizainak, perfusioak ahurrean atzetik zetozkiola agertu zen Joanes, **euskaltzale** suharra, euskara salbatzeagatik hondar hats buhakoraino bizia galduko zuena.

[BOR FR] 2361#: Dès que le président de l'académie basque annonça l'honorable honoré, Joanes parut sur une chaise roulante soulevée par quatre hommes puissants, suivis par un autre qui traînait un pied sur roulettes d'où pendait la perfusion qui maintenait en vie celui qui avait usé ses nombreux jours pour sauver la langue basque.

Kasu hauetan ere, aztergai ditugun erreferentziak desagertu arren, edo horregatik ere, sormen diskurtsibora jotzen duela ikus dezakegu esaldiak osorik aintzat hartuta.

Hirugarren kulturema ugariena **euskal** adjektiboa dugu; *Euskal Herriaren* kasuan bezala, lau idazleren testuetan agertzen da: BOR, ZAL, MEA eta ARK. Batzuetan, toponimiari edo jatorriari egiten dio erreferentzia; beste batzuetan, berriz, hizkuntzari. Zenbait kasutan zaila egin zaigu bereizketa hori egitea;<sup>119</sup> azpiko taulan jaso ditugu gutxi gorabeherako agerpenak eta horien ordainak.

Forma	XT	Ordaina	Kop.
Euskal (jatorria)	BOR FR	basque	13
		cette (nation)	1
		notre (identité naturelle)	1
		∅	4
	ZAL ES	vasca/o	21
		País Vasco	3
		nuestra	2
	MEA ES	euskal	1
	ARK FR	∅	2
	Euskal (hizkuntza)	BOR FR	basque
∅			4
bascophone			1
ZAL ES		∅	4
		vasca/o	12
		euskera	2
		vascuence	1
		nuestra(s)	1
MEA ES		vasca	1

**Taula 16. "Euskal" adjektiboaren ordainak**

Aurreko bietan ikusi bezala, oraingoan ere hamaika molde ditugu euskarazko forma bakarrarentzat, nahiz eta ohikoenak, alde handiz, baliokidetzat jo daitezkeen *basque* eta *vasca/o* diren. Aipatzekoa da Arkotxaren kasuan, 5 aldiz agertzen dela *euskal* sorburu-testuan, baina taulan 2 jarri dugula, gainerakoak itzulita ez dauden pasarteetan agertzen baitira. Berriz ere, liburuetakoa gaiarengatik espero izatekoa zenez, Zalduarenean eta Bordarenean jaso ditugu agerpen gehien.

Jatorriari erreferentzia egiten diotenen artean, adjektiboa hainbat izeni lotzen zaio. Ez dirudi, ordea, kasuan kasuko izen hori denik adjektiboaren itzulpena baldintzatzen duena, azpiko adibideek erakusten dutenez.

<sup>119</sup> Halakoetan, testuinguruaz baliatu gara batean edo bestean sailkatzeko. Konparazio baterako, Zalduaren testuan honela ematen da:

[ZAL EU] 1332#: Errioxako Euskal Probintzia Autonomoko presidentearen enegarren salaketa Errepublikaren asmo "zentralizatzaileak" direla eta.

Gazteniazkoan «Provincia Autónoma de La Rioja» ematen da, *euskal* hori gabe; pentsa daiteke sorburu-testuan bai jatorriari bai hizkuntzari egiten diola erreferentzia adjektiboak, eta xede-testuak ez du zalantza argitzen; azkenean, espazio geografiko batez ari denez, jatorriari dagokiola ondorioztatu dugu, eta halakotzat sailkatu.

## 11. adibidea

[BOR EU] 2167#: Euskalduntasuna ederki gerizatzen duen Gasnarik eta artzainik gabe eraiki nahi ahal duzu etzidamuko lurraldeak oro mistika berdinen ardatzean bilduko dituen **euskal nazioa**?

[BOR FR] 2167#: Veux-tu participer à la construction de la future **nation basque** qui englobera toutes les provinces actuelles autour d'une même mystique, sans berger et sans fromage qui assure si bien l'identité basque ?

[BOR EU] 2168#: Zertarako ez dugu jagoitik gasnaren azaletan mintzatuz preseski **euskal nazio** horren forma juridikoaz hitz egiten?

[BOR FR] 2168#: Pourquoi ne pas discuter d'ores et déjà de la forme juridique de **cette nation** en gestation ?

[BOR EU] 2741#: **Euskal nazio** bat duinki eraikitzea lortuko dugunean klase borrokaz axolatuko gara;

[BOR FR] 2741#: Nous nous occuperons de la lutte des classes quand nous aurons mis en place **une nation digne de ce nom** ;

[ZAL EU] 171#: Orduz geroztik, nola ez, Mark Kurlanskyren liburua irakurri zuen, baita Knörrek bidali zizkion zenbait gauza ere, eta biziki zaletu zen **euskal kontuekin**.

[ZAL ES] 171#: Se llama Seth Anderson y, por lo que cuenta —algo sabía yo de antemano—, conoció a Knörr en un congreso sobre toponimia: lo que le contó allí sobre los vascos, por lo visto, fascinó al estadounidense, y después se leyó el obligado *The Basque History of the World* de Mark Kurlansky junto a unas cuantas cosas más que le envió Knörr, de manera que terminó aficionándose al **tema vasco**.

[ZAL EU] 186#: Bera ere, **euskal kontuekiko** interesa piztu zitzaionean, saiatu zela euskaldunen arrastoak topatzen bertan, baina, Boisetik 1960ko hamarkadan hara joandako bikote bat izan ezik, ez zuela inor aurkitu —erretreta hartzean itzuli ziren, gainera, Idahora—, eta, ondorioz, ezin izan zuela euskararen eta euskaldunen inguruko talderik sortu Anchorage, bere intentzioa hori izan zen arren —penaz esaten dit hori bere mezuan—.

[ZAL ES] 186#: Cuando empezó a interesarse por el **País Vasco** intentó encontrar vascos por aquellos parajes, pero aparte de una pareja de Boise que, por lo visto, emigró allí en los años sesenta —y regresó a Indiana en cuanto se jubiló—, no dio con la pista de nadie más y, por consiguiente, no pudo fundar ninguna asociación vasca en Anchorage, como era su intención —lo que, añade en su mensaje, es «una verdadera pena»—.

[ZAL EU] 493#: Egia da urruntze hori ez dela osoa izango, eskoletan **euskal kontuez** aritu beharko baitut, baina hori ez zitzaidan —eta ez zait— bide-sari garestiegia iruditzen:

[ZAL ES] 493#: No me resultará fácil aislarme de **lo vasco** durante mi estancia, dado que en las clases, inevitablemente, tendré que tratar de la materia, pero no es un peaje tan caro,

Adibide hauetan ikusten dugunez, euskarazko forma bakarrerako, *euskal nazio* BOR EU testuan eta *euskal kontu* ZAL EU testuan, hiruna ordain darabiltzate. *Euskal* adjektiboarekin doazen izen guztien kasua ez da hori; hala ere, aipatu aniztasunaren adierazle da. Pentsa

daiteke Bordaren bigarren adibidean (lehenaren jarraian dator testuan), errepikapena saihesteko ematen duela beste modu batean. Nolanahi den, erdarazkoan errepikapena saihestea baldin bada itzulpen-hautuaren arrazoa, berdin da esanguratsua, euskarazkoan errepikatu egiten baita. Orobat pentsa daiteke Bordaren hirugarrenean konpentsazioa gertatzen dela, “duinki eraiki” ematen baitu euskarazkoak. Aldatu egiten da, nolanahi ere, interpretazioa.

Kopuruz urriak badira ere, aipatzekoa da posesiboaren erabilera, bai Bordarenean bai Zalduarenean aurkitu duguna.

## 12. adibidea

[BOR EU] 2287#: alabaina gure manifestaldi, negoziazio, burutazio, imana zio, isila zio bezalako hitzen sustraia ez ziren benetako **euskal jatorrikoak**, “bilakaera” mugatuegikoak aldiz Joanesen talentu zilarraren ez kolpatzeko.

[BOR FR] 2287#: en effet, les radicaux de nos manifestations, de nos réflexions entre deux génuflexions, de nos négociations aveugles, de nos options ou de nos actes manqués ne s’enracinaient pas dans **notre identité naturelle**.

[ZAL EU] 729#: **euskal gizarte** primitibo matriarkala –gure hizkuntzaren sexismo ezak frogatzen duen bezala–;

[ZAL ES] 729#: **nuestra** primitiva **sociedad** matriarcal, como bien demuestra la absoluta falta de género y, por lo tanto, de sexismo en nuestra lengua;

Posesiboa erabiltzearekin batera, ikusten dugu gehiketa darabilteela biek, aztergai dugun erreferentzian bertan Bordak, eta esaldian aurrerago Zalduak.

Bestalde, nabarmentzekoa da MEA ESk bere horretan uzten duela jatorriari erreferentzia egiten dion *euskal* hori, beste inon agertzen ez den baliabidea:

## 13. adibidea

[MEA EU] 690#: **Euskal geishak** polito atonduta izaten zuen mahaia:

[MEA ES] 690#: La **euskal geisha** acondicionaba la mesa con gusto:

Oro har Meaberen itzulpen-hautuekin bat egiten duen baliabidea da, xede-testuan hitz batzuk euskaraz utzi eta bukaeran glosario batean azaltzen baititu (Arrula-Ruiz 2017). Aipatzekoa da arrotasun efektua handia dela sorburu-pasartean ere, euskaraz ez baitugu [sh] konbinaziorik.

Azkenik, zenbaitetan jatorriari dagokion *euskal* adjektiboa ezabatu egiten da xede-testuan:

## 14. adibidea

[ARK EU] 1562#: Barrari esker sortzen den eremu akuatikoa **euskal arrantzaleek** anitz estimatzen zuten bakailoa ur garbian garbi zezaketelakotz eta partikulazki *pinalak* deitzen zituzten taulazko eraikuntzarik gabe, legar larriaren gainean xinpleki pausatuz, idorraz zezaketelakotz.

[ARK FR] 1562#: Elle délimite en amont une zone quatique protégée fort appréciée des **pêcheurs** qui pouvaient autrefois y nettoyer la morue et la mettre à sécher directement sur les gros galets.

[BOR EU] 3227#: Bakeagatik Ganimesdesko edozein izakiren urratsetan sar nitzakeen eneak, haiek errana eta manatua, fidelki obratuz, hainbat urtetan, **euskal mugimenduaren** lemak, edukiz bakarretan jasanezinak niretzat, baina zer inporta militantea nintzen ez? neuretu nituen bezalaxe.

[BOR FR] 3227#: Pour l'amour et pour la paix, je pouvais mettre mes pas dans ceux d'un(e) ganymèdien, obéir fidèlement à ses ordres comme je l'avais fait durant de longues années en me soumettant aux slogans du **mouvement**, au contenu parfois inacceptable pour mon éthique, mais j'étais militante limitée, non ?

Arkotxaren kasuan, sistematikoa da ezabatze hori, aurretik ere aipatu baitugu *euskaldun* hitzarekin hala egiten duela. Badirudi, beraz, tokiko erreferentziak kentzeko hautua egin duela, bestela gordetzen badu ere euskal kutsua; Ternuan kokatzen da istorioa, eta euskarazko toponimoak xede-testuan ere agertzen dira, geroago heterolinguismoa hizpide hartzean ikusiko dugunez. Bordaren adibidean, berriz, zehaztu gabe uzten du xede-testuan, irakurleak baleki bezala zer mugimenduz ari den.

Errazagoa da identifikatzen, beharbada, *euskal* adjektiboa noiz ari den argiki hizkuntzaz. Halakoetan ere, ordainak askotarikoak dira, kopuru aldetik erabilienak *basque* eta *vasca/o* diren arren. Hauek kasu batzuk:

## 15. adibidea

[BOR EU] 262#: zuen junta hurbil batean, alu pitilin setio egoera saio horientzat **euskal ele** polit bat asma zenezakete?

[BOR FR] 262#: ne pourriez-vous pas, lors de l'une de vos futures réunions à Bilbao, inventer un joli **nom en langue basque** pour nommer ces situations délicieuses même pour les plus chastes où les cons se débitent en carrés et vice versa ?

[MEA EU] 781#: Oraingoan, **euskal poesiaren** larrosa ez doa urrunago igeri.

[MEA ES] 781#: La rosa de la **poesía vasca** no puede, esta vez, nadar más lejos.

[ZAL EU] 729#: Ikasleen aurrean **euskal hizkuntzaren** historia miresgarria irudikatu ondoren, gramatika kontuen azalpen aseptikoagoetan murgildu naiz, zeinetan ez baitiet gezur askori heldu behar izan:

[ZAL ES] 729#: Después de haber desgranado ante mis alumnos la maravillosa historia del **euskera**, les imparto algunas nociones de gramática, en esta ocasión de forma mucho más aséptica, dado que no tengo por qué mentirles en exceso:

Hiru bide, beraz, adjektibo beraren itzulpenerako, nahiz eta erdarazko guztiak euskaraz ari. Bestalde, gainerakoetan bezala, hizkuntzari erreferentzia egiten dion adjektiboa, batzuetan, ezabatu egiten da xede-testuan; hala gertatzen da bai Bordaren, bai Zalduaren kasuan:

## 16. adibidea

[BOR EU] 498#: Euskaltzaindia, Euskaltzaleen Biltzarra, Euskararen Kontseilua, Euskal Konfederazioa, Euskara Zerbitzuak, denak oro bildu ziren Balantsunek merezi zuen **Euskal ekitaldi** erraldoiaren euskaldunki antolatzeko, noizbehinka euskaraz, partehartzailearen arabera.

[BOR FR] 498#: L'académie basque, l'assemblée des basquistants, le conseil de la langue basque, la confédération des associations basques, les services de la langue basque s'associeraient, quelques-uns parlant encore le basque, pour offrir à Balantsun une grande **fête commémorative** digne d'un talent artistique irremplaçable et irremplacé depuis sa mort.

[ZAL EU] 843#: Zuberoako pastoralak Molièreren komediekin parekatu ditut, hala publikoan sortzen zuten zaletasunean nola umore eta dinamismoan —jakingo balute!—, eta, Axular bigarren mailako sermolaritzat jo ondoren —eta hala litzateke zinez, **garaiko euskal literaturan** horren autore gutxi egongo ez balira—, zenbait **euskal idazle** berri asmatu ditut XVII. menderako, eleberri pikareskoaren arloan batik bat, poesia kultua alde batera utzi gabe noski:

[ZAL ES] 843#: He comparado las pastorales suletinas con las comedias de Molière, tanto en lo que se refiere a las pasiones que levantaban entre su público como a su humor y agilidad —¡si supieran mis alumnos lo aburridos que pueden llegar a resultar esa especie de autos sacramentales, fósiles convertidos hace años en una atracción meramente turística!—, y después de calificar a Axular, en vez de cumbre de **nuestras letras clásicas**, como autor de sermones de segunda fila —lo que sería en realidad, si no anduviéramos tan escasos de autores en su época—, me he inventado unos cuantos **escritores** para el siglo XVII, sobre todo en el género de la novela picaresca, sin dejar a un lado la poesía culta:

Bordaren kasuan, *euskal* adjektiboaren errepikapenak dakar komikotasuna, eta horrek egiten du pasarte ironiko. Xede-testuan, aldiz, ez da ez *euskal* ez *euskaldunki* agertzen, eta eutsi egiten zaie gainerako guztiei. Zalduarenean, beste modu eta beste leku batean ematen da letra lodiz agertzen den lehenengoa, posesiboaren bidez hain zuzen («garaiko euskal literatura» > «nuestras letras clásicas»), eta ulertzen da euskarazko literaturaz ari dela. Bigarrenean, berriz elipsi bidez ematen da «euskal idazle» hori, errepikapenak saihesteko joerarekin lotzen ahal duguna, eduki aldaketarekin baino gehiago.

Azkenik, **gainerako kulturemen** kopuruak hain ugariak ez izanik, batera aztertuko ditugu; aurretik esan dugunez, hauek bildu ditugu: Euskadi, Iparralde, Hegoalde, Nafarroa, EAE, nazio, aberri eta *vasc\*/basque*. Horiek eta horietatik eratorriak bilatu ditugu, baita aldaera grafikoak ere, emaitza ahalik eta osoena lortzeko. Azpiko taulak erakusten ditu agerpen kopuruak, iturriak eta ordainak.

Forma	XT	Ordaina	Kop.
Euskadi / Euzkadi	BOR ES	Pays basque	1
	ZAL ES	Euskadi	2
		Euzkadi	1
	MEA ES	Euskadi	1
Iparralde	BOR FR	(du) Nord	1
		Ø	1
		Pays basque Nord	2
	ZAL ES	País Vasco continental	1
Hegoalde	BOR FR	Pays basque Sud	1
		(du) Sud	2
Nafarroa	BOR FR	Nafarroa (Oinez)	1
		Navarre	4
	ROD ES1/ES2	Nafarroa (Oinez)	1
		Navarra	1
	ZAL ES	navarro	1
		Navarra	8
		Ø	2
Euskal Herria	1		
Euskal Erkidego Autonomo	ZAL ES	Comunidad Autónoma Vasca	1
Nazio(nal)	BOR FR	nation	3
		national	1
	ZAL ES	nacional	1
		pueblo	1
Aberri / abertzale(tasun)	ZAL ES	patria	3
		nacionalismo (vasco)	2
	BOR FR	nationaliste	2
		abertzale	4
		Ø	1
	ROD ES1/ES2	abertzale	1
Vasc* / basque	BOR FR	vasconum (limes)	1
		basque	11
		euskara	1
	ARK FR	Vasconum (Primitiae)	1
		Basques	2
		Ø	1
	ZAL ES	vasca	1
		Basque	4
	JAI ES	(en) vasco	1
	ROD ES1/ES2	vasco	1
		(El Diario) Vasco	3
		(País) Vasco	1
		Basque (Country)	1
EPA ES1/ES2	(Pesquerías) Vascas (del Caribe)	3	

Taula 17. Gainerako kulturemen ordainak



Taulan jaso ez arren, badira *naizio* eta *aberri* adierazpen gehiago; alta, sorburu-testuan tokikoari erreferentzia egiten dioten kasuak baizik ez ditugu aintzat hartu. Konparazio baterako, CAN EUn pare bat aldiz agertzen da *aberri*, eta bietan *patria* ordainaz ematen du; beste aberri bati egiten dio horrek erreferentzia, ordea, eta horregatik ez dugu taulan jaso. Burura datorkigun galdera da berdin jokatu zukeen gureaz mintzatuko balitz, hots, *patria* emanen lukeen; daukagun corpusak, baina, ez dio galderari erantzuten. *Iparalderen* eta *Hegoalderen* kasuan, *Ipar* eta *Hego* (Euskal Herria) formak ere bilatu ditugu, eta ez dugu bat bera ere aurkitu. Orobat begiratu ditugu EAE sigla eta izen ofizial osoa, eta ez dago halakorik; horrek, bere horretan, esanguratsua dirudi, batez ere beste termino batzuk maiz erabiltzen direla ikusita. Era berean, taulako azken erreferentziari dagokionez, bestelako grafiekin ere saiatu gara, hala nola *basko* eta *basco/a*; ez dugu bat ere aurkitu.

Taulak erakusten duenez, askotariko ordainak ematen dira euskaraz forma bakarra dagoenean, baina ugaritasun hori ez da aurrekoetan bezain nabarmena. Euskal Herriko erkidegoei eta banaketa administratiboari dagozkien izenak ez dira anitzetan azaltzen; salbuespen da, beharbada, Nafarroa, maizago agertzen baita. Aipatzekoa da asko direla izen bereziak, hala nola Nafarroa Oinez (ROD eta BOR), Euskadi Saria (MEA) eta Euskadi Ta Askatasuna (ZAL). Horiek bere horretan utzi ohi dira xede-testuan; ez, ordea, beste izen berezi hauek:

### 17. adibidea

[BOR EU] 1848#: gurasoen parte hartzea absolutuki segurtatzea baldin bazen helburua zergatik ez ziguten eskatzen soilik, tribuaren zuhaitz genealogikoaren marraztea, hegazti migratzaileez izkiriartzea, **Nafarroako Joana Albreten** hondar ilusioekin ipuin baten orraztatzea edo hain zuzen ere, behialako *Paris Texas*-en aipatzea!

[BOR FR] 1848#: Je marmottais : s'ils voulaient assurer l'implication pédagogique obligatoire des parents dans l'éducation de leur enfant - quelle lubie ! - pourquoi ne nous demandaient-ils pas de dessiner l'arbre généalogique de nos tribus, d'écrire sur les oiseaux migrants, de rédiger un conte sur les dernières illusions de **Jeanne D'Albret, reine de Navarre** ou encore de parler du fameux *Paris-Texas* ?

[ZAL EU] 1082#: Nafarroako erresumak arrakastaz egin zion aurre Fernando Katolikoaren eta Gaztela-Aragoiko gudarosteen erasoari, eta independente gorde dut, hiru probintziak eta **Iparaldea** barne, are Errioxa konkistatzeko gai egin ditut XVII. mendeko krisi garai latzean zehar.

[ZAL ES] 1082#: El Reino de Navarra hizo frente con éxito a los ataques de Fernando el Católico y los ejércitos de Castilla y Aragón, y lo he mantenido independiente, junto a las tres provincias y al **País Vasco continental**: incluso lo he imaginado capaz de conquistar La Rioja en los momentos más difíciles de la crisis del siglo XVII.

Ohikoa da pertsona historiko eta errege-erreginen izenak itzultzea, batzuetan hizkuntza batean eta bestean jatorria eta numerazioa aldatu ere egiten direnez. Nolanahi den, frantsesezkoak zehaztu egiten du erregina izan zela, euskarazkoak halakorik egiten ez badu ere. Pentsa daiteke, beraz, frantses irakurleari egokitzeko hautua izan dela, euskaldunak erreferentzia hurbilekoa duelakoan. Bigarren kasuan, Zalduak gaztelaniazko formatu bat

darabil, “País Vasco peninsular” formari kontrajartzen zaiona. Agerpen bakarra da Zalduaren testuan, eta ezin hortik joerarik ondorioztatu.

Ezabatze batzuk ere bildu ditugu:

### 18. adibidea

[ZAL EU] 1089#: Iraultzaren ondoren, Frantzia napoleonikoaren hedakuntzak errepublika-satelite bihurtu zuen **Nafarroako erresuma**, eta orduz geroztik deitzen da gure lurra Euskal Herria —nolabait justifikatu behar dut izendapen horren erabilera “garaikidea”, orain arte **Nafarroa** gora eta **Nafarroa** behera ibili ostean—.

[ZAL ES] 1089#: Tras la Revolución francesa, la expansión de la Francia napoleónica convirtió al **Reino de Navarra** en una república satélite, momento a partir del cual retoma nuestro pueblo el nombre de País Vasco —después de tanto **Reino de Navarra**, ya es hora de justificar de alguna manera el uso «contemporáneo» del término *Basque Country*, sobre todo porque era el único que aparecía en el programa original—.

[BOR EU] 267#: Pentsatzen dut halatan Bourdieurekin batera alorrak alor direlako, **Iparraldean**, ardi hazkuntza eta euskal kultura biak uztarturik eratu zen Hizkuntza Kontseilu berriaren lehen zeregin urgentea, sexuaren ele baikorrak euskaraz bideratzea litekeela, diru publikoa erabiliz bistan dena, Estatu erraldoi eta maitagarri baten herritar garenaz gain, zor zaiguna alainan!

[BOR FR] 267#: Je pense donc, champs pour champs tel Bourdieu, que la création d’un *corpus* de mots positifs désignant le sexe devrait constituer une des premières actions dévolues au Conseil de la langue mis en place récemment, en conjuguant le passe simple de la culture basque à l’imparfait de l’élevage ovin. Bien sûr, l’argent public qui nous est dû serait affecté à ce vénérable projet, puisque nous sommes, et je vais l’écrire, citoyens d’un grand Etat majuscule, généreux et magnanime, ça y est je l’ai écrit !

Esan dezakegu, lehenengoan, euskarazko esamoldea (...gora, ...behera) aldatu egin dela, horren ordez aurretik agertzen zen izen berezia errepikatuz, orain arte errepikapenak saihesteko joera ikusi dugun arren. Bigarren kasuan, *Iparraldea* zehaztailea desagertu egiten da, eta, beraz, ulertzen ahal da euskararen lurralde osoaz mintzo dela.

Gainontzean, *nazio(nal)* eta *aberri / abertzale(tasun)* erreferentziak kopuruz gutxi dira joerez mintzatzeko, nahiz eta kasu hauek aipagarriak diren:

### 19. adibidea

[ZAL EU] 1182#: egoera hark, umiliazioak ekartzeaz gain, **nazioaren** beheraldia baizik ez zuen sakondu.

[ZAL ES] 1182#: Aquella situación, en todo caso, no hizo sino ahondar en la postración del **pueblo vasco** que, a partir de 1943, participó activamente en las luchas de la resistencia que sacudían Europa —aunque les he señalado que no todos los historiadores están de acuerdo sobre este punto, y que una corriente revisionista destaca últimamente que el colaboracionismo tuvo más presencia de lo que la historia «oficial» de la postguerra llegó a reconocer jamás—.

[BOR EU] 2727#: alabaina, denek Joanes deitzen genuen Mandrun **abertzale** buruarekin istripuz hitz egin nuen eta emazteok, politika libidoarekin bideratzen genuela errepikatu zidalarik, gaitzeko errabiak hartu ninduen.

[BOR FR] 2727#: J'avais rencontré par hasard Joanes Mandrun, le responsable en chef d'un **mouvement abertzale** que la décence ne me permet point de nommer. J'avais eu envie de lui casser la gueule, faute de lui donner ma voix, quand il déclara avec aplomb que nous femmes, nous faisons de la politique avec notre détestable libido. En Pays basque en effet, une libido sans commando était plus ou moins démagogique.

[ROD EU] 1534#: Politikaz mintzatu ziren autobusean, Euskal Herriko **mugimendu abertzalea** sendotu beharraz, gobernuen jarrera zekenaz, arteaz eta Guggenheimaren izaera inposatuaz, San Cristobalen europartasunaz eta bertaratutako asi-hippien aurpegibikotasunaz, gai batetik bestera tximinoak adarrez adar bezala igaroz.

[ROD ES1] 1534#: Hablaron de política en el autobús, de la necesidad de fortalecer el **movimiento abertzale** en el País Vasco, de la mezquindad de los gobiernos, del carácter impuesto del Guggenheim, de lo europeo que era San Cristóbal y del doble rasero de los hippies que vivían allí, pasando de un tema a otro como monos de rama en rama.

[ROD ES2] 1534#: Hablaron de política, de la necesidad de reanimar el **movimiento abertzale** en el País Vasco, de la mezquindad de los gobiernos, del carácter impuesto del Guggenheim, de lo europeo que era San Cristóbal y del doble rasero de los hippies que vivían allí, pasando de un tema a otro como dos monos de rama en rama.

Hiru kasuotan, letra lodiz agertzen den erreferentziaren hautuak esaldi osoaren itzulpen-hautuekin bat egiten duela esan dezakegu; hau da, ez da soilik lehenengoan *nación* jarri beharrean «pueblo vasco» jarri duela, edo bigarren eta hirugarrenean autoreek euskarazko hitza gordetzea erabaki dutela, baizik eta esaldi guztietan dagoela gehitzea edo sormen diskurtsiboa. Rodriguezenak jarraituko dio hurbilenetik, akaso, sorburu-testuari, nahiz eta bi xede-testuen artean aldea dagoen esaldi hasieran.

Azkenik, *vasc\** / *basque* bikoteari dagokionez, sorburu-testuko agerpen anitz izen berezi bati loturik daude, hala nola *El Diario Vasco* (ROD), *Pesquerías Vascas del Caribe* (EPA) eta *A Basque History of the World* (ZAL). Horiek bere horretan agertzen dira itzulpenetan. Kasu hauetan ere xede-testuko ordaina (ia) bera da; adierak, ordea, beste ñabardura batzuk hartzen dituela esanen genuke:

## 20. adibidea

[BOR EU] 39#: normalean, irakurle, zuhaurk frogatu ahal izan duzunez, **basque** hitzaren ahoskatzeak bi ondorio baditu:

[BOR FR] 39#: ami lecteur, tu as dû te rendre compte que parler des **Basques** engendrait des réactions contradictoires et dans un sens, complémentaires :

[JAI EU] 1622#: Luisa berba eta berba ari dela azaldu die Pilik igogailuan, baina ez duela ezer ulertzen, **en vasco** hitz egiten ari delako.

[JAI ES] 1622#: En el ascensor, Pili nos explica que mi madre habla y habla, pero que ella no entiende nada de lo que dice porque habla **en vasco**.

Lehenengo kasuan, sorburu-testuan balio metalinguistikoa du *basque* hitzak, ez, ordea, erdarazkoan. Bigarrenean, berriz, heterolinguismoaz mintzatu gaitzke sorburu-testuan, eta halakorik ez da xede-testuan; gainera, euskarazkoan pertsonaiaren ahotsa datorkigu gaztelaniazko hitzak irakurtzean, hark hala esana dela ematen baitu aditzera, eta gaztelaniazkoa narrazioaren parte da. Heterolinguismo kasu gehiago agertzen dira *vasc\** / *basque* bikotearekin; hurrengo atalean ikusiko ditugu horiek.

Laburbilduz, sorburu-testuan oinarrituriko bilaketan, ikusi dugu aztergai izan ditugun kultura geografikoari dagozkion toponimoak eta eratorriak ugariak direla (bereziki *Euskal Herria*, *euskaldun* eta *euskal*). Ugaritasun hori BOR EU eta ZAL EU liburuetako gai ei egozten ahal zaie, baita hizkuntzaren eta gizarte antolaketaren testuinguru ez-normalizatu bati eta identitate-gatazka bati ere. Zenbakiz adierazteko, sorburu-testuen corpus osoan *euskal* hitza bilatuz gero (non, besteak beste, *Euskal Herria*, *euskaldun* eta *euskal* sartzen baitira), 292 emaitza ematen dizkigu. Testu horien itzulpenean, gainera, kopuru gordin hori erruz handitzen da; xede-testuetan ariketa bera egin eta *basqu/vasc* bilatuz gero, orotara 399 dira (*basqu* 204 aldiz; *vasc*, 195). Arestian esan dugunez, bi testu soilik izanda, esanguratsua da gehiagotan agertzea frantsesez gaztelaniaz baino; eta, frantsesez diogunean, bereziki BOR FRz ari gara.

Hainbat ordain aurkitu dugu euskarazko forma berarentzat, baita testu berean ere, tauletan jasotako datuek erakusten dutenez. Nolanahi ere, kopuruei begiratuta, teknikarik erabiliena baliokidetza da; batzuetan, ordea, euskarazko erreferentzia lausotzen edo neutralizatzen dela ikusi dugu, besteak beste, posesiboz eta erakuslez ordeztzen delako euskarazko adjektiboa/izena. Beste batzuetan, desagertu egiten da. Hala egiteko joera ikusi dugu, esaterako, ARK FR eta JAI ES testuetan: lehenengoan, ezabatzearen hautua sistematikoa da aztergai izan ditugun kulturemetan; Ternuako euskal jatorrizko toki-izenak bere horretan ematen ditu. JAI ES testuan, ordain zehaztugabeak erabiltzen dira. Ordain zehaztugabeak ikusi ditugu ZAL ES eta ROD ES1/ES2 testuetan ere. Errepikapenak saihesteko hautua ere ikusi dugu, esaterako, EPA ES1/ES2 eta ZAL ES adibideen bitartez; gehienetan, hautu estilistikoa da, erreferentzia argia izan eta elipsi bidez ematen baita.

Jarraian, xede-testuan eginen dugu kulturemen antzeko bilaketa bat, ikuspegi osoagoa lortu nahian.


#### 6.2.1.3.2. XTn oinarrituriko bilaketa

Ikuspegia osatzeko eta xede-testuan gehituriko pasarteak aztertu asmoz, erdaretako testuetan egin dugu bilaketa, irizpide eta metodologia berarekin. Horrela ikusi dugu, adibidez, sorburu-testuen araberako bilaketan oharkabean pasatu zaigun bereizketa hau: BOR EUn ohikoena *Euskal Herri* bada ere, badaude *Heskual Herri* eta *Eskual Herri* bana, xede-testuan *pays* bilatuta ohartu garenez, ordain bera ematen baitu euskarazko hiru idazmoldeentzat. Gauza bera esan daiteke *basque* hitza bilatuta euskarazkoan agertu zaigun *heskualdun* hitzaz ere, sorburu-testuaren araberako bilaketan jaso ez duguna.

Azpiko zerrenda osatu dugu xede-testuan egindako bilaketekin, dagokion hizkuntzan.

1. País / Pays
2. Vasconia / vascones
3. Vasc\* / Basque
4. Vascuence / vascoparlante / basquisant / bascofone
5. Nación / Nation / nacional(ista) / national(iste) / nacionalismo / nationalisme
6. Euskal

Arestian esan bezala, zerrendako hitzetatik eratorritakoak ere bilatu/zenbatu ditugu, lotura semantikoa izanez gero; konparazio baterako, 6. puntuko *euskal* bilatzean, adjektiboa ez ezik *Euskal Herria*, *euskaldun* eta *euskaltegi* modukoak ere jaso ditugu (ikus IV. eranskina). Sorburu-testuaren araberrako bilaketaren harira esandakoak ez errepikatzen saiatuko gara, eta, beraz, aurrez agertu ez direnak baizik ez ditugu hizpide izanen. Azpiko grafikoa agertzen dira kopuru gordinak, ikuspegi orokor bat izateko. Ilunez agertzen dira gaztelaniazko testuetako kopuruak, eta argiz, berriz, frantsesezko testuetakoak.



### Irudia 11. Kulturema hautatuen kopuru gordinak, XTn

Taularen lehen begiratuak erakusten du, oro har, aztergai ditugun kulturemak gehiago agertzen direla frantsesezko testuetan gaztelaniazkoetan baino, nahiz eta bi testu baizik ez ditugun corpusean frantsesez, eta hamabi gaztelaniaz (zortzi titulu). Salbuespen dira 2. eta 6. puntua; izan ere, *Vasconia/vascones* gaztelaniazkoetan baizik ez ditugu aurkitu (zehazki, 7 aldiz, ZAL ES testuan guztiak), eta bi *euskal* baizik ez dugu frantsesezkoetan (BOR FR testuan). Aipatzekoa da ere *Pays Basque* eta *País Vasco* 1. puntuan zenbatu ditugula, *Pays / País* bikoteari dagokion horretan, eta, beraz, 4. puntuan zenbatu gabe utzi ditugula. Horrek are eta nabarmenago egiten du *vasc\* / basque* bikotearen nagusitasuna. Esan dezakegu, bada,

sorburu-testuetan gehien agertu den kulturema “Euskal Herri” izena dela, eta xede-testuetan, berriz, “basque/vasc\*” izen-adjektiboa. Adjektibo bihurtzean, transposizioaz mintzatu gaitezke; kategoria gramatikala aldatzeak konnotazioren bat ekar lezake berarekin. Jarraian puntuz puntu aipatuko ditugu kasurik esanguratsuenak.

**País/Pays** bikoteari dagokionez, sei testutan agertzen da: EPA, BOR, ZAL, ROD, JAI eta ARK. Gehienak *País Vasco* eta *Pays basque* formakoak dira; hala ere, ugariak dira posesiboaz edo erakusleaz lagunduta doazenak, esaterako:

## 21. adibidea

[ZAL ES] 1132#: Quizá esté deseando volver a **su país**, después de todos estos meses aquí...

[ZAL EU] 1132#: **Zure herrialdera** itzultzeko eta bertan geratzeko gogoz ibiliko zara, agian...

[BOR FR] 359#: Les politiciens, dont les patriotes maintenant, mettaient l’accent tonique sur la nécessité d’un développement global, globuleux et globalisant pour **ce pays qu’ils appelaient Euskal Herria**, en prononçant le H à la dernière mode et en avalant des pâtisseries délicatement crousti-fondantes :

[BOR EU] 359#: Politikariak, gureak barne, H delakoa azken modan ahoskatuz, **Herriarentzat** jagoitik garapen globala eta globalizantearen premia proposatzen zuten, petits foursez asetzen segituz bistan dena:

Orobat aurkitu ditugu, BOR FRn, posesiboaz edo erakusleaz lagunduko *pays* horren tokian euskaraz hainbat molde agertzen direla; zehazki, “lur”, “herri”, “lurralde”, “estatu” eta “lurmutur” agertzen dira euskaraz, gero frantsesezkoan *ce/un/notre/le pays* direnak, kopuruz gutxi badira ere. Horietatik, bat nabarmenduko dugu, egokitzapen bidez ikuspegi (kategoria eta errepresentazio sozialak) aldaketa bat dakarrelakoan:

## 22. adibidea

[BOR FR] 1389#: **Dans notre pays**, disait-il d’une voie grise, six millions de personnes vivent avec quatre cent cinquante euros par mois, autant avec moins encore, et la majorité avec un salaire de smicard.

[BOR EU] 1389#: **Auzo estatuan** adibidez, sei milioi izaki hilabetean hiru mila liberarekin bizi zen, beste hainbeste oraino gutxiagorekin eta gehiengoa, SMICaren heinean.

Euskarazkoan, narratzailearena ez den espazio bati egiten dio erreferentzia, ondokoari, alegia; frantsesezkoan, berriz, narratzailearena berarena da espazio hori. Identitatea (nazionala, kasu honetan) etengabe eraikitzen delako adierazle dela esan daiteke, mugak eta komunitateak sortzen baitira hizkuntza batean (berr)idaztean. Horrek lotura du Chantal Gagnonek (2006) “pronominalization” deiturikoarekin; horren arabera, itzulpenean izenordeak erabiltzen dira bai gai delikatuak saihesteko bai elkartasuna sortzeko: «there is a strong connection between personal identity (in terms of inclusion or exclusion from a group) and pronominal choice in political discourse» (Gagnon 2006: 212). Ezin dugu esan, ordea, BOR FRk izenordea darabilen kasu guztietan gauza bera gertatzen denik.

Zenbaitetan, zehaztugabeago egiten du izenordearen erabilerak; horrek bat egiten du Gagnonek (2006) dioenarekin, atxikimendua desagerrarazi eta gai delikatuak saihesteko modua baita. Goiko adibidean, zehazki, irakurleari egokitu egiten zaiola esan dezakegu, eta frantsesezkoarekin *enskak* espazioa «auzo estatu» horren barruan sartzen duela. Enuntziazio eremua (Tymoczko 2003) aldatzearekin, bestelako errepresentazio sozialak sortzen dira: nazionala zena erregional bihurtzen da. Gehiengoa ez badira ere, 24. adibidean ikusiko dugu ildo beretik egiten duen beste kasu bat, BOR FR testuan hori ere.

Xede-testuan gehitzeak ere aurkitu ditugu, gehiengo ez badira ere; batzuetan, erdarazkoan termino/erreferentzia hori baizik ez dute autoreek gehitzen, eta, beste zenbaitzuetan, pasarte osoa gehitzen dute. Azken horien artean, esanguratsua iruditu zaigu testuotan gertatzen dena:

### 23. adibidea

[EPA ES1] 1259#: Nos la hicieron en octubre de 1939, pocos días antes de embarcarme. **Es Larresoro, en el País Vasco Francés. Una pequeña traición ideológica en favor de la comprensión geográfica.** No se daba cuenta de esos momentos de que toda esa serie de nombres, datos y fechas que venía recitando decían bien poco a un Francisco para el que la Boca Grande del Orinoco era el límite del mundo y el tiempo una sucesión de estíos y avenidas. El indio escuchaba.

[EPA ES2] 1259#: **Es Larresoro.** Nos la hicieron en octubre de 1939, pocos días antes de embarcarme en Burdeos. No se daba cuenta en esos momentos de que toda esa serie de nombres, datos y fechas que venía recitando decían bien poco a un Francisco para el que la Boca Grande del Orinoco era el límite del mundo y el tiempo una sucesión de estíos y avenidas. El indio escuchaba.

[EPA EU] 1259#: Bordelen itsasontzia hartzeko bezperetan egin zigutean, **Larresoron**, 1939ko urrian —ez zen konturatu izen horiek guztiz arrotzak izango zirela Franciscorentzat, baina hainbeste izen arrotz aitatu zizkion hain denbora laburrean!

Adibide honetan ikusten denez, euskarazkoan ez du zehaztapenik jartzen Larresoro aurkezten duenean; lehen autoitzulpenean, ordea, zehaztapena jartzeaz gainera, zehaztapen horren justifikazioa gehitzen du jarraian. Gogora ekar dezakegu hemen Moscoviciren (2000: 150) prozesu sozio-kognitiboetako bat, “ainguratzea” (2.4.2.2 atalean), autoitzultzaileak harremanean jartzen baitu zerbait ustez ezezaguna (herri izen bat) eta hartzaileak ezagun izan dezakeen espazio geografikoa («País Vasco Francés»). Nolanahi den, itzultzaileak hartzen du hitza narrazioan, eta hautu ideologikoa azaldu egiten du. Azkenik, bigarren autoitzulpenean, desagertu egiten da zehaztapena eta, horrekin, azalpena. Gogoan hartu behar da Epaltzaren eleberria, lehenik, Zaragozako Xordica argitaletxean atera zela, eta hainbat urte geroago kaleratu zuela Pamiela etxe nafarrak. Itzulpen-hautu jakin horretan irakurle potentziala kontuan hartu zuela ondoriozta daiteke.

Zalduak ere behin gehitzen du *País Vasco Francés* xede-testuan (ZAL ES 616#); kasu horretan, ordea, Epaltzarenean ez bezala, hiru orrialdeko kontaketa gehitzen dio testuari. Ez dugu hona ekarri luzeegia delako; nolana den, esanguratsua da, kulturemen azterketari dagokionean baino gehiago, autoitzulpenaren ikuspegitik oro har.

Taulan gehien ageri den kulturemari helduko diogu orain: **vasc\*/basque** bikoteari. Erdarazko EPA, ZAL, MEA, BOR, ARK, ROD eta JAI testuetan aurkitu ditugu halakoak; beraz, atal honetan aztergai ditugun guztietan. Hizkuntzari edo jatorriari erreferentzia egiten dion ez da batzuetan argi, sorburu-testuen azterketan *euskal* baliokidearekin gertatzen zen bezala. Hain zuzen, gehientsuenen oinarrian, hots, sorburu-testuan, *euskal* hori dago; badira bestelakoak, hala nola *euskaldun*, *euskara(zko)* eta *Euskal Herri* ere. Sorburu-testuen araberako bilaketan ikusi dugu termino ugari erabiltzen direla ordainetan; xede-testuaren araberako bilaketan ere ugaritasuna agertzeak esan nahi du, beharbada, konpentsazioaz baliatu direla itzultzaileak. Berriz ere, nahiz eta kopuru txikian, badira posesiboak; eta, oraingoan, pertsona izenordainak ere aipatu behar ditugu:

## 24. adibidea

[BOR FR] 1353#: Silence. Nous savions bien pourquoi les **Basques** ne croyaient plus à la résurrection des morts : il fallait éviter le retour de ces individus sévères et dogmatiques qui croyaient être indispensables sur terre.

[BOR EU] 1353#: Baina ixo, bagenekien zehazki, zergatik ez **genuen** hilen berpiztean gehiago sinesten!

[EPA ES1] 361#: **Él**, lejos de compartir el optimismo del norteamericano, no tenía ninguna duda de que sería un día perdido en el campo de prospecciones, por lo menos en lo que se refiere a los intereses de la todopoderosa *Texas Petroleum Company*.

[EPA ES2] 361#: **El vasco**, lejos de compartir el optimismo del norteamericano, no tenía ninguna duda de que sería un día perdido en el campo de prospecciones, por lo menos en lo que se refiere a los intereses de la todopoderosa *Texas Petroleum Company*.

[EPA EU] 361#: **Berak**, behintzat, zalantzarik batere ez zuen alferrik galdutako eguna izango zela indusketagunean, *Texas Petroleum Company* ahalguztidunaren interesetarako behintzat.

[ZAL ES] 175#: Me explica un poco por encima las líneas más importantes del curso que tendría que impartir —una introducción general al tema de la lengua, un pequeño repaso a la historia de nuestra literatura, algunas nociones básicas sobre la **historia del pueblo vasco**—,

[ZAL EU] 175#: Gaingiroki azaldu dizkit nik eman beharko nukeen ikastaroaren lerro nagusiak —hizkuntzaren inguruko datu orokorrak azaldu, euskal literaturaren historiari errepaso txiki bat eman, eta **gure historiaren** oinarri batzuk—;

Lehenengoan, narratzaileak 3. pertsona plurala darabil eta nortaz ari den zehazten du *Basques* horrekin, distantzia hartuz; euskarazkoan ez dago halakorik, eta zuzenean mintzo da 1. pertsona pluralean. Hori 22. adibidean esandakoekin lotu genezake, izenordeen erabilerarekin: kategorizazio soziala aldatu egin da narratzailearen ahotsean, eta, horrekin, euskarazkoaren atxikimendua desagertu egiten da itzulpenean. Epaltzarenean, lehen autoitzulpenean euskarazkoaren bidetik jotzen du izenordearekin, eta bigarreanean, berriz, zehaztera jo du, goitizena erabiliz. Horrek erakusten du idazketa prozesu bakoitzak berriedazketarako aukera ematen duela, hizkuntza aldatzen ez bada ere; hala erakutsi zuen Ayerbek (2016) kritika genetikoan oinarrituriko tesian. Azkenik, ezabatzeaz baino,



konpentsazioaz mintzo gaitezke ZAL ESean: euskarazkoak *euskal* literaturari lotzen, eta posesiboa historiari jartzen dio; gaztelaniazkoak, berriz, alderantziz egiten du.

Aipagarria da zenbat *vasc\*/basque* gehitu dituzten autoreek, anitzetan euskarazkoan ez baita adjektibo horren arrastorik. Kopuruak argi uzten du hori, *euskal* baino ia hiru aldiz gehiago agertzen baitira *vasc\*/basque* horiek. Ezin esan guztiak erreferentziak edo pasarteak gehitzearen ondorio direnik, baten bat konpentsazioa izan baitaiteke, 24. adibideko Zalduaren kasuan bezala. BOR FRn aurkitu ditugu gehitze gehien, ez soilik adjektiboari dagokionean, eta horrek bat egiten du pasarteak luzatzeko/gehitzeko joerarekin; konparazio batera, euskarazkoan ez dauden hizkuntzari dagozkion 27 *basque* izen-adjektibo eta 12 *national(e)* zenbatu ditugu BOR FR testuan. Berriz ere, erdarazkoan adjektibo gehiago agertzen zaizkigu.

Atal honekin bukatzeko, **euskal** adjektiboaren emaitzak hartuko ditugu hizpide. Izan ere, aipatzekoa da frantsesezko testuetan bitan baizik ez dela agertzen, BOR FRn biak, forma hauetan: *Euskal Herria* eta *Eskualzaleen Biltzarra*, berdin euskarazkoan eta frantsesezkoan. Gaztelaniazko testuetan gehiago dira, eta hona pare bat ekarriko dugu, izen eratorriak biak:

## 25. adibidea

[JAI ES] 1445#: aunque ya sabía que no lo iba a encontrar en casa porque tenía cena con los del **euskaltegi**.

[JAI EU] 1445#: Bazekien ez zela afaltzera agertuko, afaria zuela **euskaltegikoekin**.

[ROD ES2] 2347#: El arquitecto pasea fumando por el solar, con el móvil colgado del cinturón, y discute con un socio constructor acerca de las acciones de **Euskaltel**.

[ROD EU] 2347#: Arkitektoa, sakelakoa gerrikotik zintzilik, orubean zehar paseatu da zigarroak erretzen eta galtzen behaldekak hautsez zikintzen, enpresa eraikitzailearen bazkideetako batekin **Euskalteleko** akzioez hitz egiten duten bitartean.

JAI ES testuan 6 aldiz agertzen da *euskaltegi*, eta euskarazkoan 5 dira; beste kasu batean elipsi bidez adierazten da euskarazkoan. ROD ES2n ere behin agertzen da *euskaltegi* (1225#). Gaztelaniazko biak kaleratu ziren Euskal Herrian, eta beharbada erdal irakurleak hitza ezaguna izanen zuelakoan utziko zuten izena bere horretan. *Euskaltelen* kasuan, markak bere horretan uzteko ohiturari jarraikiz, zalantza gutxiago sor dezake hautuak. Interesgarria litzateke beste egile batzuek hitz horiei zer ordain emanen lioketen aztertzea, halakorik izan balute. Sakonago ikusiko ditugu kasu jakin horiek heterolinguisismoaren azterketari eskainitako atalean.

Gainerako kulturemen azterketak, taulan jarritako datuez gainera, ez du deus aipagarriarik adierazten; ez, behintzat, sorburu-testuaren araberako azterketak erakutsi ez duenik.

Laburbilduz, beraz, xede-testuaren araberrako azterketak osatu egin ditu sorburu-testuan oinarrituta jasotako emaitzak, eta ez du datu kontrajarririk eman. Itzulpen teknikarrik erabiliena baliokidetzat dela ikusi dugu; hala ere, autoitzulpenetan gehiketarako joera dagoela ikusi dugu XTetatik abiatutako bilaketan ere, bereziki BOR FR eta ZAL ES tesuetan. Irakurleari egokitzeko hautu garbia ikusi dugu BOR FR eta EPA ES1 testuetan (ikus 22. eta 23. adibideak); bereziki da nabarmena bigarrenetan, Euskal Herrian kaleraturiko EPA ES2 testuan ez baita berdina eman.

Oro har, aurretik esan bezala, termino batentzat hainbat ordain ikusi ditugu bai sorburu- bai xede-testuen araberrako bilaketetan; horrek pentsarazi digu konpentsazioa egon daitekeelako hautuaren atzean. Nolanahi den, termino aniztasuna handiagoa da XTetan, baita testu berean eta euskarazko forma bakarrerako ere. Bi arrazoi proposatu ditugu horretarako: batetik, hautu ideologiko bat, txikitasanari, testuinguru ez normalizatuari eta identitate gatazkari lotua; bestetik, hautu estilistikoa, XTn errepikapenak saihestu asmoz. Hori ordezkapenaren erabileraz ikus daiteke; ondorioz, euskal erreferentzia lausotu edo neutralizatu egiten da, betiere aztergai izan ditugun corpusean. Izen ofizialei dagokienez (erakunde izenak, bereziki), bere horretan uzteko joera dago, ezpada erdaraz ordain ofizial bat dagoen kasuetan.

Hurrengo atalean, heterolinguismoa izanen da aztergai, eta orain arte aipaturiko itzulpen-hautuak berresten ote diren ikusiko dugu, autoitzulpen joerei buruzko ondorioak aurkeztu aitzin.

### 6.2.2. Heterolinguismoaren azterketa

« Le pouvoir des textes hétérolingues consiste à nous faire sortir du bocal de “la langue”, dans lequel nous avons tendance à évoluer à la manière d’un poisson rouge persuadé de vivre dans un milieu naturel.»

Myriam Suchet (2014: 277)

Aurreko atalean egin bezala, corpusaren azterketari heldu aurretik kontzeptuari buruz mintzatuko gara, orain arte heterolinguismoaz bai nazioartean bai Euskal Herrian egindako ikerketez gogoeta egin eta azterketa deskriptiboari oinarri teoriko bat jartzeko. Izan ere, testu eleaniztunak eta horien azterketa ugaritzen ari dira azken hamarkadetan, askotariko arrazoiak medio: «[w]hether this is due to Deleuze’s and Guattari’s work on the ‘deterritorializing’ powers of language, or Bakhtin’s forceful critique of ‘monologic’ and ‘monoglossic’ tendencies in Western thought, or the ‘hybrid’ character of postcolonial texts and cultures, or all of the above, the times they are indeed a-changin’» (Delabastita eta Grutman 2005: 11). Ikertzaile horien esanetan, inor ez da harritzen eleaniztasunaz mintzatzean, eta inork ez du zalantzan jarriko. Are gehiago, Suchetek (2014: 272) dioenez, «Le mythe du monolinguisme et celui de l’unicité du sujet parlant sont donc corrélés».

Globalizazioaren, migrazioaren eta harreman-bideen ugaltzearen ondorioz, bada, geroz eta gizarte nahiz norbanako eleaniztun gehiago daude, eta literaturan ere eragina izan du horrek. Idazketa eleaniztunarekin lotu izan da heterolinguismoa, eta “heteroglosia”ren

sinonimotzat hartu izan da maiz. Termino horien erabileran, ordea, egin izan da ñabardurarik, eta komeni da deus baino lehen bereizketa egitea.

“Diglosia” eta “elebitasun” terminoak saihestu nahian erabili zuen lehenengoz Rainier Grutmanek *hétérolinguisme* hitza doktore-tesian (1997). Izan ere, haren esanetan, beste bi terminoek konnotazio politikoak zituzten Quebecen; gainera, “diglosia” eta “elebitasun” hitzek jendartea izendatzeko balio lezakete, ez ordea hizkuntza literarioa izendatzeko. Horiek izan ziren, beraz, kontzeptua zehaztu eta heterolinguismo terminoa sortzeko arrazoiak.

Zenbait urte lehenago, “heteroglosia” terminoa erabili zuen Mikhail Bakhtinek (1981), diskurtso moten aniztasun sozialaz ari zelarik. Hizkuntzalari errusiarrak zioen literatura lan batean (nobelez ari zen nagusiki) hainbat ahots daudela; ez ahots indibidualak, baizik eta “hizkuntza sozial” deitzen zituen horiek: «Every language in the novel is a point of view, a socio-ideological conceptual system of real social groups» (Bakhtin 1994: 113). Hala izan ezean, ez zuen nobelan lekurik, zeren hizketa/ahots askotarikoen erabilera artistikoak osatzen baitu, haren ustez, genero literario hori. Gainera, hizkuntza horrek «must be a concrete, socially embodied point of view, not an abstract, purely semantic position» (ibid.). Badirudi, beraz, *language* (ingelesko itzulpenean) dioenean, Bakhtin ahotsez, hizketez edo diskurtsoez ari dela, ez guk “hizkuntza” deitzen dugun horretaz; hots, heteroglosia ahots/diskurtso/hizketa aniztasuna litzateke harentzat, ez hizkuntza aniztasuna, nahiz eta adiera horrekin erabili izan den gerora. Joseba Gabilondok (2013: 166) euskarara itzuli zuen terminoari Bakhtinek berak emandako azalpena:

Eleberria defini daiteke hizketa sozial moten aniztasun gisa (batzuetan hizkuntza aniztasuna ere bada) eta gizabanako desberdinen ahotsen aniztasun gisa, betiere artistikoki eratua. Edozein hizkuntza nazionalen barne gertatzen da estratifikazioa: dialekto sozialak, talde jokaera karakteristikoak, hizkera profesionalak, hizkuntza generikoak, belaunaldi eta adin taldeen hizkuntzak, hizkuntza alderdikoak, autoritateen hizkuntzak, zirkulu batzuen eta moda iragankorren hizketak, eguneko behar soziopolitikoak betetzen dituzten hizkuntzak, edo orduko hizkuntzak (egun bakoitzak baitauka bere eslogana, bere enfasia) –barne estratifikazio hori, eguneroko hizkuntzan presente dena bere existentzia historikoaren edozein momentutan, eleberriaren aurretiko betebeharra da genero gisa sortzeko (Bakhtin 1981: 263 [Gabilondo 2013]).

Hizkuntza barruko barne estratifikazioaz ari da, beraz, hizkuntzalari errusiarra, paragrafoko lehen parentesi artean esaten duena gorabehera. Grutmanek berak ohartarazi bezala, «those “social voices”, as Bakhtin (1981: 263) calls them, need not, however, and most often *do* not correspond to actual languages» (Grutman 2006: 19). Hitzak antzekoak izan arren, beste perspektiba batetik heltzen dio Grutmanek bereari.

“Idazketa eleaniztuna” esamoldea, berriz, modu askotara erabili izan da. Beren obra autoitzultzen duten idazleei “autore eleaniztun” deitu izan zaie, adibidez; ondorioz, “idazketa eleaniztuna” da egiten dutena. “Autoitzulpen” kontzeptuaren ordezkotzat ere erabili izan da, eta bai testu heterolinguak bai edizio elebidun/eleaniztunak izendatzeko

berdin balio duela esanen genuke. Zehatza ez delakoan, bada, heterolinguismoaren ondorio diren testuei deituko diegu “testu eleaniztun”, ez kontzeptu berezitua izendatzeko.

Horrela, aztertu nahi dugun fenomenoari hobeki dagokiola iritzita, aztergai honetan “heterolinguismo” terminoa erabiliko dugu, Grutmanen (1997) ildotik eta ez Bakhtinen (1981) bidetik; alegia, testu baten barruan hizkuntza nagusiaz gain beste hizkuntzaren edo aldaeraren bat edo batzuk daudela adierazteko.

### 6.2.2.1. Heterolinguismoaz bi hitz

Grutmanek 1997an kontzeptuari izena jarri zionetik zer erabilpen izan duen labur ikusiko dugu azpiatal honetan. Deus baino lehen, ordea, gogora dezagun Grutmanek eman zion definizioa: «la présence dans un texte d’idiomes étrangers, sous quelque forme que ce soit, aussi bien que de variétés (sociales, régionales ou chronologiques) de la langue principale» (Grutman 1997: 37). Hortaz, letra etzanez nabarmentzen du testu bat dagoela oinarrian, zehaztu gabe utziz testua idatzizkoa edo ahozkoa edo bestelakoa den. Hizkuntza arrotzak aipatzen ditu jarraian; guk “beste hizkuntzak” esanen genuke akaso, alegia, testuaren hizkuntza nagusia ez den beste hizkuntzak, “arrotz” hori subjektiboagoa delakoan. Azkenik, zehaztu egiten du beste hizkuntza<sup>120</sup> horiek askotarikoak izan daitezkeela, non lekua baitute, beraz, dialektoek eta antzinako aldaerek. Pentsa dezakegu, bada, nagusiki euskara batuan idatzitako testu batean goi-nafarrera edo bizkaiera agertuz gero, testu heterolingue baten aurrean geundekeela, betiere Grutmanen definizio horrekin bat eginez.

Gaur egun ere, oro har, hizkuntza batetik (sorburu-testu elebakarra) beste hizkuntza baterako (xede-testu elebakarra) transferentziatzat hartzen da itzulpena, izan inplizituki izan esplizituki. Ikuspegi nagusi baina hertsia horrek ezikusia egiten die diskurtso, irakurle eta errealitate eleaniztunei. Hain zuzen, heterolinguismoa aztertzeak irudizko elebakartasun absolutu hori eredu bakar ez dela erakuts dezake, Reine Meylaertsek (2006: 5) dioenez:

[F]unctionalist descriptive studies of heterolingualism in/and translation can offer a correction to a certain idealizing monolingualism that may seem to dominate models of and within translation studies and they may be able to enhance our understanding of identity construction and cultural dynamics in both present and past multilingual and multicultural contexts.

Aurrerago dio heterolinguismoak «makes us aware of the limits of stable identities and binary oppositions, and of new developments in our present, multilingual, ‘virtual’ societies» (Meylaerts 2006: 13). Alabaina, ez dugu pentsatu behar testu eleaniztun batek gizarte jakin batean gertatzen den hizkuntza-aniztasuna bere horretan adierazten duenik, ez

<sup>120</sup> Aurrerago, Dirk Delabastitarekin argitaratutako artikulu batean, Rainier Grutmanek *language* kontzeptuaren adiera zabala proposatzen du. Honela zioten: «We favour a very open and flexible concept which acknowledges not only the ‘official’ taxonomy of languages but also the incredible range of subtypes and varieties existing *within* the various officially recognised languages, and indeed sometimes *cutting across* and challenging our neat linguistic typologies» (Grutman 2005: 15). Testu barruko azterketarako, hots, mikro mailarako, adiera zabal eta malgu hori baliozgarria dela ere bazioten.

hizkuntza bakoitzaren erabilera-antolaketaren errepresentazio bat denik. Batzuetan funtzio hori izanen du, baina ez beti.

Because of its varying manifestations, heterolingualism is too multifarious a phenomenon to be easily subsumed under the heading of ‘realism’ (see Grutman 1996; 2002). Mimetic readings do not explain how languages interact with each other within the boundaries of texts whose use of foreign tongues quite often goes beyond mirroring society or supposedly ‘translating’ reality (Grutman 2006: 19).

Ez da errealitatearen ispilu, ez errealitatearen itzulpen. Goizane Larramendik, Ramon Saizarbitoriaren lanen itzulpenean heterolinguismoa ikertzean, Grutmanen aipu horren garrantzia nabarmentzen zuen, «askotan testu literario bateko hizkuntza-aniztasuna egiantzekotasunarekin eta errealismoarekin lotzen delako» (Larramendi 2014: 43).

Esan dugu gaur eguneko errealitate migratzaileek testu eleaniztunak sortzeko baldintzak indartzen dituztela; hala ere, testu eleaniztunak ez dira gauza berria eta Erdi Aroan ere bazirela erakutsi dute zenbait ikerketek (kasurako, hor dugu *Multilingualism in Medieval Britain* artikulu-bilduma). Itzulpenaren ikuspegitik horiek aztertzea, ordea, praktika berriagoa da. Heterolinguismoak, hibridazioak bezala, auzitan jartzen ditu testu (are, literatura sistema eta gizarte) elebakarrak, eta beste errealitate eta galdera batzuk azaleratzen; hala nola, testu berean agertzen diren hizkuntzen arteko harremanei buruz. Meylaertsek (2006: 4-5) dioenez, alde horretatik ekin izan zaio maiz heterolinguismoaren ikerketari: «Due to, among other things, the emphasis on the ethics of translation in the context of asymmetrical power relations, heterolingualism has become a research issue in Translation Studies». Nolanahi den, azterketa horiek gehienetan “zailtasun, arazo, itzulezintasun” terminoetan egiten direla ohartarazten du Meylaertsek (2006: 5).

Testu heterolingue baten aurrean, hizkuntza nagusiak eta testuan agertzen diren beste hizkuntzek zer harreman duten azter dezakegu, baita zer helbururekin eta zergatik agertzen diren ere. Izan ere, horrek itzulpen-prozesuan erabiltzen diren estrategiak eta teknikak baldintza ditzake. Delabastita eta Grutmanen (2005: 16) hitzetan, «everything depends on the ways in which the ‘other’ languages are embedded in the overall text and made to interact with each other and with the text’s ‘main’ language. [...] What is the function or effect of all this?». Botere harremanez ere mintzatu beharra dago testu heterolingueen itzulpenean: «[It] involves the reconfiguration of multilingual relations obtaining within source texts, but the significance of these relations is deeply rooted in the source culture by the way in which they represent or transform multilingual relations existing in social reality» (Delabastita eta Grutman 2005: 27). Ez baita gauza bera izanen euskarazko testu batean ingelesezko hitz bat agertzea eta hitz bera finlandieraz agertzea. Xede-literaturaren aldean sorburu-literaturak duen estatus (in)dependentea eta prestigioa ere aintzat hartu beharko ditugu, «as well as on collective attitudes towards the languages one is translating from» (Grutman 2006: 26). Sistemen autonomia mailarekin ere zerikusia izan dezake, beraz, hitz arrotzak irakurtzeko onargarritasun handiagoa edo txikiagoa izan baitezake sistema batek.<sup>121</sup>

<sup>121</sup> Gogora ekarri nahi dugu gauza bera esan dugula kulturemak azaldu ditugunean, eta biek ala biek lotura zuzena dutela, hitz edo esamolde arrotzak baitira xede-kulturaren begietara. Aldea da testu heterolingueetako

Testuaren edukiak edo gaiak ere aintzat hartu behar da, ordea: «When language is itself one of the topics addressed in a given novel, translations accompanying heterolingual utterances may focus less on referential meaning, and highlight more subdued cultural connotations» (Delabastita eta Grutman 2005: 18). Heterolinguismoaren itzulpenean ez baitira soilik sorburu-testuko hizkuntzak eta horiek xede-hizkuntzarekin duten harremana kontuan hartu behar; aitzitik, kultura eta identitatea ere auzitan dira maiz: «debates about languages, about heterolingualism in/and translation are never just debates about language and translation but are closely tied to discussions about nationhood, identity etc.» (Meylaerts 2006: 5-6).

Tomachevski eta beste formalista errusiar zenbait oinarri hartuta, Grutmanek (2002) heterolinguismoaren azterketari aplikatzen dizkion hiru motibazioak deskribatzen ditu: errealista, estetiko eta konposizionala. «Alors que cette dernière crée des motifs associés à la structure de l'œuvre (...), les motifs issus des deux premières formes de motivation constitueraient des variantes libres, sans lien intrinsèque avec le fond de l'histoire des œuvres où ils apparaissent» (Grutman 2002: 348). Motibazio errealistak xeheki aztertu eta arrotzasun mailaren arabera ordenatzen ditu. Zehazki, sei modu bereizten ditu ulermen gradu handienetik (*lisibilité*) egiantzekotasun handienera (*visibilité*); hona Grutmanek (2002: 335) egindako sailkapena, L2 izanik hizkuntza “arrotza” eta L1 testuan nagusi den hizkuntza:

1. L2 aipagai izatea L1en, errepresentazio zuzenik gabe; esaterako, euskarazko testu batean «ingeles ponpoxoan mintzatu zen» agertzea.
2. L2n esaldi edo hitz multzo bat agertzea, eta segidan L1en (itzulpena); hala nola, «“Yes, sir” esan zuen mendeko, Bai, jauna». Autoitzulpen intratestual litzatekeena, alegia.
3. L2ren errepresentazio fikziozkoa; L1en egonagatik ere, sintaxiak, semantikak edo fonetikak L2 baten oihartzuna egiten du: «nik ez ulertu zuk esan», adibidez.
4. L2ren lagin edo erakusgai bat, esaldia edo perpausa gainditu gabe; kasurako, maileguak, L2ko izen bereziak eta esamoldeak.
5. L2ren errepresentazio akasduna, L1en oihartzunak dituen L2n errepresentatuta egonik ere; 3. puntuaren kontrako litzateke, nolabait. Konparazio batera, euskaraz idatzitako testuan frantses okerrean mintzo den euskaldunaren esana.
6. Esaldiaz harago doan L2ren errepresentazio esplizitua.

Grutmanek (2002) orobat dio testu batean beste hizkuntza batzuk txertatzea hautu bat dela, hots, testu-estrategia bat. Horrela, testuak emandako informazioari begiratu behar zaio, testuinguruari baino lehen: «la prise en considération du contexte propre à chaque cas

---

hitz edo esamolde arrotzak sorburu-testuko irakurleari ere gertatzen ahal zaizkiola arrotz, eta, oro har, kulturemak arrotz izanen direla soilik xede-testuko irakurlearentzat, ez sorburu-testukoarentzat (salbuespen dira, esaterako, norbait sorburu-testua asmo pedagogikoz irakurtzen ari bada, edota sorburu-testua beste kultura batean kokatuta badago, non imajinario horretako hitz espezifikokoak ager baitaitezke).

devrait suivre l'examen de sa motivation particulière, non l'inverse» (Grutman 2002: 349). Gauza bera egin beharko da, bada, horiek itzulpenean aztertzen direnean.

Beraz, heterolinguismoak itzulpenean dakarren soka luzea eta zabala dela ikusi dugu, baina badirudi horri ematen zaion irtenbidea, oro har, ez dela hain askotarikoa. Izan ere, xede-testuan eleaniztasuna apaldu edo are desagertu egin ohi da. Delabastita eta Grutmanek (2005: 28) honela diote: «[b]ecause of such 'technical' translation problems<sup>122</sup> – but also because it flies in the face of many perceived notions of language, culture and identity, to start with – linguistic diversity is usually at considerable risk of disappearing or having its subversive potential downplayed in translation». Baieztapen horrekin bat dator Meylaerts (2006: 3): «lexical, syntactic, ... traces of the 'other' language(s) in translated texts are often smoothed out». Hori nabarmen agerikoagoa izanen da xede-hizkuntza sorburu-testuan agertzen den "beste hizkuntza" hori bera denean; Grutmanen (2006: 22) arabera, halako kasuetan «the linguistic elements that signaled Otherness in the original run the risk of having their indexical meaning reversed and being read as 'familiar' signs of Sameness».

Arroztasunaren bidetik, *L'Imaginaire hétérolingue* liburuan, Myriam Suchetek (2014) erakusten du hizkuntzen arteko aldea, arroztasuna, gradualala dela, eta hamaika maila identifikatzen ditu bai sorburu-testuz, bai itzulpenez osaturiko corpusean. Izan ere, testu heterolinguenean eta testu itzulien artean kontrastea egin eta itzulpenaren definizio bat ere proposatzen du, enuntziatioaren teoriei tiraka: «une opération de ré-énonciation par laquelle un énonciateur se substitue à une instance d'énonciation antérieure pour parler ou écrire en son nom dans une langue considérée comme différente» (Suchet 2014: 28). Grutmanek heterolinguismoari emandako definiziotik abiatuta, beste hau proposatu du Suchetek (2014: 19): «la mise en scène d'une langue comme plus ou moins étrangère le long d'un continuum d'altérité construit dans et par un discours (ou un texte) donné». Diskurtsoan eta horren bidez egiten diren diferentziazio-prozesuen emaitza litzateke heterolinguismoa, beraz, eta prozesu horietan jarduten duten baliabide diskurtsiboak identifikatzen saiatzen da autorea (Suchet 2014).

Itzulpenari loturik eta, zehazki, ikus-entzunezkoak oinarri hartuta, Corrius eta Zabalbeascoak (2011) L3 deitu diote sorburu-testuan (L1) edo xede-testuan (L2) ager daitekeen beste hizkuntzari. Autoreek aipatzen dute azken urteetan preferentzia bat dagoela guztiz elebakarrak ez diren testuak sortzeko (Corrius eta Zabalbeascoa 2011: 113-4), eta joera hori ikusi dugu gure corpusean; izan ere, gehiago edo gutxiago, hamar sorburu-testuetan ditugu heterolinguismo zantzuak. Horrela, testu horiek itzulpenarekin lotzen direnean, hainbat konbinazio gerta daitezke, Corrius eta Zabalbeascoak (2011) aipatzen dutenez: hala nola,  $L3^{ST}=L2$  izatea, sorburu-testuan ageri den beste hizkuntza horrek eta itzulpenaren hizkuntza nagusiak bat egiten dutenean, ala  $L3^{ST}\neq L2$  izatea, sorburu-testuko hizkuntza ez denean itzulpenaren hizkuntza hori bera (2011: 117). Sorburu-testuaren eta

<sup>122</sup> Egileek aipatzen dituzten arazo teknikoak dira, besteak beste, dialekto, soziolekto eta hizkuntzei lotzen zaion historia soziala eta ezaugarri linguistiko zenbaiten itzulpena (elementu fonetikoak kasurako). Honela diote: «The translation of multilingual texts – whether they involve translation or not – always presents a unique challenge (Grutman 1998; forthcoming). It involves the reconfiguration of multilingual relations obtaining within source texts, but the significance of these relations is deeply rooted in the source culture by the way in which they represent or transform multilingual relations existing in social reality» (Delabastita eta Grutman 2005: 27).

xede-testuaren alderaketan, kasuistika zabala da; hala nola, gerta daiteke  $L3^{ST} \neq L2$  izan eta xede-testuan  $L3$  bera agertzea ( $L3^{ST} = L3^{XT}$ ), edo arrotasuna sorburu-testuko hizkuntza nagusiaz ematea ( $L3^{XT} = L1$ ), baita beste  $L3$  batez ordeztzea ere ( $L3^{ST} \neq L3^{XT}$ ). Baliokidetzaz asmoaren arabera joko dute bitartekariak irtenbide bat edo beste hautatzera. Gure corpusean heterolinguisismoa aztertzen dugunean izanen ditugu Corrius eta Zabalbeascoak (2011) identifikaturiko itzulpen-aukerak berriz aipagai. Oraingoan, ordea, esan dezagun autoreen arabera  $L3$  gehiago dela bitarteko bat helburu bat baino (2011: 123), eta beren ikerketan  $L3$  maizago ikusi dutela sorburu-testuetan xede-testuetan baino (2011: 113). Gogoan izan behar dugu, ordea, Corrius eta Zabalbeascoaren (2011) asmoa dela ardatza xede-testuaren  $L3n$  jartzea; ikerlan honetan, ordea, sorburu-testuaren araberrako bilaketa egin dugu, eta itzulpenari erreparatzea da helburua.

Gure corpora osatzen duten sorburu- nahiz xede-testuetan heterolinguisismoa aztertzean ikusiko dugu, batetik, zer mailatan agertzen zaigun heterolinguisismoa euskaraz idatzitako testuetan, eta, bestetik, erdaretara egindako autoitzulpenetan hizkuntza-aniztasuna desagertzerantz egiten ote duen –eta, beraz, arestian aipaturiko Grutmanen (2005) hipotesi orokorra betetzen den–. Corrius eta Zabalbeascoak (2011) definituriko eragiketak bere horretan aplikatzen ahal ditugun edota beste batzuk erabili behar ditugun aztertuko dugu. Nolanahi den, argi dago itzultzailearen itzulpen-hautuetatik harago dagoela adierazpen heterolingueen itzulpenen harturiko erabakien muina. Meylaerts (2006) ildo horretan mintzo da: «For Rainier Grutman the treatment of heterolingualism in translation is not merely a matter of the translator’s personal ethics, as Berman (1985 & 2004) has pointed out. Since there is no equality in literary contacts (Even-Zohar 1990), tolerance or intolerance of foreign words are indexes of the power imbalance between the literatures involved» (Meylaerts 2006: 7). Testuinguru batean egiten du lan itzultzaileak, gizarte baldintzatzaileen pean; hortaz, itzulpena gizarte-eragiketa bat den heinean, ez da harritzekoa horrek guztiak baldintzatzea itzulpen-prozesuan zer bideri heltzen zaion. Bestela esanda, kontestu soziokulturala faktore bat da marko orokorra zehazteko, eta autoitzultzaileak marko horren barruan hartuko ditu erabakiak.

#### 6.2.2.2. Heterolinguisismoa itzulpengintzan

Euskal literaturan urria da heterolinguisismoaren ikerketa, are urriagoa itzulpengintzaren ikuspegitik egindakoa. Heterolinguisismoa eta itzulpena ikerlan akademiko batean lotzen lehenetarikoa Elizabete Manterola (2012) izan zela esanen genuke, euskal literatura itzulia ikertzen ari zela Bernardo Atxagaren lan (auto)itzuliak aztertu zituenean. Manterola (2012) “heteroglosia” terminoaz baliatu zen ikerlan hartan; nolana ere, Grutmani (1997) jarraikiz guk heterolinguisismo deituriko horretaz mintzo zela esan dezakegu, ematen duen testuinguruari begiratuta: «euskal narrazioan ingelesezko hitzak tartekatuko ditu. Atxagaren lan askok du izaera heteroglosiko hori» (Manterola 2012: 197). Interesgarria da Manterolak, testuan agertzen diren beste hizkuntzen hitzak ez ezik, «beste hizkuntza batzuen erabilera iradokitzen» (2012: 450) dituzten kasuak ere badakartzala hizpidera. Esaterako, euskaraz idatzitako testu batean “kaleko frantsesean bidali zuen antzarak ferratzera” agertuz gero, heterolinguisismoaz mintzo gaitezkeela esan genezake. Horrek testu heterolingueen kopurua



nabarmen handituko lukeelakoan gaude, baina zalantza dugu kasu horietan testu eleaniztunei buruz (=hizkuntza bat baino gehiago) mintzatzerik baden. Izan ere, inplizituki lirarteke testu heterolingueak, beharbada. Aniztasun hori proposatzen du Suchetek (2014); gorago aipatu bezala, corpusean oinarrituta, hamaika heterolinguisimo eredu (*saisies* deitzen ditu berak) identifikatzen ditu, *continuum* modura aurkeztuak, bestetasuna edo alteritatea graduala dela frogatzeko. Continuum horretan, bosgarren da, hain zuzen, hizkuntzen izenak aipatzea (“La mention du nom des langues”), narrazioarena ez den beste hizkuntza bat(zu)en presentzia iradokitzen duena. Gure corpusaren mikro mailako azterketa egiten dugunean, xeheago landuko ditugu heterolinguisimo mailak edo motak. Manterolak ere, aztergaiari mugak ezarri beharrez, ez zuen heterolinguisimoaren gaia nahi adina landu (Manterola 2011: 514); hala ere, itzulpen-ikuspegitik aztertzea oso aberatsa izan zitekeela azpimarratuz, autoitzulpenarekin lotura egin eta auzia mahai-gainera ekarri zuen.

Horixe nabarmentzen du Ibon Uribarrik (2013) ere, Dasconaguerreren bertsioetan sasi-itzulpena aztertu zuenean. Aurretik esan dugunez, Dasconaguerrrek 1867an Parisen kaleraturiko *Les échos du pas de Roland* liburuko azalean, « traduit du basque » dela jartzen du; Uribarrik erakusten duenez, ordea, 1880an Baionan aurkezturiko *Atheka gaitzeko oihartzunak* frantsesezkoaren itzulpena da, talde-lanean egindakoa. Testu multzo eleaniztun horretan heterolinguisimoari<sup>123</sup> erreparatu zion Uribarrik (2013), besteak beste; horrela, ikusi zuen euskarazkoan frantsesa eta frantsesezkoan euskara agertzen direla, konnotazio jakinekin: frantsesa funtzio ofizialarekin erabiltzen eta testu idatziei lotzen zaio, eta euskarak, berriz, ahozko erabilera du (Uribarri 2013: 235).

Bestela, berariaz testu eleaniztunen itzulpenari buruz euskaraz egindako azterketa bakarra argitaratu gabe dago.<sup>124</sup> Goizane Larramendik master amaierako lanerako egindako azterketa da, non Ramon Saizarbitoriaren hiru eleberritan oinarrituta heterolinguisimoa ikertzen baitu itzulpenaren ikuspegitik. Saizarbitoriaren *Ehun metro*, *Hamaika pauso* eta *Martutene* eleberrietan beste hizkuntzek zer funtzio duten eta horiek gaztelaniazko testuetan nola eman dituzten aztertzen du Larramendik (2014). Aipagarria da, hasteko, testu bakoitzeko itzultzaile bat egotea, hots, itzultzaile batek ere itzuli ez izana Saizarbitoriaren liburu bat baino gehiago; itzulpen-hautuen aniztasunean lagun dezake ugaritasun horrek, noski. Saizarbitoriaren nobeletako hizkuntza-aniztasuna ikuspegi soziolinguistikoko batetik aztertu izan da<sup>125</sup> (batez ere *Ehun metro*, zeina garaiko errealitate diglosikoaren erakusle dela

<sup>123</sup> Manterolak (2011) bezala, “heteroglosia” terminoa darabil Uribarrik (2013), baina Grutmanen (1997) definizioaren bidetik ari dela esanzen genuke, honela definitzen baitu: «la representación de las lenguas en los diferentes textos» (Uribarri 2013: 235). Horrela, frantsesezko testuan euskarazko hitzak agertzen dira eta pertsonaia batzuk euskaraz mintzo direla adierazten da; euskarazkoan, berriz, pregoi bat agertzen zaigu frantsesez (Uribarri 2013: 235).

<sup>124</sup> Azterlan osoa da kaleratu gabe dagoena; horren berri ematen duen artikulu bat argitaratu zuen *Senez* 46 aldizkariak (Larramendi 2015).

<sup>125</sup> Saizarbitoria bera ikuspegi horretatik mintzatu izan da, Larramendik (2015: 139) gogorarazi bezala: «Saiakeraren bat alde batera utziz gero, euskal literaturak ez du islatzen gure egoera linguistikoa. Are gehiago, egoera hori saihestu egin behar dela pentsatzeko joera dago, [...]. Gauzak horrela, gure nobeletan jendea tabernetara, anbulatoriora edo bankura doa; jendea, nobeletan eta bizitzan, joaten den lekuetara, beraz, eta euskara batuaz mintzatzen da, hori guztia, gure bizitzaren errealitate linguistikoko konplexuaren izpirik erakusten utzi gabe (Saizarbitoria 1999: 22)». Errealismoarekin lotu daiteke hori, testuinguru diglosikoetan beti sortuko baitira egoera linguistikoko ez-errealistak. Gainera, gorago aipatu bezala, eta Sucheten (2014) proposamenari jarraikiz, heterolinguisimo esplizitua ez litzateke egoera soziolinguistikoko jakin bat adierazteko modu bakarra.

esan izan baita). Bestela dio Larramendik (2015: 139) ikerketaren ondorioak biltzen dituen artikuluan: «Saizarbitoriaren helburua ez da besterik gabe euskararen errealitate soziolinguistikoa ispilatzea. Haren hitzetan, euskararen egoerak eragina du hartu-emanetan, eta askotan hizkuntza bat ala bestea hautatzeak mezua ere baldintza dezake». Beraz, kontatzen duen egoeraren arabera hautatuko luke idazleak hizkuntza. Sorburu- eta xede-testuak alderatuta Larramendik ondorioztatzen duenez, gaztelaniazko itzulpenetan hizkuntza-aniztasuna ez da euskarazko testuetan bezain oparoa; horrek bat egiten du Grutmanek (2006) deskribaturiko naturalizazioaren hipotesi orokorrarekin. Halaber, ohartarazten du «[s]orburu-testuan ageri diren hizkuntzen arteko harreman asimetrikoak itzulpenean azaltzea ez d[el]a erraza, xede-kulturako botere-egiturek itzulpena baldintzatzen dutelako» (Larramendi 2015: 149). Beraz, euskararen egoera soziolinguistikoak eta gaztelaniarekiko harremanak eragin zuzena izanen lukete itzulpenean. Nolanahi den, Saizarbitoriaren gaztelaniazko hiru itzulpenetan euskarak badu tokia, eta hiru kasutan egin da, beraz, eleaniztasun hori gordetzeko saiakera (Larramendi 2015: 150).

Badirudi, hortaz, Larramendiren azterketatik abiatuta, heterolinguisismoa oro har apaldu egiten dela euskaratik egindako itzulpenetan, bestetasuna erabat ezabatzen ez den arren. Hain zuzen, Grutmanek (2006) dio hizkuntza-aniztasuna onargarriagoa dela literatura sistema gazteagoetan, kasurako azken berrehun urte inguruan sorturikoetan:

These emerging literatures, whether they can be associated with the erstwhile dependencies of now-defunct colonial empires or belong to Europe's national minorities, tend to show more openness to linguistic diversity than the firmly established canons of the former imperial powers. Often enough, their linguistic richness has been "refracted" rather than "reflected" (as André Lefevere used to say) in translation (Grutman 2006: 39).

Horren arabera, ñabardurak ñabardura,<sup>126</sup> euskal literaturak aiseago onartuko lituzke testu heterolingueak, literatura espainolak edo frantsesak baino. Gainera, aipatu bezala, testuinguru elebidun ez-pareko batean egoera linguistiko errealistak sortzeko asmoa ere aintzat hartu behar da, Saizarbitoriaren kasuan, behintzat.

Horrek guztiak pentsaraziko liguke euskaratik hizkuntza nagusi batera egiten den itzulpen orotan, autoitzulpen izan edo ez, heterolinguisismoa lausotu edo gutxitu egiten dela; bereziki, arestian aipaturikoaren ildotik, euskarazkoan agertzen den beste hizkuntza hori(etako bat) xede-hizkuntza denean. Hala ere, baliteke heterolinguisismoa apaltzea edo ezabatzea ez den beste bideren bat urratu izana. Hurrengo atalean aztertuko dugu zein hautu nagusitzen den.

### 6.2.2.3. Heterolinguisismoa aztergai dugun corpusean

Atal honetan, euskarazko testuetan eta horien autoitzulpenetan heterolinguisismoa nola azaltzen zaigun aztertuko dugu, eta, beraz, horren itzulpen-hautuak ondorioztatuko ditugu,

---

<sup>126</sup> Testu heterolinguearen eta itzulpenen hizkuntz konbinazioa zein den, adibidez, onargarritasun maila alda liteke.

betiere autoitzulpen jardunari buruzko joerak adierazi nahian. Horretarako, lehenik eta behin aztergaia bera aipatuko dugu, bilatze-eremua mugatu baitugu; ondoren, heterolinguismoaren datu kuantitatiboak aterako ditugu, ikuspegi orokor bat izateko; hirugarrenik, heterolinguismo kasu horien azterketa kualitatiboa eginen dugu, Grutmanen (2002: 335) eskemari jarraikiz eta Corrius eta Zabalbeascoaren (2011) terminologian oinarrituta; azkenik, heterolinguismoaren zenbait adierazpidetan sakonduko dugu, xedestuaren arabera azterketari ekin aitzin.

### 6.2.2.3.1. Lagin adierazgarri bat

Corpus osoan Grutmanen (2002) eskema xehe-xehe aztertu ezin dugunez, tesi bat baino gehiago beharko genukeelako, lagin bat hartu dugu. Bertan egindako bilaketek eta azterketek itzulpen-joeren berri eman dezaten, lagin adierazgarria osatu behar dugu. Horrela, corpus osoaren %10 hartu dugu, sorburu-testuen luzerarekin proportzionala. Ehuneko hori ahalik eta adierazgarriena izateko asmoz, ez dugu obra bakoitzaren testu masa jarraitua hartu; hau da, ez ditugu hasierako edo bukaerako edo tarteko %10 hartu, baizik eta testu osoko esaldi-multzoak hartu ditugu. Argigarriagoa izanen delakoan, azpiko taulan jarri dugu testu bakoitzetik zer esaldi-multzo sartu dugun laginean, TRACEaligner programan lerrokaturiko testuen zenbakitzeari jarraikiz.

	<b>EU</b>	<b>ES1/FR</b>	<b>ES2</b>
ARK	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550	1500-1550	
BOR	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550; 2000-2050; 2500-2550; 3000-3050	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550; 2000-2050; 2500-2550; 3000-3050	
CAN	1-50; 500-550; 1000-1050	1-50; 500-550; 1000-1050	1-50; 500-550; 1000-1050
ELO	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550; 2000-2050; 2500-2550	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550; 2000-2050; 2500-2550	
EPA	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550
JAI	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550; 2000-2050; 2500-2550; 3000-3050	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550; 2000-2050; 2500-2550; 3000-3050	
MEA	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550; 2000-2050	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550; 2000-2050	
ROD	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550; 2000-2050	1-50; 500-550; 1500-1550	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550; 2000-2050

ROZ	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550; 2000-2050	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550; 2000-2050	1-50; 500-550; 1000-1050; 1500-1550; 2000-2050
ZAL	1-50; 500-550; 1000-1050	1-50; 500-550; 1000-1050	
GUZTIRA	2500	3050	

**Taula 18. Corpusaren lagina, segmentuak**

Taulan ikus daitekeenez, xede-testuaren luzeran oinarrituta egin dugu hautaketa, eta guztietan puska berak hartu ditugu, proportzioan, betiere. Xede-testuaren luzera hartu dugu kontuan, oro har, luzeagoak direlako sorburu-testuak baino. Horrela, *Septentrion*, esaterako, euskarazkoan esaldi-multzo berak hartu ditugu, baina xede-testuan, atal jakin batzuen itzulpena denez, dagokion tartea baizik ez dugu jaso laginean. *Septentrioren* kasuan, bada, heterolinguismoa sorburu-testuan begiratuko dugu, baina horren itzulpena zati mugatuagoan baino ezin izanen dugu aztertu; horrela izanen zela jakinda ere, koherenziaren mesedetan markaturiko zatiei eustea erabaki dugu beste tarte batzuk hartu ordez. ROD ES1n kasuan ere, euskarazkoaren lau ipuin biltzen dituen eta ez obra osoa, ez dira esaldi-multzo berak agertzen hiru zutabetan. Hori ere proportzionaltasunaren mesedetan utzi dugu bere horretan.

Esan bezala, esaldika egin dugu hautaketa, jakin arren obra batzuetan esaldi luzeagoak erabiltzeko joera dagoela beste batzuetan baino, eta, era berean, %10 hori ez dela guztiz zehatza, esaldi-multzo kopuru bera hartu dugulako obra batek 1900 izan eta 1600 izan. Hala ere, beste aukera batzuk aztertu eta gero, modurik aproposena eta adierazgarriena dela iruditu zaigu. Gainera, esanen genuke emaitza ez litzatekeela askorik aldatuko.

Guztira, bada, euskarazko lanen 2500 esaldi jaso ditugu laginean, eta xede-testuen 3050. Esaldi-multzo gehiago dira xede-testuetan, lau testuk bina autoitzulpen dituztelako. Corpuseko sorburu-testuek, orotara, 22906 esaldi dituztela eta hamalau xede-testuek, berriz, 28967 esaldi dituztela kontuan hartuz, corpus osoaren %10,7 da, zehazki, xeheki aztertutako lagina. Excel dokumentu bana sortu dugu obra bakoitzarekin; esaldiak bertan bildu, Grutmanen (2002: 335) taularen araberrako sailkapena egin eta autoreak xede-testuan nola eman duen jaso dugu horrela, azpian jarritako irudian agertzen denez.

	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
1	Esaldia ST	Heterolinguisma?	Esaldiak XT1	Esaldiak XT2	Grutmanen arabera	Corrius&Zabalbeasco	Oharrak	Pertinentzia		
1#	ETA HANDIK GUTXIRA GAUR. Eider Rodriguez.	EZ	1#: ETA HANDIK GUTXIRA GAURICUATRO CICATRICES. Eider Rodriguez. Y POCO DESPUÉS AHORA.	1#: Y poco después ahora.			XT1n elebidun			
2#	-Egin arte ez nuen jakin horren erraza izango zenik.	EZ	2#: -Hasta hacerlo no supe que iba a ser tan fácil.	2#: -Hasta que lo hice no supe que iba a ser tan fácil.						
3#	Baina egin eta zapla, hortxe amaitu ziren kezak.	EZ	3#: Fue hacerlo y ya, terminaron mis preocupaciones.	3#: Pero fue hacerlo, y acabar con todas mis preocupaciones.						
4#	Beldur nion lehendabiziko urratsari, buruan buelta asko eman nizkion, asko.	EZ	4#: Me daba miedo dar el primer paso, le di muchas vueltas a la cabeza, muchas.	4#: Me daba miedo dar el primer paso, le di muchas vueltas a la cabeza, muchas.						
5#	Florenek oihalezko musuzapi bat patriatik atera eta kopeta sikatu du.	BAI (es)	5#: Floren ha sacado un pañuelo de tela del bolsillo y se ha secado la frente.	5#: Floren saca un pañuelo de tela del bolsillo y se seca la frente.		L3ST=L2; 4 L2ST=L2XT	Floren	EZ		
6#	Bilobak erdi kezkatunik erdi errespetuz entzuten dio, buruan jararrita, indio posturan, maistrat tvikiak		6#: Su nieto le mira entre preocupado y respetuoso, sentado sobre el suelo, en la postura del indio, como las ardianaha	6#: Su nieto le mira entre preocupado y respetuoso, sentado en el suelo, en la postura del indio.						

Irudia 12. Datu-bilketa excel dokumentuan

#### 6.2.2.3.2. Datu kuantitatiboak

Kopuruak ematen hasi aurretik, esan behar da ez zaigula erraza egin adierazpide heterolingue guztiak identifikatzea, oinarrian Grutmanen “La motivation réaliste de l’hétérolinguisme” (2002: 335) taula izanik ere. Esaterako, horren arabera, izen bereziak (bai pertsona-izenak bai toponimia) heterolinguisमतzat hartuko eta 4. puntu sailkatuko liriteke, perpausa gaintzen ez duten esamolde eta maileguekin batera. Alta, ez zaigu gauza bera iruditzen istorioa toki-izen horietan gertatzen den edo aipagai baizik ez diren, beste hizkuntza baten oihartzuna berdin ekar badezake ere; kasurako, Iban Zalduaren *Enskaldun guztion aberria* Anchoragen (Alaska) kokatzen da zati handi batean, eta, inon esaten ez bada ere, irakurleak ez du zalantzarik pertsonaia euskaldunak ingelesez izanen dituela Alaskako elkarrizketak. Bestalde, Miren Agur Meaberenean, Odesa (Ukraina) aipatzen da film mutu baten harira, eta zalantza dugu maila berekoa ote den kasu horretan beste hizkuntza baten presentzia. Gauza bera esan dezakegu pertsona-izenez, gaur egun, migrazio geroz eta handiagoarekin, eta gure testuinguru linguistikoa aintzat hartuz, zalantza dugu esanguratsua ote den heterolinguismoaren taulan Omar, Joseba edo Floren<sup>127</sup> sartzea; alegia, horrek, berez, hizkuntza jakin bat iradokitzen ote duen. Orobat ez dugu uste hizkuntza-oihartzun bera dakarrenik pertsona ezagun baten izenak eta asmatu izen batek. Esaterako, Alice Munro agertzen bada, badakigu ingelesez idazten duela, eta, beraz, errazagoa da hizkuntzaren oihartzuna jasotzea Dominique Paulus esanda baino. Nolanahi den, jakin badakigu pertsonen izen-abizenak, bestelako erreferentziarik ez dagoenean, ezagunak izan daitezkeela irakurle batzuentzat eta ez besteentzat. Gainera, gerta daiteke irakurle batek izen bat hizkuntza jakin batekin lotzea, eta oihartzun hori erdiestea, eta beste irakurle batek arrotasuna baizik ez sumatzea, hizkuntza jakin batekin lotu gabe. Batera zein bestera, lagineko izen berezi oro markatu eta jaso ditugu tauletan; ondoren, horiek aztertzean, ikusiko dugu pertinentzak diren edo ez.

<sup>127</sup> Izan horiek eta aurrerantzean ematen ditudan adibideak laginetik hartuak dira.

Era berean, mailegu guztiak ez zaizkigu zaku berean sartzeko modukoak iruditzen, gaztelaniatik mailegaturiko hitz batzuk arras errotuta baitaude Nafarroako, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko euskaran, eta gauza bera gertatzen da frantsesezko batzuekin ere hizkuntza hori ofiziala den lurraldeetan. Beraz, mikro mailako azterketa egin ahala, zenbait erabaki hartu behar genituela ohartu gara. Kasurako, bi hiztegi hauei begiratu diegu hitz bat 4. puntuan sailkatzeko moduko mailegutzat hartzeko: Orotariko Euskal Hiztegia eta Egungo Euskararen Hiztegia. Lehena hautatu dugu Hiztegi Batua baino zabalagoa delako, eta aro eta euskalki ezberdinetako testu ugari biltzen dituelako; bigarrena, berriz, testu garaikideen corpora izanik, egungo erabileraren adierazgarri delako. Azken horretan, hitzaren hamar lekukotza agertuz gero, ez dugu heterolinguisismoaren adibidetzat hartu, euskaraz “erroturiko” hitza delakoan. Bi hiztegi horien galbahearekin utzi ditugu kanpoan, besteak beste: *buitre*, *deserta*, *balisa*, *sukre*, *matahami*, *paradero*, *painal*, *sonanbulo*, *kapataza*, *mesilla*, *malaletxe* eta *señorito*. Hizkuntzen kontaktua ondo dirma maileguok, baina ez, gure azterketan, heterolinguisismoan sailkatzekoak.

Bestalde, L2 perpausaz gairako errepresentazio esplizitua agertu denean –6. puntuan sailkatzekoa alegia–, berdin jokatu dugu hizkuntza, euskalki edo antzinako aldaerekin, baldin eta testu osoaren hizkera nagusi ez bazen. Hots, *Tigre ebizan* liburua nafar-lapurteraz eta bizkaieraz idatzita dago, nor den mintzo. Horiek ez ditugu atal honetan kontuan hartu, narrazio-hizkuntza baitira liburuan. Kontrara, ARK EU testuan bada antzinako euskaraz idatzitako aipu bat, eta BOR EU testuan, berriz, xibereraz idatzitako dialogo bat; bi horiek bai zenbatu ditugu, eta 6. puntuan sailkatu.

Zalantzak zalantza, ez bairik gabe esan dezakegu esku artean izan ditugun hamar euskarazko lanak testu heterolingueak direla. Gehiago edo gutxiago, guztietan agertzen dira beste hizkuntzen oihartzunak. Azpiko taulan adierazten dira Grutmanen sailkapenaren (2002: 335, ikus 6.2.2.1 azpiatala) arabarako kopuruak, sorburu-testuen laginean.

	1. a	2.a	3.a	4.a	5.a	6.a
ARK	4	0	0	93	0	19(5)
BOR	2	0	0	64	0	13
CAN	0	0	0	36	0	0
ELO	0	0	0	31	0	0
EPA	2	0	0	39	0	0
JAI	2	2	0	24	0	0
MEA	1	1	0	23	0	1
ROD	1	0	0	43	0	4
ROZ	6	4	0	37	0	2
ZAL	2	0	0	27	0	24(1)
Guztira	20	7	0	417	0	26


**Taula 9. Grutmanen sailkapenaren arabarako kopuruak, STn**

Taula ikusita ondoriozta dezakegun lehen gauza da, argi eta garbi, Grutmanen sailkapeneko 3. eta 5. puntuen adibiderik ez dugula laginean atzeman. Horrek ez du esan nahi, noski, sorburu-testuak beren osotasunean hartuta ez genukeenik aurkituko; nolana den, argi geratzen da ez dela adierazpiderik erabili. Lehenengo puntua (beste hizkuntza bat modu inplizituan agertzea, aipamen bidez, esaterako) ia ST guztietan gertatzen da (kopuru txikian

bada ere), ROZ EUn salbu. Esan behar da Rozasen eleberri horretan istorioa hainbat herrialdetan gertatzen dela, eta, beraz, horrek eleaniztasuna ekar dezakeela. Bigarren puntua (L1eko itzulpenaz lagunduta L2n ematen den lagina) ez da maiz gertatzen; hain zuzen, hiru autoreren testuen laginetan baino ez. Zalantzarik gabe, eta aurreikusi bezala, kopuruz ugariena laugarren puntuari dagokio, batez ere izen berezien ondorioz, jarraian argituko dugunez. Oraingoan, datu kuantitatiboei dagokienez, esanen dugu toki- eta pertsona-izenak behin bakarrik jaso ditugula; alegia, laginean behin baino gehiagotan agertu arren, behin baino ez ditugu zenbatu. Ondoren, baina, azterketa kualitatiboan horien itzulpena aztertzeko, berriz jo dugu laginean agertzen diren kasu guztiak begiratzera. Aipagarria da ARK EUn 93 adierazpen zenbatu ditugula, hein handi batean erreferentzia bibliografiko ugariengatik, eta kartografia bat ere egiten duelako liburuan (izen bereziak, beraz). Azkenik, seigarren puntua ez da ugaria, hamarretik sei testutan agertzen bada ere; BOR da salbuespen kopurua handiagoa baita. ARK eta ZAL testuei dagokienez, parentesi artean ageri den zifrari begiratu beharko genioke, eta hala zenbatu dugu; izan ere, lagina hitz-multzoka hautatu dugunez, ZAL EUn ingelesezko abesti bat 24 zatitan ematen da. Unitate osotzat zenbatu beharko genuke, ordea, eta horregatik ageri da 1 parentesi artean. Antzeko zerbait gertatzen da ARK EUn, euskara zaharrean idatzitako aipu bat 15 zatitan agertzen baitzaigu; horretaz gainera, 6. puntuan sailkatzeko moduko beste lau adierazpide ditugunez, 19 baino, 5 direla esan beharko genuke.

Hitz-multzoka agertzen denez, hitz-multzo batzuetan heterolinguismoaren adibide bat baino gehiago zenbatu dugu; hala nola, ARK EUko #1502 honetan: «Ophorportuko inguruetan, Sen Georgeko uhartetik hurbil, berrogeita zortzi eta erdiko alturarekin iparreko meridioaren aldetik, Heako Joan hil hurretan da». Esaldi horretan, lau hauek identifikatu ditugu, 4. puntuari dagozkionak denak: *Ophorportu*, *Sen George*, *Hea* eta *Joan*. Bistan denez, esaldi bakarrean lau agertzeak eta guztiak izen berezi izateak anitz handitzen ditu multzo horretako kopuruak.

Esan bezala, Grutmanek (2002) maileguak, esamoldeak eta izen bereziak biltzen ditu 4. puntuan. Laginean, toponimia eta pertsona izenak dira gehiengoa, izan pertsona errealak eta pertsonaia ezagunak, izan fikziozkoak. Badira ere sormen-lanen izenburuak, hala nola film eta argitalpenak, baita markak eta erakunde izenak ere. Izen berezien kopuruaren nagusitasunari erreparatzeko, azpiko grafikoa osatu dugu.



**Irudia 13. Grutmanen 4. puntua: izen bereziak nagusi**

Argi geratzen da, beraz, banaketaren desoreka. Kopuruak handiak izan arren, izen bereziei dagokie horien %88,7 (ilunez); esamolde edo lehen aipaturiko irizpideen arabera maileguak, berriz, %11,3 baino ez dira (argiz). Proporzioan, bistakoa da Bordak, Epaltzak eta Meabek darabiltela baliabide hau gehien, izen bereziak ez direnean. Beherago ikusiko dugu, izen bereziak kenduta, zer hizkuntza agertzen diren puntu horretan sailkaturiko heterolinguisismo adierazpenetan.

#### 6.2.2.3.3. Heterolinguisismoaren adierazpideak

Atal honetan puntuz puntu aztertuko ditugu heterolinguisismo adierazpideak Grutmanen (2002: 335) sailkapenaren arabera. Aipatu behar dugu heterolinguisismo kasu guztiak sailkatu ditugula taularen arabera, ez soilik motibazio errealista bat dutenak, baizik eta baita motibazio estetikoak dutenak ere. Ez dugu aurkitu motibazio konposizionalari (obraren egiturari dagokio hori) erantzuten dion adierazpiderik. Grutmanek berak esan bezala (2002), batzuetan zaila baita bien artean bereizketa egitea, eta errealistatzat har daitezkeen kasuetan ere beste motibazioen bat egon daiteke. Orobat begiratuko diegu xede-testuei, euskara agertzen den eta, hala bada, nola agertzen den aztertzeko. Azkenik, joerak ondorioztatuko ditugu.

Laginean adibiderik aurkitu ez dugulako, aipatu gabe utziko ditugu 3. eta 5. puntuak, eta hori nahikoa adierazgarria badelakoan gaude.

#### A. Errepresentaziorik gabeko aipamena (1. puntua):

Ikusi dugunez, laginean ez da gehien aurkitu dugun baliabidea, baina bada beste molde batzuk baino erabiliagoa: zehazki, 20 agerpen zenbatu ditugu. Testua idatzita dagoen



hizkuntza (L1) ez den beste hizkuntza (L2) bati erreferentzia egitean datza baliabide hau, L2n errepresentaziorik egin gabe. Konparazio baterako, azpiko bi kasu argiak genituzke.

### 1. adibidea

[ROZ EU] 1539#: opil bat prestatu zuen amonak, eta **frantsesez** abestu zidaten.

[ROZ ES1/ES2] 1539#: Aída preparó una tarta, mis padres y mis vecinos me cantaron en **francés**,

[JAI EU] 2505#: Konturatzen al da ezertaz? –galdetu dio, **ingelesez**, betaurrekoak berriz ere gorantz jaso.

[JAI ES] 2505#: –me pregunta, en **inglés**, subiéndose de nuevo las gafas desde la punta de la nariz.– ¿Ya se entera de algo?

Rozasen adibidean frantsesez kantatzen dute, Jaiorenean ingelesez egiten du pertsonaiak galdera. Berdin gertatzen da sorburu- eta xede-testuan bi kasuetan. Itzulpenari erreparatuta, bada nolabaiteko moldaketa egin duen autoitzultzailerik, esaterako, BOR FRko bi kasu hauetan:

### 2. adibidea

[BOR EU] 2545#: Taxien arteko irratia juntetan **asiar hizkuntzak** hautematen nituen, periferikoan abiadura bizian zebiltzan autoen argiek betazal apalduak zurpail bilakarazten zizkidatela.

[BOR FR] 2545#: La communication entre les taxis s'établissait en **langues asiatiques** qui pouvaient être du **chinois**, de **l'indonésien**, du **thaïlandais** ou du **vietnamien**. J'aimais entendre ces langues chantantes qui me ramenaient à des milliers d'années en arrière dans mon histoire. L'éclat des phares des voitures dépassées à une vitesse extrême sur le périphérique brouillait ma vue.

[BOR EU] 543#: hautetsien mintzaldien ondotik, aitortut, Henryren **erdarazkoak** inarrosi ninduela.

[BOR FR] 543#: Le discours prononcé en **français**, à la suite de l'allocution des élus, provoqua en moi un trouble étrange ;

Lehenengoan, sorburu-testuan asiarr hizkuntzak, zehaztu gabe, agertzen bazaizkigu ere, xede-testuan zabaltzeko itzulpen-teknika erabili duela esan genuke, txinera, indonesiera, thailandiera eta vietnamera aipatzen baititu; jarraian, gainera, asiarr hizkuntzei buruzko gogoeta gehitu du hurrengo esaldian. Bigarrenean, Henry aurretik frantsesez mintzo dela adierazten zaigu, zehatzago xede-testuan, nahiz eta sorburu-testuan ere *er dara* esatean, testuinguruari esker, argi geratzen zaion irakurleari frantsesaz eta ez beste hizkuntza batez ari dela. Bi kasuetan hizkuntza berberen oihartzuna iristen ahal zaio sorburu- ala xede-testuko irakurleari. Lehenengo kasuan, hizkuntzek zehazki bat egiten ez dutenez,  $L3^{XT} \neq L3^{ST}$  modura adieraz genezake, Corrius eta Zabalbeascoaren (2011: 119) errepresentazioaren arabera; bigarren kasuan, berriz, bat egiten du testuaren hizkuntzak eta aipaturiko hizkuntzak,  $L3^{XT} = L2$  litzatekeena.

Bigarren adibidean ikusi ditugun bi kasuetan, istorioaren denborarekin bat egiten du L2ren agerpenak; alta, bestelako adibideak ere badira:

### 3. adibidea

[ARK EU] 1016#: Bakarrik **frantsesez** mintzatu behar genuela eskolan.

[ARK FR] 1016#: [itzuli gabeko pasarte].

[ZAL EU] 1008#: Nafarroako erresuma euskal estatutzat aurkeztu dut inolako zalantzarik gabe, estatu euskalduntzat noski —**latina** alde batera utzita, gortearen agiri ofizial guztiak **euskaraz** idazten hasi ziren 1376an alajaina—, eta ahaztu egin dut —xehetasun txiki bat baino ez— Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia 1200ean bereganatu zituela Gaztelak;

[ZAL ES] 1008#: He presentado el Reino de Navarra como el primer Estado vasco sin ningún género de duda: un estado que, dejando a un lado el **latín**, empezó a redactar toda su documentación oficial exclusivamente en **euskera** desde 1376, y me he olvidado, qué menos, del pequeño y molesto detalle de la incorporación a Castilla, a partir de 1200, de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya.

Lehen kasuan, frantsesez hitz egitearen ekintza ez da istorioaren denbora-tartean gertatzen, hizlariaren ume-garaia ekartzen baitu gogora, baina L2ren presentzia berdin adierazten duela iruditzen zaigu. Arkotxaren liburuko pasarte hori ez da xede-testuan ageri; aurretik esan bezala, sorburu-testuaren zenbait atal baizik ez dakar autoitzulpenak. Bigarren kasuan, latinez idatzitako testu batzuen berri ematen du narratzaileak; ikusten dugu, halaber, xede-testuan badugula beste hizkuntza baten agerpena, euskara, alegia. Narrazioaren hizkuntza gaztelania izanik, euskararen aipatzea (maiz gertatzen dena testu jakin horretan) L3 modura ikus daiteke, sorburu-testuan ez bezala, non narrazioaren hizkuntza baita. Kasu gutxi batzuetan, STan adierazpen heterolinguetzat hartu ezin bada ere, atal honetara ekarri ditugu XTan halakotzat hartuko ditugula argi aurreikusten dugunean. ZAL EUko kasu hori da adibide bat: STan “euskaraz” ez dakar beste hizkuntza baten oihartzunik, baina aurreikustekoa zen XTan adierazpen heterolingue bat izanen genuela, horregatik integratu dugu azterketa honetan.

Beste sorburu-testu batzuetan, L3 baten aditzea ematen da, gehiago zehaztu gabe. Kasurako, bi hauek:

### 4. adibidea

[EPA EU] 532#: Marcosen eskolak, segurutik, **hizkuntza arazoak** direla eta beste erakustunik eduki ezinda inguruon.

[EPA ES1] 532#: No en vano, era la única persona con la que, por puros **motivos idiomáticos**, era capaz de comunicarse el ingeniero, si se exceptúa al propio Martín.

[EPA ES2] 532#: No en vano, era la única persona con la que, por puros **motivos idiomáticos**, era capaz de comunicarse el ingeniero, exceptuando al propio Martín.

[ROZ EU] 1009#: Ni **hizkuntzarekin**.

[ROZ ES1/ES2] 1009#: Yo con el **idioma**.

Horiek zer hizkuntzaz ari diren jakiteko, testuingurura jo behar da nahitaez. Horrela, EPA EU istorioaren zati handi bat Venezuelako oihanean gertatzen da; adibideak zenbait pertsonaiaren arteko hizkuntza arazoak ditu hizpide, ingeniari iparramerikar bat ingelesez baizik ez dela mintzo aditzera ematen baitu beste pertsonaia batez ari dela:

«Horretarainokoa, antza, haren ingelesa» (539#). Nolanahi, argi geratzen da hizkuntza-talka badela, eta horrek aniztasuna ematen du aditzera. Bigarrenean, ROZ EUn, jatorri ezberdineko hainbat pertsonaia agertzen dira; horrela, adibideko perpausaren aurrekoa hau da: «Lortu genuen azkenean lagungarri izatea anabasaren erdian» (1008#). Narratzaileak “hizkuntzarekin” laguntzen dio Bartzelonara iritsitako Dede izeneko pertsonaia turkiar bati. Zein hizkuntza zehazten ez bada ere, katalana edo gaztelania dela pentsa dezakegu; gaztelaniazkoan ere ez du esplizitatzen.

Azkenik, beste kasu hauek ere aipagarri dira:

## 5. adibidea

[ARK EU] 1002#: —Hi, mutiko, **euskaraz** badakiala, e?

[ARK FR] 1002#: [itzuli gabeko pasarte].

[ZAL EU] 1047#: **Euskarara** itzulita dago, badakizu?

[ZAL ES] 1047#: Está traducida al **euskera**, ¿sabías?

ARK EUren kasuan, badakigu Quebecen gertatzen dela pasarte hori, eta bertako bat mintzatzen zaiola bisitari euskaldunari. Adibideko eskeari honek segitzen dio testuan: «—Hire hizkuntza nahi diat lehen aldikotz entzun, ene aitzinekoek entzun izan zuten hizkuntza hura. Euskaraz erran iezadak, c’est après la pluie que l’arc-en-ciel apparaît» (1004-5#). Beraz, autoktono bat denez mintzo, ondoriozta dezakegu frantsesez ariko dela mutikoarekin, aipatu ez arren. Antzeko zerbait gertatzen da bigarren kasuan ere. Coetzee idazlearen *Lotsaizuna* nobelaz ari dira solaskideak, aipatu ere egiten dute, eta gero dator adibideko galdera. Euskara aipatzeak gogorarazten dio irakurlari ingelesez ari direla hizketan; gainontzean, Anchoragen (Alaska) gertatzen dela iragarri arren, ez baita inon esaten bertan gertatzen diren ekintza eta hartu-emanetan pertsonaiak ingelesez mintzo direnik. Itzulpenean, kokalekuagatik imajinatu dezakegun arren, esanen genuke ez dela hain argi geratzen, testuaren hizkuntza ez baitator bat hizkuntza aipatuarekin. Beraz, adibideko bi kasuetan, sorburu-testuan “euskara” aipatzearen bidez, beste hizkuntza baten oihartzuna jasoko du irakurleak.

Horrela, adierazpide honen 20 adibideetan, azpiko taulan agertzen diren hizkuntzen oihartzunak jaso ditugu, sorburu-testuan oinarrituta, betiere.

	ARK	BOR	EPA	JAI	MEA	ROD	ROZ	ZAL
FR	4	1					4	
EN			2	1	1			1
DE				1		1		
CAT							1	
LA								1
Z.g.		1					1	

Taula 20. Grutmanen 1.puntuako adierazpideen hizkuntzak, STn

Azken errenkadan, zehaztugabe (z.g.) deitu dugun horretan sailkatu ditugu 2. adibideko «asiar hizkuntzak» (BOR EU 2545#), eta ustez katalanari edo gaztelaniari erreferentzia eginen liokeen 4. adibideko «hizkuntza» (ROZ EU 1009#). Taulak argi erakusten du, bada,

frantsesa dela baliabide honen bidez gehien aipaturiko hizkuntza, ARK eta ROZ testuei esker bereziki. BOR FRko adibideetan izan ezik, sortze diskurtsibora edo zabaltzera jotzen baitu, oro har itzulpenean erreferentziak gordetzen direla ikusi dugu, hizkuntza edozein delarik ere; hitzez-hitzezko itzulpena egiten dute, beraz.

#### B. L1eko iruzkina eta horren itzulpena L2n (2. puntua):

Bigarren baliabide hau honela definitzen zuen Grutmanek berak (2002: 335): «commentaire/attribution en L1 avec représentation homogène de L2 (traduction)». Nolabait, lotura egin dezakegu Santoyok (2011) proposaturiko testu barruko itzulpenarekin (*traducción intratextual*), nahiz eta hemen argi geratzen den itzulpenaren norazkotasuna eta ez den testu oso bat elebitan sortzen, adierazpen laburrak baizik ez direlako. Hala ere, berdín da testu barruko autoitzulpen bat.

Gure laginean zazpi kasu baizik ez ditugu aurkitu: Meaberen testuan bat, Jaiorenean bi, eta Rozasenean lau. Beraz, laginaren kopuruak ikusita, esan dezakegu Rozasek baliabidetzat duela hau (bai, behintzat, corpusean jasotako testuan).

#### 6. adibidea

[JAI EU] 26#: Eta Nereak irribarre egin du hau irakurtzean, **tale** hitzak ipuina esan nahi duelako bere senarraren hizkuntzan eta ingresatu zutenetik ama ere ipuin baten barruan bizi dela pentsatu duelako.

[JAI ES] 26#: Y me hace gracia, porque la palabra **tale** significa “cuento” en la lengua de mi marido, y desde que la ingresaron, mi madre también vive en una especie de cuento.

[MEA EU] 506#: **être**, izan eta egon;

[MEA ES] 506#: **être**, ser y estar;

Lehenengo kasuan, itzulpena narrazioan txertatuta dagoela esan daiteke, balio metalinguistikoa baitu, eta bigarrean, berriz, itzulpena esplizituagoa da (berdín gertatzen da horien autoitzulpenetan ere). Bi kasu horietan, bai sorburu-testuan bai xede-testuan, beste hizkuntza horri berari eusten zaio; alegia, ingelesa eta frantsesa igarriko ditu irakurleak sorburu- nahiz xede-testuan. Bestela esanda,  $L3^{XT}=L3^{ST}$  da bietan (Corrius eta Zabalbeascoa 2011).

Ez da berdín gertatzen, ordea, adibide honekin:

#### 7. adibidea

[JAI EU] 3031#: Nola zen? 3032#: ¿Cómo era?

[JAI ES] 3031#: ¿Cómo era? 3032#: Ø

Kasu horretan, aurreko esaldia ere eman dugu, ezin uler daiteke, bestela, Jaiok harturiko itzulpen-bidea. Horrela, sorburu-testuan euskarazkoa dator lehenik, eta jarraian datorren itzulpena  $L3^{ST}=L2$  litzateke. Elebitasuna adierazteko modu bat izan daitekeela pentsa badaiteke ere, itzulpena dela esan dugu pertsonaia erdaldun baten ahotsean jarri

baitu, eta, beraz, ezin uler dezakegu lehenik euskaraz esan duenik –ez baitaki euskaraz–. Xede-testuan, behin baino ez du ematen, errepikapenik ez dago, eta beste hizkuntza baten oihartzunik, pasarte jakin horretan, ere ez. Kasu horretan, beraz, itzulpen intratestuala autoitzultzerakoan itzulpena bera desagertu egiten da; paradoxikoa ere bada.

Hurrengo adibidean, baliabidea bera izanagatik ere, L1 eta L2ren ordena aldatu egiten dela ikusten dugu:

### 8. adibidea

[ROZ EU] 2027#: Gastone, Gastone, **dove hai lasciato il tuo cuore?**, non utzi duzu bihotza, abestu ohi ziotela uhartekoek, ezkongabe geratu zelako.

[ROZ ES1/ES2] 2027#: Gastone, Gastone, **dove hai lasciato il tuo cuore?**, ¿dónde te has dejado el corazón?, solían cantarle los isleños porque aún seguía soltero.

[ROZ EU] 1548#: Eta jarraian, entzuten nituen galdetu zidan, **en sents?**

[ROZ ES1/ES2] 1548#: Y entonces me preguntó si los oía, **en sents?**

Bi kasuotan, bat egiten dute esaldiaren egiturak eta hizkuntzaren errepresentazioak sorburu-testuan eta xede-testuan, nahiz eta baden alde bat: lehenengoan, italiera dator lehenik, L1eko itzulpena gero; bigarreanean, alderantziz gertatzen da, lehenik L1eko zeharkako galdera dator, eta gero L3koa (katalanezkoa) estilo zuzenean.

Aipatzeko beste adibide hau ere badugu, itzulpenari erreparatuta:

### 9. adibidea

[ROZ EU] 1547#: **Compte Aida**, esan zuen aitonak, **et tallaràs**, moztu egingo zela.

[ROZ ES1/ES2] 1547#: **Compte Aída**, dijo el abuelo, **et tallaràs**, tenía que tener más cuidado para no cortarse.

Horretan, sorburu-testuan ez da «compte aida» horren itzulpenik ematen, bai, ordea, xede-testuan, non bi errepresentazioen itzulpena ematen baitu perpaus bakarrean.

Baliabide honen zazpi kasuetan, hizkuntza hauen oihartzuna iritsi zaigu sorburu-testua irakurrita: gaztelania (1), ingelesa (1), frantsesa (1), katalana (2) eta italiera (2). Ikusi dugunez, autoitzulpenean, L3 desagertu egin da gaztelaniaren kasuan, narrazioaren hizkuntzarekin bat egitean, hain zuzen. Gainerakoetan, berdin eutsi zaie L3ren erreferentziari. Kasuistika ez da zabala, ordea, eta ezin joerez hitz egin; alta, aintzat hartuko dugu heterolinguisismoaren beste mailek ere L3<sup>ST</sup>=L2 denean errepresentazioa ezabatzeraz jotzen ote duten aztertzean.

#### C. Perpausa gainditzen ez duten adierazpenak (4. puntua):

Arestian ikusi bezala, puntu honetan sailkatu ditugu sarrera gehien (417), izen berezien ugaritasunaren ondorioz. Horien sailkapen zabala egin daiteke, besteak beste, Manterolak

(2012) eta Franco Aixelák<sup>128</sup> (1996b) erakutsi bezala. Nolanahi ere, ikerlan honen aztergaia ez da izen bereziak preseski, eta, beraz, multzo handi hauek baino ez ditugu identifikatu (parentesi artean ageri dira sarrera-kopuruak):

- a) toponimia (%47,5): hala nola, mendiak, ibaiak, kaleak, hiriak eta estatuak;
- b) pertsona izenak (%41,9), izan berariaz asmatuak, izan ezagunak;
- c) markak, enpresa eta erakunde izenak (%5,7);
- d) sormen lanak (%4,9): film, egunkari, artelan eta abarrak.

	a)	b)	c)	d)	oro
ARK	69	20	1	0	90
BOR	27	19	5	5	56
CAN	5	18	0	4	27
ELO	9	18	0	0	27
EPA	16	11	5	0	32
JAI	5	15	1	0	21
MEA	7	9	0	3	19
ROD	11	21	4	3	39
ROZ	15	18	1	0	34
ZAL	12	6	4	3	25
Guztira	176	155	21	18	370

**Taula 10. Izen berezien sailkapeneko kopuruak, STn**

Pertsona izenen bereizketa horretan, “ezagunen” artean sartuko litzateke, adibidez, Asterix; horregatik ez dugu fikziozko eta ez fikziozko bereizketa egin, beste hau baizik: batetik, tradizioz ezagun direnak, existitu ziren pertsonak direlako zein tradiziozko edo mitologiako pertsonaiak direlako; eta, bestetik, autoreak aztergai dugun narrazio horretarako sorturikoak. Pertsona izenen talde batean zein bestean, askotariko hizkuntzen oihartzunak ailegutzen zaizkigu sorburu-testua irakurrita:

## 10. adibidea

[ARK EU] 9#: Horrela duzue jakinen zein diren ederrak hogeita sei urtez **Kubilai Khan Handiaren** enbaxadore bezala gelditu gabe lau haizeetara kurritu izan ditudan lurrak.

[BOR EU] 2548#: **Lara Croft** gaixoa baino lekuko egoera hobean bistan dena.

[CAN EU] 41#: Gizon txikiak **Adolf** du izena.

<sup>128</sup> Kasurako, kulturemak sailkatzean, itzultzailearen ikuspegitik bi oinarritzko kategoria identifikatu zituen Franco Aixelák (1996b: 59): izen bereziak eta esamolde arruntak. Bigarrenean sartuko lirateke ohiturak, erakundeak eta berak proposatutako definizioa betetzen duten izen arrunt guztiak. Theo Hermansi jarraikiz, Franco Aixelák (1996b: 59) bitan banatzen ditu izen bereziak: ohikoak eta adierazkorak; lehenak ez-motibatuak lirateke, esanahi esanguratsurik gabeak, nolabait, eta bigarrenak, berriz, izen edo goitizen motibatuak lirateke, eta askotarikoak izan daitezke, iradokitzailetik nabarmenki espresiborako tarte osoan. Izen berezien itzulpenaren inguruko doktore-tesia egin du Franco Aixelák (1996a), eta horregatik, beharbada, kulturemen bi kategoria zabal horien sailkapena.

[ELO EU] 1012#: **Romari** ile luze bat kiribildu zitzaion hatzen artean leiho aurrean pentsatzen ari zenean.

[EPA EU] 542#: Euskalduna, zeharka, **Franciscori** begira zegoen.

Lehen hiruretan, pertsona(ia) ezagunak darabiltzate autoreek, enperadore mongolari, bideo-jokoetako protagonistari eta diktadore alemanari erreferentzia egiteko. Azken biak narrazio jakin horietako pertsonaiak dira. Horrela, lehen hiru kasuetan, esanen genuke irakurleak errazago lotzen ahal duela pertsona-izena hizkuntza jakin batekin azken bietan baino; izan ere, beste erreferentziarik ezean (sorlekua, kasurako), nekez ailegatuko zaio hizkuntza bakar baten oihartzuna irakurleari Roma edo Francisco irakurrita (azken hori gaztelaniarekin lotu daiteke, baina pertsonaiaren hizkuntza/mintzoa eta gaztelaniaren arteko lotura zalantzazkoagoa da).

Oro har, gure laginean, pertsona izenak bere horretan agertu ohi dira xede-testuan, bai ezagunak bai asmatuak, hizkuntza edozein delarik ere. Izatekotan, aldaketa txikiak egiten dizkiete autoreek, xede-hizkuntzako arauetara egokitze:

## 11. adibidea

[ARK EU] 1511#: Joannis de Hiriart, Gannis de Sale, Piarres Detchegaray eta **Ioannes** de Suhigaraychipi Coursicekin Plazentzian gertatu zen bezala, itsas ertzeko hilobi batean ehortzi ote zuten?

[ARK FR] 1511#: Ont-ils enterré le corps dans l'un des cimetières du rivage comme ils le feraient plus tard à Plaisance pour Joannis de Hiriart, Gannis de Sale, Piarres Detchegaray et **Joannes** de Suhigaraychipi dit Coursic?

[ROZ EU] 1513#: **Aidak** eta Joanez ez zuten inoiz frantsesa ongi ikasi.

[ROZ ES1/ES2] 1513#: **Aída** y Joan nunca aprendieron bien el francés,

[ROD EU] 1505#: Argazkia ordea paretan itsatsi zuen, atzean hirurek maite zuten **Leon Giecoren** abestia idatzi zion.

[ROD ES1] 1505#: La foto sin embargo la pegó en la pared, y en su dorso escribió la canción de **León Gieco** que tanto gustaba a los tres.

[ROD ES2] 1505#: Sin embargo, pegó la foto en la pared, y escribió en el dorso la canción de **León Gieco** que tanto les gustaba a los tres.

[JAI EU] 1510#: Eta Maitek ulertu du Nerearen kezka, badaki **Karlosen** bueltaren notiziarekin batera gai honek besteetan baino urduriago jarri duela.

[JAI ES] 1510#: Y Maite lo comprende. Sabe que con la vuelta de **Carlos** aún me afectan más este tipo de noticias.

Adibidean ikusten denez, bada, Arkotxak “i” letraz idatzi du Ioannes euskarazkoan, eta jotaz frantsesezkoan; hurrengo bi kasuetan azentu-marka jarri diote erdarazkoari, bai izen asmatuari (ROZ), bai kantari argentinarraren izenari (ROD). Azkenekoan, Karlos zena Carlos da gaztelaniazko testuan; esaldi berean ikus dezakegu, halaber, Maite bere horretan ematen duela XTak, eta Nerea izenordain baten bidez. Moldaketa txikiak dira guztiak, xede-hizkuntzaren arau eta idazketa-ohiturei jarraitzen dietenak; egokitzen, nolana ere.

Badira, ordea, gehixeago aldatzen diren zenbait adibide, nahiz eta hizkuntzaren oihartzuna beti aldatu ez:

## 12. adibidea

[BOR EU] 3038#: Gauak hain zuzen **Sigmundek** aipatzen zuen "amodioa eta lanaren" xendak irekitzen zizkidan, Lukatxukairaino, biharamunean lankideek preseski disgustuz begiratzen baldin bazidaten ere, ene bizitza entoila ikaragarria zela ezpainak handikoiki plegatuz gaineratzean.

[BOR FR] 3038#: Même si mes collègues me regardaient avec dégoût et ajoutaient, lèvres contorsionnées d'une majesté feinte, que ma vie était un énorme gâchis, la nuit précisément m'ouvrait le chemin " du travail et de l'amour " **freudien**, indispensable pour vivre.

[JAI EU] 2528#: **Paulo** deitzen zela esan zion, sukaldetik ekarritako trapu batekin haren prakak sikatzen saiatzen zen bitartean.

[JAI ES] 2528#: Le dijo que se llamaba **Paulo, Paulo Etxebarria**, mientras ella le secaba los pantalones con un trapo de cocina.

Lehen kasuan, BOR FRk nahiago izan du frantsesezkoan abizenean oinarrituriko kategorizazioa erabili, lagunartekotasuna adieraziko lukeen izena beharrean; horrela, esan dezakegu estiloa zertxobait aldatzen dela, izendapena hotzagoa agertzen baita, akademikoagoa, nahiz eta hizkuntza-oihartzuna bera den. Balirudike diglosiaren erakusle dela: tonu lagunkoia euskaraz, eta akademikoa, berriz, frantsesez. Bigarren kasuan, JAI ESK izena errepikatu eta abizena gehitu dio pertsonaiari; esanen genuke horrek euskalduntasuna ekartzen diola izen hutsari. Arroztu egiten da izena, nolabait. Biek ala biek jotzen dute esplizitaziora, beraz.

Toponimiari begiratzen badiogu, euskarazkoetan hizkuntza-aniztasuna agertzen dela esanen genuke, pertsona izenekin gertatu bezala:

## 13. adibidea

[BOR EU] 2541#: —**Du Bellay** plazara, otoi!

[BOR FR] 2541#: —À la place **Du Bellay**, s'il vous plaît !

[EPA EU] 23#: Ez zegoen eguna zabaldu barik ere amerikarrarekin topatzeko indarrez, baina egarri zen, **Llano**etako lur gorria aro lehorrean egarrizten den bezala.

[EPA ES1/ES2] 23#: Sin embargo sentía sed, una sed como la de la tierra roja del **Llano** durante la estación seca.

[ROZ EU] 1002#: **Gökçeada** uhartetik **Istanbulerako** bidean izan zuen lurrikararen berri.

[ROZ ES1/ES2] 1002#: Supo del terremoto en su camino de **Gökçeada** a **Estambul**.

[ZAL EU] 510#: edozein unetan, Beta-Kappa-Pi ikasle-anaidikoak atea indarrez zeharkatu, ni pirata-kutxa batean sartu eta kanpus bertako **Mosquito Lake**-ra bota nazaketela, pixka bat nabigatzera.



[ZAL ES] 510#: la de unos miembros de la hermandad Beta-Kappa-Pi forzando la puerta, metiéndome a continuación –en calzoncillos– en una especie de arcón pirata y arrojándome a **Mosquito Lake**, en el mismo campus, a flotar un poco.

Frantsesa, gaztelania, turkiera eta ingelesa agertzen zaizkigu adibide horietan. Euskaraz nola idatzi araurik ez dagoenean, tokian tokiko hizkuntzaren grafian ematen dutela ikusi dugu. Bestela, arautua edo tradizioa dagoenean, euskarazko grafiarekin ematen dute, esaterako, Bartzelona (ROZ EU, 1004#), Caracas (EPA EU, 10#) eta Madril (ROD EU, 2029#). Toponimiaren itzulpenari dagokionez, oro har egokitzapena gertatzen dela ikusi dugu:

#### 14. adibidea

[ARK EU] 1507-8#: Ophorportu utzi, eta iparraldera doa orain San Pedro ontzia, beti eguzki sartzeko **Granbayaren** itsasbazterrari jarraikiz. **Portutxotik** iragan zen, baina ez dakigu itsasturientzako hain ona zen Portutxoko ziloan sartu zen ala ez.

[ARK FR] 1507-8#: Le San Pedro laisse Ophorportu et se dirige vers le Nord en longeant la côte occidentale de la **Grande Baye**. Il passe au large de **Portuchoa**. On ignore s'il a jeté l'ancre dans la petite baie pour y demeurer quelques jours.

[CAN EU] 17#: Aroztegian, **Grabenstrasse** karrikan, haur bat dabil zerrautsarekin jolasean, etxeak marraztu eta putz eginez desagitera.

[CAN ES1] 17#: En la carpintería de la calle **Grabenstrasse**, un niño juega sentado en el suelo, dibujando con serrín pequeñas casas que luego deshace a base de soplidos.

[CAN ES2] 17#: En la carpintería de la calle **Grabenstraße**, un niño juega sentado en el suelo, dibujando con serrín pequeñas casas que luego deshace a base de soplidos.

[ROZ EU] 1502#: Kamioiak entzuten ziren une horretan ere, gainontzeko hotsak leihoz bestaldera geratzen ziren, urrun, **rhone** [sic] ibaia bezain urrun.

[ROZ ES1/ES2] 1502#: También en ese momento se oían los camiones, los demás sonidos de la ciudad quedaban al otro lado de la ventana, lejos, tanto como las aguas del río **Ródano**.

[BOR EU] 1005#: Bizkitartean, **Donapaleuko** goizalde karroindatu haietan, aita bildotsak pisatzen zegoela, eta gu lekuaren atxikitzen zutik daldaraka merkatu irekiaren erdian, pairatzen genituen haize mehe labankadez gogoratzen gara.

[BOR FR] 1005#: La fraîcheur matinale attisait ainsi le feu de ma mémoire : je me souvenais de ces aurores givrées de **Saint-Palais**. Nous subissions les assauts du vent du nord alors que nous gardions jalousement notre place et que papa pesait ses agneaux.

Lehenengoan, STan frantsesezko izena dirudien Granbay deklinaturik agertzen zaigu, euskarazko ahoskerara ekarria; XTn, berriz, frantsesez dagokion idazkeran ematen da. Gainontzean, ARK FRn, bere horretan uzten dira beste izen bereziak, Portutxoa-ri aldaketa txiki bat egiten bazaio ere. Esanen genuke badela beste diferentzia bat: sorburu-testuko irakurleak, narrazioaren zati hori Ternua inguruan gertatzen denez, frantsesa eta garaiko euskararen oihartzunak jasoko ditu, eta xede-testuaren irakurleak, berriz, euskara baizik ez du jasoko L3tzat, hots, narrazioko hizkuntza nagusia ez den beste hizkuntzatat.

Bestalde, 14. adibideko gainerako kasuetan, egokitzen gertatu dela esan dezakegu. CAN ES1n, bere horretan geratzen da lehenengoz gaztelaniaz atera zenean, baina aldatu egin zuten CAN ES2n, segur aski argialetxearen estilo oharrei jarraituz. Bigarrenak heterolinguisismoaren oihartzuna edo arrotasuna indartzen duela esan genuke, gaztelaniak ez baitu grafia hori [ß] erabiltzen. ROZ ES1/ES2n, gaztelaniara ekarri du STan frantsesez ageri den izena. Gaur egun, *Berriako* estilo liburuan ikus dezakegunez, Rhone izena eskualde administratiboari esateko erabiltzen da euskaraz, eta Rodano, berriz, ibaiari esateko. Baliteke, baina, liburua atera zuen unean argi ez egotea bereizketa hori. Azkenik, BOR FRk egokitu egin du baxenabartar herriaren izena.

Ezberdindu beharko genituzke, apika, Euskal Herriko izendegia eta mugez kanpokoak, nahiz eta joera antzekoa izan. Izan ere, Euskal Herriko leku-izenekin, BOR FRk xedehizkuntzako izena ematen diola ikusi dugu adibidean (baita Sara>Sare eta Urrustoi>Arrast ere), eta gauza bera egiten dute EPA ES1/ES2k (Baiona>Bayona), ROD ES1/ES2k (Miarritze>Biarritz, Iruñea>Pamplona) eta MEA ESk (Bilbo>Bilbao). Arauak betetzen dituzte denek, beraz.

Ikusi dugu, baina, egokitzen ez den beste aldaketaren bat ere:

### 15. adibidea

[ROD EU] 520#: Eramango ditiat batzuk **Urruñara**.

[ROD ES1] 520#: Te llevaré algunas a **Urruña**.

[ROD ES2] 520#: Parte te las llevaré **allá**.

[ZAL EU] 1003#: eta Petibonum, denborarekin **Baiona** bihurtuko zena;

[ZAL ES] 1003#: y Petibonum, que con el tiempo se convertiría en **Bayona o en Biarritz** -la situación exacta no estaría aún clara.

Kasu horietan, errepresentazio soziala aldatu egiten da xede-testuan, espazio zehaztugabe bat edo beste geografia bat etortzen baitzaigu burura. Zehazki, ROD ES1ek Urruña izena darabil, baina erakusle batez ematen du bigarren autoitzulpenak. Bigarren hori Tanqueiroren (2002: 118) “azpitzulpen” kasu bat izan daiteke, eduki semantikodun unitatea ezabatu eta erakusle batez ematen baitu. ZAL ESk, berriz, zabalpenaren teknika erabiltzen du itzulpenean, egokituriko Bayona ez ezik Biarritz ere gehitzen baitu, eta beste esaldi bat amaieran. Bi euskarazkoak adierazpen heterolingueak izan ez arren, 3. adibidearen harira esan bezala, XTetan hala izanen zirela aurreikusita ekarri ditugu kasu horiek.

Bestalde, marka eta erakundeen izenak ez dira leku eta pertsona izenak bezain ugariak testuetan, baina, hala ere, gure lagineko testu gehienetan<sup>129</sup> agertzen da baten bat. Hizkuntzei dagokienez, denetarik ikusi dugu sorburu-testuan:

### 16. adibidea

[BOR EU] 1000#: Auzoak **caporal** tabako bortitza erretzen zuen, kea autoko leiho zabaletik ihes zihoakiola aire hotzaren trukean.

<sup>129</sup> Cano, Elorriaga eta Meaberen testu-zatietan ez dugu adibiderik aurkitu; horrek ez du esan nahi ez daudenik –zeren testu osoei begiratuta, jakin badakigu badirela–. Jasotako laginean, ordea, ez dira agertzen.

[BOR FR] 1000#: Le voisin fumait du **caporal** gris, et la fumée s'échappait par les fenêtres grandes ouvertes pour laisser pénétrer un filet d'air frais.

[EPA EU] 38#: "**Seguros El Sol del Llano**" konpainiaren berri ematen zuen eguzki distiratsu bat eta guzti.

[EPA ES1/ES2] 38#: En su portada, un radiante sol anunciaba el nombre de la compañía: "**Seguros El Sol del Llano**".

[ROZ EU] 2010#: Bizidunok osaten dugu orduan uharteko energiaren mintza, **Thymus, rosmarinus officinalis, lavandula, taxus baccata**.

[ROZ ES1/ES2] 2010#: Somos los vivos los que formamos entonces la membrana energética de la isla, **Thymus, rosmarinus officinalis, lavandula, taxus baccata**.

[ZAL EU] 543#: pentsa, **Berkeley**n ehun eta hirurogeita hemezortzikoa izan da azken kurtsu hauetan.

[ZAL ES] 543#: en **Berkeley**, fijese, ha sido de ciento setenta y ocho durante estos últimos cursos.

Irakurle erretzaileak agian jakinen du "caporal" Frantzian ekoizten den Gauloises tabako markaren bertsioetako bat dela. Euskarazkoan, esplizitaziora jotzen du *tabako* esanda, beharbada Hego Euskal Herriko irakurleak ezagutuko ez duelakoan; hala balitz, gunera begira idatzitakoa dela iradoki genezake. ROZ ES1/ES2n izen zientifikoarekin agertzen zaizkigu zenbait landare-izen, latinez, beraz; multzo honetan sailkatu ditugu egindako lau multzoen artean hobekien zegokiona zelakoan. Azkenik, ZAL ESK Kaliforniako Berkeley unibertsitateari egiten dio erreferentzia azken pasarte horretan. Guztiak ere berdin uzten dute adierazpen heterolinguea.

Marka eta erakundearen itzulpenari dagokionez, itzultzaileek, bere horretan uzten ez dutenetan, egokitzapenaren bidetik jotzen dutela ikusi dugu berriz:

## 17. adibidea

[ARK EU] 1504#: **Jondone Joane Bautistaren** elizan egunero meza kantatua, emazteari zor zaiona pagatua izan dakiola, ilobarentzat arta handiz zainduak dituen kapitain jantzi higatua, haurraren unidearentzako mihisea...

[ARK FR] 1504#: " une messe que l'on chantera tous les jours dans l'église **Saint-Jean-Baptiste**, les dettes que l'on veillera à payer à son épouse, un vieil habit de capitaine conservé avec soin pour le neveu, un drap pour la nourrice de l'enfant. "

[BOR EU] 516#: Haietarik bat mediku bihurtu zen eta etxeko semeak agertzen zuen eran, Balantsun Parisera joan zen, alabaren tesi-irakurketaren behatzera, txapela eskuan, larriari josi bortuko ardi-usainak **Sorbonako** anfiteatroa betetzen zuela.

[BOR FR] 516#: Une des filles fit des études de médecine et à l'occasion de sa soutenance de thèse, Balantsun se déplaça à Paris. Il se retrouva dans un amphithéâtre de la **Sorbonne**, tenant dans ses mains son béret plié en quatre et parfumant les alentours d'une bucolique odeur de brebis montagnardes.

Goiko bi pasarteetan, autoitzulpenean frantsesez ematen dute kasuan kasuko erakundearen izena. Nolanahi den, oro har markak eta erakundeak bere horretan uzten

dituztela ikusi dugu, beharbada euskarazko izenak ez direlako edo nazioartean ezagunak direlako.

Egokitzapenez gainera, aurkitu ditugu beste itzulpen-teknika batzuk, gutxiengo diren arren:

### 18. adibidea

[JAI EU] 2046#: Eta ez zen **British Airlines**koa.

[JAI ES] 2046#: Y no era precisamente el de **British Airways**.

[ROD EU] 517#: **Eroskin** gauzak faltatzen hasi dituk.

[ROD ES1] 517#: El **supermercado** ha empezado a vaciarse.

[ROD ES2] 517#: En el **Eroski** empiezan a escasear las cosas.

[ZAL EU] 507#: Derrepentean hogeita bi edo hogeita hiru urte atzera egin izan banu bezala sentitu dut, Gasteizko lehenengo ikasle-urtean egon nintzen **Residencia-Hogar Alavés** delakoaren garaietara itzuli izan banintz bezala.

[ZAL ES] 507#: De repente me veo en la máquina del tiempo, dando un salto veintidós o veintitrés años atrás, a los tiempos de mi primer año en Vitoria, como si hubiera regresado a la época de la **Residencia-Hogar Alavés para Estudiantes y Obreros**.

Ikus daitekeenez, lehenengo kasuan JAI ESk Airlines zena Airways bihurtu du, beharbada existitzen den erreferentzia erabili nahi zuelako edo enpresaren izena euskarazkoan oker eman zuelako. Bigarrenean, ROD ES1ek izen arrunt bat darabil, tokikoaren oihartzuna ezabatuz; bigarren argitalpenean, berriz, euskarazko testuan ageri den izen berezira jotzen du. Gogoan izan behar dugu lehen autoitzulpen hori Centro de Lingüística Aplicada Atenea delakoan kaleratu zuela, Madrilen, eta urtebete geroago atera zuela Donostiako Tarttalo etxean; beraz, pentsa daiteke irakurlearen geografia kontuan hartu zuela egokitzeko hautu hori egiteko. Azkenik, ZAL ESk izen berezia zabaldu egiten du erdarazkoan, beharbada L2 eta L3k bat egiten dutelako, alegia, gaztelaniazko izena gaztelaniazko narrazioan txertatzen delako; ondorioz, xede-testuan beste hizkuntza baten (gaztelania) presentzia desagertu egiten da.

Sormen-lan deitu ditugunen barruan sartzen ahal ditugu filmen izenak, liburuak, prentsa eta artelanak, eta, lau multzoetatik, gure laginean, gutxiengo dira:

### 19. adibidea

[BOR EU] 2543#: Zakuak hartzen, **Nouvel Obs** besapean plegatzen eta biloak orraztatzen segitu nuen, emozioaren aztaparrak lardaskatua.

[BOR FR] 2543#: Je la suivis dans les couloirs de l'aéroport, le **Nouvel Obs** sous le bras en traînant son sac lourd. J'étais émue.

[CAN EU] 500#: Begiak zabal-zabalik ditu eta lepoa gora, **Guernica** koadroa bera amaitzen ari balitz bezala.

[CAN ES1/ES2] 500#: Tiene los ojos abiertos de par en par, y el cuello se le antoja más lejos del cuerpo y más cerca de ningún sitio, como si aún estuviese terminando el **Guernica**.

[MEA EU] 550#: Neuk ere abesti bat entzunaraziko diot M.ri, Janisen beste edozein, **I need a Man to Love** edo **Call on me**.

[MEA ES] 550#: También yo voy a proponerle una canción, cualquier otro tema de Janik, **I need a Man to Love**, o **Call on me**.

[ZAL EU] 508#: Edo, hobeto esanda, **Los albóndigas en remojo** edo **Supersalidos** bezalako film baten plato abandonatuan sartu izan banindute bezala.

[ZAL ES] 508#: O como si me hubieran metido en el plató abandonado de una película como **Los albóndigas en remojo** o **Supersalidos**.

Adibide horietan ez da autoreek eurek asmatuiko argitalpen edo artelanik, hots, besteren batek asmatuak dira. Ikusi dugu CAN EUk zehaztapena jartzen diela halakoei izen bereziaren atzetik, goiko kasuan “koadroa” dioen moduan (1001#: «Metropolis filma» eta 27#: «The great dictator filma», konparazio baterako); pentsa daiteke euskarazko izena zailagoa gerta daitekeela deklinatzeko, baina halako arazorik emanen ez lukeenean ere egiten du, goiko adibidean bezala. Aldiz, xede-testuari erreparatuz gero, ikusiko dugu gaztelaniazkoan ez duela halako zehaztapenik egiten. Diglosiaren adierazle dela pentsa dezakegu: horiek gaztelaniaz kontsumitzen ditugunez, ez dugu zehaztapenik behar; kontrakoa gertatzen da, ordea, euskaraz horiei erreferentzia egitean. ZAL EUko adibidean, azkenik, ingelesez ekoitzitako film biak gaztelaniazko izenez ematen zaizkigu, itzulpenean, beraz, agian euskal irakurleak ezagutuko duena hori baita; Hego Euskal Herrikoaz ari bagara, noski, Ipar euskal herritarrak frantsesez ikusiko zituelakoan baikaude, eta, beraz, titulu horiek oihartzunik ez diete ekarriko (gaztelania jakin ezean). Hortaz, 16. adibidean Bordaren testuaren harira esan bezala, guncari begira idatzita dagoela iradoki daiteke.

Sormen-lanen itzulpenari dagokionez, egokitzapenen bat ikusi dugu:

## 20. adibidea

[BOR EU] 2529#: Mahai izkinan jarri nintzen, **Xiberoko Botzako** iluneko egitarau musikala entzuten, **Alaitz eta Mainerren** azken diskoa buklean eta osoan eskaintzen zuten, berrogeita hamargarren kapituluan ireki Axularren predikuen bilduma aurrean, paradisu bidea infernuko baina errazagoa zela irakasten zigun orrialdeetan justuki, hegazkineko emaztearen aspaldiko oroitzak buruko alorrek bustitzen zizkidala.

[BOR FR] 2529#: Je m’assis au coin de la table, à écouter les programmes nocturnes de **Xiberoko Botza** qui me proposait en boucle le dernier opus d’**Alaitz et Mairer**, devant le livre d’Axular ouvert au cinquantième chapitre, juste à l’endroit où le docte théologien écrivait que la voie vers le paradis était en fait plus facile que celle qui conduisait en enfer, si l’on suivait à la lettre ses recommandations. Le souvenir de l’inconnue de l’avion, maintenant incrusté dans ma mémoire, labourait mon âme.

[MEA EU] 1038#: Iraultzaren ildotik, zine mutuan dugu adibide trentindun bat, **Potomkin korazatua** filmeko triskantza (Eisenstein, 1925).

[MEA ES] 1038#: Al hilo de la revolución, contamos con un ejemplo succulento en el cine mudo, la masacre de **El acorazado Potemkin** (Eisenstein, 1925).

[ZAL EU] 1037#: hau ez da Coetzeeren **Lotsaizuna**.

[ZAL ES] 1037#: que esto no es **Desgracia**, de Coetzee.

Lehenengo kasuan egokitzapen txiki bat baizik ez dago Alaitz eta Maider musikari bikotearen izenean, juntagailua frantsesez ematen baitu xede-testuan. Aldiz, Xiberoko Botza bere horretan uzten du. CAN EUko adibideekin lehenago esan bezala, MEA EUk zehaztapena jarri dio erreferentziari goiko adibidean, eta titulua euskaraz eman du sorburu-testuan, filma mutua delako, beharbada. Laginari baino, testu osoari erreparatzen badiogu, ez du beti berdin jokatzeko; goiko kasu horretan zehazki, xede-testuan ez du zehaztapenik jartzen. Azkenik, ZAL EUren kasuan, aipatzen duen Coetzeeren liburua euskaraz ere badago, eta zehaztapenik gabe (liburu edo eleberri) ematen du bai euskarazkoan bai erdarazkoan, dagokion izenburuarekin.

Beste kasu honetan, izen berezia desagertu egin dela ikus dezakegu:

## 21. adibidea

[BOR EU] 1509#: Zainen berriz biltzeko Mairosek utzi **Gogor** aldizkari pornografikoa harrapatu eta kanapean jarri nintzen.

[BOR EU] 1509#: Reprenant le contrôle de mes nerfs, j'attrapai une revue pornographique oubliée sur le canapé par Mairos, une ancienne amie qui squattait souvent chez moi, plus rarement depuis qu'elle avait rencontré Joanes, l'homme de sa vie.

Izen berezia desagertzearen arrazoa izan daiteke aldizkari asmatu bati buruz ari dela; izan ere, egon badauden prentsa eta beste argitalpenez ari denean, BOR FRk erreferentziarik gorde dituela ikusi dugu. Gainera, horixe da gure laginean autoreak asmatuak sormen-lan izen bakarra.

Azkenik, izen berezi ez direnak ere baditugu atal honetan. Hau da, esaldia gaintzen ez duten beste hizkuntzetako errepresentazioak, esaterako, esamolde eta maileguak. Arestian esan bezala, Orotariko Euskal Hiztegia eta Egungo Euskararen Hiztegiaren arabera galbahea jarri dugu mailegu zer den erabakitzeko. Horrela, 49 sarrera bildu ditugu, autoitzultzaile-testu guztien errepresentazioarekin, oraingoan:

## 22. adibidea

[ARK EU] 1549#: Han, urrun, pixka bat ezkerretik, West Bay eta East Bay elkartzen diren lekuan, Long Pointeko punta mehe luzea, uraren **blu** distirantean izpi horailez piztua.

[BOR EU] 547#: Adinaren errespetua salbu "Hauxe Pixtoleta!" huxtukatu nuen eta **kultural killer** plantaz aperitifaz zerbitzatzen zen guneetarik urrundu nintzen.

[CAN EU] 6#: "KONTUA DA, Russell Spencer arte zuzendariak bilera eskatu zidala agur-naziaren sorrerari buruzko **gag** bat bururatu zitzaiole-eta.

[ELO EU] 2542#: baina bat bestearen gainetik geratzen zen beti, arkitektoak **inkonstanteak** direlako.

[EPA EU] 1547#: —Tigreak bere menpe nindian **araguaneyaren** azpian izan naizen denbora guztian.

[JAI EU] 3011#: —**Suerte** —esan dio.

[MEA EU] 2040#: Toki hau ez da paradisu galdu bat (hemen eta gaur dago), ez da paisaia bukolikoa (izerdiak bota nituen hibiskoak landatzen eta belar txarrak segatzen, belar txarrik baldin badago), ez da nire **sancta sanctoruma** (mundutarra da hemen egosten den guztia), ez da klub bat (atea zabalik dago nahi duenarentzat).

[ROD EU] 2016#: Martinen altxor preziatua gurasoak dira, aita intelektuala eta ama “progresista **martxosoa**”, esatea gustuko duen bezala.

[ROZ EU] 529#: Goizeko bederatziak dira, **Guten Morgen**, eta bakarrik nago tabernan.

[ZAL EU] 7#: Ia ustekabeen, nire eskuari malguki batek eragin izan balio bezala, eta hutsik egin gabe, Henrike Knörr irakaslearen **e-mailaren** kopia jaso dut mahai gaineko paper pilaren artetik:

Askotariko kasuak ditugu goiko adibidean, non ingelesa, frantsesa, alemana, latina eta gaztelania agertzen baitzaizkigu. Zenbait euskarazko ahozkoan erabiltzen ditugu, “e-mail” eta “martxoso” kasurako, baina aipatu hiztegiek ez dituzte jasotzen, eta horregatik eman ditugu hemen. Bistan denez, batzuek egokitu egin dituzte euskarazko ortografia/ahoskerarekin bat egiteko, hala nola, “kultural”, “blu” eta “inkonstante”.

Mintzagai ditugun 49 sarrereren hizkuntzei dagokienez (betiere sorburu-testuaz ari garelarik), honela banatzen dira itzultzaile/testuaren arabera.

	FR	EN	DE	VE	ES	LA	AR	Z.g.
ARK	1					2		
BOR	9	3			1			2
CA		3						
ELO					3			
EPA	1			6				
JAI					3			
MEA		2			1	2		
ROD					2	2	1	
ROZ	2		1					
ZAL		2						

**Taula 22. 4.puntu (Grutman 2002) hizkuntzak, izen berezirik gabe**

Taulako hizkuntzak, hurrenez hurren, hauek dira: frantsesa, ingelesa, alemana, Venezuelako gaztelania, Hego Euskal Herriko gaztelania, latina, arabiera eta zehaztu gabea. Azkeneko multzo horretan BOR EUko bi adibide zenbatu ditugu, ezin esan baitugu zer hizkuntzatik harturiko hitzak diren (xede-testuari begiratuta ere, ez dugu asmatu).

Taulan ikus dezakegunez, badira autoreak baliabide hau hizkuntza bakarrarentzat darabiltenak, hala nola, ZAL EUk ingelesarekin eta ELO EUk eta JAI EUk gaztelaniarekin. Gainerakoek hizkuntza bat baino gehiago adierazten dituzte baliabide honekin. Era berean, esan dezakegu frantsesa dela maizen agertzen dena, 13 sarrera baititugu, bereziki BOR EUren ondorioz; jarraian datoz ingelesa eta Hego EHko gaztelania, hamarna sarrerekin.

Nolanahi den, autore kopuruari begiratuta, gaztelania da testu gehiagotan agertzen zaiguna, 5 autoitzultzailek baitarabilte, kopuru txikian bada ere.

Jarraian, horien itzulpena nola egin den ikusiko dugu. Sorburu-testuko L3 eta xede-testuko hizkuntza nagusia bera ez den kasuekin hasiko gara; hots,  $L3^{ST} \neq L2$ . Gehientsuetan, bere horretan utzi dituzte adierazpen horiek xede-testuan ere; beraz,  $L3^{XT} = L3^{ST}$  dira kasuok:

### 23. adibidea

[EPA EU] 537#: Ez nekien indiarren okela astoena baino goxoagoa zenik, baina "**gourmet**" bat dugu, noski, gure piztia.

[EPA ES1] 537#: Ignoraba que la carne de los indios fuera más apetitosa que la de los borricos -añadió, burlón- pero nuestra fiera debe ser un "**gourmet**".

[EPA ES2] 537#: Ignoraba que la carne de los indios fuera más apetitosa que la de los borricos -añadió, burlón- pero nuestra fiera debe ser un **gourmet**.

[CAN EU] 21#: "Russellek hitzaurre moduan edo diktadorearen ametsa balitz bezala —**flash back** antzeko batean— txertatu nahi zuen sekuentzia multzo hura, eta gidoiaren lehen bi zirriborroetan egon zen, azkenean, konplexuegia zela-eta, filmatu ez bagenuen ere.

[CAN ES1] 21#: "Russell quería insertar aquellas secuencias como prólogo o a modo de un sueño del dictador —una especie de **flash back**— y aunque las mantuvimos en las dos primeras versiones del guión, no llegaron a rodarse por considerarse demasiado complejas.

[CAN ES2] 21#: "Russell quería insertar aquellas secuencias como prólogo o a modo de un sueño del dictador —una especie de **flashback**—, y aunque las mantuvimos en las dos primeras versiones del guion, no llegaron a rodarse por considerarse demasiado complejas.

[ROD EU] 1016#: **Desolatio, desolationis** kantatu duzu.

[ROD ES2] 1016#: Tarareas **Desolatio, desolationis**.

[ROZ EU] 1518#: Nik egin dut, erantzuten zion silviak, **pour toi**.

[ROZ ES1/ES2] 1518#: Lo he preparado yo, le decía Silvia, **pour toi**.

Kasu horietan, bere horretan utzi dute beste hizkuntzako adierazpena. ROD EUk aipamenak latin eskoletako deklinazio-ikasgaia dakar gogora. EPA ES1en, komatxo artean ematen da, eta, ES2n, berriz, gabe. CAN ES2n, azkenik, elkartuta eman du euskarazkoan eta lehen itzulpenean bi hitzetan zegoena. Bi aldaketatxo horiek argialetxearen estilo-oharren ondorio izan daitezke.

Kasuren batean, ordea, bestelako bideak antzeman ditugu:

### 24. adibidea

[ROD EU] 501#: Paperarekin batera gutunazala entregatu dio, eta **kufiarekin** aurpegia estaliz irten da tabernatik.

[ROD ES1] 501#: Junto con el papel le ha entregado la carta, y ha salido del bar ocultando su rostro con el **pañuelo palestino**.



[ROD ES2] 501#: Se la entrega junto con el sobre y sale del bar ocultando su rostro con el **pañuelo palestino**.

[ROD EU] 2004#: **Postcoitumaren** malko mingotsa loaren lehen orratzekin nahastu eta hesteak korapilatuta hartu dut lo.

[ROD ES2] 2004#: La agria lágrima del **postcoito** se mezcla con el primer rayo de sopor, y me duermo con los intestinos anudados.

ROD ESren bi adibide horietan, etxekotzearen alde egin duela ikusi dugu, heterolinguismoa neutralizatuz. Lehenengoan, gaztelaniaz azalpena eman dio euskarazko testuan ageri den hitz arabiarrari, bai lehen bai bigarren itzulpenean (nahiz eta, bistan denez, esaldia bera moldatu). Bigarreanean, berriz, latinaren oihartzuna desagertu egiten da hein batean, argi baitago gaztelaniazkoa latinetik eratorria dela; horrela, euskarazkoan latinezko terminoaren agerpenak xede-testukoak baino teknikotasun handiagoa adierazten duelakoan gaude.

Segidan, L3<sup>ST</sup>=L2 diren kasuei erreparatuko diegu, alegia, xede-testuetan zer bide hartzen den BOR EUn eta ARK EUn frantsesa agertzen denean eta gainerako sorburu-testuetan gaztelania agertzen denean. EPA ES1/ES2n, mexikar eta venezuelar kutsua duten hitzak bere horretan uzten dira, eta ez dugu uste arrotasuna galtzen dutenik, ez, behintzat, Euskal Herriko erdal irakurlearentzat:

## 25. adibidea

[EPA EU] 1020#: Zoritxarreko **chiguireak** heriotza aurkitu zuen lekutik gertu geratu ziren bazkari legea egitearren **guanacho** baten gerizpean.

[EPA ES1/ES2] 1020#: Detenidos a la sombra de un **guanacho**, cerca del lugar donde encontró la muerte el desgraciado **chigüire**, consumieron el frugal almuerzo con los víveres preparados por Lucrecia, la parlanchina mujer de Marcos:

Gainerako testuetan, ordea, neutralizatu egiten da heterolinguismoa; Grutmanek (2006) aipatzen zuen “araua” bete egiten da, beraz:

## 26. adibidea

[BOR EU] 31#: Beste gasnategi handiak espazio publizitarioak erosten zituen, **Basque de Caractère** omen zen gasnaren goraiatzeko, mesfidanta, biolentoa eta naturak goastatu produktua zela alegia, euskaldunak garen bezala.

[BOR FR] 31#: Une société concurrente achetait des espaces publicitaires bien visibles pour louer un fromage **basque de caractère**, un aliment à l'image de ce que les Basques sont, méfiants, brutaux mais choyés par la terre mère.

[ELO EU] 2027#: Dortoka bat erosiko duzue, **bistoso**a eta begi berdekoa.

[ELO ES] 2027#: Compraréis una tortuga, **vistosa** y de ojos verdes.

[JAI EU] 1511#: **A tope** ibiliko da erredakzioa, ez?

[JAI ES] 1511#: ¿La redacción andará **a tope** a cuenta del tema, no?

[ROD EU] 19#: Ondorengoa eginda dago, **coser y cantar**, nire herrian esango luketen bezala.

[ROD ES1] 19#: Lo siguiente está hecho, es **coser y cantar**, como dirían en mi pueblo.

[ROD ES2] 19#: El resto es **coser y cantar**, como dirían en mi pueblo.

Kasu horietan argi gertatzen da hizkuntza bikoiztasuna desagertu egiten dela. BOR FRko adibidean, ordea, *basque* adjektiboak ekar dezake hizkuntzaren oihartzuna, testuinguru horretan jatorriari erreferentzia egiten badio ere; gainera, euskarazkoan ez bezala, frantsesezkoan letra xehez jarrita, berezitasun oro desagertzen da. Orobat esanen genuke ROD ES1/ES2n ez dela arrotasuna erabat desagertzen, hain garbia izan ez arren; izan ere, badakigu istorioa Miarritzen gertatzen dela, eta pertsonaiak bere herrian hala esaten dela dioenez, pentsa dezakegu dauden tokian ez dela era berean esaten. Beraz, gaztelaniazkoan hizkuntza-talka lausotu egiten da.

Azkenik, aipagarriak iruditu zaizkigun beste adibide batzuk ere badira:

## 27. adibidea

[JAI EU] 3000#: Benetan **guapa** dagoela iruditu zaio.

[JAI ES] 3000#: —Estás **guapísima** —le digo,

[BOR EU] 2041#: Tenore horretan automatak gara, altzairuzko panpinak, burdinazko beso eta zangoak, aluminiozko bihotzak taupadaka ari zaizkigula, **ferblankazko** pentsamenduak ibiltari.

[BOR FR] 2041#: Nous sommes des automates, des poupées d'acier, des bras et des jambes métalliques, des pensées nomades en **fer-blanc**, tandis que nos cœurs d'aluminium battent dans leurs cages plombées.

Lehenengo kasuan, euskaraz ematen den «benetan guapa» egokitu egiten du JAI ESk, gaztelaniaz natural gera dadin, beharbada; horrela, *guapísima* superlatiboa darabil. Bigarrenean, euskarazko testuan frantsesezko hitz elkartu bat euskaratzen du BOR EUk, xede-testuari begiratuta uler daitekeenez. Eleberri osoa kontuan hartuta, ohartu gara sarri darabilela Bordak baliabide hori, hots, frantsesezko hitzak “euskaratzea”; zenbaitetan, xede-testuan begiratu arte, hitz baten esanahia ez jakiteraino. Konparazio batera, eta sortzaileenak baizik ez aipatzearren, hitz hauek aurkitu ditugu euskarazkoan (parentesi artean XTn eman duen ordaina): “xapito” (*chapiteau*), “xerrami” (*cher ami*), “primalerba” (*prime à l'herbe*), “parrazar” (*par hazard*), “tanpis” (*tant pis*), “vachaletant” (*vache baletante*), “katrela” (4L –auto mota bat–) eta “ronpuin” (*rond-point*). Baina gauza bera egin du bretoierazko “kromletxak” (*cromlech*) hitzarekin, eta guztietan neutralizatu egiten da XTn. Nolabait, esan dezakegu STn autoitzulpen implizitu bat egiten du, eta itzultzean, berriz, autoitzulpenaren autoitzulpena.

Zenbaitetan, STko frantsesezko adierazpen horiek aldatu egin ditu Bordak itzulpenean. Azken horren adibide dira, batetik, STko «Auteferafutro!» madarikazioa, XTn “*Le calvaire!*” eman baitu behin, eta beste behin, STn «auteferafutro!» idatzita, XTn “*t'as qu'à croire!*”; bestetik, STko «Un succès remarquable!» titularra, XTn “*un véritable succès!*” da. Nolanahi ere, beste hizkuntzetako adierazpideekin ere jarraitu du sortzen itzulpenean, ez soilik frantsesarekin, beste adibide honetan ikus dezakegunez: STn «Alta sine qua none» zena, XTn “*sim qua non*” da. Hautu horien azterketak luzerako joko luke, eta ez dugu horretan

sakonduko, mugatu beharrez; hala ere, laginean jaso dugun zatian ez egon arren, aipagarriak iruditu zaizugu, Bordaren joera sortzailea adierazten dutelako.

Beraz, esan bezala, 4. puntu honetako adierazpideak erabilienak badira, hori izen berezien ondorioz da, eta, bereziki, pertsona izenen eta toponimiaren ondorioz. Ikusi dugu izen bereziak bere horretan ematen direla XTn, idazkerari dagozkion aldaketa txikiekin zenbaitetan, eta leku-izenak, berriz, egokitzapenaren bidez itzultzen direla. Markei eta sormen-lanei dagokienez, teknika gehiago identifikatu ditugu hitzez-hitzekoaz eta egokitzapenaz gainera, nahiz eta, oro har, horiek biak izan nagusi. BOR EUk egindako frantseseko lexikoaren euskaratze sortzaileak ere ikusi ditugu. Bestela, izen bereziak alde batera utzita, ikusi dugu eleaniztasuna, oro har, neutralizatu egiten dela  $L3^{ST}=L2$  denean (konparazio batera, JAI EUn gaztelaniazko hitzak agertu direnean eta testu hori gaztelaniara autoitzuli denean). Euskarazko irakurleak elebitasunaren eta hizkuntza-talkaren zantzuak jaso ditzake mailegu horiekin. Erdarazkoan, gatazka normalizatu eta kultur distantzia leuntzen da, eta erdal irakurleak, beraz, ez du talkarik jasoko; ez, behintzat, kasu jakin horien bidez. Geroago (6.2.2.3.5 azpiatalean) ikusiko dugu egon daitezkeela aniztasun hori jasotzeko beste itzulpen-baliabide batzuk.

#### D. Perpausa gainditzen duten adierazpenak (6. puntua):

Azkenik, multzo honetan jaso ditugu beste hizkuntzen/aldaeren/dialektoen esaldiaz gaindiko errepresentazioak; edo, Grutmanek (2002: 335) definitu bezala, «répresentation hétérogène correcte de L2 qui va au-delà de l'échantillonnage lexical pour atteindre le niveau transphrastique». Kopuruez ari ginenean esan bezala, ez dira asko adierazpide honen sarrerak gure laginean; zehazki, 26 zenbatu ditugu, eta gehienak BOR EU testukoak dira.

#### **28. adibidea**

[ARK EU] 1040#: Hamaikak irian, azkenean, eskuinetik presentatu zitzaizen garbiki Pessamiteko pankarta eta laster bi hizkuntzetan idatzia zen ohiko abisua, **Eka ntemuk uepenash - Ne jetez pas vos déchets ici.**

[ROD EU] 2023#: —¿**Hacia dónde vas?**—galdetu nion.

[ROZ EU] 1530#: Sempre seran estrangers.

[MEA EU] 507#: être, pas avoir.

Lehenengo kasuan, Passemiten mintzo diren bi hizkuntza agertzen zaizkigu: jatorriz bertakoak diren pertsonena eta kolonoena; bigarrenean, gaztelaniaz dialogo labur bat dute ROD EUko ipuin bateko bi pertsonaiek; hirugarrenean, katalanezko aipua dugu, eta, laugarrenean, berriz, frantseseko. Horiez gainera, ZAL EUn abesti oso bat ageri da ingelesez, baita xede-testuan ere.

Heterolinguisia definitzean, beste hizkuntzak ez ezik, hizkuntza beraren aldaerak eta dialektoak ere sartu ditugu, horregatik jaso dugu ARK EUko euskara zaharreko testu bat eta BOR EUko xibererazko dialogo bat. ARK FRn, frantseseko itzulpenak laguntzen dio

euskara zaharreko testuari; autoitzultzaileak ez dio beti bide horri jarraitzen, ordea, zenbaitetan ez baitu sorburu-testuan dagoena xede-testuan ematen, eta, beraz, itzulpenik ere ez. BOR EUko dialogo jakin horren itzulpenean, ez da aldaera dialektalik antzematen frantsesez, eta, beraz, bereizketa linguistiko hori ezin jaso irakurleak. Gauza bera gertatzen da ROD EUko ipuin bateko pasarte batean, non telebistako albistegi bat agertzen baita, gaztelaniaz; sorburu-testuan hizkuntza ezberdintasuna ageri bada ere, gaztelaniazkoan ez da bereizketa hori adierazten. Gainera, ROD EUn, hizkuntza aukeraketa adierazgarria dela esan dezakegu, ipuina Euskal Herrian gertatzen baita, eta albistegiko ahotsak elebitasun asimetrikoa adierazten du nolabait (hizkuntzen banaketa funtzional hierarkikoa). Ondorioz, bi kasuetan, itzulpen-hautuek neutralizazioa ekarri dutela esan dezakegu.

BOR EU testura itzulita, neutralizazioarekin zerikusirik ez duten bestelako baliabideak ikusi ditugu, “arau” orokorretik aldenduz, beraz:

## 29. adibidea

[BOR EU] 512#: Nos parents ils nous parlaient en français pour ne pas que nous soyons handicapés à l'école.

[BOR FR] 512#: Nos parents, ils nous parlaient en français pour ne pas que nous soyons handicapés à l'école\* [**\*En français dans le texte original**].

[BOR EU] 505-7#: Je pige'pas là: **qu'est-ce que tu dis? Parle-moi français...**

[BOR FR] 505-7#: Je pige pas là : **pero que dices ? Exprime-toi en français...**

[BOR EU] 510#: Il **écrivait** qu'il ne fallait pas laisser le basque se perdre dans les maisons!

[BOR FR] 510#: Il **chantait** qu'il ne fallait pas laisser le basque se perdre dans les maisons !

Lehen kasuan, dialogo baten bukaeran, izartxo bidez, XTn oin-ohar hori jarri du STn ere frantsesez dagoela adierazteko. Horrela, hizkuntza bitasunari eusten dio; alta, STn dauden frantsesezko dialogo guztiekin ez du berdin jokatzen XTn, hots, beti ez du oin-oharrik jartzen, eta ezin dugu esan zer dela eta erabaki duen batzuetan jartzea eta bestetuetan ez. Bigarren eta hirugarren kasuak dialogo beraren parte dira: batetik, 505-7# zenbakiko adibidean, STn frantsesezko hitz hartzea zen hori elebidun bihurtu du XTn, edukiarekin bat egiteko, beharbada, solaskideek ez baitute elkar ulertzen. Horrela, XTko irakurleak hizkuntza-talka hori jasoko du, hizkuntza pareta bera ez den arren. 510# zenbakiko adibideaz eta aurreko adibideko bigarren zatiaz gauza bera esan daiteke: STn frantsesez dagoenez, XTn berdin utz zezakeen, baina, hala ere, hitzen bat aldatu egiten du; 4. puntuaren azterketan ere aipatu dugu Bordak itzulpen-prozesua testua moldatzeko baliatzen duela, baita STn frantsesez agertzen direnak ere.

Hainbeste sarrera ez ditugunez, zaila da puntu honetarako joera bat marraztea, eta ezin esan, adibidez, L3<sup>ST</sup>=L2 denean neutralizazioa jotzen denik, horren kasu batzuk ikusi arren. Euskalkiak eta antzinako aldaerak agertzen diren kasu gutxitan neutralizazioa gertatzen dela ere ikusi dugu, ez baita xede-hizkuntzan halako aldaerarik adierazten.

#### 6.2.2.3.4. Itzulpen-teknikak hizkuntzaren arabera

Atal honetan, sorburu-testuetako hizkuntzak erkatuko ditugu itzulpen-teknikekin; horren helburua da jakitea autoreek berdin jokatzeko ote duten (baliabide/teknika berak erabiltzen ote dituzten) hizkuntzaren arabera, hots, hizkuntzek (L3<sup>ST</sup>) itzulpen-hautuan eragina ote duten. Horretarako, laginean agertu zaizkigun hizkuntza guztiak erkatu baino, hiru hartuko ditugu: frantsesa/gaztelania eta ingelesa. Zehazki, Arkotxaren eta Bordaren kasuan, frantsesa eta ingelesa parean, eta gainerako kasuan, berriz, gaztelania eta ingelesa. Hau da, frantsesa/gaztelania autoreen ama-hizkuntza edo txikitatik jaso duten hizkuntza delako (badute lotura afektibo bat, beraz) eta autoitzulpenaren hizkuntza nagusia izanen delako; ingelesa, berriz, idazleek eskolan edo gerora ikasitakoa delako, nazioarteko hizkuntza bai idazle, bai irakurleentzat. Gaztelania diogunean Estatukoaz ari gara, ez, esaterako, Epaltzaren liburuan agertzen diren Venezuelako hizkeraren lexikoa (4. puntuan ikusitakoak).

Azterketa honetatik kanpo utzi ditugu izen-bereziak, asko direlako, baina batez ere, salbuespenak gorabehera, hizkuntza edozein delarik ere XTn bere horretan ematen direla edo egokitzapen ortografiko bidez itzultzen direla esan dugulako lehenago ere. Hortaz, beste adierazpideak esanguratsukoak izanen direlakoan gaude.

Guztira, 57 sarrera jaso ditugu, gaztelania/frantsesa eta ingelesa aintzat hartuz. Bakartzat kontatu dugu lehenago ere aipaturiko ZAL EUko ingelesezko abestia, hainbat esalditan egon baino, aipu osoa delakoan. Sarrera horietatik, 6 baztertu behar izan ditugu, ARK EUkoak denak, itzulpenik ez duten testu-zatietakoak baitira, eta hemen itzulpenari erreparatuko baitiogu. Nolanahi ere, kenduriko (edo frantsesera ez itzultzea hautaturiko) hori ere esanguratsua delako aipatu dugu kopuru osoa. Bestalde, izen-bereziak kenduta, autore guztien bi hizkuntzen adierazpenik ez dugu jaso; esaterako, ZAL EU eta CAN EU testuetan, ingelesezko adierazpenak baizik ez ditugu jaso, eta ARK EUren kasuan, frantsesezkoa da jasotako adierazpen bakarra, ingelesezkorik ez. Horrek, noski, mugatu egiten du autoreen itzulpen-hautuak deskribatzeko aukera. Azpiko taulan adierazi ditugu hizkuntzak eta sarrera-kopuruak testuz testu.

	gaztelania/ frantsesa	ingelesa
ARK	1	0
BOR	19	3
CAN	0	3
ELO	3	0
EPA	0	2
JAI	4	2
MEA	1	3
ROD	5	0
ROZ	1	0
ZAL	0	4
guztira	34	17

Taula 23. Frantsesa/gaztelania eta ingelesa kopuruak

Lehen begiratuan, argi ikusten da oro har gehiago direla gaztelania/frantsesa agertzen diren aldiak ingelesa agertzen diren aldiak baino. Arestian esan dugunez, gehien kasuan, hizkuntza bakarreko adierazpenak jaso ditugu, izan ama-hizkuntzarenak, izan ingelesarenak; zehazki, Meabe, Jaio eta Bordaren kasuan baizik ez dugu hizkuntza-parea aurkitu.

Oro har, itzulpen teknikaren arabera begiratu baditugu,  $L3^{ST}=L2$  denean, alegia, euskarazko testuan nolabait gaztelania/frantsesa agertu eta xede-hizkuntza nagusia hori bera bada, beste hizkuntzaren oihartzuna neutralizatu egiten dela ikusi dugu; bestalde,  $L3^{ST}\neq L2$  kasuetan, ingelesezkoa xede-testuan gordetzen da. Hona hemen adibide batzuk:

### 30. adibidea

[BOR EU] 1502#: Etxeratu nintzenean, mendeek ausikika kolpatu haritzaren maldan gurutzatu **kuplearen** irudia zerabilkidan kolkooan:

[BOR FR] 1502#: L'image du **couple** entrevu sous les chênes millénaires remuait mes neurones :

[ELO EU] 2542#: baina bat bestearen gagnetik geratzen zen beti, arkitektoak **inkonstanteak** direlako.

[ELO ES] 2542#: pero, aun estando los dos en el mismo piso, siempre quedaba uno por encima del otro, porque los arquitectos siempre han sido personas **inconstantes**.

[ROZ EU] 1504#: **Vente Silvia**, esaten zion aitonak belarrira, **ojo con la noche y los lobos, tienes que tener cuidado**.

[ROZ ES1/ES2] 1504#: Vente Silvia, le decía el abuelo al oído, ojo con la noche y los lobos, debes tener cuidado.

[EPA EU] 539#: Horretarainokoa, antza, haren **ingelesa**.

[EPA ES1/ES2] 539#: Por lo visto, su **inglés** daba para tanto.

[CAN EU] 7#: "Russell setatuta zegoen: filmean Hynkelen pertsonaiari **background** moduko bat, hitzurre bat erantsi behar zitzaioela uste zuen.

[CAN ES1/ES2] 7#: "Russell estaba empeñado en añadir a la película una especie de **background** del personaje de Hynkel, a modo de prólogo.

Adibideotan ikus dezakegunez, lehen hiruretan heterolinguismoa neutralizatu egiten da xede-testuan, beste hizkuntza baten oihartzuna desagertuz; azken bietan, berriz, eutsi egiten zaio ingelesaren edo ingelesezko erreferentziari.

Nolanahi ere, ez da identifikatu dugun itzulpen-teknika bakarra. Lehenago ere (29. adibidea) ikusi dugu BOR FRn oin-oharra darabilela dialogo bat STn frantsesez dagoela adieratzeko. Beste hauek ere ekarri nahi ditugu hona:

### 31. adibidea

[BOR EU] 505-7#: —Je pige'pas là: **qu'est-ce que tu dis? Parle**-moi français...

[BOR FR] 505-7#: — Je pige pas là : **pero que dices ? Exprime**-toi en français...

[BOR EU] 543#: hautetsien mintzaldien ondotik, aitor dut, Henryren **erdarazkoak** inarrosi ninduela.

[BOR FR] 543#: Le discours prononcé **en français**, à la suite de l'allocution des élus, provoqua en moi un trouble étrange ; je finirais aussi par me ranger du côté des ruminants muets.

[JAI EU] 3031#: Nola zen? 3032#: ¿Cómo era?

[JAI ES] 3031#: ¿Cómo era? 3032#: Ø

Lehen kasuan (29. adibidean ere ikusitakoa), pertsonaiaren kategoria sozialak aldatu egiten dira solaskideen arteko ezin ulertua adierazteko. Horrela, hizkuntza-pareak aldatzen ditu BOR FRk, honela adieraz genezakeena:  $L3^{ST}=L2$  da, eta  $L3^{XT} \neq L3^{ST}$  (Corrius eta Zabalbeascoa 2011). Horrek beste inplikazio batzuk dakartza berarekin, esaldi jakin horretan hizkuntza-talka ere aldatu egiten baitu euskara desagerraraztearekin batera. Bigarren kasuan, oro har sortze diskurtsiboaz baliatzen bada ere —543# horretan esaldi bat gehitzen du bukaeran—, BOR FRk esplizitaziora jo du, eta «erdarazkoak» (*en*) *français* eman du. Azkenik, aurretik ere ikusi bezala (7.adibidea), JAI ESK ezabatu egiten du xede-testuan errepika izanen litzatekeen bigarren galdera, hizkuntza-bikoiztasuna ere ezabatuz.

Sailkatzen zailagoak edo beste modu batean aipagarri iruditu zaizkigun pare bat kasu ere jaso ditugu:

### 32. adibidea

[BOR EU] 32#: Azken hilabeteetan ohartu nintzen harriturik bazela ardi gasna mota bat **Qui Parle Basque**, molekuletan benetako taraka-taraka mintzaira hegaldaraziz.


[BOR FR] 32#: Ces derniers mois, une publicité souriante rouge-blanc-vert vantait l'arrivée sur le marché d'un fromage **Qui Parle basque** à faire chanter nos neurones en une véritable tarakataraka langue. La nuit questionnait ma nuit.

[ROD EU] 2024#: —A **Donosti** —erantzun zidan konplize—, ¿y tú?

[ROD ES] 2024#: —A **San Sebastián** —me contestó cómplice—, ¿y tú?

Lehen kasuan, *Qui Parle basque* hori autoitzulpenean neutralizatu egiten dela pentsa genezake, frantsesezkoa denez; nolana ere, iruditzen zaigu ez dela guztiz horrela gertatzen, letra larriz agertzen baita, eta *basque* hori beste hizkuntzaren adierazpide litzatekeelako. Bigarrenean, sorburu-testuan gaztelaniaz mintzo bada ere, euskarazko hiri-izena ematen du; xede-testuan, berriz, hizkuntza bitasuna neutralizatu egiten da, gaztelaniaz agertzen baita guztia, eta hiri-izena ere gaztelaniaratu, neutralizazio horretan indartu egiten dela esanen genuke. Gainera, edukiari bagatozkio, konplizetasuna euskara erabiltzeak ematen diola ulertuz gero, zentzua galdu egiten da, guztia gaztelaniaz ematen denez. Bestela esanda, tartekiaz ematen den talkaren arrastoak zentzua galtzen du erdarazkoan.

Azpiko grafikoan ikus dezakegu 51 sarrerak nola banatzen diren hiru itzulpen-teknika multzoen (neutralizazioa, baliokidetzeta eta besteak) eta hizkuntzen arabera.



#### Irudia 14. Itzulpen-teknikak eta hizkuntzak erkatzea

Ondoriorik argiena da STn ingelesa agertzen den kasu guztietan, hori adierazteko modua edozein delarik ere, heterolinguismoari eutsi egiten zaiola XTn, “baliokidetza” deitu dugunaren bidez. Aldiz,  $L3^{ST}=L2$  denean, beste itzulpen-teknika batzuk hobesten dituzte autoitzultzaileek; bereziki jotzen dute hitzez-hitzezko itzulpenera, eta, beraz, neutralizazioa, eta, zenbaitetan, ikusi dugunez, ezabatzea edo modulazioa ere badarabilte. STetako gaztelania/frantsesaren eta euskararen arteko hizkuntza-talka hori desagertu egiten da, hortaz, XTn. Esan dezakegu supra-autoitzulpena izatea baldintzagarri dela eta zuzenean eragiten duela neutralizazio horretan; horrela, Grutmanen (2006) “araua” indartu egiten da hizkuntza hegemonikoa tarteko dagoen heterolinguismo kasuetan. Neutralizaziorako joera hori hain nabarmena izanda, jarraian ikusiko dugu batzuetan autoitzultzaileek konpentsazio-moduak bilatzen dituztela xede-testuari euskararen oihartzuna emateko.

##### 6.2.2.3.5. Xede-testutik abiatuta

Atal bereizi bat eskaini diogu XTn euskara, agertzen denetan, zer modutan agertzen den aztertzeari. Izan ere, heterolinguismoa aztertzean, esanguratsua deritzogu sorburu-testuko L1 xede-testuan L3 modura agertzeari, batzuetan, agertze hori behartuagoa iruditu baitzaigu. Laginek xede-testuak aztertuta, euskararen oihartzunak dituzten 97 sarrera jaso ditugu, betiere, espero bezala, euskararen eremu geografikoan kokaturiko istorioak edo euskal pertsonaiak hizpide dituztenetan. Gehienak izen bereziei dagozkie, Grutmanen (2002: 335) 4. puntuari, alegia, egokitzapen ortografikoak gorabehera. Konparazio baterako:

### 33. adibidea

[ARK FR] 1511#: Ont-ils enterré le corps dans l'un des cimetières du rivage comme ils le feraient plus tard à Plaisance pour **Joannis de Hiriart, Gannis de Sale, Piarres Detchegaray** et **Joannes de Suhigaraychipi** dit Coursic?

[CAN ES1/ES2] 500#: Tiene los ojos abiertos de par en par, y el cuello se le antoja más lejos del cuerpo y más cerca de ningún sitio, como si aún estuviese terminando el **Guernica**.



[EPA ES1/ES2] 999#: (...) Tanto fervor patriótico manifiesto quedaba, como mínimo, atemperado por el chisme que corría por **Larresoro**, según el cual, a unos judíos de **Bayona** les había exigido todo el dinero que llevaban encima por colocarlos en el lado español de la cercana frontera.

Izen bereziei eta kultur erreferentziei dagokienez, aipagarria da ZAL ES testuko hautua. Izan ere, euskal literaturaren kanona zerrendatzerakoan, aldatu egiten ditu kanonean dauden idazleen izenak, azpiko taulan biltzen dugunez, nahiz eta gero haiei buruz kontatzen duena antzekoa izan:

ZAL EU	ZAL ES
Arnaut Uribelarrea (? - 1445)	Bernat Sarrionandia (? - 1445)
Joanes Zabaleta (1596-1673)	Andu Saizarbitoria (1596-1673)
Juan Agustín Esnal (1709-1793)	Jose Bautista Lertxundi (1709-1793)
Bizenta eta Maria Urreaga (1817-1842 eta 1821-1859, hurrenez hurren)	Ramona Izagirre (1817-1842)
Antton Garmendia (1857-1941)	Koldo Irazu (1857-1941)

**Taula 11. Heterolinguisismoa gorde eta egokitzeko adibide bat**

Beraz, bistan denez, hitz jolasak egiten ditu izen-abizenekin, berdin euskarazkoan zein gaztelaniazkoan; identifikagarriagoak eta gaurkotuagoak dira gaztelaniazko erreferentziak, modernoagoak, euskarazko klasikoen aldean. Horrela, euskarazko irakurlearentzat ere, XTko izen-abizenak identifikagarriagoak dira STko abizenak baino, egungo idazleen bigarren abizen baitira euskarazko testukoak (hots, Joseba Sarrionandia Uribelarrea, Ramon Saizarbitoria Zabaleta, eta abar). XTn, bada, STko abizenen ordena gordetzen duela ikus daiteke, bigarrena beharrez lehena jartzen badu ere. Ondorioz, esan dezakegu xede-irakurleak baldintzaturiko egokitzapena gertatu dela Madrilen publikaturiko itzulpenean, nahiz eta jolasa gorde den.

Beste batzuetan, *basque/vasc\** izenondoaren edo horren aldaeren bidez ematen ahal da hizkuntzaren oihartzuna, nahiz eta batzuetan jatorriaz ari den hizkuntzaz baino gehiago:

### 34. adibidea

[BOR FR] 503#: Un beau matin, un représentant de l'une des associations **basques** arriva à la ferme de **Balantsun**, dans sa voiture de fonction immatriculée à **Bilbao**. **Bascophone** d'apprentissage, la première rencontre avec Henry le pétrifia :

[EPA ES] 542#: El **vasco** miraba de soslayo a Francisco.

[ZAL ES] 10#: irme a Anchorage a pasar un semestre —con la posibilidad de alargar mi estancia por otro más—, invitado por su universidad para impartir clases de **lengua y cultura vascas**.

Lehen kasuan, bi izen berezietz gainera, *basque* eta *bascophone* izen-adjektiboek egiten dute esaldia heterolinguea. Bigarrenak jatorriari egiten dio erreferentzia, pertsonaia sortzez euskalduna baita, nahiz eta aldi berean ekar dezakeen hizkuntza. Hirugarren kasuan, hizkuntzari egindako errepresentaziorik gabeko erreferentzia genuke.

STn balio metalinguistikoa duen hitz edo perpaus bati XTn eustea ere ez da harrigarria:

### 35. adibidea

[JAI ES] 23#: Esconde con sus manos la palabra **Ospitalea** estampada en las sábanas, igual que ha ocultado durante años tantos suspiros y lágrimas, secándolas en el delantal de cocina.

Hitz jakin hori, gainera, mailegua izanda, aski erraz ulertuko du gaztelaniazko irakurleak. Badira zenbait adibide non kultur erreferentziak diren erdaratzen ez direnak:

### 36. adibidea

[BOR FR] 1501#: Ma colère devait être terrible en effet puisque, contrairement à mes habitudes romantiques, j'incluais l'amour dans le tourbillon peu ragoûtant que constituait ce monde en putréfaction couvert d'une **ikurrina** tachée de gros vin.

[ROD ES1] 1532#: Hablaron de política en el autobús, de la necesidad de fortalecer el movimiento **abertzale** en el País Vasco, de la mezquindad de los gobiernos, del carácter impuesto del Guggenheim, de lo europeo que era San Cristóbal y del doble rasero de los hippies que vivían allí, pasando de un tema a otro como monos de rama en rama.

[ROD ES2] 1532#: Hablaron de política, de la necesidad de reanimar el movimiento **abertzale** en el País Vasco, de la mezquindad de los gobiernos, del carácter impuesto del Guggenheim, de lo europeo que era San Cristóbal y del doble rasero de los hippies que vivían allí, pasando de un tema a otro como dos monos de rama en rama.

Hiruretan, sorburu-testuan ageri den hitza bere horretan uzten dute; beharbada, erdal irakurlearentzat aski ezaguna delakoan. ROD testuen kasuan, errepresentazio sozialak aldatzen direla pentsa dezakegu, zeren *abertzaleren* adierak oihartzun ezberdinak izan baititzake Euskal Herrian eta Espainian. Zehazki, hipotesi modura, esanen genuke euskarazkoak adiera barnehartzaileagoa duela erdaraz hitzari eman zaion adiera baino. Esanguratsua da, bestalde, ROZ ES1ek eta ES2k euskarazko izenburuari eusten diotela, jarraian gaztelaniara itzulitakoa ematearekin batera:

### 37. adibidea

[ROZ ES1/ES2] 1#: **negutegia**. invernario

Aparteko aipamena behar du MEA ESren hautuak. Izan ere, XTn badira izen arrunt batzuk euskaraz, gaztelaniazko ordainik gabe, narratzailearen ohiko hizkuntza gogora dakartenak. Laginean hauek jaso ditugu:

### 38. adibidea

[MEA ES] 1505#: Esas dos gotas cubriendo los ojos de la figurita, en consonancia con los ojos cerrados de **amabitxi**, fueron mi fórmula para decirle adiós.

[MEA ES] 2031#: Esas acciones, en su simpleza, se me antojaban diálogos breves ("¿Qué tal, **txiki**?

[MEA ES] 1017#: fútbol, cerveza, mus, canutos, deporte, cenas en el **txoko**, éxito o poder público y putas.

Bigarren eta hirugarrenak kultur erreferentziatzat har badaitezke ere, lehenengoa izen arrunt eta berezitasunik gabea dela esanen genuke, alegia, euskaraz emateko arrazoi agerikorik gabea, ezpada narratzailearen harreman afektiboa adieraziarekiko. Jakin badakigu badirela XTn beste zenbait hitz euskaraz, bukaeran glosario batean azaltzen dituenak: «**aita**: padre. **ama**: madre. **amabitxi**: madrina. **aitita**: abuelo. **amuma**: abuela. **gaztetxe**: local juvenil. **txiqui**: pequeño-a, chiquito-a. **txoko**: rincón. Por extensión, sociedad gastronómica. **zulo**: agujero, orificio, cavidad» (Meabe 2014: 139). Aipagarria da *txiki* grafia ezberdinarekin erabiltzen dela testuan eta glosarioan. Orobat agertzen dira STn eta XTn *ikastola* eta *bidegorri*, baina horiek ez ditu glosarioan jaso, beharbada, sobera ezagunak direlakoan Euskal Herriko erdal irakurlearentzat (Arrula-Ruiz 2017); ez baitugu ahaztu behar gaztelaniazko testua Pamielak kaleratu zuela, eta, beraz, xede-irakurlea bertakoa izanen dela gehienbat. Bigarren atalean ikusi dugunez, Tanqueirok (2011: 254) dio afrikar autoreen obra postkolonialetan gehien erabiltzen den itzulpen-baliabidea glosategia dela; horren bidez, autoreak saiatzen dira errealitate linguistikoa adierazten, eta aditzera ematen dute askotan pertsonaiek erabiltzen duten/dituzten hizkuntza(k) ez d(ir)ela narrazioan erabiltzen den hori bera. MEA ESn, bada, baliabidea eta asmoa bera dela esan dezakegu, Tanqueirok (2011) deskribaturiko *in mente* autoitzulpenetan ez bezala idatzizko ST bat egon badagoen arren. Esan behar da MEA ESk bere horretan eusten diela STn agertzen diren eta XTko hori bera ez den beste hizkuntzen (gehienbat ingelesa eta frantsesa) erreferentziei eta errepresentazioei ere (Arrula-Ruiz 2017: 16).

MEA ESn ez ezik, eta laginaz harago, aurkitu dugu XTetan berariaz euskara sartzeko ahalegin batzuk, izen bereziak bere horretan emateaz gainera. Esaterako, JAI ESn 53 aldiz agertzen da *ama* hitza,<sup>130</sup> denak artikulurik gabe eta etzanez (nabarmendurik, beraz), funtzio deitikoarekin, metalinguistikoarekin eta bestela.

### 39. adibidea

[JAI ES] 1429#: Me gustaría entrar en la habitación diciendo “aquí estoy, **ama**”, pero me da miedo romper el silencio.

[JAI ES] 2074#: Pienso en qué habrá pasado por la cabeza de Maialen al escribir la palabra **ama**.

[JAI ES] 2159#: Tenemos que pensar qué hacer con **ama** cuando salga del hospital.

[ROD EU] 468#: **Amaren** egoera ere tristea duk.

[ROD ES2] 468#: La situación de la **amatxo** también es triste.

Azken kasu horretan, balio afektiboa duen diminutiboa hobesten du ROD ES2k, beharbada, STren forman utziz gero, gaztelaniazko hitzarekin nahas daitekeelako. ROD ES2 testuan *aita* ere ageri da hiru aldiz, baina horietan bat egiten du STko formarekin, alegia, diminutiborik gabe. Nolanahi den, behin ere ez da etzanez ematen, JAI ESn ez

<sup>130</sup> Hala ere, gehiago dira *madre* agertzen diren aldiak; zehazki, 281 aldiz. Behin ere ez da *mamá* agertzen, hitz afektibo edo kolokiala euskararekin lotuko balu bezala.

bezala. Hori aipagarria da, batetik, frantsesez agertzen diren hitz edo perpausak etzanez nabarmendurik ematen direlako ROD ES2n; eta, bestetik, bai ROD ES2 bai JAI ES liburuak Tarttalo argitaletxean kaleratu direlako. Beraz, pentsa daiteke erdaraz irakurtzen duten euskal herritarrei bereziki zuzendutako argitalpenak direla; euskarari ematen zaion trataera, ordea, ez da bera bi kasuotan.

Orobat agertzen dira JAI ES testuan “Olentzero”, “intxaursaltsa”, “amama”,<sup>131</sup> “ikastola” eta “euskaltegi” kulturemak (lehen hirurak hemen aztergai dugun laginetik kanpo). Azken biak beste testu batzuetan ere aurkitu ditugu, aurretik aipatu dugunez:

#### 40. adibidea

[ROD ES2] 1225#: Dicen que has empezado a trabajar en el **euskaltegi**.

[BOR FR] 634#: Je commençais à en être persuadée. Je décidai alors de réchauffer pour midi des tranches de gigot très fines mises au congélateur au lendemain de je ne sais quelle inauguration d'**ikastola**.

Bada beste izen arrunt bat XT batean baino gehiagotan agertzen dena: *irrintzi*. Hori ere kultur erreferentziatzat har dezakegu, eta STren grafia berarekin ematen dute autoreek XTn, plurala gorabehera:

#### 41. adibidea

[ROD ES1] 430#: Últimos **irrintzis** semejantes a perros aullando.

[ROD ES2] 430#: Últimos **irrintzis** como aullidos de perro.

[JAI ES] 255#: Poco podía imaginar Maite que precisamente fuera un **irrintzi** de esos que tanto le gustaba echar lo que provocara el primer acercamiento de Lewis.

Batzuetan, STn agertzen ez denean ere, XTn euskarazkoa hobesten da:

#### 42. adibidea

[ZAL EU] 567#: Lehenengo egunak pixka bat urduri igaro ditut, *downtown*neko izkinaren baten bueltan euskal etxe edo jatetxeren bat topatuko nuelako beldurrez, Anderson irakaslea ezagutzera heldu ez zen txokoren bat alegia, edo bidaiari euskaldunen bat, goitik behera Ternua materialez hornituta.

[ZAL ES] 567#: De hecho, he pasado los primeros días algo nervioso, con miedo a doblar una esquina en el *downtown* y toparme con una Casa Vasca llena de **ikurriñas** y **lauburus** grabados en madera, o con un asador de nombre *Orio* —o *Gernika*, o *Akelarre*—: algún local que, por una remota casualidad, hubiera escapado a las pesquisas del profesor Anderson. O a darme de bruces con algún turista de nuestra tierra, equipado de pies a cabeza con ropa de montaña de la marca Ternua —aunque bien es cierto que dicha indumentaria tendría aquí más sentido que por ejemplo en el paseo de la Concha, donde suele ser habitual—.

<sup>131</sup> Aipagarria da JAI ES testuan “amama” agertzen dela euskarazkoan “amona” agertzen den tokian (1303#). Ez dugu gisako beste adierazlerik aurkitu Jaioeren testuen alderaketan, beraz, ezin hortik ondorioz atera.

[BOR EU] 2193#: Maitaleak ez ninduen erosiko, ez horixe!

[BOR FR] 2193#: Mon amant ne m'achèterait pas, non diantre, puisque tels l'**ikastola** ou le Pays basque, je n'étais pas à vendre !

[ROD EU] 282#: Lo aurpegiarekin oraindik, Manexek aitonaren ibilerak kopiatu ditu, eskuak atzean emanda, begitartea zimur, **bonetaren** ordezkasketa.

[ROD ES1] 282#: Aún con cara de sueño, Manex imita los andares de su abuelo, las manos dadas a la espalda, el ceño fruncido, en vez de **txapela** visera.

[ROD ES2] 282#: Aún con cara de sueño, Manex imita los andares del abuelo, las manos cogidas a la espalda, el ceño fruncido, visera en vez de **txapela**.

Adibideotan ikus dezakegunez, ZAL ES sorkuntza diskurtsiboaz baliatzen da, eta euskarazko erreferentzia kulturalaz janzten du gaztelaniazkoa. Zehazki, XTn hiru aldiz darabil *lauburu* hitza, eta hiruretan ez dago baliokiderik STn; hots, gehitu egin ditu erreferentziok. *Ikurrina* XTn agertzen den beste aldi bakarra BOR FR testuan da, eta hor ere frantsesezkoak ez du baliokiderik euskarazkoan, ez da ikurrinarik STko zati horretan agertzen. Alta, euskarazkoan «ikurrina» agertzen den aldi bakarrean (1813#), XTk *drapeau basque* ematen du. Adibideko bigarren kasuan, BOR FRk itzulpen-teknika bera darabil, eta *ikastola* hitza gehitzen du frantsesezkoan; aipatu behar da aurretik ere agertzen dela *ikastola*, STn baliokide bera duela. Aztergai dugun laginetik kanpo, JAI ES testuan «ikastola» ematen du behin autoreak (984#), euskarazkoak «eskola» dioen tokian; kasu horretan ere, aurretik pare bat aldiz agertzen da *ikastola* hitza bai STn bai XTn. Azkenik, 42. adibideko hirugarren kasuan, ROD EU testuan frantses kutsua izan dezakeen *bonet* hitza itzultzeko, euskarazko *txapela* ematen du autoitzulpenak. Euskal Herriko erdaldunek ere erabiltzen duten hitza dela kontuan hartu behar da. Guztietan, STk eta XTk errepresentazio sozial ezberdinak eraikitzen dituztela esanen genuke.

Azpiatal honekin bukatzeko, laginetik kanpo geratu diren heterolingüismo kasu zenbait aipatuko ditugu, sakon aztertuko ez baditugu ere, esanguratsuak direlakoan:

### 43. adibidea

[ARK EU] 1769#: Gran Manan V ferryan bi marin el cribagean jostetan ari **killin** time.

[ARK FR] 1769#: Black Harbour sur le Ferry Gran Manan V deux marins jouent au cribage pour **tuer le temps**.

[ROD EU] 232#: **Txintxoak izan** –esan die irratia ren zurrunbiloaren gainetik, eta Manexi beste kolpetxo bat eman dio buru gainean.

[ROD ES1] 232#: **Soyez sages** –les ha dicho alzando su voz por encima del torbellino de la radio, y le ha dado otro golpecito en la cabeza a Manex.

[ROD ES2] 232#: **Soyez sages** –grita por encima de la bulla de la radio, y le da otro golpecito en la cabeza a Manex.

[ROZ EU] 225#: Eta galdera une horretan iritsi zen, **zer egiten dut nik Erroman?**

[ROZ ES1] 225#: Y la pregunta llegó en ese momento, **cosa ci faccio io a Roma**, ¿qué hago yo en Roma?

[ROZ ES2] 225#: Y la pregunta llegó en ese momento, **cosa ci faccio io a Roma**, ¿qué hago yo en Roma?

[EPA EU] 172#: **“Gugaz aztu ez zaitezán”**, eta esku femenino baten sinadura.

[EPA ES1/ES2] 172#: **“Gugaz aztu ez zaitezán”**, esto es, **“Para que no nos olvidés”**, y la firma de una mano femenina.

Adibideotan ikusten denez, askotariko itzulpen-bideei segitu diete autoreek heterolingüismo kasuetan. Lehenengoan, STko ingelesezko erreferentzia bati frantsesezko baliokidearekin eman dio ordaina; heterolingüismo maila aldatzen da nabarmen, nahiz eta Black Harbour gehitu duenez beste hizkuntzaren oihartzuna guztiz desagertu ez. Konpentsazioaz mintzo gaitezke, bada. Bigarren eta hirugarrenean, berriz, STn euskaraz agertzen zen hori gaztelaniazko testuetan XTko hizkuntza nagusia ez den batean agertzen zaigu, ROD ES1n frantsesez eta ROZ ESn italieraz. Bada alde bat, ordea: ROZ ES testuetan gaztelaniazko itzulpenak segitzen dio italierazkoari, eta, beraz, testu barruko autoitzulpen dei geniezaioke (*intratextual*, Santoyo 2011); ROD ES testuetan, aldiz, itzulpenik gabe ematen da frantsesezko perpausa. Bi kasuotan efektua aldatu egiten da, ikusgarri egiten baita liburuko hizkuntza nagusiarenak ez duela bat egiten istorioa kokatuta dagoen testuinguruarekin. Azkenik, EPA ES1ek eta ES2k bizkaierazko aipua uzten dute gaztelaniazko itzulpenarekin batera; testu barruko autoitzulpena, bada, oraingoan STn agertzen den forma gordez. Maila ezberdinean izanen da heterolingüea, irakurlearen arabera. Izan ere, Euskal Herriko irakurle erdaldunak beharbada identifikatuko du XTn dialektoa; ez, seguruen, kanpoko irakurleak.

Kasu horiek erakusten dute askotariko hautuak egiten dituztela autoitzultzaileek, bai erreferentzia heterolingüe bat itzultzerakoan bai halakorik ez zegoenean testu heterolingüea sortzeko. Suma daiteke konpentsazio nahi bat, supra-autoitzulpena egitean neutralizatu diren heterolingüismo kasuak orekatzeko, zeren xede-testuan, beste nonbait, euskara sartzen baitute, azpiatal honetan ikusi dugun bezala.

Atal honetan zerrendatu ditugun hautu batzuk –kulturemak, kasurako– arrotasuna ondorio duten tekniken bidez itzuli dira, euskarazko hitzak bere horretan utziz XTn. Alta, beste batzuk gordetzeko hautuaren atzean zer dagoen ez dago hain garbi; beharbada, konpentsazio modu bat dela esan dugu. STetan agertzen ez diren kulturemak eta adierazpen heterolingüeak XTetan aktibatzen direla ere ikusi dugu. Hots, euskarazko testuak, nahitaez, Euskal Herriko egoera linguistikoaren adierazle dira, ezpada edukari dagokionez, bai lexiko mailan, behintzat; hori hizkuntza hegemonikoetara itzultzen denean, hizkuntza-talken adierazpenak neutralizatu egiten dira. Esan dugunez, zerikusi zuzena du supra-autoitzulpenaren nagusitasunarekin, hots, autoitzulpenen noranzkoarekin eta testuinguru elebidun/diglosikoarekin. Beraz, euskarazko hitzak sartzea edo baten bati eustea izan liteke mundu linguistiko-kultural baten berri emateko modua, konpentsazio modu bat, edo xede-hizkuntza ez den hizkuntza batean sortu dela adierazteko asmoaren emaitza.

#### 6.2.2.4. Beste aztergai batzuk

Atal honetan, azterketa osatze aldera, labur-labur aipatu nahi ditugu heterolinguismotik eta kulturemetatik kanpo agertu diren beste itzulpen-hautu batzuk; lerrokatze prozesuan eta corpusaren azterketan identifikatu ditugu horiek.

Honezkero makro mailako azterketan esan dugunez, aldaketa estilistikoak gertatzen dira hainbat liburutan. Konparazio batera, ikusi dugu Rozasek esaldi laburrak darabiltzala euskarazkoan, eta bakarrean biltzen dituela maiz gaztelaniazkoan; orobat esan dugu Arkotxaren liburuaren generoa aldatu dela, eleberri (liriko) izatetik poesia-liburua izatera pasatu baita autoitzulpenaren bidez. Horiez gainera, aldaketa estilistiko puntualak aurkitu ditugu han eta hemen. Azpiko adibideetan horietako batzuk bildu ditugu.

##### 1. adibidea

[EPA EU] 1510#: Marcelen eskuari agitu ezbeharrak arras jabetu gaberik, dudarik ez zuen denen indarrez berriz ere geldiaraziko zutela maxina deabru hori.

[EPA ES1] 1510#: **No tenía una idea demasiado clara del accidente que podía haber sufrido Pascal y por ello no albergaba** la menor duda de que, con el esfuerzo de todos, acabarían deteniendo esa Máquina momentaneamente endemoniada.

[EPA ES2] 1510#: **Apenas se había dado cuenta del accidente sufrido en la mano por Marcel, así que no le cabía** la menor duda de que, con el esfuerzo de todos, acabarían deteniendo esa Máquina momentaneamente endemoniada.

[ROD EU] 12-15#: Manex aitonarengana hurbildu da hitzak gertuagotik entzuteko. Belauniko dagoela ari zaio hizketan zaharra, lurra iraultzen, zuhaixka bat landatzeko. Arrazoia du, lehenengo urratsa izango da okerrena. Aitona lur hezea eskuetan ibiltzen ikustea lasaigarri zaio.

[ROD ES1] 12-15#: Manex se ha acercado al abuelo para oír sus palabras de más cerca. El viejo continúa hablando mientras está arrodillado, arando la tierra para plantar un arbusto. Tiene razón, lo peor será dar el primer paso. Le resulta relajante ver al abuelo manejando la tierra fresca entre sus manos.

[ROD ES2] 12-15#: Manex se acerca al abuelo para oírle mejor. El viejo continúa hablando arrodillado, mientras abre pequeños surcos en la tierra para plantar un arbusto. Tiene razón, el primer paso es el más difícil. Le resulta relajante ver al abuelo trabajar la tierra mojada entre sus manos.

[ZAL EU] 502#: apalategi okertuak eta sitsak jandako moketa lurrean, inoiz berdea izandakoa;

[ZAL ES] 502#: estantes torcidos que desafían todas y cada una de las leyes newtonianas, y seguramente alguna cuántica también; una moqueta apolillada y parcheada en varios puntos, no siempre con piezas del mismo color verde musgo;

Lehenengo kasuan, bi XTen arteko aldea da aipagarria; lehen autoitzulpenean, izen berezia aldatu izana gorabehera (badirudi errata bat dela, bigarrean zuzentzen duena), esanen genuke erregistroa jaso dela, bai, behintzat, bigarren autoitzulpenean baino jasoagoa. Bigarren adibidean, ez dago deus letra lodiz, lehen eta bigarren autoitzulpenen arteko aldea pasarte osoan ikus daitekeelako. Esan daiteke lehen autoitzulpenak hurbilagotik segitzen diola euskarazkoari, eta bigarrenak gehiago jotzen duela gaztelaniaren

beraren baliabide eta joeretara. Hirugarren kasuan, protagonistaren logela izanen dena deskribatzen du askoz detaile handiagoz eta irudi gehiago erabiliz gaztelaniaz, baita adibidean jarri ez dugun hurrengo esaldietan ere. Estilo aldaketaren hiru lagin dira, hala autoitzulpenean nola autoitzulpen batetik besterakoan, orain arte esandakoa berresten dutenak.

Kulturemei buruz ari ginelarik, aipatu dugu batzuetan ikuspegia aldatu egiten dela, eta hori ere bada, hein batean, hautu estilistikoa; BOR EU izan dugu hizpide, zenbaitetan 1. pertsonan kontatuta dagoena 3.ean kontatzen baita XTn. Kasu esanguratsua da JAI ES testukoa, eleberri osoari eragiten diolako. Protagonistaren ahotsa jasoko du irakurleak bai STn bai XTn; hala ere, 3. pertsonan agertzen da ahots hori euskarazkoan, eta 1. pertsonan gaztelaniazkoan. Hain zuzen, autoitzulpenaren aurkezpenean, Jaiok hala esan zuen: «Me he visto con la necesidad de cambiar ciertos aspectos durante su traducción, la principal, la forma de contar la historia, que pasa de la tercera persona del euskera a la primera del castellano, siendo Nerea, la protagonista, la que la narra» (Larrumbide 2008). Lehen pertsonan egoteak protagonistaren sentimenduen eta kontaktaren arteko distantzia laburtzen duela zioen idazleak (ibid.). Segur aski, liburu osoari hain modu nabarmenean eragiten dion hautu literario hori ez zukeen hartuko itzultzaile alografoak, ezpada idazlearen edo editorearen eskaeraz. Era berean, gaztelaniazko ezean, esanen genuke euskarazko edizio berri bat egin izan balu ez zukeela hautu hori eginen; halaber, gaztelaniazkoan hala eginda ere, ohi denez, ez dago atzeraitzulpenik, eta ezin, beraz, bigarren euskarazkoan hautu hori aplikatuko ote zukeen jakin.

Ahotsez gainera, badira ikuspegi aldaketaren bestelako adibide batzuk, edukiari lotuagoak:

## 2. adibidea

[JAI EU] 316-9#: Maialen ikusteak aurreko guztiak ezabatu zituen bere memoriatik. Bere gorputzaren atal bat zena bat-batean beste gorputz bat bihurtuta ikustean negar egin zuen. **Baina ez minez.** Bere atal bat, bere atalik hauskorrena, bere gorputzetik irten zen, bere odolez zikinduta, eta, bere burua odolez zikinduta ikusi balu bezala, negarra irten zitzaion, gelditu ezin zuen negarra.

[JAI ES] 316-9#: Ver por primera vez a Maialen borró de mi memoria casi todo lo anterior. Al ver parte de mi cuerpo convertido en otro cuerpo, ya fuera de mí, no lloré de emoción, como en las películas, **sino de cansancio, de dolor.** Lloré al sentir mi cuerpo vacío. Sentí que aquellos guantes de látex me habían vaciado por dentro y que junto a la niña se habían llevado parte de mi alma.

[ELO EU] 188#: Ni mendian, **basurdeak** bezala, zazpi urte.

[ELO ES] 188#: Yo en el monte, como las **lagartijas**, siete años.

[ROZ EU] 714#: Dagoeneko **walkmanak** dituzte belarrietan, eta mezuak jaso edo bidaltzen ari dira mugikorretan.

[ROZ ES1/ES2] 714#: muchos ya se han colocado su **mp3** y ya se están enviando mensajes desde sus móviles,

Hiru kasuok ez dute elkarren arteko antzekotasunik, ezpada eduki aldaketa bat gertatu dela, lehena lexikoaz gaindikoa eta beste biak lexiko mailakoak. Lehenengo adibidean,



kontrakoa esaten duela ikusten dugu bi paragrafoak alderatuta: euskarazkoan, alabaz erditzean protagonistak ez du minez negar egiten, eta, erdarazkoan, aldiz, nekeaz eta minez egiten du negar, nahiz eta abiapuntua bera izan, hots, bere gorputz-zati bat erauzi diotela. Bigarren kasuan, basurdea zena sugandila bihurtzen da. Kasu jakin horretan, ezin esan zerk bultzatuta egin zuen: pentsa daiteke basurdea gure geografiako animaliatzat duela, edo, aitzitik, pentsa daiteke sugandilak *Obabakoaken* muskerra ekar lezakeela gogora; nolana den, gaininterpretazioan erori nahi ez dugunez, hautuaren arrazoia ezazaguna dela esanen dugu soilik, eta basurdea mendikoagoa dela sugandila baino. Gainera, ELO ESn badira arrazoi hautemangaitzeko beste aldaketa batzuk ere, zenbakiei lotuak gehienak; horiei “aleatorio” deitu zieten Estibaliz Amorrortuk eta lankideek (2006: 113), informatika-baliabideen bidez egindako eleberraren eta autoitzulpenaren azterketa linguistiko-literarioan. Azterlan horretan biltzen da Elorriagaren beraren gogoeta bat, non ikertzaileek egindako galderi erantzuten dien. Besteak beste, honela dio: «Aztertzaileok izan dituzten zalantza batzuk, ordea, ezin izango ditut argitu; izan ere, aldaketa asko literatur senari kasu eginda burutu ditut, beharrian linguistikoak alde batera utzita» (Amorrortu et al. 2006: 122). Azkenik, hirugarren kasuan, eguneratze bat ikus dezakegu, argitalpenen tarteko urteak bultzatuta-edo, eta *walkman* zena *mp3* da XTetan.

Azalpenezko eta bestelako pasarteak gehitzearekin batera, esaldi eta pasarteen ezabatzeak ere gertatzen dira; ezabatze horien atzean motibazio ideologikoa edo tarte (traba) linguistiko-kulturala egon daiteke batzuetan, eta, bestetuetan, arrazoi estilistikoekin lotuagoa dagoela esanen genuke:

### 3. adibidea

[JAI EU] 2880#: kontzertuetako sarrerak, nuklearren kontrako pegatina, **amnistiaren aldeko txapa**, Don't step on the grass, smoke it dioen beste bat.

[JAI ES] 2880#: entradas de conciertos, la pegatina antinuclear, una chapa que dice “Don't step on the grass, smoke it”.

[BOR EU] 2744-5#: **Gora gu eta gutarrak!** Gora askatasuna!

[BOR FR] 2744-5#: Vive la liberté!

[CAN EU] 403-6#: “Diktadore Handiaren eskutik: Marco Polo eta Komediantea Oihartzunen Gelan...”. **Badakizu zergatik deitzen dioten soto honi “Oihartzunen Gela”?** Zer iruditzen zaizu?

[CAN ES1/ES2] 403-6#: “El Gran Dictador presenta: Marco Polo y el comediante en la sala de Ecos...”. ¿Cómo lo ves?

Bigarrenean bereziki, errepresentazio sozialak aldatzen direla ikus dezakegu; oro har, *Vive la liberté!* aldarriaren atzetik “Vive la France!” entzun ohi dugu. Euskarazkoaren aldean, bestelako iruditeria bat datorkigu, beraz. Hiru ezabatze horietako bat berak ere ez dio istorioari modu nabarmenean eragiten, nahiz eta autoitzulpen jardunaren adierazle badiren.

Izan ere, atal honetan ikusi dugunez, heterolinguismoaz eta espazio nahiz atxikimendu geografikoari loturiko kulturemez harago, beste ikuspegi batzuetatik egin dakioke azterketa testuen alderaketari. Horiek nolabait multzokatu nahi izan ditugu hemen, azterketa sakonik egin gabe, batez ere irakurketa eta lerrokatze-fasean ikusitako aldeak azalertzeko. Argi

geratu da hamaika motatako itzulpen-hautuak egin dituztela idazleek, hitzez-hitzezkotik ezabatzea eta neutralizazioa. Esaldi eta pasarte batzuetako estiloa ere aldatzen da itzulpen batzuetan, baita autoitzulpen batetik bestera ere, eta itzultzaileek erdarazkoan errepikapenak saihestera jotzen dutela ere ikusi dugu.

Kulturemen eta heterolinguisismoaren azterketak erakutsi digu autoitzulpen jardunak neutralizazioa eta sormen diskurtsiboa dakartzala, baina ez gehienbat; izan ere, corpuseko hamar tituluetakoz bizpahiru dira horretarako joera erakusten dutenak (BOR eta ZAL bereziki), eta gainerakoetan, teknika horiek noiz edo noiz erabiltzen badituzte ere (JAI eta ROD), ez da joera nagusia. Ikusi dugu, konparazio baterako, Meabek arrotasuna hobesten duela, glosario eta guzti, eta Rozasek eta Canok hurbiletik segitzen diotela STri. Halaber esan daiteke ezin dugula mikro mailan bereizketa handirik egin frantsesera autoitzultzen duten eta gaztelaniara autoitzultzen duten idazleen itzulpen-joeren artean; hots, ezin ditugu bi multzo egin. Batetik, txiki geratzen delako corpusa frantseserako autoitzulpenen kasuan, bi testu baizik ez baititugu; bestetik, sormen diskurtsiboa, ezabatzea eta konpentsazioa, kasurako, bi hizkuntzetako autoitzulpenetan identifikatu ditugulako. Hala ere, aipatu behar da Bordaren kasua berezia dela; izan ere, frantseseko termino batzuk euskarazko grafiaz txertatzen ditu XTn, hizkuntzarekin jolastuz eta hori behartuz, nolabait. Horien itzulpenean, frantseseko termino bera eman beharrean, batzuetan beste hitz edo molde bat darabilela ikusi dugu, sormen horrekin segituz.

Bestalde, esanguratsua da hautu batzuek zerikusi zuzena dutela irakurle potentzialarekin, ikusi baitugu bi autoitzulpen dituzten testuetan aldatu egiten dela inoiz erreferentzia, argitalpen-lekua bera ez denean. Zehazki, bina autoitzulpen aztergai izan ditugun lau kasuetan, bik egin dituzte aldaketak autoitzulpen batetik bestera (ROD eta EPA), eta beste biek (ROZ eta CAN) autoitzulpen bera kaleratu dute bietan (argialetxearen estilo-jarraibideei lotzen ahal zaizkion aldaketa ortotipografiko gutxirekin; komatxo motak, esaterako).

Beste parametro batzuen araberrako azterketak erakutsiko luke aipatu joerak berresten edo ezeztatzen diren. Esaterako, sintaxia ez dugu aipatu, ezpada makro mailako azterketa laburrean. Era berean, autore baten eta batzuen autoitzulpenen azterketa egitea interesgarria litzateke, bilakaera nolakoa izan den ikusteko; izan ere, corpuseko autore gehienek kasuan, lehen autoitzulpena izan dugu aztergai, eta, batzuentzat, orobat da beren erdarazko lehen lana. Horrela, autoitzultzen segitu duten autoreen kasuan, pentsa daiteke jardunean zenbat eta esperientzia handiagoa izan, orduan eta automatizatuagoa izanen dutela, eta gaztelaniazko ahots bat ere sortuko dutela. Interesgarria litzateke, halaber, autoitzultzaile baten edo gehiagoren itzulpen ibilbide osoa aztertzea; hau da, autoitzulpen oro kontuan hartzeaz gainera, beste autore batzuen lana itzuli dutenean, itzulpen horiek ere aztertzea. Horrela ikusiko genuke (auto)itzultzaile-bilakaera, eta autoitzulpen-joerak itzulpen-joerekin alderatu ahalko genituzke, norberaren lana eta besteren lana itzultzean teknikak eta estrategiak aldatzen ote diren. Hurrengo ikerlan horietarako eta beste batzuetarako abiapuntu izan daiteke azterketa konparatibo hau.

**7**



# 7 ondorioak

---

Ikerketa honi heltzeko ideia 2013aren hondarrean sortu zen. Artean, autoitzulpenaz hausnartzeko gogoia baizik ez zegoen, susmoren bat eta galdera ugari. Gurean geroz eta gehiago entzuten zen norberaren lana erdarara itzuli zuen idazlearen kasua, jardunari buruzko narrazioarekin batera, maiz; akademian eginak ziren autoitzulpena jorratzen zuten lan batzuk, Lopez Gasenik (2005) eta Manterolak (2012), nagusiki; itzulpen jarduna gizarteratzen hasia zen. Helburu nagusia zehaztu nuen, beraz: euskaratik egiten den autoitzulpen jardunaren nolakotasunak azaltzea eta autoitzulpen joerak deskribatzea literatura lanetan oinarriturik. Horrela, lauzpabost urte eta gero, ikerlan honek autoitzulpenaren teorizazioa eta praktika aztertu, susmoak uxatu eta galdera gehiago egin ditu.

Ikerlanaren sarreran esan bezala, banuen zenbait hipotesi (xiv orrialdean), batez ere aipatu ikerlanetan oinarrituta ondoriozta zitezkeenak. Hona ekarriko ditut berriz hipotesiok, lan honek horiek baieztatzen edo ezeztatzen dituen ikusteko moduan baikaude orain. Hasteko, susmatzen nuen beren lanak itzultzen dituzten autoreak ez direla gutxi batzuk eta obra autoitzulien kopurua goranzko joeran ari dela. Zehazki, 325 titulu eta 125 autore-itzultzaile bildu ditut katalogoan, beste hainbat daturekin batera. Horietako bat dagokio kronologiari; susmatu bezala, azken hiru hamarkadatan argitaratu dira autoitzulpen gehien, eta urtez urte gehiago dira. Hala ere, aipagarria da kopuruen desoreka, xede-hizkuntzari, generoari eta argitalpen-lekuari dagokienean. Bigarren hipotesiak autoretzarekin zuen zerikusia; autoitzulpen prozesuan, pentsatzekoa zen egiletza nabarmenduko zaiola itzultzaile-izaerari, beste ezein itzultzaile baina “zilegitasun” handiagoa ematen baitzaio autoreari, itzulgaia berak idatzia den heinean. Katalogoa osatzean, zaila egin zait batzuetan autoitzulpenak ote ziren jakiten, ez zelako itzultzailearen edo itzulpenaren berri ematen, eta, ematen zenetan, noranzkotasuna ez zegoelako argi sorburu- eta xede-testua urte berean kaleraturikoen kasuan. Autoitzulpenaren berri inon ematen ez den kasuetan, pentsatzekoa da badagoela posizionamendu bat, idazleak bere burua xede-hiztun komunitatearen kategorian kokatzen baitu nolabait. Nolanahi den, badira autoitzulpen gardenak, kreditu

orrian itzultzailearen berri edota sorburu-testuaren berri ematen dutenak (corpusean bildutako testu gehienak, kasurako). Bestalde, autoitzulpenak aurkeztean, askotariko esamoldeak erabiltzen dituztela ikusi dugu, bai kazetariak bai argitaletxeek baita autoreek eurek ere (2.3 atala). Obra autoitzulia nola aurkezten den, hala jasoko du irakurleak, noski. Azken hipotesia produktuari zegokion, testu autoitzuliari berari. Sarreran nioen erdararen nagusitasunak estandarizazioa (Toury 2012: 303-315) ekar zezakeela xede-testuan, hala adierazia baitzuten, besteak beste, Dasilvak (2009) eta Casanovak (2002). Corpusean identitate nazionalari loturiko kulturemak eta adierazpen heterolingueak aztertu eta gero, esan dezaket neutralizazioa gertatu gertatzen dela, nahiz eta interferentzia ere askotariko itzulpen-tekniken bidez aplikatzen den, jarraian azalduko dudanez. Beraz, hipotesien emaitzak gogobetegarriak izan dira, ez beti hasierako hipotesia bere horretan bete delako (lehen eta bigarrenen bereziki), baizik eta, neurri batean beteta ere, ñabardura anitz egin behar zaizkiolako. Hurrengo paragrafoetan banan-banan ikusiko ditugu atal bakoitzeko ondorio eta ekarpen nagusiak.

Egiturari dagokionez, ikerlanak inbutu itxura duela esan daiteke: ikuspegi zabalenetik hasi eta xehetasunetara jotzen du. Horrela, marko metodologikoa, ikergeraia eta kultur testuingurua aurkeztu dira lehen hiru ataletan; hasieratik bertatik zehaztapen terminologikoa eta tipologikoa egitea beharrezkoa izan da. Era berean, berehala ohartu nintzen jardunaren hedadura aintzat hartu behar zela. Horregatik, katalogazioa egin, eta orain arte egindakoa modu kuantitatiboan deskribatu da. Azkenik, corpusean oinarrituriko azterketa kualitatibo xehea egin da, autoitzulpen jardunaren joera orokor batzuk ondorioztatzeko. Egitura horrek aukera eman dit jardunaz gogoetatu eta berezitasun praktikoak aztertzeko, itzulpen ikasketa deskriptiboetan oinarrituta.

Maila teorikoan, dialogoan jarri ditut kanpoko ikertzaile eta idazleak etxeokokin. Jardunari buruzko hausnarketan, autoitzulpena itzulpenetzat hartu dut, eta mikro mailako azterketak berretsi egin du marko hori. Autoitzultzeko askotariko motibazioak aletu ditut, idazlearengan eta kanpo faktoreetan ardatza jarrita (2.2 atala); nolana den, argi geratu da bereizketa hori ez dela absolutua, eta batak bestea elikatzen duela. Beste ikertzaile batzuek hizkuntza gutxituetako idazleei buruz aipaturiko motibazioak ondoriozta daitezke euskal idazleengan ere; zentsura gehituko nioke zerrendari, gaur egungo idazleei eragin ez arren, autoitzulpen batzuen sorburuan baitago (Gabriel Arestiren kasuan, esaterako).

Dasilvak (2011) dio modu gardenean autoitzultzen duen idazleak xede-kulturan obra autoitzulpenetzat har dadin nahi izaten duela; alta, jasotako adierazpenetan eta beste azterlan batzuetan antzeman dudanez, ez da beti hala gertatzen (2.3 atala). Badirudi zenbait idazlek bere autoitzulpena xede-sisteman bide autonomoa egin dezan nahi duela, kreditu-orrian euskarazko lan baten lekukotza ematen denean ere. Orobat gertatzen da, batzuetan, gatzelaniarako itzulpen alografoekin. Izan ere, prentsak, argitaletxeek eta idazleek beraiek “itzulpen” izendapena saihesteko ahalegina egiten dute, eta beste termino batzuk hobesten: bertsio, berridazketa eta moldaketa, kasurako. Aldi berean argitaraturiko obrei buruz, esan daiteke bi hizkuntzetako testuen arteko lehia handiagoa dela espazioa konpartitzen dutenean. “Itzulpen” izendapena arbuiatzeko justifikazioa, gehienetan, testuari aldaketak egiten zaizkiola izan ohi da. Ikusi dugu, ordea, funsgabeko arrazoiketa dela, bereziki bi arrazoiengatik: batetik, Ayerbek (2016) erakutsi bezala, berrargitalpen modu orotaz baliatu

ohi da idazlea testuari aldaketak egiteko, eta, beraz, “aldaketak egitea” ez litzateke autoitzulpenaren bereizgarri. Hala erakusten du 6. atalak ere EPA eta RODen bina testuei dagokienez, non autoitzulpen batetik bestera zenbait testu zati aldatzen baitira. Bestetik, mikro mailako azterketan ikusi bezala, aldaketok ez dira idazleek uste bezain ezohikoak; ez da, behintzat, itzulpen alografoetan inoiz gertatu ez denik. Aldaketa horiek testua “hobetzera” datozela ere dio idazle batek baino gehiagok; esate batera, Harkaitz Cano eta Aingeru Epaltza iritzi berekoak dira. Horrela, produktu autoitzuliak lehen obraren aldean eskuratzen duen goragoko posizioa nabarmena da, baita, Dasilvari (2011) jarraikiz, “atzeraitzulpenak” egiten ez direlako ere; hots, bertsio hobetu horiek ez dira hizkuntza subordinatura berriz (auto)itzultzen. Ez dugu ahaztu behar bertsio hitzaren adiera aldatu egin dela denborarekin, Lauaxetak (Urkiaga 1935) kutsu negatiboarekin baitzerabilen.

Bi arrazoi ikusten ditut idazleen argudiatze horren atzean: batetik, autoretzaren nagusitasuna, itzultzaile izaeraren gainetik; bestetik, itzulpenaren pertzepzio hertsia, zeinaren arabera hitzez-hitzezkotik aldentzen den orok itzulpen izateari uzten baitio. Kausa-ondorioen beste ordena bat aldarrikatu dut, beraz: egileak ez du itzulpen “berritzailea” egiten egilea delako, baizik eta itzulpen berritzailea egiten duelako da egile (egiletzat uler bedi sormen diskurtsiboari loturiko idazketa/itzulpen-teknikak erabiltzeko joera duen hori). Horrela, jardute moduaren arabera deskriba genezake (auto)itzultzailea. Horrek zerikusia du idazlearen proiektzioarekin. Identitatez ari ginelarik (2.4 atala) esan dut idazlea zer kategoriatan posizionatzen den (modu kontzientean zein inkontzientean) itzulpen-hautuetan eragiten duela eta hori xede-testuan identifikatu daitekeela. Horren adibideak ekarri ditut mikro mailako azterketan ere; besteak beste, izenordearen erabilerak posizionamendua erakutsi lezake (BOR FR 1389#, kulturemen 22. adibidean). Itzultzailearen ahotsa xede-testuan agerrarazteak ere ekarriko luke posizionatze argi bat (kasurako, EPA ES1 1259#, kulturemen 23. adibidean, eta MEA ESn glosarioaren erabileraren bidez). Kategoría sozialak testuan identifikatzeko beste modu bat izan daiteke idazlearen/itzultzailearen “enuntziatio eremuari” (Tymoczko 2003) begiratzea. Hots, berriz, nondik hitz egiten den, zer posiziotik. “Nondik” hori (auto)itzultzailearen atxikimendu kultural eta ideologikoen baldintzatuko dute, baita eremu geografikoak eta denborazkoak ere (Tymoczko 2003: 183). Interesgarria litzateke kasu azterketa baten bidez kategoría sozialak berariaz aztertzea, izenordeen erabileraren, itzultzailearen ahotsaren eta posizionatzearen arteko elkarreaginean sakontzeko.<sup>132</sup>

Autoitzultzailearen identitate bikoiztasunari loturiko ideia zabaldu bezain hutsa ezeztatu, eta tarteko espazio batekin zerikusirik ez duen identitate konplexu aldakorren alde egin dut, beraz. Oro har, aipatu behar da joera aniztasuna ikusi dugula, bai itzulpenaren jarrerari bai itzulpen praktikei dagokienean. Beharbada autoitzultzaileak bi kategorietako partaidetzat du bere burua: idazle eta itzultzaile, sorburu-kulturako kide eta xede-kulturako kide, eta abar. Alta, parez pare dauden bi kategoriako kidetza, 2.4 atalean ikusi bezala, gatazka eta lehiakortasun sorburu da maiz. Nolabait, identitate negoziatio bat gertatzen da: orain gehiago nabarmenduko da kategoría bat, orain bestea. Jakinda, noski, autorearen eta

<sup>132</sup> Ikuspegi askotarikoetatik abiatuta ere, zenbait ikerlanek xeheki begiratzen diote itzultzailearen ahotsari eta enuntziatio eremuari, betiere ideologiari edo identitateari lotuta (besteak beste, Brisset 1995, Charron 1997, Munday 2007 eta Hermans 2009).

itzultzailearen arteko bereizketa ez dela estatikoa eta ez duela garai orotan patroi berak moldatu (Recuenco 2011: 199). Negoziazio hori ikusi dugu, esaterako, ARK FR kasuan, estratifikazioarekin lotu duguna: makro mailan, idazle izaera gailentzen zaio itzultzaile rolari, eta mikro mailan, berriz, alderantziz. Horrela, testuaren zati poetikoenak soilik itzultzearekin, autorearen idazle-izaera ere aldatuko du irakurle elebakarraren ikuspegitik; beste erreferentziarik ezean, irakurle frankofonoentzat Arkotxa poesia-idazlea izanen da, eta euskal/erdal irakurleentzat, berriz, prosa (poetikoa) darabilen narratiba idazlea. Dasilvak (2011) dioenez, garrantzitsua da gogoraraztea non kokatzen duen autoitzultzaileak bere burua autore eta itzultzaile rolen artean.

Bernardo Atxaga bi sistematan posizionatzen dela dio Apalategik (2001: 10): «La double inscription sociologique d'Atxaga n'est pas sans conséquences sur le travail d'interprétation de ses œuvres». Atxagak itzuliko duela jakinda idazten du euskarazko lehen testua, eta, beraz, ezagutza horrek sormena, euskarazkoaren identitate proiektzioa (darabiltzan errepresentazio sozialak) baldintzatzen ditu nahitaez. Izan ere, kategorizazio soziala eta errepresentazio soziala ez dira baztertzailak, elkarren osagarri baizik, eta kategorizazioa aldatzearekin errepresentazioak alda litezke; era berean, errepresentazioak aldatzean bistaratu ohi da posizio aldaketa bat. Zer sistematan kokatzen den, nori mintzo zaion, irakurleari egokituko zaio kontzienteki nahiz inkontzienteki, nolabaiteko mendekotasun literario batez. Zentzu batean, funtzionalismoak adierazi bezala, beti dago itzulpenean hartzaileari egokitzeko joera; literaturan, hori ez da hain nabarmena, egiletasunak eta jatorrizkotasunak duten balio sinboliko handiagatik. Egokitzapenerako joera bera ondoriozta dezakegu Itxaro Bordaren hitz hauetatik:

Norberak bere idatziak itzultzen dituenean, euskaraz kontatutako gauza asko molde ezberdin batez erran behar dira frantsesez irakurgarriak eta onargarriak izateko. Eta autozentsura edo isilune horiek jatorrizko sorkuntzan ere eragina izan dezakete. Orain idazten ari naizen nobelarekiko, adibidez, behin baino gehiagotan pentsatu dut noizbait itzuli beharko badut nekeak edukiko ditudala. Beraz, laxokiago izkiriatzen dut, metaforak arintzen eta beste, baina hori pentsatzen dut lehen hitzetan eta gero ahanzten dut; euskararen zurrumbiloan urtzeko berrero. Nire jaidura naturalak itotzen nau (Urkiza 2006: 284).

Prozesu osoan irauten dion pentsamendua ez bada ere, zenbaitetan, geroako itzulpen balizko baten ideia idazketan baldintzagarri gertatzen zaiola aitortzen du idazle baionarrak. Era berean, “autozentsura” esaten dio kodez aldatzeak sor ditzakeen egokitzapenak euskarazkoan bertan saihesteko ahaleginari. Autozentsura hori idazlearen identitatean eragina duenez gorabehera, hipotesi modura esanen nuke egokitzapenak edo ustez egokitu beharrak abiapuntua duela identitate konplexuen eta errepresentazio sozial diferenteen kontzientzian. Gogoeta abiarazle modura, esanen nuke kategoriaz mudatzea gatazka txikitzeke helburuarekin ere egiten dela; kasurako, JAI ES testuan ikusi ditugun neutralizazioak horrekin lotu daitezke, bereziki identitate nazionalari dagozkionak. Halaber, Meabek (2018) “autozentsura” lotu zion gazteentzako liburu bat autoitzultzeko prozesuari; bere hitzetan, merkatu espainolean indarkeria politikoa eta sexualitatea tabua dira oraindik ere, eta, itzulpenean, xede-argitalpen tokia baldintzagarri da. Neutralizazioa, ezabatzea eta gisako tekniken bidezko estandarizazioa, beraz, parez pareko bi kategoriako kide izan



nahiak sorrarazten ahal duen gatazka leuntzeko bideak izan daitezkeela uste dut, *Beste* litzatekeen kategoriari arrotasun zerbait kendu eta xede-kategorietara hurbiltzeko saiakera. Hortaz, kategorizazio eta errepresentazio sozialen eta (auto)itzulpenaren harremana hagitzez gehiago zehaztu eta aztertu beharko litzatekeela uste dut.

Era berean, autoitzulpenaren tipologia zabalak (2.1 atala) erakusten du ezin dela ekintza homogeen, zurrun eta bakartutzat hartu. Autoitzulpenen sorburuan dauden errealitate soziokulturalak eta politikoak adierazten dituzte autoitzulitako lanek. Itzulpenaren bidez, esanahi eta errepresentazio sozialak eraikitzen dituzte agenteek, xede-testu literarioan ikusgarri izanen direnak. 2. atalaren bukaeran esan bezala, errepresentazio sozialek errealitatea egin egiten dute (Moscovici 1988: 245), eta horrek etengabeko negoziazio bat dakar, une eta espazio jakin batean errealitatetzat zer hartzen den. Negoziazio hori ikus daiteke identitate nazionalari loturiko kulturemak aztertzean (6.2.1 atala), askotariko ordainek elkarrekiko dialogo bat sortzen baitute, errealitatearen eraikuntzan negoziazio horren isla.

(Ez) autoitzultzeko motibazioari eta idazle-itzultzailearen posizionatzeari loturik, lau kategoriatan bereizten ahal ditugu autoitzulpenarekiko jarrerak, euskaratik erdaretarako konbinazioan ari garelarik betiere: baga, autoreak ez du bere lana itzultzen, eta besteren batek egindako itzulpena ere deseroso zaio (esaterako, Joxe Azurmendi); biga, bere lana ez du itzultzen, eta besteren batek egindako itzulpenak ez dio arazorik sorrarazten (esaterako, Uxue Alberdi); higa, bere lana itzultzen du, eta, hori egiteko jardunean, itzultzaile rola hobesten du (esaterako, Miren Agur Meabe); eta, laga, bere lana itzultzen du, eta, hori egiteko jardunean, idazle rola hobesten du (esaterako, Itxaro Borda). Ikus daitekeenez, idazleen jardunaren edo jardun ezaren araberrako kategoriak dira; hots, praktikak definitzen ditu, izan praktika diskurtsiboak, lehenengo bien kasuan, izan itzulpen praktikak, azken bietan. Esan bezala, ekintzak edo praktikak etengabe eraikitzen baitu identitatea. Zenbaitetan, ez da erraza izanen idazle bat lau multzo horietako batean kokatzen, mailakagarria irudi bailuke idazleago edo itzultzaileago jardute hori. Nolanahi den, orain eta hemen, deskribapenerako kategoria baliagarriak dira. Era berean, idazleak bere literatura sistemarekin eta auzoarekin dituen harremanak ere adierazten dituzte kategoria horiek.

Izan ere, hasieratik esan dut autoitzulpenaren azterketak euskal literatura sistemaren teorizazioari ekarpena egin diezaiokeela. Euskal literatura sistema aztertzean, harreman asimetrikoak aipatu ditut: euskarazko lanak bai Euskal Herrian bai horren mugetatik kanpo ekoizten dira, mugetatik kanpo jartzen dugu arreta etxeko produkzioa balioztatzeko, eta maiz Madril eta Parisera begiratzen da euskarara zer ekarri erabakitzeko. Idazleen jarduna elebakarra izanik ere, zalantzarik ez dago sistemek elkar zapaltzen dutela eta elkarri eragiten diotela. Atal honetako bigarren paragrafoan bertan aipatu dut autoitzulpenen kopuru handia; horren atzean zer dagoen aztertzean, espainiar sistemarekiko lotura agertu zaigu. Bi interesen arteko negoziazioa dago hor. Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek (auto)itzulpena diruz bultzatu dute euskal kulturaren promozioa Estatuan eta bereziki nazioartean egiteko (munduratzeko, oro har, Espainiaren bitartekaritza ezinbestekoa dela onartzen dute). Kultur testuinguruaren atalean ikusi dugunez, hori Lefevereren (1992) *patronage* kontzeptuarekin eta horren osagai ekonomikoarekin azal daiteke (sariak, liburu erosketak eta abar), baita Espainiako estatuak

endozentrismorako duen joerarekin ere, hizkuntza gutxituetatik nagusirako (auto)itzulpenak eskatzen baititu (Grutman 2013a). Gogora ekar ditzakegu hemen Touryren hitzak: «[translations] are facts of the culture which hosts them» (1995: 24). Hori hala izanik ere, ikerlan honetan argi geratu da sorburu-kulturak duen pisua (auto)itzulpenen sorreran, eta patrozinioa da horren adierazle handienetakoa. Manterolak (2012) erakutsi zuenez, atzera eragina du promozioak, euskal kulturak erdaretan sustatutako horrek indarra har baitezake euskal sisteman bertan. Beste aldetik, espainiar erakundeek interesa dute euskal literatura Espainiako errealitatetzat hartzeko; betiere, asimilazio modu bat den heinean beretzat hartuz (sari nazionalen bitartez egile jakin batzuk kanonizatuz) eta nazioartean ere euskal literaturaren irudi jakin bat berretsiz.

Bestelakoa da egoera Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan. Izan ere, Frantziak ez du euskal literatura integratzeko inolako ahaleginik egiten, beharbada hizkuntza/literatura periferikoekiko indiferentzia handiagoa duelako. Orobat izan daiteke frantsesera itzulitako literatura posizio periferikoagoan dagoelako; batetik, frantses sistema kulturala beste sistema batzuk baino zorrotzagoa delako, eta, bestetik, frantses literaturak tradizioz posizio zentrala bete duelako Europan (Even-Zohar 1990b). Argi uzten dute hori aztergai izan ditugun liburuen ibilbideek: corpusean bildutako frantseserako bi autoitzulpenetako bat Bruselan kaleratu da, Baionan bestea, eta biak atera dituzte gero gaztelaniaz Hego Euskal Herriko argitaletxeetan. Alderantziz, gaztelaniara autoitzulitako lan asko ez dira frantsesera itzuli, nahiz eta beste hizkuntza aunitzetan egon (hori da ELO EU eta CAN EUren kasua). Oro har, euskaratik frantsesera egiten diren itzulpenak deigarriki urriak dira; ELI katalogoaren arabera, adibidez, 107 titulu daude frantsesez, 39 alemanez eta 126 ingelesez (azken kontsulta data: 2018/03/20).

Ikusi dugu, bada, erdal literatura sistemek jarrera ezberdin adierazgarria dutela Hego Euskal Herrian eta Ipar Euskal Herrian. Ezbairik gabe, kultura eleaniztun periferiko eta mugakide baten konplexutasunak aintzat hartu behar dira autoitzulpenak aztertzerakoan. Interesgarria litzateke xehekiago aztertzea bai mugak, sinbolikoak nahiz fisikoak, bai horien eragina. Baita idazleen posizioa muga horrekiko ere; esate batera, guneari hitz egiten diotela aditzera ematen duten bi sorburu-testuren adibide bana ikusi dugu heterolinguismoaren atalean (BOR EU 1000#, 16. adibidean, eta ZAL EU 508#, berriz, 19.ean).

Literatura sistemen harremanari buruz esandakoari lotuta, galdera hau etor dakiguke: indar zentripeto espainiarra erreproduzitzen ari ote gara Euskal Herrian? Izan ere, katalogoko datuek erakutsi bezala, euskaratik autoitzulitako lanen erdia baino gehiago (%56,3) Euskal Herriko argitaletxeek kaleratu dituzte. Jakingarria litzateke zer neurritan diren autoitzulpen horiek argitaletxeen eskaeraren ala idazleen proposamenaren ondorio. Gainera, aintzat hartu behar da kopuru horretan sartzen direla Euskal Herrian kokaturiko Espainiako argitaletxeen euskal adarrak ere. Nolanahi den, kopuru horrek pentsarazten ahal du autoitzulpenak asmo duen lehen hartzailea Euskal Herriko mugen barnekoa dela, ez kanpoko. Xede-argitalpen lekuei loturik, esanguratsua da Bartzelona dagoela Madrilen aurretik euskaratik itzulitako liburu guztiak eta ez soilik autoitzulpenak aintzat hartuz gero (ELI katalogoa). Ez da hala gertatzen autoreek itzulitako lanen kasuan, ordea, Euskal Herriaren ondoren baitator Madril, eta hirugarren da Bartzelona. Horrek lekuaren

araberako leheneste bat adierazten du: Bartzelona itzulpen alografoen alde eta Madril autoitzulpenen alde.

Ikerlan honetarako osaturiko katalogoak Lambert eta van Gorpen eredu zirkularrari jarraitzen dio. Horretaz baliatu naiz itzulpen ikasketa deskribatzaileek proposatzen duten metodologia enpirikoa aplikatzeko (4. atala). Horrela, EUSAL katalogoa sortu dut, ELI katalogotik abiatuta (Manterola 2012). Prozesuari dagokionez, nabarmendu behar da suposizio anitz egin behar direla autoitzulpenen katalogazio garbi bat egiteko; bilaketa xehea eginda ere, zalantza txikiren batekin geratu naiz. Izan ere, kreditu-orriari begiratuta, badira autoitzulpen garden asko; bestelako iturri paratestualek, ordea, datu kontrajarriak ematen dituzte maiz. Autoitzulpen opakua ere badira, prestigioari dagokionez baztertuago dauden generoen kasuan bereziki, hots, haur eta gazte literaturako liburuen eta antzezlanen kasuetan. Autoitzultzaile eta autoitzulpenen kopurua handia da (125 eta 331, hurrenez hurren), eta autoitzultzaile gehienentzat jardun ezohikoa da, %64k obra bakar bat baizik ez baitu autoitzuli. Xede-hizkuntza nagusia, alde handiz, gaztelania da (%86,4), eta oso atzetik dator frantsesa (%11,8); beste hizkuntzetara autoitzulitakoak oso gutxi dira (%1,8). Hortaz, autoitzulpena egoera soziolinguistikoen adierazle ere bada. Itzulpenak zubiak eraikitzen dituela esaten da maiz, baina gurean integrazioa dakarrela esatea arantzatsua dela uste dut, hizkuntzen (eta, beraz, hiztun-komunitateen eskubide linguistikoen) ez-parekidetasun egoera batean (eta, partez, horren ondorioz) sortzen delako itzulpena. Xede-hizkuntzen diferentzia handi hori inplikaturiko sistema literarioen adierazle da, genero autoitzulien kopuruekin gertatzen den bezala. Gehien autoitzulitako generoa HGL da (%45), guztiak gaztelaniara, esperantorako liburuxka bat salbu; horrek esan nahi du jardun sistematizatua dela, gaztelaniara egindako autoitzulpen guztien erdia baino gehiago baitira HGL. Bestela, antzerkian baizik ez dituzte gainditzen frantseserako autoitzulpenek gaztelaniarako autoitzulpenak, pastoralei esker, betiere. Kronologiari begiratuta, autoitzulpen gehienak azken hiru hamarkadetan kaleratu dira, eta goranzko joeran ari dira. Lehen autoitzulpentzat jo dut Oihenarten atsotitz eta poema bilduma bat, 1657koa. Bestalde, esanguratsua da STaren eta XTaren arteko denbora-tarte txikia: edizio elebkarreko (240) obra gehienetan (%62,1) euskarazkoa publikatu eta, asko jota, hurrengo bi urteetan kaleratu da erdarazkoa. Horrek ez dio tarte handirik uzten euskarazkoari bide autonomoa egiteko, are gehiago edizio elebidun eta eleaniztunak kopuru horretatik kanpo utzi ditudala kontuan hartuta. Hain zuzen, edizio elebidun eta eleaniztunen kasuan gaztelaniaren eta frantsesaren arteko aldea ez da hain handia, eta, proportzioan, ugariagoak dira frantsesera egindakoak. Badirudi, beraz, euskarazkoak, bizitzeko, frantseseko behar duela ondoan. Susmo hori indartzen du ibilbide autonomoa izandako euskarazko bi liburuak (Bordaren *%100 Basque* eta Arkotxaren *Septentrio*) Gipuzkoako argitaletxe banatan kaleratu izanak. Nolabait, edo Bidasoaren bestaldean kaleratzen da euskarazkoa (gure sistema subordinatuaren erdigunean), edo, nahitaez, frantseserako autoitzulpenaz lagundurik argitaratu behar da. Pentsa daiteke literatura ahul baten lehen aukera dela, eta inoiz indartzen bada, atzean utziko direla praktika horiek. Zeren orobat galde baitezakegu edizio elebidunik ezean euskarazko elebkarrik aterako ote zuketean argitaletxe horiek. Hala ere, horiek sistematikoki kaleratuz gero, azpisistemaren mendekotasuna nabarmendu egiten duela uste dut, eta ez duela laguntzen hizkuntzaren/kulturaren biziberritzean. Horrek eta gaztelaniarekin edizio

elebidun/eleaniztun gutxi egoteak zerikusia du euskal literatura sistemak lurralde bakoitzean duen estatusarekin.

EUSAL katalogoa deskribatu eta gero, izen bereko corpuseko parte izanen ziren testuak aukeratu ditut, irizpide batzuei jarraikiz (5. atala). Ikerlan honetako helburuetarako, corpus digital, eleaniztun eta paraleloa sortu dut, 24 testuz eta 627.363 hitzez osatua. Aukera handiko tresna metodologikoa da, eta beste aztelan batzuetarako abiapuntu eta oinarri ere izan daiteke. TRACEaligner programarekin lerrokatze prozesuan egindako eragiketek, bereziki eragiketa jakin bat sarritan errepikatu bada, itzultzaileak erabilitako estrategien irudi bat eman dezakete. Behin-behineko irudi hori makro eta mikro mailako azterketarekin argitu da.

Itzultzailearen jokabideari eta erabakiei buruzko ondorio orokorrak atera ahal izateko, Touryk (1995) zioen sorburu-testua eta xede-testua alderatu behar direla. Azterlan honetan, lehenik, egitura alderatu dut. Horrek erakusten du corpusean bildutako autoitzulpen guztiek kasuan kasuko sorburu-testuak baino hitz gehiago erabili dituztela (autoitzulpen partzialek salbu). Bereziki gehitu dituzte hitzak BOR ES, JAI ES eta EPA ES1/ES2k, eta gutxien, berriz, CAN ES1/ES2k eta ROD ES2k. Esaldien kasuan, adostasuna ez da hain handia: sorburu-testuarekin alderatuta, autoitzulpen batzuek esaldi gehiago (BOR eta JAI) erabili dituzte, eta beste batzuek gutxiago (ROZ); kontrara, esaldi kopurua ia ez da aldatu MEA ES testuan. Esaldi kopuruak hitz kopuruaren alderaketak baino zeresan handiagoa eman dezake itzulpen-hautuen inguruan; gainera, esaldien egituraketak obraren estiloa alda lezake, mekanismo bati sistematikoki segitzen bazaio. Esate batera, 6.1 atalean esan dugu Rozasen erdarazkoek sorburu-testuak baino esaldi gutxiago dituztela, eta, zenbaitetan, hizkera parataktikotik sintagmatikora aldatzen dela itzulpenarekin (13. taula). Halaber, atal honetan gorago esan dudanez, itzulpen partzialetan, zer autoitzultzen den eta zer ez eragina izan dezake obraren eta idazlearen proiektzioan, ARK FR testuarekin gertatu bezala.

Azterlan honen azken helburua euskal idazleen autoitzulpen joerak ondorioztatzea denez, beharrezkoa da mikro mailako azterketa egitea. Helburu horrekin aztertu ditut corpusean kulturema jakin batzuk eta adierazpide heterolingueak, bai STn bai XTn bilaketak eginez. Esanguratsua da identitate nazionalari loturiko kulturemak zazpi sorburu-testutan eta horien autoitzulpenetan agertzea, eta adierazpen heterolingueak, berriz, testu guzti-guztietan. Azpimarratzekoa da agerpen kopurua, ez baitut irizpide hori jarri testuak aukeratzeko. Horrela, itzulpen ikasketen barruan, lehen aldia da tamaina honetako corpus digital, paralelo eta eleaniztun bat erabiltzen dela autoitzulpenaren joerak aztertzeko, oro har, eta, zehazki, kulturemei eta heterolinguismoari begiratzeko.

Kulturemei dagokienez, aipatu behar da zerrendaturiko terminoen bilaketek emaitza anitz eman dituztela: hala euskarazko testuetako kopuru handia nola itzulpenetako ordain askotarikoak. Aintzat hartu behar da BOR EU eta ZAL EU testuek euskalduntasuna dutela hizpide, eta horrek kopurua nabarmen handitu duela (frantsesezko agerpenen kopurua gaztelaniazkoena baino handiagoa izateraino termino batzuen kasuan). Gauza bera gertatzen da alderantziz ere: testu/autoitzultzaile zenbaiti buruz ezin izan dugu gauza askorik esan, testuek eurek ez dutelako aukera handirik ematen aztergaiei dagokienez (esate

batera, CAN EU eta ELO EU). Etorkizunean, beste testu batzuekin egin daiteke saio bera, kokapen geografiko-tenporalak eta gaiak emaitzetan zenbateraino eragiten duen ikusteko.

Oro har, kulturemei dagokienez, ordezkapena, egokitzapena, ezabatzea eta sormen diskurtsiboa dira identifikaturiko itzulpen-teknikak; nolana den, kopuruei begiratuta, ugariena baliokidetzat da zerrendaturiko termino guztien itzulpenean. Horrek, noski, ez du bat egiten idazleen iritzi zabalduarekin; esate batera, zehazki aztergai ditugun testuei buruz, Arkotxak dio «berridatzia eta bermoldakuntza» dela (“Aurelia Arkotxa euskaltzain oso” 2007), eta Jaiok, berriz, ipuinak itzuli baino gehiago, berridatzi dituela (Artaza 2010). Zahatzagoa irudi luke Bordarenak, «traduit et adapté du basque par l’auteur» baitio frantsesezko testuak. Nolanahi den, itzulpen jardunean sartzen diren teknikak dira identifikatutako denak ere. Zehazki, ZAL ES eta BOR FR dira sormen diskurtsibora gehien jotzen dutenak, ez soilik aztergai ditugun kulturemen itzulpenean, baizik eta testu osoan; kulturemei etorrita, bi horiek dira ordain gehien darabiltzatenak, eta hala ere baliokidetzat da nagusi. Sormen diskurtsiboa azaltzeko, esanen nuke eragin handia duela Zaldua gaztelaniarazko idazle ere izateak, gaztelaniara itzultzean idazle rola aktiboago bailuke halako hautuak egiteko.

Euskarazko zazpi testutan identitate nazionalari loturiko hainbeste erreferentzia agertzea deigarria egin zait. Horri erdarazko ordain askotarikoak gehituta (baita termino berarentzat eta xede-testu berean ere), pentsa daiteke badagoela zerbait Apodakak (2015) proposaturiko anomaliatik, ez-normalduaren zentzuan; hots, esanen nuke ez genituzkeela hainbeste baliokide eta ordain izanen ezaugarri beretsuko alemanezko corpus batean. Kopuru handiaz gainera, identitate gatazka adierazten duten beste hautu batzuk aurkeztu ditut kulturemen azterketan; esate batera, euskarazko *euskaldun* izena «Euskadi, Euskal Herria, Vasconia o como quiera que se denomine el pedazo de tierra del que provengo» (ZAL ES 566#) bidez ematea, edo euskaraz *Auzo estatu* den hori erdaraz «Dans notre pays» bihurtzea (BOR FR 1389#). Bi kasuetan egokitzapena gertatzen da; enuntziario eremua (Tymoczko 2003) aldatzearekin, euskarazkoaren bestelako errepresentazio sozialak sortzen dira. Bigarren adibidean, zehazki, *euskal* espazioa «auzo estatu» horren barruan sartzen du frantsesezkoan, eta nazional zena erregional bihurtzen da. Orobat identifikatu dut joera bat JAI ES eta ARK FR testuetan, gatazkaren leuntzearekin lotu daitekeena: sistematikoki jotzen dute neutralizaziora jatorriari loturiko kulturemak itzultzerakoan (ez da hala gertatzen hizkuntzari erreferentzia egiten diotenekin, eutsi egiten baitiete horiei); testu osoan, oro har, kulturemak ezabatu edo erakusleak, izenordeak eta bestelako zehaztugabeak hobesten dituzte. Kasurako, *euskaldun* izena hiru aldiz agertzen da JAI EUn, eta XTak ordain bana ematen dio horiei: *nosotras*, *nuestro país* eta *amiga* (15. taula). ARK FRn, berriz, ezabatu egiten da *euskaldun*, batzuetan esaldi osoa kentzen delako eta beste batzuetan hitza bera (ARK EU 1502#, 7. adibidean). Gagnonek (2006) dioenez, itzulpenean izenordeak erabiltzen dira bai gai delikatuak saihesteko bai elkartasuna sortzeko; azterlan honetan ere, atxikimendua desagerrarazi eta gai delikatuak saihesteko modua dela ikusi dugu. Idazle pare horien joerak (alde batetik, BOR-ZAL, eta, bestetik, ARK-JAI) erakusten dute sorterririk ez duela itzulpen modua determinatzen. Nolanahi den, esanguratsua da bai BOR FR bai ARK FR aipagarri izan ditugula modu batean edo bestean testua moldatzeagatik; hau da, arau matrizialei dagokienez bereziki, haiek egin dituzte proposamen sortzaileenak. Zaila da bi

testu baino ez izanda arrazoi orokorrak aurkeztea; hala ere, esanen nuke horrek lotura duela Ipar Euskal Herriko azpisistemaren estatusarekin.

Sorburu-testuetan, ikusi dugu gehien agertzen den terminoa, egindako zerrendaren arabera betiere, *Euskal Herria* dela; bilaketa bera XTetan eginda, berriz, *basque/vasc\** da gehien agertzen den adierazpidea (dela adjektibo dela izen). Izen berezitik adjektibora aldatzen den kasuetan, transposizioaz mintzatu gaitezke; kategoria gramatikala aldatzeak konnotazioren bat ekar lezake berarekin. Nolabait, izatetik edukitzerako trantsizio bat; corpusean aztergai izandako ROD testuetan horren errepresentazio bat ikus dezakegu (464#), kulturema beste bat izanik ere: EU: *euskaldun bizzi* > ES1: *ser vascos* > ES2: *vivir como vascos*. Aipagarria da beste izen berezi batzuk, *Euskadi* kasurako, ez direla ia agertzen; urritasun horrek adieraziko luke, besteen aldean, idazleen identifikazio politikoa horrekiko oso ahula dela. Identitatez ari ginelarik, atxikimendua izan dugu hizpide: testuetan agertzen ez diren kategoriak berdin dira esanguratsu.

Corpusean bilduriko testu guztiak dira heterolingueak. Heterolingüismo kasuen azterketa kualitatiboa egiteko, corpuseko lagin adierazgarri bat hartu eta Corrius eta Zabalbeascoaren (2011) terminologian eta Grutmanen (2002: 335) taulan oinarritu naiz. Lehenik esan behar da Grutmanen sailkapeneko 3. eta 5. puntuetako adibiderik ez dudala aurkitu. Horrek ez du esan nahi corpus osoa aintzat hartu izanez gero halakorik ez legokeenik; hala ere, bada esanguratsua bakar bat ere jaso ez izana. 1. eta 2. puntuai dagokien hizkuntza adierazpideak, oro har, bere horretan eman dituzte xede-testuek, neutralizazioren bat eta esplizitazioren bat badago ere (hurrenez hurren, JAI ES 3031#, L3<sup>ST</sup>=L2 denean, eta BOR FR 1545#). Gutxi dira lexiko maila gainditzen duten adierazpen heterolingueak, hots, 6. puntuari sailkatzekoak; horien artean ikusi dugu, BOR FR testuan, L3<sup>ST</sup>=L2 denean naturalizazioa saihesteko saiakera urrietako bi (oin-oharra jartzea eta hizkuntza pare aldatzea). Kopuruz ugariak 4. puntuari sailkatzeko adierazpideak dira, bereziki izen berezien ondorioz. Horien itzulpenaz ari ginelarik, bereizketa egin dut izen berezien eta bestelakoen artean; oro har, izen berezien kasuan, bere horretan edo egokitzapen ortotipografikoren batekin eman ohi dituzte autoitzultzaileek. Egokitzapen horiek xede-hizkuntzaren arauetara moldatzeko xedea dute; onargarritasunaren alde egin dute, beraz. Hori dela eta, nabarmentzekoa beste bideren bat darabiltenak: ZAL ES testuan ikusi dugu oihartzun heterolinguea gordetzeko eta hartzaileari egokitzeko adibide interesgarria (24. taula), izen bereziei dagokienez.

Izen bereziak ez diren kasuetan, berriz, jokamoldea hizkuntzaren arabera aldatzen da: L3<sup>ST</sup>=L2 denean, neutralizazioa gertatu ohi da; L3<sup>ST</sup>≠L2 denean, berriz, adierazpen heterolinguea gordetzeko joera dago. Azken hori berretsi egin du frantsesa/gaztelaniaren eta ingelesaren azterketa alderatuak; ikusi bezala, bere horretan eman dute xede-testuek ingelesa, kasu guztietan, eta neutralizazioa gertatu da L3<sup>ST</sup>=L2 den kasu gehienetan. Nolabait, erdarazkoan, hizkuntza asimetricoen arteko gatazka normalizatu eta kultur distantzia leuntzen da. Hain zuzen, naturalizazioa aipatzen zuen Grutmanek (2006: 22) hipotesi orokor modura; alegia, sorburu-testu batean agertzen den beste hizkuntza hori xede-testuko hizkuntza nagusiarekin bat egiten duenean, naturalizazioa gertatu ohi dela. Corrius eta Zabalbeascoak (2011) hipotesi berarekin ekin zioten ikus-entzunezkoen testu itzulien azterketari, eta ondorioztatu zuten beren corpusean hipotesia bete egiten dela.

Horixe da, hain zuzen, autoitzulpena itzulpentzat hartzeko beste arrazoi bat;  $L3^{ST}=L2$  denean, neutralizazioa gertatzen da itzulpena idazleak egin zein beste itzultzaile batek egin. Oro har, hizkuntza nagusia ez den hizkuntzen/aldaeren oihartzunak itzultzeko teknika hauek ere identifikatu ditut, kopuru apalagoan: esplizitazioa, egokitzapena, ezabatzea, zabalpena, azalpena, sormen diskurtsiboa eta konpentsazioa. Hain zuzen, konpentsazioa izan daiteke xede-testuetan euskara sartzeko arrazoiak. Izan ere, sorburu-testuan horretarako arrazoi garbirik ez dagoen kasuetan euskara agertzen da xede-testuan; kasurik nabarmenena MEA ES da, glosario eta guzti. Orobat ikusi dugu horretarako joera JAI ESn, kulturemei buruz aipaturiko neutralizazioak orekatzeko, beharbada; esate batera, *Etxeberria* abizena gehitzen zaio *Paulo* izenari (12. adibidea, 2528#), eta kasu batean *eskola zena ikastola* bihurtzen da. Halakoek Tanqueiroren (2002: 118) “gainitzulpen” kontzeptua dakarte gogora, sorburu-testuan ez duen balioa ematen baitzaie marka horiei itzulpenean. Neutralizazio kasuak orekatzeko ez ezik, baliteke idazleek sorburuko testuinguru linguistikoa adierazi nahi izatea xede-testuetan gehituriko euskarazko edo euskarari egindako erreferentzien bidez; bestela esanda, iruditeri sozial euskaldunari eutsi nahi diote. Orobat gertatzen da STn adierazpen heterolingueak ez dauden kasuetan XTn aurkitzea: esate batera, 43. adibidean ikusi bezala, ROZ ES1/ES2n italierazko adierazpen bat ageri da, eta ROD ES1/ES2n, berriz, frantsesezkoa; bai batean bai bestean, euskara baizik ez da ageri STan. Hala, xede-hizkuntzan konbentzionalak ez diren egiturak eta formak erabiltzen diren neurrian, hautu jakin batzuetan itzulpenak gehiago hurbiltzen dira egokitasunera.

Oro har, azpimarratzekoa da erdaretan errepikapenak saihesteko joera dutela itzultzaileek (bereziki EPA eta ZAL), eta horrek zerikusia du estandarizazioaren legearekin, xede-hizkuntzan horretarako joera badagoenez. Adierazia argia da halakoetan, baina adierazlea ezabatu, elipsiz eman edo posesiboz ordeztzen da. Interesgarria litzateke hizkuntza konbinazio bereko itzultzaile alografoek berdin jokatzen ote duten aztertzea. Halaber, aipagarria da estratifikazioa, Touryren (1995: 58) jarduerazko arauci dagokienez; batzuetan, arau matrizialetan gehiago azaleratzen da itzultzaile jarrera, eta linguistiko-testualetan, berriz, idazle jarrera (hala gertatzen da EPA ES1 eta ES2 artean, non egitura ia ez den aldatzen, bai, ordea, hautu mikrotestualak); beste batzuetan, joera alderantzizkoa da (ARK FR aipatu dut honezkero: makro mailan idazle rola nabarmentzen da, testuaren itzulpen partziala eginez, eta mikro mailan, berriz, itzultzaile rola).

Bina autoitzulpen dituzten lau sorburu-testuen kasuan, hautu ezberdinak identifikatu ditut; batetik, CAN EU eta ROZ EU testuen bina autoitzulpenak berdinak dira, gauza txiki batzuk kenduta (komatxo motak eta hitz batzuen ortografia, kasurako); bestetik, EPA ES2k eta ROD ES2k moldatu egin dute autoitzulpena, nahiz eta, dirudienez, lehenengo itzulpenean oinarritu diren bigarrena egiteko. Hala adierazi zuen Epaltzak mezu-trukean. Bietan hala izan ote den argitzeko, komeni da soilik horri begiratuko dion azterketa bat egitea. Halaber, esan daiteke kasuren batean xede-testuko hartzaileari egokitu zaizkiola (ROD 517#, 18. adibidean; EPA 1259#, 23. adibidean). Birsortze ariketa BOR FRn ere antzeman daiteke, sorburu-testuan frantsesez emandako hitz edo esamolde batzuk aldatu egin baititu xede-testuan, berdin utzi beharrean (kasurako, BOR 510#, 29. adibidean). Horri loturik, Bordaren autoitzulpen sortzailea STan bertan identifikatu daiteke, 27. adibidean (BOR EU 2041#) esandakoaren harira: frantsesezko hitzak eta esamoldeak

euskarazko moldez STan ematean, badirudi STn autoitzulpen inplizitu bat egiten duela, eta itzultzean, berriz, autoitzulpenaren autoitzulpena.

Beraz, ikusitakoak ikusita, ondorioztatu dut oro har autoitzultzaileen jarduna ez dela itzultzailearen jardunetik hainbeste urruntzen. Ez, behintzat, idazleek itzulpentzat ez hartzeko argudiatzen dutena bezainbat. Kasurako, ROZ EUren gaztelaniaratztea nolakoa izan zen galdetuta, honela zioen idazleak: «sortzailea, ni neu nire baitan, erabat, gauza autonomo bat bezala; begiraten nuen euskarazkoa, lehenengo zirriborroa, eta handik aurrera hilabeteak eta hilabeteak euskarazkoa begiratu ere gabe» (Rozas 2017, 51:12). Testu azterketak erakutsi du, ordea, horrek ez duela bat egiten identifikaturiko itzulpen-hautuekin; ROZ ES1/ES2 testuek, bereziki, hurbiletik segitzen baitiote euskarazkoari. Beharbada itzulpen jardunaren ezezagutzaren ondorio dira autoitzulpenaren eta itzulpenaren artean bereizketa egiten duten diskurtsoak. Badira, noski, itzultzaile alografoak gaur eta hemen ustez eginen ez lituzkeen hautuak; esaterako, 3. pertsonan kontatuta dagoena 1. pertsonara aldatzea (JAI ES), edo pasarte jakin batzuen itzulpena baino ez egitea (ARK FR), edo azalpena helburu duten testu-zati luzeak gehitzea (ZAL ES eta BOR FR). Lehena salbu, guztiak dira arau matrizialei dagozkien hautuak. Halakoetan, idazle kategoriaren posiziotik ari direla esan daiteke, itzultzailearenetik baino gehiago, nahiz eta horiei beraiei mikro mailako hautu batzuetan itzultzaile rola gailendu.

Oro har, ez dut aurkitu itzulpenean sekula egin ez den hauturik, ezta itzulpen tekniken barruan sailkatu ezin den jokamolderik ere. Orobat esan behar dut autoitzultzaileek askotariko bideak urratu dituztela, eta ez dagoela joera bateratu eta homogeneousatik euskaratik egiten den autoitzulpengintzan, baliokidetzaren lehenestea salbu. Izan daiteke azken hamarkadetan zabalduak jarduna delako edo azterturiko autoitzultzaileek senez ekin diotelako jardunari (formaziorik gabe, alegia). Halaber, ezin da joera bateraturik ondorioztatu azterturiko xede-testua lehen autoitzulpena dutenen eta aurrez beste lanen bat autoitzulia dutenen idazleen jardunbidearen artean.

Ikerlan honek etorkizuneko ikerketetarako bidea zabaldu duela esan daiteke. Euskaratik autoitzulitako literaturaren katalogoa etengabe handitzen ari da. 2015era artekoak dira azterketa honetarako bildutako testuak; hala ere, orduetik autoitzulpenak biltzen jarraitu dut eta zenbait idazleren mezuak jaso ditut autoitzulpen berri bat kaleratu dutela edo kaleratzekotan direla esanez. Aurrerantzean, bada, EUSAL katalogoa elikatzen segituko dugu, ikerketa gehiagoren oinarri izan dadin. Era berean, sorturiko corpusak potentzial handia du beste ikerketa batzuetan erabiltzeko. Euskaratik egindako autoitzulpenari buruzko lanak (Lopez Gaseni 2005, Manterola 2012) osatzera dator ikerlan hau, eta landu gabeko eremu zabal bat hartu dut horretarako: helduentzako prosazko literatura. Era berean, autoitzulpenaren gogoetari ekarpena egiten dio, harremanean jartzen baitu euskaratik egiten den hori beste literatura batzuetan ondorioztatu denarekin.

Hala ere, badira denbora eta espazio mugengatik ikerketatik kanpo utzi behar izan ditudan aztergaiak. Kasurako, genero batzuk (bereziki poesia eta antzerkia) landu gabe geratu dira, prosazko literaturari baizik ez baitiot begiratu. Pastoralen azterketa beregaina interesgarria litzateke, adibidez, iruditzen baitzait oso esanguratsua dela bai literatura sistemaren bai autoitzulpenaren ikuspegitik. Katalogoari dagokionez, beste ertz batzuetatik



heltzen ahal zaie datuei, horiek beste modu batean gurutzatu eta informazio osagarria lortzeko. Alde horretatik, baliteke estatistikari buruzko ezagutza mugatua agerian geratu izana. Interesgarria litzateke, halaber, zer ez den (auto)itzuli aztertzea; hutsuneak edo gabekiak informazio handia emanen liguke. Era berean, TRACEaligner programa hobetzen jarraitu beharko litzateke, prozesua azkartu eta bilaketak findu ahal izateko, tresna ahalsua baita azterketa sistematikoak egiteko. Hala, azterlan honek programaren hutsak identifikatzeko eta nola hobetu pentsatzeko balio izan du. Azkenik, jakin badakit autoitzultzaileen identitateari buruzko atalean proposaturiko teoriak mikro mailan aplikatu beharko liratekeela, beste nonbait Meaberen testuekin egin bezala (Arrula-Ruiz 2017). Saiatu naiz, beraz, gogoetaren eta praktikaren artean loturak egiten; kasu azterketa ez egin arren, teoriok itzulpenean nola azter daitezkeen erakusten. Horrela, 6. ataleko adibideek erakutsi dutenez, sorburu-testuak identitate nazionalari egindako erreferentziak autoitzulpenetan apaldu, zehaztu eta desagertu egiten badira ere (JAI, EPA eta ARK testuetan kasurako), identitate linguistikoari eusteko eta, batzuetan, indartzeko joera ikusi dugu (MEA eta ROZ, esate batera). Autoitzulpenaren ikuspegitik, lehen urrats bat izan da identitatearen azterketan.

Bukatzeko, bada, autoitzulpena ikertzen segitzeko lerroak baizik ez ditut ikusten. Izan ere, erantzun batzuek aurrez pentsatu gabeko galderetara eramán gaituzte: zer inplikazio ditu obra bat autoitzulpentzat beharrean berridazketatzat aurkezteak? Nola eragiten du autoitzulpenak literatura sorkuntzan, modu indibidualean zein kolektiboan? Bada autoitzulpen jardunean bilakaera bat, sistematikoki egiten denean? Horrela, batetik, beste genero batzuk jorratzea interesgarria litzateke, generoari loturiko itzulpen-hauturik ba ote den ikusteko. Generoaren araberrako alderaketak ere egin daitezke; esate batera, Miren Agur Meaberen haur eta gazteentzako literatura, poesia eta narrazioa alderatu daitezke, horiek guztiak autoitzuli baititu. Bestetik, idazle bakar baten obra autoitzuliak eta itzulpen alografoak alderatzea interesgarria litzateke, norberaren lanak edo besteen lanak diren itzulpen-hautuetan eragina ote duen ondorioztatzeko. Kasurako, Eider Rodriguezen autoitzulpenak eta Nemirovskiren liburuaren itzulpena alderatu ditzakegu, xede-hizkuntzarekin zerikusirik ez duten itzulpen-hautuak aztertzeko. Sormen-lanak ere sar daitezke alderaketa horretan, sormen lanaren eta itzulpenaren artean hautu estilistiko eta linguistiko ezberdinak egiten ote diren aztertzeko. Izan ere, hipotesizat esanen nuke itzulpenak, hizkuntzari dagokionez, aski kontserbadoreak izan ohi direla; hots, berrikuntza linguistikoak ez direla idazketan bezainbeste onartzen. Era berean, idazle baten edo batzuen autoitzulpen jardunaren prozesu eta produktu guztiak aztertzea jakingarria litzateke, itzulpenarekiko jarreran eta estrategietan bilakaerarik eta aldaketarik egon ote den ikusteko. Orobat litzateke jakingarria obra autoitzuliak beste hizkuntza batera itzultzen direnean itzultzaileak nondik abiatzen diren ikertzea; hots, zer testu hartzen duten sorburutzat: euskarazkoa, autoitzulpena edo biak. Azkenik, bi noranzkotan autoitzultzen duten idazleen xede-testuak alderatu litezke, sorburu- eta xede-hizkuntzek itzulpen-hautuetan zer-nolako eragina duten aztertzeko. Esan bezala, gure hizkuntza konbinazioan ez da halako kasurik, ez liburu formatuan kaleratu denik, behintzat; nolana den, autoitzulpen ikasketetan sakontzeko aukera emanen liguke.

Ikerketa horien bidez, azterlan honetan egindako hipotesi anitz berretsiko edo ezeztatuko lirateke, euskaratik egiten den autoitzulpenari oinarri sendoagoa jartzeaz batera. Hemen aurkezturiko teorizazioek, tresnek eta ondorioek hamaika galdera eta ikerlerro zabaltzen dituzte. Izan bedi proposamen hau etorriko diren lanen bidegile.

**b**





# bibliografia

## CORPUSEKO LIBURUAK

- Arkotxa, Aurelia (2001). *Septentrio*, Irun: Alberdania.  
 ----- (2006). *Septentrio*, Brussels: Atelier du Héron.
- Borda, Itxaro (2001). *%100 Basque*, Zarautz: Susa.  
 ----- (2003). *100 % basque*, Baiona: Les editions du Quai Rouge.
- Cano, Harkaitz (2005). *Belarraren aboa*, Irun: Alberdania.  
 ----- (2006). *El filo de la hierba*, Irun: Alberdania.  
 ----- (2007). *El filo de la hierba*, Barcelona: Roca.
- Elorriaga, Unai (2001). *SPraiko tranbia*, Donostia: Elkar.  
 ----- (2002). *Un tranvía en SP*, Madril: Alfaguara.
- Epaltza, Aingeru (1996). *Tigre ebiztan*, Donostia: Elkar.  
 ----- (1999). *Cazadores de tigres*, Zaragoza: Xordica.  
 ----- (2013). *Cazadores de tigres*, Iruñea: Pamiela.
- Jaio, Karmele (2006). *Amaren eskuak*, Donostia: Elkar.  
 ----- (2008). *Las manos de mi madre*, Donostia: Tarttalo.
- Meabe, Miren Agur (2013). *Kristalezko begi bat*, Zarautz: Susa.  
 ----- (2014). *Un ojo de cristal*, Iruñea: Pamiela.
- Rodriguez, Eider (2004). *Eta handik gutxira gaur*, Zarautz: Susa.  
 ----- (2006). *Eta handik gutxira gaur. Cuatro cicatrices*, Madrid: Centro de Lingüística Aplicada Atenea.  
 ----- (2007). *Y poco después ahora*, Donostia: Tarttalo.
- Rozas, Ixiar (2006). *Negutegia*, Iruñea: Pamiela.  
 ----- (2010). *Negutegia. Invernario*, Maxico DF: Itaca.  
 ----- (2014). *Negutegia. Invernario*, Iruñea: Pamiela-Diario de Noticias.

Zaldua, Iban (2008). *Euskaldun guztion aberria*, Irun: Alberdania.  
 ----- (2009). *La patria de todos los vascos*, Madrid: Lengua de Trapo.

## BIBLIOGRAFIA OROKORRA

- “Acto de presentación” (2016). Erein [ikus-entzunezkoa] 2016/11/18, s/g. URL: <http://www.erein.eus/libro/la-educacion-de-lili>
- Agirre Dorronsoro, Lorea (2014). “Joxe Azurmendirekin solasaldia”, *Jakin* [sarean]. URL: <http://www.jakin.eus/memoria/solasaldiak/joxe-azurmendi/8> [azken kontsulta data: 2016/04/26].
- “Aingeru Epalza: ‘Abentura nobela bat egin nahi izan diat’” (1987). *Argia* 1987/01/11, s/g. URL: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/1133/aingeru-epalza-abentura-nobela-bat-egin-nahi-izandiat>
- “Alambradas y fronteras” (2013). *Noticias de Navarra* 2013/10/25, s/g.
- Alberbide, Nora (2015). “Bi hizkuntzak liburu bakarrean”, *Berria* 2015/04/07. URL: <https://databasea33.wikispaces.com/file/view/BERRIA%2C%202015-04-07.pdf/546481070/BERRIA%2C%202015-04-07.pdf>
- Aldekoa, Iñaki (2004). *Historia de la literatura vasca*. Donostia, Erein.
- (2008). *Euskal literaturaren historia* (itz. Jon Muñoz), Donostia: Erein.
- Alcoff, Linda (1991-92). “The Problem of Speaking for Others”, *Cultural Critique* 5-32. URL: <http://www.alcoff.com/content/speaothers.html> [azken kontsulta data: 2016/09/09].
- Alonso, Jon (2001). *Agur, Darwin*, Iruña: Pamiela.
- Alonso Amezua, Idurre (2008). *Euskal literaturaren irakaskuntza Hego Euskal Herriko batxilergoan*, Euskal Herriko Unibertsitatea [doktore-tesia].
- (2012). “Idazleen hierarkizazioa euskal sisteman: idazleen ikuspegia eta irakaskuntzaren mikrosistema”, *UZTARO* 81, 41-59.
- Amorrortu Gómez, Estibaliz et al. (2006). “Autoitzulpenaren zenbait aspektu Unai Elorriagaren *SP-rako tranbia / Un tranvía en SP* lanean: XML azterketa literarioari aplikatuta”. *Oihenart* 22, Donostia: Oihenart, 83-126.
- Anderson, Kristine J. (2000). “Self-Translators”, O. Classe (ed.) *Encyclopedia of Literary Translation into English*, London: Fitzroy Dearborn 2: 2, 1.250-1.251.
- Anselmi, Simona (2012). *On self-translation. An exploration in self-translators' teloi and strategies*. Milano: Edizioni Universitarie di Lettere Economia Diritto.
- Apalategi, Ur (1998). “Atxaga post-obabarra edo literatura autonomoaren heteronomizazioa”, *Uztaro* 27, 63-82.
- (2001). “Pour une critique contextuelle des «petites littératures». Bernardo Atxaga: l'invention de l'écrivain basque”, *Lapurdum* 6, 7-18.
- (2005). “Iparraldeko azken aldiko literatura euskal literatur sistemaren argitan (eta vice versa)”, *Lapurdum* 10 [sarean], 1-18. URL: <http://lapurdum.revues.org/32>
- (2013). “Euskal subjektuaren bilakaera erromaneskoa: desberdintze estrategiaren eta homologazio nahiaren arteko negoziaketa literario-ideologikoak”, 452°F. *Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria* 9 [sarean] 56-77. URL: [http://www.452f.com/pdf/numero09/09\\_452f-mono-ur-apalategi-orgnl.pdf](http://www.452f.com/pdf/numero09/09_452f-mono-ur-apalategi-orgnl.pdf) [azken kontsulta data: 2016/02/22].
- (2015). “The self-translating author in conflict with diglossic context: Iban Zaldua”, *Self-*

- translation: Local and Global* [ahozko aurkezpena], Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko Letren fakultatea (2015/02/26).
- Apodaka, Eduardo (2015). *Identitatea eta anomalia*, Iruña: Pamiela.
- Ar Rouz, David (2015). “De l'autotraduction à la traduction de soi : éléments de réflexion bretonne”, *Glottopol* 25, 103-123.
- Aresti, Gabriel (1982). “Gabriel Aresti: bere poesien antolojia laburra”, J. San Martin (ed.) *Egan* 1/6-1982, 13-52. URL:
- Arkotxa, Aurelia (2015). “La autotraducción como medio de creación en la génesis de *Mimodramak eta Ikonoak* de JM Lekuona”, *Self-translation: Local and Global* [ahozko aurkezpena], Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko Letren fakultatea (2015/02/26).
- (2016). “Itzulpenak euskal literaturan duen garrantziaz”, [ahozko aurkezpena], UPV/EHU, Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila (2016/04/18).
- Arrarats, Irene (2017). “Itzulpena eta kazetaritza: norenik gabeko lurretan itzultzen”, *Testu(inguru) orokorretik harago: itzulpenaz eta espezializazioaz* [ahozko aurkezpena], Donostia: UPV/EHU-EIZIE, Udako ikastaroak (2017/06/29).
- Arrula Ruiz, Garazi (2013a). “Itzultzaileak mintzo: Eider Rodriguez”, *elearazi* (2013/03/11). URL: <http://elearazi.eizie.eus/2013/03/11/idazleak-mintzo-eider-rodriguez/>
- (2013b). “3 E-ak: eleberria, egungoa eta etxekoa”, *Berria* (2013/06/09). URL: [http://www.berria.eus/paperekoa/2137/035/001/2013-06-09/3\\_e\\_ak\\_eleberria\\_egungoa\\_eta\\_etxekoa.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/2137/035/001/2013-06-09/3_e_ak_eleberria_egungoa_eta_etxekoa.htm)
- (2014). “Itzuldazleak mintzo: Itxaro Borda”, *elearazi* (2014/11/10). URL: <http://elearazi.eizie.eus/2014/11/10/itzuldazleak-mintzo-itxaro-borda/>
- (2017). “What we talk about when we talk about Identity in Self- Translation”, *Ticontre 7, Sezjone monografica - Narrating the Self in Self-translation*. URL: <http://www.ticontre.org/ojs/index.php/t3/article/view/155>.
- Artaza, Miguel (2010). “Karme Jaio edita en castellano una selección de sus mejores relatos”, *El Correo* (2010/06/24). URL: <http://www.elcorreo.com/vizcaya/v/20100624/cultura/karme-jaio-edita-castellano-20100624.html>
- Astiz, Iñigo (2015). “«Literatura batek, sendotzeko, gatazka behar du bere barruan»”, *Berria* (2015/02/04). URL: [https://www.berria.eus/paperekoa/1744/024/001/2015-02-04/literatura\\_batek\\_sendotzeko\\_gatazka\\_behar\\_du\\_bere\\_barruan.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1744/024/001/2015-02-04/literatura_batek_sendotzeko_gatazka_behar_du_bere_barruan.htm)
- (2017). “«Kultura txikiok badugu kristalezko kupula bat»”, *Berria* (2017/01/25). URL: [https://www.berria.eus/paperekoa/1761/022/001/2017-01-25/kultura\\_txikiok\\_badugu\\_kristalezko\\_kupula\\_bat.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1761/022/001/2017-01-25/kultura_txikiok_badugu_kristalezko_kupula_bat.htm)
- “Atakak aurkeztuko dute gaur gazteleraz” (2013). *Hitzzen Uberan* (2013/04/25), s/g. URL: <http://uberan.eus/?kaia/item/atakak-aurkeztuko-dute-gaur-gazteleraz>
- Atxaga, Bernardo (1995). *Dos hermanos*, Madrid: Ollero & Ramos.
- “Aurelia Arkotxa euskaltzain oso” (2007). *Plazaberri* 13 (2007ko apirila), Euskaltzaindia, s/g. URL: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/plazaberri/0013/ghigarriak/aurelia.pdf>
- “Aurelia Arkotxa, nueva académica” (2007). *Euskalkultura.com* (2007/03/31), s/g. URL: <http://www.euskalkultura.com/espanol/noticias/aurelia-arkotxa-nueva-academica-si-la-diaspora-precisa-de-un-embajador-en-euskaltzaindia-yo-estoy-dispuesta>
- “Autokarabana orain Autocaravana da” (2012). *Nontzeberri.eus* (2012/03/13), s/g. URL: <http://nontzeberri.eus/autokarabana-orain-autocaravana-da>
- Ayerbe Sudupe, Mikel (2016). *Euskal literatura garaikidea kritika genetikoaren argitan: Aresti, Sarrionandia, Saizarbitoria eta Atxagaren idazlanen sorkuntza prozesua aztergai*, UPV/EHU-Université Bordeaux Montaigne.

- Azurmendi, Joxe (2007). *Humboldt. Hizkuntza eta pentsamendua*, Bilbo: UEU.
- Baker, Mona (2009) (ed.). *Critical Readings in Translation Studies*. London & New York: Routledge.
- (2011). *In other words. A coursebook on translation*, Second edition. London & New York: Routledge.
- Bakhtin, Mikhail (1981). *The dialogic imagination: Four essays by M.M. Bakhtin* (itz. C. Emerson) M. Holquist (ed.), Austin: University of Texas Press.
- (1994). "The Heteroglot Novel", P. Morris (ed.) *The Bakhtin Reader*, London: Arnold, 112-119.
- Bandia, Paul (2006a). "The Impact of Postmodern Discourse on the History of Translation", G.L. Bastin & P.F. Bandia (eds.) *Charting the Future of Translation History*, Ottawa: University of Ottawa Press, 45-58.
- (2006b). "African European-Language Literature and Writing as Translation: Some Ethical Issues", T. Hermans (ed.) *Translating Others* vol.2, Manchester: St. Jerome Publishing Ltd., 349-361.
- Barambones, Josu (2009). *La traducción audiovisual en ETB-1: Estudio descriptivo de la programación infantil y juvenil*, Euskal Herriko Unibertsitatea [Doktore-tesia].
- Barandiaran, Alberto (2016). "Euskal kultura 2016", *Jakin* 217, 67-72.
- Barker, Chris (2003). *Televisión, globalización e identidades culturales*. Barcelona: Paidós.
- Bassnett, Susan (2013). "The Self-Translator as Rewriter", A. Cordingley (ed.) *Self-translation: Brokering originality in hybrid culture*, London & New York: Bloomsbury, 13-25.
- Bassnett, Susan & Lefevere, André (1990) (eds.). *Translation, History & Culture*, London-New York: Cassell.
- Basterot, Francis (2007). *La légende du Chêne Noir*, Baiona: Maiatz.
- Beaujour, Elizabeth Klosty (1989). *Alien Tongues – Bilingual Writers of the First Emigration*, Ithaca-London: Cornell University Press.
- Berro, Irune (2007). "«Itzulpenak sustatzeko, joan-etorriko zubiak egin behar ditugu herrien artean»", *Berría* (2007/05/30). URL: [http://paperekoa.berria.eus/papera\\_inprimatu.php?html=BERRIA&urtea=y2007&hilabetea=m05&eguna=d20070530&orria=p00042826](http://paperekoa.berria.eus/papera_inprimatu.php?html=BERRIA&urtea=y2007&hilabetea=m05&eguna=d20070530&orria=p00042826)
- Bessy, Marianne (2011). "Subversive autotraduction: Mise en évidence du décalage entre le discours critique et les pratiques scripturales des auteurs bilingues contemporains", *Intercâmbio*, II série, n° 4, 38-58. URL: <http://ler.letras.up.pt/uploads/ficheiros/10347.pdf>
- "Bi saiakera emazteen izenean" (2014). *Euskal Irratiak* [audio] 2014/12/02, s/g. URL: <http://euskalirradiak.eus/%E2%80%9Cbi-saiakera-emazteen-izenean%E2%80%9D-marikita-tambourin.html>
- Bilbao, Gidor (1991). "Larramendiren garaikide bat: zenbait xehetasun Joanes Etxeberri Sarakoaz", *ASJU* XXV-3, 751-768.
- (2015). "Eskuarara ganbiatzea", *31eskutik* (2015/12/09), EIZIE. URL: <https://31eskutik.com/2015/12/09/eskuarara-ganbiatzea/> [azken kontsulta data: 2016/04/26].
- Billé, Philippe (2007). "De plus en plus", *Journal documentaire* (2007/01/30). URL: <http://journaldoc.canalblog.com/archives/2007/01/30/3845221.html> [azken kontsulta data: 2016/03/02].
- Brisset, Annie (1995). "En québécois : langue de traduction, discours de l'identité", *Identité et culture nationales: l'Amérique française en mutation*, Québec: Presses de l'Université Laval, 291-312.
- Borda, Itxaro (2013). "Itzuli eta ibili mundua: poesia itzultzeaz", *Itzulpenaren teoria eta jarduna: bideak urratzen* [ahozko aurkezpena], Baiona: UEU, Udako ikastaroak (2013/07/11).



- Bourdieu, Pierre (1992). *Les règles de l'art. Genèse et structure du champ littéraire*, Paris: Editions du Seuil.
- Butron, Ainize (2000). “«Maiatzekin hasi zen bideak, 20 urteren buruan jarraitzen du, biziak beti aitzina bultzatzen gaituelako»”, *Euskonews* 90. URL: <http://www.euskonews.com/0090zkb/elkar9001eu.html> [azken kontsulta data: 2015/06/05].
- Calvet, Louis-Jean (1999). *Pour une écologie des langues du monde*, Paris: Plon.
- Cano, Harkaitz (2014). “Bide bakarra eta beste zenbait bide”, *Jakin* 205, Donostia: Jakin, 11-32.
- (2017). “Euskal literatura eta itzulpengintza”, *Eztabaidak Literaturarekin XXI. mendean* [solasaldia], Bilbo: Bidebarrieta liburutegia (2017/02/14).
- Casanova, Pascale (1999). *La république mondiale des lettres*, Paris: Seuil.
- (2002). “Consécration et accumulation de capital littéraire. La traduction comme échange inégal”, *Actes de la recherche en sciences sociales* 144. Traductions: les échanges littéraires internationaux, 7-20.
- Casenave, Jon (2010). “Euskal literaturaren historia. Eredu berrituaren aurkezpen historiografikoa”, *Euskera* 55, Bilbo: Euskaltzaindia, 797-817.
- Castilla, Amelia (2014). “Bernardo Atxaga viaja al Oeste”, *El País* (2014/04/05). URL: [https://elpais.com/cultura/2014/04/02/actualidad/1396432915\\_869973.html](https://elpais.com/cultura/2014/04/02/actualidad/1396432915_869973.html)
- Castro, Olga (2011). “Apropiación cultural en las traducciones de una obra (autotraducida): la proyección exterior de *Herba Moura*, de Teresa Moure”, X. M. Dasilva & H. Tanqueiro (eds.) *Aproximaciones a la autotraducción*, Vigo: Academia del Hispanismo, 23-43.
- Charron, Marc (1997). “Demain tout recommence : *Lord Durham's Report* en traduction”, *TTR : traduction, terminologie, rédaction* 10, n° 1, 101-136.
- Cid Abasolo, Karlos (2007). “El juego de los sentidos en la obra *Biotz-begietan* de José María Aguirre ‘Xabier Lizardi’”, *Revista de Filología Románica*, anejo V, 265-284.
- (2015). “Autotraducción literaria desde el vasco”, *Revista de Filología Románica*, Anejo IX, 177-192.
- Cocco, Simona (2009). “Lost in (Self-)Translation? Riflessione sull'autotraduzione”, *AnnaliSS. Lost in Translation. Testi e culture allo specchio* 6, 103-118. URL: [http://hostweb3.ammin.uniss.it/lingue/annali\\_file/vol\\_6/8\\_Cocco\\_Lost.pdf](http://hostweb3.ammin.uniss.it/lingue/annali_file/vol_6/8_Cocco_Lost.pdf) [azken kontsulta data: 2018/01/25].
- Cordingley, Anthony (2013) (ed.). *Self-translation: Brokering originality in hybrid culture*, London & New York: Bloomsbury.
- Corrius, Montse & Zabalbeascoa, Patrick (2011). “Language variation in source texts and their translations. The case of L3 in film translation”, *Target* 23:1, John Benjamins, 113-130.
- Cotoner Cerdó, Luisa (2011). “Variación cultural, técnicas y procedimientos estilísticos a propósito de las autotraducciones al castellano de Carme Riera”, *Tejuelo* Vol.10-1, 10-28.
- Cronin, Michael (2003). *Translation and Globalization*. London & New York: Routledge
- (2006). *Translation and Identity*, London & New York: Routledge.
- Cuciuc, Nina (2012). “La projection de la dualité linguistico-culturelle dans l'acte auto-traductif de l'auteur de la diaspora”. *La Francopohyphonie: L'interculturalité à travers la linguistique, la littérature et la traduction* [Chişinău] 7/2, 42-49. URL: [https://ibn.idsi.md/sites/default/files/imag\\_file/La%20projection%20de%20la%20dualite%20linguistico%20culturelle%20dans%20lacte%20auto%20traductif%20de%20lauteur%20de%20la%20diaspora.pdf](https://ibn.idsi.md/sites/default/files/imag_file/La%20projection%20de%20la%20dualite%20linguistico%20culturelle%20dans%20lacte%20auto%20traductif%20de%20lauteur%20de%20la%20diaspora.pdf) [azken kontsulta data: 2017/09/01].
- Dagnino, Arianna (2017). “Breaking the linguistic minority complex trough self-translation”, *Traduction et Minorité 2: Liberté et Difference* [ahozko aurkezpena], Ottawa: University of Ottawa (2017/11/11).

- Dasilva, Xosé Manuel (2009). "Autotraducirse en Galicia: ¿bilingüismo o diglosia?". *Quaderns. Revista de traducció* 16, 143-156. URL: <http://ddd.uab.cat/pub/quaderns/11385790n16p143.pdf>
- (2010). "La autotraducción vista por los escritores gallegos", E. Gallén, F. Lafarga & L. Pegenaute (eds.) *Traducción y autotraducción en las literaturas ibéricas*, Berna: Peter Lang, 265-279.
- (2011). "La autotraducción transparente y la autotraducción opaca", X. M. Dasilva & H. Tanqueiro (eds.) *Aproximaciones a la autotraducción*, Vigo: Academia del Hispanismo, 45-67.
- (2015). "El fenómeno de la autotraducción. La tipología de la autotraducción", *Self-translation: Local and Global* [ahozko aurkezpena], Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko Letren fakultatea (2015/02/26).
- (2016). "En torno al concepto de semiautotraducción". *Quaderns : revista de traducció* 23, 15-35.
- Davant, Jean-Louis (2010). "Pastoralaren historiaz (I/II)", *Euskonews* 520. URL: <http://www.euskonews.com/0520zbk/gaia52003eu.html#aurkibidea>
- Decrept, Etienne (1910a). *Maitena: pastorale lyrique en deux parties*, Baiona. URL: <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/24442>
- (1910b). "Lettre sur le Théâtre Basque", *RIEV* 4-2, 151-155.
- Delabastita, Dirk & Grutman, Rainier (2005). "Introduction", *Fictionalising translation and multilingualism*, special issue of *Linguistica Antverpiensia (New Series)* 4. 11-34.
- Diaz de Mendibil, Ismael (2005). "«El castellano también tiene que tener apoyo institucional», *Euskonews* 283. URL: [http://www.euskonews.com/0283zbk/elkar\\_es.html](http://www.euskonews.com/0283zbk/elkar_es.html)
- Dolharé-Çaldumbide, Katixa (2008). "Septentrioz Septentrio. Aurelia Arkotxaren bi libururen irakurketa bat", *Uztaro* 64, 35-52.
- (2013). "L'autotraduction dans l'oeuvre polyphonique d'Itxaro Borda", C. Lagarde & H. Tanqueiro (eds.) *L'autotraduction aux frontières de la langue et de la cultura*, 93-99.
- (2015). "L'autotraduction comme résistance aux ideologies aliénantes et voie vers la paix: l'exemple de l'oeuvre d'Itxaro Borda au Pays basque nord (Iparralde)", C. Lagarde (ed.) *L'autotraduction: une perspective sociolinguistique*. Glottopol n°25.
- Egia, Gotzon (1999). "Anjel Lertxundi eta Jorge Gimenez Bech: idazlea eta bere itzultzailea", *Senez* 21, Donostia: EIZIE, 113-126.
- Elkar Fundazioa (2018). "Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohiturak aztertu ditu Elkar Fundazioak, Siadeco Ikerketa Elkartearen eskutik", Donostia (2018/03/14).
- Elorriaga, Unai (2008). "Idazlea itzultzaile". *Senez* 35, Donostia: EIZIE, 177-182. URL: <http://www.eizie.org/eu/Argitalpenak/Senez/20081028/elorriaga>
- Eraso, Idoia (2016). "Batuetan uste dut beste hizkuntzetan mintzo diren eta euskara ulertzen ez duten irakurleei zor diegula elebitasuna", *Gara* (2016/03/28).
- Esparza, Iratxe & Lopez Gaseni, Jose Manuel (eds.) (2015). "El texto como lugar común de la transformación identitaria", *La identidad en la literatura vasca contemporánea*, Suitza: Peter Lang, 7-38.
- Etxeberria Ramírez, Isabel (2015). "Pana y terciopelo en la literatura vasca traducida y no traducida. Aspectos lingüístico-estilísticos resultantes de la comparación de dos corpus", *Metodologías y aplicaciones en la investigación en traducción e interpretación con corpus*, Universidad de Valladolid, 63-90. URL: <http://uvadoc.uva.es/handle/10324/16458>
- Etxeberria, Ixabel (2013). "Euskal Literatura ikusezina Iparraldean", *Hegats* 51, Donostia: EIE, 51-57.
- Etxebeste, Iratxe (2013). "Elkarrizketa: Anjel Lertxundi", *Hegats* 51, Donostia: EIE, 99-109.
- Etchezaharreta, Lucien (2002). "Euskarazko literatura Iparraldean XXI. mende atarian", *XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 661-666.

- Evangelista, Elin-Maria (2013). "Writing in translation: A new self in a second language", A. Cordingley (ed.) *Self-translation: Brokering originality in hybrid culture*, London & New York: Bloomsbury, 177-187.
- Even-Zohar, Itamar (1990a). "The Literary System", *Polysystem Studies [Poetics Today 11:1]*, 27-44.
- (1990b). "The Position of Translated Literature within the Literary Polysystem", *Polysystem Studies [Poetics Today 11:1]*, 45-51.
- (1994). "La función de la literatura en la creación de las naciones de Europa", D. Villanueva (ed.) *Avances en Teoría de la literatura: Estética de la Recepción. Pragmática, Teoría empírica y Teoría de los polisistemas*, Santiago de Compostela: Universidade de Santiago de Compostela, 357-377.
- (2010). *Papers in Culture Research*, Tel Aviv: Unit of Culture Research, Tel Aviv University.
- (2016). "Epílogo -- El trabajo ideacional y el caso vasco: algunas notas", J. Kortazar (ed.) *Autonomía e ideología: Tensiones en el campo cultural vasco*, Madrid & Frankfurt am Main: Iberoamericana & Vervuert, 377-380.
- Federman, Raymond (1993). *Critifiction: Postmodern Essays*. Albany: SUNY Press.
- Ferguson, Charles A. (1959). "Diglossia", *Word* 15, 325-340. Erabilitako iturria: (1964) D. Hymes (ed.) *Language in Culture and Society*, New York: Harper and Row, 429-439.
- Fernandez, Mauro (1995). "Los orígenes del término *diglossia*: historia de una historia mal contada", *Historiographia Linguística* 22, 1-2 zk, 163-195.
- Fernandez Guerra, Ana (2012). "Translating culture: problems, strategies and practical realities", *SIC journal* N°1.
- Figueroa, Antón (1988). *Diglossia e texto*, Vigo: Xerais.
- (2004). "La noción de campo literario y las relaciones literarias internacionales", I. Iñarrea Las Heras & M.J. Salinero Cascante (koor.) *El texto como encrucijada: estudios franceses y francófonos* I, 521-534.
- (2016). "Autonomía frente a ideología en el origen del campo artístico (literario): hacia un modelo teótico", J. Kortazar (ed.) *Autonomía e ideología: Tensiones en el campo cultural vasco*, Madrid & Frankfurt am Main: Iberoamericana & Vervuert, 21-71.
- Fishman, Joshua A. (1967). "Bilingualism with and without diglossia: diglossia with and without bilingualism", *Journal of Social Issues* XXIII, 2, 29-38.
- Fitch, Brian T. (1985). "The Status of Self-Translation", *Texte – revue critique at littéraire* 4, 111-125.
- (1988). *Beckett and Babel: An Investigation into the Status of the Bilingual Work*, Toronto: University of Toronto Press.
- Flores Silva, Beatriz (2017). "La reivindicación cultural e identitaria a través de la autotraducción: el caso de la poesía autotraducida de Xuan Bello del asturiano al español", *Revista de filoloxía asturiana*, vol. 17, Universidad de Oviedo, 171-194. URL: <https://www.unioviedo.es/reunido/index.php/RFA/article/view/12595/11563> [azken kontsulta data: 2018/01/25]
- Fouces González, Covadonga (2011). *La traducción literaria y la globalización de los mercados culturales*. Granada: Comares/Interlingua.
- Franco Aixelá, Javier (1996a). "Culture-specific Items in Translation", R. Álvarez & M.C.A. Vidal (eds.) *Translation, Power, Subversion*, Clevedon: Multilingual Matters Ltd., 52-78.
- (1996b). *Condicionantes de traducción y su aplicación a los nombres propios (inglés-español)*, Alicante: Universidad de Alicante [Tesis doctoral].
- Gabilondo, Joseba (2006). *Nazioaren hondarrak*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- (2013). *New York-Martutene: euskal postnazionalismoaren utopia eta globalizazio neoliberalaren krisiaz (edo nola desiratuko dugu orain?)*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

- (2016). *Before Babel: A History of Basque Literatures*, Lansing: Barbaroak.
- Gagnon, Chantal (2006). "Ideologies in the History of Translation: A Case Study of Canadian Political Speeches", G.E. Bastin & P.F. Bandia (zuz.) *Charting the Future of Translation History*, Ottawa: University of Ottawa Press, 210-223.
- Gandara Sorarrain, Ana (2012). "Euskal literatura sistema aztergai (I)", *EGAN* 1-2, 5-19.
- Gao Yan (2010). *A Comparative Study of Self-translation and Conventional Translation in Literature: A Case Study of Lin Yutang* [MA thesis]. Hangzhou: Zhejiang Normal University.
- Garate, Gotzon (2000). "Euskal Herria elebidun", *Jakin* 121, Donostia: Jakin, 81-101.
- Gasparini, Pablo (2010). "El portugués del otro o de la otredad del portugués: El inmigrante como traductor/traducido", *Revista Iberoamericana* 76, 81-99. URL: <http://revista-iberoamericana.pitt.edu/ojs/index.php/Iberoamericana/article/view/6649/6825>
- Genette, Gérard (1987). *Seuils*. Paris: Éditions du Seuil.
- Gentes, Eva (2009). *Toujours infidèle – Writing from the Midzone: Dieliterarische Selbstübersetzung im 20. Jahrhundert*, Munich: GRIN Verlag.
- (2013). "Potentials and Pitfalls of Publishing Self-Translations as Bilingual Editions", *Orbis litterarum* 68/3, 266-281.
- (2015). "Research on Self-translation: A general overview", *Self-translation: Local and Global* [ahozko aurkezpena], Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko Letren fakultatea (2015/02/26).
- Gentzler, Edwin (1993). *Contemporary Translation Theories*, London & New York: Routledge.
- (2001). *Contemporary Translation Theories (Revised 2nd Edition)*, Clevedon & Buffalo: Multilingual Matters.
- Grutman, Rainier (1997). *Des langues qui résonnent. L'hétérolinguisme au XIXème siècle québécois*, Université de Montréal [Thèse de doctorat].
- (1998[2009]). "Self-translation", M. Baker & G. Saldanha (eds.) *Routledge Encyclopedia of Translation Studies*. London & New York: Routledge, 257-260.
- (2002). "Les motivations de l'hétérolinguisme: réalisme, composition, esthétique", *Eteroglossia e plurilinguismo letterario*, Roma: Il Calamo, 329-349.
- (2005). "Diglossie littéraire", M. Beniamino & L. Gauvin (eds.) *Vocabulaire des études francophones: les concepts de base*, Limoges: Presses Universitaires de Limoges, 59-62.
- (2006). "Refraction and recognition. Literary multilingualism in translation" *Target* 18: 1, Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 17-47.
- (2009). "La autotraducción en la galaxia de las lenguas", *Quaderns: Revista de traducció* 16, 123-134.
- (2011). "Diglosia y traducción «vertical» (en y fuera de España)", X.M. Dasilva & H. Tanqueiro (eds.) *Aproximaciones a la autotraducción*, Vigo: Academia del Hispanismo, 69-91.
- (2013a). "Autotraduction, asymétrie, extraterritorialité", C. Lagarde & H. Tanqueiro (eds.) *L'autotraduction aux frontières de la langue et de la cultura*, 37-42.
- (2013b). "Beckett and Beyond. Putting Self-Translation in Perspective", *Orbis Litterarum* 68 (3), 188-206.
- (2013c). "A Sociological Glance at Self-translation and Self-translators", A. Cordingley (ed.) *Self-Translation: Brokering Originality in Hybrid Culture*. London: Continuum, 63-80.
- Guenaga, Aitor (2017). "«Las víctimas han tenido un comportamiento impecable»", *eldiario* (2017/01/07). URL: [http://www.eldiario.es/norte/euskadi/victimas-comportamiento-impecable\\_0\\_598440703.html](http://www.eldiario.es/norte/euskadi/victimas-comportamiento-impecable_0_598440703.html)

- Gurrutxaga, Alex (2017). "Istorio itzelak ukitzen", *Berria* (2017/01/08). URL: [https://www.berria.eus/paperekoa/1936/037/001/2017-01-08/istorio\\_itzelak\\_ukitzen.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1936/037/001/2017-01-08/istorio_itzelak_ukitzen.htm)
- Hall, Stuart (1996). "Who Needs 'Identity'?", S.Hall & P. Du Gay (eds.) *Questions of Cultural Identity*, London: Sage, 1-17.
- Harding, Casey (2015). "Author of the month: Sébastien Doubinsky", *The Missing Slate* (2015/01/11). URL: <http://themissingslate.com/2015/01/11/author-of-the-month-doubinsky/>
- Heilbron, Johan (1999). "Towards a Sociology of Translation. Book Translations as a Cultural World-System", *European Journal of Social Theory* 2(4): 429-444.
- Hermans, Theo (1999). *Translation in Systems. Descriptive and Systemic Approaches Explained*, Manchester: St. Jerome Publishing Ltd.
- (2009). "The Translator's Voice in Translated Narrative", M. Baker (zuz.) *Critical Readings in Translation Studies*, London & New York: Routledge, 193-212.
- Hernández, Juan A. (2007). "«Errealitatea ezin da onartu fantasiaren bahetik baizik»", *El País* (2007/06/11). URL: [https://elpais.com/diario/2007/06/11/paisvasco/1181590814\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2007/06/11/paisvasco/1181590814_850215.html)
- Hervey, Sándor G.J. & Higgins, Ian (1992). *Thinking Translation: A Course in Translation Method, French-English*, London & New York: Routledge.
- Hewson, Lance & Martin, Jacky (1991). *Redefining Translation: The Variational Approach*, London & New York: Routledge.
- Hokenson, Jan Walsh & Munson, Marcella (2007). *The Bilingual text. History and Theory of Literary Self-Translation*. Manchester: St. Jerome Publishing Ltd.
- Holmes, James (1972[1988]). "The Name and Nature of Translation Studies", *Translated!: Papers on Literary Translation and Translation Studies*, Amsterdam: Rodopi, 67-80.
- House, Juliane (1997). *Translation Quality Assessment: A Model Revisited*, Tübingen: Gunter Narr.
- Howarth, Caroline (2006). "A social representation is not a quiet thing: exploring the critical potential of social representations theory", *British journal of social psychology* 45 (1), 65-86. URL: <http://onlinelibrary.wiley.com/doi/10.1348/014466605X43777/epdf>
- Hurtado Albir, Amparo (2001). *Traducción y Traductología: Introducción a la traductología*, Madrid: Cátedra.
- Iban, Amagoia (2017). "Beste argitaratze baterako oharrak", *Berria* (2017/05/14).
- "Iban Zaldúa idazleari elkarrizketa [bideoa]" (2015). *Mintzanet.net* (2015/01/02), s/g. URL: <http://mintzanet.net/iban-zaldua-idazleari-elkarrizketa-bideoa/>
- Ibargutxi, Felix (2011). "Merkatua konkistatzeko estrategiak", *Diario Vasco* (2011/05/20). URL: <http://www.diariovasco.com/v/20110520/cultura/merkatua-konkistatzeko-estategiak-20110520.html>
- Ibarluzea Santisteban, Miren (2011). *Literatur itzulpenaren kritika. Lehen pausoak: dibulgazio-kritikaren azterketa*, Bilbo: Labayru.
- (2017). *Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean: eremuaren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itzultzaileak fikzioan*, UPV/EHU [doktore-tesia].
- Iglesias Santos, Montserrat (1999) (ed.). *Teoría de los polisistemas*, Madrid: Arco Libros.
- Irazustabarrena, Nagore (2000). "Literaturako berriak. Liburu berrien irakurle gosea", *Larrun* 34, Donostia: Argia.



- Iriarte, Maddalen (2016). "Harkaitz Canok 'Beti oporretan' ipuin-sorta aurkeztu digu", *Azpimarra* (2016/11/30). URL: <http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/azpimarra/bideoak/osoak/3664518/bideoa-harkaitz-canok-beti-oporretan-ipuinsorta-aurkeztu-digu/>
- Iturrioz, Pedro (1985). "Orixeren itsu-mutila", *Senex* 3, Donostia: EIZIE, 107-114.
- Iztueta Azurmendi, Ibai (2015). *Cultura vasca vs Euskal kultura*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Jaka, Aiora (2012). *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Jarillot Rodal, Cristina & Uribarri Zenekorta, Ibon (2011). "Politiques de la traduction dans un environnement multilingue: le cas basque", E. Dampierre, A-L. Metzger, V. Partensky & I. Poulin (éd.) *Traductions et partages: que pensons-nous devoir transmettre ?*, Ouvrage issu du XXXVIIe Congrès de la SFLGC (Société Internationale de Littérature Comparée), 190-198.
- Kasares, Paula (2011). "Diglosiaren purgatorioaz iruzkin kritikoa", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 79-80 (2-3), Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 199-205.
- Katan, David (1999[2014]). *Translating Cultures*, London & New York: Routledge.
- Kippur, Sara (2015). *Writing it twice: self-translation and the making of a world literature in French*, Evanston: Northwestern University Press.
- Klein-Lataud, Christine (1996). "Les voix parallèles de Nancy Huston", *TTR : traduction, terminologie, rédaction* 9/1, 211-231.
- Kortazar, Jon (2002). *Diglosia eta euskal literatura*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- (2016) (ed.). *Autonomía e ideología. Tensiones en el campo cultural vasco*, Madrid: Iberoamericana-Vervuert.
- Krause, Corinna (2005). "Translating Gaelic Scotland. The culture of translation in the context of modern Scottish Gaelic Literature". URL: <http://www.aberystwyth.ac.uk/mercator/images/CorinnaKrause.pdf>
- (2006). "Twins: Identical or not? The bilingual corpus of Scottish Gaelic Poetry", *In other words* 27, 13-20.
- (2007). *Eadar Dà Chànan: Self-Translation, the Bilingual Edition and Modern Scottish Gaelic Poetry*, Edinburgh: University of Edinburgh.
- Künzli, Alexander (2003). *Quelques stratégies et principes en traduction technique français-allemand et français-suédois*, Stockholm: Stockholms Universitet. URL: <http://www.diva-portal.org/smash/get/diva2:198303/FULLTEXT01.pdf>
- Lagarde, Christian (2013). "L'autotraduction, terra incognita?", C. Lagarde & H. Tanqueiro (eds.) *L'autotraduction aux frontières de la langue et de la cultura*, 9-19.
- (2015). "De l'individu au global: les enjeux psycho-sociolinguistiques de l'autotraduction littéraire", C. Lagarde (ed.) *L'autotraduction: une perspective sociolinguistique*, Glottopol n°25.
- Lakarra, Joseba (1996). *Refranes y sentencias (1596): ikerketak eta edizioa*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lambert, José & Van Gorp, Hendrik (1985). "On describing translations", T. Hermans (ed.) *The Manipulation of Literature*, London: Croom Helm.
- Lambert, José (1999). "Aproximaciones sistémicas y la literatura en las sociedades multiculturales", M. Iglesias (ed. & itz.) *Teoría de los polisistemas*, Madrid: Arco/Libros, 53-70.
- Larramendi Corpion, Goizane (2014). *Heterolinguismoa eta itzulpena: Saizarbitoriaren Ehun metro, Hamaika pauso eta Martutene eleberrien gaztelaniazko bertsioren azterketa*, Euskal Herriko Unibertsitatea [Master amaierako lan argitaragabea].
- (2015). "Heterolinguismoa Ramon Saizarbitoriaren eleberrigintzan", *Senex* 46, Donostia: EIZIE, 137-151.

- Larrañaga, Julene (2015). "Euskal literatur kritika aztergai", *Ortzadar-Deia* (2015/03/07). URL: [https://issuu.com/deia.com/docs/ortzadar\\_070315](https://issuu.com/deia.com/docs/ortzadar_070315)
- Larrauri, Eva (2007). "Karmele Jaio traducirá al castellano su novela 'Amaren eskuak', premiada en la Feria del Libro", *El País* (2007/06/08).
- Larrumbide, Gorka (2008). "Karmele Jaio adapta al castellano su exitosa primera novela en euskera, 'Las manos de mi madre'", *Diario Vasco* (2008/06/25). URL: <http://www.diariovasco.com/20080625/cultura/karmele-jaio-adapta-castellano-20080625.html>
- Lasagabaster, Jesus Maria (2002). "Presencia de escritores vascos en la narrativa española contemporánea", *Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikokoak* 2, Donostia-Iruña-Baiona: Eusko Ikaskuntza, 649-659.
- (2011). "Sarrera hitzak", M.J. Olaziregi (ed.) *Euskal literaturaren historia* [sarean]. URL: <http://www.basqueliterature.com/basque/historia>
- Laviosa, Sara (1998). "The Corpus-based Approach: A New Paradigm in Translation Studies", *Meta* 434, 474-479.
- (2002). *Corpus-based Translation Studies*. Amsterdam: Rodopi.
- Lefevre, André (1992). *Translation, rewriting and the manipulation of literary fame*. London & New York: Routledge.
- Lete, Xabier (1983). "Aintzin-solasa", Xabier Lizardi (eg.) *Olerkiak*, Donostia: Erein.
- Lewis, Justin (1994). "The Meaning of Things: audiences, ambiguity, and power", J. Cruz & J. Lewis (eds.) *Viewing, Reading, Listening: Audiences and Cultural Reception*, Boulder: Westview Press.
- Lizardi, Xabier (1932). *Biotz-begietan*, Bilbo: Verdes Atxirika.
- Lopez Gaseni, Manu (2000). *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak*, Bilbo: UPV/EHU.
- (2005). *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- (2009). "Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)". *Senez* 37, Donostia: EIZIE. URL: [http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/20091026/lopez\\_gaseni](http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/20091026/lopez_gaseni)
- Lopez Lopez-Gay, Patricia (2009). "Pour une visibilité de la traduction? L'autotraduction en tant que produit culturel dans le champ littéraire", *Quaderns: Revista de traducció* 16, 113-116. URL: <http://ddd.uab.cat/pub/quaderns/11385790n16p107.pdf>
- Luku, Antton (2008). *Euskal kultura?*, Iruña: Pamiela.
- Mangiron i Hevia, Carme (2006). *El tractament dels referents culturals a les traduccions de la novel·la Botxan: la interacció entre els elements textuals i extratextuals*, Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona [Tesis doctoral]. URL: <http://hdl.handle.net/10803/5270>
- Manterola, Elizabete (2011). "La autotraducción en la literatura vasca", X.M. Dasilva & H. Tanqueiro (eds.) *Aproximaciones a la autotraducción*, Vigo: Academia del Hispanismo, 111-140.
- (2012). *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia*, Bilbo: UPV/EHU.
- (2014). *Euskal literatura itzulia. Bernardo Atxagaren lanak erdaretan*, Bilbo: UPV/EHU.
- (2015). "La autotraducción en el contexto vasco: entre distancia interlingüística y la constitución de un campo literario nacional transfronterizo", C. Lagarde (ed.) *L'autotraduction: une perspective sociolinguistique*, Glottopol n°25.
- (2017). "Collaborative Self-Translation in a Minority Language: Power Implications in the Process, the Actors and the Literary Systems Involved", O. Castro, S. Mainer & S. Page (eds.) *Self-translation and Power*, London: Palgrave Macmillan, 191-215.
- Martínez-Lage, Miguel (2003). "Estimar la estima II", *El Trujamán*. URL: [https://cvc.cervantes.es/trujaman/anteriores/mayo\\_03/30052003.htm](https://cvc.cervantes.es/trujaman/anteriores/mayo_03/30052003.htm)

- Mattioli, Virginia (2014). *Identificación y clasificación de culturemas y procedimientos traductores en el archivo de textos literarios LIT\_ENIT\_ES: un estudio de corpus*, Universitat Jaume I [Trabajo Fin de Máster]. URL: <http://repositori.uji.es/xmliui/handle/10234/112279>
- Mayoral Asensio, Roberto (1994). “La explicitación de la información en la traducción intercultural”, A. Hurtado (ed.) *Estudis sobre la traducció*, Castellón de la Plana: Publicacions de la Universitat Jaume I.
- Meabe, Miren Agur (2018). “Mahai-ingurua: Itxaro Borda, Miren Agur Meabe, Iban Zaldúa”, *Autoitzulpena eremu diglosikoetan* [solosalidia], Vitoria-Gasteiz: EHUko Letren fakultatea (2017/12/14).
- Mendiguren Bereziartu, Xabier (1980). “Itzulpenaren mundua eta euskal itzultzaileen oinarrizko prestakuntzarako eskola”, *Euskera XXVI*, 933-1003.
- (1995). *Euskal itzulpengintzaren historia laburra*, Donostia: Elkar.
- Merino, Raquel (1994). *Traducción, tradición y manipulación: teatro inglés en España 1950-1990*, Universidad de León & Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Meylaerts, Reine (2006). “Heterolingualism in/and translation. How legitimate are the Other and his/her language? An introduction”, *Target* 18: 1, Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 1-15.
- Miranda, Xosé (2007). “Problemas da literatura galega: editoriais, críticos, libeiros, xornais...”, *A Nosa Terra* 1253, 23.
- Mitxelena, Koldo (1978). “Euskararen bide luze bezain malkarrak”, *Euskararen liburu zuria*, Bilbo: Euskaltzaindia, 15-28.
- (1981[2001]). “Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak”, A. Lertxundi (ed.) *Koldo Mitxelena gure artean*, Zarautz: Alberdania, 53-72.
- Molina Martínez, Lucía (2001). *Análisis descriptivo de la traducción de los culturemas árabe-español*, Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona [Tesis doctoral]. URL: <https://ddd.uab.cat/pub/tesis/2001/tdx-1025104-172853/lmm1de1.pdf>
- Montorio, Bego (2007). “Euskal literatura gaztelaniaz. Itzulpena, autoitzulpena, bertsioak...”, *Senez* 32, Donostia: EIZIE. URL: <http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20080201/montorio>
- Morel Borotra, Natalie (1993). “Un ópera labourdin à Bilbao : Maitena, d'Etienne Decrept et Charles Colin”, *Cuadernos de Sección. Música* (6), 59-83.
- Moscovici, Serge (1988). “Notes towards a description of social representations”, *European Journal of Social Psychology* 18, 211-250.
- (2000). *Social Representations. Explorations in Social Psychology*, Cambridge: Polity Press.
- Munday, Jeremy (2007). “Translation and Ideology: A Textual Approach”, *The Translator (Special Issue. Translation and Ideology: Encounters and Clashes)* 13, nº 2, 195-217.
- Newmark, Peter (1988). *A textbook of translation*, New York: Prentice Hall.
- Nida, Eugene (1945). “Linguistics and Ethnology in Translation-Problems”, *Word* 1-2, 194-208.
- (1964). *Toward a Science of Translating with Special Reference to Principles and Procedures Involved in Bible Translating*. Leiden: E.J. Brill.
- Nikolaou, Paschalis (2005). “From the many lives of Self-Translation”, *In other words: the journal for literary translators* 25, 28-34.
- Nobile, Selena (2005). “La generación del olvido: entrevistas a seis escritores vascos actuales”, *Oihenart* 20, 47-72.
- Noonan, Harold & Curtis, Ben (2017). “Identity”, E.N. Zalta (ed.) *The Stanford Encyclopedia of Philosophy* (Spring 2017 edition). URL: <https://plato.stanford.edu/archives/spr2017/entries/identity/>



- Nord, Christiane (1997). *Translating as a purposeful activity*, Manchester: St. Jerome Publishing Ltd.
- Olalla-Soler, Christian & Hurtado Albir, Amparo (2014). “Estudio empírico de la traducción de los cultuemas según el grado de adquisición de la competencia traductora. Un estudio exploratorio”, *Sendebat* 25, 9-38.
- Olarra, Xabier (2017). “Euskal literatura eta itzulpengintza”, *Eztabaidak Literaturarekin XXI. mendean* [solasaldia], Bilbo: Bidebarrieta liburutegia (2017/02/14).
- Olaziregi, Mari Jose (1998). *Euskal gazteen irakurzaletasuna. Azterketa soziologikoa*, Bergara: Bergarako Udala.
- (2000). “Euskal literatur sistema milurte berriaren atarian”, *Uztaro* 34, 87-96.
- Oliveira, Ana (2013). “Hasier Larretxea publica el poemario *Barreras*”, *Noticias de Navarra* (2013/04/24).
- Ormaetxea, Nikolas Orixte (1929) (itz.). *Tormes'ko itsu-mutila* (egile ezezaguna), Bilbo: Verdes Atxirika.
- (1933). “Lizardi'ren azken-olerkiak”, *Yakintza* 1933-12. URL: <http://kritikak.armiarma.eus/?p=3460>
- Oustinoff, Michael (2001). *Bilinguisme d'écriture et auto-traduction (Julien Green, Samuel Beckett, Vladimir Nabokov)*, Paris: L'Harmattan.
- Oviedo, Alex (2008). “Escritores, vascos... y en castellano”, *Pergola* 185, Bilbo.
- Pallí, Cristina & Martínez, Luz M<sup>a</sup> (2004). “Naturaleza y organización de las actitudes”, *Introducción a la psicología social*, Barcelona: Editorial UOC, 183-254.
- Parcerisas, Francesc (2002). “Sobre la autotraducción”, *Quimera: revista de literatura* 210, 13-14.
- (2007). “Idéologie et autotraduction entre cultures asymétriques”, *Atelier de traduction* 7, 111-119.
- (2009). “De l'asymétrie au degré zéro de l'autotraduction”, *Quaderns: Revista de traducció* 16, 117-122. URL: <http://ddd.uab.cat/pub/quaderns/11385790n16p107.pdf>
- (2011). “Autotraducción y ‘lógica moral’: unos ejemplos autobiográficos”, X. M. Dasilva & H. Tanqueiro (eds.) *Aproximaciones a la autotraducción*, Vigo: Academia del Hispanismo, 165-176.
- Paya, Xabier (2006). “Bat-bateko itzulpengintza: gakoak eta azterbideak”, *Senex* 30, Donostia: EIZIE, 167-184.
- Perez, Ander (2016). “«Literaturak ez du islatzen errealitatea: sortu egiten du»”, *Berria* (2016/05/08). URL: [https://www.berria.eus/paperekoa/1943/034/001/2016-05-08/literaturak\\_ez\\_du\\_islatzen\\_errealitatea\\_sortu\\_egiten\\_du.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1943/034/001/2016-05-08/literaturak_ez_du_islatzen_errealitatea_sortu_egiten_du.htm)
- Perry, Menakhem (1981). “Thematic and Structural Shifts in Autotranslations by Bilingual Hebrew-Yiddish Writers”, *Poetics Today* 2-4, 181-192.
- Pierre, Thomas (2010). “Marie Darrieussecq. Écrivain: *Le Pays est un livre très utopiste qui imagine une planète faite de petits pays*”, *Euskonews* 549. URL: <http://www.euskonews.com/0549zkb/gaia54903fr.html>
- Pisanski Peterlin, Agnes (2015). “Self-Translation in the academic field”, *Self-translation: Local and Global* [ahozko aurkezpena], Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko Letren fakultatea (2015/02/26).
- Poch Olivé, Dolores & Harmeignies, Bernard (2004). “Aspectos lingüísticos de la autotraducción”, Milka Villayandre Llamazares (coord.) *Actas del V Congreso de Lingüística General* 3, 2259-2268.
- Pujal i Llombart, Margot (2004). “La identidad (el self)”, *Introducción a la psicología social*, Barcelona: Editorial UOC, 93-138.
- Pym, Anthony (2003). “On the social and the cultural in Translation Studies”, A. Pym, M. Shlesinger & Z. Jettmarová (eds.) *Sociocultural Aspects of Translating and Interpreting*, Amsterdam & Philadelphia: Benjamins, 1-25.

- (2009). "The translator as Non-Author, and I'm Sorry about That", C. Buffagni, B. Garzelli & S. Zanotti (eds.) *The translator as Author*, Muenster: LIT Verlag, 31-44.
- Ramis, Josep Miquel (2014). *Autotraducció. De la teoria a la pràctica*, Barcelona: Eumo Editorial.
- Razumova, Lyudmila (2013). "Self-translation intranslingual writing", C. Lagarde & H. Tanqueiro (eds.) *L'autotraduction aux frontières de la langue et de la culture*, 185-192.
- Recuenco Peñalver, María (2011). "Más allá de la traducción: la autotraducción", *Trans. Revista de traductología* 15, 193-208.
- Retolaza, Iratxe (2009). *A historia literaria vasca: Fundamentación orgánica, opciones discursivas e legitimación autorial*, Santiago de Compostela [master lana].
- (2011). "Cánones y contra-cánones: vías de legitimación y deslegitimación en la poesía vasca", A. Casas & B. Bollig (eds.) *Resistance and Emancipation*, Oxford: Peter Lang, 225-248.
- Ricoeur, Paul (2004). *Sur la traduction*, Paris: Bayard.
- Rozas, Ixiar (2017). "Traizioa bikaintzen (itzulpengintzaz-autoitzulpengintzaz)", (elk.) I. Astiz [solosaldua], Donostia: Koldo Mitxelena Kulturunea. URL: [https://www.youtube.com/watch?v=6tKJ7JIUU\\_w](https://www.youtube.com/watch?v=6tKJ7JIUU_w)
- Said, Edward W. (1993). *Culture and Imperialism*, New York: Knopf.
- Sanchez Carrion, Jose M. "Txepetx" (1974). "Bilinguismo, disglosia, contacto de lenguas. hacia una delimitacion de conceptos", *Anuario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 3-79.
- Santoyo, Julio César (2002). "Traducciones de autor: una mirada retrospectiva", *Quimera* 210, 27-32.
- (2005). "Autotraducciones: Una perspectiva histórica", *Meta* 50:3, 858-867.
- (2011). "La autotraducción intratextual", X.M. Dasilva & H. Tanqueiro (eds.) *Aproximaciones a la autotraducción*, Vigo: Academia del Hispanismo, 217-230.
- (2012). "Autotraducciones: ensayo de tipología", P. Martino Alba, J.A. Albaladejo Martínez & M. Pulido (eds.) *Al humanista, traductor y maestro Miguel Ángel Vega Cernuda*, Madrid: Dykinson, 205-222.
- (2014). "Autotraducciones: ensayo de tipología", P. Marino Alba, J.A. Albaladejo & M. Pulido (eds.) *Al humanista, traductor y maestro Miguel Ángel Vega Cernuda*, Madrid: Dykinson, 205-222.
- Sanz, Zuriñe (2015). *Unitate fraseologikoen itzulpena: alemana-euskara*, Euskal Herriko Unibertsitatea [doktore-tesia].
- Sarasola, Beñat (2015). *Bainaren belaunaldia*, Bilbo: Labayru Institutua.
- Sarasola, Ibon (1982). *Historia social de la literatura vasca*, Madrid: Akal.
- Sarrionandia, Joseba (2002). "Joseba Sarrionandia", Hasier Etxeberria (elk.) *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*, Irun: Alberdania, 277-346.
- Sarriugarte, Danele (2012). "Idazleak itzultzaile: Uxue Alberdi", *clearazi* (2012/10/19). URL: <http://clearazi.eizie.eus/2012/10/19/idazleak-itzultzaile-uxue-alberdi/>
- Schleiermacher, Friedrich (2012). "On the Different Methods of Translating" (itz. Susan Bernofsky), L. Venuti (ed.) *The translation studies reader*, London & New York: Routledge, 43-63.
- Seisdedos, Ania M. (2015). "Lourdes Oñederra traduce al castellano su exitosa novela 'Intemperies. Babes bila'", *Diario Vasco* (2015/03/10). URL: <http://www.diariovasco.com/culturas/201503/10/lourdes-onederra-traduce-castellano-20150310180915.html>
- Sinclair, John (2004). *Developing linguistic corpora: a guide to good practice. corpus and text – basic principles*. URL: <http://ota.ahds.ac.uk/documents/creating/dlc/chapter1.htm>
- Spivak, Gayatri Chakravorty (1993). "The Politics of Translation", *Outside in the Teaching Machine*, London & New York: Routledge, 179-200.

- Steiner, George (1975[1998]). *After Babel*, Oxford: Oxford University Press.
- Stryker, Sheldon & Burke, Peter J. (2000). "The past, present, and future of an identity theory", *Social Psychology Quarterly* 63(4), Washington: American Sociological Association, 284-297.
- Suchet, Myriam (2014). *L'Imaginaire bétérolingue. Ce que nous apprennent les textes à la croisée des langues*, Paris: Classiques Garnier.
- Tajfel, Henri & Turner, John C. (1979). "An integrative theory of intergroup conflict", *The social psychology of intergroup relations?*, 33-47.
- Tanqueiro, Helena (1999). "Un traductor privilegiado: el autotraductor", *Quaderns: Revista de traducció* 3, 19-27.
- (2002). *Autotradução: Autoridade, privilégio e modelo*, Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona. URL: <http://www.tdx.cat/handle/10803/5259>
- (2009). "L'Autotraduction en tant que traduction", *Quaderns: Revista de traducció* 16, 108-112. URL: <http://ddd.uab.cat/pub/quaderns/11385790n16p107.pdf>
- (2011). "Sobre la autotraducción de referentes culturales en el texto original: la autotraducción explícita y la autotraducción *in mente*", X.M. Dasilva & H. Tanqueiro (eds.) *Aproximaciones a la autotraducción*, Vigo: Academia del Hispanismo, 245-259.
- (2013). "La autotraducción: perspectivas abiertas", C. Lagarde & H. Tanqueiro (eds.) *L'autotraduction aux frontières de la langue et de la cultura*, 275-281.
- Toledo Lezeta, Ana (2010). "Euskal literaturaren sistema: historia baterako aukera-irizpideak", *Euskera* 55, Bilbo: Euskaltzaindia, 767-800.
- Torrealdai, Joan Mari (1997). *Euskal kultura gaur*, Donostia: Jakin.
- (2014). "Euskal liburugintza 2013", *Jakin* 205, Donostia: Jakin.
- (2015). "Euskal liburugintza 2014", *Jakin* 213, Donostia: Jakin.
- Toury, Gideon (1980). *In Search of a Theory of Translation*, Tel Aviv: The Porter Institute.
- (1978[2000]). "The nature and role of norms in literary translation", L. Venuti (ed.) *The Translation Studies Reader*, London & New York: Routledge, 198-211.
- (1995[2012]). *Descriptive Translation Studies and Beyond*, Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Tubia, Iker (2013). "«Hammetten uzta irakurtzeak egin nau nobela beltzaren zale»", *Berria* (2013/12/20). URL: [https://www.berria.eus/paperekoa/1634/032/001/2013-12-20/hammetten\\_uzta\\_irakurtzeak\\_egin\\_nau\\_nobela\\_beltzaren\\_zale.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1634/032/001/2013-12-20/hammetten_uzta_irakurtzeak_egin_nau_nobela_beltzaren_zale.htm)
- Turner, John C. (1999). "Some current issues in research on social identity and self categorization theories", N. Ellemers, R. Spears & B. Doojse (eds.) *Social identity: context, commitment, content*, Oxford: Blackwell, 6-34.
- Tylor, Edward Burnett (1976). *Cultura primitiva* (itz. Marcial Suárez), Madrid: Ayuso.
- Tymoczko, Maria (1998). "Computerized Corpora and the Future of Translation Studies", *Meta* 43-4, Montréal: Les Presses de l'Université de Montréal, 652-659.
- (2003). "Ideology and the Position of the Translator - In What Sense is a Translator 'In Between'?", M. Calzada Pérez (ed.) *Apropos of Ideology: Translation Studies on Ideology - Ideologies in Translation*, Manchester: St. Jerome Publishing Ltd, 181-201.
- (2007). *Enlarging translation, empowering translators*, Manchester: St. Jerome Publishing Ltd.
- (2013). "Translation theory", C.A. Chapelle (ed.) *The Encyclopedia of Applied Linguistics*, Iowa State University.

- Uribarri, Ibon (2011). "Dialectics of Opposition and Construction: Translation in the Basque Country", D. Asimakoulas & M. Rogers (eds.) *Translation and Opposition*. Bristol: Multilingual Matters.
- (2013). "Pseudo-autotraducciones. Un caso en los orígenes de la literatura vasca", C. Lagarde & H. Tanqueiro *L'autotraduction aux frontières de la langue et de la culture*, Limoges: Lambert-Lucas.
- (2015). "Self-translation within a diglossic environment", *Self-translation: Local and Global* [ahozko aurkezpena], Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko Letren fakultatea (2015/02/26).
- Urkiaga, Esteban "Lauaxeta" (1935). *Arrats beran*, Bilbo: E. Verdes Achirica.
- Urkiza, Ana (2006). *Zortzi unibertso, zortzi idazle*, Irun: Alberdania.
- Urquijo, Julio (1911). *Los refranes y sentencias de 1956. Estudio comparativo*, RIEV. URL: <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/05/05375401.pdf>
- Van Bolderen, Trish (2014). "Huston, we have a problem... (Or what on earth is 'Canadian self-translation' supposed to mean?)", *Tradução em Revista* 16, 2014/1, 83-94.
- Vazquez-Ayora, Gerardo (1977). *Introducción a la traductología: curso básico de traducción*, Washington D.C.: Georgetown University Press.
- Venuti, Lawrence (1995). *The Translator's Invisibility*. London & New York: Routledge.
- Véronique, Georges-Daniel (2012). "Catégorisation sociale et pratiques langagières : les analyses psychosociologiques de Paul Wald", *Langage et société* 4/2012 (N° 142), 11-22. URL : [www.cairn.info/revue-langage-et-societe-2012-4-page-11.htm](http://www.cairn.info/revue-langage-et-societe-2012-4-page-11.htm)
- Vinay, Jean-Paul & Jean Darbelnet (1995). *Comparative stylistics of French and English: a methodology for translation*, Amsterdam: John Benjamins.
- Weinreich, Peter (2003). "Identity Structure Analysis", P. Weinreich & W. Saunderson (eds.) *Analyzing Identity: Cross-Cultural, Societal and Clinical Contexts*, London & New York: Routledge, 7-76.
- Whyte, Christopher (2000). "Translation as Predicament", *Translation and Literature* 9, part 2, 179-187.
- (2002). "Against Self-Translation", *Translation & Literature* 11. URL: <http://zsdh.library.sh.cn:8080/FCKeditor/filemanager/upload/jsp/UserImages/1142297867406.pdf>
- Zabaleta, Jesus Mari (1984). *Euskal itzulpenaren antología*, Lazkao: Itzultzaile Eskola.
- Zalbide, Mikel (2011). "Diglosiaren purgatorioaz. Teoriatik tiraka", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 79-80 (2-3), Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 13-152.
- Zaldua, Iban (2012). *Ese idioma raro y poderoso*, Madrid: Lengua de Trapo.
- Zubillaga, Naroa (2013). *Alemanetik euskaratutako haur- eta gazte-literatura: zuzeneko nabiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez*, Euskal Herriko Unibertsitatea [doktore-tesia].
- Zubiri Esnaola, Harkaitz (2013). "Euskal literaturaren irakurleak zenbat eta nolakoak diren aztergai. Soziolinguistikako datuetatik eta irakurketa-ohiturei buruzko ikerketetatik abiatuta", *Uztaro* 87, 51-68.

**6**



# eranskinak

---

Formatu digitalean jarri ditugu honako fitxategi hauek:

- I. Euskarazko tesia
- II. Ingelesezko laburpena
- III. EUSAL katalogoa (4. atala)
- IV. Testu azterketaren lagin bat (6.2 atala)